
Ur nahasien erraiak. LGTB* esperientzia eta politizazioak Hego Euskal Herriko herri mugimenduetan.



Doktore tesia

Jokin Azpiazu Carballo

Zuzendaria: Marta Luxán Serrano

Ikerketa feministak eta generokoak doktorego programa

2020ko maiatza

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Aurkibidea

0. Sarrera eta esker onak.....	1
Testuingurua.....	6
Hurrengo orrietan.....	13
1. Ikerketaren ulermenerako mapa kontzeptual laburra.....	17
1.1 Marko kontzeptualaren funtzioa ikerketa honetan.....	18
1.2 Erabilitako terminologiaren inguruko azalpen gutxi batzuk.....	20
1.3 Kontzeptu teorikoak.....	28
1.3.1 Identitatea, interpelazioa, identifikazioa, eta subjektibazioa.....	28
1.3.2 Diferentzia.....	39
1.3.3 Diskurtsoa eta esperientzia.....	46
1.3.4 Sexualitatea eta Desira.....	55
1.3.5 Komunitateak eta mundu sozialak.....	61
1.3.6 Politika, politikoa eta mugimenduak.....	69
1.3.7 Identitate politikak.....	79
1.3.8 Interseksionalitatea.....	86
1.3.9 Homonormatibitatea.....	91
1.3.10 Homonazionalismoa.....	96
2. Nabigazio mapak eta txalupa zahar-berriak: ikerketa metodologiari buruzko argipenak.....	102
2.1 Ikerketa sortu, helburuak finkatu eta subjektuak definitzea.....	102
2.1.1 Ikerketaren helburuak.....	103
2.1.2 Ikerketa-subjektuak aurkitzea ala eraikitzea?.....	108
2.1.3 Ikerketa gainbegiratu.....	110
2.2 Ezagutza, kokapena eta mapak marrazteko talaiak.....	122
2.2.1 Zientziari kritika feministak eta ikuspegiak.....	123
2.2.2 Kokapenak eta eraginak.....	134
2.3 Erabilitako metodoa: analisi situazionala.....	145
2.3.1 Analisi Situazionala: jatorriak eta intereseko gakoak.....	146
3. Ur uherrak: LGTB* pertsonen esperientziak Hego EHko herri mugimenduetan.....	164
3.1 Ibilbide (ez hain) komunak.....	165
3.1.1 Lehen gerturatzeak.....	165
3.1.2 Motibazioak.....	169
3.1.3 Zer dago, baina, herri mugimenduetan?.....	178
3.2 Ur uherrak. LGTB* esperientziak mugimendu mistoetan.....	183
3.2.1 Identifikazioaren ur uherrak.....	184
3.2.2 Babesgune eta uneen ur uherrak.....	224
3.2.3 Komunitatearen ur uherrak.....	243
3.2.4 Isiltasunaren ur uherrak.....	266
3.2.5 Aukerak eta bazterrak: sexualitatearen ur uherrak.....	275
3.2.6 Mugako egoerak: ur uherren ur uherrak.....	286
3.2.7 Gorputzaren ur uherrak.....	298
Koda.....	309
4. Hego Euskal Herriko LGTB* politika kritikoei gainbegirada.....	312
4.1 Sarrera.....	312
4.2 LGTB mugimenduetara lehen gerturatzeak.....	314
4.2 Ur azkarrak: mugimenduak kapitalismo arrosaren, instituzionalizazioaren eta neoliberalismoaren aurrean.....	322
4.2.1 Kapitalismo arrosa, “gaypitalismoa”.....	323
4.2.2 Instituzionalizazio eta normalizazio prozesuak.....	328
4.2.3 Neoliberalismoa eta identitateen faktoria.....	333
4.3 Ur motelak: identitateetatik subjektura.....	340
4.3.1 Subjektu espezifikoak.....	347
4.4 Intimitateak, agendak, estrategiak eta distantziak.....	357

4.4.1 Intimitatea eta extimitatea.....	358
4.4.2 Agendak.....	363
4.4.3 Bidegurutzak.....	370
4.4.4 Estrategiak.....	375
4.4.5 Distantziak.....	388
4.5 Mugimenduak ur azkarren, motelen eta geldoen artean igerian.....	391
4.5.1 Normalizazioak eta irensteak.....	391
Diferentziaren despolitizazioa sistema neoliberalen.....	397
4.5.2 Esperientziak, nortasunak, subjektibotasun politikoak.....	407
4.5.3 Desioa eta politika.....	425
4.5.4 Proposamenak, agendak eta estrategiak. Dena zalantzan jarri berriz hasteko.....	429
5. Ondorioak: ikaspenak, irakaspenak, desioak eta politika okerrak.....	459
5.1 LGTB* politiken berezitasunak eta herri mugimenduei egiten dieten ekarpena. Zer ikasi dezakegu LGTB* politikez?.....	464
5.2 LGTB* politika <i>okerrak</i> gaur den etorkizunerako.....	469
5.3 Ikerketaren mugak, ezintasunak eta desioen zerrendan geratu direnak.....	472
6. Bibliografia.....	475

Taula eta ilustrazioen indizea

1. taula: lehen elkarrizketa multzoa. Parte-hartzaileen zerrenda eta ezaugarriak	117
2. taula: bigarren elkarrizketa multzoa. Parte-hartzaileen zerrenda eta ezaugarriak	118
1. ilustrazioa: mapa situazionalaren adibidea (norberak egina).....	153
2. ilustrazioa: egoeraren mapa ordenatua (norberak egina).....	155
3. ilustrazioa: mundu/arena sozialen mapa (norberak egina).....	156
4. ilustrazioa: posizioen mapa (norberak egina).....	157
5. ilustrazioa: herri mugimenduetan parte hartzeko motibazioak (norberak egina).....	165
6. ilustrazioa: gizakia lurra zapaltzen, argazkia (NASA, 1969).....	184
7. ilustrazioa: pegatina, Eibarren, 2000eko hamarkada.....	197
8. ilustrazioa: kokapenen mapa II (norberak egina).....	229
9. ilustrazioa: mundu sozialen mapa III (norberak egina).....	241
10. ilustrazioa: mundu sozialen mapa III (norberak egina).....	252
11. ilustrazioa: mundu sozial eta diskurtsiboen mapa III (norberak egina).....	258
12. ilustrazioa: esperientzia, identitatea eta subjektibotasuna (norberak egina).....	429

→ Azaleko irudia:

Zure bihotza ukabil baten tamainako giharra da. Segi maitatzen, segi borrokan.

“You heart is a muscle the size of your fist. Keep loving, keep fighting”

Serigrafia. Kevin Kaplickik sortua, Dalia Shevinen lanean inspiraturik, *Justseeds Community Suported Art* atarirako, 2017an.

→ Tesi hau egiteko erabili den software guztia librea izan da, GNU lizentzien pean garatutakoa, Linux sistemak erabiliz.

o. Sarrera eta esker onak

Esku artean duzun testu hau urte batzuetako lanaren ondorioa da. Ikerketa orotan bezala, honetan ere lehen ideia agertu zenetik azken txostena egin denera arte aldaketak eta gorabeherak ez dira gutxi izan, eta ikerketa guztiek bezala, honek ere baditu hainbat partikulartasun. Ikerketa Feministak eta Generokoak masterraren amaieran “Gizon taldeak eta maskulinitatearen inguruko diskurtsoak” (Azpiazu Carballo 2015a) tesina idatzi nuenean denak norabide argia hartu zuela zirudien: egindako lanean sakondu, tesinan bildutako datu-kopurua osatu eta tesia gai horren inguruan egiteak zirudien aukerarik onena. Eta, hala ere, ez zen horrela gauzatu, *detour* handi xamarra egitea hautatu nuelako. Atzera begira jarrita, esango nuke arrazoi emozionalek akademikoek bezainbeste eragin zutela erabaki horretan. Alde batetik, maskulinitatearen inguruko lanak jaso zuen arretak apur bat gainditu ninduela onartu beharra daukat. Ez dakit atentzio hori handia edo txikia izan ote zen, baina nire talaiatik larregizkoa zen tarteka eta talka egiten zuen ikerlan hartan bertan gizonok feminismoaz hitz egiten dugunean jasotzen dugun larregizko atentzioaren inguruan egindako hainbat baieztapenekin. Bestetik, eta nagusiki, ikerketaren konfrontazio-elementua arindu nahi nuen. Izan ere, maskulinitatearen inguruko lana oso ikuspegi kritikotik egin nuen eta horrek sentazio arraroa utzi zidan: batzuentzat argigarria izan zen lana beste batzuentzat mingarria izan zelako sentazioa nuen eta, beraz, beste aldarte batekin eutsi nahi nion nire tesiari.

Kezka horiek atzealdeko zarata moduan nituela, ikerketa gai berrian fokatzeari ekin nion eta zenbait aukeraren artean LGTB* subjektibitatean zentratzea pentsatu nuen. Metodologia atalean azalduko dudan moduan, gaiak nire biografiarekin lotura zuzena du eta esango nuke “berdinen artean” egotearen perspektibak lasaitzen ninduela. Lehen proiektuak sortzen hasi nintzen, doktorego programan izena eman, tesia zuzentzeko zuzendaria aukeratu eta haren onarpenaz proposamena lantzen hasi nintzen. Eta, nola ez, kasu gehienetan egiten den moduan, doktoregoa egiteko bekak eskatzeko prozedurak hasi genituen. Eskaerak egiteak bere lana dakar eta, hainbat ezezko jaso ondoren, eskaera gehiago ez egitea erabaki nuen. Nire karrera garaietako espediente akademiko baxuaren zama traba gaindiezina zen beken esleipenetan eta eskaerak prestatzeari eskainitako denbora ikerketari berari dedikatu nahi

nion. Tesia beka gabe egiteko erabakia hartu nuen, beraz, eta gaur egun oraindik ez dakit zuzena izan ote zen, baina argi dut ikerlanaren garapenean eragin handia izan duela. Egindako lan guztiak olatu itxura izan du: enpleguaren eta bestelako eginbeharren artean kokatzen nituen lan-sasoi eta saioen bultzadaz egin du aurrera ikerketak eta horrek izan du eraginik emaitzan ere. Konstantzia faltak zailtasun asko gehitu dizkio prozesuari, besteak beste, bigarren kapituluaren jaso dudanez, prozesua datuen ekoizpen inductiboan oinarritu delako.

Ikerketa hasi zenetik hona, haren testuingurua aldatu den hein bertsuan transformatu dira bere motibazioak ere. Hasieratik argi izan dut ikerketaren atzealdeko oihala herri mugimenduak izango zirela. Joxemi Zumalabe Fundazioan¹ zein beste espazio sozio-politiko ugari izandako esperientziak hauspotu du batik bat mugimenduen jardunari ikuspegi kritikoki baina konprometitutik begiratzearen beharra. Izan ere, konbentziturako eraldaketa soziala bultzatzen duten mugimenduek boterearen joko-esparru zabalean duten eragina sakonki eta kritikoki aztertu behar dutela. Horrek maila ezberdinetako analisiak egitea eskatzen du, taldeen barruan gertatzen denetik hasi eta botere-instantzia handietan mugimenduek duten eraginera arte. Hori gutxi balitz, dimentsio anitzi erreparatzea ezinbestekoa da, mugimenduek maila kulturean, ekonomikoan, politikoan eta psiko-sozialean aldaketa sortzeko duten gaitasun eta ezintasunei erreparatzea, eta halaber maila horietan guztietan gertatzen ari diren aldaketek mugimenduak nola moldatzen dituzten atentzioz pentsatzea.

Herri mugimenduen jardunaz hausnartzea lan konplexua izan daiteke eta, beraz, ikerketa lan honen gaia egoera zehatz batera mugatzea pentsatu nuen: era guztietako pertsonak biltzen dituzten elkarteetan, kolektiboetan eta herri mugimenduaren espresio anitzetan aritzen diren LGTB* pertsonen esperientziara. Oso ohikoa da sindikatu, gazte asanblada, talde ekologista, gazte mugimendu, independentismo, euskalgintza edo ezkerreko alderdi politikoetan LGTB* jendea topatzea. Areago, batzuetan errepresentazio hori proportzioz kanpokoa ere badela dirudi: talde horietan dauden LGTB* pertsonen proportzioak gizarte osora estrapolatuko bagenu, gay, lesbiana, trans* eta bisexual jendeen presentzia handiagoa izan beharko genuke. LGTB* jendeak politikoki aktiboagoak al gara? Inplikatuagoak? Kulturgintza eta politikagintzan presentetago gaude? Halako kezka eta galderetatik abiatu naiz ikerketa honetan, baina lanaren helburua ez da kuantitatiboa izan. Aitzitik, asmoa ez da

1 Herri mugimenduen sustapenerako lan egiten duen fundazioa da Joxemi Zumalabe. 1995ean sortu zen eta nik parte aktiboa hartu dut bertan 2011 ingurutik. Fundazioaren inguruko informazio gehiago eskuratzeko, ikus <http://joxemizumalabe.eus/> (2020ko ekainaren 8an kontsultatua).

LGTB* pertsonen inplikazioa handiagoa, txikiagoa ala parekoa ote den argitzea izan. Mugimendu mistoetan (LGTB* pertsonetara mugatzen ez direnetan) parte hartzen duten LGTB* pertsonen esperientzia aztertzeak analisi aberatsa eta sakona egiteko aukera eskaintzen zidalako sententzioa nuen abiatzeko unean, eta horren konbentzimendua dut orain ere.

Alde batetik, esperientzia aztertzea, lan osoan argudiatuko dudan moduan, norbanakoaren eta sozialaren arteko gunean kokatzea da. Zentzu horretan, edozein subjektu edo subjektu-talderen esperientziaz hausnartzea errealitate sozialaren inguruko mekanismoak aztertzeko modua da, hots, interakzio sozialaren esparruak behatzea eta bertan gertatzen ari denaren konbentzioak sumatzen saiatzea, inplikaturik dauden pertsonen beren bizipenaz egiten duten irakurketa eta interpretazioa kontuan izanik. Azken finean, errealitate sozialaren inguruko negoziazioaren unitate txikiena subjektuak bere buruarekin duen elkarriketa da, ingurunearekiko harremanean eraikitzen duen norberaren narrazio hauskorra. Bestetik, harreman sozialaren unitateak herri mugimenduen espresio horietara mugatzeak testuinguru konplexuaren dimentsio ugariak elkarren arteko harremanean aztertzeko aukera ematen du. Herri mugimenduak balio anitzeko espazioak dira, eta funtzio ugari betetzen dituzte: gizakiok botere gehiegikeria eta zapalkuntzaren aurka antolatzeko baliatzen ditugun guneak dira, gizartea antolatzeko eredu alternatibo eta esperimentalak probatzeko erabiltzen ditugun laborategiak, gure nortasunari balioa eta lekua ematen dioten unitate sozialak eta abar. Instantzia eta mundutxo balioanitz horiek, oinarritzko komunitateetan errotzen diren heinean, bizitza sozialaren “meso” dimentsioa (“makro” eta “mikro” dimentsioen artean kokatzen dena) ikertzeko aukera ona eskaintzen dute. Herri mugimenduen mundu sozial txiki horiek guztiak beste batzuekiko harremanean besterik ezin dira ulertu, eta bertan aritzen diren subjektuekin ikertzea harreman horien nolakotasuna kritikoki aztertzeko modua da. Azken finean, ekintzaile horiek dira, mundu sozial horietatik igarotzean, esparru horiek konektatzen dituzten nodoak.

Ikuspegi horrek, beraz, hainbat gai aztertzeko aukera eskaintzen du. Norbanako bakoitzak bere mugimenduarekin nolako harremana eraikitzen duen ikusteko parada da, mugimenduan parte hartzen ari den unean, aurretik (mugimenduarekiko aurreikuspenen bidez) zein gerora (memoriaren bidez). Areago, LGTB* subjektuek talde-pertenentziarekin duten harreman espezifikoa, aldakor eta konplexua aztertzeko abagunea ere bada, hala nola mugimenduak irudikapen, egiteko modu eta kondizio materialen bidez elkarrekin nola lotzen diren ikustekoa. LGTB* gaiek mugimenduotan duten presentzia behatzeko modu bat ere bada: batzuetan isiltasun forman, besteetan zuzentasun politikoarenean, gutxi batzuetan sakonean eragiten duen gai moduan, apenas inoiz ez agenda politikoaren erdigunean kokatutako gai gisa, salbuespenak salbuespen. Finean, nortasun sexual-generikoak zein identitate aktibistak nola eraikitzen ditugun ikusteko aukera eskaintzen du, eta bien artean dauden eraginaren kartografia egiteko.

Elementu horiek guztiak eta gehiago aztertu eta haien inguruan hausnartzeko asmoz abiatu nituen tesiaren oinarria izango ziren elkarrizketak. Denboran zehar nahi baino gehiago hedatu ziren, lehenaren eta azkenaren artean hiru urte baino gehiago pasatuz. Halaber, nahi baino gehiago pilatu ziren denbora-tarte laburretan; enpleguak eta bestelako betebeharrak utzitako tarteetan jardun behar izan nuen, aldi berean aktibisten agendekin bat eginez eta, horren ondorioz, maiz bi edo hiru elkarrizketa egin nituen egun berean. Edonola ere, solasaldiok aipatu gaiak esploratzeko aukera izateaz gain beste ate bat ere ireki zuten: LGTB* ekintzaileek parte hartzen zuten mugimenduekin zuten harremanaz pentsatzeaz gain, beharrezkoa zen ekintzaileok LGTB* mugimenduekin zuten harremanaz ikertzea, hala nola, haien gaitegi, agenda eta estrategia politikoaren inguruan zituzten usteak, iritziak, sentipenak eta kokapenak. Gehienek oso harreman tangenziala izan dute LGTB* politikekin (hein handi batean horregatik aukeratu nituen elkarrizketetarako, ez nituelako LGTB* aktibistak elkarrizketatu nahi, baizik eta LGTB* izanik *beste* gai batzuen inguruan aktibismoa egiten zutenak). Hari horretatik tira egin eta LGTB* mugimenduen jardunari erreparatzeko beharra ikusi nuen orduan.

Bigarren gai (edo azpi-gai) horri ekitea, beraz, lehen elkarrizketa multzoaren ostean gertatu zen, eta, berriz ere, fokatze ariketa eskatu zuen, izan ere, Hego Euskal Herriko LGTB* mugimenduei erreparatzea lan amaigabea izan daiteke. Hainbat arrazoi zirela medio, gaur egun aktibo dauden talde eta kolektibo batzuetara mugatzea erabaki nuen. Alde batetik, lehen elkarrizketa-multzoan parte hartu dutenen gehiengoak herri mugimenduen kale-espresioetan jarduten du, kalean oinarrizko presentzia duten mugimenduetan eta, horri jarraiki, bigarren elkarrizketa-multzorako irizpide hori mantentzea pentsatu nuen, LGTB* politikak ikuspegi kaletar eta nagusiki ez-instituzionaletik egiten dituzten taldeak elkarrizketatuz. Metodologia atalean azalduko dudan moduan, erabaki horrek inplikazio bereziak ditu LGTB* politikak aztertzerako orduan, izan ere, mugimenduaren zati egonkorrena (ibilbide luzeko taldeak) ez dira gehienetan kale-aktibismoan aritzen direnak, baizik eta instituzioekin nolabaiteko harremana dutenak. Aitzitik, LGTB* politikak talde horietara mugatzen ez diren arren, ikerlari eta aktibista bezala nire interesa talde horietan zegoen nagusiki, behetik gora antolatzen diren mugimenduetan, beste mugimendu batzuekin artikulazioak bilatzen dituzten horietan. Horrek, kontziente naiz, LGTB* politiken *alderdietako bat* soilik aztertzea ekarri du eta espero dut denborarekin instituzioekin elkarlan estuagoan jarduten duten taldeen ekinbidea aztertzeko beta izatea, gainbegirada hori osatze aldera.

Ikerketaren bigarren zati horrek maila “meso” eta “makroen” arteko espazioan murgiltzeko aukera eskaini dit. Egindako elkarrizketetan elementu hori hainbatetan azaldu arren, fokua ez da egon horrenbeste aktibista bakoitzak bere mugimenduarekin duen harremanean baizik eta mugimenduek beraien artean, beste mugimendu batzuekin eta, ingurune zabalagoarekin eta makro mailako elementuekin (politika, ekonomia, kultura eta abar) elkarri eragiteko duten

moduetan. Ikerketak behetik gorako mugimendua egin du, txikienetik (subjektuaren barne-elkarrizketa eta bere ingurunearekikoa) handienera igaroz (talde sozialen harremana abstrakzio maila handiagoa duten egiturekin). Eta bidaia hori joan-etorrikoa izan da kasu askotan, elementu makroek talde mailan eta maila subjektiboan eragiten duten moduak esploratzeko aukera emanez.

Beste bi azpi-gaik mamuzko presentzia izan dute ikerketa honetan. Lehen feminismoarena izan da. LGTB* politikak eta feminismoak elkar lotzeko asmoz, hasiera batean mugimenduetan zeuden politika feministak aztertzeke asmoa izan nuen, baina denbora eta espazio faltak ez du ahalbidetu alderdi hori garatzea. Duela hiru urte argitara eman nuen *“Masculinidades y feminismo”* (Azpiazu Carballo 2017) liburuaren hirugarren atala, *“Hombres, movimientos y feminismo”* izenekoa, asmo beretik abiatu zen. Hainbat aktibistarekin egindako eztabaidetatik abiatuz mugimendu mistoetan feminismoa tratatzen den moduak aztertzeke saiakera izan zen eta, tesi honetarako, atal hori beste aktibista batzuekin irakurri, aztertu eta berridazteke asmoa nuen. Esan bezala, ez da aukerarik izan horretarako eta, nahiz eta politika feministek eta LGTB* politikek espazio mistoetan agertzen direnean dituzten parekotasunak behin baino gehiagotan azaleratzen diren tesian zehar, sentsazioa dut ez dudala gaia nahikoa garatu. Parekotasunak egoteaz gain ezberdintasunak ere badaude eta, areago, tentsioa ere badago hiru elementu horien artean (politika feministak, LGTB* politikak eta ezkerreko politikak). Egindako lanean gai honek pisu handia izan arren, era inplizituan agertzen da maiz, baina etorkizunean landu beharreko gaitzat utzi behar izan dut, halabeharrez.

Bigarren mamuzko gaia azken urteotan Euskal Herriko mugimendu ugariaren baitan sortu den marxismoaren inguruko eztabaida da. Mugimenduak, lehenago ere hainbatetan egin bezala, zapalkuntza sozial, kultural, politiko eta ekonomikoak kontzeptualizatzeko moduak birpentsatzen aritu dira azken urteotan. Zapalkuntza ekonomikoa eta kapitalaren metaketa ote da zapalkuntza ororen iturria? Hala bada, nola ulertu daiteke kapitalaren metaketa eta noiz hasten da prozesu hori? Zer paper jokatzen du genero zapalkuntzak prozesu horretan, funtzionala zaio bata besteari ala alderantziz? Gaia estuki lotzen da LGTB* politikekin ere, izan ere, borroka sozialen subjektuen inguruko eztabaidak bete-betean harrapatu ditu sexualitatearen eta genero nortasunaren inguruko mugimenduak. Eztabaida hauek guztiek, beste askotan gertatu den moduan, ez bai teorikoaren mugak gainditu dituzte, askotariko praktika eta jarrerak sortu dituzte, haietako asko mingarriak, eta taldeen arteko talkak areagotu dituzte. Eztabaidak ez dio euskal testuinguruari soilik erantzuten eta, nola edo hala, espazio mistoetan feminismoak izandako eraginarekin ere lotzen da, baina gure mugetatik harago doan afera dela esateak ez du esan nahi gurean inplikazio bereziak ez dituenik, geroago testuinguruaz hitz egiten dudanean azalduko dudana moduan.

Ikerketa abiatu nuenetik eztabaida horren inguruan nituen uste eta susmoak aldatzen joan dira eta orobat aldatu da tesian gai honi eman nahi nion lekua. Hasiera batean berrikuspen teoriko baten bidez landu nahi nuen eztabaida, marxismoaren eta azken hamarkadetako borroka sozialen arteko elkargune eta adostasun ezak seinalatu eta aztertuz. Beste une batean gaiari buruzko eztabaida taldeak edo elkarrizketak egitea ere otu zitzaidan. Asmo horiek alboratzezko arrazoiak akademikoak eta politikoak izan dira. Ikuspegi akademikotik ikerketari hirugarren (edo laugarren, feminismoarena kontatuz gero) hanka bat gehitzea eskatzen zuen eta tesiaren prozesua larregi luzatzea ekar zezakeen. Horren ondotik, analisiak herri mugimenduetan presente dagoen korapiloa askatzeko lagungarri izan nahi badu, gaiak sakoneko trataera eskatzen duela uste dut. Auzia ikuspegi teorikotik soilik tratatzeak ez luke lagunduko, ez eta ikuspegi teorikoa alboratzeak ere. Azken finean, feminismoaren inguruko eztabaidan gertatzen den moduan, aferak dimentsio ugari ditu eta denak konektatzen dira beraien artean: mugimenduek zapalkuntza teorizatzeke duten moduari eragiten dio, baina baita beste mugimenduekin harremantzeko duten moduari, barne-antolaketari, haien kultura politikoari, kideen arteko harremanari eta mundu mailako gertakarien aurrean kokatzeko duten moduari ere. Aitzitik, gaia esplizituki eta sakonean ez tratatzeak ez du bere presentzia ezabatu, eta behin baino gehiagotan lekua egin diot eztabaida horri, eta ez diot uko egin analisi partzialak egiteari.

Testuingurua

Doktore-tesi honek lantzen dituen gaiak testuinguru zehatzean kokatzen dira eta, nola edo hala, berorri erantzuten diote. Erantzuten diotela diot, azken finean testuinguru hori ez delako erabat objektiboa eta, beraz, horren inguruan ikerlari eta aktibista moduan egin dudan irakurketak berak mugiarazi egin ditu gaiok ikertzeko asmoak eta baita moduak ere. Sarrera honen helburuak gaituzko lituzke uneko testuinguruaren analisi sakona egiteak eta, gainera, testuan zehar badira horrekiko inguratze laburrak baina, hala ere, uste dut egokia dela hasi baino lehen ideia oso orokor batzuk hemen aipatzea, esandakoak kokatzen lagunduko duelakoan.

Gogora ekarri dezadan ikerketaren abiapuntua 2013 urte inguruan kokatu dezakegula. Hego Euskal Herriko egoera berezia, nahasia eta, paradoxikoki, nolabait barea zen une horietan. 2008ko finantza-krisiaren ondorioak oraindik presente zeuden une horretan, izan ere, europar estatuek 2007-2008ko porrotari bankuen erreskatearekin erantzutea ebatzi eta horren ondorioak gizarte zabalean ikusi zirenera arteko epea luzea izan zen. Gizarte-sektore batzuetan enplegu faltaren edo etxe-kaleratzeen errealitateak epe luzera nabaritu ziren eta estatuen politika ekonomikoak hainbat zerbitzutan eragindako murrizketak ere ez ziren hilabeteetako kontua izan. Herri mugimenduen esparrua testuinguru horrek asko markatu zuen: alde batetik krisiari erantzun beharrak eta neurri zehatzez harago sakoneko aldaketaren

beharra azpimarratu nahi izateak hainbat ekimen bultzatu zituen, ezkerren eta eremu libertarioaren espresio ugariatik. Adibiderako, 2014an sinatu zen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak oso presente zuen, bere formulazioan, kapitalak sortutako finantza-krisia mundu mailako krisialdiaren adierazgarri zela, krisi sistemikoa, alegia. Aldi berean, 2011ko maiatzean sortutako M-15 mugimenduak, Euskal Herriko bazter guztietan maila bereko indarra erakutsi ez zuen arren, aktore berriak eta, bereziki, egiteko modu zein parte-hartzearen kontzeptualizazio partikularrak ekarri zituen, mundu mailan ere zabaltzen ari ziren joera batzuekin bat eginez (Arabiar udaberriak, Occupy..).

2011ko urtarrilean iragarri zuen ETAk su-eten iraunkorra ere, eta gertaera horrek Euskal Herriko mugimenduetan izandako eragina ukazina da. Ohiko akatsa izaten da Hego Euskal Herriko herri mugimendu denak Ezker Abertzalearekin lotzea eta ez da hori nire asmoa, ez eta erabateko hegemonia aitortzea ere mugimenduen esparru zabalean duen presentziari, baina, lan honetan zehar hainbatetan agertuko zaigun moduan, mugimendu horren artikulazio maila, eragin gaitasuna eta, zergatik ez esan, konposaketa kuantitatiboa, handia da beste batzuekin alderatuz. Hori gutxi balitz, estatuarekin eta beste eragile batzuekin izan duen konfrontazio maila oso handia izan da, eta horrek presentzia handia esleitu dio gatazka nazionalari. “Euskal gatazka” deitu izan denak, onerako eta txarrerako, gure gizartearen bizimoduan eragiteko gaitasun handia izan du, bere konfrontazioaren garraztasuna medio. Herri mugimenduen esparrua zabala da, eta haietako batzuk euskal gatazkaren parametroetatik ezin urrunago kokatzen dira lantzen dituzten gaien eta pizten dituzten borroken ikuspegitik, baina, ikuspegi soziologikotik, Ezker Abertzalearen eraldaketak nola edo hala panorama politiko osoari eragin dio eta, tartean, mugimenduen bizitzari ere bai.

2011ko otsailean bertan, Ezker Abertzalearen hainbat erakunde legez kanpokotzat jo zituen alderdien legearen kalteak gainditu asmoz, Sortu alderdiak lehen pausuak eman zituen. Urte horretan bertan, udaran, alderdia legezkoztat jo zuen espainiar justiziak, 2011ko maiatzeko hauteskundeetan Bildu koalizioaren barruan parte hartu ostean. Hauteskunde haietan berebiziko indarra erakutsi zuen koalizioak eta hainbat udalerriren alkatetza eskuratu zuen, eta baita Gipuzkoako Diputazioa ere. Ezker Abertzalearen baitako instituzionalizazio prozesu luzeari hasiera eman zion gertaera horrek eta, borroka armatuaren amaierarekin batera borroka moldeek, astiro-astiro, bira bat egin zuten kale-konfrontazio maila altua eskatzen zutenetik beste borroka-estilo moderatuagoetara. Zer esanik ez, horrek ez zuen mugimendu guztien adostasuna ekarri, ez Ezker Abertzale barruan ez eta kanpoan ere, baina panorama politikoa goitik behera eraldatu zuen estrategia aldaketa horrek. Esaterako, instituzioetan egoteko baldintzak bete eta gizartearen aurrean “borroka armatua atzean utzi duen” mugimendu bezala aurkezteko, mugimenduek ohikoan erabiltzen dituzten hainbat borroka molde alboratu eta arbuiatu behar izan dituzte hainbatek, eta horrek panorama osoari eragin dio. Borroka politikoaren testuinguruan guztiek onartu ez arren ohikoak ziren hainbat protesta modu (adibiderako, pintaketak edo “eskratxeak”) borroka molde onartezintzat hartzen dira orain, notizia izatera pasatu dira, eta aktore ugari, tartean Ezker

Abertzaleak berak, “garai zaharren” aitzakia erabili dute berauek arbuiatzeko. Honela, halako falazia diskurtsiboa ezarri da protesta modu batzuen inguruan: borroka armatuaren garaia iragan gatazkatsu moduan ikusi nahi du gizartearen gehiengoak (nahiz eta garai horien ondorioak oraindik oso bizirik egon, biktimen eta presoen auzian, esaterako) eta, ondorioz, garai horretan gertatzen zen oro iraganean uzteko modukotzat jotzen da ere, tartean berez indarkeriazkoak ez diren protesta-moduak ere. Argumentu ohikoa bilakatu da, esaterako, gatazka ekonomiko edo sozialen kariatara boterean dauden alderdien egoitzetan egindako pintaketak “beldurrezko iraganarekin” lotzea. Lotura hauek egiteak albo uzten du halako protesta eta ekintza moduak mundu zabalean erabili direla eta erabiltzen direla, konfrontazio armatuak izan dituzten herrialdeetan eta ez dituztenetan ere, eta euskal gatazkaren mamua bizirik mantentzea desmobilizazio tresna diskurtsiboa bilakatzen da, memoriaren erabilera oso murriztua eginez.

Bestalde, instituzionalizazio prozesuei loturik agertzen zaigu, aldi berean, Podemos alderdiaren sorrera 2014. urtean, M-15ak irekitako zikloari ezkerreko populismotik erantzun instituzionala emateko bokazioa zuena. Kasu horretan ere, plazetako mugimenduetan parte hartu zuten sektore denak desaktibatu ez arren, kaleko protestaren jaitsiera suposatu zuen eta parlamentu bidezko konponbideak hobestea.

Noski, ez da soilik Ezker Abertzalearen edo bestelako ezkerren estrategia aldatu dena, ikuspegi soziologikotik mobilizazio sozialaren mapa osoa aldatu da. Era berean, mapa hori eraldatu duen elementu bakarra ez da Ezker Abertzalearen estrategia aldaketa izan, ez eta nagusia ere. Europa osoan eta mundu mailan indartzen ari diren joerek (protestaren kriminalizatzea, ezkerreko populismoaren igoera eta gainbehera hainbat herrialdetan, eskuineko populismoaren gorakada edo kapitalen eta botereen metaketa gero eta polarizatuagoa, besteak beste) zeresan handia izan dute Euskal Herriko herri mugimenduen jardunean.

Hego Euskal Herriko testuingurua, beraz, oso lotuta dago baketze prozesuarekin eta, hona helduta, komeni zaigu “bake-prozesua” eta “baketze prozesua” bereiztea². Bake prozesua euskal gatazkaren ondorio eta espresibideen baretze eta konponketarekin lotzen badugu, paradoxikoa bada ere, esan dezakegu bake-prozesuaren beraren gorabeherak ez direla horren presente egon euskal gizartearen agenda mediatiko eta politikoetan. Esaterako, armagabetzearen inguruan espainiar estatuak erakutsitako utzikeriak izan du eraginik gizarte

2 Euskal gatazka eta bakearen kontzeptuaren inguruan mugimendu feministetatik hainbat hausnarketa abiatu dira azken urteotan, gatazkaren kontzeptualizazioa bera zalantzan jarri eta birpentsatzeko asmoz. Ahalegin horren baitan kokatu daitezke, besteak beste, Bake Prozesua Indartzeko Foro Sozialaren baitan garatzen den “emakumeen ekarpena bake prozesuari” lan ildoak (<https://labur.eus/Qqlqh>, 2020ko ekainaren 13an kontsultatua) edo Bilgune Feministak 2017an aritara emandako “Hau ez da gure bakea. Euskal Herriko gatazka eta emakume preso politikoaren inguruko gatazkak” (<https://labur.eus/Lei16>, 2020ko ekainaren 13an kontsultatua).

mailan gaiari eskaini zaion presentzian, eta gauza bera esan daiteke gatazkaren konponbidearekin lotzen diren beste gai batzuei buruz ere, dela biktimen erreparazioa edo preso politikoen gaia. Afera horiek guztiak ez dira bizitza politikoen erdigunean egon azken urteotan, ez bada herri mugimenduaren sektore batzuek (esaterako AEMk edo Sarek, presoek gaiarekin) edo maila lokaleko administrazioek (adibiderako, Errenteriako udalak erreparazioaren gaiarekin) egindako ahaleginen ondorioz. Eta esango nuke ahalegin horiek ez dutela beste garai batzuetan bezainbesteko erantzunik jaso. Baketze prozesua, aitzitik, gizartearen sektore zabalak desmobilizatu eta politika esparru instituzionalera bideratuz gatazka sozialak itzaltzeko mekanismo bezala ulertzea proposatzen dut eta, esandako moduan, maila globaleko eraldaketekin estuki lotzen da, euskal testuinguru gaituz. Baketze prozesua deitzen dudana honek eragin zabala eta hedatua izan du, eta mugimendu gutxi egin diete ihes prozesu horren ondorioei: protesta moduen zilegitasuna murriztu da, antolaketa soziala baretu egin da eta disidentzia politikoa are gehiago kriminalizatu da, adibiderako, 2015eko uztailean martxan jarri zen 4/2015 legaren bidez (kale mailan “mozal lege” bezala izendatu dena). Euskal gatazkaren mamua baketze prozesuan presente egon bada, protesta modu batzuk “lekuz kanpo” daudela eta “beste garai batzuei” dagozkiela adierazteko izan da.

Herri mugimenduen jarduna bake eta baketze prozesuen argitara begiratzea komeni zaigula uste dut, nahiz eta ez nituzkeen testuinguruaren aldaketa guztiak faktore horretara mugatuko. Ezker Abertzaleak herri mugimenduaren sektore batzuetan zuen gidaritza (sinbolikoa, noski) ahuldu eta eraldatzeak efektu ugari sortzen lagundu izan duelakoan nago. Alde batetik, euskal gatazkaren gaia erdigunetik desplazatu den heinean beste gai batzuk erdigunera joan dira: nagusiki feminismoa (sektore ugarian eta indar bereziz, gazteengan) eta, horren atzetik, klase-gatazka (bereziki gazte-sektoreetan). Horrekin batera aldaketa klimatikoari eta ekologiaren ikuspegi sozialari buruzko diskurtsoak ere hedatu dira, batik bat izaera lokala duten eta ingurune gertukoari zuzenean eragiten dioten gatazka ekologikoen harira (errauskailuaren afera Gipuzkoan³, Koke planta⁴ edo Zaldibarko ezbeharra Bizkaian⁵).

3 Zubietako errauste plantaren inguruan sortu den gatazkari buruz ari naiz. Honi buruz informazio zabalagoa izateko, lagungarria izan daiteke Argia astekariak bere web orrian gai honi loturik bilduta dituen notiziei erreparatzea: <https://www.argia.eus/gipuzkoako-erraustegia> (2020ko ekainaren 14an kontsultatua).

4 Petronorrek Muskizen duen Koke plantaren inguruko gatazka oso aktibo egon zen, bereziki 2009 urtetik aurrera (<https://labur.eus/xez0E>, 2020ko ekainaren 14an kontsultatua).

5 2020ko otsailaren hasieran Bizkaiko Zaldibar herrian dagoen zabortegean bertako bi langile zabor-mendiaren azpian utzi zituen lur-jausia gertatu zen. Horren ostean sute toxikoa piztu zen ere hondakinetan zeuden osagai kimikoen eraginez. 2020ko ekaina den honetan, langileon gorpuak ez dira oraindik berreskuratu, eta hilabete guzti hauetan hainbat ekimen eta plataforma antolatu dira (tartean “Zaldibar Argitu” izenekoa), ezbeharra argitzea eskatzen dutenak, hala nola zabor-kudeaketaren gaiaren inguruko eztabaida irekitzea, eredu sozial eta ekonomikoarekin duen lotura azpimarratuz. Berriz ere, informazioa Argia astekarian ondo bilduta aurkitu daiteke: <https://www.argia.eus/zaldibarko-zabortegearen-krisia> (2020ko ekainaren 18an kontsultatua).

Beste gai batzuek ere izan dute presentziarik: kooperatibismoa eta ekonomia eraldatzaileak, elikadura-subiranotasuna, genero nortasunen inguruko afera, enplegu-gatazkak (deslokalizioak, lantegiak ixtea, erresidentzia eta etxeko langileen eskubideen ingurukoak eta abar) edo Abiadura Handiko Trenaren eraikuntzaren ingurukoak, besteak beste. Gai horiek guztiek erdigunea hartzea nazioarteko bultzadekin ere lotu behar da, ez baitute Euskal Herrian bakarrik izan gorakada, olatu globalen parte ere badira.

Zentraltasun hori, nagusiki, bi eratan gauzatu da. Lehenengoz, afera horiek haien inguruan militante ugari metatzeko gaitasuna izan dute, bereziki gazteen artean. Tesi honen hirugarren atalean ikusiko dugun moduan, ekintzailetza politikoaren hastapenak nerabezaro eta gaztaroarekin lotzen dira aktibista askoren kasuan, eta gure testuinguruan horrek adin-tarte batzuen politizazioa erraztu du. Feminismoaren kasuan, talde autonomo ugari sortzen ikusi ditugu azken urteotan, hala nola lehendik aktibo zeuden taldeen ekimenetan parte-hartzea handitzen eta nodo guzti horiek saretzen. Klase-gatazkaren auzian, komunismoaren eta sozialismoaren inguruko diskurtso erradikal eta auto-erreferentzialen inguruan bildu diren taldeak sortu dira, hala nola, berauek artikulatu edo zentralizatzeko saiakerak. Aurreko paragrafoan aipatutako beste mugimenduek ere adierazi dute jendea metatzeko gaitasun handi xamarra, baina esango nuke feminismoa eta klase gatazkaren inguruan antolaturiko mugimenduak izan direla garrantzi handiena hartu dutenak, baita kuantitatiboki ere.

Bigarrenez, gai horiek zentraltasun diskurtsiboa lortu dute beraien inguruan biltzen diren taldeengandik harago. Feminismoaren kasua esanguratsua da, mugimenduen agenda eta diskurtsoetan lortu duen espazio bereziagatik, hala nola mugimenduez harago lortu duenagatik, bere eragina ez delako mobilizazio herritarraren esparrura mugatu. Gaur egun, urte luzeetan garatu diren prozesuen ondorioz, feminismo akademikoaz hitz egin dezakegu, hala nola feminismo instituzionalaz edo feminismo mediatikoaz, besteak beste. Areago, mugimenduen parametroetatik harago joan den heinean, mugimendu feministen baitan gatazka sortu du feminismoa ulertzeko moduak ere, kasu askotan despolitizatu edo komertziala izateagatik arbuiatu dutena feminismoaren sektore erradikalek. Era berean, nahiz eta maila askoz txikiagoan eta, oraingoan bai, nagusiki herri mugimenduen esparrura mugatuta izan, klasearen inguruko diskurtsoak ere beste aktore batzuk busti ditu, beren posizioak berrikusaraziz eta eztabaidan nola edo hala (kasu askotan oso era gatazkatsuan) engaiatuz. Edonola ere, diskurtso honek izan du eraginik eta, esan dezadan hipotesi bezala, uste dut loturik dagoela bai feminismoaren gorakadarekin eta horrek militantzia profil batzuetan sortzen duen ezerosotasunarekin, hala nola hainbat gizarte-aferaren despolitizazioarekin, eta kapitalismoak borroka horiek berreskuratzeko egindako saiakerarekin.

Hemen lotura berezia egin daiteke eraldaketa horien eta LGTB* politiken artean. Laugarren atalean sakonduko dut gai honetan, baina azken urteotako despolitizaziorako joera nabaria izan da sexualitatearen inguruko mugimenduetan. Frankismoa amaitu ostean, lehen LGTB* mugimenduak antolatzen eta klandestinitatean zeudenak argitara ateratzen hasi ziren urteetan, haietako askok ezkerreko mugimenduen erdigune ideologikotik edan zuten beraien diskurtsoak eta aldarrikapenak pentsatzeko. Horrek artikulazio bikoitza sortu zuen: alde batetik sexu-askapen mugimenduek diskurtso erradikalak zituzten ez soilik sexualitatearen inguruan, baizik eta baita klase aferaren inguruan ere, adibidez⁶. Bestetik, feminismoarekin gertatu bezala, diskurtso horiek gizarte osoari zuzendu arren, interpelazio zuzena egiten zieten ezkerreko mugimenduei, barne-mailan zein maila diskurtsiboan gordetzen zuten homofobia eta sexismoa zalantzan jarriz. Urteek aurrera egin ahala, ordea, homofobiaren inguruko diskurtso sozialak aldaketak bizi izan ditu. Homosexualitateak eta, beranduago, transexualitateak, bazterreko gai izateari utzi diote eta, progresiboki, gizarte sektore zabalagoen ardura bilakatu dira. Horrek eragina izan du sexualitatearen inguruko aktibismoetan eta, alderantziz ere, aktibismoek sexualitatearen gaiari heltzeko izan dituzten moduek gizartearen onarpen maila determinatu dute, hein handi batean. Honela, bereziki 90eko hamarkadan, lehendik ere ikuspegi ezberdinak zituzten mugimenduko talde eta kolektiboak are gehiago banatzen hasiko dira, batzuk korrante nagusiko mugimendu bilakatuz eta besteak ikuspegi erradikalagotik jarduten duten talde txikiago. Korrante nagusian aritzen diren mugimenduek, LGTB* afera norbanakoaren eskubideen ikuspegitik landuko dute batik bat, eta gizarte-integrazioa erraztu dezaketen eskaeretan zentratu, solaskide nagusi moduan estatua hartuz eta, kasu askotan, konplizitateak bilatuz enpresa eta merkatu munduan. Talde erradikalagoek sexualitatea afera politiko bezala pentsatzeko tresna teoriko eta kanpainak prestatzen jarraitu dute, kasu askotan errealitatearen ekoizpen kulturalari atentzio handia jarriz eta berau zalantzan jarri zezaketen mobilizazio moduak ere eremu sinbolikoarekin estuki lotuz, performance eta protesta modu sinbolikoen bidez. Esan beharrik ez dago korrante nagusiko mugimenduek gizarte zabalean askoz eragin handiagoa izan dutela, hein handi batean sexualitatearen inguruko agenda eta diskurtso sozialak baldintzatuz.

6 Esanguratsua da, gainera, aldarrikapen horiek plazaratzeko modua oso propioa dela. Esaterako, EHGAMen lehen biltzarreko txostenean, aldarrikapen-zerrendan honakoa irakurri daiteke: "Lanaldia laburtzea, astia kultur eta giza hezikieran emateko, eta harreman pertsonak atseginezkoak permititzeko" (<https://labur.eus/yjrSm>, 2020ko ekainean kontsultatua).

Gurean ere, nahiz eta banaketa hori ez den beti era argian gauzatu, gertakari horiek izan dute oihartzunik. Frankismo osteko lehen urteetan, bereziki EHGAMen inguruan antolatzen sexu-askapen mugimenduak lotura estua izan zuen ezkerreko mugimendu politikoekin eta, urteek aurrera egin ahala, beste talde batzuk agertzen joan ziren, tendentzia politiko anitzagoak zituztenak edo, era argiagoan, tendentzia politikoekiko independentzia aldarrikatzen zutenak⁷. Hauek ere aldarrikapen ugari artikulatu zituzten, ezkontza eta adopzio eskubidearen alde batik bat, eta inguruan talde erradikalagoak sortzen ikusi zituzten. Talde hauek oso txikiak izan dira eta, kasu askotan, ibilbide laburrekoak. Ziur aski, gertakari horiek guztiak gurean 90eko hamarkadan baino, 2000ekoan ikusi genituen, Medeak edo Queer Ekintza bezalako taldeak sortu zirenean. Euskal LGTB* politikek beraz, nazioartean gertatukoarekin alboratuz gero, antzekotasunak zein ezberdintasunak dituzte.

LGBTB* politikek leku berezia izan dute euskal mugimenduen panoraman. Hasiera batean ezkerreko mugimenduei estuki loturik egoteak ez du esan nahi mugimendu horien babes osoa edo inplikazioa zutenik. Are gehiago, hamarkada luzeetan zehar LGTB* taldeen politikak bigarren mailakotzat jo dira eta haien ikuspegia ez-politikotzat, hirugarren atalean ikusiko dugun moduan, mugimendu askorentzat erradikaltasunaren kanpo-muga ezartzeko balio izan dute, landutako gaiak eta erabilitako mobilizazio ereduak ez-politikotzat kalifikatu direlarik. Gainera, LGTB* politikak -zentzu zabalean- landu dituzten taldeen militantzia ez da inoiz kopuru eta presentzia aldetik oso indartsua izan, eta instituzioekin elkarlanean ez aritzea erabaki duten taldeena, are txikiago eta lokalizatuagoa izan da, hasiera batean eta ia-ia 2000ko hamarkadaraino, gutxienez, hiriburuetan zentratua, salbuespenak salbuespen. Talde horiek sexualitate eta genero nortasunaren inguruko begirada erradikalak izan arren, kasu batzuetan ezin izan dituzte beraien proposamenak ikusgarri egin eta, beste batzuetan, arlo sinbolikoarekin lotzen ziren proposamenetan zentratu dira, laugarren atalean ikusiko dugun moduan. Agenda propio, erradikal eta maila anitzekoak sortzeko zailtasunak izan dituzte, sexualitate eta generoaren afera maila ekonomiko, politiko eta kulturalarekin (eta horiek guztiak elkarren artean) lotzeko.

7 Esanguratsua da EHGAM beti izan zela organikoki Ezker Abertzalearengandik independentea, nahiz eta geroago sortuko diren hainbat mugimenduk hain zuzen ere dependentzia hori egotziko dioten. Lopez-Romok (2008) EHGAMen bi alderdi horiek azpimarratzen ditu: alde batetik garaiko ezkerrearen balio eta praktikei estuki lotuta egotea eta, bestetik, bere independentzia alderdi edo sindikatuetik. Beraz, hemen "tendentzia politikoekiko independentzia" aldarrikatzeaz ari naizenean ez naiz ari alderdiekiko independentziaz soilik, baizik eta LGTB mugimenduak soilik eta eskusiboki LGTB afera (eskubide sexualen ikuspegitik) tratatu behar zuela aldarrikatu zuten hainbat norbanako eta taldeez.

Elementu hauen guztien eta beste hainbaten eraginez, LGTB* politikak Hego Euskal Herriko testuinguru politiko eta sozialarekin era berezian lotzen dira. Hasteko, baketze prozesuaren testuinguruan, sexualitatea eta genero nortasunak dimentsio sozial, politiko eta ekonomikoekiko erabateko autonomian planteatuz gero, aniztasunaren inguruko diskurtso despolitizatuan galtzea oso erraza da. Horrekin loturik, ezkerreko sektore batzuen partetik inoiz baino onarpen handiagoa du LGTB* aferak, ziur aski sektore horientzat errazagoa delako sexualitatearen eta genero nortasunaren gaia kultur-aniztasunaren inguruko diskurtsoan txertatzea berrikuspen sakonak egitea baino. Maila horretan paralelismo handia dago LGTB* politiken eta feminismoaren edo anti-kolonialismoaren gaiaren artean. Amaitzeko, LGTB* mugimendu batzuek bultzatu dituzten agenda eta diskurtso despolitizatuak askotan LGTB* politika ororen baliagarritasuna ezbaian jartzeko erabili dituzte ezkerreko hainbat sektore erradikalek, multikulturalismoaren diskurtsoekin kritikoak izan baina aldi berean beraien kontzeptualizazio eta ekinbideetan generoak eta sexualitateak dituzten inplikazioak berrikusteko gaitasun gutxi dutenek. Esango nuke ataka hirukoitz horretan kokatzen dela gaur egun LGTB* politika erradikal eta eraldatzaileak egin nahi dituzten mugimenduen erronka, hala nola ezkerreko mugimenduek horrekiko duten kokapena⁸.

Hurrengo orrietan...

Esku artean duzun ikerketak, beraz, oso era lauso eta laburrean deskribatu dudan testuinguru zehatz horretan sortzen diren hainbat eztabaida jarraitu eta horien inguruan biltzen diren esperientziak aztertzea du helburu. Horretarako, ikerketaren *lehen kapituluan* argipen teoriko txiki batzuk emango ditut. Metodologia atalean sakonago azalduko dudan arren, garrantzitsua da hasieratik argi uztea argipen teoriko horiek kontzeptuen kokapen minimoa direla, eta ez lana gidatu duen marko teorikoa. Izan ere, kontzeptu horien lanketa ez da izan landa-lanaren aurrekoa, baizik eta hirugarren eta laugarren atalen oinarri diren elkarrizketak kodifikatu eta aztertu ostean osatua. Hori dela-eta, posible da hirugarren eta laugarren ataletan kontzeptuok ez aplikatzea zehatz-mehatz lehen atal horretan formulatuak

8 Gai honen inguruan interesgarria izan daiteke mugimendu feministaren baitan sexualitate eta genero nortasunaren inguruko eztabaidak duen eboluzioari erreparatzea. Horren adibide izan daiteke Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan egin zen “Gorputzak eta sexualitateak” eztabaida. Ponentziak hemen kontsultatu daitezke, izen bereko azpi-atalean: <https://labur.eus/gHQSX> (2020ko ekainaren 20an kontsultatua). Testuinguru berean kokatu daiteke 2019ko maiatzean aurkeztu zen “Harro!” plataformaren sorrera ere (<https://labur.eus/55MPS>, 2020ko ekainaren 20an kontsultatua).

izan diren moduan. Esandako lez, lehen kapitulu horren helburua ez da lanaren oinarri teorikoa finkatzea baizik eta irakurleari lagungarri izan dakizkioken kontzeptu batzuen inguruko zertzelada batzuk ematea, hala nola haietako batzuen inguruko argipenak egitea. Esaterako, ideia edo kontzeptu batzuen atzean polisemia handia dagoen kasuetan, lan honetan hartu duten zentzua azaltzeko erabili dut lehen kapitulua.

Bigarren kapituluan lanean erabilitako metodologiaren inguruko azalpenak emango ditut, eta era berean afera hauen inguruko nire kokapen emozional, politiko eta akademikoak izan duten eragina esplikatuko. Bertan azalduko dut, besteak beste, zein helburu esleitu dizkiodan ikerketari, nola joan diren moldatzen, lanerako erabili dudan metodoa eta parte-hartzaileek izandako inplikazioa. Esaterako, atal horretan argituko dut ikerketa honen muina osatzen duten elkarrizketak noiz eta nola egin diren, nola kodifikatu eta aztertu diren eta zer dela-eta erabili dudan nagusiki inductiboa den ikerketa eredu bat, lan teorikotik hasi ordez datuen bilketa eta analitiko abiatu dena.

Lanaren *hirugarren kapituluak* sindikatu, gazte asanblada, mugimendu ekologista, ezkerreko alderdi eta abarretan jardun duten LGTB* pertsonekin egindako 16 elkarrizketa ditu oinarri. Elkarrizketa horien kodetze eta analisiak kontzeptu sentigarri batzuk sortzeko aukera eman du, identifikazioak, komunitateak edo isiltasunak, besteak beste, pertsona horien esperientzian izandako eraginaz pentsatzeko aukera eman dutenak. Kontzeptu horiek “ur nahasiak” ideia zentralaren inguruan antolatuta ditut, eta zazpi azpi-ataletan banatzen dute kapitulua. Horren aurretik aktibiston ibilbidearen inguruko ohar batzuk ematen ditut eta, ostean, ideia nagusiak biltzen dituen koda.


Laugarren kapituluan 10 talde-elkarrizketa izan dira abiapuntua. Kasu horretan elkarrizketatu guztiak LGTB* politiken protagonista dira eta halako taldeetan parte hartzen dute (marika, bollera, LGTB* edo transmarikabibollo taldeak, gay taldeak, transfeministak, queer kolektiboak... izendapenak ugariak dira). Elkarrizketa horien bidez gaur egungo LGTB* politika kaletar eta erradikalen argazki partziala egin nahi izan dut, borroka horien karakterizazioan, estrategietan eta diskurtsoetan dauden korapiloak identifikatu eta horietatik tira egiteko asmoz. Hirugarren atalean ez bezala, laugarren horretan elkarrizketa zatiak lotzen zituen narratiba bat sortu dut lehenengo, geroago, kontzeptu teorikoen laguntzaz, hainbat ideiarene interpretazio zabal eta abstraktuagoa emateko.

Bosgarren eta azken kapituluak ikerketaren ondorio nagusiak biltzen ditu, nola edo hala hirugarren eta laugarren ataletan agertutakoak plano abstraktuagora eramanez, ideiek elkarri eragin diezaioten eta pentsamendu/ekintzarako kitzikagarriak izateko bokazioa duten hainbat irudi eta kontzeptualizazio sortu ditzaten. Bertan laburtu ditut halaber ikerketak nire ustez izandako mugak zein etorkizunerako ireki dituen lan-lerro berriak.

Sarrera honekin bukatu aurretik, zorak zor, eskerrak eman nahiko nizkieke, bihotzez, ikerketa guztian zehar alboan izan ditudan lagun eta kideei, beraien ekarpena oso baliagarria izan delako, maila ugartan prozesu hau guztia posiblea eta, hala-moduz, sostengarria izan zedin. Parte-hartzaile guztiak eskertu nahiko nituzke, denek eskaini dizkidatelako beraien denbora, hitzak, ideiak, sentipenak eta sentimenduak. Izugarri ikasi dut guztiekin eta magikoa izan da zuekin denekin topo egitea, pertsonalki zein talde moduan. Esperantza handia pizten didazue herri honen eta herri guztien zeruertza hedatzeko egiten duzuen guztiarekin, eta hor egon eta egon izanarekin. Ikerketaren aholkulari-taldean parte hartu duzuen lagunok, zuen ekarpena ezinbestekoa izan da. Nire lanak zentzua zuela transmititu zenidaten gehien behar nuen uneetan, ulerkorak izan zarete denbora eta inplikazioekin eta esan dituzuenetako asko nirekin daramatzat, luzerako. Mila esker beraz. Eskerrik beroenak ere unibertsitatearen munstro neoliberalen babesa eman didazuen doktorego programako ikaskide eta zuzendariei, lankideei, ikerketa proiektutako hemengo eta hango lagunei, SIMReFeko konplizeei. Zuei esker errazagoa da pentsatzea, noizean behin bada ere, guzti honek baduela zentzurik. Zer esanik ez Joxemi Zumalabe Fundazioko kideei, eta urte hauetan guztietan nire militantzietan lagundu nauten kideei, gazte mugimenduetan, errepresioaren kontrakoetan, Komite Arrojan, okupazio mugimenduan, jo dudan musika taldeetan... Gutxienez lau herri eta pare bat herrialde hartzen dituen ibilbidean aurkitutako denak izendatzea zaila litzateke, baina denek irakatsi didazue zerbait, eta pasioa bizirik mantentzen lagundu didazue. Bizi izan naizen herri eta hirietako lagunei, bereziki marika, bollera eta trans*ei, munduaren paretak zikindu eta apurtuz oraindik ezagutzen ez ditugun bizitzak asmatzen aritu garelako elkarrekin eta, distantziak distantzia, horretan jarraitzen dugulako.

Gertu-gertuko denei esker bereziak eman nahi dizkiet, urte hauetan guztietan izan duzuen ulertzeko gaitasun erraldoiagatik, nire “gaur ezin dut” eta “aste honetan ezinezkoa zait” guztiak haserretu gabe entzun dituzuelako, eta zuen maitasuna zain nuela sentiarazi didazuelako. Aitaxo eta amatxo, naizenaz, edo izaten ari naizenaz, harro egoten erakutsi zenidatelako txikitatik, zuen euskalduntasun, gallegotasun, langiletasunetik eta nik ekarritako beste tasun guztietatik abiatuz munduaren parean konprometitzea ezinbestekoa dela erakusten didazuelako egunero, hitz potolorik erabili gabe. Arrebari, noski, bizitzako norabide biko prozesurik garrantzitsuena erakutsi zenidalako, hartu eta eman, ikasi eta irakatsi. Etxeko bitxoei emandako sorpresengatik eta etorriko direnengatik. Familia izanda lagun bilakatu direnei eta lagun izanda familia bilakatu direnei, ahizpatasunaren indarra emateagatik. Iboni guztiagatik; pentsatu nahi dut maitasuna okertzen eta poza aldrebesten dugula elkarrekin, eta miragarria da hori zure eskutik eutsita egitea. Martari hasieratik hor egon delako, aldi berean izan delako lagun, zuzendari eta konplize politikoa proiektu honetan. Asko ikasi dut eta, bereziki, ikasteko asko daukadala ikasi dut, ziur aski bizitzako une honetan eman ahal zenidan oparirik ederrena izan da hori.

Bizitza da handiena.



1. marrazkia: "Ikerketa prozesuaren uneak". Papera eta tinta. Egileak: Millie Butler-Allred eta Pam Allred, Tove Janssonen lanean inspiratuak.

1. Ikerketaren ulermenerako mapa kontzeptual laburra

Edozein elkarrizketatan gertatzen den moduan, ikerlari ororen saihestu ezineko betebeharra da erabiltzen dituen kontzeptuak argitzea. Izan ere, ideia trukaketa orok neutralizatu beharreko lehen oztopoa parte-hartzaileen arteko kontzeptuen inguruko irakurketa eta begirada ezberdinena da. Ideia eta kontzeptuek adiera eta erabilera ezberdinak izatea ez da bere horretan arazoa baina, erabilera horiek eta hitzei ematen diegun zentzua aldeztetik argitu ezean, komunikazio arazoak sortu daitezke, eguneroko komunikazioan zein ikerketa akademikoan. Lanaren irakurketa egokia erraztu asmoz, kontzeptu batzuen argipena egitea da kapitulu honen asmoa, hala erabilitako termino bakoitzaren inguruan baliatzen dudan definizioa nola kontzeptuok haien artean nola lotzen diren esplizitatuz. Hasteko, oso era laburrean marko honek ikerketa honen baitan betetzen duen funtzioaren inguruko argipen gutxi batzuk emango ditut. Horren ostean kontzeptuen argipenarekin hasiko naiz. Lehengo eta behin erabilitako hitz eta akronimo batzuk argituko ditut, itzulpen eta terminologia mailan. Horren ostean kontzeptu teorikoei ekingo diet, kontzeptu orokorragoetatik hasi eta ikerketa gaiaren ia-ia esklusiboak diren beste batzuetara helduz.

1.1 Marko kontzeptualaren funtzioa ikerketa honetan

Metodologia atalean azalduko dudan moduan, aukeratutako arkitektura metodologikoak egindako ikerketaren forma eta gaitasunak mugatu eta bere aspektu denei eragiten die. Kasu batzuetan eragin hori agerikoa eta hausnartutakoa da, beste batzuetan ia-ia oharkabean gertatzen da. Esaterako, Analisi Situazionaletik abiatu izanak ikerketa honen alderdi teorikoa erabat baldintzatu du, baita ikerketa subjektuekin izandako harremana. Lehen aspektu hau ikerketa irakurtzen duen ororentzat ikusgarria izango da, baina bigarrena, horren inguruan esplizituki hausnartu ezean, hautematen zailagoa. Teoriak ikerketa honetan jokatu duen rola nahiko partikularra izan da ohiko ikuspegi deduktibotik egin ditudan beste ikerketa batzuekin alderatuz gero eta horrek orain eskuartean duzun atal honen funtzioa ere determinatu du.

Funtzio hori, ikerketa gaiaren inguruko lan teorikoa elkarrizketen kodifikazioaren *ostean* egin izanak baldintzatu du eta, horregatik, beste ikerketa batzuetan marko teorikoa izango litzatekeena hemen marko kontzeptuala bilakatu da. Ohikoan teoriaren lanketak, bestek beste, ikerketa-gaia mugatu, subjektuak aukeratu edo kategoriak definitzeko erabiltzen bada, lan honetan teoriak datuek emandako harietatik tira egiteko balio izan du. Ikuspegi honek, aldi berean Oinarritutako Teoriaren (hemendik aurrera, OT; ikus metodologia atala) printzipioak jarraitu eta, aldi berean, traizionatu egiten dituela esan nezake. OTan moduan, teoria ez da landa-lana diseinatzeko erabiltzen, ez eta alde zuzenetik behatuko diren kontzeptuak definitzeko. Baina egia da ere (eta horregatik diot lanak OTaren teoriari buruzko ideietako batzuk traizionatzen dituela) tesi honetan beste batzuek landutako teoriak baduela bere lekua. Datuek iradokitako kontzeptu sentikorrei⁹ azalpen indarra eman eta interpretazio ezberdinak ahalbidetzeko erabili ditut askotariko ekarpen teorikoak eta horrek OTaren begirada ortodoxoa zalantzan jarri dezake. Marko kontzeptual honek hasieran aipatu dudan argipen funtzioa du: erabili ditudan kontzeptuak nola ezaugarritu ditudan esplikatzea du xede, eta ez gaiaren inguruan egon diren eztabaidak aztertu eta ikuspegi teoriko ezberdinen artean nirea kokatzea.

Argitu beharra dut, halaber, erabiltzen ditudan kontzeptu askorekin alde zuzenetik lan egin dudala eta, hortaz, ez direla kontzeptu denak marko bide berdinetik iritsi. Adibiderako, “Gizon taldeak eta feminismoaren inguruko diskurtsoak” (Azpiazu Carballo 2015a) lanean jada, identitatea eta subjektibitatearen inguruko ideia teoriko ugari landu nituen, eta ikerlan honetan ere oso presente daude. Homonazionalismo eta homonormatibitate kontzeptuak ere

9 Metodologia atalean azalduko dut kontzeptu sentikorraren inguruan gehiago.

“Barbarismos Queer” liburuan (Platero, Rosón, eta Ortega Arjonilla 2017) egin nuen ekarpena idazteko landu nituen tesiaren datu-bilketa fasea hasi orduko. Diferentzia eta diskurtsoa bezalako eraikuntza teorikoak ezagunak zitzaizkidan aldez aurretik ere nahiz eta ez nituen horrenbeste sakondu. Aitzitik, markoan dauden beste kontzeptu batzuk elkarrizketetako datuak aztertu ondoren landu ditut, ikerketan garrantzia hartu duten heinean.

1.2 Erabilitako terminologiaren inguruko azalpen gutxi batzuk

Ikerketa lana burutzerakoan, bereziki tesi-txostena idazterako unean, erabili ditudan terminoen inguruko hainbat erabaki hartu behar izan dut, gauzak, pertsonak, ideiak eta komunitateak izendatzeko dauden aukera ezberdinen inguruan bat hautatu eta beste batzuk alboratuz. Termino horietako batzuk txostenean zehar asko errepikatzen dira eta, beraz, hemen horien inguruko azalpen txikia eskainiko dut/jasoko dut. Beste batzuk, ikerketan zehar garrantzi gutxiago dutenak, oin-oharretara eraman ditut, atal hau larregi ez luzatzeari begira. Hemen, beraz, egindako hautu terminologiko batzuen inguruko azalpen laburrak.

LGTB*

Lehen hautapena izan da ziur aski zailena. LGTB akronimo bat da, Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualak izendatzeko erabiltzen dena. Lehen arazoa, beraz, akronimoaren atzean gordetzen diren izen ezberdinak dira, sigla bakoitza bere horretan. Bigarrena sigla horien konposaketa da, zenbat letra jartzen zaizkion eta zeintzuk diren. Has gaitezen lehen aferarekin.

Ikerketa honetan gay, lesbiana, trans* eta bisexual hitzak erabili ditut sexualitatearen eta genero nortasun zein adierazpenaren arau normatiboekin era batean edo bestean bat egiten ez duten pertsonak izendatzeko. Hau, berez, arazotsua da. Tesiak dituen bi atal nagusietan zabalago azaldu dudana bezala, termino hauek identifikazio eta errepresentazio arazoak sortzen dituzte. Alde batetik, genero nortasun, adierazpen eta sexualitate arau hegemonikoetara (guztiz) moldatzen ez diren pertsona guztiek ez dute zertan sigla horietako batekin identifikatu (Romero Bachiller, García Dauder, eta Bargueiras Martínez 2005; Llamas 1998). Badira sexu-harremanak eta harreman afektiboak bere sexu bereko pertsonekin dituzten gizon eta emakumeak ez dutenak haien burua gay edo lesbianatzat hartzen. Horretarako arrazoi ezberdinak izan ditzakete: ez dira identifikatuak sentitzen etiketa horiek duten esanahi sozialarekin edo, ez dute haien burua sexualitate bizipenaren arabera katalogatu nahi. Badira ere trans* etiketarekin identifikatzen ez diren hainbat subjektu, besterik gabe haien burua emakume edo gizontzat dutelako, eta ez *trans** emakume edo gizontzat. Bisexualen kasuan ere berdintsu. Egindako lehen hautua, beraz, nortasun eta etiketa horiei balio analitiko eta politikoa ematea izan da, kontziente izan arren sexualitate eta genero bizipen ez-normatiboak dituzten askorentzat gay, lesbiana, trans* edo bisexual deituak izatea *goitik beherako* etiketatzea dela, inposizio bat. Etiketok erabiltzeak, beraz, kategoria horien nolabaiteko reifikazioa dakar, baina analitikoki eta politikoki ezinbestekoa dela deritzot.

Termino horiekin identifikatzen diren pertsonen kasuan ere, bakoitzak aitortzen dien balio eta esanahia ezberdinak dira. Batzuentzat gay edo lesbiana izatea sexualitatea bizitzeko modu bat da, subjektuaren arabera jatorri ezberdina duena gainera: betidanik izan garen zerbeit – biologian edo psikologian oinarrituz – edo era kontziente edo inkontzientean egindako aukera baten ondorioa. Beste batzuentzat, tartean elkarrizketatu ditudan subjektu askorentzat, izaera politikoa duten terminoak dira gay, lesbiana, bisexual eta trans*, berdintasunaren edo askapenaren aldeko borrokan erabilgarri bihurtzen diren kategoriak. Borroka subjektu horien ezaugarriek, maiz, ez dute bat egiten gizarteak termino horien inguruan egiten duten definizioarekin eta, ondorioz, hitz horiek alboratu eta beste batzuk bere egin dituzte hainbatek. Hortik askok haien burua “marika”, “bollera” edo “trans*” izendatzea, gay, lesbiana edo transexual izenak alboratuz. Izendatze horiek bere egitea izaera politiko eta konprometituagoa emateko era bat da talde eta norbanako askorentzat edo, besterik gabe, gay, lesbiana eta transexualen inguruan dagoen irudi hegemonikotik alde egin eta beste kokapen bat eskuratzeko forma. Jendeak bere burua izendatzeko duen gaitasuna errespetatuz, elkarrizketaturiko subjektuen kasuan haiek aukeratu eta erabili dituzten izendapenak erabili ditut ikerketan zehar. Ondorioz, ikerketan parte hartu duten pertsonak izendatzea ez da arazotsua izan, beraiek egindako hautura mugatu naizelako, baina presente egon ez diren pertsonen etiketa jartzea konplexuagoa izan da.

LGTB* politikei eskainitako atalean zabalago azalduko ditut talde ezberdinek nominalizazio forma horien inguruan dituzten estrategia eta iritzi ezberdinak eta, esaterako, zergatik batzuek beraien mugimenduari “transmaribibollo”¹⁰ esaten dioten eta beste batzuek LGTB. Postura ezberdinen balioa aitortzen dut eta zinez diot argumentu baliagarriak topatu ditudala horietan guztiotan, baina terminologia aukeratzeak eztabaida honekiko nire posizio propioa hautatzera behartzen nau nolabait, zirt edo zart egitera. Horrela, iritzi sendorik izan ez arren, lesbiana, gay, trans* eta bisexual hitzak erabiltzea erabaki dut. Nire burua izendatzeko erabiltzen dudana hitza *marika* izan arren, ekintza eta analisi kolektiborako egokiagoak ikusten ditut hitz horiek, besteak beste jende kopuru handiagoa identifikatu daitekeelako beraiekin eta interpretazio ezberdinak dituzten izendapenak direlako.

Aipamen berezia merezi dut orain arte jada asteriskoarekin erabili dudana **trans*** hitzak. Izen denek beren baitan esanahi ugariak biltzen dituzte, baina trans* hitzaren kasuan bereziki esanguratsua da. LGTB sigletan, T hori transexualitatearekin lotu ohi dugu, baina T interpretatzeko era ugari daude, transexualitatea bera definitzeko dauden moduan. Badira urte batzuk aktibista eta ikerlari ugariak trans* erabiltzen dutela, genero arautuaren bizipen eta adierazpenaren lerro zurrunik hausten dituzten pertsonen esperientzia eta egoera sozialen aniztasuna islatu ahal izateko. Honela, trans* hitzaren atzean transexualitatea,

10 Izendapen honek edo TMBB akronimoak trans*, marika, bisexual eta bollera hitzak biltzen ditu.

transgenerismoa, trabestismoa edo transformismoa aurkitu ditzakegu. Transexualitatea da ziur aski gaur egun ezagunena, jaiotzean genero bat egotzia izan arren beste generoan kokatzen diren pertsona ugari erabiltzen dutena. Transexualitateari buruzko ulerkeran, gehienetan, pertsona horiek bizi duten generoak eta genero sozialak – besteok hautematen dugunak – bat egin dezaten estrategia eta eraldaketa ezberdinak abiatzen dituzte: izenaren aldaketa, janzkerarena, gorputz adierazpenarena, gorputzarena berarena. Kasu askotan, beraz, helburua ezarritako generotik bizitako generora trantsizioa egitea da.

Trans* pertsona askok, aldiz, ez dute haien burua narrazio horretan islaturik sentitzen edo, irudikapen horren ideia nagusiekin bat egin arren, bestelako bideak hartu dituzte beren genero bizipena eta genero sozialak artikulatzeko. Honela sortu zen, esaterako, transgenerismo hitza (Galofre eta Missé 2015), ezarritako generoan eroso egon ez arren *kontrako* generora trantsizioa egin nahi ez zuten hainbat pertsonaren esperientzia, trantsizio hori egin ostean atzera lehengo generora bueltatzen zirenean edo genero bitarrean identifikatzeko asmorik ez zutenena bildu asmoz. Aldi berean, transgenerismo hitzak gorputzaren interbentzioaren inguruan transexualitatearen inguruko begirada ohikoak egiten duen hertsidura hautsi nahi du: gorputza kirurjiko aldatzea sentitutako generoan bizi ahal izateko ezinbestekotzat jotzea, sentitzen ez den generoan izendatua izatea gorputz okerrean jaiotzearekin identifikatzea eta abar. Transgenerismoaren kontzeptuak ideia horietako batzuk zalantzan jarri eta trans* jendeak genero bitarra inposatzen duen gizarteetan beren bizitzekin era duinean aurrera jotzeko dituzten estrategia eta aukera guztiak mahai ganean jarri nahi ditu. Zer esanik ez, terminologiaren kontuak beti irristakorrak dira: askoren aburuz, transgenerismoaren elementu asko jadanik transexual hitzak biltzen ditu, alegia, gay edo lesbiana hitzen kasuan moduan, transexual hitzaren atzean ere esanahi ezberdinak biltzen dira. Horretaz gain, trabestismoa edo transformismoa bezalako esperientzia eta identitateak ere bildu nahi ditu trans* asteriskoak (Platero 2014). Nolabait esateko, genero bizipen, sentipen eta adierazpenean sortu daitezkeen esperientzien aniztasuna islatu nahi du asterisko horrek, hala nola trans* mugimenduetan dauden askotariko iritzi, estrategia eta planteamenduak.

Trans* eztabaidak azken hamarkadetan hartu duen garrantziaren parekoa izan da LGTB sigletan beste batzuk integratzearen beharra. Nortasun berrien integrazioak akronimoari eraldaketak sortu dizkio: LGTBtik LGTTTBra (lesbiana, gay, transexual, transgenero, trabesti, bisexual), edo LGTBQra (queer gehituz), edo LGTBQI (intersexual gehituz) edo LGTBQIA (asexualitatea gehituz). Kasu batzuetan LGTTTBQIA erabili izan da (aurreko denak bilduz) eta ziur aski, ahazten ditudan beste batzuk ere. Ez da erraza patroia bat seinalatzea akronimoaren letra kopuruaren inguruan, izan ere, LGTB* politikei bildu zaizkien identitateak ikusgarri egiteko modu bat izan da letra berriak gehitzea, baina taldeek hartu dituzten erabakiak (adibidez TTT jarri edo T bakarrean trans* ikuspegi osoa biltzen zutela adieraztea) aldakorrak, uneari lotutakoak eta oso era ezberdinetan justifikatutakoak izan dira. Berriz ere, sexualitatearen eta genero normatiboaren arauak hausteko dauden forma guztiak

sigletan biltzea zaila eta arazotsua da. Esaterako, intersexual hitza gehitzeko nahikoa erraztasun egon da, baina horrek ez du esan nahi LGTB* mugimenduek intersexualitatea zertan datzan edo nortasun hori aldarrikatzen dutenen eskaerak ulertu dituztenik. Berdintsu geratzen da asexualitatearekin, eta era berean arazotsua da queer hitza biltzea, batzuen ustez sexualitatearen edo genero nortasunaren inguruko izena baino kontzeptu akademikoa delako eta, gainera, anglizismo bat.

Nire aukera LGTB siglei asteriskoa gehitzea izan da, arazo hauek guztiak konpondu ez arren aniztasun eta konplexutasun horren berri emateko aukera ematen duelakoan¹¹. LGTB akronimoari gehitutako sinbolo horrek funtzio ezberdinak bildu nahi ditu. Kategoria eta nortasun horietako bakoitza bizi eta ulertzeko forma ezberdinak adierazi nahi ditu, baita berauek politizatzerako bidean izan ditzaketen mutazio nominal guztiak (“bollera”, “marika”, “travolaka”...) eta sexualitate eta generoaren inguruan sortzen diren kuestionamendu zahar zein berriak. Maila horretan, LGTB* komunitateaz edo LGTB* politikez ari naizenean asteriskoaren azpian zehaztasun guzti horiek bildu nahi ditut; bizipenei, nortasunei, izendatzeko moduei, subjektu politikoei eta ikuspegi ideologiko-politiko ezberdinei buruzkoak diren ñabardura horiek guztiak. Horrela, LGTB* eta bere barruan dauden kategoria guztiak azterketa soziologikorako zein artikulazio politikorako fikzio erabilgarriak bilakatzen dira, barnebildu nahi duten bizitza eta materialtasuna ordezkatzeko gaitasunik izan ez arren, pentsatu eta hausnartzeko baliagarriak zaizkigunak.

Bizinortasuna

Dagoeneko hainbatetan aipatu dut genero eta sexualitatearen *bizipena*, norbanakoarekin eta indibidualtasunarekin lotzen den ideia. Aitzitik, sexualitate eta generoa aipatzean egonkor xamarrak eta sozialki eraikiak diren kategoria eta balio sistemen inguruan ari naiz, egungo gizartearen ekonomia politikoak antolatzeke ezinbestekoak diren egitura sozialez. Egitura eta bizipena haien artean urrun daudela eman dezake, batak gertakari sozial zabala eta besteak norbanakoaren egoera azaltzeko balio duten heinean. Ostera, ikerketan garrantzia eman nahi izan diot egitura horiek gorpuztu eta esperimendatzen ditugun moduei eta horretarako baliagarria izan zait geroago azalduko dudana esperientziaren nozioa, egituraren eta norbanakoaren barne-esperientziaren arteko bidegurutzea den heinean. Sexualitatearen eta generoaren bizipenean bereziki ikusgarria da esperientzia sozialaren alderdi makro eta mikro

11 Asteriskoaren erabilerak sortu zuen eztabaidarik 2019ko azaroan Durangon ospatu ziren Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan ere. OZEN kolektiboko kideek, adibidez, emakume* erabiltzeak feminismoan trans* inklusioaren inguruan eta bereziki transmisoginiaren inguruan dauden eztabaidak konpontzen ez zituela salatu zuen. Interbentzio osoaren bideoa hemen aurkitu daiteke: <https://labur.eus/vtY5p> (2020-01-18an kontsultatua).

horien arteko gurutzaketa, eta korapilo hori izendatu ahal izateko hitz berri bat asmatzeko lizentzia hartu dut. Hemendik aurrera erabiliko dudana bizinortasuna kontzeptuak (hiztegian ez dagoen hitza den heinean kurtsibaz idatzi dudana) generoaren eta sexualitatearen inguruan ditugun bizipenak eta nortasunak bildu eta egitura sozialarekin lotu nahi ditu. Sexualitatearen kasuan lehen aipaturiko esperientzien aniztasuna bildu nahi du kontzeptuak: LGTB* subjektu askorentzako haien sexualitatea aldi berean nortasuna, uneko bizipena, metaturiko esperientzia eta kategoria politikoa da. Gainera, kontzeptu berri honek genero bitarraren inguruan sortzen diren analisi kategoria ezberdinak biltzeko balio dit: jaiotzatik egotzi zaigun generoa, nortasun bezala bizi duguna eta genero adierazpena (Missé 2018). Oso laburki azalduko ditut kategoria hauek.

Mendebaldeko egungo gizarteetan eta, kolonialismoaren eraginez ia-ia mundu zabaleko txoko gehienetan, jaiotzatik genero bat edo bestea asignatzen zaigu. Kromosomak, gonadak, hormonak eta genitalen forma erabiliz zientzia ezberdinek kategorizazio bitarra finkatu dute, onartzen dena baino anitzagoa eta aldakorragoa den sexualizazioa bi gelako espetxe bihurtuz. Jaiotzatik egozten zaigun sexu bitar horren “gainean” eraikitzen da genero banaketa soziala: arra izendatua izan dena genero maskulinokoa izango da eta emea izendatua izan dena, femeninokoa (Gregori Flor 2006; Fausto-Sterling 2000; Gómez 2018). Genero bakoitzari, noski, bere funtzio sozial eta portaerak dagozkio eta horiek betetzea onarpen edo arbuio sozialaren bidez erregulatzen da. Portaera horien artean bereziki intimoa eta gorputzua da genero adierazpena, egunerokoan eta uneoro zaindu behar den gorputza erakutsi, mugitu eta eszenan jartzeko modu maskulino edo femeninoa. Hori gutxi balitz, generoarekin estuki lotzen da sexualitatea eta, bereziki, desira-objektuaren hautua: zirkulua ixteko, ar izendatua izan den gizonak, genero rol eta adierazpen maskulinoa izateaz gain “kontrako” sexuarekiko erakarpena sentitu behar du, eta alderantziz.

Arrazaren kasuan gertatzen den moduan, genero sistemak (Connell 1995a) ekonomia politikoari funtzionalak diren kategorizazioak dira, egungo gizarteetan lana eta baliabideak banatzeko baliagarriak diren fikzio politikoak. Esaterako, feminitateari egozten zaizkion balio eta ezaugarriak – besteekiko zaintza, ugaltzeko desio eta gaitasuna, naturarekiko gertutasuna eta abar – ezinbestekoak dira kapitalismoaren funtzionamendua posible egiten duen lanaren banaketa justifikatzeko. Berdina esan dezakegu heterosexualitateak sistema bezala sortzen duen ekonomiaren unitateaz, alegia, familiaz. Generoak eta sexualitateak sortzen dituen banaketak ez dira, beraz, arbitrarioak: hierarkikoak eta funtzionalak dira. Beren izaera funtzional horrek errealitate estruktural sasi-egonkorretan bilakatzen ditu baina, esandako moduan, egitura horiek pertsona zehatzen gorputzetan egikaritzen dira eta hor nahasten dira arau, agenzia eta erresistentzia ezberdinak. Pertsona bakoitzak bere esleitutako

sexu eta generoa, genero nortasuna, genero adierazpena eta sexualitatearen bizipen propioa du eta horiek denak aldi beran eta elkarrekin harremanean esperimentatzen ditu. Hau gutxi balitz, egitura horiek norbanakoengan duten eragina eta nortasuna konfiguratzeko gaitasuna aldakorra eta ingurunearen mendekoa da. Konfigurazio horiek denak bizinortasuna kontzeptuan bildu nahi izan ditut.

Okerra

Ikerketaren hainbat pasartetan “okerra” hitza erabili dut ingelesezko “queer” hitzaren orde. Ez dut hala egin kasu guztietan. Esate baterako, testuinguru anglosaxoiarekin lotura duten kasuetan ingelesezko hitza mantendu dut, itzulpenak baino zentzu gehiago duelakoan. Horrela egin dut, adibidez, queer teoriak aritu naizenean. Baina queer hitzak zentzu zabalagoa du, eta haietako bat herrialde anglosaxoiatan “straight” terminoaren kontrakoa izatea da. Euskaraz “zuzen” erabiliko genuke “straight” itzultzeko, eta gure kasuan ere hitzak zentzu ugari ditu. Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera, adibidez, 17 adiera ditu: norabidez aldatzen ez dena, matematikan 90°ko angelua, bitartekorik gabea, egiaren arabera, zuzentasunaren arabera, arauen edo ereduaren arabera, bakoitzari dagokiona ematen diona, jainkoaren legea jarraitzen duena, zehatza eta abar. Ingelesez “straight” hitzaren adiera herrikoietako bat “heterosexuala” da (Oxford hiztegian 12. adiera) eta euskarazko “zuzen” hitzak, horren era esplizituan sexualitateari erreferentziarik egin ez arren, zuzentasunaren ikuspegi arautzailea azaleratzen duten arauak betetzeari buruzko adierak dauzka. Bere kontrakoak, okerrak, adiera ugari ditu ere, gehienak zuzentasunari oposizioan: lerro zuzena bezalakoa ez dena, makurra, gauza txarren bat egitea, hanka-sartzea eta abar.

Testu honetako une ezberdinetan okerra hitza erabiltzeak helburu eta arrazoi ezberdinak ditu. Alde batetik, itzulpengintzaren ikuspegitik uneoro anglizismoak erabiltzea ekiditen laguntzen du. Bestetik, queer teoria eta praktikak, batik bat AEBetatik heldu zaizkigun herentziak izaki, gure testuingurura ekarri eta zentzuz janzteko asmoa du ere. Sexualitate eta genero nortasunen inguruko kritika egiten duen korrante teoriko hori gurera ekartzean hartu ditzakeen ñabardura eta adiera ezberdinak biltzeko gaitasuna du terminoak lan honetan eta, maila horretan, proposamen irekia da esanahi garbia duen hitza baino.

Diferentzia, ezberdintasuna, ezberdinkeria

Testuan zehar beraien artean oso gertu dauden hiru hitz erabili ditut eta haien arteko aldeak laburki argitu nahi nituzke. “Ezberdintasuna” erabili dudanean hitz horren ohiko esanahiarekin egin dut, alegia, Euskaltzaindiaren hiztegian aurkitu daitekeen *“gauza bat besteetatik desberdintzen duen gauza; bi gauza edo gehiagoren artean dauden aldean multzoa”* esanahiarekin. Ezberdintasuna (edo bere sinonimoa den desberdintasuna) bi elementu edo gehiagoren artean dauden aldeak izendatzeko erabili dut. Kasurako, mugimenduek dituzten planteamendu politikoak, subjektuen esperientziak, egoera ekonomikoak edo kokapen geografikoak haien artean desberdinak direla esan daiteke.

Iturri berdinen arabera, desberdintasuna berdintasunik eza ere izan daiteke, eta adibide bezala “gizarte desberdintasunak” jartzen du Euskaltzaindiaren hiztegiak. Baina dakigun moduan bi elementu edo gehiagoren artean aldea egoteak ez du esan nahi haien inguruan bazterketa edo gizarte desberdintasuna sortzen denik. Adibiderako, pertsonen begien koloreak haien artean ezberdinak dira baina horrek ez du gizartearen egitura determinatzen. Bi ideia horien arteko aldea adierazteko asmoz ezberdinkeria hitza erabili dut testuan zehar, gizartearen egitura eta euren baitako subjektuen kokapen soziala baldintzatzen duten elementuen (generoa, klasea, sexualitatea edo arraza) eragina azpimarratu asmoz.

Azkenik, diferentzia hitza ere erabili dut. Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera ezberdintasun, alde eta desberdintasun hitzen parekoa izan arren, hitzak bestelako esanahia du politika feministen eta europar filosofiaren eremuan. Diferentziak zentzu horretan ez du bi elementu edo gehiagoren arteko aldea besterik adierazten, pentsamendu lerro zehatz batzuen testuinguruan alde horiek subjektibitatearen eraikuntzarekin izan dezaketen eragina baizik. Geroago azalduko dut diferentzia modu ezberdinetan kontzeptualizatu daitekeela, baina momentuz bere erabilera terminologikoa ezberdintasun eta ezberdinkeria hitzen erabileratik banatzea da nire helburua.

Bestelako terminoak

Testu honetan erabili ditudan beste termino batzuk oso labur zerrendatuko ditut orain. “Zisgenero” edo “zis” erabili dut beraien bizi ibilbidean zehar jaiotzean esleitu zaien generoarekin jarraikortasuna adierazten duten pertsonak izendatzeko. Transgenero edo transexual hitzetan trans- aurrizkiak batetik bestera pasatzeko keinua edo mugimendua adierazten duen moduan, “berdina” esan nahi duen “zis-” aurrizkiak genero berean geratzearen egoera azaltzen du. Argitu beharra dut, ordea, nire ikuspegitik norbere generoaren inguruko desadostasunak forma asko hartu ditzakeela eta beraz ez ditudala bi

kategoria hauek – zis eta trans – esentzialtzat hartzen. Alegia, ez dut esan nahi zisgenero kategoriaren azpian kokatzen diren pertsona guztiek beraien esleitutako generoaren arauak erabat eta uneoro betetzen dituztenik, baina arau horiek zalantzan jartzeak ez daramatza beren genero nortasuna zalantzan jartzera, eta hori, ikerketa honek darabilen testuinguruan, ezberdintasun handia da.

Hainbatetan erabili dut ere “**passing**” hitza. Kasu honetan ez dut anglizismo hori itzultzeko ahaleginik egin, parte-hartzaile askok itzuli gabe erabili duten heinean. Estatu espainiarreko zein Latinoamerikako aktibista zein ikerlariak ere gehienetan itzuli gabe erabiltzen dute kontzeptua. “Passing” ingelesez “pasatzea” litzateke. Pasatzea esaten dugunean gazteleraz ere erabiltzen den “pasar por” aditzari egiten diogu erreferentzia. Trans* pertsonen kasuan, passinga izatea – edo ez izatea – norberak sentitzen duen generoan hautemana izatea da. Alegia, trans* emakume bat sozialki emakume bezala ikusia denean (eta ez, preseski, *trans** emakume bezala) passinga duela esaten da. Berdin trans* gizonekin. Passingak era ugartan eragiten die trans* pertsonari: enplegua edo inguruko onarpena lortu eta indiferentziarako eskubidea irabazten laguntzen du, besteak beste. Azken honek egunerokotasunean trans* bezala identifikatua ez izateko aukera ematen du eta beraz indarkeria fisiko eta psikologikoa pairatzeko aukerak murrizten ditu. Trans* aktibismoan sona handia du terminoak, hain zuzen ere egungo gizartearen transfobia eta transmisoginia seinalatzen lagundu duelako. Mugimendu ezberdinek azken urteotan trans* ikusgaitasunaren inguruan sortu diren dinamikak kritikoki aztertu dituzte, transexualitate eredu ikusezin edo hautemateko zailaren onarpenak ezkutatu ditzakeen arriskuak mahai gainean jarri. Egungo kultura popular eta errepresentazio gehienek lekua egiten diote “igartzen ez den” transexualitate eredu bati eta horrek, paradoxikoki, passing “ona” ez duten trans* pertsonak are leku okerragoan kokatu ditzake. Azken urteetan egin diren aurrerapenei garrantzirik kendu gabe, transexualitatearen onarpena passingarekin hain estuki loturik egoteak transfobia desagertzetik urrun dagoela diosku.

Amaitzeko, oraintsu aipatu dudan **transmisoginia** kontzeptua argitu nahi nuke. Termino horren azpian biltzen da emakume trans*en egoeraren berri eman nahi duen transfobiaren inguruko irakurketa partikularra. Transmisoginia, beraz, misoginia eta transfobiaren arteko gurutzaketa da, genero arauak hautsi eta trantsizioa egiten duten pertsonen kontrako jarrera eta diskriminazioaz gain, genero bitarraren alderdi femeninoan kokatzen direnek bizi duten egoera partikularra ere seinalatu nahi duen terminoa. Bere abiapuntuan mendebaldeko gizarteek femeninotzat hartzen duten guztiarekiko duten mespretxuaren kritika dago. Transmisoginiaren efektuak izan daitezke, besteak beste, enplegu munduko bazterkeria (estatistiken arabera trans* emakumeek gizonen baino zailagoa dute lana aurkitu, mantendu eta egonkortzea), indarkeria zuzen maila altuak (psikologikoki zein fisikoki) edo emakume trans*en inguruko irudi sozial negatiboa.

1.3 Kontzeptu teorikoak

1.3.1 IDENTITATEA, INTERPELAZIOA, IDENTIFIKAZIOA, ETA SUBJEKTIBAZIOA

Tesi honen izenburuan bertan ikusi daitekeenez, subjektibotasuna ikerketaren interes nagusienetakoa da. Hala ere, identitate hitza etengabe aipatzen dut testuan zehar. Bi kontzeptu hauek, identitatea eta subjektibotasuna, oso gertu egon daitezke eta, maiz, sinonimotzat hartu izan dira. Ez da hori lan honen kasua eta, beraz, komeni zait bi kontzeptuok nola ezberdindu ditudan argitzea, hala nola horietako bakoitzarekin interpelazioak eta identifikazioak duten harreman estu eta konplexua. Ikuspegi analitikotik harago, kontzeptu hauek ondo zehaztu eta ezberdintzat jotzea politikoki lagungarria izan daiteke azken urteotan sortu diren identitate politiken inguruko eztabaidak emankorrak izan daitezen eta ez ikuspegi ezberdinen arteko ahari-talkak. Esan gabe doa lan honetan ideiak kontzeptualizatzeko erabili dudan modua ez dela dagoen bakarra eta ez dudala, hortaz, behin betiko kategorizazio bat sortzeko asmorik. Helburua, aitzitik, testu honetan kontzeptu horiek nola ezaugarritu diren argitzea da, gaizki-ulertuak ekidin asmoz. Has gaitezen .

Identitatea kontzeptu klabea da egungo gizarteetan; analisi soziologiko zein politikoetan, psikologian, aktibismoan edo antropologian egunero azaltzen den ideia. Identitateak gizakiek edo giza-taldeek duten ezaugarri bati egiten dio erreferentzia eta, askotan, atributu moduan ulertzen dugu, gure izenaren atzean jarri dezakegun osagarri bezala: ni euskalduna naiz, Joseba homosexuala da, Paula emakumea. Baina “identitate” eta ez, adibidez, “ezaugarri” erabiltzeak adierazten digu ez garela ari deskribapen hutsen inguruan, baizik eta gure izaera bera determinatzeko gaitasuna duten elementuez. Maila honetan, egokia zaigu hainbat zehaztapen egitea. Hasteko, identitateak, hala izateko, gutxieneko egonkortasun, ikusgaitasun eta gizarte-onarpen maila behar dituela. Gizaki baten inguruan esan daitekeen oro ez da identitate bat. Adibiderako, niri marradun galtzerdiak janztea gustatzen zait eta ia egunero erabiltzen ditut, baina horrek ez nau marradun galtzerdidun bilakatzen besteen begietan. Ideia honetatik tiraka, esan dezakegu identitatea gizakion atributu bat dela izaki sozialak garen heinean: ez dago identitaterik besteekiko harremanik gabe, soziala ez den gizakirik ez dagoen moduan. Identitateak, beraz, besteekiko interakzio jarraituan sortzen dira eta kondizio batzuk beharrezkoak dituzte posible izateko edo, bestela esanda, gizarteak posibletzat jo behar ditu (ohar bedi ez dudala *ontzat* esan, *posibletzat* baizik).

Bigarren argipena identitateen izaera poliedrikoari buruzkoa da: norberak identitate bakarra izan arren berak elementu ezberdinez osatzen da. Unibertsitatean, ertainetako eskoletan edo herri mugimenduen guneetan identitateez hausnartzeko hainbat mintegitan parte hartu dut eta eztabaidari ekiteko ariketa moduan bertan daudenei haien burua hitz gutxitan identifikatzeko eskatu izan diet. Parte-hartzaileek, gehienetan, hitz bat baino gehiago behar izaten dituzte galderari erantzuteko. Areago, hitz bakarrarekin erantzuteko aukera bakarra norbere izena esatea da – “ni Jokin naiz” – eta izena, eguneroko elkarbizitzan ezinbestekoa zaigun arren, ez da nahikoa gure burua deskribatzeko. Hainbat tailer eta mintegitan parte hartu ostean, esan dezaket jendeak bi eratako elementuak erabiltzen dituela bere identitatea azaltzeko. Alde batetik, beren bakantasuna azpimarratzen duten aspektu psiko-emozionalak, hala nola “lotsatia naiz”, “nire lagunena lagun ona”, “beldurtia” edo “alaia”. Bestetik, beren banakotasunaz harago, talde sozial batean kokatzen dituen aspektuak: “euskalduna naiz”, “Bilbotarra”, “emakumea”, “feminista”, “abertzalea”, “lesbiana” eta abar. Bi hitz-sorta hauek gizakiok gure bizitza soziala egingarri egiteko behar ditugun bi osagaiei erantzuten diete, alegia, talde baten parte izatea eta aldi berean bakanak garela sentitzea. Alta, talde baten parte sentitzeak ez du esan nahi talde *bakarraren* parte garenik, aldi berean izan gaitzkeelako euskaldunak, bilbotarrak, emakume, feminista eta lesbianak.

Gure identitateak sozialak eta anitzak dira, baina ez prozesu mekanikoak, identitate horiek ez ditugulako era kontzientean aukeratzen. Gure sozializazioaren parte dira, eta aldeztatik argitu nahiko nuke sozializazioa diodanean ez naizela haurtzarora mugatzen den prozesu baten inguruan ari. Ikerketa honen analisietan ikusiko dugun moduan, gizakiok etengabe sozializatu eta birsozializatzen gara, egoera eta ingurune berriak uneoro barneratuz eta aldi berean gure presentziarekin (oso era mugatuan bada ere) ingurune horiek transformatuz (Berger eta Luckmann 2015). Identitateak sozializazioan sortzeak, hain zuzen ere, bi ezaugarri horiek ditu: alde batetik, aldakorra eta kontingentea da eta, bestetik, kontzientearen eta inkontzientearen artean kokatzen da. Horien inguruan hausnartu dezakegun arren, ezin ditugu erabat agerian jarri. Horrek ez du esan nahi konplexuak diren prozesu horiek gizaki bakoitzak jarraikortasunez, dezenteko koherentziaz eta normaltasunez bizi ez dituenik. Identitateak jantzi misteriotsu, aldakor eta konplexuak izan arren, gure gorputzari itsasten dira eta ia konturatu gabe daramatzagu. Haragituak eta gorputzuak diren heinean, nortasun horiek guztiak bakartzat ditugu. Zentzu horretan, Maria Livia Algak dioskun moduan, identitateak ez dira singularrak edo pluralak, anizkoitzak baizik.

Concebir la identidad como encarnada nos sugiere concebirla como múltiple y, por ende, arraigada en una entidad, el cuerpo, que no puede tener en sí un carácter cuantitativo de singularidad o de pluralidad, pues, como cada uno/a sólo tenemos un cuerpo, esta condición carnal es inseparable de la idea de que hemos nacido del cuerpo de algún/na otro/a (Alga 2018:148)¹²

Momentuz esana dut identitateak egonkor samarrak, sozialki aitortuak, anizkoitzak eta gorpuztuak direla, baina, nola sortzen dira? Ze prozesu gertatzen dira ezaugarri horiek identitate bihurtu ahal izateko? Identitateen inguruko ikuspegi ezberdinak baliatu daitezkeen arren, lan honetarako boterearen gaia erdigunean jarriko duen bat erabili dut, nahiz eta ñabardura ugari gehitu dizkiodan. Abiapuntu bezala Louis Althusserren teoriak hartu ditut, ondoren beste ikuspegi batzuekin aberasteko. Frantses filosofoak 1970ean, bere emaztea erail baino hamar urte lehenago, ezaugarritu zuen interpelazioaren bere teoria nagusia, Estatuaren Aparatu Ideologikoak (aurrerantzean, EAI) aztertzea helburu zuen lanean (Althusser 1977). Bere ekarpena baliagarria zait identitateen sorrera boterearen erabileraren ondorio gisa aurkezten duelako, baina ezinbestekoa dut bi argipen egitea. Lehena, bere teoriak ez duela, nire ustez, identitateen sorrera ikuspegi unibertsaletik azaltzen. Alegia, kapitalismoaren garapenean ideologiak izan duen eragina aztertu nahi izan zuen eta, beraz, ez da identitateen teoria orokor edo unibertzala, baizik eta kapitalismoaren testuinguru zehatzean zentzua duena. Bigarrena bere irakurketaren zurruntasun eta historikotasunari dagokio. Bere teoriaren sorgortasunari Sara Ahmeden argumentuekin erantzungo diot beranduago baina, historikotasunari dagokionean, esan dezadan 1970eko hamarkadaren testuinguruan idatzia egoteak bere teoriak gaur egun izan dezakeen azalpen gaitasuna mugatzen duela. Kapitalismoaren sistemaren baitan estatuak jokatzen duen papera nabarmen ahuldu eta interpelazioak eta identitateak jokatzen zutena indartu egin den arren, bere ikuspegiak eguneratzea komeniko litzateke. Hala ere abiapuntu egokitzat jo dut eta bere ideia nagusiak bilduko ditut ondoren.

Althusserren interes nagusia ideologiaren berrirakurketa materialista egitea zen, eta bere abiapuntua kapitalismoan dauden bi funtzioak interpretatzea izan zen: ekoizpena eta erreprodukzioa, gazteleraz are lotura etimologiko handiagoa dutenak (“producción y reproducción”). Kapitalismoak, funtzionatzeko, produktuak eta merkantziak ekoitzi behar ditu baina, aldi berean, ezinbestekoa du ekoizpen hori posible egiten duten baliabideak bermatzea, alegia kapitalismoaren beraren erreprodukzioa. Nahitaezkoa da, esaterako, ekoizpenerako erabiltzen diren leku eta teknologiak (aldi berean beste ekoizle batzuen

12 Aipu guztiei dagokien argipena egin nahiko nuke, aurrera egin baino lehen. Hemendik aurrera eta testu osoan zehar, aipu guztietan azaltzen diren kurtsiba, komatxo, azpimarra zein formatu berezitasunak testu originalekoak dira eta ez nik gehitutakoak. Nik gehitutakoak direnean, hala adieraziko dut.

eskutan daudenak) mantentzea baina, filosofo honen ustez erreproduzio gehiena fabrikatik *kanpo* gertatzen da, eta horretarako ezinbestekoa da soldatak jokatzeko duen papera ulertzea¹³. Areago, Althusser arduratzen zuena sistema kapitalistaren erreproduzio ideologikoa zen, alegia, langileak lanean jarraitu nahi izatera eta horretarako ezaugarri egokiak eskuratzera zerk eramaten dituen. Marxen irakurketa ortodoxotik abiatzen da bere azalpena eraikitzeko. Hain da ortodoxoa bere irakurketa non Marxek ideologiari buruz egindako irakurketa ez-materialistatzat jotzen baitu. Bere ustez, ideologiaren analisi materialista egiteko alemaniarrak azpiegitura eta gainegituraren artean egindako banaketan sakondu beharra dago, eta helburu horrekin EAI definitzen ditu.

EAIak ideologia materializatzen duten entitateak dira. Ideologiaren analisi marxista ontzat ematen du Althusserrek, alegia, ideologia klase dominatzaileen menderatzerako tresna dela, baina bere mekanismoen azalpen materiala egin nahi du. Bere aburuz, menderatze ideologiko hori egitura zehatzek egiten dute, esaterako, eskola, eliza, komunikabide edo alderdi politikoei, horretarako praktika eta erritualizazioa erabiliz. Prozesu honen deskribapen materiala egiteak ideologiaren ustezko izaera ideala (ez-materiala) alboratzera garamatza:

Las ideas en tanto tales han desaparecido (en tanto dotadas de una existencia ideal, espiritual), precisamente en la medida en que es evidente que su existencia estaba inscrita en los actos de las prácticas reglamentadas por los rituales definidos, en última instancia, por un Aparato Ideológico. Ocurre, pues, que el sujeto actúa en tanto que es activado por el sistema siguiente (enunciado en su orden de determinación real): la ideología existente en un Aparato Ideológico material, y que prescribe prácticas materiales reglamentadas por un ritual material; dichas prácticas existen en los actos materiales de un sujeto que actúa con plena consciencia, según su creencia (Althusser 1977:110).

Honela deskribatzen du, kasurako, eskolak ideologiaren erreproduzioan duen eragina. Kapitalismoak behar duen espezializazioa burutzeaz gain, eskolak espezializazio horren beharra transmititzen du eta norbanakoak etorkizunean makineria kapitalistan izango duen papera barneratzera daramatza. Horretarako, praktika erritual errepikakorrek eta iraunkorrek finkatzen ditu, arautegien bidez, baina baita erritualizazio ikusezinen bidez ere: eskolan hitz

13 Ikuspegi feministatik kritika egin zaio Althusserrek erreproduzioa fabrikatik kanpo kokatu zuenean emakumeen lanari eskaini zion atentzio urriari. Soldatak jokatzeko duen papera ulergaitza da ez baldin bada emakumeen papera aztertzen bizitzaren zaintza eta erreproduzioan. Horren analisi egokia egin dute ekonomilari eta pentsalari feminista ugariak. Adibiderako ikus Legarreta, Perez Orozco, eta Ávila Cantos (2006); Federici (2017); Pérez Orozco (2017), besteak beste.

egiteko txanda eskatzea edo elizan makurtzea da norbanakoa manupeko egin edo kristau bilakatzen duena. Hona hemen Althusserrek egindako ekarpen nagusia: ez dago norbanakorik botere egituretatik kanpo; jaiotzatik – eta lehenagotik ere – ideologizaturiko mundura heltzen gara, gure posizioa esleitzen digun sistema batera. Berehala itzuliko naiz ideia horretara, baina oraindik ez dut azaldu identitatea sortzearen prozesua nola gertatzen den.

Interpelazioa da prozesu honen muinean dagoena. Interpelazioa azaltzeko, adibide sinplea erabiltzen du Althusserrek. Kaletik doan norbanakoari polizia batek “aizu!” esaten dio eta norbanako horrek buelta ematen du interpelazio horri erantzuteko. Egunerokoan etengabe errepikatzen den egoera arrunt hori filosofo frantsesak egoera filosofikotzat hartzen du, gertaera zehatza baino eredu edo molde bezala aztertuz (Butler 2017:120). Zer gertatu da egoera eredugarri horretan? Ideologiak, estatuaren aparatu baten bidez (polizia) norbait interpelatu du; norbait horrek 180°ko bira eman du eta, hori egitean, ideologiaren baliagarritasuna ontzat eman, ahots hori legitimatu eta *subjektu bilakatu* da. Ohar bedi, Althusserren ustez ideologiak beti ere subjektuak interpelatzen dituela eta, ondorioz norbanakoak subjektu direla interpelazioaren ondorioz baina baita interpelazioaren aurretik. Nola azaldu daiteke tautologia hau? Judith Butlerrek dio:

Uno está ya, por así decir, en relación con la voz antes de responder a ella (...) La narración que pretende dar cuenta de cómo nace el sujeto asume el «sujeto» gramatical antes del relato de su génesis. Sin embargo, esa sumisión fundacional que aún no se ha resuelto en sujeto sería justamente la prehistoria no narrable de éste, y esta paradoja pone en entredicho la misma narración de la formación del sujeto (Butler 2017:125).

Filosofo estatubatuarrak paradoxa bezala interpretatzen du egoera hau. Subjektuak nola sortzen diren ulertu asmoz, ibilbide genealogiko bat irudikatu nahi dugu, hain zuzen ere subjektua *lehenengoz* sortu zeneko unea identifikatu ahal izateko. Baina subjektu horrek ahotsari kasu egiteko duen joera, Butlerrek “sumisio fundazionala” deitzen duena, azaldu ezinekoa da. Alde batetik, lehen esan dudan moduan, denok jadanik existitzen diren gizarteetara heltzen garelako eta, maila horretan, *lehen unetik* interpelatuak gara. Pentsa dezagun, esaterako, gure generoak jaio aurretik jada nola eragiten duen gure inguruneak sortu dituen espektatibetan. Berdin klasearekin edo arrazarekin. Bestalde, jada argi geratu den moduan, interpelazioaren inguruko subjektuaren inguruan aritzeak lengoaiaren aurreko subjektuaren nondik norakoak argitzea eskatuko luke eta, nola eskatu azalpenak hitz egiten ez dakien subjektuari? Noizbait hitz egin aurreko subjektuak izan baginen, ez dugu gogoratzerik, ez behintzat egun dugun egitura linguistikoa baliatu gabe.

Althusserren ustez, beraz, interpelazioak aldi berean subjektuak behar eta sortzen ditu. Kapitalismoaren erreproduzio ideologikoa bermatzeko prozesu horrek beste ezaugarri batzuk ditu ere. Subjektu horien sorrerak Subjektu (maiuskulekin) nagusiaren onarpena dakar, alegia, ideologia nagusiaren ahotsa den autoritate batena. Aldi berean, Subjektuak subjektu txikiak aitortzen ditu, existente eta funtzional gisara. Amaitzeko, ideologiak dena ondo joango dela ziurtatzen du, subjektuek eta Subjektuak elkar aitortu eta beraien posizioa onartu eta mantentzen badute. Maila horretan, interpelazioaren ondorioz subjektuek ez dute soilik lege batzuen arabera jokatzeko, horiek bereganatzen eta gorpuzten dituzte, “habitus” bilakatuz (Bourdieu, Butler 2017:132n zitatua).

Interpelazioaren teoriaren alderdi eztabaidagarria bere efikazia da. Althusserrek uste du interpelazioaren mekanismoak apenas inoiz egiten duela huts. Bere adibidean, poliziak “aizu!” oihukatzen duenean, jende guztiak buelta ematen du, legearekin arazoren bat izan ala ez, poliziak bera deitzeko arrazoa izan ala ez. Baina Sarah Ahmedek (1998) ez du gauza bera pentsatzen. Bere iritziz, interpelazioaren teoriak egiten duen ekarpen handiena subjektuaren sortze prozesua hasieratik eta ezinbestean boterearen esparruan kokatzea da, erregulazio eta debekuen sare batean. Alegia, subjektu izan nahi duenak halabeharrez arau sozialak aitortu behar ditu eta, beraz, gizartearen antolaketa ereduak zalantzan jarri ezean ezingo ditugu subjektuak aldatu. Baina berak ez du uste Althusserrek eredu perfektua azaltzen duenik interpelazioaz ari denean. Gogora dezagun hori dela preseski Butlerrek esandakoa, Althusserren interpelazioa ez dela interakzio egoera gisa ulertu behar baizik eta egoera ideal eta pasarte filosofiko lez. Ahmeden aburuz aski da egoera hori interakzio sozialaren esparrura eraman eta berriz interpretatzea, interpelazioak sistematikoki huts egin dezakeela ikusteko. Bere ustetan interpelazioaz ari garenean ezinbestekoa da kontuan hartzea subjektua, erregimen ezberdinek interpelatua den heinean, ezin dela erabat mugatu. Beste era batera esanda, eguneroko egoera sozial orotan subjektuak “dei” ezberdinak jasotzen ditu, eta subjektua interpelatzen duten ideologia horiek erregimen banatu baina harilkatuak osatzen dituzte. Horrela, erregimen bakoitzak subjektu horrentzat dituen esanahia eta balioa ezberdinak direla ulertzea ezinbestekoa da subjektuaren eraikuntza azaltzeko.

Bere teoria sostengatzeko, Ahmedek interakzio egoera partikular batera jotzen du, gaztetan bere Australiako bizitokian poliziarekin jazotakoa. Bere auzoan – kanpoaldeko erresidentzia auzo lasai batean – pasioan ari da, oinutsik – bere gogoz. Polizia batzuek berarengana jotzen dute, bere azalaren koloregatik (Ahmed australiar aborigen jatorrikoa da eta azal iluna du) eta bere janzkeragatik bi gauza interpretatzen dituztelako: pobrea eta aborigen jatorrikoa dela eta, beraz, auzo horretan egoteko arrazoi bakarra lapurretan egitea dela. Berak, ordea, poliziaren deiari haiek espero ez bezala erantzungo die. Haien lehen galdera zapatak jantzita ez eramatearen ingurukoa izango da eta Ahmedek horretarako eskubidea duela esango die. Poliziek orduan aborigena ote den galdetuko diote eta berak ezetz erantzungo die. Ezezko horren aurrean poliziek “besterik gabe morena dagoela” esango diote, begi keinua eginez, bere emakumetasuna azpimarratuz: berez azal iluna duen pertsona auzoarentzat mehatxua den

bezala, bere azala belzteaz arduratzen den neska gaztea objektu sexual desiragarria da. Propietate pribatuarekiko mehatxua izatetik propietate (sexuala) izatera pasako da. Kontakizunak aurrera jarraitzen du, Ahmed bere etxera bueltatu eta bere familiarekin egoera partekatzen duenean sortzen den gatazkara heldu arte: familiak ez du ulertzen zer dela-eta ukatu edo ezkutatu duen poliziaren aurrean bere jatorri etnikoa.

Egoera honetan klaseak, generoak eta identifikazio kultural aborigenak jokaturako papera nahasia eta konplexua da. Bai Ahmedek bere burua identifikatzekoan zein besteek berarengana jotzean elementu hauen arteko harremana kontingentea eta nahasia da, eta horrek *“boterearen eta identifikazioaren arteko harremana konstitutiboa baina, aldi berean, zatikatzailea”* dela adierazten du, eta *“subjektuaren posizioa etengabe esleitua zein zalantzan jarria”* dela *“elkarrekin harremanean egon arren espezifikoa diren diferentzia erregimenetan duen posizioaren arabera”* (Ahmed 1998:117).

Ikuspegi soziologikotik, interpelazioaren izaera malguago horrek identifikazio prozesuen inguruan jarduteko aukera ematen digu. Lehenago esan dudan moduan identitateen sorrera ez da prozesu kontzientea, zeinetan alde aurretik osatuak dauden subjektuek identitate ezberdinen osagaiak aukeratzen eta bere egiten dituzten, nortasun propioa sortzeko. Baina prozesu hori kontziente ez izateak ez du esan nahi ez denik, hain zuzen ere prozesu bat. Althusserrek interpelazio prozesuen materialtasuna agerian jarri zuen, egikaritzen duten instituzioak izendatuz, eta bere planteamenduak azaltzen hasi naizenean esan dudan moduan pentsamendu kritikoa etengabeko lana izango da instituzio horiek gaur egun zeintzuk diren eta nola funtzionatzen duten – alegia, zein diren unean uneko beren praktika erritualak – aztertzea. Ahmedek dioten moduan interpelazio horiek anitzak, elkarri eragiten diotenak eta batzuetan kontraesankorrak ere baldin badira, ondorioztatu dezakegu kategoria ezberdinetan etengabe identifikatu eta desidentifikatzen garela, testuinguruaren, egoera sozialaren eta kategoria horiek gure ingurunean metatzen duten kapital sinboliko eta materialaren arabera (Bourdieu 2000). Ikerlan honetan ekintzaileekin egindako elkarrizketetan hainbat adibide agertu dira, komunitate espezifikoen diskurtsoek, komunikabideek edo instituzio ezberdinek nortasun kolektiboak irudikatzeko duten moduak identifikazioan nola eragiten duten erakusten dutenak. Gainera, Maria Livia Algak (Alga 2018:148) gogorarazten digun bezala, identifikazioa aztertzeke ezinbestekoa da desidentifikazioan pentsatzea. Adibidez, Ahmeden adibidean, bere jatorri etnikoarekiko desidentifikazioak bere genero identifikazioak baino pisu handiagoa izan dezake.

Dagoeneko konturatuko zen irakurlea zitaturiko autoreen ekarpenek terminoen erabilera konplikatu dutela. Identitateaz hitz egiten hasi naiz eta, gerora, Althusser, Butler eta Ahmedek subjektibitatea ekarri dute testura. Hori gutxi balitz, Ahmedek diferentzia ere dakar. Hasieran seinalatu dudana moduan, identitatea eta subjektibotasuna terminoak nahasturik agertzen dira gaiari buruzko literaturan eta esango nuke argipen gutxi batzuk egiteko unea dela. **Subjektibitatearen** eta identitatearen artean ikerlan honetan egiten dudana erabilera ezberdindua azalduko dut lehenengo, terminologia horrek analitikoki zein politikoki eskaini ditzakeen aukerak aipatuz. Diferentziaren inguruko azalpen batzuk emango ditut ondoren.

Subjektuaz ari garenean, bi alderdi banaezin dituen entitateaz ari gara. Gaztelerazko “sujeto” hitzak oso argi adierazten digu bere alde biko izaera hori, aldi berean adjektibo bat (“sujeto”, atxikia) eta izen bat (“sujeto”, subjektua) delako. Bi elementu horiek elkarren konstitutibo dira, ez dago bata bestetik banatzen eta, interpelazioaren teorian ikusi dugun moduan, boterearekin estu loturik daude. Borroka politikoen esparruan bereziki esanguratsua da izaera bikoitz hori. Pentsa dezagun pertsonok borroka sozialen protagonista garenean, halaber, subjektu bat osatzen dugula, izan beraz oso espezifiko edo zabala: langile klasea, lesbiana antikapitalistak, abertzaleak, behekoak, prekarioak... Subjektu horiek guztiak alde aurretik dauden botere harreman batzuen produktua dira: egoera material desorekatuak dauden heinean¹⁴ dira eratuak. Ez balego kapitalismorik ez legoke langile klaserik, ez balego heterosexualitate normatiborik ez litzateke lesbianarik egongo eta abar. Izendatze horiek guztiak egoera desorekatuen produktuak dira eta, aldi berean, subjektuek egoera horiei buelta emateko baliatzen dituzte. Paradoxikoki, benetan egoerari buelta emanez gero, nominalizazio horiek galdu egingo liriateke. Hori da, adibidez, Monique Wittigek (2006) planteatzen duena, sistema kapitalista heterozentratutik kanpora emakumeek izango luketen estatusaz itauntzen duenean:

(...) las divisiones se hacen abstractas y son conceptualizadas por los amos y más tarde por los esclavos cuando éstos se rebelan y comienzan a luchar. Los amos explican y justifican las divisiones que han creado como el resultado de diferencias naturales. Los esclavos, cuando se rebelan y comienzan a luchar, interpretan como posiciones sociales estas presuntas diferencias naturales.

14 Uler bedi egoera material diodanean materialismoaren ikuspegi zabalaz ari naizela, eta bere ikuspegi klasikoan egin den murrizketa ekonomizistara (non, bide batez esan dezagun, ekonomia enpleguaren mundura murriztua izan den, erreproduzioa alboratuz). Egoera materialez ari naizenean jendearen bizitzan eragina izan dezaketeko kondizioez ari naiz.

Porque no hay ningún sexo. Sólo hay un sexo que es oprimido y otro que oprime. Es la opresión la que crea el sexo, y no al revés. Lo contrario vendría a decir que la causa (el origen) de la opresión debe encontrarse en el sexo mismo, en una división natural de los sexos que preexistiría a (o que existiría fuera de) la sociedad (Wittig 2006:22)

Wittigek pasarte honetan planteatzen dizkigun ideiak estuki loturik daude subjektibotasunarekin. Testuan argi uzten du ezberdintasun sozialek sortzen dituztela kategoria eta banaketa horiek (norbanakoak “sujetatuak” dira, atxikiak) baina domeinupean daudenen lana da, besteak beste, diferentzia naturaltzat aurkezten zaizkien horiek kokapen sozial bezala desmaskaratzea (eraldaketaren subjektuak dira). Bere irakurketaren gakoa kategoria horiek zapalkuntzak berak sortuak izan arren zapalduentzat ezinbestekoak direla ulertzea da. Botereak subjektua kategoria batean atxikitzen du, baina era berean, boterearen kontra borrokatzeko heldulekua ematen dio. Boterearen eta erresistentziaren inguruan apur bat beranduago Michel Foucaultek (2005; 2016; 1988) idatziko zituen ildo berean doa bere planteamendua.

Lan honetan identitatea eta subjektibotasunaren inguruan egiten den ezberdintasunak hor du bere gakoa. Subjektibotasunak, aldebikoa den heinean (aldi berean atxikia eta aktiboa) identitateak eskaintzen ez dizkigun aukera analitiko batzuk eskuragarri jartzen dizkigu. Subjektibitatea, botere sistemek norbanakoari esleituriko kokapenez baino, norbanako eta taldeek kokapen horiek reifikatu, zalantzan jarri edo eraldatzeko egiten dituzten mugimenduez ari zaigu. Testu honetan identitateei, nahiz eta prozesu konplexu eta aldakorrak izan, izaera finkoagoa eman diet. Rosi Braidottik (2000) identitatearen eta subjektibotasunaren artean ezartzen duen ezberdintasunetik tira egin dut: *“identitateak lotura pribilegiatua du prozesu inkontzienteeekin, eta aldiz subjektibotasun politikoa posizio kontziente eta deliberatua da”* (Braidotti 2000:196). Edonola ere, ez litzateke banaketa analitiko hau erabateko edo ontologikotzat hartu behar: elementu biak konektaturik daude eta ezin da subjektibotasuna identitatetik erabat banatu, kontzientzia politikoa inkontzientetik banatu ezin daitekeen moduan. Hala ere, identitateaz aritu naiz gizarte edo komunitate ezberdinetan zentzua duten eta interpelazio gaitasuna duten kategoria eta izendapenak aipatzeko. Subjektibotasunaz ari naizenean, ordea, prozesu askoz irekiagoak ditut hizpide, elementu arrazional eta irrazionalak biltzen dituztenak, banakoa eta kolektiboa aldi berean integratzen dutenak eta, hau da agian gakoa, aukera politiko berriak irekitzen dituztenak *erabat kontrolagarriak ez diren heinean*.

Ikuspegi politikotik banaketa honi erreparatzeak aukera interesgarriak ireki ditzake. Lan honetan hainbatetan aipatu dut mugimendu sozialen eta identitateen arteko harremana. Lehenago ere esan dut mugimenduen baitan eztabaida irekia dagoela identitateen erabilera politikoaren inguruan: zeintzuk izan daitezke zapalkuntza ezberdinak ordezkatzeko dituzten identitateak? Identitate konkretu batzuen defentsa egitea lagungarria ala kaltegarria al da askapen prozesuak edo berdinaletasuna bultzatzeko? Ze leku jokatzen du, esaterako, langile

nortasunak egungo borroka antikapalistetan? Eta emakume identitateak borroka feministan? Eta LGTB* borroketan, merezi al du gay, lesbiana eta trans* identitateei eustek ala beste planteamendu batzuei ekin behar zaie? Eztabaida horietan guztietan identitateak alboratu edo zalantzan jartzearen aldeko ahotsak ikusiko ditugu testuan, borroka sozialak identitate zehatzen inguruan artikulatu behar direnik zalantzan jartzen dutenak. Borroka horietan identitateen reifikazioak, finkatzeak eta izozteak oztopo izan daitezke maiz. Askoren ustez, nola edo hala, identitateak ez dira horren garrantzitsuak mugimenduentzako edo, izan badiren arren, ez lirarteke izan beharko.

Aitzitik, subjektuari ezin zaio muzin egin. Mugimendu orok subjektu bat behar du, ekintza orok behar duen moduan. Subjektu horrek identitate eraikuntza malguagoa izan dezake, kohesio maila ahulagoa edo indartsuagoa, eta zalantzan jarri dezake ohikoan subjektuaz dugun ikuspegi zurruna: subjektua beti arrazionala dela, gizakia dela, egiten duenaren ondorioak aurreikusi ditzakeela. Herri mugimenduen subjektuak nahasiak izan daitezke, emozionalak, estrategiko eta hauskorak, beldurtiak zein ausartak, pertsonak, animaliak edo makinak. Baina egon badaude. Subjektibotasunak, ekintzarekin eta gizarte arauekin duen estekadura bikoitza medio, herri mugimenduen egungo eta etorkizuneko jarduna pentsatzeko beta askoz hobea eman diezaguke. Mugimenduen subjektua nor den edo nor izan daitekeen pentsatzeak identitateen inguruko eztabaidara garamatza, noski, baina ez soilik. Mugimenduen subjektua ze identitatek osatu dezaketen pentsatzeaz harago, potentzia, eskenatoki eta denboretan pentsatzeko aukera eman diezaguke subjektibotasunaren ideiak: zer sortzen da identitate ezberdinak elkartzean, edo identitateak hiltzeko beldurra erlatibizatzen denean? Noiz arte izan daiteke egonkorra mugimendu baten subjektua? Non da eraginkorra eta non galtzen du bere energia bere buruari bueltaka ari diren bektore zirkularretan?

Azken hamarkadetan feminismoaren subjektu politikoaren inguruan sortu diren eztabaidek identitateak finkatu eta sedimentatzeak aukerak eta arriskuak ireki ditzaketela erakusten digute eta, lan honen hirugarren kapituluan azalduko dudan moduan, ez bai horiei ekiteak elementu oso delikatuak jartzen dituela mahai gainean. Azken finean, herri mugimenduetan subjektibotasunaz ari garenean, identitateen gaia presente dago ez soilik ikuspegi estrategikotik, baizik eta gizakioi eta gure borrokei helduleku soziala ematen dien osagai bezala. Zentzu horretan, debate horiek, nahi eta nahi ez, subjektu ezberdinentzat identitate-eraikuntza horiek izan dezaketen balioa aitortzetik abiatu behar da: subjektu eraldatzaileak sortzeko identitateak malgotu edo alboratu nahi badira lehenago haien funtzioak ondo ulertu eta, maila batean bederen, legitimatu egin behar dira. Athena Athanasiouk (2017), eztabaida hauen harira, izendatze ariketa ororen atzean dauden efektu anitzak dakartza gogora:

Si dar el nombre corre el riesgo de lastimar, el abstenerse de dar nombre no es inmune a ese peligro tampoco. ¿Será que la abstención de nominación apropiativa (el otro, el desposeído, aquellos vueltos precarios) produce un régimen apropiador de no-nominación –con todas sus implicaciones de idealización, exotización, romantización y compasión discursiva–, reiterando así la lógica soberana del silenciamiento? Tal como sabemos a partir de las designaciones de identidad, quizás este es precisamente el predicamento al que nos entregan los nombres: son siempre problemáticos y, sin embargo, necesarios. Actuamos a través de ellos, así como a pesar de ellos, y ocasionalmente también contra ellos. (Butler eta Athanasiou 2017:169)

Izendatzea, beraz, “*izendatua izatearen esperientzia jarraituaren bidez gorputzari gizatasun estatusa ematea da, gorputza inskribatze-gainazala izanik*” (Soley-Beltran eta Sabsay 2012:150) eta erregulazio erregimenentzat ezinbesteko mekanismoa den bezainbeste, horiekiko erresistentziak garatzeko ere baliagarria izan daiteke, nahiz eta bueltan etorri daitekeen bumerana izan.

Epigrafe honetan teoria feministarentzat zein soziologiarentzat garrantzitsuak diren kontzeptu batzuen argipena egin nahi izan dut. Identitatea, identifikazioa, interpelazioa eta subjektibazioa elkarri lotutako kontzeptuak izanda ere, lanean zehar espezifikotasun ezberdinak azaltzeko erabiltzen ditut. Horiekin estuki lotzen da hurrengo azalduko dudako diferentziaren kontzeptua, eztabaida ugariren jatorri izan dena baina, nire ustez, kontzeptu oso lagungarri eta kitzikagarria izan daitekeena eta, gai batzuen inguruan jarduteko, ezinbestekoa.

1.3.2 DIFERENTZIA

Marko honetan lekua egin nahi nioke **diferentziaren** ideari, oso ikuspegi partikularretik bada ere. Horretarako kontzeptuaren inguruko ideia batzuk planteatu nahi nituzke, hala nola paradigma horri egin zaion kritika. Diferentziaren inguruan jarduteko oso erabilgarria izan zait Braidottiren teorizazioa (2004), nahiz eta beste ikerketa batzuetan (Azpiazu Carballo 2015a; 2017) aipatu dudanaren haritik, ez den erabat egokia emakumeez aritzeko berak erabiltzen duen sailkapena beste subjektu batzuetara zabaltzea, hain zuzen ere, Braidottik feminitatearen eta maskulinitatearen artean simetria eta konparazioak ezartzea akats analitikoa litzatekeela uste duelako (Braidotti 2004). Tesi honetan, hortaz, Bradottiren lana Braidottiren kontra darabilt nolabait, subjektibotasunaren gaira gerturatzeko duen modua LGTB* komunitateari buruz pentsatzeko baliagarria dela uste dudalako.

Emakumeen identitateaz aritzeko, filosofo italiarrak diferentzia aztertzeke hiru maila analitiko sailkatzen ditu bere teoria nomada osatzerakoan (Braidotti 2000). Lehen maila analitikoa gizon eta emakumeen artekoa da. Jaiotzatik gizon eta emakume izendatuak gara eta banaketa hori bitarra eta eskusiboa da: arra/emea zein maskulino/femenino bikoak bateraezinak dira. Beste hainbaten lanetik abiatuz, Butlerrek (2001) gertaera horri, alegia, binarismo sexualari erreparatu dio. Agian beste batzuenak baino sona handiagoa lortu duelako, bere lanak haustura handia sortu du hainbat zirkulu feminista eta akademikotan, eta ordura arteko kontsentsu nagusietako bat zalantzan jartzen du, alegia, generoa (maskulino edo femeninoa) errealitate biologiko objektiboaren gainean egiten den eraikuntza soziala dela. Lehenago aipatu dudan interpelazioaren teoriaren eta James Langshaw Austinen (1998) performatibitate linguistikoaren ideia laguntzaz, filosofo estatubatuarrak sexua generoaren ondorio dela, eta ez alderantziz, adieraziko du. Labur esanda, genero bitarraren

diskurtsoak eraikitzen du sexu bitarraren ideia, fisikoak eta psikologikoak diren hainbat ezaugarri maskulino edo femenino bezala ulertuz eta berez gorputz eta adimenetan dagoen aniztasunak alde batera edo bestera lerratzuz¹⁵. Maila horretan, generoa sexuaren beraren jatorria da, eta Butlerren teoriak sexua ere kontingentea, aldakorra eta linguistikoki eraikia dela agerian uzten du¹⁶.

Butlerren teorien inguruan eztabaidatzen du Braidottik¹⁷ eta, diferentzia sexualaren pentsamenduan errotzen den heinean, ez du erabat onartzen sexua (alegia, ar eta emeen arteko ezberdintasuna) eraikuntza diskurtsibo hutsa denik, edo agian zehatzago, sexuaren kategoria alboratzea ez du politikoki emankor ikusten. Luce Irigarayren (2009) *falogoentrismoaren* ideian oinarritzen da horretarako, Lacanen psikoanalisiaren teoriarekin estuki lotzen dena. Gizakiak bere errealitatea hizkuntzaren bidez bizi eta ezagutzen du, baina horrek ez du esan nahi gizakia hizkuntza besterik ez denik; hizkuntzatik kanpo dago izendatu ezin dena, Lacanek “erreal” (“lo real”) deitzen duena. Falogoentrismoa hizkuntza hori gizonaren ikuspegitik eraikia izan denaren ideia da eta, horren ondorioz, feminitatea (gizonen ikuspegitik eraikia izan den heinean) maskulinitatearen eta falogoentrismoaren sorkuntza dela. Maila horretan, falogoentrismotik kanpo dagoen feminitatea oraindik izendatu gabe dago eta “erreal denaren” esparruan kokatu daiteke. Planteamendu horiei jarraituz gero, diferentzia ukatzeak (edo hizkuntzaren ondorio huts gisa aurkeztea) emakumeen ezabatzea ekar lezake. Butlerrek luze eztabaidatu izan du Irigarayren planteamendu honen inguruan (Butler 2016:189-213). Bere ustez, ikuspegi horren arriskurik handiena itxitura bat eraikitzea da: maskulinitatearen joera bere esperientzia (hizkuntzaren bidez) unibertsaltzat azaltzea izan bada, beste esperientzia guztiei uzten dien lekua *bere* hizkuntzaren bidezkoa da. Alegia, feminitatea maskulinitatearen lengoaiarekin mintzatzen da. Hori horrela bada, hautsi ezinezko konjura da maskulinitateak sortutakoa eta emakumeei izateko geratzen zaien leku bakarra gorputzarena da. Butlerren beldurra, zalantzarik gabe, gorputz horren irakurketa esentziala egitea da, preseski binarismoak egiten duena, emakumetasuna erreproduzioarekin lotuz.

15 Biologiaren eta diskurtso binaristaren arteko harremanean sakontzeko, ikus (Fausto-Sterling 2000; Gregori Flor 2006).

16 Gomendagarria da Butlerrek “El género en disputa” (2001) liburuan egin zituen planteamenduak hobeto ulertzeko “Cuerpos que importan” (2002) testuari ere kasu egitea. Izan ere, bere generoaren eta performatibitatearen inguruko ideiak boluntarismoarekin nahastu zituzten hainbatek bere ustez, alegia, generoa eta sexua norbere borondatearen arabera moldatzeko eta aldatzeko gaitasunarekin. Bigarren testu horretan Butlerrek ideia hori ukatu eta beharrezko azalpenak ematen ditu generoaren ikuspegi boluntarista alboratzeko.

17 Eztabaida hau Butlerren “Deshacer el género” (2010) liburuan publikatu zen “El fin de la diferencia sexual” kapituluari jarraitu daiteke.

Diferentziaren pentsamenduaren irakurketa kritikoa egiten du ere Raquel Osbornek (1989), Butlerrek eta Braidottik haien arteko eztabaida izan baino urte batzuk lehenago. Uste dut, hala ere, lan ona egiten duela diferentziaren pentsamendu feministaren inguruko kezka batzuk plazaratzean eta, denbora pasa den arren, argumentuetako batzuk baliagarriak direlakoan nago. Osborneren lehen kezka Butlerren bide beretik doa: emakumeen eta gizonen arteko diferentziak azpimarratzen badira, haien arteko parekotasunei erreparatu ordez, emakumeek ezingo dute inoiz beren zapalkuntza egoeratik atera. Bere ustez arriskutsua da emakume eta gizonezkoen sexualitateak, komunikazio formak edo mundu emozionalak *naturalki* ezberdintzat jotzea, eta bereziki kaltegarria izan daiteke emakumeak naturarekin eta gizonezkoak kulturarekin identifikatzeko joera. Bere ustez, ikuspegi soziologiko, antropologiko eta psikologikoak konbinatu beharko genituzke emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak azaltzeko, biologizismoa erabat baztertuz.

Hasieran aipatzen nituen hiru diferentzia mailetan bigarrena emakumeen artekoa da, azken hamarkadatan mugimendu feministan ere erdigunean egon dena. Bere ustetan, emakumetasuna batasun bezala ulertzeak emakumeen artean dauden ezberdintasunak albo uztera eramaten gaitzake, emakumeen esperientzia determinatzen duten beste elementu batzuk alboratuz (klasea, arraza-jatorria eta aukera sexuala, nagusiki). Feminismo sozialistatik, feminismo lesbikotik, mugimendu dekolonial edo anti-arrazistatik zein beste batzuetatik heldu diren teorizazio eta praktikek emakumeen artean dauden diferentzia horiek kontuan hartzeko deia egin dute (Rich 1980; Davis 1983; Zabala González 2008; Platero 2012; Espinosa Miñoso, Gómez Correal, eta Ochoa Muñoz 2014).

Hirugarren diferentzia maila bere ustetan norberaren barneko diferentzia da, emakume bakoitzaren barne-foroan gertatzen dena. Gure identitatea ahalik eta gehien definitu eta mugatuta ere, gizakia bere buruarengandik diferentea da etengabe. Zentzu honetan gure izaera denboran eta espazioan kontingentea da, eta are gehiago, gure barneko intimitatean ere ezin dugu gure nortasuna erabat atxiki, barneko intimitate hori ere konpartitua delako¹⁸. Lan honen bigarren kapituluaren azalduko dudana Teresa de Lauretisen (1986; 2000) subjektu eszentrikoaren ideiatik oso gertu daude Braidottiren planteamenduak kasu honetan. Braidottiren lanean hiru diferentzia maila hauek harremanean daude eta elkarri eragiten diote.

Esan dugu, beraz, gizon eta emakumeen arteko aldeak azaltzeko ikuspegi ezberdinak direla diferentziarena eta ezberdintasunarena. Diferentziaren paradigmatik esentzia biologikoa identitatearen eta subjektibotasunaren helduleku bezala planteatzen ditu eta ezberdintasunaren paradigmatik, lehenago Wittigekin eta gerora Butler eta Osbornerekin ikusi dugun moduan, ezberdinkeraren sisteman bertan kokatzen du identitate horien sorrera, berezko diferentzia ukatuz. Eztabaida horrek Braidottiren lehen diferentzia mailari eragiten dio bereziki (gizon eta emakumeen artekoari), izan ere beste aldagaien arabera diferentziak (emakumeen *artekoak*) ikuspegi esentzialistatik azaltzea ez da ohikoa: klase sozialak ez dira naturalak eta arraza bezalako kategoriak esentzialak direla defendatzea oso problematikoa da, begien bistakoak diren arrazoiak medio. Subjektu bakoitzaren barne-diferentziari dagokionean, esango nuke iturri teoriko antzekoetatik edaten dutela bi paradigmatik. Esaterako, DeLauretisen (2000) subjektu eszentrikoaren ideia baliagarria da bientzat.

Nagusiki diferentziaren paradigmatik bano ezberdintasunarenarekin bat egiten dut, ikerketan zehar ikusgarria den moduan. Hala ere, diferentziaren ideia erabilgarria izan zait hainbat unetan eta, labur-labur azalduko dut zergatik. Hasteko, ez dut uste diferentziaren paradigma esentzialismora sinplifikatu daitekeenik. Braidottiren lanean esaterako, bere subjektu feminista femenoaren eraikuntzaren ideia konplexua eta ez-biologizista dela ikusi daiteke, gizakiaz harago ere doana. Bere azken lanean, adibidez, honakoa dio:

18 Berriz ere, gizakien arteko inter-dependentziaren inguruan begirada ezberdinak ditugu diferentziaren edo ezberdintasunaren paradigmatik abiatuz gero. Diferentziaren paradigmatik gerturatuta Adriana Cavarero (2016) planteamenduak ditugu, hein handi batean amatasunaren ideiarekin oso loturik daudenak. Ikuspegi *queer* batetik Butlerrek horren inguruko hausnarketa ugari egin ditu, bakarka edo beste pentsalari batzuekin eztabaidan, hein handi batean etikaren gaia erdigunean jarritz. Kasu askotan Emmanuel Levinasen planteamenduetatik tira egin du, maiz pentsamendu hori bere kontra jarritz, Palestinako kasua eta judaismoa eztabaidatu dituenean (Butler 2012). Gaiaren inguruan jardun du ere beste hainbat lanetan (Butler eta Athanasiou 2017; Saez Tajafuerce 2014). Gure ingurune gertuagokoan Marina Garcés (2013) eta Daniel García López (2016) aritu dira horren inguruan, besteak beste.

Ayer la vagina era señal de diferencia y, al mismo tiempo, de rasgo común: diferencia del hombre y rasgo común entre mujeres. Hoy me costaría un poco resumirme completamente allí. Es decir, que necesito afirmar que mi diferencia no está sólo en las trompas de Falopio y los grandes labios. Necesito decir que mi diferencia no empieza ni acaba en los órganos genitales [...] porque somos discriminadas por los nuevos medios de comunicación, excluidas de las nuevas tecnologías, cuando somos demasiado queer, andróginas, lesbianas, cuando somos hetero pero no nos reducimos al papel de incubadoras de la especie (Braidotti 2018:46-47).

Feminitatearen ikuspegi hau oraindik ere hein batean esentzialista da. Izan ere, ezberdina da diferentzia ez dutela *soilik* genitalek markatzen edo ez dutela *batere* markatzen esatea. Lehen baieztapenak marruskadura nabaria irekitzen du trans* emakume askoren bizipenarekin eta, eztabaida hori bizi-bizian dagoela ikusirik, ez litzateke zuzena zitan dagoen elementu horri ezikusia egitea¹⁹. Hala ere uste dut zita honek, eta azken urteotako Braidottiren lanak, diferentzia kontzeptualki berrezaugarritzen lagundu dezakeen begirada zabalagoa irudikatzen dutela. Gakoa ez da bakarrik feminitatearen esparrua ireki edo integratzaileagoa egitea baizik eta feminitatea emandako errealitate bezala baino proiektu bezala ulertzea. Diferentzia, maila honetan, potentzia bat da, ez egitate hutsa. Noski, Braidottik, lehen ikusi dugun Algak edo De Lauretisek moduan, diferentzia hori gorpuztua dela dio, eta maila horretan feminitatea *nonbaiten* gorputzean dago, ezin da errealitate materialetik banandu. Baina horrek ez dakar, nire aburuz behintzat, diferentzia hori esentziazat hartzea, ez eta feminitatea daraman gorputz hori sistema bitarrear emetzat hartuko litzatekeena izatea.

Lan honetan diferentzia zentzu horretan erabili dut, bai generoaren inguruan jarduteko bai eta sexualitatearen inguruan eztabaidatzeko ere. Ez dut uste gizon eta emakumeak esentzialki ezberdinak direnik, ez eta gay, lesbiana edo trans* pertsonak jaiotzatik eta biologikoki desberdinak. Are gehiago, lanean zehar hainbat unetan sexu aukeraren inguruko begirada konstruktibista baliatu dut. Baina horrek ez du esan nahi ezberdintasun horiek ezin direnik, tarteka bada ere, diferentzia moduan interpretatu, eta Braidottiren irakurketa Deleuziarrari jarraituz, potentzia bezala²⁰. Potentziak, nonbaitetik etorri arren, ez dira esentzialak hain zuzen ere martxan jarri eta dispartzen diren unetik beraien abiapuntua arrasto bat besterik

19 Azken urteetan oso eztabaidatua izan da ginozentrismoaren ideia mugimendu feministaren baitan. Emakume trans* askok emakumeen arteko aliantza eta identifikazioak genitaletan eta hortik abiatzen diren sinbolotan oinarritzea kritikatu dute. Mugimenduaren kanpaina zein lema askotan feminismoa/askapena baginarekin eta patriarkatua/zapalkuntza zakilarekin identifikatzeak egungo trans* emakume askoren egoera kontuan hartzen ez duela salatu dute hainbatek eta trans* eta zis emakumeen arteko aliantzak zailtzen dituztela. Esango nuke eztabaida lema eta sinboloetan zentratu arren hori baino zabalagoa dela, baina horiek pisu handia izan dute sare sozialetan eta espazio feminista batzuetan garatu diren debateetan. Adibiderako, ikus <https://labur.eus/kolyI>, <https://labur.eus/ImSoK> edo <https://labur.eus/1BtHp> (hirurak 2019-12-30ean kontsultatuak).

ez delako. Garrantzia duena ez da indar hori nondik datorren, baizik eta nora joateko gaitasuna duen eta ze beste indarrekin desbideratu, zatitu edo biderkatu daitekeen. Maila horretan dira diferentziak erabilgarri ikuspegi politikotik, ez irakurketa identitario, esentzial eta biologizistak egiteko, baizik ere aukera ezberdinak irekitzeko. Nire irakurketan, eta berriz diot ez dela irakurketa partikularra besterik, diferentzia aurrerantz doa, ez atzerantz.

Horretaz gain, Braidottiren diferentzia mailen ideia oso erabilgarria iruditzen zait analitikoki zein politikoki, herri mugimenduen barruko artikulazio eta konfigurazioez, aktibisten ibilbide militantez eta lan honetan garrantzi handia duten kategoria politikoekiko identifikazioaz hausnartzeko. Jarduera politikoa eta gatazka sozialak ulertzeari begira, ezinbestekoa dugu maila ezberdin horiek aztertu eta politikoki aktibatzea. Herri mugimenduek lehen mailari erreparatzen diote maiz, gatazkak definitzen dituzten diferentziak (edo, begiradaren arabera, ezberdinkeriak) termino bitarrean irudikatuz: gizonak eta emakumeak, jabeak eta herritarrak, langile eta patroiak eta abar. Bigarren mailari ere atentzio handia eskaini diote mugimendu batzuek azken urteotan, nagusiki feminismoak interseksionalitatearen inguruko teorien bidez edo sozialista batzuek zapalkuntza anizkoitz edo erlazionalaren ideien bidez²¹. Begirada hauek aplikatzean lehen bi diferentzia maila hauek teorikoki eta praktikoki artikulatzeko zailtasunak azaleratu dira: subjektu bitarra ahultzen dute askotariko zapalkuntzen teoriek? Erabilgarriak al dira hala ere? Posible da subjektu bitarra estrategiko edo tenporala izatea?

Azken diferentzia mailari atentzio are txikiagoa eskaini zaio mugimenduetan, salbuespenak salbuespen. Testu honetan hainbatetan arrazoituko dudan moduan, subjektuaren begirada kartesiar eta arrazionalistak politikaren ulermenean izan duen pisua handia izan da eta eraldaketa sozialaren (eta zapalkuntzaren) aspektu ugari esploratzea ekidin du. Areago, subjektuaren izaera zatikatua oztopo baino politizazioaren oinarria izan daiteke. Beste behin ere, pentsamendu feministaren alorretik, Luisa Passerinik (2006) diferentziaren hirugarren maila honek besteekin duen lotura aipatzen du, lehen maila eta bigarrenaren arteko tentsioak hobeto konjugatzeko balio dezakeela defendatuz.

20 Argitu beharrekoa da Braidottik Gilles Deleuze filosofo frantsesaren potentziaren eta desioaren inguruko hausnarketa ugari bere egiten dituen arren kritikoa dela Derridak eta gerora Deleuzek ere defendatu zuten “devenir mujer” kontzeptuarekin, hain zuzen ere bere ustez pentsalariok edonork (edo denok) emakume bilakatu behar dugula aldarrikatzen dutenean gorputza alboan uzten dutelako. Gai honen inguruan ikus (Braidotti 1986).

21 Kontuan hartzekoa da, adibidez Holly Lewisek (2016) interseksionalitatearen inguruan egiten duen kritika. Bere berrikuspenak interseksionalitatearen konplexutasuna kontuan hartu ez eta argumentu batzuk larregi sinplifikatzen dituen arren, egiten duen proposamenak baditu bere alde onak. Adibiderako, zapalkuntzaren begirada sistemiko, unitario baina erlazionalaren alde egitea proposatzen du, interseksionalitateak boterearen begirada lausoegia eta nahasia ematen duelako.

Si es, precisamente, la naturaleza escindida del sujeto la que permite la autorreflexión – ¿cómo podría un sujeto monolítico reflexionar sobre sí mismo? –, el debate sobre las identidades múltiples ha mostrado, en cambio, los riesgos de implícitos en una visión de total diseminación del sujeto. En mi opinión, la autorreflexión puede actuar como criterio para evitar la completa fragmentación del sujeto y su transformación en una multiplicidad irreflexiva, peligro opuesto al del sujeto unitario. Me parece, pues que la autorreflexión puede resultar una vía intermedia entre los polos extremos de un sujeto demasiado sólido o demasiado inconsciente. Considero importante el elemento de la autoironía, no sólo porque la risa sea un camino privilegiado que permite el contacto entre conciencia e inconsciente, sino porque también puede contribuir a desdramatizar el excesivo narcisismo que acompaña la tarea de convertirse en sujeto (Passerini 2006:51).

Laburtuz, diferentziaren hiru maila hauek analitikoki kontuan izan eta politikoki artikulatzeak eskaini ditzakeen aukerak esploratu nahi izan ditut lan honetan, aldi berean esentzialismo biologizista edo teleologikoan erori gabe. Izan ere, esentziak eraikitzeak forma bakarra ez da gorputzari eta biologiari erreferentzia egitea. Oraintxe aipatu dudana Passerini (Op. Cit.:60) ondo azaltzen duen moduan, mugimenduen historia eta genealogia ikuspegi linealean interpretatu edo belaunaldi itxien segida gisa ulertzeak subjektu politiko batzuen garapena oztopatu eta bere baitara ixtea ekar dezake. Analisi maila ezberdinak artikulatzean denbora eta testuingurua kontuan izatea ezinbestekoa da, bestela diferentzia izoztu eta bere eraldaketa potentzia galduko luke.

1.3.3 DISKURTSOA ETA ESPERIENTZIA

Ikerketa honen izenburuan bertan dagoen beste hitzetako bat esperientzia da. 2012an defendatu nuen tesinaren izenburuan, aldiz, diskurtso hitza zegoen²². Diskurtso analisi kritiko feministaren teknikak erabiliz egindako lan hura, hankamotz geratu zen: idatzizko testuak eta berauek negoziatzen zituzten diskurtsoak aztertzea biziki interesgarria izan arren, giza-elementua faltan dagoela pentsatu izan dut maiz, alegia, talde horien protagonistek (eta beste pertsona batzuek) diskurtso horiek nola bizi eta gorpuzten dituzten aztertzea. Diskurtso analisiaren inguruko ideiak guztiz alboratu gabe, lan hartan diskurtsoari esleitutako zentraltasuna, oraingoan, esperientziari eskaini nahi izan diot. Hurrengo orriotan, bi nozio hauek konektatzeko ahalegina egingo dut, diskurtsoaren inguruko nozio orokor batzuk emanaz aurrena eta esperientziari buruzko apunte labur batzuk ondoren.

Diskurtsoari buruz hitz egiteko egin beharreko lehen lana bere esanahia zientzia sozialen testuinguruan kokatzea da. Diskurtsoaren inguruko interesa XX. menderaren bigarren zatian kokatu beharko genuke, hainbatek “bira linguistikoa” izendatu duten unean (Rueda 2006). Soziologia kritikoaren ikuspegitik, bira horrek bi ezaugarri nagusi ditu. Alde batetik, gizarte egituren analisi ekonomizista hutsak azaldu ezin zituen hainbat fenomeno azaltzeko asmoa gailentzen da, hein batean ekonomiaren analisi marxista hedatzen zuten 60. eta 70. hamarkadako mugimendu sozial berrien bultzadak lagunduta. Bestetik, zientzia sozialetan hizkuntza ezaugarritzeko forma berri batek indarra hartuko du: esanahien transmisio kate neutrotzat hartu ordez, gero eta gehiago errealitate soziala eraikitzen duen tresnatzat joko da hizkuntza. Begirada hauek boterearen analisi forma berriekin konbinatuko dira, hizkuntzaren inguruan antolatzen diren irakurketa konplexuak sortuz, nagusiki europar filosofiaren aldarmioak erabiliz.

22 “Gizon taldeak eta maskulinitatearen inguruko diskurtsoak” (Azpiazu Carballo 2015a) zen lan haren izenburua.

Bereziki esanguratsua da Michel Foucaulten pentsamendua diskurtsoaren nozioa boterearekin estuki lotzeko. Jakintza eta boterearen arteko harremana hain da estua bere lanean jakintza-boterea edo, jatorrizko frantses bertsioan, “pouvoir-savoir” kontzeptua erabili zuela, gidoi batekin banaturik. Bere pentsamenduaren muinean gizarte modernoetan jakintza eta egia botere/diziplina tresna moduan aztertzea dago, eta horretarako diskurtsoaren nozioa landu zuen, batik bat “La arqueología del saber” (Foucault 2009) eta “El orden del discurso” (Foucault 2008) lanetan, hala nola hainbat hitzaldi eta leziotan. Diskurtsoak, bere obran esanahi anitzak ditu, eta denak batera funtzionatzen dute:

En fin, en lugar de concretar poco a poco la significación tan vaga de la palabra “discurso”, creo haber multiplicado sus sentidos: unas veces dominio general de todos los enunciados, otras, grupo individualizable de enunciados, otras, en fin, práctica regulada que da cuenta de cierto número de enunciados; y esta misma palabra de “discurso” que hubiese podido servir de límite y como de envoltura al término de enunciado, ¿no la he hecho variar a medida que desplazaba mi análisis o su punto de aplicación, a medida que perdía de vista el propio enunciado? (Foucault 2009:106).

Diskurtsoa eta enuntziatuaren artekoa da argitu beharreko lehen ezberdintasuna. Testu beraren beste une batean enuntziatua diskurtsoaren atomotzat definitzen du, zentzua izan dezakeen eta isolatua izan daitekeen diskurtso partikularik txikiena bezala. Asko sinplifikatuz, enuntziatua esaldi edo hitz multzoa da gehienetan, nahiz eta ikuspegi semiotikoak aplikatuz irudi eta sinboloak ere enuntziatu bezala interpretatzerik ere badagoen. Baina diskurtsoa ez da enuntziatu multzoa soilik, zitan aipatzen diren esanahi guzti horiek ditu. Hasteko, diskurtsoa esandako eta idatzitako dena da, enuntziatu guztien domeinua. Bigarrenez, diskurtsoa besteengandik banatu daitekeen enuntziatu multzoa da. Esaterako, nire aurreko ikerketan, gizon taldeek maskulinitatearen inguruan egindako publikazio eta testuak “maskulinitatearen inguruko diskurtso” izendatu nituen. Testu horiek enuntziatu multzo ezberdinak biltzen dituzte eta ikerlariaren begirada da gizarte mailan adierazgarria den elementu diskurtsibo baten inguruan (maskulinitatea) biltzen dituen. Hirugarrenez, eta hau da agian ikuspegi soziologikotik interesgarriena, diskurtsoa enuntziatu multzoari zentzua ematen²³ dion praktika erregulatua, edo praktika erregulatu taldea, da.

23 Itzulpen zaila du euskaraz “dar cuenta de” gaztelerazko esaldiak. “Zentzua eman” bezala itzuli dut nahiz eta uneren batean “enuntziatu multzo baten arduradun izan” ere erabili dudana, ingelesezko bertsioan “accounts for” esamoldeak zentzu hori duelako.

Zer esan nahi dugu, ordea, diskurtsoak enuntziatu talde bati zentzua ematen diola diogunean? Foucaultek, besteak beste, unibertso eta eraikuntza diskurtsiboak aztertu zituen, instituzioekiko zuten harremana esploratuz. Ezagunak dira bere kartzelaren, medikuntzaren edo estatu aparatu ezberdinen inguruko ikerketak. Instituzio horiek ez dituzte soilik usteak, legeak edo araudiak aplikatzen, etengabe berrikusten eta sortzen dute egiaren ideia bera eta, jakintza sortzen duten heinean boterearen erabilera berezia egiten dute, diziplinarena (Foucault 1998; 2005). Diziplina botereak ez ditu etengabe indarra, indarkeria edo heriotzaren mehatxua erabiltzen gizarte-kontrola ezartzeko, egia eta ona denaren ideia partikularrak finkatzeko gaitasuna duen jakintza-boterea baizik. Diskurtsoaren nozioak zeresan handia du boterearen diziplina aplikazio horretan. Adibidez, gizarte modernoetan sexualitatearen inguruko diskurtsoak sortu eta elikatzea, Foucaulten aburuz, ez da gizarte horiek sexualitatea era askeagoan bizi dutenaren seinale, garapen ilustratuaren ideiak iradoki izan duen moduan (Foucault 2005). Sexualitatearen inguruko diskurtsoen ugaritzea botere diziplinaren ondorioa da, katalogazio eta izendatzearen bidez gizakien gorputzen eta pultsioen gaineko domeinua sortzen duena. Diziplina-botereak baliatzen duen sexualitatearen inguruko diskurtsoa ez dator jatorri bakarretik, instituzio ezberdinek sortu, elikatu eta eraldatzen dute eta, beraz, analitikoki zatikatu dezakegu: sexualitatearen inguruko diskurtso medikoa, eklesiastikoa edo legala dira, besteak beste, pultsioen gaineko diziplina-kontrola sortzen dutenak. Maila horretan diogu diskurtsoak enuntziatu multzo bati zentzua ematen diola edo horren arduradun dela. Kasurako, medikuntzaren diskurtsoa bere magalean sortu daitezkeen enuntziatuen arduradun da, hitzen erabilera, esaldien egitura, esateko moduak, esateko gaitasuna eta autoritatea dutenen perfila eta abar mugatuz.

Gizarte modernoetan diskurtsoak diziplina boterearen esparruan kokatu ostean, diskurtso horien ekoizpen kondizioak aztertzea da pentsamendu kritikoa egin beharra (West, Lazar, eta Kramarae 2000; Van Dijk 2003; Biglia eta Bonet 2012). Lan honetan sexualitatearen edo *genero biziortasunen* inguruko diskurtso analisirik propio egin ez arren, oso kontuan izan dut eraikuntza diskurtsiboaren nozioa, sexualitatearen eta ekintzailtza politikoaren esparru diskurtsiboa kritikoki aztertuz, bereziki subjektibotasunaren eraikuntzarekin lotuta. Gogora dezadan subjektibotasunak bi alderdi biltzen zituela, atxikitzea eta ekintzarako gaitasuna. Foucaulten teorian atxikitzea diskurtsoen bidez eraikitzen diren identitateek burutzen dute. Esate baterako, bere sexualitatearen historian subjektu homosexuala diskurtso mediku, psikiatriko eta administratiboen *ondorio* da, eta ez alderantziz (hirugarren kapitulu bueltatuko naiz gai honetara). Aldi berean, agian bere teorizazioaren larregizko itxituraz arduratuta, hainbat elkarrizketatan subjektibotasunaren beste alde hori, bere hitzetan “sortzailea” izendatu daitekeena esploratu izan zituen (Foucault 2016).

Diskurtsoaren nozioari egin zaizkion kritiken artean bigarren aspektu horri espazio gutxi utzi izana da: subjektua bere aurretik existitzen diren eraikuntza diskurtsiboen arabera sortzen bada, ze leku dago sormen edo askatasunerako? Jada esan dudan bezala, bere hasierako lana gai horri dagokionean oso itxia izan arren, beste momentu batzuetan elementu hori esploratu izan du. 1982an egin zioten elkarrizketa batean, kasurako, honela zioen:

A decir verdad, no creo que "atrapados " sea la palabra indicada. Se trata de una lucha, pero lo que quiero decir, cuando hablo de relaciones de poder, es que estamos unos con respecto a otros en una situación estratégica. Por ser homosexuales, por ejemplo, estamos en lucha con el gobierno y el gobierno está en lucha con nosotros. Cuando tenemos que vérnosla con el gobierno, la lucha, desde luego, no es simétrica, la situación de poder no es la misma, pero participamos juntos en esa lucha. Uno se impone a otro y la prolongación de esta situación puede determinar la conducta, influir en la conducta o la no conducta del otro. En consecuencia, no estamos atrapados. Ahora bien, siempre estamos en ese tipo de situación. Lo cual significa que siempre tenemos la posibilidad de cambiarla, que esa posibilidad siempre existe. No podemos ponernos al margen de la situación, y en ninguna parte somos libres de toda relación de poder. Pero siempre podemos transformar la situación. No quise decir, por tanto, que siempre estábamos atrapados sino, al contrario, que siempre somos libres. En fin, para ser breve, que siempre existe la posibilidad de transformar las cosas (Foucault 2016:206-207).

Bere hermetikotasunaz gain, diskurtsoaren nozioak egoera materialen azterketa kritikoa alboratu duela esan izan zaio Foucaulti, ikuspegi ezberdinetatik. Begirada marxistatik, Holly Lewisek (2016:84-87) Foucaulten lanaren kritika zorrotza egin du, bere boterearen ikuspegian kapitalismoaren egitura materialak ezkutatu, eraldaketa historikoen motor gisara ekonomiak duen paperari ezikusi egin eta arazo politikoak (eta haien konponbideak) norbanakoan kokatuz. Kritika esanguratsua eta kontuan hartu beharrekoa den arren, diskurtsoaz ari garenez, Lewisek ez du diskurtsoaren nozioa bera kritikatzeko eta, are gehiago, bere testuan hainbatetan darabil Foucaultek ematen zion zentzu berdintsuan. Begirada feministatik, diskurtsoak errealitate osoa hizkuntzara murriztea eragin dezakeela dio Michelle Lazarrek (2007), Lewisen kezka ere badena azalduz:

(...) to locate everything in discourse and overlook experiential and material aspects of identity and power relations. That is, instead of viewing discourse as one element of social practices, the inclination has been to view discourse as wholly constitutive of the social (Lazar 2007:150-151).

Lewis eta Lazarren kritikek kezka antzerakoak adierazten dituzte, baina kokapen erabat ezberdinak. Lehenak Foucaulten lanak argumentatzeko eredu zirkular eta antzura daramala uste du, eta bigarrenak, berriz, botere harremanek aspektu diskurtsiboak *gain* alderdi material eta esperientzialak dituztela. Zentzu horretan ezinbestekoa zait Lewisen eta Lazarren kritikak, biak ala biak, aintzat hartzea, baina Lazarren begiradan kokatzeko hautua hobesten dut. Maskulinitatearen inguruan egindako ikerketa lanean enfasi handia jarri nuen genero harremanen materialtasuna esploratzearen beharrean, bere identitate adierazpenetara mugatu ordez (Azpiazu Carballo 2017), baina horrekin batera nahi eta nahi ez egin beharreko lana materialtasuna bera birpentsatu eta birdefinitzea da (Fraser eta Butler 2017:80-87). Horretarako ezin ditugu pentsamendu kritikoak hamarkadatan landutako tresna analitikoak alboratu elkarren artean kontraesankorrak direnaren aitzakiaz. Errealitate sozialaren azterketa egiteak eta, zer esanik ez, horrengan politikoki esku hartzeak tresna konplexu eta maiz kontraesankorrak eskatzen ditu. Are gehiago, hizkuntzan eta diskurtsoan oinarritzen diren ikerketa tresnen analisiak zentzua hartzen du errealitatearen analisi materialista baten alboan (eta alderantziz), baina posible da ikuspegi materialista dialektikoak eta diskurtsiboak, biek ala biek, kale egitea beren kabuz ari badira. Nancy Fraserrek horrela azaltzen du:

(...) tiendo deliberadamente a una red amplia. Mi objetivo es desarrollar una *concepción expandida del capitalismo* que pueda incorporar las percepciones de todos esos paradigmas. Creo, de hecho, que las ideas de Foucault, Bourdieu y los neohegelianos que se ocupan de la “vida ética” solo adquieren pleno sentido e importancia cuando se sitúan en relación con el capitalismo como una totalidad social elaborada históricamente. Creo que una explicación completa de la reproducción social debe integrar las preocupaciones de las feministas marxistas y socialistas con las de los teóricos de la subjetivación, el *habitus*, la cultura el mundo de la vida y la “vida ética” (Fraser eta Jaeggi 2019:38).

Begirada diskurtsiboaren eta materialismo historikoaren arteko ustezko kontraesan ekidinezin honen aurrean hartu dudak jarrerak herri mugimenduen praktika askorekin bat egiten du. Hurrengo bi kapituluetan ikusiko dugun moduan, mugimenduek uneoro analisi eta ekintzarako tresna ezberdin eta kontraesankorrak baliatzen dituzte, borrokatu nahi duten errealitatearen aspektu ezberdinei aurre egiteko asmoz. Jarduera politikoan zein ikerketa akademikoan ortodoxia eta koherentzia teorikoaren defentsa sutsuak mugimenduen izaera sortzaile, konplexu eta aldakorra ez ikusi eta ez ulertzea eramango gaituela uste dut. Errealitatea konplexua da eta dimentsio ezberdinak biltzen da eta, beraz, begirada teoriko bakarrarekin aztertzeak bere aspektu batzuk alboan utzi behar izatera eramango gaitu halabeharrez. Are gehiago, errealitate soziala bere osotasunean eta era koherentean azaldu nahi duen teoria bakarra osatzeko asmoa bera errealitatea bera ukatzeko modua ere bada. Erlatibismoan erortzeko inolako asmorik gabe, monoteismo analitikoari uko egiten diot,

norabide bakarreko pentsamendu politikoa ekiditen saiatzen naizen era berean, hain zuzen ere errealitatea kritikoki ulertu eta eraldatu ahal izateko begirada diskurtsiboa *zein* materiala eskura izatea lagungarria dela uste dudalako. Hori dela-eta, errealitatearen kartografia eredu aldakor baten aldeko apustua egiten dut, eta ariketa hori etengabea izan behar dela pentsatzen dut (Braidotti 2015:69).

Michelle Lazarren zitara bueltatu eta botere harremanen dimentsio material, diskurtsibo eta esperientzialak kontuan hartuz, azken horri erreparatu nahiko nioke orain. **Esperientziak** pisu handia izan du ikerketa honetan, baina nola ezaugarritu dut termino hau? Abiapuntua Teresa De Lauretisek (2000) egindako kontzeptualizazioa izan da. "La tecnología del género" artikuluan generoa teknologia bezala (eta teknologia ezberdinen ondorio bezala) definitzeko esperientziaren ideia baliatzen du. Testuan, oraintsu aipatu dugun Foucaulten boterearen ikuspegiaren hutsuneetako bat seinalatzen du: filosofo frantsesak boterea "edonon" zegoela planteatu zuenetik, horren koertzio gaitasunari eskaintzen zaion atentzioa murriztu egiten da. Lauretisek lehenago ere aipatu dudan Monique Wittigen ikuspegia berreskuratzen du, alegia, heterosexualitateak, sistema bezala, analisi kulturala saihesteko gaitasuna duela, bere burua naturalizat aurkeztuz. Gogoratu dezagun Wittigentzat gizontasun eta emakumetasunak egiturazko ezberdinkeriarri erantzuten diotela eta egitura hori heterosexualitatearen inguruan (sistema bezala eta ez praktika bezala soilik) egituratzen dela. Horrela, Wittigek heterosexualitatea sistema sinboliko, ekonomiko eta politikoeekin konektatzen du, egituraren ikuspegia indartuz. Lauretisek, ekarpen hori gogorarazi ondoren honakoa dio:

La construcción del género prosigue en nuestros días a través de las diversas tecnologías del género (como el cine) y diversos discursos institucionales (como la teoría) y tiene el poder de controlar el campo del significado social y por tanto de producir, promover e "implantar" la representación del género. Pero existen también los términos para una construcción del género diversa, en los márgenes de los discursos hegemónicos. También estos términos, que provienen de fuera del contrato social heterosexual y que están inscritos en las prácticas micropolíticas, pueden tener un papel en la construcción del género, incidiendo sobre todo al nivel de resistencias "locales", en la subjetividad y en la autorrepresentación (De Lauretis 2000:54).

Lehenago ere aipatu dudan subjektuaren atxikitze eta egiteko gaitasunaren arteko eztabaidari egiten dio erreferentzia pasarte honetan, izaera bikoitz hori azalduz. Althusserren hizkuntzara itzuliz gero, zinea eta teoria De Lauretisen pentsamenduan interpelazio aparatua ideologikoak dira, generoa *ekoizten* dutenak (berriz ere materialtasuna birpentsatzeko aukera ematen digu ideia horrek). Aldi berean, subjektuak eraikuntza hori *okertu* eta aldatzeko gaitasuna du, praktika lokalen bidez bada ere. Ideia horretatik tiraka, esperientziaren ideia azaltzen digu:

En el último capítulo de “Alicia ya no” usé el término experiencia para designar el proceso a través del cual se construye la subjetividad en todos los seres sociales. Intenté definir la experiencia más exactamente como un complejo de efectos de significado, costumbres, disposiciones, asociaciones y percepciones derivadas de la interacción semiótica de uno mismo con el mundo externo (De Lauretis 2000:54).

Esperientzia, beraz, prozesu bat da eta subjektibotasuna bertan eraikitzen da. Bestela esateko, gizakion esperientzia da diskurtsoa eta subjektua elkartzen diren lekua. Bere teorian, esperientziak balio berezia du ikuspegi epistemologikotik ere, gizakiaren ezagutzarako plataforma den heinean. Esaterako, De Lauretisek onartzen du zinea genero teknologia gisa teorizatzeke ezinbestekoa izan duela auto-kontzientzia feminista taldeetan parte hartzea. Horrek ematen dion jakintzak, gainera, pisu berezia du beretzat: esperientzia pertsonal eta politikoaren kontzientziatik abiatuz ezinezkoa du generoaren ikuspegi esentzialistara bueltatzea, bizitakoa ukatzea izango litzatekeelako.

Luisa Passerini (2006) historialariak ibilbide antzerakoa egiten du diziplina ezberdinetik abiatuz. Subjektibotasunaren inguruko begirada feministak historiari eta memoriaren ikerketei egin diezaioketen ekarpenaz hausnartuz, subjektibotasunari buruzko hiru korapilo azaltzen ditu. Lehen korapiloak subjektibotasunaren izaera anbivalenteari egiten dio erreferentzia: subjektibotasunak bere aurretik dauden kondizioak eta hauek aldatzeko ahaleginak biltzen ditu. Bigarren korapiloa subjektibotasunaren kokapenari buruzkoa da: diskurtsoaren eta agentziaren arteko erdibidean dago, eta agentzia horrek hartzen duen forma narratioarena da. Hirugarren korapiloak subjektibotasuna aldi berean singularra eta plurala izan daitekeela dio.

Subjektibotasuna eta diskurtsoa lotzeko borondatea dudan heinean, bigarren korapiloa bereziki interesgarria zait. Passeriniak gizakiek egitura sozialean betetzen duten posizioaren eta kontzientziaren arteko harremanaren inguruko eztabaida aipatzen du: ze neurritan determinatzen du batak bestea? Alegia, agentziari larregizko garrantzia emateak ez al du, De Lauretisek (2006) argudiatu duen moduan, egitura ikusezin bilakatzen? Kontrara, egiturari kontzientzia determinatzeko botere osoa aitortuz gero, ze irtenbide dute gizakiek zapalkuntzari aurre egiteko? Galdera horien erantzuna erdibidean kokatzen du historialari italiarrak:

(...) según mi opinión, es perfectamente posible encontrar las huellas de la experiencia en el discurso, así como es posible analizar las improntas que las formas discursivas confieren a la misma experiencia. El nexu entre los dos polos es tal, que basta con afrontar el problema en el marco de formación del sentido, para que se imponga la tarea de recurrir a la experiencia (Passerini 2006:57).

Egin beharreko lana, beraz, bi aldeko analisisa da. Diskurtsoak egitate monolitiko gisara ikusi ordez, gizakien agentzia pertsonal eta kolektiboak berauek eraldatzeko duten gaitasunaren arrastoei ere erreparatu behar diegu. Horrekin batera, esperientzia bera diskurtsoen arabera nola egikaritzen den ikus dezakegu, subjektuen narrazioei adi egonez gero. Izan ere, aipatu dudan moduan, ez dago esperientzia purua behatzeko aukerarik: beti ere subjektuek haien kokapen sozialetik egiten duten narrazioaren bidez jasotzen dugu. Maila honetan *“norberaren zentzuaren eraikuntza, subjektu orok duena, subjektuen arteko protokolo komunikatibo anitzen baitan gertatzen den narrazio prozesu sortzaile gisara ulertu beharko genuke”* (Worthington 1996, Passerini 2006n zitatua). Lerro horretatik tiraka, narrazioan esperientzia bilatu beharko genuke, eta esperientzian, narrazioa.

Esperientziarekin loturiko azken xehetasun bat azaldu nahiko nuke. Maskulinitateen eta feminismoaren inguruan egindako lanetik esperientzia tentuz erabili beharreko kontzeptua dela ondorioztatu dut. Azken hamarkadetan, gizonak gai feministetara gerturatzeko erabili den argumentuetako bat biktimizazioarena izan da: matxismoaren eta sexismoaren izaera estrukturala den heinean, gizonezkoon portaerak eta kokapen pribilegiatuak ez dira banakoen jarreraren ondorio, egitura sozialen ondorio baizik. Alegia, gizon izendatu eta heziak izan garenok ikasitako rola jokatzen dugu genero arteko harremanetan eta, maila horretan, patriarkatuaren ondorio gara. Gainera, patriarkatuak ez digu bakarrik besteak dominatzen erakutsi, gure pribilegioak mantendu ahal izateko ezinbestekoa izan dugu gure izaera eta jokabide batzuk alboratzea, hala nola femeninotzat jotzen diren emozioen, beldurren eta zalantzen adierazpena, gizonen arteko samurtasuna edo gure burua zaintzeko jarrera. Nolabait esateko, patriarkatuak gizonoi “kalte” egin digu, gure rol soziala inposatu digun heinean askatasuna mugatu digulako. Argumentu horren arriskuak mahai gainean jarri izan ditut maiz, askatasunaren ideia liberalean oinarritzen delako. Paradoxikoki, gizonen kokapen sozialaren inguruko irakurketatik abiatuz, kokapen horiek erlatibizatzen dituzten irakurketa da biktimizazioarena. Izan ere, ezberdina da egitura batek denoi eragiten digula esatea edo denok zapaltzen gaituela baieztatzea. Edozein egiturak subjektuei rol ezberdinak esleitzen dizkie eta, noski, rol batetik bestera aldatzea zigortua da kasu guztietan. Baina posizio horietako batzuk pribilegiatuak dira eta besteak ez, eta horren ondorioz mugikortasun maila ezberdina da²⁴.

24 *“Masculinidades y feminismo”* (Azpiazu Carballo 2017) lanean defendatu nuen argumentuetako bat, hain zuzen ere, gizonen kasuan generoari lotzen zaizkion rol sozialei dagokionez mugikortasun handiagoa dagoela da. Lehen aipatu dudan emozioaren gaiari erreparatuz gero, adibidez, gizonoi femenino kontsideratzen diren emozio batzuen adierazpena baimendu zaigu maiz: negar egitea eta gure segurtasun eza kanporatzea gero eta gehiago balore positibotzat identifikatzen dira, heldutasunaren seinale moduan, eta maila horretan gizonen kasuan ere ontzat ematen dira progresiboki. Aldiz, emakumeen kasuan gizonezkoon monopolio izan diren emozio eta jarrerak adieraztea oraindik ere arbuio eta estigma sozialaren jatorri izan daiteke. Pentsa dezagun, adibidez, anbizio handia, haserrea eta amorrua edo segurtasuna transmititzen duten emakumeek maiz sortzen duten efektuan.

Gizonezkook patriarkatuarekin dugun harremanean irakurketa biktimista hori ahalbidetzen duena esperientziaren nozioaren perbertsioa da. Izan ere, gizaki denok dugu esperientzia bat eta, esperientziari soilik erreparatuz gero, ez da zaila baieztatzea jende gehiena, gizon, emakume edo ez-bitar, genero rolek zapaldua sentitu dela noizbait. Egitura sozialei erreparatuz gero, alegia, genero banaketa bitarra izateaz gain hierarkikoa dela kontuan hartuz, esperientzia bakoitza bere testuinguruan eta posizio sozialaren ikuspegitik ulertu behar dugula ikusiko dugu. Esperientzia denak ulertu eta aztertzea interesgarria den arren, denek ezin dituzte gure analisi soziologiko eta politikoak berdin baldintzatu, bestela hasierako kasilan egongo ginateke berriz, harreman sozialen inolako analisi kritikorik egiteko gaitasun gabe.

Hari horri tiraka, ezinbestekoa da kapitalismoak azken hamarkadatan esperientzia indibiduala nola berreskuratu duen kontuan hartzea. Diskurtsoa bezain hitz polisemikoa izan daiteke esperientzia ere. De Lauretis (2000) edo Passerinik (2006) teoria feministatik ematen dioten esanahiaz gain, egunerokoan kontsumo gizarteetan duen zentzua ere badu: ahaztu ezinezko esperientzia bizitzea, zerbitzuak kontratatzerakoan esperientzia pertsonalizatua jasotzea eta abar. Izan ere, kapitalismoa gero eta gehiago pertsonaren irudi atomizatuan oinarritzen da, kontsumitzaile bakoitzari bere profilararen arabera produktuak eskainiz eta langile bakoitza ekoizpen sistemaren aurrean erabat isolaturik sentiaraziz. Sustrai oso luzeak dituen pertsonalismoaren ideia horrek (Esposito 2012) zentzu berezia hartu du azken hamarkadako gizarte kapitalistetan, subjektuak aldi berean inoiz baino gehiago anonimo eta erabat bakanak bilakatuz (Smicek 2018). Lehen aipatu dudana egituraren eta banakoaren arteko oreka analitiko hori, diskurtsoaren eta esperientziaren/narrazioaren artekoa ere badena, zailagoa bilakatzen da gizarte mailako tendentzia horiek kontuan hartzen baditugu: egungo gizarteek esperientziaren inflazioa egiten duten heinean ezinbestekoa dugu egiturei inoiz baino atentzio gehiago eskaintzea, baina egitura sozialak totalizatu, reifikatu eta, ondorioz, aldaezin bezala aurkeztu gabe.

1.3.4 SEXUALITATEA ETA DESIRA

Sexualitatea eta desiraren inguruko paradoxak oso presente egon dira parte-hartzaileekin izandako elkarrizketak aztertzerakoan. Ziur aski paradoxa horietan adierazgarriena sexualitateak subjektuen esperientzian duen leku berezi eta aldi berean deskribaezina da: leku misteriotsu batean gordetzen da desioa eta hain da iluna leku hori, hain gutxi dugu jakiterik horren inguruan, ezen halabeharrez intimoa eta barrukoa dela uste baitugu. Gure gizarteetan sexualitatea gizakion aspektu intimoetan intimoena dela esan dezakegu, nortasunaren aspektu sakon eta ia-ia pentsaezina. Sexualitatea deitzen dugun horrek, noski, aspektu ezberdinak biltzen ditu, hala nola desio-objektuaren hautapena, desioaren intentsitatea, gustuak edo sexu praktika ezberdinen inguruan egiten dugun balorazioa. Gehienetan kosta egiten da hauek guztiak ikasitako gizarte portaeren artean kokatzea, horrela ulertuz gero haien purutasuna galtzen dutela pentsatzen dugulako eta, gure gizarteetan, desioa eta sexualitatea puruak, kontrolaezinak eta naturalak direnaren ideia oso presente dugulako. Baina sexualitatea eta desioa ere, gizakion bizitzen beste elementu guztiak bezala, besteekiko harremanean eraikitzen eta eraldatzen ditugu (Benhabib et al. 1995; Sabsay 2016). Honek ez du esan nahi, hainbatek perspektiba kulturalistetatik defendatu izan duten bezala, sexualitatea sistema sinboliko sozialek erabat dominatzen dutenik. Esaterako, gero eta zabalduagoa dago gaur egun pornografiak gure gizarteetan duen pisuaren ondorioz emakumeen kontrako indarkeria sexuala inoizko handiena dela. Pornografiaren eragina mespretxatu gabe, ez dauka zentzurik ikasketa eta erreprodukzio soziala horrenbeste sinplifikatzea: indarkeria sexuala ez da gertatzen gizonek pelikuletan ikusten dutelako, edo ez horregatik soilik behintzat.

Pendulu efektuaren biktima izan gaitezke sexualitateaz pentsatzen dugunean. Sexualitatearen hainbat pentsalarik kritikatu dutenez (Foucault 2005; Osborne 1993; Whiteley eta Rycenga 2006; Sedgwick 2008; Coll-Planas 2010) kultura popularrak eta zientzialari ugariak sexualitatea erabat irrazionaltzat aurkezten dute: gizonen sexualitate kontrolaezina, desioak borondatea deusezteko duen gaitasuna, sexua isileko komunikazio forma harmoniatsua... elkarrizketa, produktu kultural eta komunikabideetan egunero jasotzen dugu hauen berri. Maiz, naturalizazio olatu horren aurrean ikuspegi kritikoetatik sexualitatearen izaera eraikia eta kontingentea azpimarratu nahian, penduluaren beste aldera pasa eta dena erabat eraikia dela baieztatzen dugu. Lan honen laugarren kapituluaren oso lagungarri izan da De Lauretisek (2000) lehenengoz 1999an argitaratu zuen eta lesbianismo politikoaren inguruko hainbat eztabaida jasotzen dituen “Irreductibilidad del deseo y

conocimiento del límite” artikulua. Bertan sexualitatea mugako objektu bezala definitzen du: gorputza, adimena eta gizakiaren izaera soziala gurutzatzen diren lekua da sexualitatea eta, ondorioz, antzua da eraikia edo berezkoa den eztabaidatzen jardutea, izan ere eraikia *eta* berezkoa da aldi berean. Edo, bestela esanda, eraikia esateak ez du esan nahi subjektuak bere borondatez erabat kontrolatzen duenik bere desioa. Ondo uler bedi, ez dut esan nahi subjektuak ezin dituenik bere jarrera edo portaerak kontrolatu; desioaz ari naiz. Desioaren eta sexualitatearen kokapen eta izaera partikular horrek ezin gaitu inolaz ere erlatibismo etiko edo politikoan kokatu, adibidez oraintxe aipatu dudan indarkeria sexualaren gaian.

Sexualitatearen izaera eraikia edo berezkoari buruzko eztabaida LGTB* politiken erdigunean egon da. Ricardo Llamasek (1998:27-28) gogorarazten duen moduan, homosexualitateari dagokio nagusiki eztabaida hori, izan ere, lehenago Wittigek (2006) aipatu moduan, heterosexualitateak bere burua berrikuspen kulturaletik kanpo kokatzea lortzen du eta, hortaz, inork ez du eztabaidatzen ea gizonek emakumeekin sexu harremanak edo harreman afektiboak izatea berezkoa edo eraikitakoa den. Paco Vidarterekin batera idatzitako “Homografías” liburuan ere honela azaltzen zuten eztabaidarekiko beren postura:

La pregunta sobre la identidad homosexual no puede de este modo surgir *nunca* de los gays ni de las lesbianas. Es algo que debe traerles al fresco. Que a mí me trae al fresco. Participar en ese debate es sólo una necesidad surgida *a posteriori* para paliar en la medida de lo posible sus nefastas consecuencias (Llamas eta Vidarte 2000:291)

Baina, Llamas eta Vidartek azaltzen duten moduan, eztabaida honen jatorrian ikuspegi kontserbadore eta homofoboak egoteak ez du esan nahi beste sektore batzuen intereseko galdera ere ez denik. Bi elkarrizketa sorten analisisan ikusiko dugun moduan, sexualitatearen deseraikuntza eta birkonfigurazio kritikoa LGTB* politiken eta ekintzaile askoren intereseko gaien artean dago eta, beraz, sexualitatea berezkoa edo eraikia ote den eztabaidatzeko arrazoiak aldatu egiten dira: portaera desbideratuak azaldu eta zuzentzeko mekanismoa izan ordez, portaera normatiboak kolokan jartzeko tresna bilakatzen da. Hala da lesbianismo politikoaren ikuspegitik eta hala da ere, astiro-astiro bada ere, sexualitate homosexualaren iruditegi eta azpikulturak kritikoki aztertzen hasi den marika mugimenduan.

Tesian zehar ikusiko dugunez, LGTB* politikak ez dira hain urrun egon mugimendu feministak izandako hainbat eztabaida kontzeptualetatik, nahiz eta haien era propioan artikulatu dituzten. Diferentzia/ezberdinkeria eztabaida presente egon da, ez bakarrik sexualitate ez-normatiboak nondik datozen galdetzerakoan, baizik eta nora heldu daitezkeen itauntzerakoan ere. Eztabaida horiek, geroago ikusiko dugun moduan, normalizazio eta integrazioarekin estuki lotuko dira, alegia marko heterosexualaren irudiko sexualitate integratuak ala markoaren eraldaketa aldarrikatzearekin. Diferentzia/ezberdinkeria eztabaidak LGTB* politikan hartu duen forma partikularra sexu orientazio edo aukeraren arteko dikotomiarena izan da. Llamasek aipatzen zuen moduan, eztabaida horiek noiz eta ze

terminotan gertatzen diren kontuan hartu beharrekoa da. Apenas inork darabilta gaur egun homosexualitatearen jatorriaren inguruko galdera zaharrak: haurtzaroan jasotako estimuluen ondorioa da? Amak gehiegi babestu zituen mutikoen eta aitarekin larregi identifikatu ziren neskatoen patua? Hutsune emozional baten emaitza? Homosexualitatearen inguruan horrelako galderak planteatzea lar kontserbadoretzat du egungo gizarteak. Aitzitik, ez da horren ezohikoa transexualitateari buruzko eztabaidetan bere jatorriaren inguruko hipotesi eta itaunak entzutea: haurdunaldian zehar gertatzen den hormona-irusi baten ondorio dela edo genero rolen inguruko argitasun falta haurtzaroan. Bi adibide hauek konfirmatzen dutena homosexualitatearen eta transexualitatearen onarpen sozialak eritmo ezberdinak dituela eta horrek, hein handi batean, eztabaidaren terminoak baldintzatzen dituela.

Eta hala ere, berriz diot, eztabaida interesgarria eta lagungarria izan daiteke. Lehenago diferentziarekin egin dudan moduan, orientazioarekin ere egungo teorilari batzuen eskuetan izan dezakeen potentzia eraldatzailea aldarrikatu nahiko nuke. Horretarako, kontzeptua LGTB* politiketan nola erabili den kritikoki aztertu beharra dago. Butler eta Athanassiouren ustez, esaterako, orientazioaren ideiak (hasiera batean behintzat) behar estrategikoei erantzun izan die:

La razón por la cual la orientación sexual fue supuestamente colocada como “no elegida” es que pueda ser calificada como una característica social involuntaria, de manera que pueda recibir protección especial contra la discriminación bajo ley” (Butler eta Athanasiou 2017:66).

Argumentu hau aski sendoa da, eta Llamas eta Vidartek (op. Cit:293) aipatzen duten moduan, sortu eta berehalako LGTB* politikak determinatu zituen hein handi batean: babes soziala edo, behintzat, arbuio gutxiago lortzeko mugimendu askok *ekidin ezineko* homosexualitatearen argumentua erabili zuten. Kontuan hartu beharrekoa da indar kontserbadorek portaera desbideratuak kutsakorrek direla eta horiengandik gertu daudenek gay edo lesbiana izateko arrisku handiagoa dutela argumentatzen zutela. Horren kontrako argumentu sinplea eman zuten hasierako gay eta lesbianen mugimenduek baina, nahi gabe, sexualitatearen begirada esentzialista bere egin zuten: homosexualitatea ez da kutsakorra eta horrela jaiotzen direnak dira homosexualak, beraz hauen presentzia normalizatua eta ikusgarria izateak ez du gizartea homosexualizatuko, jada existitzen diren pertsona homosexualak bizitza hobea eman besterik ez. Ikuspegi horretatik, homosexualitatea esentziala da eta, ondorioz, homosexuala dena ez da inoiz heterosexuala izango, ez eta alderantziz ere. Begirada hori azpimarratzeko, aukera sexualaz baino, orientazio sexualaz jardun zuen mugimenduak, teoria psikoanalitikoaren eraginpean.

Leticia Sabsayk (2016) esentzializazio horrekiko kezkak azaltzen ditu, baina LGTB* politikak ataka zailean daudela onartzen du eta, beraz, irtenbidea ez dela erraza. Sexualitatea norbanako bakoitzaren atributu bezala ulertuz gero, esentzialisismoan erortzeaz gain liberalismoaren ikuspegia ontzat ematen dugu eta, beraz, sexualitate ez-normatiboekiko errespetua norberak bere gorputzaren gaineko domeinuarekin lotzen da. Alegia, sexualitatea subjektu bakoitzaren propietate edo jabegoa da. Baina, bestetik, sexualitatea eraikitzen hartzen bada sexualitate ez-normatiboak dituzten pertsonak hiritartasunetik kanpo uzteko arriskua dago, lehen esan dudan moduan heterosexualitatea naturalizat jotzen delako.

Aitzitik, Ahmedek (2019) bestelako esanahia ematen dio orientazio hitzari, fenomenologiatik abiatuz. Sexualitatea mugako objektu moduan aurkezten du, ez norbanakoarena ez eta guztiz eraikia, eta orientazioak, beraz, ez du izaera esentzialista, dinamikoa baizik. Elkarrizketen analisisian zehar azaldu dudan moduan, fenomenologiak darabilen orientazioaren nozioa oso baliagarria da eta, sexualitatearen gaiari aplikatzerakoan, desioa subjektuaren barruan kokatzen du baina halabeharrez inguruarekiko harremanean. Zentzu horretan orientazioa ez da jada aukeraren antonimoa, subjektuaren irakurketa konplexuagoetatik abiatuz sexualitatea bakarra eta aldi berean inguruarekiko harremanean eraiki dela adierazten duen ideia baizik.

Orientazioaren ikuspegi hau baliagarria da, halaber, generoaren eta sexualitatearen arteko harremanaz pentsatzeko. Lan honetan bi kontzeptu hauek unearen arabera elkarrengandik urrundu eta gerturatu egin dira. Gerturatzen direnean, sexualitate zuzenaren eraikuntzan genero bitarrak duen eraginaren berri ematen digute: marko kontzeptual honen hasieran azaldu dudan bezala, oso zaila da genero bitarra matrize heterosexualetik kanpo ulertzea, heterosexualitatea binarismotik kanpo pentsatzea ezinezkoa den moduan. Heterosexualitateak desio objektu zuzenaren orientazioa definitzeko genero nortasunaren eta adierazpenaren zuzentasuna bermatu behar du halabeharrez. Baina beste une batzuetan sexualitatea eta genero bizi nortasuna analitikoki banandu egiten dira, sexualitatea genero inbertsio bezala ulertzen duten paradigmatatik urruntzeko, hala nola egungo gizarteek genero adierazpenaren eta sexualitatearen artean egiten dituzten asuntzioetatik aldentzeko. Hirugarren kapituluko elkarrizketatuen kasuan ikusiko dugun moduan, genero nortasunaren, genero adierazpenaren eta sexualitatearen arteko harremana konplexua da eta konkordantziak egiteak (esaterako, genero adierazpen femeninoa duten mutilak agerian edo armairuan dauden homosexualtzat hartuz) errealitatearen larregizko sinplifikazioa dakar. Zentzu honetan bat egiten dut gai honi buruz jardutean Butlerrek azaltzen duen prudentziarekin:

Me parece que sería importante separar la constitución regulatoria del género de la constitución regulatoria de la sexualidad, y que no podemos asumir vínculos duraderos estructurales o causales entre los dos. Ciertamente, muchas veces están implicados el uno en el otro, pero para entender cómo, tenemos que hacer un análisis situacional. No quiero decir que la regulación de género está solamente o siempre al servicio de la regulación de la sexualidad, o que la regulación de la sexualidad tiene como su objetivo primario la estabilización de las normas de género. Eso puede ser a veces cierto, pero también es cierto que, a menudo, estos dos modos regulatorios operan con propósitos cruzados, o de manera que prueban ser relativamente indiferentes uno del otro (Butler eta Athanasiou 2017:64).

Laburtuz, sexualitatearen inguruko begirada irekia baliatzen saiatu naiz lanean zehar. Begirada horrek gutxienez bi elementuei erreparatzen die: sexualitatea mugako elementu gisara aurkeztea (ez erabat eraikia ez eta berezkoa) eta generoarekin harreman aldakorrean (ez genero bitarrarekin erabat loturik ezta guztiz independente ere). Desioaren eta arau sozialen arteko lotura konplexua aztertu nahi izan dut eta, horretarako, dependentzia eta dialektikatik harago doan kontzeptualizazioa eraiki beharra dago. Maurice Merleau-Ponty fenomenologoaren “kiasmo” nozioa berreskuratzen du Butlerrek (2016) harreman horren berezitasuna azaltzeko. Kiasmo bat linguistikan honela definitzen da: esaldi paralelotan dauden bi elementu sintaktikoen alderantzizko harremana (op. Cit:211). Butlerren testuan erabiltzen den adibidea *“When the going gets tough, the tough get going”*. “Tough” eta “going” hitzek bi esaldi hauetan esanahi ezberdinak dituzte. Lehenengo kasuan “the going” egoera bezala eta “tough” gogor bezala itzuli dezakegu. Bigarren esaldian, aldiz, “the tough” indartsuak da eta “going” aurrera jarraitzea izan daiteke. Honela, esamoldearen esanahia (“egoera gogor jartzen denean, indartsuek aurrera darraite”) hitz berdinak erabiltzearen ondorioz era berezian artikulatzen da ingelesez. Butlerren ustez, kiasmoak hizkuntzak simetriaren itxura formal-sintaktikoa gainditzeko duen gaitasuna adierazten du.

Desioaren eta arau sozialaren/legearen arteko harremana ere horrela irudikatu dezakegu: “desioa legezkoa da, legezkoa dena desiratzen denean”. Legezko hitzak euskaraz dituen esanahi posible biak biltzen ditu esaldiak. Elhuyar hiztegiaren arabera, legezkoa *“legeari buruzkoa”* eta *“legearen araberakoa”* da, baina baita *“bezalakoa”* ere, zerbaiten itxura duena. Horri gehitu behar zaio, egunerokoan legezkoaz hitz egiten dugunean ez diogula soilik idatzitako legeari erreferentzia egiten, ikuspegi etiko zabalagotik ere hitz egin dezakegu: bakoitzari dagokiona ematea, aitortzea... Desioaren anibalentzia nahiaren zentzu zabalari dagokio: nahi den orori buruz edo nahi sexualari buruzkoa izan daiteke bere esanahia. Hasiera batean harremana simetrikoa dela eman dezakeen arren (alegia, esaldiak “desioa legezkoa izan dadin desiratzen dena legeak onartu behar duela” esan nahi duena) esanahi ezberdin horiek jokoan jarritz gero harremanak simetria hori gainditzen duela ikusiko dugu (desioak aitortza legala izan dezakeela, bakoitzak dagokiona desiratzen badu). Desioaren eta arauaren arteko harremana ez da, berez, bata edo bestea, ez eta biak batera soilik ere. Kiasmo bat da.

Gainera, lan honetan, pentsamendu filosofiko frantses eta italiarrean hainbat autorek emandako esanahiaren bidez, desioak zentzu zabalagoa ere hartzen du. Guy Hocquenghem (2009) pentsalari eta aktibista homosexualak desioari eman zion dimentsioak pisu handia du, esaterako sexualitate ez-normatiboek izan dezaketen potentzial politikoa esploratzerakoan. Psikoanalisiaren bidez eta haren kontra pentsatu zuen homosexualitatea frantses honek, 70. hamarkadan. Komunista deklaratu izanik, sexualitatearen inguruko azterketa marxismoaren ikuspegitik egin zuen, Wittigek ere egin bezala, eta horrekin kritika zorrotza egin zion instituzio heterosexualari baina baita alderdi komunitei eta beren ortodoxiari. Bere lanean, desio homosexualak berezko potentzia eraldatzailea du. Gizarte kapitalistaren erreproduktzioa heterosexualitatearen erreproduktzioarekin lotzen du, eta ugalketaren ideologiak (ezkondu eta seme-alabak izatearena) giza espeziea eta sistema ekonomikoa ekoizteaz gain Ediporen errepikapena bermatzen duela teorizatzen du. Zergatik da Edipo horren garrantzitsua? Hocquenghemek ustez, gizarte kapitalistak sublimaturiko desio homosexualean oinarritzen dira: gizonek haien arteko babesa eta desio ez-sexuala erreproduzitzeaz arduratzen dira, botere egitura maskulinoak elikatzeko. Bere aburuz, desio hori sexualki esplizitua denean paktu isil hori hausteko gaitasuna dago, eta gizarte-lotura zalantzan jartzekoa. Laugarren kapituluan eztabaidatuko dudan moduan, gauzak asko aldatu dira 70. hamarkadatik hona, eta kapitalismoak potentzia eraldatzaile hori irentsi edo bezatzeko duen gaitasuna ere erakutsi du, baina Hocquenghemek desioari esleitu zion potentzia eraldatzailea oraindik interesgarria da. Desioaren ikuspegi hori Deleuzeren lanetik jaso zuen Hocquenghemek, lehenago ere ikusi dugun Braidottik bezala. Bere lan ugaritan (Braidotti 2000; 2004; 2015; 2018) desioaren kontzeptualizazio positibo/potentzialetik egin du tira, eta bereziki bere azken lanean (Braidotti 2018) azpimarra handia jarri du horretan, politikaren birformulazioak nahi eta nahi ez positiboa izan behar duela defendatzeko. Braidottik desioaren dimentsio hori diferentzia sexualari egozten dio eta, bere ideien transposizio ez-esentzialista eginez, uste dut genero ez-bitarrei eta trans*ei ere zabaldu daitekeela. Hocquenghemek desio sexualarekin, Wittigek lesbianismoaren ikuspegi utopikoarekin edo Braidottik diferentziaren ikuspegi proposatzailearen bidez, desioa eraiki edo berezko dugun tasuna izateaz harago, ingurunea eraldatzeko potentzia ere bilakatzen da. LGTB* ikuspegitik begirada horien oihartzunak elkarrizketatuen diskurtsoetan ere presente daude eta, gaur egun planteamenduok eskaini ditzaketen aukera eta mugak esploratzea LGTB* politiken muinean dagoela esango nuke.

1.3.5 KOMUNITATEAK ETA MUNDU SOZIALAK

Lan honetan ezinbesteko beste bi kontzeptu komunitatea eta mundu sozialak izan dira. Lehenaren kasuan, elkarrizketetan bertan agertu zen hitza, lerroz-lerroko kodifikazioa egiten ari nintzenean, parte-hartzaile askoren ahotan. Mundu sozialen kasuan, kontzeptu soziologikoa da, elkarrizketak kodetzeko erabili dudan metodologiaren parte zena eta, beraz, ikerketa bera bideratzeko balio izan duena. Komunitate kontzeptuaren genealogia txiki bat egingo dut aurrena, mundu sozialen inguruko azalpena ostean, eta bi kontzeptuok lanari zer ekarri dioten laburtuko dut azalpen horiek garatu/eman artean.

Roberto Espositok lan garrantzitsuak eskaini dizkio **komunitatearen** kontzeptuari. “*Comunidad, inmunidad y biopolítica*” lanean (Esposito 2009), esaterako, komunitatearen eta politikaren arteko harremanaz jarduten du, “galdutako” komunitatearen nostalgiak sortzen dituen efektuez, biopolitikaren garaian dominazioarekin zein gobernazio mota jakinekin harremanean. Espositok filosofia politikoaren ikuspegitik ekialdeko gizarte modernoetan nagusi izan diren ikuspegiak biltzen ditu²⁵. Banakotasunaren eta komunitatearen inguruko Jean-Jaques Rousseuren ideiak azaltzen ditu: norbanakoak ezingo du inoiz komunitatearekin guztiz bat egin, batak alde batera eta besteak bestera “tira” egiten diotelako gizakiari. Immanuel Kant lanean are argiagoa da elementu hori: gizakia kondentatua dago, ezin baitu komunitatetik kanpo pentsatu. Are gehiago, gizakia (bere hitzetan, gizona) gaizki dabil, bere naturaren izaera biolentoa delako, bere egoera naturala, Thomas Hobbesen aburuz ere, gerra delako (Esposito 2009:35). Kant, gizakiaren ikuspegi negatibo horretatik abiatuz, intuizio horren barnean murgiltzen da: gizakiek komunean dutena komunitatea da, ezinezkoa den komunitatea. Are gehiago, gizakiek komunean dutena komunitate horren ezinezkotasuna da.

Martin Heideggerrek are sakonago begiratu zuen kontraesan hori, eta ordura arte banakoaren eta komunitatearen artean irudikatzen zen tentsioa faltsua zela azaldu zuen: gizakiak ez du, asimilatua ez izateko helburuarekin, komunitatearen kontra “borrokatzen”, ez eta komunitateak banakoaren kontra berau bereganatu asmoz. Gizakiaren egoera posible bakarra da komunitatea, ez du hortik kanpo izaterik. Bere “munduan-izan” nozioak (alemanez

25 Ekialdeko testuingurutik kanpo komunitatearen ideiek beste zentzurik izan ditzakete, are gehiago, komunitatea bera, ontologikoki, beste era batera definitu daiteke epistemologia ezberdinen arabera.

“mitsein”) hori adierazten du hain zuzen ere: Kantek komunitatea lortu ezin den *helburu* bezala aurkezten bazuen, Heideggerrentzat komunitatea *patua* da, ekidin ezin den egoera ontologikoa. Komunitatea helburutzat jotzea bere jatorria topatu nahi izatea bezain antzua da (Esposito 2009:42). Honela, komunitatearen inguruko bere begirada ez da marxismoaren galdutako paradisuarena ez eta Hobbesen Leviathaneko norbanakoen arteko paktuarena. Komunitatetik kanpo izaterik ez dagoen heinean, komunitatea ezin da iraganerantz ez eta etorkizunerantz proiektatu.

Maria Luisa Bacarlett Pérezen ustez (2012) Espositoren planteamenduak komunitatea nazionalismoaren ikuspegi fundazionaletik kanpo uztea lortzen du. Bere aburuz, komunitatearen korapiloa askatzeko era bakarra Espositok dakarren paradoxa onartzea da, bete ezin dezakegun komunitatearen ideia, kontraesankorra dirudien arren, errealitatetik gertuago dagoena da eta, beraz, egingarriena dena. Komunitatea paradoxa bezala, edo berekin dakartzan paradoxak onartuz bakarrik da posible. Paradoxa horien artean esanguratsuen honakoa da: besteekin identifikatzen gaituena gehiago bilatu ahala, identitatea orduan eta gehiago galtzen dugu (Bacarlett Pérez 2012:41). Bacarlettek bat egiten du Espositok komunitate ideal eta egingarria mitoa besterik ez dela dioenean (Esposito 2009:31).

Tesi honen ikuspegitik nire kezka nagusia komunitateak politizazioarekin duen harremana da. Ideia hori esploratuz, Alejandro Groppok (2011) komunitatearen hiru kontzepzio sailkatzen ditu. Xehadura ezberdinekin, hirurek komunitateak aldez aurretik definiturik ez daudela uste dute. Jean Luc Nancy (2000, Groppo 2011n zitatua) filosofoak, esaterako, esposizioaren ideian jartzen du azentua, alegia, gizakia besteei esposatua dago, eta zentzu horretan pluraltasuna ez da norbanakoen batuketa, gizakiaren egoera bera baizik: gizakia singularra eta plurala da aldi berean. Bere filosofia oso era argian oposatzen zaio inmanentziaren ideiarri, eta baita komunitateak loturan oinarritzearen ideiarri: ezin da lotu berez banaezina dena. Bere ekarpen nagusietako bat komunitatea ixtearen kontrako eskabidea da: komunitatea parte ezberdinen arteko antolaketa sozialera murriztuz gero, politika badagoenaren kudeaketara mugatzen da eta, hortaz, heriotzara kondenatua dago politika bera. Ideia horrek lotura handia du lan honen laugarren atalean azaltzen den LGTB* politiken muga eta hodeiertz berriekin.

Groppok (2011:57) Espositoren proposamenetik politika modernoaren eta komunitatearen arteko harremana definitzen duena *tentsioa* dela azpimarratzen du. Pentsalari italiarraren “Inmunitas” kontzeptua interesgarria da maila honetan: immunitateak norbanakoaren bizitza eta interesak mantentzea du helburu eta gaur egungo gizarteetan kapitalismoaren beharrei erantzuteko biopolitikaren ikuspegitik gauzatzen da²⁶. Komunitatea (“*communitas*”), aitzitik,

26 Foucaulten biopolitikaren ideiatik abiatzen da Esposito.

egitate nahasgarriagoa da, Espositoren lanean askotan “absentzia baten presentzia” bezala definitua: komunitatea hor dago, egon gabe ere. David Toop musikologoak (2013) soinuari ezartzen dio ezaugarri bertsua ezartzen dio Espositok komunitateari. Toopen iritziz, soinuak presentzia absente bat du eta, horren ondorioz, entzumena gure zentzurik fidagaitzena da. Demagun norbera kaletik doala eta zerbait ikusi izanaren sentsazioa duela. Ohikoena *berriz begiratzea* litzateke, ikusi duguna ikusi ote dugun ziurtatzeko. Entzumenak ez digu halakorik eskaintzen: zerbait entzun dugula *uste* badugu, ezingo dugu *berriz entzun*. Entzundako hori joana da betirako, eta ez da izango ostera ere aditzeko aukerarik. Noski, soinu hori errepikatzearen zain gera gaitzake, baina inoiz ez dugu jakingo gertatu den edo ez. Ideia hau Mark Fisher (2018) musika kritikariak ere baliatu zuen, Derridaren “hauntologia” kontzeptuaren bidez hainbat musika eta soinu-esperimentazio lan aztertu zituenean (Fisher 2018). Hauntologia mamuen atzetik ibili eta, presente egon ez arren, eragina duten elementuak identifikatzearen praktika da. Musika elektronikoan, adibidez, iraganaren parte diren soinuak erabiltzen dira maiz, baina berauek eraldatuz eta, horrela, soinu horiek ez dira iraganean ez eta orainean guztiz kokatzen²⁷. Komunitatearekin erraz lotu daiteke kontzeptu hori: mamu bat da komunitatea, hor egon ez arren gure bizipenak eraldatzeko gaitasuna duena. Entzun ote dugun jakin gabe entzuten duguna da komunitatea maiz, gure pertzepzioa eta munduan egoteko moduak eragiten dituena. Errealia izan gabe, edo behintzat bere errealitatea jakintzat emateko bermerik izan gabe, batzuetan ozen eta besteetan apal entzuten dugun soinua da.

Komunitatearen izaera fantasmatikoa baliatuz, Espositok (op. Cit.) garbi du komunitateak “inpolitikoa” izan behar duela. Horrela ulertzen du ere demokraziaren ideia: komunitate inpolitikoa hutsunearen inguruan antolatzen da eta hutsune hori definitu edo ixteak demokrazia garatzea ekidingo luke. Bere ustetan, demokrazia, politika bera forma zehatz eta baztertzailletan finkatzearen aurkako indarra sortzen duen *beste* kontzeptuala da.

Ernesto Laclauk ere (Butler, Laclau, eta Žižek 2000; Groppo 2011) komunitatearen izaera ezinezkoa azpimarratzen du, eta komunitateak ixtearen inguruko ohartarazpena egin: komunitate batek bere baitara itxi nahi badu eta, helburu horrekin, estrategia diskurtsiboak martxan jartzen baditu, onartu behar du jada komunitatea galdua duela, hain zuzen ere “kanpoko” horrek jada “barrukoa” defendatzearen mugimendua bera determinatu duelako. Horren adibide gisa jartzen ditu erreakzio xenofobo eta nazionalistak: kanpotik datorren

27 Ikuspegi honetatik aztertzen ditu, adibiderako, The Caretaker musikari esperimentalaren lehen diskoa, zeinetan 50 eta 60. hamarkadetakoa areto dantzaldietako musikaren soinu-laginak erabiltzen dituen atmosferak sortzeko, soinu-efektu eta manipulazioen bidez. Zinemaren esparruan oso interesgarria da Stanley Kubricken 1980. urteko “The Shining” pelikularen inguruan egiten duen interpretazioa. Pelikularen azken eszenak hauntologiaren ikuspegitik interpretatuz, patriarkatuaren eta indarkeria matxistaren aita-semeen arteko transmisioa aztertzen du. Hauntologiari buruzko sarrera bat dago, halaber, “Barbarismos queer” liburuan (Platero, Rosón, eta Ortega Arjonilla 2017).

mehatxuari erantzunez purutasuna edo itxiera defendatzen duen komunitateak jakin badaki, edo jakin beharko luke, purutasun hori galdua dagoela jada. Entzumenarekin gertatzen zaigunaren kontrakoa gertatzen dela esan dezakegu: ikusitakoa ikusi dugunean ez dugu jada irudi hori era errazean gure burutik ezabatu. Laclaren ustetan komunitate oro elementu traumatiko batek definitzen du, besteengandik banaketa sortzen duen elementuak, eta haustura horrek berak sortzen du komunitatea batasuna bailitzan aurkezteko ezintasuna: ez dago haustura horren sakontasuna jakiterik. Baina Laclarentzat komunitateak egon baldin badaude hegemoniaren inguruko borrokagatik da, eta horrek elikatzen ditu. Kasu honetan ere esan dezakegu nolabait komunitatearen oinarrian negatibotasuna dagoela hein batean²⁸.

Giorgio Agamben (1996) “heldu den komunitateaz” arituko zaigu. Pentsalari honen ibilbidean garrantzitsua izan den subiranotasunaren ideiarekin (edo horren kontra) lotzen du kontzeptua italiarrak. Subiranoa, bere obran, salbuespena erabakitzeko gaitasuna duena da, erregimen “normaletik” erregimen berezira salto egiteko agindua emateko gaitasuna duena²⁹. Erregimen soberanoetan, normaltasunaren barruan nor dagoen (eta nor ez) ebatzea ezinbestekoa da eta erabaki horrek, halaber, norbait kanpoan uztea dakar. Heldu den komunitateak logika soberanotik harago doan komunitatea irudikatu nahi du, eta horretarako, bere izaera paradoxikoa onartu beharra du. Bere iritzian komunitatea beti eta etengabe irekia egon behar da, eta horrek ezinbestean nortasuna era egonkorrean ulertzeko ezintasuna dakar. Heldu den komunitatea, beraz, proposamen irekia da.

Ikuspegi queer eta feministatik, Butler eta Athanasiou (2017) pentsalariak komunitatea eta politikoa nola lotzen diren aztertu dute elkarrizketa formatuan. Desjabetzea (ingelesezko “dispossession”) da beraien elkarrizketaren abiapuntu-idea, eta horren inguruan eraikitzen dute eztabaida. Wendy Brownen (1995) lana kontuan hartuz, komunitateak minaren eta zauriaren inguruan eraikitzearen arriskuak aipatzen dituzte, baina indarkeria mota ezberdinen inguruko eztabaidari eusten diote ere, minaren ideia beraien debatean oso presente mantenduz. Are gehiago, arrazakeriaren, nazionalismo zapaltzailearen eta totalitarismoen ondorioak aztertzeaz gain, generoarekin eta sexualitatearekin ere lotzen dute indarkeria eta mina, egungo pentsalari (gizon) gehienek ez bezalaxe. Desjabetzearen ideien zentzu bikoitza aztertzen dute, eta, aurretik azaldu dudana komunitatearen inguruko ideiak osatzeaz gain, zalantzan jartzen dituzte. Alde batetik, desjabetzeak hasieratik darabildan

28 Ikuspegi hau, eta komunitateak hegemoniaren inguruan antolatzearen egokitasuna eztabaidatu izan dio Laclauri Richard F. Day ikerlari eta aktibista queer eta libertarioak, besteak beste (Day 2016).

29 Kontzeptu hau ikuspegi feministatik berrezaugarritzen du Nerea Barjola ikerlariak bere *“Microfísica sexista del poder: el caso Alcázar y las construcción del terror sexual”* lanean (2018). Agambenen kontzeptua estatuaren eta era klasikoan boterea irudikatu dugun kokapenetatik harago eraman eta maskulinitatearen eta patriarkatuaren ikuspegitik aplikatzen du, espazio publikoan indarkeria sexualari dagokionez gizonok jokatzen dugun papera aztertuz.

komunitatearen izaera ezinezkoari egiten dio erreferentzia. Berez gara desjabetuak, hasieratik bertatik osatu gabe gauden heinean. Puntu horretan haiek ere Lacanen psikoanaliari jarraitzen diote, “galdutako objektuaren” ideia azalduz. Maila horretan desjabetzea ontologikoa litzateke, gizaki izateagatik beragatik bizi dugun kondizio konponezina. Baina, bestetik, desjabetzeak indarrez inposatzen zaizkigun prozesuei ere egiten die erreferentzia. Kasurako, gure testuinguru hurbilean desjabetzea duela jada 10 urte lehertu zen finantza krisiarekin lotzen dugu, krisi hori estatuen interbentzioa medio krisi ekonomiko bilakatzean hipotekek itota zeuden hainbatek bizitako etxe gabe geratzearen prozesuarekin. Butler eta Athanasiouk bestelako adibideak ere jartzen dituzte: Palestinako lurren desjabetze biolentoa, kapitalismoak sortutako desplazamenduak edo sexualitate/genero arazoak medio bizitza duina ukatzen zaien pertsonen esperientzia³⁰. Desjabetzearen bigarren adiera hau kontuan izan behar dugu komunitatearen eta bere ezaugarri ezberdinen inguruan jardutean.

Desjabetzearen bi adiera horiek estuki lotzen dira pentsalariok zaurgarritasunaren (“vulnerability”) eta “zauritasunaren” (“woundedness”) artean planteatzen duten banaketarekin. *Zaurgarritasunak* desjabetzearen lehen adierari egingo lioke erreferentzia: gizaki guztiok partekatzen dugun kondizioa da, munduan eta munduari emanak egoteagatik, Nancyk esango lukeen moduan, “agerian” egoteagatik. *Zauritasunak* bigarren adierarekin du lotura, nahiz eta ez den automatikoa: botere egituretan dugun posizioa dela-eta, gure zaurgarritasuna areagotu edo larritu dateke, gure bizitza bera zalantzan jartzera heldu arte. Nolabait “jasotako” zaurgarritasuna izango litzateke, botere sistemen ondorioz gure gorputzei inposaturikoa. Bi hauen arteko ezberdintasun nagusia zera da: zaurgarritasuna ekidinezina da (beti egongo gara agerian munduaren aurrean eta beti izango gara amaitu gabeak), aldiz jasotako indarkeria hori ekidin daiteke, sistema politiko eta ekonomiko okerren ondorio delako. Baina indarkeria horretatik zauritasunera salto bat dago halaber, eta bien arteko espazio horretan kokatzen dute, preseski, Butler eta Athanasiouk, beraien hausnarketa: posible izan behar du babes komunitateak eraikitzea zauria oinarri duen komunitate hertsia sortu gabe.

Zaurgarritasuna erdigune hartzearen zailtasun eta arriskuak aipatu ditu Braidottik (2018) “Por una política afirmativa” testuan. Aldez aurretik esana zuen, “Lo Posthumano” (2015) liburuan, gaur egungo giza kondizioaren baldintzek zenbateraino eragiten duten gure nortasunaren eta subjektibotasunaren artikulazioa. Antropocenoaren aroan³¹ bizitza bera arriskuan sentitzen hasten gara eta, Marina Garcesek ere seinlatu duen moduan (2017)

30 Kontziente naiz “desjabetze” kontzeptuak adiera gehiago dauzkala, ibilbide luzea duelarik pentsamendu marxista eta dekolonialean ere. Aipatutakoak adibide batzuk besterik ez dira.

31 Antropoceno kontzeptuaren sarrera labur eta argi baterako Ramon Fernandez Duráñen “El Antropoceno” (2011) kontsultatu daiteke.

badirudi denbora gelditu eta atzeraka kontatzen hasi garela: aurrerabidearen ideia zalantzan dago jada, baina ez hori bakarrik, denborari alderantziz ari gara erreparatzen, zenbat bizi dugun pentsatu ordez zenbat geratzen zaigun pentsatuz. Braidottiren testuak ohiko mezu katastrofista alboratzen du humanismoaren krisiari buruz ari denean. Bere pentsamendu lerroaren konstantea da krisi horiek ihes lerroak bilakatzea: gizonaren krisia feminismoarentzako aukera zela aipatu izan duen era berean (Braidotti 2004) gizatasunak naturarekiko, animaliekiko eta makinekiko duen harremanean bizi duen krisia lotura posthumanoa berreraikitzeke aukera gisara ikusten du (Braidotti 2015:68). Bere azken lanean, garrantzi handia eman dio komunitate eta subjektibotasun politikoen eraikuntzari. Eraldaketarako komunitateak *nondik* eraikitzen ditugun itauntzen du. Biziraupena bera arriskuan dagoelarik, Butlerren zaurgarritasunaren teoria heldulekua izan daiteke lotura berri hori eraikitzeke, baina estekadura hori negatibotasunik abiatzen da: denok gaude elkarrekin honetan, denon bizitza eta giza espeziearen beraren jarraipena jokoan dagoelako.

Braidottik ez du proposamen horretan abiapuntu egokiena ikusten. Gizateriaren etorkizuna bera dela jokoan dagoela onartuta ere, ikuspegi horrek oraindik erdigunean gizakia bera jarriko luke, ikuspegi humanista alboratu ordez. Aurretik komunitatearen inguruan aipatu ditudan hainbat ikuspegirekin bat egiten du Braidottik, bereziki garrantzitsua delarik bere anti-fundazionalismoa, alegia, komunitateak aldeztu aurretik existitzen diren entitate bezala identifikatzeari uko egitea. Komunitateen oinarrian ez legoke, beraz, aldeztu aurretik definitu ditugun ezaugarrien zerrenda bat edo beste. Horretan bat egiten du arestian aipatu ditudan Esposito, Nancy edo Agambenen ikuspegiekin. Baina Braidottiren kezka honako da: nola egin aurrera analisi hori ontzat eman ondoren? Horregatik bere planteamenduek beste iturri batzuetatik ere edaten dute. Bere ideiak, inmanentziaren kontzeptuarekin duten harremana medio, bestelako lekuan kokatzen dira. Nancyk, esaterako, komunitatearen esentzia zalantzan jartzen zuen, bere inmanentzia ukatuz. Aitzitik, Braidottik, Deleuzeren ideiak aintzat hartuz, ez dio inmanentziaren ideiarik uko egingo. Pentsalari frantsesaren lanean, kontzeptu honek – transzendentziaren kontrako gisa – garrantzi handia izan zuen, oso ikuspegi partikularretik: inmanentziak komunitatearen esentzia bati erreferentzia egin ordez gizakiaren eta naturaren arteko banaketa gainditzeko mekanismo bezala funtzionatzen du, hala nola makinaren eta gizakiaren artekoa. Inmanentziak banaketa analitiko hori gainditzeko asmoa du, ideia, nortasun eta egoera denak, potentzia forman bada ere, berez banaezina den bizitzan aldeztu aurretik presente daudela esanez. Horretaz gain, lehen aipatu dudana moduan, desioaren garrantzia teorizazio honetan handia da: komunitatearen oinarrian desioa dago, izateko nahia. Nahi hori birtuala da, ez dio iraganari ez etorkizunari erreferentziarik egiten, eta ustekabearekin, espero ez dugunarekin, estuki lotua dago. Gizakia bezala, irekitasun horren agerian dago. Izaera politikoa duen guztiak, beraz, ustekabearekin konektatu beharra du, eta horretarako operazio ezberdinak beharrezko ditu: ez lerrokatu baina aldi berean bere garaiarekin sintonizatu; etorkizunera zuzendu baina orainean erroto, eta posible diren sistemak zehaztu, aldi berean birtualaren potentzia galdu gabe (Braidotti 2018:128).

Komunitatearen inguruko ideia hauek guztiak baliagarriak izan zaizkit herri mugimenduen testuinguruan gertatzen diren politizazioei buruz hausnartzeko: hirugarren kapituluan, norbanako bakoitzak erreferentzia komunitate ezberdinekiko duen harremanean subjektibotasun politikoak nola eraikitzen diren ikusi ahal izan dut; laugarrenean, aldiz, subjektibitate politiko horiek kolektiboki eraikitzerakoan mugimenduen baitan irudikatzen diren komunitateak kritikoki aztertzen saiatu naiz. LGTB* politiken subjektua pentsatzerakoan komunitate ezberdinak (LGBT* mugimenduak, mugimendu sozial mistoek, antolatu gabeko LGTB* subjektuek...) elkarren artean nola artikulatzen diren ikustekak komunitate bakoitzak sexualitate eta genero bizinortasunen politizazioari eskaintzen dizkion aukerak eta mugak ikusteko aukera izan dut.

Komunitateena oso kontzeptu erabilgarria den arren abstraktua izan daiteke eta, kontzeptu hori apur bat lurreratzeko, lagungarria izan zait mundu eta esparru sozialez hitz egitea. Adele E. Clarken (2005) lanetik berreskuratu ditut aplikazio soziologiko samurragoa duten kontzeptu horiek. Mundu eta esparru sozialak pertsonok konpartitzen ditugun leku eta uneak dira (espazioa eta denbora, beraz, garrantzitsuak dira kontzepzio honetan). Une edo leku oro mundu edo esparru sozial bat izan daitekeen heinean, egonkortasunaren elementuari erreparatu diot: garrantzitsuagotzat jo ditut esparru sozial horiek egonkorragoak diren heinean, esparru indartsuak direlako. Baina justu kontrako arrazoiengatik garrantzitsuak izan daitezke ere: esparru sozial batek, salbuespenekoa izateagatik (Agamben 2013; Barjola 2018) oso efimeroa izan arren eragin handia izan dezake bertan parte hartzen duten pertsona eta taldeetan. Lehen kasuan, adibide gisara ibilbide luzea duten mugimenduak jarri ditzakegu, Ezker Abertzalea³² edo mugimendu feminista esaterako, militanteen bizitzetan egituratzaile sozial egonkorak izan daitezkeenak. Bigarren kasuan, 15M mugimenduaren karietara hainbat hiri eta auzotako plazetan sortu zen protesta mugimendua aipa dezakegu, edo Kataluniako autodeterminazio erreferendumaren inguruan sortutako intentsitate handiko politizazio uneak. Laburrak izanagatik edo, ziur aski, laburrak izateagatik, hauen eragina handia izan da hurrengo urteetan jendeak politika, parte-hartzea edo hiritartasuna ulertzeko dituen moduetan.

32 Testu osoan zehar “Ezker Abertzalea” maiuskulaz erabiliko dut historikoki Euskal Herriko Nazio Askapen Mugimenduarekin (ENAM) lotzen den talde, alderdi eta sindikatuak izendatzeko. Minuskulaz, “ezker abertzalea” esaten dudanean, aldiz, sigla horietatik harago edo sigla horiekin halaberrez identifikatu ez arren haien burua ezkertiar eta abertzaleztat duten pertsona multzo anitzaz arituko naiz.

Mundu sozialak definitzeko dauden ikuspegi teoriko ugarietatik Clarkena hautatzearen arrazoi nagusia diskurtso analisiarekin lotuta duten kontzeptuak erabiltzea izan da³³. Bere ikuspegitik mundu sozialak diskurtso unibertsoak dira: lengoaiaren bidez egituratzen eta desegituratzen diren espazioak. Kontzeptu eta ideiak konpartitzen dituzte, hizkera komuna dute eta ez dira existitzen beraiei buruzko kontzepzioak baino lehenago, baizik eta kontzepzio horiei esker eraikiak dira nagusiki. Lehenago ere esan dut diskurtsoaren nozioak lengoaiari eta idatzitako testuen analisiari garrantzi paregabea ematen diola (Mendia Azkue eta beste 2015; Burman eta Parker 1993). Azken hamarkadetan, ordea, foku hori hedatzen joan da, bestelako iturri batzuei ere ikuspegi diskurtsiboa aplikatuz. Pentsa ditzakegu, adibidez, espazioen dimentsio diskurtsiboak (lekuak ze ulerkerak eta kontzepzioen bidez eraikitzen diren), edo objektuenak (nola eraikitzen dira gailu/gauzak eta ze balio edo erabilera esleitzen zaaien horren arabera). Honela, leku eta espazio zehatzean elkartzen den komunitateak ere ikuspegi diskurtsotik pentsatu ditzakegu. Noski, komunitateok ez dira besterik gabe diskurtsoak, beste elementu batzuk ere presente dituzte eta, beraz, komunitateak eraikuntza diskurtsibo huts gisa ulertzea murriztapena litzateke. Hala ere, posible dugu komunitateen eta mundu sozialen oinarri diskurtsiboak esploratzea. Esplorazio hori egiterakoan, kontuan izan dut mundu sozialen konplexutasuna eta teilakatzearen fenomenoak: esparru sozial orok bere azpimundu eta banaketak ditu eta azpimundu horiek haien artean teilakatu daitezke, elkartze eta tentsio guneak sortuz. Herri mugimenduen kasuan, teilakatze hori mugimenduetako familia politiko eta kolektibo ezberdinen artean gertatzen da, hala nola mundu sozial zabalagoekiko (enplegua, hezkuntza, familia eta abarrekin) harremanean.

Laburtuz, komunitate eta mundu/esparru sozialen kontzeptuak lagungarri izan zaizkit herri mugimenduak eta bertan inplikatzeko diren/inplikatuak subjektuak beren testuinguruan ulertu ahal izateko eta, hortik abiatuz, politizazio forma ezberdinak aztertzeko. Unea izan daiteke, beraz, politikaz erabili dudan ezaugarritzea laburki azaltzeko.

33 Lehenago ere aipatu dut “Gizon taldeak eta maskulinitatearen inguruko diskurtsoak” (Azpiazu Carballo 2015a) tesinarako diskurtso analisia erabili nuela. Horren ostean analisi eredu baten garapenean jardun nuen hainbat ikastaro eskainiz bere garaian SIMReF mintegiaren baitan Barbara Biglia eta Jordi Bonet ikerlariek abiatutako eredu batetik tiraka.

1.3.6 POLITIKA, POLITIKOA ETA MUGIMENDUAK

Politikaz jardutea beti da arazotsua. Egunerokoan, ingurukoekin politikaz jarduteko ditugun zailtasunak horren adierazle dira. Edonori politikari buruz duen iritzia galdetuz gero, era guztietako erantzunak lortu ditzakegu, hain zuzen ere, politika ulertzeko modu ezberdinak daudelako. Batzuen ustez politika alderdi eta instituzioetan gertatzen dena da, ordezkapen bidezko demokraziarekin lotzen da. Profesionalak dituen sistema bat da, politikara dedikatzen diren horiek, politikariak. Politikari dagokionez, beraz, herritarron eginbeharra profesional horien artean gure ordezkariek aukeratzea da eta, akaso, beraien jarduna eta erabakien inguruko iritzia eman edo, bederen, informazioa jaso. Beste batzuek, aldiz, politikari bestelako zentzua egotzen diote, gizarteek eta beren unitateek (herriek, auzoek, familiek, lagunartek eta abarrek) beren baitako bizitza antolatzeko erabiltzen dituzten mekanismoa eta jarduerarena. Ikuspegi horretatik, herritar guztiak daude politikan inplikaturik, egin ala ez egin, esan ala ez esan, duten jarrerak bizitza horretan eragin zuzena zein zeharkakoa duelako. Bi ikuskera hauek boterearekin lotzen dira, baina kasu bakoitzean boterea ezberdin ulertzen da. Lehen kasuan boterea estatuaren instituzioei eta berauetan dabiltzan agenteei (alderdiak, kargu publikoak eta abar) egotzen zaie. Bigarrean, boterearen ikuskera zabalago batek espazio gehiagotan kokatzen du boterea eta, ondorioz, horren inguruko kezka den politikaren jarduna. Asko sinplifikatuz, lehen ikuskera *politikaz* ari zaigu, bigarrena *politikoaz* edo *politikoa den horretaz*³⁴.

Herri mugimenduek politikaren eta politikoa denaren arteko ezberdintasunean sakontzen dute haien eguneroko jardunaren bidez, preseski beraien egitearen erdigunean kokatzen dutelako politikaren ikuspegi klasikoa zalantzan jartzea. Politikoa dena politikari profesionalen eskutan ez uzteko asmoa dute mugimenduek, nahiz eta bakoitzak ikuspegi ezberdinetik egin: batzuek mugimenduek alderdi eta politikariei laguntza, ikuskaritza edo

34 “Politikoa” edo “politikoa dena” esapideak ingelesezko “the political” edo gaztelarazko “lo político” esapideei egiten die erreferentzia.

presioa edo kontrola egin behar dietela uste duten bitartean, beste batzuek herritarren antolaketak sistema politikoa irauli beharko lukeela uste dute, alderdien sistema baztertu eta parte-hartze zuzena bermatuz. Zehaztasunak zehaztasun, mugimendu denek haien jarduna politikotzat dute eta, beraz, bestelako egiturak sortu dituzte alderdiez gain: taldeak, kolektiboak, sindikatuak..

Ordura arte mugimendu gehienak langile kategoriaren inguruan antolatu baziren ere, 60. hamarkadatik aurrera herri mugimenduen loratze eta suspertzea kategoria horretatik eta sindikatu/alderdien antolaketa ereduak harago gertatzen da, Ilustrazioaren garaitik zetorren errepresentazioaren ideia zalantzan jarriz. Kalean, oinarrizko komunitate eta kolektiboen bidez egiten den parte-hartzeak estatuarekin, alderdiekin eta sindikatuarekin artikulatzeko forma ezberdinak planteatzen ditu. Mugimendu batzuek erabateko autonomia aldarrikatzen dute estatu, alderdi eta sindikatuen sistemarekiko: kolektiboak behetik eta horizontalean antolatu behar dira eta egitura ofizial horien indarra ahultzea dute helburu. Hori da, adibidez, mugimendu anarkistaren, okupazio mugimendu gehienaren edo feminismoaren zein ekologismoaren sektore batzuen ikuspegia. Beste mugimendu batzuek antolaketa herritarra alderdien eta sindikatuen sistemaren osagarri gisa ulertzen dute, batzuei eta besteei posizio ezberdinak eskainiz pentsamolde bakoitzaren arabera: batzuen ustez herri mugimenduak alderdi eta sindikatuen abangoardia dira, besteen ustez alderantziz. Gurean, Ezker Abertzalea eta langile mugimendu batzuk izan daitezke horren erakusleetakoz batzuk. Badago bestelako konbinaziorik ere: esaterako, ikuspegi liberaletik ordezkatzeko-demokrazia defendatzen duten askok mugimenduen ekarpena interesgarritzat hartzen dute, gobernantza eremuan gai eta kezka ezberdinak kokatu ditzakeelako.

Herri mugimenduen ikuspegitik, politika (instituzio eta estatuak aitorturiko instantzien bidez egiten dena) eta politikoa (gizartearen antolaketa ereduaren eragiteko egiten den ahalegin oro) gauza ezberdinak dira eta, ikusi dugun moduan, mugimendu askoren praxian biak konbinatu arren lehenak ezin du bigarrena erabat atxiki. Politikoak (edo politikoa den horrek), beraz, politika hedatu, gainditu eta, kasu batzuetan, zalantzan jartzen du:

El activismo como estado mental consiste en conectar la filosofía no tanto con «LA politique» (política jerarquizada o mayoritaria) como con «*LE politique*» (los movimientos políticos y las formas de devenir difusas, nómadas y rizomáticas (Braidotti 2018:111).

Zita honek politikoaren ikuspegi horren elementu ezberdinak biltzen laguntzen digu. Hasteko, aktibismoa adimenaren egoera gisara definitzen da, elkarrizketetan argi azaldu den moduan, ekintzaileek uneoro presente duten zerbait. Mugimendu berriek politikoa denaren aspektu horretan azpimarra handia jarri dute: gizarteak antolatzen dituzten hierarkia eta ezberdinkeriek gure bizitzaren aspektu orotan eragiten dute eta, beraz, horien kontrako erresistentziak ere bizitza osoa hartzen du. Are gehiago, esan genezake azken hamarkadetan herri mugimenduen ahalegin handiena konexio mikropolitiko horiek agerian uztea izan dela.

Mugimendu feministak, esaterako, generoen antolakuntza sexistak bizitzaren alderdi ezberdinetan nola eragiten duen erakutsi du, norberaren osasun edo autoestiman, lanaren eta enpleguaren antolakuntzan, produktu kulturaletan, lagunen arteko harremanetan edota jasotako soldatan. Generoak gizartearen eta gizabanakoaren dimentsio orotan duen eragina aztertuz, etengabe ireki da analisi feministaren esparrua eta gauza bera esan dezakegu beste mugimendu batzuen inguruan³⁵.

Lan honen ikuspegitik bi ondorio izan ditu lehen elementu horrek. Batetik, ikusi ahal izan dut aktibistek beraien jardun politikoa horrela ulertzen dutela gehienetan eta, beraz, egunerokoaren politizazio horren mugak identifikatu eta aztertzen saiatu naiz, esaterako norbere bizitzaren dimentsio ezberdinak zenbateraino politikotzat jotzen diren ala ez itaunduz. Bestetik, politizazio modu ezberdinei atentzioa eskaintzea eskatu dit, parte-hartzaileek politikotzat hartzen dituzten elementu batzuei garrantzia emanaz. Izan ere, politikaren ikuspegi mugatuaren langa gainditu ondoren, politikoa denaren eta ez denaren arteko muga da esploratu beharrekoa eta horretan ari dira herri mugimenduak egun. Izan ere, gai ugari izaera politikoa eman zaien arren, oraindik ere ez dira guztiak maila berean jartzen. Guztiek boterearekin lotura handia dutela onartuta ere, mugimenduek zailtasunak dituzte sexualitatea eta lurralde antolakuntza “politikotasunaren eskalan” maila berean jartzeko. Haien diskurtsoak artikulatzerakoan zein proposamen zehatzak egiterakoan, gai batzuek zentraltasun handia dute eta beste batzuek, ez horrenbeste. Hain zuzen ere, lan honen helburuetako bat “politikoa den hori” nola kategorizatzen den pentsatzea izan da. Herri mugimenduen espazioetan politikotzat zer hartzen den pentsatzeaz gain, politizazio horri aitortzen zaion garrantzi eta estatusaz eztabaidatu nahi izan dut ere. Laugarren atalean, adibidez, Carolina Leonek (2018) egiten duen Hannah Arendten irakurketatik abiatuko naiz eztabaida hauen muga batzuk azaleratzeko: noiz jotzen da gai bat publikotzat eta, ondorioz, interes generaleko eta politikotzat? Herri mugimendu eta eraldaketaren ze aspektuei eragiten die, beraz, gaur egun gai batzuk politikatik kanpo uzteak? Noiz bilakatzen da zerbait politikoa?

Jose Ignacio Allevik egiten duen Butlerren irakurketan, lehenago aipatu moduan, subjektuen formazioa bera da politikoa, norbanakoa jaiotzatik botere posizioen sarean dagoen heinean subjektua bera kondizio horiek sortzen dutelako:

35 Bong John-ho zinema zuzendari korearrak, adibidez, klasearen inguruko analisi antzerakoa egiten du izenburu erakargarria duen elkarrizketa honetan: “Todo, hasta nuestro olor corporal, es un asunto de clase” <https://labur.eus/zWHXi> (2020ko urtarrilaren 6an kontsultatua).

(...) para Butler la emergencia del sujeto y su constitución identitaria son un acto político en sí mismo, en el cual se tensionan una serie de elementos que el sujeto en su reiteración performativa recibe, reposiciona o resignifica. La politicidad del proceso reside en el lugar privilegiado de la elección, más o menos condicionada, más o menos subversiva, pero siempre posible. La intervención sobre uno mismo en términos identitarios es la resistencia concreta frente a la normalización que el discurso social busca imponer (Allevi 2015:158).

Kasu honetan, subjektibotasuna bera politikotzat jotzeak galdera transformatzen du. Itauna ez da zer den politikoa eta zer ez, baizik eta beti eta berez izaera politikoa duen subjektibotasuna zeren inguruan eraikitzen den eta ze kondizioak ahalbidetzen duten. Hirugarren atalean aktibistek sexualitatea eta genero bizinortasuna politizatzearen inguruan zuten bizipena aztertuko dut, beren ingurune sozialak politizazio horiek ahalbidetu edo oztopatzeko moduei erreparatuz. Allevik aipatzen du subjektuak elementu ezberdinak jaso, birkokatu edo berrezaugarritzen dituela eta beraz horietako bakoitzarekin testuinguruaren arabera nola jokatzeko duen pentsatu beharko genuke. Politika haragituaz ariko naiz ikerlan honetan, gorputzetik pasatzen den politikaz (Sembler 2019), baina gorputza beti bere ingurunearekin harremanean ulertuz.

Braidottiren zitara bueltatuz, autoreak politikaren eta politikoaren artean ezberdintzean bigarrean kokatzen ditu mugimendu politikoak eta bilakabidearen (frantsesezko “devenir”) forma lauso, nomada eta rizomatikoak. Mugimendu guztiek termino horietan pentsatu ez arren, politikoaren ikuspegiak elementu horiek eztabaidan txertatu dituela ezin uka. Testuan zehar argudiatuko dudako moduan, mugimenduen antolaketa ereduak Euskal Herrian askotariko formak hartu dituzte, baina maila askotan erreferentzialak izan diren mugimenduek, bereziki Ezker Abertzaleari eta langile borrokei loturikoek, ikuspegi leninista oinarrituriko koadroen egitura egonkorretan antolatu dira. Horrek ez du esan nahi, ordea, beste mugimendu batzuek ez dituztenik antolaketa forma lausoagoak probatu, ez eta horietan irudikatu diren subjektuak, gaur egun politikaren subjektu direnak, ez direnik aldakorak (nomadak) eta beraien arteko lotura egonkorrik ez dutenak (rizomatikoak). Politikaren aurrean politikoak antolaketari buruzko galdera ugari irekitzen ditu, eta erantzunek geometria ezberdinen forma hartu dezakete: bertikalak, horizontalak, diagonalak edo fraktalak.

Azpimarratu nahiko nukeen politikoaren azken ezaugarria bere izaerak berak irekitzen duen indeterminazio maila da. Ana Cecilia González eta José Enrique Emak (2017) gogorarazten diguten moduan, politikoaren nozioak arima ederraren ideari aurre egin behar izan dio, bere ingurunearen egoera politikoaz kontziente izanik etikoki puru mantendu nahi izan duen figurari. Horrela izendatu ez arren, mugimenduek figura narzisista horrekiko eztabaidan artikulatzen dituzte hainbat eztabaida: sistema kritikatzaren ondorioz norbanakoaren etika aldarrikatzen dutenek maiz sistema horrekiko dependentzia erakusten dute, haien izate purua mantentzeko ezinbestekoa duten heinean. Purutasunaren ideia

horren kontra politikoa norbere printzipio eta kokapena arriskuan jartzean oinarritzen dela aldarrikatu izan dute hainbatek (Garcés 2013), baina horrek ere izan du bere ifrentzua: printzipio etiko malguak eta kontraesanak propio bezala onartzeko gaitasunak politika posibilista eta erlatibistara eramanez hainbat mugimendu. Eztabaida horrek ez du irtenbide errazik eta dagoenaren eta egon daitekeenaren arteko etengabeko negoziatziora daramatza mugimenduak. Baina gehien interesatzen zaidana politikoaren alderdi indeterminatu horrek irekitzen dituen espazio hutsak dira: politikoa ezin da alde aurretik definituta dauden komunitate itxietan soilik oinarritu, ez eta uneoro berdinak diren subjektuetan. Horren jakitun, González eta Ema (2018) Laclairen begirada oinarri duen proposamena egiten dute:

El sujeto de la política es resultado y condición, se constituye en deuda con un acontecimiento/causa del deseo que lo precede, y a su vez, nada hay en sus condiciones antecedentes que pueda determinar sus prácticas. Si hay sujeto, deseo e incorporación subjetiva a un proceso político es pasando la prueba de una invención sin garantías a partir de la experiencia, que es corporal, de la extimidad. Así, la subjetividad corporeizada por la que nos hemos interrogado aparece como resultado de la experiencia de la subjetivación del cuerpo, ya no como el depósito de necesidades, sino como el lugar, situado y a la vez en construcción, de la participación en un proceso político (de verdad) (Gonzalez eta Ema:246).

Subjektu horren indeterminazioak politikoari eskaintzen dion bertigoa gainditzea zaila da mugimenduentzat eta hainbatek horren inguruko kezka azaldu dute elkarrizketetan. Ardura horretaz gain, eta lotura estuan, lehenago aipatu dugun kondizio materialen ahanztura arriskua aipatu izan dute ere: politikoa ezin daiteke alde aurretik definitzen diren taldeetan oinarritu, baina badira kondizio material bertsuak partekatzen dituzten taldeak. Ikusiko dugunez, ordea, kondizio material berdintsuak konpartitzen dituzten subjektuek ez dituzte politizazio bide berdinak hartzen eta, maila horretan, nahi eta nahi ez, politikoaren subjektuak irekia jarraitzen du.

Mugimenduak

Orain arte herri mugimenduez aritu naiz nahiz eta une batzuetan, hitzak larregi ez errepikatzeko mugimenduak edo mugimendu sozialak erabili dudanez. Beste batzuetan kolektibo, talde edo ekimenez ere hitz egin arren, nagusiki herri mugimenduak espresioa hobesteko hautua egin dut, aurretik egindako beste ikerketa eta aktibismo batzuen ildoari jarraituz (Joxemi Zumalabe Fundazioa 2011; 2014; 2019). Jakitun naiz, hala ere, edozein hitz motz geratzen dela gaur egun parte-hartze sozial eta politikoak Hego Euskal Herrian hartzen dituen forma guztiak biltzeko. Areago, mugimenduetan antolatuta dauden pertsona askok ez dute haien burua epigrafe horren pean jarri nahiko, kontzeptuak berak, askorentzat,

mugimenduen sektore abertzalearekin lotura duelako. Nire lanean ez dut ikuspegi horretatik erabili, borondate inklusiboarekin baizik. “Herri mugimenduak”, beraz, fikzio soziologikoa da, lan honen testuinguruan mugimendu eta herri antolakuntzaren espresio zabalak biltzea helburu duena: asanbladak, sindikatuak, kolektiboak, afinitate taldeak, koordinadorak, gazte elkarteak, GKE batzuk eta abar luze bat.

Soziologian herri mugimenduez jarduteko paradigma ezberdinak daude, hala nola konpartitutako uste batzuk. Esaterako, ohikoa da 60. hamarkadatik aurrera gertatzen den paradigma aldaketa azaltzeko “herri mugimendu berrien” inguruan jardutea (Melucci 1999; Z. Martínez 2003; Larrinaga Renteria 2018). Ustez, aldaketa horren bidez ikuspegi marxistatik definitzen den klase subjektutik identitate anitzak dituen subjektu politikoetara pasatzen gara, hala nola kezka multzo zabalagora, ekologia edo feminismoaren presentzia indartzen diren heinean. Mugimendu “berri” horiek maiz identitatara bideratutako mugimendu bezala definitu izan dira, eta Marc Edelmanek hiru dimentsio egotzen dizkie: hasteko, nortasun konpartituak, helburu komunak eta elkarren aitortza dituzte; bigarrenaz beren aurkariekin konfrontazio egoeran daude eta, hirugarrenaz, sistema sozialak onargarritzat jotzen duenaz harago doaz sistema bera aldatzeko (Edelman 2001:288, Alga 2018:141en zitatua). Ezaugarri hauek, beste hainbat soziologok egindako kategorizazioak bezala, ontzat eman arren, zalantzan jarri nahi nuke horren erraza denik aldaketa hori une zehatz batean kokatzea (normalean 60. hamarkadan) eta, are gehiago paradigma aldaketa hori erabatekoa izan denik. Euskal Herriko mugimenduen azterketak, esaterako, aldaketa horiek erlatibizatzen narama, hainbat arrazoi medio. Esaterako, 50. hamarkadan indartu zen mugimendu abertzaleak hiru ezaugarri horiek bete-betean betetzen zituela esan dezakegu, eta baita klase soziala subjektu zentralizat duten mugimendu askok existitzen jarraitu dutela 60. hamarkadaz geroztik. Aldi berean, berritzaletzat jotzen diren mugimenduek identitate kolektiboaren erabilera oso ezberdinak egin dituzte, kasuaren arabera sendo edo malguagoak direnak. Adibiderako, mugimendu ekologistaren bueltan sortu daitekeen *ekologista* identitateak duen pisua edo mugimendu abertzaleak sortzen duen *euskaldun* identitateak artikulazio horietan jokatzen duten papera erabat ezberdina da. Bestalde, zalantzan jartzekoa da ere mugimendu *berriek* klasearen zentraltasuna gainditu dutenik, haien diskurtso eta praktiketan oso presente egon delako, forma ezberdinean bada ere. Amaitzeko, laugarren atalean diodan moduan, zalantzarik da mugimendu berriek egiten duten identitate kolektiboaren erabilera klasean oinarritutako mugimenduekiko paradigmarengandik erabat ezberdina dela esatera, klase-mugimenduek ere identitate kolektiboak eraikitzen zituztelako (Taylor eta Whittier 1992).

Mugimendu *berri* bezala izendatu diren horiek (feminismoa, ekologismoa, sexu-askapena eta abar) ibilbide luzeagoa dute kasu askotan, eta haien genealogiak ulertzeko mendeak atzera egin beharko genuke. Hala ere, egia da 60. hamarkadatik aurrera, eta leku ezberdinetan forma partikularra hartuz, mugimenduen antolatzeko moduak, helburuak eta mobilizazio erreperitorioak aldatu direla. Richard Dayk (2016) mugimendu berrien inguruan egiten diren hainbat baieztapenei xehetasunak gehitzeko beharra adierazten du, eta bere ikuspegiak

baliagarriak izan zaizkit. Esaterako, mugimendu *berriek* klasea alboratu eta norbanakoa erdigunean jartzen dutela esan ordez, mugimenduak ez direla *bakarrik* klasean zentratzen dio, beste elementu batzuk *gehitzen* dituztelako. Maila honetan, Taylor eta Whittierrek (1992) bezala, identitatea eta ekonomiaren arteko loturak ezberdin artikulatzen dutela uste du eta ez ekonomia alboratu dutenik. Halaber, mugimendu *berrien* ezaugarritzat jo da borroka sektorialak planteatzea sistema politiko eta ekonomiko osoari eragingo lioketen aldaketen ordez. Dayk ikuspegi hori ere zalantzan jartzen du, feminismoak edo ekologismoak egin dituen analisi antikapitalistak argumentu moduan erabiliz.

Dimitris Papadopoulos (2018) soziologoak mugimendu sozial *berrien* ezaugarri bezala estatuarekiko harremana azpimarratzen du. Bere ustetan, mugimenduok ez dira soilik estatuaren inguruan eta kontra antolatzen eta beren praktikak boterearen eremuan bertan desplazamenduak sortzearekin lotzen dira:

The new social movements were not solely organized around and against the state and its institutions. Rather, subversion is performed by practices that negotiate their embeddedness in existing power under the signature of a posthumanist escape, not under the imperative of inclusion. The meanings of social and human relationality gradually mutate; many social movements of that period escape into novel embodied material practices that put their subjectivities at the forefront of doing politics (Papadopoulos 2018:106).

Lehen esan dudan moduan, kategorizazio denak dira arriskutsuak, mugatzaileak diren heinean. Kasu honetan ere, Euskal Herriko esperientziari begiratuta, zaila da Papadopoulosen baieztapena guztiz ontzat jotzea nahiz eta esaten dituenetako batzuk interesgarriak direla pentsatu. Dayk ere mugimendu *berrien* inguruko ezaugarri hori eztabaidatzen du, estatua erabat hartu edo eraldatzea mugimenduen helburu nagusia ez dela onartzen duen arren, mugimendu askok estatuaren zentraltasuna mantentzen dutela uste duelako. Hegemonia lortzera bideratzen diren mugimenduen kasuan oso argia da baieztapen hau eta, Euskal Herrian, gatazka nazionala medio (baina ez soilik), are argiagoa: mugimendu asko dira haien aldarrikapenak estatuari zuzentzen dizkietenak, edo helburu bezala estatu berria sortzea edo dagoenaren kontrola eskuratzea dutenak. Espainiar estatuaren kasuan ere, 15M mugimenduaren karietara sortu ziren ekimen ugari estatuaren zentraltasuna mantendu dute eta baita lan honen foku nagusia den LGTB* politikek ere. Horrek ez du esan nahi instituzioak direnik mugimendu hauen aldarrikapenen hartzaile bakarrak, talde eta kolektiboek norabide ezberdinetan zabaldu dituztelako beraien indarrak, baina larregizkoa litzateke estatuaren zentraltasuna desagertu dela esatea. Alta, egia da, Papadopoulosen (2018) planteatzen duen moduan, mugimendu *berri* horiek (feminismoa, ekologismoa, LGTB* mugimenduak eta abar) subjektibotasuna, egunerokotasunaren subertsioa eta espazioaren praktika eraldatzaileei garrantzi handia ematen dietela. Kooperatibismoa eta ikuspegi

komunitarioak indartuz, elkarren babeserako politikak artikulatuz edo espazioen bereganatze subertsiboen bidez (okupazioarekin ala bestela), bizitza materialaren unean-uneko eraldaketa proposatzen dute mugimenduok. Maila horretan, eta materialtasunaren irakurketa zabala eginez, Papadopoulosek (2018) dioen moduan, mugimendu horiek sozialak-baino-gehiago dira (“more-than-social movements”).

Soziologo greziarraren zitatik berreskuratu nahiko nukeen beste elementu bat inklusioaren inguruan egiten duen zehaztapena da. Tesi honen laugarren atalean ikusiko dugu inklusioaren eztabaida puri-purian dagoela LGTB* politiketan. Eztabaida horrek bi forma nagusi hartzen ditu: inklusioari buruzko eztabaida teorikoa eta mugimenduen praxiarekin estuki lotzen den instituzionalizazioarena. Baina ez dira LGTB* politikak horren inguruan eztabaidatzen duten lehenak ezta bakarrak ere. Esaterako, mugimendu feministak berdintasunaren ideia kritika teoriko zorrotza egin du eta sistemaren arauak aldatzea planteatu du helburu bezala, ez besterik gabe emakumeak gizonen posiziotara parekatzea. Aldi berean, instituzioekiko harremanak hartu behar duen formak tirabira eta posizio ezberdin ugari sortu ditu mugimenduaren baitan.

Inklusioaren eztabaidari eusteko, Europar testuinguruan bederen, ezinbestekoa da mugimendu sozial “berriak” azaldu aurreko garaian ere erreparatzea. Langile borroken neutralizazioa gero eta gehiago sindikatuarekin egindako negoziazio prozesuen bidez burutu zen XX. mendearen lehen erdian (Mezzadra eta Neumann 2019) eta horrek asimilazioaren bidea ireki zuen, integrazioa estatuak herri mugimenduekin erabili duen estrategia nagusitzat finkatuz. Garrantzitsua da elementu hori kontuan hartzea, bestela estatuaren printzipioekiko asimilazioa, instituzionalizazioa edo administrazioek aldarrikapenak beretzako hartzea mugimendu *berriekin* hasi dela ulertu daitekeelako. Kasurako, estatuaren egiturek feminismoari edo LGTB* politikari sail, ministerio edo institutuen bidez lekua egin izana mugimendu hauen instituzionalizazioaren ikurtzat hartzen da maiz, baina ez da argumentu bera erabiltzen langileen kondizioak negoziatzeko estatuak jartzen dituen baliabideen inguruan (negoziazio mahaiak, hitzarmenak, lanaren ministerioa eta abar).

Ikerketaren analisi ataletan ikusiko dugun moduan instituzionalizazioaren eztabaida ezinbestean konplexua da eta mugimenduen artean instituzionalizatuena zein den arakatzera sinplifikatzeak ez dio mesederik egingo. Horren ordez, eztabaida instituzionalizazioak bakoitzari eta elkarren arteko harremanari nola eragiten dion aztertzean oinarritu beharko litzateke. Mugimenduen jarduna behatuz gero, mugimendu bakoitzaren baitan instituzionalizazioaren inguruan dauden askotariko iritzi, postura eta praktikak aurkituko ditugu, hala nola mugimendu ezberdinen arteko elkarguneak, hain zuzen ere instituzionalizazio eta inklusioaren inguruan duten postura bertsuak izateagatik.

Mugimendu feministan, LGTB* politiketan, mugimendu abertzaleetan edo langile mugimenduetan, denetan daude inklusioaren aldeko politikak egiten dituzten talde eta kolektiboak eta berau zalantzan jartzen dutenak. Are gehiago, talde eta kolektibo bakoitzaren baitan postura ezberdinak eta jarrera kontraesankorrak ere aurkitu ditzakegu, aferaren arabera.

Lan honetan zehar herri mugimenduen inguruan azpimarratu dudan beste ezaugarria beraien lanaren izaera bikoitza da. Joxemi Zumalabe Fundazioan (Joxemi Zumalabe Fundazioa 2011; 2014; 2019) hainbatetan adierazi dugun moduan, mugimenduek ez dituzte soilik aldarrikapen multzoak sortu, zabaldu eta defendatzen. Mugimendu orok eguneroko bizitza eraldatzeko praktika eta estrategiak ditu, nahiz eta mugimenduen arabera elementu horiei garrantzi handiagoa edo txikiagoa eman eta horren inguruan esplizituki hitz egin ala ez. Herri mugimenduek ez dute beren jarduna errealitatearen negoziatziora mugatzen, utopia martxan jartzen dute proposatzen dituzten gizarte eredu berriak esperimentatuz. Horren adibide dira, besteak beste, genero bitarretik kanpo dauden errepresentazioak probatzeko LGTB* mugimenduek sortzen dituzten espazioak, mugimendu feministetan emakumeen arteko bestelako harremanak lantzea, asanblada eta bilkuretan parte-hartze horizontala esperimentatzea edo enplegu-greba batean langileen artean sortzen diren konplizitate eta elkartasuna. Praktika horiek ez dira soilik binarismoari, sexismoari, hierarkiei edo esplotazioari aurre egiteko moduak, bestelako gizarte antolaketa eredu laborategiak dira. Horrela, praktika guzti hauek utopiaren nozioa etorkizunetik orainaldira ekartzeko estrategiak dira (Esteban Muñoz 2009)³⁶ eta boterearen zein ekintza politikoaren ikuspegi berria azaleratzen dute (Papadopoulos 2018:111)³⁷.

36 Jose Esteban Muñozek, Ernst Bloch marxistaren utopiaren nozioa LGTB* politiketan nola aplikatzen duen laugarren kapituluaren “desioa eta politika” azpiatalean (4.5.2) eztabaidatuko dut.

37 Papadopoulosen Walter Benjaminen “gewalt” nozioa dakar eztabaidara, *indarkeria* edo *botere* bezala itzuli daitekeena. Benjaminek bi indarkeria mota ezberdintzen ditu gizarte modernoetan: legea egin edo ezarri nahi duen indarkeria eta legea mantendu nahi duena. Lehena mugimendu iraultzaileekin lotzen da, gizarte-arau berriak ezarri nahi dituzten heinean. Bigarrena arau horiek dauden moduan mantendu nahi dituzten indarrekin, Estatua eta Kapitalarekin. Pentsalari honen kezka da lehenak beti bigarreanean amaitzen duela eta etengabeko zirkulua elikatzen dutela: iraultza egin nahi duenak legeak aldatu eta berriak ezarri nahi ditu baina horren ostean mantendu nahiko ditu, aldatu nahi dituenaren kontrako indarkeria erabiliz. Zirkulu horretatik ateratzeko “gewalt” kontzeptua planteatzen du. “Gewalt” patu argirik ez duen indarkeria/botere mota bat da, ez duena alde aurretik etorkizuneko legea ezartzen, baizik eta zirkulu horretatik kanpo dagoen espazio bat. Bere adibide ezaguna greba da, zeinetan langileek ez duten lege berririk ezartzen baizik legearen zirkulu horretatik at kokatuz, egoera materiala *berez* eraldatzen duten. Ideia honetan herri mugimenduen helburu/jarduera bikoitzaren oihartzuna entzuten dut, bai eta hainbatetan aipatu dudan materialtasuna birdefinitzeko eginbeharrerako klabe bat.

Lanean zehar hainbat alditan azpimarratu dut ideia hau esperimentazio guneen eta gizartearen eraldaketarako ekimen zabalaren arteko tentsioa eztabaidatzeko. Izan ere, mugimenduek bi dimentsio horiek beharrezko dituzte, baina horietako bakoitzak kondizio ezberdinak eskatu eta emaitza ezberdinak eskaintzen ditu: esperimentazio guneek lan handia, denbora eta konfiantza eskatzen dituzte, eta maiz taldea isolamendura eramateko arriskua dute; eraldaketarako praktika zabalago eta parte-hartzaileagoek, aldiz, determinazioa eta negoziazio gaitasun handia eskatzen dute aldi berean, eta aldarrikatzen denaren eta egiten denaren arteko langa handitzeko arriskua dute, mugimenduen izaera bera desitxuratuz (Ibáñez 2017:212-213). Lanean zehar tentsio horren hainbat adibide azaldu dira eta zabalago aztertuko ditut hirugarren eta laugarren kapituluetan.

Laburtuz, mugimenduen dinamiketan dauden aldaketak aztertzea bezain ezinbestekoa izan daiteke aldaketa horiek azaltzerakoan garai historiko ezberdinen arteko aldaketak erabatekotzat ez hartzea. Paradigmak identifikatzea posible den modu berean mugimenduen praktika eta diskurtsoetan espero ez genuen jarraikortasuna, elkarbizitza eta ikuspegi anitzen presentzia aurkituko ditugu. Honela, akademikoki mugimendu zahar eta berrien artean ezberdintzea posible den arren, lan honetan erabili dudana herri mugimenduen kontzeptuak ez du banaketa horretan sakondu nahi. Hori ez egiteko arrazoietakoz batzuk azaldu ditut epigrafe honetan: mugimendu *berrien* ibilbidea oso luzea izanik genealogia zabalagoetan ulertu behar direla, identitate kolektiboaren inguruan egiten duten erabilera ez dela mugimendu *zaharrek* egindakotik hain ezberdina, estatuak erreferentzia puntu izaten jarraitzen duela edo sektorialtzat ulertzen diren borroka horiek ez direla uste bezain partzialak. Arrazoi nagusia, ordea, mugimenduen errealitate eta praktikek akademiak sortzen dituen molde eta kategorizazioak gainditzen dituztela ikustea da, beraien egunerokoan elkartze, artikulazio eta genealogia biziak eraikitzen dituztelako.

1.3.7 IDENTITATE POLITIKAK

Aurrera jarraitu aurretik identitate politiken inguruko ideia gutxi batzuk zirriboratu nahi nituzke. Tesi honen hasierako helburuetako bat gaur egun Euskal Herrian presentzia hartu duen identitate politiken inguruko eztabaidari buruzko berrikuspen teorikoa egitea zen. Identitate politikoen inguruko eztabaidaz ari naizenean berez gai ugari ukitzen dituen ezbaiaz ari naiz. Azken urteetan, bereziki ETAREN desegitetik, herri mugimenduen diskurtsoa ezaugarri ezberdinen arabera artikulatzen ari dela esango nuke. Hainbat talde eta korrontek, bereziki ikuspegi analitiko nagusi edo bakar moduan marxismoa berreskuratzeko ahalegina egiten ari direnek, identitatearen inguruan egiten diren politikak zalantzan jarri dituzte garaiotan, batik bat sare sozialak eta interneteko komunikabide digital aunitz erabiliz. Kritika hauen erdigunean bereziki gaur egungo mugimendu feminista eta bere politikak egon dira eta, era ahulagoan, LGTB* politikak, animalismoa edo euskalgintza. Estatu espainiarrean, gainera, periferiako nazionalismoei eta askapen nazionalaren inguruko borrokei ere egotzi zaie identitate (nazionalen) oinarritzen diren heinean eraldaketa soziala oztopatzea, kontraesan nagusia (klasearena) lausotzen duten heinean. Edozein militante feministarekin hitz egitea aski da eztabaida horiek urrunetik datozela ikusteko: 60 eta 70. hamarkadetatik daude presente lehentasunen edo “kontraesan nagusiaren” inguruko eztabaidak, langile borrokaren sektore batzuen feminismoaren sektore batzuen artean.

Gaur egungo eztabaidak, ordea, berezitasun propioak dituela esango nuke. Hasteko, 60 eta 70. hamarkadako eztabaida horien berri gutxi edo batere izan duten pertsonak abiatu dute eztabaida, batik bat gazte eta ikasle mugimenduen inguruan antolatutakoek. Argumentuetako batzuk antzerakoak izan arren, ezinbestekoa da sektore hauei haien autonomia aitortzea eta, beraz, “berdinaren ilusioa” neutralizatu eta gaur egun eztabaida horrek dituen inplikazioak bere horretan aztertzea eta ez eztabaida zaharren oihartzun gisa. Bigarrenez, kontuan hartu beharrekoa da testuinguru politikoaren eragina: arestian aipatu dudan ETAREN desagertzea eta fase politiko berria ireki eta finkatzea Euskal Herriaren kasuan; 15Mren mobilizazio zikloa eta bere erresoluzioa instituzionalizazio zein baretze diskurtsiboa espainiar estatuan; politika sozialen gainbehera, ongizate estatuaz geratzen zena desmuntatzea, 2008ko finantza-krisiaren ondorioen itzal luzea eta eskuin muturraren gorakada Europan eta mundu mailan. Hirugarrenez, lan honen laugarren kapituluak aktibisten eskutik zabalago eztabaidatuko dudan identitateen faktoria kapitalista kontuan hartu beharrekoa da: kapitalaren metatzea kontsumo-eredu pertsonalizatu eta fragmentatuetan oinarritzen da eta maila horretan kapitalismoak identitatean

desterritorializaten ditu, berauetatik probetxua atera nahian. Zentzu horretan, identitateen inguruan antolatzen diren borroketan ari diren pertsona asko (tesi honen arabera, gehienak) gertakari horren jakitun eta kritikoa dira. Horrek identitate politiken inguruko eztabaida esanguratsua bilakatzen du, kontraesan nagusiaren inguruko askoz harago eramanez. Ez da komeni, beraz, LGTB* politiken edo politika feministen baitan gertatzen diren identitatearen inguruko eztabaidak “komunistak vs. beste denak” gatazkara mugatzea. Gaia askoz konplexuagoa dela esango nuke.

Elementu hauek guztiak kontuan hartzen dituen berrikuspen teorikoa egitea (denbora eta leku faltagatik, nagusiki) ezinezkoa izan den arren, eztabaiden analisiari dedikaturiko kapituluetan gaia oso presente egon da eta, are garrantzitsuagoa dena, ikuspegi praktikotik landu nahi izan dut. Edonola ere, afera horri buruzko burutazio orokorrago batzuk ekarriko ditut epigrafe honetara, hurrengo kapituluetakoz eztabaidak kokatzen lagunduko dutelakoan.

Identitate politiken inguruko aferak harreman estua du 1.3.6 azpiatalean zerrendatu ditudan mugimendu *berrien* inguruko hainbat ideiekin. Azaldu dudan moduan, 60. hamarkadatik aurrera suspertu ziren hainbat mugimenduri identitatean oinarritutako mugimenduen kategoria ezarri zaie. Berriz diot, mugimendu hauetako gehienek berritasuna oso eztabaidagarria da: feminismoaren aztarnak bi mende lehenago (gutxienez) aurkitu daitezke, Frantses Iraultza ostean berdintasuna aldarrikatzen zuten lehen testuetan; mugimendu ekologistaren gorakada XX. mendearen bigarren erdialdean kokatzen badugu ere, mende hasierako naturismoan horren aztarnak topatzea ez da batere zaila. Gauza bera esan dezakegu gerraren aurkako mugimendu antimilitaristei zein desobedientzia zibila praktikatzen zuten eskubide zibilen aldeko ekimenei buruz. LGTB* politikei dagokionean, 1968ko Stonewalleko gertakarien ostean kokatu ohi da mugimendu modernoaren sorrera baina, hori baino lehenago ere, AEBetan zein Europako beste herrialde batzuetan homosexualitatearen estatusaren inguruan neurriak proposatzen ari ziren oraindik “mugimendu homofilo” bezala ezagutzen zirenak³⁸.

38 Mugimendu hauek ez zuten gaur egun LGTB* mugimenduek duten itxuraren antzik. Gehienetan klase ertain-altuko eta heziketa maila altuko gizonak osatzen zituzten elkarte sasi-klandestinoak ziren. Haien jardura nagusien artean homosexualitateari buruzko ikerketak bilatu eta sustatzea zen, eta informazioa zabaldu (gehienetan oso zirkulu itxietan) zein dokumentazio lanak egitea. Talde gehienek diskrezioaren aldeko jarrera argia zuten, kasua homosexualari laguntzeko formarik onena gizartearen aurrean apal jokatu eta itxura ona ematean oinarritua. Mugimenduaren aurreko mugimendu hauei buruz ikus (Cleminson eta García 2003; Cleminson 2007; Duberman 2018).

Lehen ere esan dudan moduan paradigma aldaketak erabatekotzat hartzea akatsa izan arren, mugimenduok identitateari eskaini dioten lekua aztertzea interesgarria izan daiteke. Mugimenduok ordura arte horren presente ez zeuden zapalkuntza batzuk ekarri zituzten lehen lerrora, berauen inguruko kezka biziberritu eta indartuz. Kasu batzuetan, subjektu multzo zehatzek bizi dituzten zapalkuntzak azaleratzeko helburua izan zuten eta, maila horretan, identitateen inguruan bildu ziren: emakumeak, gay, lesbiana eta transexualak, Beltzak... Beste kasu batzuetan ez zen horrela eta, printzipioz, subjektu guztiei eragiten zieten kezkak jarri zituzten mahai gainean, esaterako, mugimendu ekologistak, bakezale-antimilitaristak edo animalistak. Identitate politikez ari garenean, beraz, subjektu talde zehatzen protagonismoa aldarrikatzetik abiatzen den mugimenduen jardunaz ari gara nagusiki. Hala ere, identitate politiken kontra egiten diren kritikek, maiz, mugimenduen subjektuari egindako emendakinekin batera (eta era nahasian) plazaratzen dituzte estrategia edo borroka moldeen inguruko desadostasunak ere.

Talde eta subjektu espezifikoaren egoera salatu nahi duten mugimenduok identitatearen paradoxarekin egiten dute topo etengabe. Marko kontzeptual honen hasieran aipatu dudan moduan, egoera material zehatzek sortzen dituzte identitateok, eta egoera horiei aurre egiteko berauek ontzat jo eta horien inguruan biltzea ezinbesteko estrategia izan daiteke. Pentsa dezagun, kasurako, XX. mendearen bigarren erdialdean emakumeen talde eta kolektibo feministak existitu izan ez balira, zenbat atentzio eskainiko lioketen genero berdintasunaren gaiari gizon zein emakumeak biltzen zituzten mugimenduek. Identitate horien inguruan antolatzean, berauek indartu eta haien presentzia diskurtsiboa handituz doa eta, kasu askotan eta zoritxarrez, naturalizatu ere egiten dira identitateok. Baina egoera sozialak eraldatzeko ezinbestekoak diren kategoria horiek lehendik ere naturalizatuak eta esentzializatuak zeuden. Foucaulten teoriak (2012) ondo azaltzen duten moduan, gizarte modernoek bizitza kontrolatu eta gizakien askatasuna baliatu dute gobernantza forma berriak ezartzeko eta, helburu hori bete ahal izateko, katalogazioa eta subjektibotasunen ekoizpena ezinbestekoa izan dituzte. Identitate politiken inguruan egin beharreko lehen zehaztapena, beraz, hori da: ez dira mugimendu horiek nortasun horiek sortu dituztenak, baizik eta nortasun horiek ikuspegi askatzaile eta berdinaletik erabili dituztenak. XVIII.ean hasi eta XIX. eta XX. mendeetan Europa osoan gizarteak gobernatzeko moduetan gertatzen diren aldaketen ondorio da identitate horiek esentzial eta norbanakoaren atributu naturalizat hartzea.

Diferentzia horien esentzializazioa mugimenduen bizkarrean ez jartzeak ez du esan nahi, ordea, mugimenduek jokatzeko duten papera aztertu behar ez denik. Taldeen politikak identitateetan oinarritzearen kontra azaldu dira hainbat pentsalari eta aktibista, tesi honen elkarrizketetan ere, baina identitate politikak kritikatzeko moduak eta ikuspegiak anitzegiak dira alde/kontra bikoan laburtzeko. 90. hamarkadaren erditik aurrera, AEBetan sortu eta hedatu zen *queer* ikuspegiak, adibiderako, feminismoa zis emakumeen esperientzian eta LGTB* politikak gay, lesbiana eta transexual nortasun finko eta higiezinetan oinarritzea kritikatu zuen (De Lauretis 1986; Butler 2001; Romero Bachiller, García Dauder, eta

Bargueiras Martínez 2005; Gil 2011). Ikuspegi horretatik sortu ziren politikak, ordea, identitario bilakatu ziren askoren ustetan, berez mugatua zen LGTB* subjektua, queer subjektu abstraktu eta intelektualizatuagatik aldatzean, are gehiago mugatu zelako. Beste batzuek, emakumeen edo LGTB* pertsonen errealitateak kontuan hartu beharrekoak direla uste arren, arazo nagusia klase sozialean dagoela argudiatu dute identitate politikak kritikatzeko. Ikuspegi horretatik, kapitalismoak diferentzien ekoizpenean duen papera lausotzen ari da, eta klase borroka ahultzen duten borroka partzialek efektu negatiboak dituzte. Ikuspegi horietan guztietan arakatu beharko lituzkete herri mugimendu *guztiek* subjektibotasunaren eta identitatearen eztabaidan ikuspegi askatzailetik lagungarriak izan daitezkeen klabeak. Eta mugimendu *guztiek* diot, lehenago ere esan dudan moduan denek, era batean edo bestean, subjektibitatearen artikulazio bat proposatzen dutelako: mugimendu denen atzean dago identitate kolektiboaren eraikuntza bat, partziala, lausoa edo behin-behinekoa den arren. Esaterako, 60. hamarkadetako langileen borroka aztertzen baditugu, lan industrialaren inguruan eraikitako borroka subjektu maskulinizatu eta gehienetan zuria aurkituko dugu³⁹. Are gehiago, oso gutxira arte, zerbitzuen sektoreak, gurean industriak bezainbesteko garrantzia izan arren, ez du langile borroken iruditegian leku ikusgarririk izan. Borroka horiek denak, asmo unibertsala izan dute ustez (jende guztiaren egoera soziala aldatzea), baina subjektu kolektibo oso partikularra sortu dute eta horren ezaugarritzearen araberakoa da ere gatazka horiekiko gizarte-atxikimendua.

Wendy Brownek (1995) identitate politikak *aldi berean* liberalismoaren ondorio eta horiei erantzuna direla uste du. Paradoxikoki, Estatu liberalek historikoki baztertu dituzten subjektuak integratzeko ahaleginak egiten dituzten unean, subjektu horiek beraien diferentzia azpimarratu eta inklusioari uko egiten diote:

(..) in the very moment when modern liberal states fully realize their secularism (as Marx put it in "On the Jewish Question"), just as the mantle of abstract personhood is formally tendered to a whole panoply of those historically excluded from it by humanism's privileging of a single race, gender, and organization of sexuality, the marginalized reject the rubric of humanist inclusion and turn, at least in part, against its very premises. Refusing to be neutralized, to render the differences inconsequential, to be depoliticized as "lifestyles," "diversity," or "persons like any other," we have lately reformulated our historical exclusion as a matter of historically produced and politically rich alterity (...) Just when polite liberal (not to mention correct leftist) discourse ceased speaking of us as dykes, faggots, colored girls, or natives, we began speaking of ourselves this way (Brown 1995:53).

39 Honen erretratu paregabe dira, adibiderako, Nanni Balestriniren nobelak (2006; 2007).

Diferentziaren gaia agertzen da berriro Brownen planteamenduan. Bere ikuspegitik, paradoxikoa den arren, diferentziak normalizazio eta pribatizazioari balazta jartzen dio, baztertuak izan diren hainbatek beren diferentzia bizi-estilo edo aniztasun huts bezala onartua izateari uko egiten diotenean. Aitzitik, Brownek ez du diferentziaren potentzial horren defentsa hutsa egiten, ezta are gutxiago ere. Bere “States if injury” (1995) identitatearen politiken muga eta gehiegikeriak pentsatzeko tresna da, baina bere ikuspegia bereziki interesgarria da, hain zuzen ere, identitate eta diferentzia ez dituelako *soilik* arazotsu moduan ikusten eta, beraz, identitate politiken ilun eta argiak kontuan hartzen dituelako. Borroka sozialetan mobilizatzen diren identitateak itsaskorrak direla uste du eta, horren kariatara, laugarren kapituluan zabalago azalduko dudan ahanzturaren ideia planteatzen du: babes sareak zein aldarrikapen sozialak lortzeko beharrezkoak diren identitateok uneren batean “ahaztu” egin behar ditugu, beraiengandik askatzea ezinezkoa bilakatu ez dadin. Borroka-subjektu bilakatzeko nolabaiteko identifikazioa ezinbestekoa izan daiteke. Gay edo lesbiana, trans*, emakume, marika, bollera, disidente sexual, langile, prekario... denak izan daitezke kategoria horiek sortu dituen sistema iraultzeko tresnak, komunitate disidenteak eta borrokarako subjektu kolektiboak eraikitzen dituzten heinean. Baina identitate guzti horiek sortu dituen sistemaren arau eta egiteko moduak haiekin daramatzate eta, beraz, uneren batean atzean utzi behar dira gizarte-eredu berriak martxan jarri nahi badira.

Marc Augé antropologoak, bere lan etnografikoan jasotako erritualetatik abiatuz, hiru ahanztura mota katalogatzen ditu “Las formas del olvido” (1998) lanean. Lehena *itzulera* da. Itzuleraren helburua iragana berreskuratzea da eta bere erritual enblematikoa posesioarena da, zeinetan hildako izpiritu batek tribuko subjektu bat “hartzen” duen. Erritual horren bidez orainaldia eta berehalako iragana ahaztu egiten dira, izan ere, denbora horietan iraganeko izpiritu hori jada ez dago presente eta bera “bueltan” ekartzeak oraina zalantzan jartzea dakar. Ahanzturaren bigarren forma *suspentsoa* da. Bere helburua orainaldia berreskuratzea da, horretarako iragana zein etorkizuna ahaztuz. Erritual tipikoak iterregnokoak edo salbuespenezko jaiak izaten dira. Esaterako, antzeztea inplikatzan duten hainbat ospakizunetan (egun berezietan edo ihauterietan) subjektuek beren kokapen soziala, iraganekoa zein etorkizunean egokitzen zaiena, alhora uzten dute eta, salbuespenez, kokapen berriak performatzen dituzte. Hirugarren ahanztura moldea *berriz hastea* da. Forma horren helburua etorkizuna berreskuratzea (etorkizun posible berriak irekitzea) da eta, logikoa den bezala, iraganaren ahanztura eskatzen du. Sarbidearena bere erritual enblematikoa da, zeinetan subjektua izan dena atzean utzi eta beste zerbait izateko prestatzen den. Ahanzturaren forma hauek denek, Augéren ustez, pertsonala eta kolektiboaren arteko muga urratzen dute, ezin direlako bakarka performatu, baina aldi berean subjektua erabat eraldatzeko gaitasuna dutelako. Ezinbestean ahanztura mota kolektiboak dira, beraz.

Herri mugimenduen ikuspegitik ahanztura praktikatzea ezinbestekoa izan daiteke eta, Augéren eskema jarraituz, ahanzte horiek denak elkarren artean osagarriak izan daitezkeela pentsatzeak klabe interesgarria eman dezake. Mugimenduek, iragana egunera ekartzearen bidez, *itzulera* praktikatzen dute. Esate baterako, LGTB* politikentzat oso garrantzitsua den Ekainak 28ko manifestazioak 1969ko Stonewalleko istiluak dakartza gogora. Lan honen laugarren kapituluan ikusiko dugun moduan, gogora ekartze hori ez da soilik memoria historikoaren berreskuratze ariketa bat: mugimenduek haien oraina ahazteko ariketa egiten dute ere, iraganeko borroka moduak eta praktika subertsiboak gogoratzen direnean egungo praktikak zalantzan jartzen direlako. Garai horretan LGTB* politikak zituzten ezaugarri erradikaletako batzuk egungo politiken instituzionalizazioa edo erradikaltasun falta zalantzan jartzeko baliatzen dituzte aktibistek.

Suspentsoa presente dago mugimenduen praktika ugaritan ere. Hirugarren kapituluan ikusiko dugun moduan, mugimenduek komunitateak sortu eta indartzen dituzte eta horretarako beharrezkoak dituzte ere iragana zein etorkizuna zalantzan jarriz (ahaztuz) komunitate eta subjektuok indartzen dituzten salbuespeneko espazio eta uneak. Adibide berdinari jarraituz, ekainak 28ko manifestazioek funtzio hori betetzen dute: bazterkeria eta homofobiaren iraganaz ahaztu eta esleitutako etorkizuna (hetero-araua betetzea) erditik kentzeko uneak dira. Manifestazioetan maiz erabiltzen diren jantzi, koreografia, performance eta jarrerek salbuespen une hori identitateen baieztapen moduan erabiltzen laguntzen dute.

Berriz hastea izan daiteke herri mugimenduen gutxien praktikatzen duten eta Brownek (1995) aipatzen zuen behar horrekin gehien lotzen den ahanztura forma. Suspentsoarekin identitateak indartzen diren moduan, mugimenduek erritual berriak asmatu behar dituzte identitateok ahaztea posible izan dadin. Nola utzi iragana atzean bestelako etorkizunei atea irekitzeko? Hein batean diferentziaren eztabaidak Irigaray (2009) edo Braidottiren (1986; 2004) lanean generoari dagokionean hartu duen forma bera du galdera honek. Mobilizaziorako kategoriak zapalkuntza sistemak sortu badituzte, haietan betirako ez geratzeko forma bakarra nortasun berri baterako sarbide-erritualak pentsatzea ezinbestekoa da. Dirudienez, mugimenduek kategoria hauetatik kanpo pentsatzeko darabiltzaten tresnak artea eta esperimentazioa dira (Braidotti 2018). Artearen eta herri mugimenduek eskaini ditzaketen intimitate erradikalerako (ikus hirugarren atala) espazioen bidez mugimenduetara malgutasun identitario forman itzul daitezkeen subjektibitate berriak elikatzen dira. Ondorioz, subjektibitateak etengabe eraldatzen direnez, birformulazio hauek ere amaitu ezineko eginbeharra dira eta, zentzu horretan etorkizunaren ikuspegi utopiko eta presentea planteatzen dute aldi berean. Ahanzturaren utopia ez da ametsezko etorkizun batera heltzeko ahalegina, orainean bestelako etorkizunak ireki ahal izatearen ariketa baizik (Estepan Muñoz 2009).

Subjektu politikoeak harreman konplexua dute memoria eta ahanzturarekin. Orainaldian soilik zentratzeak estrategia posibilistetara eraman ditzake, iraganean posible izan diren praktika subertsiboak berreskuratzea ekidinez. Iraganari larregi erreparatzeak nostalgiara eta zapalkuntzak sortu dituen kategoriak naturalizat hartuz betirako finkatzera eraman dezake. Etorkizun berriak irudikatzea ezinbesteko lana bilakatzen da. Identitate politiken inguruko eztabaida beharrezkoa bezain konplexua da, eta bere dimentsio guztiak sinplifikatu nahi izateak ez du lagunduko. Joshua Gamsonnek dio:

¿Para quién, cuando y de qué manera son las identidades colectivas estables *necesarias* para la acción y el cambio social? ¿Existen movimientos identitarios que, de hecho, eviten la tendencia a automarginarse? (...) En el centro del dilema se halla la coexistencia de fuentes culturales de opresión (que hacen de la disolución de las categorías una estrategia inteligente) y fuentes institucionales de opresión (que hacen de la rigidez de las categorías una estrategia inteligente). ¿Hay movimientos o repertorios de movimientos que sean capaces de trabajar con, en lugar de contra, la simultaneidad de estos sistemas de opresión? (Gamson 2002:166).

Gamsonnek egiten duen sailkapenari zehaztapenak egitea lagungarri izan daiteke. Afera ez da soilik sexualitate eta genero bizinortasunen inguruan antolatzen diren zapalkuntzek dimentsio horiek izatea, dimentsio horiek nola artikulatzen diren kritikoki pentsatu beharra dago ere. Tesian zehar ikusiko dugun moduan, LGTB* ekintzaileek identitatean oinarritutako politikak zalantzan jartzeko beharra ikusten dute, hain zuzen ere LGTB* esperientzia identitate kulturalean bezainbeste ekonomian eta politikan errotzen delako. Maila horretan, sexualitate eta genero bizinortasunen aferak esparru kultural, ekonomiko edo politikora murriztu nahi izateak identitateen inguruko eztabaida buxatu besterik ez du egingo, esfera horien arteko konexioak baitira aztertu beharrekoak.

1.3.8 INTERSEKZIONALITATEA

Identitatearen inguruan antolatzen diren politikek mugimenduetan zein akademian sortu duten besteko eztabaida sortu du interseksionalitateak. Itziar Gandariasek (2017) azaltzen duen moduan, terminoak banaketa sortu du: batzuentzat feminismoak azken urteotan egindako ekarpen teoriko garrantzitsuenetakoa da eta, besteen ustez, argitasun eta aplikagarritasun urriko neologismo bat besterik ez. Marko kontzeptual honen ikuspegitik, interseksionalitatea zer den azaltzea larregizko lana litzateke eta, beraz, kontzeptuari buruzko berrikuspen teoriko zabala egin ordez berau erabiltzeko moduari erreparatuko diot. Terminoa itzultzerako orduan, Gandariasek dioen moduan batzuek “elkargunea” hitza proposatu dute. Aitzitik, epigrafean (eta lan osoan zehar) ez dut elkargune hitza erabiliko eta *interseksionalitatea* mantenduko dut. Horretarako arrazoi nagusia lanean zehar elkargune hitzak duen bestelako zentzua da: elkargunetzat hartu ditut, esaterako, herri mugimendu ezberdinek koordinaziorako erabiltzen dituzten guneak, LGTB* subjektuak elkartzeko baliatzen dituzten hiri eta auzoetako guneak edo kolektiboek subjektu ezberdinak batzeko egituratzen duten aukera. Maila horretan, interseksionalitatea ere metafora geografikoa izan arren, elkarguneak lan honetan hartzen duen zentzua *esplicituki* geografikoa edo, zentzu zabalagoan, espazio sozialarena da eta, berehala azalduko dudan moduan, interseksionalitatea, aitzitik, analisirako markoa izan da.

Interseksionalitateaz aritzerako orduan lehen lana bere izaera definitzea da. Lucas Platerok oso sinpleki baina, aldi berean, era efektiboan azaldu du: *“interseksionalitatea nola aplikatzen den sinpleki azaldu nahiko bagenu, botere harremanak eta pribilegioak agerian uzten laguntzen digun begirada bat dela esango genuke”* (2012:30). Bere ikuspegitik interseksionalitatea *aplikatu* egin daitekeen zerbait da eta *begirada* bat da, errealitatea ulertzeko modu bat. Autore berak metodologia bat ere baden eztabaidatu izan du (Mendia Azkue eta beste 2015), begirada bat den heinean ikerketarako tresna ere izan daitekeela argudiatuz. Mugimenduen ikuspegitik, orduan, interseksionalitatea diagnostiko egokiak eta errealitatearen irakurketa balekoak egiten lagunduko liguke. Begirada bat dela ontzat ematen dudan neurri berean, metodologia bat denik zalantzan jartzen dut eta bat egiten dut Maria

Rodó de Zaraterekin (2012:195) interseksionalitatea metodologia bat baino ikerketan metodo eta teknika ezberdinek erabili dezaketan markoa dela dioenean⁴⁰. Autore katalanak dioen moduan, interseksionalitatearen balioetako bat esperientzia erdigunean jartzea da eta, ondorioz, esperientzia aztertu nahi duenak halaberrez ikuspegi interseksionala ezinbestekoa du.

Interseksionalitatea, kontzeptu bezala, akademian baino mugimenduetan sortu zen, praktika politikoaren esparruan. Bere garapena akademikoa izan da kaletarra bezainbeste, Teresa De Lauretisek (2000) dioen moduan feminismoaren bi aldeok, teoria eta aktibismoa, ezinbestean loturik doazelako. Akademia ez da feminismoaren sormen teoriko guztiaren iturri, mugimenduak beste hainbat esparru erabiltzen dituelako teorizaziorako, baina ekarpen handia egiten duela ezin ukatu. Jatorriz, beraz, terminoa AEBetako mugimendu Beltzean eta feministan sortu zen, Combahee River Collective taldearen eskutik, emakume, beltz eta lesbiana izateagatik bizi zuten esperientzia politikoki artikulatzeko asmoz. Beste pentsalari eta mugimendu batzuek zapalkuntza bikoitza edo hirukoitza aipatzen zuten, baina ikuspegi interseksionalak ez ditu zapalkuntzak besterik gabe batu nahi, botere ardatz ezberdinek elkarri eragiteko duten moduari ere erreparatu nahi dio.

Leslie McCallek (2005) interseksionalitatea ikerketan aplikatzeko hiru forma aipatzen ditu. Lehena, *konplexutasun antikategorikoa* da eta kategoria analitikoak deseraikitzea du helburu. Bigarrena *konplexutasun intrakategorikoa* litzateke, zeinetan kategoria analitikoak (generoa, sexualitatea, klasea eta abar) ontzat jotzen diren eta fokua berariazko taldeek bizi duten egoeran jartzen den. Interseksionalitatea aplikatzeko bigarren mota hau ezaguna egiten zaigu aplikazio akademiko handia duelako. Emakume migranteen, kartzelan dauden langile klaseko emakumeen, trans* diren errefuxiatuen edo gizon gay ijitoen egoera soziala eta bizipenak aztertzen dituzten ikerketa gehienek ikuspegi hori baliatzen dute. McCallek proposatzen duen hirugarren gerturatzea *konplexutasun interkategorikoa* da, aurreko bien artean kokatzen den ikuspegia: analisirako kategoriak behin-behinekoan onartzen ditu, nahiz eta foku berezia jartzen duen kategoria horiek deseraikitzean ere. Bere abiapuntua “*jadantik eratuta dauden talde sozialen arteko ezberdinkeria dagoela*” da, eta “*inperfektuak eta*

⁴⁰ Jakitun naiz interseksionalitatea ikuspegi zabalago batetik aplikatzen dela: politika publikoak ikuspegi interseksionalietik antolatzeke ahaleginak egiten dira, elkargune politiko interseksionalak egiteko proposamenak sortzen dira eta, ikuspegi teoriko-ideologikotik ere feminismo interseksionala defendatzen da, besteak beste. Lan honetan jotzen dudan paperari begira aipatzen dut interseksionalitatea begirada bat edo marko bat bezala tratatu dudala.

aldakorrak izan arren harreman horiek ikerketaren erdigunean” egon behar direla (Op. Cit:1786-1787). Alegia, lan honetan hainbatetan aipatu dudan moduan, kategoria eta identitate sozialak eraikiak izateak ez die errealitatean eragiteko gaitasunik kentzen, fikzio politikoak direlako. Espresio honen bi aldeak kontuan hartu nahi ditu ikuspegi intrakategorikoak: fikzioa eta politikoa. Baina zertan datza kategorien erabilera estrategikoa?

Whereas the intracategorical approach begins with a unified intersectional core – a single social group, event, or concept – and works its way outward to analytically unravel one by one the influences of gender, race, class and so on, the [inter]categorical approach begins with an analysis of the elements first because each of these is a sizable project in its own right (McCall 2005:1787).

Kategoria zehatz batzuen bidez aldeaz aurretik definitutako talde sozial bat aztertzeetik abiatu ordez, egoera zehatz batean jokoan dauden kategoriak definitzea da lehen egin beharra eta, zentzu horretan, *“aldeaz aurretik existitzen den subjektu hegemoniko baten naturalizazioa zalantzan jartzen da”* (Platero 2012:30). Metodologia atalean azaldu dudana ikerketa inductiboaren printzipio batzuekin ondo ezkontzen da ikuspegi hau, egoera baten azterketatik abiatzen delako aurrez finkatutako kategoria batzuetatik baino.

Azterlan hau egiterakoan interseksionalitateari buruz McCallek planteatzen duen begirada interkategorikoa baliatu dut. Ikerketa *egoera*⁴¹ batetik abiatzen saiatu naiz eta, abiapuntu bezala, kategoria analitiko bi erabili ditut (sexualitate eta genero biziortasuna), jada esan dudana bezala elkar eraiki zein deseraikitzen dutenak. Berriz diot kategoria konplexu eta fikziozkoa dela: konplexua analisiari dedikatutako kapituluetan ikusiko dugun moduan azpi-kategoria ugari biltzen dituelako hasieratik bertatik LGTB* akronimoak; fikziozkoa ikerketarako ezinbestekoa izan dudana batasuna ikerketak berak eman diolako. Hirugarren kapituluaren gaia mugatzeko erabili dudana beste aldagaia, herri mugimenduetan parte-hartzea, ez dut kategoria gisa erabili, izan ere interseksionalitateaz ari garenean botere-harremanekin lotura duten kategoriez ari gara eta herri mugimenduetan parte hartzea botere faktore askoren pean egon daitekeen arren, ez da berez botere-kategoria bat, egoera bat baizik. Egoera horretan dauden esperientziaren azterketan esanguratsuak izan daitezkeen beste kategoria batzuk agertu dira eta sexualitatearekiko eta genero biziortasunarekiko duten harremana aztertzei aukera eskaini didate.

41 Metodologia atalean azalduko dudana “situational analysis” metodologiaren “situation” hitzari egiten dio hemen erreferentzia “egoera” hitzak.

Rodó de Zaratek, berriz ere ikerketaren ikuspegitik, begirada interseksionalak faktore bakarreko analisiak, alegia, generoa, arraza edo klasea soilik kontuan harturik egiten diren ikerketak, zalantzan jartzen dituela dio. Aitzitik, ikerlari katalanak argi du analisi horiek zalantzan jartzeak ez dakarrela guztiz baliogabetzea: beraien aplikazio unibertsala da auzian jartzen dena (Rodó-de-Zárate 2012:195). Beste era batera esanda, zapalkuntza-faktore ezberdinak kontuan hartzen dituen ikerketa mugatuagoa da begirada interseksionala duena baino. Ikerketa honetan sexualitateaz eta genero biziortasunaz gain azaleratu diren aldagai guztiek ez dute pisu berbera, egoera batzuk azaltzeko haietako batzuk beste batzuek baino gaitasun handiagoa adierazi dute. Areago, uste dut ezin direla nahastu analisi soziologikoa egiterakoan egoera zehatzak azaltzeko aldagai batek edo besteak duen gaitasuna eta botere-harreman horrek pertsona horien bizitzetan izan dezakeen eragina. Ikerketan, esaterako, klasearen pisua nahiko erlatiboa izan da. Hirugarren kapituluko elkarrizketetan parte hartu duten gehienek klase-jatorri antzerakoa izan dute eta, ez denean horrela izan, berehala azaleratu da klasearen garrantzia. Horrek ez du esan nahi klaseak ez dituela subjektu horiek denek sexualitate edo genero biziortasunarekiko dituzten jarrera eta bizipenak baldintzatu, baizik eta herri mugimenduen esparruan batik bat klase baxu-ertaineko jendea biltzen den heinean, elkarrizketa-multzo horretan eragin hori, konparatiboki, gutxiago azalerraten dela.

Era berean, berarekin erabat ados egon gabe, Holly Lewis (2016) interseksionalitateari egiten dion kritika kontuan hartu beharrekoa dela uste dut. Bere ustez interseksionalitatearen paradigmeak eta Foucaulten ikuspegiak boterearen erlatibizazioa ekarri dute: boterea ez badago inon, mugikorra bada eta gainera lerro ezberdinen arteko gurutzaketa baldin bada, zaila da lerro horien jatorria identifikatzea. Marxista sutsua den heinean, berak argi du botere-lerro guzti horiek (generoa, arraza, sexualitatea eta abar) gizartearen antolaketa ekonomikoaren ondorio direla, sistema kapitalistak mozkinak sortzeko eta ekonomia antolatzeko behar dituen kategorizazioak. Ikuspegia mugatu xamarra iruditzen zaidan arren (ez dut uste botere zapalkuntza *guztiak* ekonomiak azaldu ditzakeenik) deigarria iruditzen zait bere planteamendua boterea birpentsatzeko akuilu bezala. Boterea korapilo bat bezala irudikatzeak (Platero 2012) ez lituzke lerro nahasi horiek sortu eta mantentzen dituzten egiturak erabat ikusezin bilakatu beharko.

Horregatik, lanean zehar hainbat aldiz tematu naiz botere egiturak sasi-iraunkorrak direla esaten, aldakorrak izan arren ez direla erlatiboak ez eta egun batetik bestera aldatzeko modukoak. Hori dela-eta, norbanako zehatzen behaketan ikusi ditzakegun botere egituren eraginaren aldaera, erlatibizazio eta konfigurazio partikularrek, boterea hobeto ulertzen lagundu arren, ez dituzte egituren eta instituzio sozialen eragina desagerrarazten. Hala,

Lewisen analisia lar teleologikoa iruditzen zaidan arren, bat egiten dut berarekin kontrako analisia arriskutsua dela dioenean: zapalkuntzek ez badute haien arteko logikarik eta ezin baditugu irakurketa global batean kokatu, boterearen inguruko analisi kritikoa izan nahi duena erraz humanismo erlatibista bilakatu daiteke eta, maiz, interseksionalitatearen aplikazio eskasen iturri izan ere⁴².

Laburtuz, lan honetan begirada interseksionala aplikatzen saiatu naiz, ikuspegi analitikotik eta Leslie McCallen kategorizazioari jarraituz, konplexutasunaren perspektiba interkategorikotik. Alegia, elkarrizketetan parte hartu duten talde eta subjektuak alde aurretik funtzionalak diren kategoria sozialetan kokatuta daudela onartu dut, baina uneoro kategoria horiek naturalizat ez hartzeko ahalegina egin dut. Interseksionalitateak, boterearen inguruko teoria edo begirada gisa, ekarri ditzakeen aurkikuntza eta aukerak aprobeztatzen saiatu naiz baina ez dut horregatik boterearen begirada erlatibista aplikatu, hain zuzen ere interseksionalitateak erlatibismoarekin zerikusirik ez duela uste dudalako, nahiz eta bere ekarpenak gaizki erabiliz gero horretan amaitu dezakeen. Edonola ere, botere harremanek eguneroko interakzioan izan ditzaketen forma ugarietarako egiturazko begirada jartzea ezinbestekotzat dut eta, horretan, bat egiten dut laugarren kapituluaren hainbat aktibista eta kolektibok azaldu duten kezkekin.

42 Adibide bat jartzeko, Bartzelonan, kongresu batean, ikerlari bati entzun nion GKE baterako enplegatu baten aukeraketa prozesuan hautagaietako baten azalaren koloreak (beltza zen) bere alde egiten zuela kontra baino, testuinguru zehatz horretan, ikuspegi interseksionaletik, bere klase-jatorria konpentsatzen zuelako. Alegia, bere klase-jatorriagatik (eta horren ondorioz jasotako hezkuntza formal baxuagatik) ez zen hautagai ona lanerako baina bere azalak lagundu egiten zuen GKEko arduradunei ondo zetorkielako pertsona beltz bat izatea lanean beren erabiltzaileekin lana errazteko. Egoera hau horrela planteatzea, nire ustez, interseksionalaren irakurketa okerra egitea da. Beltza izateagatik ez du egoera pribilegiatua bizi, bere enplegu hori lortzeko dituen aukerak oso partikularrak eta ia-ia karitatezkoak direlako. Aldi berean, bere klase-kokapenaren ondorioak ez dira arintzen, egoera salbuespen bat delako eta, gainera, lan-merkatuen gora-beheren menpe egoteaz gain GKEko zuzendaritza (txuria)ren asmo onen esku dagoelako bere enplegua.

1.3.9 HOMONORMATIBITATEA⁴³

Homonormatibitatea ingelesetik jasotako terminoa da, herrialde anglosaxoietan garatu zen “homonormativity” kontzeptuaren itzulpena. Kontzeptu hau hainbat ekintzaile eta teorilariak sortu zuten LGTB* komunitatean gertatzen den balore, bizi-eredu eta iruditegi heterosexuaren asimilazioa salatzeke. Homonormatibitateak nortasun eta portaera eredu zehatzen inposatzea salatu nahi du, alegia, mekanismo sozial ezberdinen bidez sortzen den homogeneizazio eta berdintze prozesua, eredu bat ontzat eman eta horri egokitzen ez zaizkion subjektuak baztertzen dituena. Eredu bakarraren ideia horren lehen efektua LGTB* komunitate barruan zein kanpoan indarkeria mota berriak sorrarazi ditzakeen mailaketa sortzea da.

Kontzeptua integrazio eta normalizazio prozesuekin lotuta dago. Adibidez, estatu espainiarrean sexu bereko pertsonen arteko ezkontza onartzen duen 13/2005 legeak homonormatibitatearen inguruko eztabaida piztu zuen. LGTB* talde gehienek neurria txalotu eta eskertu arren, beste talde eta norbanako batzuek legearen alde iluna adierazi zuten: familiaren egitura heterosexuala indartzen zuen legeak, oinordekotza, filiazio eta monogamia reifikatuz. Talde hauentzat legea arazotsua zen ez bakarrik bere edukiagatik, baizik eta LGTB* komunitate barruan horren eskaera artikulatu zen moduagatik. Jadanik hetero-arauaren estandarretara gehien gerturatzen ziren pertsonak (itxura errespetagarria zuten klase ertaineko gay eta lesbianak) ziren legearen babes gehien probestuko zutenak, eta horiek izan ziren LGTB* taldeen agendetan ezkontza lehen leerroan jarri zutenak, komunitateko beste kide batzuen beharren gainetik. Tesi honetako hainbat elkarrizketatuk gogora ekarri duten moduan, sexu bereko bikoteen ezkontzak, gainera, genero adierazpen eta bizi-nortasunaren arabera mailaketa ere ekarri zuen: gizarteak gay eta lesbianen arteko ezkontzak onartu zituzan burututako kanpainak bereziki gay gizonak izan zituzten protagonistatzat eta gizon horiek genero adierazpen arautua (maskulinoa) gorpuzten zuten. LGTB* komunitateetan lehenik ere bazegoen lumarekiko eta genero adierazpen femeninoarekiko mespretxua areagotzen dituzte horrelako jokaerek (Jordan Arrieta 2014).

43 Aurretik aipatu dudan moduan, homonormatibitatea eta homonazionalismoa azpiatalak “Barbarismos queer” (Platero, Rosón, eta Ortega Arjonilla 2017) liburuan egin nituen bi ekarpenen berridazketak dira. Homonormatibitatea lantzeko Enrique Latorre Ruizen laguntza izan nuen. Eskerrik beroenak berari eta edizio lan bikaina egin zuten Lucas Platero, Maria Rosón eta Esther Ortigari.

Teorilari eta ekintzaile ugari, hirugarren eta laugarren kapituluetakoen elkarriketatuek barne, homonormatibitatea eraikitzen laguntzen duen balore-sortaren inguruko kezka azaldu dute. Horien artean daude LGTB* komunitateen despolitizazioa, sexualitatea espazio pribatura mugatzea, monogamia, zurtasuna, klasismoa, edertasun kanon estandarrek, gaitasun eta adinean oinarritutako onarpena edo genero bitarraren indartzea. Ikuspegi horretatik homonormatibitatea LGTB* komunitate barruan gertatzen den balore eta bizi-estiloen arteko talka bezala ikusia izan da maiz. Begirada hori zalantzan jarriz, Holly Lewisek (2016) homonormatibitatearen nozioak fondoko beste kontu batzuk ezkututzen dituela uste du, nagusiki klasearen egitura ekonomiko eta soziala eta LGTB* komunitateei eragiten dien modua. Bere ustez, LGTB* integrazioa bizi-estiloen ikuspegitik kritikatzeko duten gehienak maila ekonomiko altua duten akademikoak dira, eta ez dute kontuan hartzen, esaterako, langile klaseko LGTB* pertsona askorentzat ezkontzaren legea ez dela izan beraien bizi-estiloa arautzeko mekanismo hutsa, beraien ekonomia familiarra hobetzeko parada baizik, enplegu-bajak edo laguntza ekonomikoak eskatzeko aukerak hobetu dizkielako. Lewisen kritika pertinentea iruditzen zait, LGTB* integrazioaren kontra erabiltzen diren argudioetako askok errealitate materialekiko ezikusia egiten dutelako, bizi-estilo alternatibo eta estetiki erradikalen aldarrikapen hutsa bilakatuz. Azken finean, nork sostenga dezake gizartean nagusi diren balio denak zalantzan jartzen dituen bizi-estilo bat? Aitzitik, Lewisen planteamendua oso mugatzailea dela uste dut, ez dituelako nire ustez garrantzitsuak diren bi osagai kontuan hartzen. Alde batetik, sexualitateari buruzko baloreak (familia, monogamia, oinordekotza) klase ikuspegitik ere eraikiak direla eta, beraz, balore horiek zalantzan jartzeak mendebaldeko egitura ekonomikoak ikuspegi antikapitalistatik higitzeko aukera eskaini dezakeela. Bestetik, ez dela egokia kritika homonormatiboa egiten duten subjektu denak akademiko pribilegiatutzat jotzea, langile klaseko hainbat gay, lesbiana eta (bereiziki) trans* pertsonen ere kritika horiekin bat egiten duten heinean. Gainera, kritika horiek bere egiten dituzten klase xumeko talde eta aktibistek normatibitatearen inguruan dituzten kezkek klase altuko akademikoaren usteak itsuki jarraitzearen ondorio direla esatea are okerragoa litzateke. Hortaz, onartu beharrekoa da langile klaseko LGTB* pertsonen beren esperientzia eta arrazoi propioetatik abiatuz egiten diotela kritika normatibotasun homosexualari.

Homonormatibitate kontzeptuaren jatorria zein den ezartzea zaila den arren, Susan Strykerrek (2008) 90. hamarkadan transgenero ekintzaileek jada erabiltzen zutela aipatzen du. Aktibista hauek LGTB* komunitateen baitan gizonen feminitatea eta emakumeen maskulinitatea kuestionatzen zuten arau sozialak salatuzko erabili zuten terminoa. 2003an Lisa Dugganek *"The twilight of equality? Neoliberalism, cultural politics and the attack on democracy"* (2003) liburua argitaratu zuen eta bertan politika neoliberalen estatubatuar gizartean duten babesa aztertzen du. Bere ustez, neoliberalismoak bataila ideologikoa ekonomiaren inguruko kontakizun neutrala ezarri irabazi du: ekonomia adituek soilik ulertzen duten diziplina objektiboa da eta berorri buruzko eztabaida eta balorazio politikoak

antzuak dira, ekonomiak bere burua erregulatzen baitu. Horrela, jatorri etnikoa, generoa, kapazitateak edo hautu sexuala elementu kultural huts moduan aurkezten dira, norbanakoaren bizitza pribatuaren parte soilik bailiran. Tesiaren laugarren kapituluak, ikuspegi honen inguruan aktibistek egiten dituzten kritikak aztertu ahal izango ditugu, Wendy Brownek (2008) despolitizazioaren inguruan idatzitakoak lagun.

Maniobra erretoriko honek herri mugimenduen mobilizazio gaitasunean eragin negatiboa du. LGTB* politikentzat, bereziki kaltegarria da ekonomiaren ikuspegi hori, egiturazko analisi intersektionalak egitea ekiditen duen heinean, familiak, lan merkatuak, edo etxebizitza zein osasunbiderako sarbideak sistema heterosexistarekin duten harremana ikusezin bihurtzen dituelako. Ekonomia politikarengandik banaturik dagoela onartzen denean, genero eta sexualitatea marko horretatik kanpo aztertu eta indar guztiak lotura gutxiago eta askatasun handiagoa aldarrikatzeari dedikatzen zaizkio, hain zuzen ere neoliberalismoak defendatzen duen askatasunaren ideia barneratuz. Egungo mendebaldeko gizarteetan horrek, ezinbestean, balore eta bizimodu heteroarautuekin bat egitea dakar. Dugganen hitzak erabiliz, homonormatibitatea sistema politiko bat da:

[la homonormatividad] no pone en duda la hipótesis de dominación heteronormativa de las instituciones, y las sostiene, al tiempo que promete la posibilidad de un entorno gay despolitizado y privatizado, anclando la cultura gay a la vida doméstica y al consumo (Duggan 2003:50).

Dugganek homonormatibitatea sistema ekonomikoarekin lotzen duen era berean, beste batzuek termino honek geroago azalduko dudana homonazionalismoarekin duen lotura aztertu dute (Agathangelou, Bassichis, eta Spira 2008; Clavel 2015). Garrantzitsua da ere homonormatibitatea heteronormatibitatearekin ez parekatzea, azken finean, lehengoa komunitate mugatu baten barruan gertatzen den fenomeno baina eta bigarrena mendebaldean gizarte osoak gidatzen dituen printzipio eta sistema (Duggan 2003; Martín-Cabrera 2012). Homonazionalismoaren kasuan bezala, badago terminoaren aplikazio lar arina salatu duenik. Gavin Brownek (2009), esaterako, homonormatibitateari larregizko pisua emateak LGTB* komunitateen baitan aurkitu daitezkeen praktika anitzak ikusezin bilakatzea ekar dezakeela uste du. Geografia sexualaren ikuspegitik ere, Cesare Di Felicianoniok (2015), hiri ezberdinetako gay auzo eta guneen eboluzioa aztertuz, homonormatibitatea integrazioaren ondorioetako bat izan daitekeela azaldu du, baina ez bakarria. Ahmedek ere, Duggan (2003) edo Halberstamek (2011) egindako analisiekin ados egon arren, homonormatibitatea sistemaren ondorioa dela azpimarratu du, *“asimilazioaren ikuspegitik bizitza ona izateko desioari baino bizitza bizigarriak izatearen aldeko borrokei egotzi”* (Ahmed 2010:114) behar zaiola adieraziz.

Idea hauetako batzuk, beste forma batekin, hirugarren kapituluaren aipatuko dudana Deleuze eta Guattariren “Mil Mesetas” (2002) liburuan presente daude. Kapitalismoaren funtzionamendua aztertzen dutenean, pentsalariok aldarrikapen sozial eta politikoak irensteko duen gaitasunaz ohartarazten dute, horretarako territorializazio, desterritorializazio eta reterritorializazio kontzeptuak proposatuz. “*Agentziamientu oro lehenbizi territoriala*” (Op. Cit:513) dela diote, gerra egoera bat, gudu-zelai bat eta ezbaian dagoen territorio bat seinalatzen dituen heinean. Autore horientzat makineria kapitalistak gure agentziak mobilizatzeko gaitasuna du, gure ekintzak desterritorializatuz eta beren izaera eta zentzuak eraldatuz. Ikuspegi horretatik, LGTB* mugimenduaren despolitizazioa eta legedietan homosexualitatea aitortzea gertakari beraren “mugimendu” ezberdinak dira. Azken finean, legeetan aldaketak egin direnean gehiengo sozial zabalaren babesa jaso dutelako izan da, eta gehiengo hori bere egiteko mugimenduak hegemonikoa bilakatzeko gaitasuna duen diskurtsoa erabili behar izan du. Hegemoniaren arazo larria da, hain zuzen ere, aldarrikapen sozialen potentzia murriztu dezakeela onargarria eta seduktorea den diskurtsoaren alde egiten duenean (Day 2016; Ibáñez 2017). Estatu espainiarreko LGTB* politikari aplikatu dakioke diagnostiko hau, tesian elkarrizketatutako askok ere egin duten moduan, desioaren eta gorputzaren inguruko hausnarketa kritikoa bultzatu ordez bokazio integratzaile eta kontsumista argia duen diskurtso hegemonikotara lerratu diren heinean. Javier Saezek honela azaltzen du:

(...) comienzan a proliferar los llamados ‘barrios gays’ (...) donde se práctica una forma de vida cada vez más estandarizada y aburguesada. El mercado capitalista, que hasta entonces había dejado de lado a gays y lesbianas (...) ve en esta nueva generación un campo de consumo inexplorado. Comienzan a publicitarse objetos de consumo ‘para gays’ y hasta una especie de ‘estilo de vida gay’: discos, libros, películas, pornografía, moda, viajes..., una enorme oferta de mercancías se ofrece para el consumo de gays y lesbianas, hasta el punto de que no son ya los gays los que consumen, sino que son éstos los que son consumidos por la dinámica del mercado (Sáez 2008:29).

Orain arte homonormatibitateaz hitz egin dut heterosexualitatearen printzipiotara lerratzen diren egitura sozial, arau, genero normatibo eta bizi-estilo kontsumistez jarduteko. Baina kontzeptuak, marko akademiko batzuetan, identitatearen eta post-identitatearen inguruko eztabaidarekin lotura izan du ere. Hasieran aipatu dudana moduan, sexualitatearekin lotutako identitateak sexu-praktika zehatzetatik harago doaz, homosexualitatearen eta transexualitatearen inguruko erregimen diskurtsiboetan oinarritzen direlako. Honela, Dugganek egindako bizi-estiloaren arautzearen kritikaz harago, Ángel Moreno eta José Ignacio Pichardok homonormatibitatea “*homosexualitatea disidentzia sexualaren espazio arautu bilakatzen duen eraikuntza kulturala*” (Moreno eta Pichardo 2006:151) izendatzeko erabili izan dute. Honela, aurretik ikusi ditugun analisei ekarpen berria egiten diete autore hauek, heterosexualitatea sistema sexual erreal bakartzat hartzen den heinean homosexualitatea

berorren paradigmen azpian kokatzen dela salatuz. Homonormatibitatea, haien lanean, heterosexualitatea eta homosexualitatea elkarrengandik erabat banaturik ulertzea da, biei izaera naturala eta higiezina esleituz eta, ondorioz, subjektuak bi alderdi horietako batean egokitzera behartuz. Haien planteamendu batzuekin ados egon arren ez da hori lan honetan homonormatibitate hitzari eman diodan esanahia.

Laburtuz, lan honen testuinguruan homonormatibitateak hartzen duen esanahiak hiru ezaugarri nagusi biltzen ditu. Lehenengoak jadanik aipatu dudan inklusio eta asimilazioaren inguruko eztabaian LGTB* komunitate barruan sortzen den hierarkizazio eta banaketari egiten dio erreferentzia: gay, lesbiana eta trans* pertsonen, sozialki errespetatuak izan nahi badute, erregimen heterosexualarentzat onargarriak diren atributuak bere egin behar dituzte. Bigarrenez, sexualitatea eta genero biziortasunak erregimen ekonomikoaren lotzen diren moduak eta berauek ikusarazteko lana oztokatzen duen kontzeptua da homonormatibitatea, gay eta lesbiana subjektu normalizatu eta kontsumistan oinarritzen den heinean erregimen ekonomikoek LGTB* komunitateari nola eragiten dioten maskaratzeko duelako. Azkenengoz, sexualitatearen pribatizazioari eta LGTB* komunitateen ghattizazioari ere egiten dio erreferentzia, zentzu bikoitzean. Kontsumoan oinarrituriko LGTB* auzo eta guneei LGTB* komunitate barruan gaitasun ekonomikoaren eta beste hainbat faktoreren arabera sortzen duten bazterkeria agerian jartzen du homonormatibitatearen ideiak, baina baita gay guneei eta auzoek hiri eta auzoen gentrifikazio eta pribatizazio prozesuetan duten rola.

1.3.10 HOMONAZIONALISMOA

Homonazionalismoa Jasbir Puar (2017) estatubatuar autoreari egozten zaion terminoa da, jatorrizko ingelesean 2007an eta gazteleraz hamar urte beranduago argitaratu zen *“Ensamblajes terroristas: el homonacionalismo en tiempos queer”* (2017) liburuan lehen aldiz erabili zuena. Liburu horretan, Puarrek dominazio politika globalak, inperialismo forma berriak, amerikar salbuespenkeria⁴⁴ eta sexualitatearen inguruko politikak nola lotzen diren aztertzen du. Honela, homonazionalismoak maila globaleko fenomeno bati egiten dio erreferentzia: estatuen eta gizartearen kalitate demokratikoa LGTB* gaien inguruan dituzten lege eta jarreraren arabera neurtzeari. Ipar Globaleko gizarteek homosexualitatea haien nazioen gorputzetik kaleratu ordez, orain gorputz hauetako batzuk proiektu nazionalari biltzen dizkiote, horren bidez estrategia neokolonial eta nazionalistak abiatzeko.

Kasu batzuetan terminoaren erabilera Palestinako kasuari mugatu zaio, Israelgo estatuak “pinkwashingaren”⁴⁵ bidez bere aurpegia nola zuritzen duen salatzen. Kontrara, Puarrek berak (2013) adierazi du homonazionalismoa, kontzeptu gisa, ikuspegi zabalagotik ulertu eta aplikatu behar dela. Ikuspegi zabalago horrek ez ditu soilik estatu eta gobernuak seinalatzen homonazionalismoaren agente gisara, egitura sozialen elementu ezberdinak ere kontuan hartzeko beharra azpimarratzen du. Homonazionalismoa ez da gobernuak darabilten

44 Ez dauka itzulpen errazik ingelesezko “American exceptionalism” terminoak. Kontzeptu horrekin definitzen da AEBen historiaren inguruan egiten den irakurketa nazionalista eta partikularista AEBek, beste nazioekin alderatuz gero, jatorri historiko fundazional paregabea eta ezberdina dutela uste duena eta munduan zehar zabaldu beharreko printzipioak bere hartzen dituela esaten duena.

45 Estatuak era kontzientean egindako zuriketa maniobrei “pinkwashing” (garbiketa edo zuriketa arrosa) deitu izan zaie. Estrategia horren bidez, estatu batzuek LGTB* gaiekiko dituzten jarrera eta legeak lau haizetara zabaltzen dituzte giza eskubideetan edo ezberdinkeria ekonomiko eta sozialetan dituzten gabeziak estaltzeko. Israelena da kasurik ezagunena, azken urteotan Palestinar herriarekiko dituen jarrera onartezinen inguruko kritikak isiltzeko gay, lesbiana eta trans* pertsonen eskubideen inguruko hainbat lege onartu eta nazioartean Israel “gay-friendly” paradisu bezala aurkeztu nahi izan duena. Adierazgarriak dira ere kultura popularrean ikusi ditzakegun adibideak, zeintzuetan gay onarpena nazionalismo sionistarekin uztartzen diren (Yosef 2004). Hitzen joko berdina eginez, “purplewashing” kontzeptua ere erabili izan da LGTB+ komunitateak diskurtso horien erdigunean jarri ordez emakumeak eta haien eskubideak helburu zuritzaileekin erabiltzen direnerako.

estrategia, baizik eta sexualitatea eta nazioa artikulatzeko forma berria, gizarteen geruza ezberdinei eragiten diena. Komunikabideak, kultura popularra, hiri-antolakuntza, ekonomia edo mugimendu sozialak dira, besteak beste, homonazionalismoaren subjektuak. Fenomeno hau, beraz, estatu edo gobernu baten edo bestearen estrategia zehatza baino, maila globaleko gertakari transnazionala litzateke.

Aipatu moduan, autore askok adierazi dute homonazionalismoa homonormatibitatearekin estuki loturik dagoela. Homonormatibitatearen efektuetako bat LGTB* pertsona ezberdinen artean hierarkia sortu eta haietako batzuk onargarritzat eta beste batzuk arbuiagarritzat seinalatzea den moduan, homonazionalismoak nazioaren gorputzari gorputz homosexual eta trans* *batzuk* batzen dizkio, homonormatibitateak beharrezko duen klasifikazioan sakonduz. Kasurako, espainiar estatuak LGTB* hiritartasuna zis gizon ekonomikoki ahaldun eta monogamoaren ikuspegitik ezaugarritu badu, banaketa hori helburu nazionalistetarako erabiltzean ere subjektu hori erdigunean jarriko du.

Historikoki, homosexualak edo trans* pertsonak nazioaren inguruko diskurtsoetatik baztertuak izan dira, erreprodukzioa bermatzen duen eredia ez haragitzeagatik. Nazioari bizitza berririk ez eskaintzea (ez, behintzat, modu tradizionallean) eta nazioaren zein ekonomia kapitalistaren ereduak beharrezko dituen genero baloreen transmisioa etetea egotzi zaie subjektu hauei eta, ondorioz, estatu-nazioen ekoizpen ideologikoaren soberakintzat hartu izan dira. Azken hamarkadetan, ordea, iparralde globaleko hainbat herrialdeetan sexualitate eta afektibotasun ez-normatibo batzuen normalizazio prozesuak gertatu dira. Prozesu horren alderdirik ikusgarriena aitortza legalaren inguruan artikulatu diren eskaerak dira: sexu bereko pertsonen arteko ezkontza eskubidea, adopzio eskubidea, laguntza bidezko ugalketarako sarbide normalizatua, genero baieztapenerako⁴⁶ tratamenduak edo izena bizitako generoaren arabera legalki aldatzeko eskubidea. Eskaera hauen onarpenarekin, LGTB* subjektibotasunetako batzuk (erreprodukzioa, egitura familiarra eta genero bitarra bermatzen dutenak) normalizatu eta nazioari batzen zaizkio eta, eredu familiar-heterosexuala errespetatzen duen heinean, lehenago kanpoan zegoena nazioaren *barrura* pasatzen da.

46 “Genero baieztapena” espresioa erabiltzen dut eta ez “genero berrasignazioa”. Trans* esperientzia zabala den arren, hainbatentzako iraingarria da beraien generoa medikuntzaren bidez aldatzen dutela esatea. Hauen ustez, betidanik bizi duten generoari moldatzeko egiten dute operazioa, ez generoz aldatzeko. Beste batzuen ustez generoa ez da horren bizipen edo nortasun finkoa eta beraz ez dute uste generoa gizarteaz gaindiko leku batean kokatzen denik. Hauentzako, gehienetan, ez da horren iraingarria “genero berrasignazioaz” hitz egitea. Ikuspegi esentzialista defenditu nahi ez arren eta nire iritzia argi izan gabe, ulertzen dut “genero baieztapena” gertuago dagoela trans* pertsonen agentzia aitortzetik.

Aitzitik, subjektu hauek proiektu nazionalista hegemonikotara batzeak ipar globaleko nazioak indartzeko modua ere bada, eta baita mendebaldeko pan-nazionalismoa. Mendebaldar nazionalismo mota honek *bestearen* ideia sendoa behar du bere burua definitu ahal izateko eta homonazionalismoak *beste* hori eraiki eta ezaugarritzeko ekarpen partikularra egiten du. Gehiengo musulmana duten herrialdeak, Europa ekialdekoak edo Latinoamerikakoak tradizional eta homofobotzat hartzen dira eta, kontrara, herrialde anglosaxoiak eta Europa zentralekoak ireki, errespetuzko eta modernotzat. Honela, herrialde eta kultura batzuk gaiztotzat hartzen dira, eta izaera neo-inperialista duten interbentzioak giza-eskubideak globalizatzearen aitzakiarekin zuritzen dira. Baina ez da interbentzio militarra homonazionalismoak ahalbidetzen duen inperialismo forma bakarra: kooperazio eta garapenerako laguntza egiten duten hainbat programak edo masa-komunikabidek LGTB* ikuspegi euro-zentratuak aplikatuz europar baloreen inposizio ideologikoa bermatzen dute. Hau dela eta, hainbat autorek homonazionalismoa iparraldeko gizarteetan etengabeko hazkunderan dagoen islamofobiarekin lotu dute. 2001eko irailaren 1arekin abiatutako terrorismoaren aurkako gerrak lehendik ere bazeuden islamofobia, salbuespenkeria eta orientalismoa biziki indartzen ditu eta homonazionalismoak badu horretan zeresanik.

Kontzeptu honek, ordea, eztabaida ugari sortu ditu LGTB* ikerketa eta aktibismoen esparruan. Aleardo Zanghellinik (2012), adibidez, homonazionalismoari larregizko atentzioa eskaintzeak LGTB* eskubideen globalizazioak ekar lezakeen aldaketa positiboa ikustea ekiditen duela uste du. Londresen adibidetik tiraka, autore honek homonazionalismoa errealtatean konprobatu beharreko hipotesi analitikoa izan ordez eztabaida gabe ontzat ematen den dogma bilakatzen ari dela salatzen du. Honela, homonazionalismoa ez dagoen lekuetan ere ikusten dugula uste du. Esanguratsua da *“egiturazko aurreuste paranoikoa”* (Op. Cit:63) espresioa erabiltzen duela egiturazko zapalkuntzen efektuak (uneoro eta presente egon ez arren) etengabe kontuan izatearen ideia salatzeke⁴⁷.

Beste hainbatek, ordea, kritika hori zalantzan jarri dute, homonazionalismoa kontzeptu gisa sinplifikatzen duelakoan. Izan ere, homonazionalismoaren inguruko teoriak ez ditu kultura eta testuinguru ezberdinetan gertatzen den LGTB* pertsonen aurkako zapalkuntza zalantzan jartzen, ez eta ipar globalaz kanpo dagoen homofobiari ikusezin egiten. Aitzitik, kultura eta nazio hegemonikoetan gauzatzen den nazionalismoaren eta sexualitatearen inguruko harremanak ulertzeko marko zabala eskaintzen du, edozein herrialdeetan dagoen LGTB*fobia kritikatzeko aukera emanez, arazoa *kanpoko* herrialde eta kulturetan kokatu ordez.

47 Kontzeptu hau Janet Halleyrengandik (2008) hartzen du, zeinak egungo gizarteetan dagoen feminismoarekiko larregizko atentzioa salatzeke erabiltzen duen. Honek Zanghelliniren kritikaren norabidearen inguruko pista bat eman dezake.

Homonazionalismoa kontzeptu zabal eta konplexua da, eta dimentsio ezberdinak barnebiltzen ditu: kultura, ekonomia, politika, geo-estrategia eta abar. Horren ondorioz, ikerketa zehatzetan aplikatzea zaila da, eskatzen duen analisi maila handia delako eta, zoritxarrez, larregi sinplifikatu izan da maiz. Horren adibiderik argiena lehen ere aipatu dudana pinkwashinga da, askotan homonazionalismoaren adierazpide bakartzat hartu dena. Puarrek berak (2013) bi kontzeptuok parekatzearen arriskuak adierazi izan ditu, pinkwashingak bere zentzua marko homonazionalistaren baitan hartu arren, homonazionalismoa hori baino askoz zabalagoa dela adieraziz. Homonazionalismoa ez da propaganda ariketa hutsa, dimentsio ezberdinak biltzen dituen gertakari globala baizik eta, zentzu horretan, pinkwashinga homonazionalismoaren parte den arren, homonazionalismoa pinkwashinga baino askoz gehiago da.

Kontzeptua zehazte asmoz, Paola Bacchettak (Bacchetta eta Haritaworn 2016) hiru homonazionalismo mota ezberdintzen ditu. Lehengoa estatu eta gobernuen jardunari erreparatzen dio: ikuspegi horretatik kritikiko aztertu daitezke oraintsu aipatutako pinkwashinga edo elkartzeko zibilerako lege berriak, inklusio moduan aurkeztu arren diskriminazio berriak sortu ditzaketena⁴⁸. Bigarren homonazionalismo motak inklusio/baztertzeko prozesuari erreparatzen dio, hainbat norbanako eta elkarten LGTB* fobiaren aurrean dituzten erreakzio xenofobo edo arrazistei⁴⁹. Hirugarren homonazionalismo mota transnazionala da eta, adibidez, mendebaldeko genero eta sexualitate kategorietan (gay, lesbiana, transexual) oinarrituz beste herrialde batzuetan egiten diren interbentzio politikak ere hartzen ditu kontuan.

Pau Lopez Clavelek (2015) Balentziatik edo Bruna Andradek (2014) Brasiletik seinatu duten moduan, homonazionalismoa ezkontza zibilaren inguruko eztabaidekin estuki lotuta dago, eta estatua eskubideen iturri legitimo bakartzat hartzearekin. Dean Spadek (2015), adibidez, ikuspegi legalista hori kritikatu du, legeek konpondu gabe uzten dituzten LGTB* arazoaren inguruan (indarkeria askoren iturri diren homofobia soziala edo bazterkeria ekonomikoa kasu) ezikusia egiten duelako. Beste idazle batzuek homonazionalismoa

48 Inklusio legeek izan ditzaketen efektu diskriminatzaileen inguruan ikus (Platero 2013).

49 Lehen pertsona biziaren pasarte bat ekarri nahi nuke hona adibidetzat. Duela urte gutxi batzuk, lesbiana bikote batek, Bartzelonako alde zaharrean eskutik eutsita zihoala, bi gizon gazteren ahozko eraso jaso zuen. Gazte horietako bat magrebiarra zen. Pare-parean tokatu zitzaigunez, lagun bat eta biok gelditu eta erasotzaileei erantzuten ari zen bikotearengana gerturatu ginen. Erantzun horietako asko "bertako" itxura zuen mutilari zuzendu zizkieten, berari eskatuz lagun magrebiarrari azal ziezaion "herrialde honetan hau (lesbiana izatea) normala dela" eta "gustuko ez badu bere herrialdera bueltatzea daukala". Egoera horretatik hainbat ondorio atera daitezke: a) magrebiar itxura baldin badu, bere herrialdean ez dagoela ondorioztatzen dugu berehala b) bere ezaugarrietako bat, bere jatorri etnikoa, beste batzuen (adibidez, gizona izatearen) gainetik kokatzen dugu erasotzaile bezala ezaugarritzean c) gure hiritartasunak errealitate lokalera moldatzen ez den oro kanporatzeko eskubidea ematen digula uste dugu d) lesbianismoa gure herrialdean normalizatua dagoela pentsatzen dugu.

inperialismo berriak justifikatzen dituen beste ikuspegi batzuekin lotu dute, esaterako emakumeen eskubideen izenean egiten diren interbentzioekin. Leïla Benhadjoujda eta Micheline Milot (2014), adibidez, Puarren kontzeptutik abiatu dira “feminazionalismo” kontzeptua proposatzeko, Islama emakumeen kontrako berezko arriskutzat aurkezten duten praktikak seinalatu asmoz.

Estatu espainiarrean ez zaio horrenbeste atentzio akademiko eskaini kontzeptuari. Jadanik aipatu dudan Clavelez gain, Platero (Mendia Azkue eta beste 2015) ere aritu da horren inguruan eta Nuria Sadurní eta Joan Pujolek (2016) kontzeptua nola ulertzen eta aplikatzen den aztertzeko aktibisten narrazioak hartu dituzte abiapuntutzat. Nazionalismo hegemonikoez gain nazionalismo periferikoaren presentzia handia duen testuinguru katalanean nozio horrek izan ditzakeen aldaerak pentsatzeko lehen pausuak ematen dituzten beren ikerketan, baina eztabaidaren aspektu asko uzten dituzte garatzeko. Ikuspegi akademikotik homonazionalismoari buruz gutxi egin den arren, ikuspegi aktibistetan presente dagoen kontzeptua da, lan honetarako egindako elkarrizketek ere azaldu didaten moduan. Hitza bera kasu batzuetan besterik aipatu ez arren, ekintzaileek, bereziki LGTB* politiketan aritzen direnek, presente dituzte homonazionalismoaren dimentsioetako batzuk. Aipatutako Bacchettaren kategorizazioari jarraituz, esan genezake bereziki bere bigarren dimentsioarekiko ardurak agertu dutela militanteek. LGTB* pertsonen aldeko babes legeak egon arren, indarkeria LGTB*fobikoa eta diskriminazio soziala nahi baino maizago “kanpotarrei” egozten zaiela uste dute, “bertako” gizartean barne-homofobiari sakonki erreparatu ordez. Homonazionalismo transnazionalari dagokionez, LGTB* eskubideak beste pertsona batzuen eskubideen kontra egiteko manipulatzearen beldur dira ere, baina kezka hori abstraktuagoa da. Maila horretan kontzeptuak politika inperialisten erdigunean dauden herrialdeetan indar eta gaitasun analitiko handiagoa izatea normala da. Espainiar estatuak, egun, inperialismo mota ezberdinetan inplikaturik egon arren (ekonomikoki zein militarri) ez ditu politika horiek agerian jartzen eta, ondorioz, ez ditu diskurtso mediatiko nazionalista-belizista baten bidez defendatu edo justifikatu behar. Zentzu horretan, logikoa da homonazionalismoak gurean izan dezakeen eragina inmigrazioarekin eta mugen barruan (edo mugetan) defendatzen den islamofobia eta arrazismoarekin loturik egotea.

Homonazionalismo kontzeptuak ikerketa honetan bi erabilgarritasun nagusi izan ditu. Alde batetik, aipatu moduan, talde eta ekintzaileek dituzten kezka batzuei babes teorikoa emateko aukera eskaini dit. Bestetik, prozesu bezala analogiaren bat egiteko aukera eman dit. Benhadjoujda eta Milotek (2014) homonazionalismoa feminazionalismoaren txantilo bezala erabili duten moduan, “homoezkertasuna” nozioa pentsatzeko beta hartu dut. Nozio berri bat

planteatzeko inolako asmorik gabe⁵⁰ homosexualitatea nazioaren gorputzera batzeko moduak kritikoki aztertu diren moduan, ezkerreko politiketara bildu diren forma ere hausnartzeko modukoa dela uste dut, are gehiago Euskal Herrian, non ezker joerako nazionalismo periferikoak (ezkerreko abertzaletasunak) sustraitze handia izan duen. LGTB* pertsonak ezkerrearen eta nazio zapalduaren iruditegitik erabat kanpo egotetik inkorporazio selektibora pasa dira eta prozesu horren nondik-norakoak aztertzea interesgarria iruditzen zait. Lan honetan gaia zeharka besterik ukitzeko aukerarik izan ez dudan heinean, etorkizunerako erronken zerrendan jartzea ezinbestekoa zait.

50 Tesiaren hirugarren kapituluan azaltzen dut lan-saioretako batean aholkulari taldeko kide batek txantxa bezala planteatu zuela "homoizquierdismo" kontzeptua homonazionalismoaren aldaera bezala. Pentsamendu lerroa iradokitzailea izan arren, berehala erabaki genuen, txantxa artean, kontzeptuak ez zuela erakargarritasun handiegirik.

2. Nabigazio mapak eta txalupa zahar-berriak: ikerketa metodologiari buruzko argipenak.

2.1 Ikerketa sortu, helburuak finkatu eta subjektuak definitzea

Atal honetan ikerketan zehar erabilitako metodologiaren inguruko hainbat azalpen emango ditut. Sarriegi, ikerketa metodologiaz ari garenean, ikerketa teknikez besterik ez gabiltzala dirudi eta, murrizketa hori saihestu nahian, ikerketa prozesuari hasieratik bukaerara eta bere dimentsio ezberdinak kontuan hartuko dituen ikuspegi holistikotik begiratuko diot.

Ikerketa honek sexualitatearen, genero identitateen eta beren inguruan sortzen diren subjektibitate eta politizazio moduen inguruan hausnartzea du helburu. Gaiaren konplexutasunak hala aginduta, hasieratik argi izan dut tesi honen xedea ez zela fenomeno bat era zehatzean azaltzea, arazoa leku ezberdinetatik inguratu eta bere “zentzu esfera” irudikatzea baizik (Segato 2016:42), alegia, gure ingurunean gutxi esploratu den gai hau enfokatzeko hainbat argi-izpi eskaintzea. Edonola ere, halabeharrez helburu orokor hau mugarri egingarrien bidez zehazten joatea ikerketaren lehen eginbeharretakoa izan da.

2.1.1 IKERKETAREN HELBURUAK

Ikerketak helburu mota ezberdinak ditu eta, gainera, erabilitako metodologiak leku partikularra eskaini die ikerketaren prozeduraren baitan. Helburuek, ikerketa osoa gidatu duten arren, ez dira hasieran definitu eta prozesu osoan mantendu; era dinamikoan garatu dira eta, ikerketak aurrera egin ahala, helburu berriak ere gehitu dira. Hiru helburu mota ezberdinak ditut: helburu akademikoak, helburu politikoak eta pertsonal-emozionalak. Uste dut hiru dimentsio horiek presente daudela edozein ikerketatan, baina gehienetan horietatik bi (politikoak eta emozionalak) ez dira agerian jarri edo esplizitu egiten. Helburu politikoei dagokienez, ikerketa esparruan egiten den interbentzio orok egoera politikoan eragiteko gaitasuna du, botere egiturak indartzen lagundu dezake edo egitura horiek zalantzan jartzen. Aitzitik, gehienetan, bi mutur horien artean kokatzen diren efektu anitz eta kontraesankorrak izan ohi ditu. Ikerlan orok *eragin* politikoak dituela esatea eta *helburu* politikoak dituela esatea ez dira gauza bera, baina, ikerketarentzako helburu politikoak zehazteak izan ditzakeen efektuak era errazagoan ikusgarri egin dezake. Ikerketaren aspektu emozionalak, aldiz, zientziaren jardunetik kanpo utzi izan dira ikuspegi logozentrikoa (Castañeda Salgado et al. 2019:70-71) nagusi izan delako eta, gainera, emozioek zientzia “zikintzen” dutela uste izan delako. Ene ustetan, ordea, hiru aspektu hauek ikerketa prozesuetan presente dauden heinean, gure atentzioa merezi dute: hirurak egin behar dira esplizitu eta, are garrantzitsuagoa, bakoitzari bere lekua (eta, ziur aski, unea) esleitu behar zaie, elkarren artean nola eragiten duten behatuz.

Ikuspegi akademikotik, doktore tesi honek *subjektibotasunaren eraikuntza eta politizazioak aztertze*ko helburua izan du, horretarako *testuinguru zehatz bat (hego Euskal Herriko herri mugimenduen)* eta *“talde” sozial konkretu bati erreparatuz (LGTB* subjektuei)*. Herri mugimenduen esparruak politizaziorako gunetzat hartu ditut eta nire kezka, hasieratik, bi norabidekoa izan da. Alde batetik, LGTB* izateak politizazioan, hots, edozein gai sozial edo politikorekiko ardura-hartze eta interbentzio desioan, izan dezakeen eragina aztertu nahi izan dut. Bestela esanda, gizartearen iruditegian kokapen periferikoan dauden subjektuek politizaziorako joera partikularra (handiagoa, txikiagoa edo desberdina) ote duten pentsatu nahi izan dut. Bestalde, harreman hori kontrako norabidean ere esploratu nahi izan dut: herri mugimenduetan jarduteak eta mugimendu horiek sortzen dituzten

unibertso diskurtsibo zein materialetan murgilduta egoteak LGTB* nortasunaren eraikuntzari nola eragiten dion itaundu nahi izan dut. Horretarako, mugimendu “mistoetan” (hau da, LGTB* politikan zentratzen ez diren eta LGTB* pertsonen bakarrik hornitzen ez diren talde, erakunde eta kolektiboetan) ari diren subjektuekin elkarrizketak egitea erabaki dut.

Helburu akademikoak ikerketa burutzearekin batera moldatu egin dira, aipatu ditudan helburu horietaz gain beste batzuk sortuz. Geroago azalduko dudan moduan, hasierako helburuak landu ahal izateko egin ditudan elkarrizketak aztertu ostean, LGTB* politikei (gaiaren inguruan ekintzailertzan ari diren talde eta aktibistei) erreparatzeko beharra sortu da. Horrek bigarren helburu akademikoa gehitzera eramane nau, alegia, *Hego Euskal Herrian aktibo dauden LGTB* ekimenen gainbegirada egitea*, horretarako atentzio berezia eskainiz mugimenduetan bizi-bizi dauden eztabaida, korapilo eta ezbai-guneei. Azken finean, lehen elkarrizketa-multzoan parte hartu zuten subjektu gehienak ez badira egon edo ez badaude LGTB* mugimenduan, interesgarria da LGTB* politiken argazki bat (mugatua bada ere) egitea.

Ikuspegi politikotik, talde mistoetan LGTB* gaia tratatzen den moduari buruzko hausnarketa abiatu nahi izan dut. Ezkerraren iruditegi orokorretik abiatuz herri mugimenduak homosexualitateak, bisexualitateak eta transexualitateak ontzat jotzen dituzten edo, behintzat era irekian kritikatzeko ez dituzten espazioak dira. Hala ere, LGTB* gaiak, maiz, errespetuzko traturaz mugatzen dira, mugimendu gehienetan politika aktiborik egin gabe eta LGTB* aferen eta mugimendu bakoitzak tratatzen dituen gaien artean (ekonomia, ekologia, feminismoa, independentismoa eta abar) lotura gutxi eta oso arinak eginez. Tesi honekin, beraz, *harreman hori birpentsatzeko gako batzuk seinlatu* nahi izan ditut, horretarako bi esparrutan eragin asmoz. Lehen esparrua ikerketan zuzenean parte hartu dutenena da eta, noski, oso mugatua da, baina elkarrizketatu guztiak mugimenduetan aktibo dauden pertsonak izanda, elkarrizketa eginez eta editatuz egindako bideak hausnarketa eta ekintza lerroren bat ireki duenaren esperantza gorde dut ikerketan zehar. Bigarrena zabalagoa da eta txostenaren beraren hedapenari dagokio, hots, hemen planteatzen diren ideia batzuk hainbat talde eta eragilerekin partekatzeari. “Gizon taldeak eta maskulinitatearen inguruko diskurtsoak” (Azpiazu Carballo 2015a) lanaren hedapenean ikasi nuenez, helburu hau betetzeak mugimenduetan ari den jende gehienaren eta txostenaren artean dagoen distantzia murriztea eskatzen du. Distantzia horrek hizkera eta formatu akademikoarekin du lotura, baina baita txostenaren luzerarekin eta erabilitako erregistro narratiboarekin. Ondorio eta ideia hauek partekatu nahi izanez gero, hedapena erraztuko duten formatuak (artikulu, mahai-inguru, aurkezpen edo eztabaidak) sortzea ezinbesteko lana izango da.

Lehen helburu akademikoari erantzun eta LGTB* politiken inguruko bigarren helburua gehitzea erabaki ostean, helburu hori lantzeko ikuspegi politikoa pentsatzea ere tokatu zait. Geroago azalduko ditudan arrazoiak medio, azterketa, nagusiki, instituzioekin harreman gutxien duten taldeetan zentratzea erabaki dut eta horrek helburu partikularrak sortu ditu. “Kaleko” LGTB* politikak elementu ezberdinen arteko bidegurutzean daudela uste dut, une politikoak eta beraien historia zein garapen propioak eraginda korrante ezberdinak elkartzen diren itsas-golkoetako kokapen berezi horietako batean baileuden. Halakoetan egoera delikatu da beti, eztabaida ugari mahai gainean daudelako eta, are gehiago, inplikaturik gauden talde eta ekintzaileok ezbai horiek oso gertu eta azalean bizi ditugulako. Helburu bezala markatu dut, beraz, *eztabaida hauek erraztu asmoz askotariko ikuspegietatik erabili daitezkeen gako batzuk bilatzea, alegia, mugimenduen arteko komunikazioa erraztu dezaketen ideia sentigarriak proposatzea.*

Amaitzeko, ikuspegi politikotik presente egon den hirugarren helburu nagusia, *LGBTB* mugimendu, politika feminista eta ezkerreko beste mugimendu batzuetan presente dagoen politika material eta sinbolikoei buruzko eztabaidan ekarpena egitea* izan da. Azken urteotan publikatu diren hainbat liburu eta artikuluren zein mugimenduren baitan sortutako iritzi ezberdinen bidez, gatazka sozialak ulertzeko modu kontrajarrien arteko tentsioa mahai gainean paratu da, bereziki klase-auziaren zentraltasunaren inguruan. Zoritxarrez, urrutitik datorren eta LGTB* politikak biziberritzeko baliagarria izan zitezkeen eztabaida ez da beti aberasgarria suertatu, hainbat kritikaren sinplekeria eta postura dogmatikoei ekidin dutelako. Zeharkako ikuspegitik bada ere, lan honek *gaiari buruzko ikuspegi, aukera eta gako ezberdinak era konplexuagoan irudikatu nahi izan ditu, eztabaidak mugimenduei zerbait eman diezaien, kendu ordez.*

Ikuspegi pertsonal-emozionala ikerketa prozesuan zehar kudeatzea ez da erraza izan. Estandar moduan, elementu horiek azaleratzea ez da beti gertatzen eta ikerketa prozesuetatik at uzteko joera dago, nahiz eta ikuspegi feministatik jarduten duen antropologia edo soziologian gero eta gehiago aipatzen den. Maila horretan, faltsua litzateke ikerketarako helburu pertsonal-emozionalak hasieratik zehaztu ditudala esatea. Helburu akademiko eta politikoen kasuan baino maila handiagoan, helburu hauek ni aurkitu naute alderantziz baino.

Herri mugimendu mistoetan sortzen diren subjektibitate eta politizazioei dagokionez, 2.2.2 epigrafean diodan moduan, nire esperientzia propioaren inguruan ikertzeak inplikazio bereziak izan ditu. Haietako bat ikerketa egiteak niretzako helburu emozional espezifikoa zitzuela onartzea izan da. Horretarako lagungarriak izan dira auto-elkarrizketa, lagun, tesi-zuzendari eta ikaskideekin izandako solasaldiak eta psiko-terapia saio batzuetan landutakoak. Herri mugimendu mistoetan jardun dudanean nire sexualitatearen inguruan bizitako egoera batzuek sortutako minak sendatzeko asmoa ere izan da ikerketa hau baina, bereziki, nire buruarekin maila horretan adiskidetzekoa. LGTB* gaien inguruan lehenago aktibatu ez izana

leporatu izan diot nire buruari, gai hori nire agenda publikotik at utzi eta LGTB* jendearekin gertutasun eta konplizitateak lehenago eraiki ez izana. Aktibismoak eskatzen duen konpromiso politikoa, maiz, eskakizun morala bilakatu daiteke eta, ildo horretatik, hirugarren kapitulurako elkarrizketatutako lagunekin topo egitea eskakizun moral horiek berriz negoziatzeko aukera izan da⁵¹.

Laugarren kapituluan LGTB* aktibistekin egindako elkarrizketek ere badute beren alderdi emozionala. Elkarrizketetan zehar eta, bereziki, analisisa egitean, mina sortzearen inguruko hainbat hausnarketa egin ditut. Mugimenduetan hainbat gairen inguruko desadostasunak kudeatzeko dauden mekanismoak askotan askiek dira eztabaida politikoak dituen elementu emozionalei erreparatzeko. Mugimenduetan presente dauden ezbai horiek ikerketan aztertzean ere, hainbat gaik aparteko erosotasuna sortzen didatela ohartu naiz. Ezerosotasun horrek osagai ezberdinekin du zerikusia, eta bakoitzari bere lekua eskaintzea ez da beti erraza izan. Alde batetik, urteetan zehar ontzat eman ditudan ikuspegi batzuk zalantzan jartzeak sortu didan ezerosotasuna dago, norbere iritzien zurruntasuna eta kokapenaren pribilegioak ere azaleratzen dituena. Maila horretan, lehenago ere aipatu dudan moduan (Azpiazu Carballo 2017) ezerosotasun hori produktiboa eta beharrezkoa da, nahiz eta ez izan gustuko. Bestalde, eztabaida batzuk plazaratzen ari diren moduen inguruko ezinegona ere sortu zait. Lehen ezerosotasunarekin lotzen den aspektu batzuk ditu honek, izan ere, maiz sektore batzuk beren desadostasunak azaleratzeko dituzten moduak “ezegoki” edo “bortitz” bezala bizi ditugu, eztabaida horietan pribilegio egoeran gaudenok⁵². Horretaz harago, ordea, uste dut mugimenduetan hauek kudeatzeko zailtasunek eta mekanismo faltak mina sortzen digula eta, beraz, nire ezerosotasunak min egiteko beldurrarekin zuela lotura. Eztabaida politikoan inor ez mintzea ezinezkoa dela onartu arren, horretarako ahalik eta kontzientzia maila handiena hartzeak etengabeko balantza batean jarri nau, esan daitekeenaren eta esan ezin daitekeenaren artean, baina baita lan akademikoak maiz eskatzen duen baieztatze gaitasunaren eta eztabaida politikoan lagungarria izan ohi den zalantzarako joeraren artean.

51 Asko gogoratu naiz Belén Gopeguiren “Tocarnos la cara” (Anagrama, 1995) nobelarekin. Liburu horretan hainbat lagunek antzerki konpainia berezia jartzen dute martxan, zuzendari oso partikular baten pausuei jarraituz. Aktoreek gela txiki batean, gidoirik gabe eta hizketaldiari hasiera ematen dion ikusle bakarrarentzako antzeztan dute, ikusle horri izateko, egoteko eta egiteko aukera berriak ireki asmoz. Ikusleek antzezkizun horiek bidez hausnartzen dute haien zauri eta akatsen inguruan eta, aktoreek, konpainiak pairatzen dituen hainbat gorabeheren bidez ere: *“porque todos somos aquello que nos hizo equivocarnos, y el vínculo del error es a veces más fuerte que cualquier otro. Subsiste en el error un grado ínfimo de pureza, la pureza de lo que no está conforme, de lo que no se aviene con el mundo tal y como es”*. (188). Pasarte horrek elkarrizketa askoren ostean sentitutakoak gogorarazi dizkit.

52 Hamaika adibide jarri nitzake, baina uste dut kolonialitatearen inguruko eztabaidak maiz efektu hau sortzen digula zuriak garenoi (buruan ditut, besteak beste, Ikerketa Metodologia Feministari buruzko II. Jardunaldietan Ochy Curielen hitzartzea edo 2019ko jardunaldi feministetan gai honi buruz egondako eztabaida), edo transmisioari buruzko eztabaidak hainbat subjekturi.

Era berean, lan osoan argudiatuko dudan moduan, subjektibatze politikoak gure ingurunean leku bat topatzeko moduak dira ere, eta beraz posizio politikoak eta emozionalak oso estuki loturik daude. Nire kasuan, LGTB* politiken inguruan nire lekua topatzeko zailtasunak sentitu ditut maiz, talde batzuen politika oso erradikala baina eraginkortasun urrikoa eta beste batzuen oso eraginkorra baina sakontasun gutxikoa iruditu zaidalako. Gainera, orain aipatu dudan eztabaida batzuen inguruan postura bitar eta sinplifikatzaileak (alde/kontra) aurkitzeak LGTB* politikekiko nire atxikimendua zalantzan jarri dute. Analisi honi ekitea ikuspegi ezberdinak ulertu, aintzat hartu eta horien artean leku propioa bilatzeko modu bat da, talde eta ekimenen jardun eta posizionamenduak sakonago ezagutzuz horien inguruko aurreiritzi eta sinplifikazioak ekiditeko.

2.1.2 IKERKETA-SUBJEKTUAK AURKITZEA ALA ERAIKITZEA?

Lehen elkarrizketa-multzorako era batean edo bestean LGTB* siglekin identifikatzen diren eta herri mugimendu mistoetan aktibo dauden pertsonak bilatu ditut. Abiapuntua jarri bezain pronto definizio arazo ugari mahaigaineratu dira. Hasteko, eta hirugarren kapituluaren ikusiko dugun moduan, LGTB* siglekin identifikatzea afera arazotsu eta konplexua da. Elkarrizketatutako askok ez dute modu erabatekoan bat egiten definizio horiekin, are gutxiago era iraunkorrean. Haietako askok terminologiaren inguruko zalantzak dituzte, beste batzuek uko egiten diote beraien sexualitate edo generoak beren pertsonak identifikatzearen ideari. Gehienek egoera eta unearen arabera iritzi ezberdinak dituzte.

Baina gay, lesbiana, trans*, bisexual edo queer etiketekin identifikazioa arazotsua bada, nola identifikatu ditut nik ikerketan parte hartzera gonbidatu ditudan subjektuak? Gamsonek (2000) Butlerren (1993) hitzak gogora ekarriz dioen moduan, kritika queer postestrukturalistak zalantzan jarri du subjektuak hor daudenik guk haiei “hots egin” aurretik (ikus marko teorikoan interpelazioari buruzko azalpenak). Beste era batera esanda, ikerketan parte hartu duten LGTB* subjektuak, parte hartze horren bidez *ere* eraikitzen dira gay, lesbiana, trans* edo queer bezala. Begirada horretatik, ikerlariak *okertzen* ditu subjektuak. Esaterako, etiketarekin zalantzati dauden hainbat subjektu ikerketaren bidez identifikazio horretara gerturatu edo urruntzen ditut.

Plummerren arabera (1992, Gamson 2000n zitatua), sexualitateen inguruko ikerketek gay, lesbiana eta trans* identitateen reifikazioa ekarri dute, LGTB* ikerketen esparruari maila teorikoan soilik existitzen den batasuna emanez. Eztabaida hau gurera ekarriz, ordea, testuinguruari garrantzia ematea bidezkoa delakoan nago: zein da gaur egun gure inguruan unibertsitate eremuan egiten den LGTB* ikerketaren eragin-gaitasuna? Plummerrek aztertzen duen testuinguruarekin alderatuz, askoz txikiagoa. Horrek ez du esan nahi kategorizazioan eragiteko gaitasuna hutsala duenik, baina bere neurrian ulertu behar da gertakari hau.

Jardun akademikoaren efektu arautzaileak ekidin asmoz ikerlari ugari erabilitako estrategiak ere aipatzen ditu Gamsonek (2000). Horietako bat identitatea bera erdigunean jartzea izan da: testuinguru ezberdinetan identitate gay eta lesbikoak nola eraiki eta garatzen diren itaunduz nortasun horien kontingentzia azpimarratzen dugu. Zerk egiten gaitu gay edo lesbiana? Nola aldatzen da hori denborarekin? Identitateetan begirada jartzeak, paradoxikoki, nortasun horiek ixtea ekidin dezake baina, beste hainbatetan aipatu dudan moduan (Azpiazu Carballo 2015a; 2015b; 2017), azkenengo hamarkadetan identitateen eraikuntzari berebiziko

atentzioa eskaintzeak beste aspektu batzuk albora utzi edo haien garrantzia murriztea ekarri du. Subjektibatze politikoak aztertzerako orduan, identitateak kontutan izatea ezinbestekoa zaigun arren, nahi baino maizago ikerketa askoren helburuak hor geratzen dira. Ondorioz gero eta gehiago dakigu identitateen sorreraren inguruan baina hankamotz jarraitzen dugu ekintza kolektiboa aztertzean.

Maila horretan, konpondu gabeko tentsioa sortu da ikerketa prozesuan zehar. Alde batetik, nortasuna erdigunean jarri eta bere genealogia eta eraldaketak aztertzeak identitateen izaera arautzaileari mugak jartzeko estrategia da. Bestetik, ordea, horrek identitateen sorrerari larregizko atentzioa jartzea ekarri dezake eta, beraz, subjektibatze politikoaren beste aspektu batzuk (testuinguruari lotutakoak, bereziki) deskuidatzea ekarri dezake. Ekintza politiko kolektiboa aztertzerakoan, nortasunaren inguruko begirada lar kontingente batek analisia ia ezinezko bilakatzen du. Tentsio hori ebatzi ezina dela onartu behar izan dut, ikerlari (eta ekintzaile) moduan subjektuak nolabait eraikitzen ditugula aitortuz, baina subjektuek eta haien errealitate atzemanezinek kategorizazioak beren kabuz iraultzen dituztenaren jakitun.

Hastapenak

Atal metodologikoaren irakurketa errazte aldera, hurrengo orrietan tratatuko ditudan gaiak hobeto ulertzen lagundu dezaketen datu gutxi batzuk laburtuko ditut metodologiaren aspektu ezberdinetan sakontzen hasi aurretik.

Ikerketa hau 2014-2015 ikasturtean hasi nuen, nahiz eta tesiaren inguruko lanketa ez den jarraitua izan gaurdaino. Epealdi berdinean Londreseko Brunel unibertsitatean ikerlari kontratua izan nuen “GAPwork⁵³” proiektuan lan egiteko eta metodologiaren inguruko aspektuak lantzeko aprobetxatu nuen. 2015 hasieran hainbat LGTB* talderekin ikerketaren ideia aurkezteko erronda egin nuen eta maiatzean tesiaren prozesuari jarraipena egiteko asmoz aholkulari taldea sortu (gerora emango dut honen berri) eta ikerketaren lehen lan-lerroak marrazteari ekin genion. Urte bereko urrian lehen elkarrizketa-multzoari hasiera eman zion solasaldia izan nuen eta hilabete berean burutu nituen beste hiru elkarrizketa. 2016ko martxoan “USVreact⁵⁴” proiektuan lan egiten hasteak tesiari dedikatu ahal nion denbora izugarri mugatu zuen eta 2018ko ekainean ekin nion berriz datuak biltzeari. Ekaina eta urria artean 12 elkarrizketa eta nire buruari egindako auto-elkarrizketa egiteko aukera izan nuen. Tartean aholkulari taldearekin bildu nintzen eta hainbat aurkezpen egin nituen tesi zuzendari eta beste ikerlari batzuekin berauetan azal dutako informazioa eta eztabaidak ere sistematizatuz.

53 Gap Work: Improving Gender-Related Violence Intervention and Referral Through ‘Youth Practitioner’ Training. Proiektuaren kodea: JUST/2012/DAP/AG/3176. Informazio osoa: <https://sites.brunel.ac.uk/gap> (2020ko apirilaren 12an kontsultatua).

54 USVreact Europar Komisioak diruz lagundutako bi urteko proiektua izan zen (proiektu-kodea JUST/2014/RDAP/AG/VICT/7401). Horren ingurukoak <http://usvreact.eu/eu> orrialdean ikusi daitezke (2019ko azaroak 1ean kontsultatua), hala nola bere inguruko azken txostenetan (Alldred eta Phipps 2017; Luxán Serrano, Azpiazu Carballo, eta Amurrio Vélez 2018).

Lehen sorta osatu zuten 17 elkarrizketa horien analisisia, kodifikazioa eta lanketa datuak jaso ahala burutu nuen eta, beraz, segidan bigarren multzoari ekin nion. 2018ko azaroaren eta 2019ko otsailaren artean LGTB* aktibista eta kolektiboekin 10 elkarrizketa burutu nituen, eta baita berauen analisiari ekin ere. Hortik aurrera analisisian sakondu eta marko kontzeptuala induktiboki eraiki dut, tesiaren txostena osatuz.

Laburtuz, tesia burutzeko LGTB* taldeekin 6 aurre-elkarrizketa informal, talde mistoetan ari diren LGTB* ekintzaileekin 16 elkarrizketa sakon eta LGTB* aktibismoan ari diren norbanako eta taldeekin beste 10 solasaldi egin eta kodifikatu ditut. Horretaz gain, nire buruari egindako elkarrizketa bat, aholkulari taldearekin izandako bi lan-saio eta tesi-zuzendari eta beste gertuko ikerlari batzuekin egindako lau saio sistematizatu ditut.

Egitura

Ikerketa hasi bezain laster sortu zait **aholkulari taldea** osatzeko asmoa. Ikuspegi praktikotik lagungarria izateko, zerrenda zabalagoa osatu arren, azkenean lau laguni bota diet tesian aholkulari bezala parte hartzeko proposamena. Denek onartu dute gonbidapena, nahiz eta horietako batek, beste betebeharrak batzuek hala aginduta, hasi eta gutxira taldea utzi. Taldea osatu duten pertsonak soslai ezberdinetakoak dira. Haietako bik harremana dute ikerketarekin, nagusiki unibertsitatekanpora, batak berdintasun teknikari moduan urte luzeetan lan egin duelako eta besteak kooperazio eta berdintasun gaietan aritzen delako ikerlari independente gisara. Denek ala denek herri mugimenduetan esperientzia zabala dute, sektore ezberdinetan gainera: bik feminismoan egin dute ibilbide luzea, bai eta politika autonomoen esparruan. Beste batek Ezker Abertzalearekin zein herri mugimenduen sektore zabalekin (ikasle mugimendua, gazte mugimenduak...) du harremana eta laugarrena kooperazio eta garapenean, bakezale mugimenduan edo LGTB* taldeetan dabil, besteak beste. Taldeak, beraz, terminologia eta hizkera mailan elkar ulertzea ahalbidetu duen ikerketa sozialarekiko ezagutza dezentea izan du baina, aldi berean, herri mugimenduen ezagutza eta gertutasuna, izpiritu ekintzailea eta unibertsitatearekiko distantzia kritiko erabilgarria.

Aholkulari taldearekin bi lan-saio presentzial egin ditut⁵⁵, lehengoa prozesua abiatu eta berehala eta bigarrena lehen elkarrizketa-sortaren analisisia amaitu ostean. Lehen topaketan ikerketaren helburuak kontrastatu eta findu ditugu, hala nola gerora elkarrizketa-gidoia osatzeko baliagarriak izan diren gaiarekin lotutako hainbat elementu esploratu. Horretaz gain, aholkulariek elkarrizketatuen zerrenda osatzen lagundu dute, kasu askotan balizko

55 Saio hauek, testuan zehar, [AT01] eta [AT02] laburdurekin azalduko dira, lehen eta bigarren saioari erreferentzia eginez, hurrenez-hurren.

parte-hartzaileekin kontaktatzean zubi-lanak ere eginez. Bigarren topaketan ordura arte landutako kontzeptu eta ideiak azaldu dizkiet, hala nola interpretazioa egiterakoan sortutako zalantza etiko eta akademikoak. Haien iritzi eta inpresioak jaso eta elkarrizketen bigarren multzoa azaltzeko asmoa eta arrazoiak esplikatzen ostean, balizko talde elkarrizketatuen zerrenda osatzen lagundu didate halaber. Bi topaketa hauetan 2.3 atalean azalduko ditudan mapak erabili ditugu, lehen kasuan denon arten gure eztabaidaren mapa sortuz eta bigarrenean nik atondutako mapak eztabaida pizteko erabiliz.

Aholkulari taldearen jardunak, ordea, ez ditu soilik poztasunak ekarri, hainbat kezka-lerro ere ireki ditu. Hasteko, aholkulariok borondatez jardun dute ikerketan eta haietako batzuekin elkarrekotasun harremana urrutitik datorren arren (elkarrekin era ezberdinetako talde eta proiektutan aritu izan garelako) une batzuetan zaila egiten da haiei lan handia eskatzen eta deus gutxi eskaintzearen sentzazioa. Bestalde, lantaldearen erritmoa mantentzea ez da erraza suertatu, agendak koordinatzea zaila zelako baina, bereziki, ikerketak aurrera egin ahala eta are gehiago amaierara hurbildu ahala, aholkulari taldearekin kontsultatzeak epeak luzatzea zekarrelako eta hori une batzuetan ez da posible izan. Horrela, astiro-astiro, aholkulari taldearen presentzia ahulduz joan da.

Elkarrizketak

Ikerketa bi datu-sortekin eraiki dut, biak ala biak Euskal Herriko subjektuekin egindako elkarrizketez osatuak. Lehen asmoa elkarrizketa multzo bakarra egitea zen, baina, kodetzearen inguruko atalean azalduko dudan moduan, kodifikazioak berak bigarren sorta bat egiteko aukera eta beharra planteatu dit. **Lehen elkarrizketa multzoa** LGTB* izanik talde mistoetan parte hartzen duten pertsonekin egin dut, beren burua nola edo hala sigla horietako batekin identifikatzen dutenekin, nahiz eta 3.2.1 atalean azalduko dudan moduan, identifikazio hori oso arazotsua suertatu daitekeen. Guztira 16 pertsonarekin jarduteko parada izan dut. Guztiek, nola edo hala, herri mugimenduekin harreman estua dute gaur egun edo izan dute iraganean eta, ondorioz, testuan zehar aktibista, ekintzaile edo militante hitzekin izendatuko ditut, nahiz eta, kasu honetan ere, haietako bakoitzak bere burua definitzeko hitz ezberdinak aukeratuko lituzkeen.

Elkarrizketatuen ezaugarriak biltzea zaila den arren, zertzelada batzuk ematea lagungarria izan daiteke. 16 elkarrizketatuetatik 7 bat Ezker Abertzaleko partaideak dira edo izan dira, beste 6 ezker alternatibo⁵⁶ bezala izendatu dudanaren bueltan aritu izan dira, haietako pare batek 15M eta osteko taldeetan parte hartu dute. Batzuek egun Podemos alderdiarekin lotura nahiko zuzena dute edo izan dute; beste batzuek esparru autonomotik jardun izan dute, haietako pare batek mugimendu anarkistarekin harremana izanik. Mugimendu feminista autonomoan aritu diren pare bat elkarrizketatu ere badaude, eta baita kooperazio eta garapenaren inguruko ekimenetan ibilitakoak ere. Oinarrizko kristau taldeetan aritutako kide bat ere badago eta baita kulturgintza autogestionatuan nahiko era jarraian jardun duten bi pertsona. Migranteen eskubideen aldeko mugimenduekin lotura izan du batek, euskalgintzarekin harreman estua bik, sindikalgintzarekin hiruk eta mugimendu ekologistan aritu dira beste bi. Mugimendu horietan guztietan parte hartu dutela diodanean, kontuan izan behar da haietako askok talde batean baino gehiagotan parte hartzen dutela aldi berean edo beren ibilbide aktibistan hainbat kolektibotan aritu direla.

Genero eta sexualitateari dagokionez, haietako 9 emakume gisara, 6 gizon bezala eta 1 ez bitar gisa identifikatu dira, nahiz eta identifikazio horiek ezin daitezkeen hain era errazean interpretatu. Esaterako, emakumeen artean daude bollera lez identifikatu diren batzuk, eta gizonen artean jarri ditut beren burua marikatzat izendatu dutenak ere. Talde osoan hiruk trans* izendatu dute euren burua eta besteak, generoari dagokionez jaiotzan ezarritakoarekin adostasun maila ezberdinak agertu arren, zisgenerotzat hartu ditzakegu. Adinari begira, elkarrizketa egiterako unean lauk 20-30 urte bitarteko adina zuten, bostek 30-40 artekoa, lau 40-50 artean zeuden eta 50 urtetik gora, berriz, hiru. Mugimenduetan duten beteranotasuna aldakorra da parte-hartzaileen artean eta haietako gehienek oraindik ekintzaile aktibotzat dute haien burua, nahiz eta batzuk aktibismotik kanpo daudela esan duten, denboraldi baterako edo mugarik gabe.

Parte-hartzaileen testigantzak anonimizatu egin ditut. Elkarrizketa egitean pribatutasun mailaren inguruan galdetu diet guztiei eta iritziz ezberdinak azaleratu dira: batzuek ez dute bere izena jartzeko arazorik eta besteek nahiago zuten anonimotasuna mantendu. Gauzak horrela, guztien izena aldatzea erabaki dut⁵⁷.

56 Ezker alternatibo moduan definitu ditut ezkerren esparruan kokatu arren Ezker Abertzalean edo instituzionalizatutako beste ezker batzuetan (Ezker Batuan, esaterako) kokatzen ez diren hainbat talde eta kolektibo.

57 Testuan zehar, elkarrizketak haien fikziozko izenekin lagunduko ditut, irakurketa errazte aldera.

Bigarren multzoan LGTB* politiketan aktibo dauden taldeak elkarrizketatu ditut, alegia gaur egun aktibismoan jarduten duten subjektuak eta haien elkartzak. Banakoei egindako elkarrizketez gain talde-elkarrizketak ere burutu ditut, baina ez ditut talde-eztabaida bezala gauzatu. Elkarrizketa batean pertsona bat baino gehiago egon denean kolektibo bereko kideak izan dira, parte-hartzaile kopurua aldakorra izan da eta elkarrizketa gidoia antzerakoa. Hala ere, elkarrizketak taldean edo bakarka erantzutea nire gonbidapena jaso duten taldeen erabakia izan da, gehienetan logistikak eta agenda kontuek baldintzatua. Elkarrizketak taldean erantzun dituztenean, taldearen iritzia era konplexu eta, maiz, gatazkatsua jasotzea posiblea izan da, testigantza berean afera berdinari buruzko iritzi ezberdinak eta batzuetan kontrajarriak ere aurkitu daitezkeelarik. Ikerketa soziologikoan, taldeak elkarrizketatzean edo haien dokumentuak aztertzean testigantza horiek talde osoaren iritzi hartzea ohikoa izaten da, nahiz eta jakin badakigun ez dela horrela⁵⁸. Maila horretan, taldeko kide anitz elkarrizketatzeak angelu ezberdinak eskaini dizkie arazo eta afera batzuei.

Taldeen esanak aztertzerakoan ikuspegi metodologikotik erabaki batzuk hartu ditut. Alde batetik, ez ditut testigantza beraren barruan ahotsak haien artean ezberdindu, testigantza bakarrean taldeko kide batek baino gehiagok hitz egin dezakeelarik. Kasu batzuetan, iritzi kontrajarriak pertsona ezberdinen artekoak dira eta, beste batzuetan, pertsona bakarra da iritzi ezberdinak azaleratzen dituen. Azken finean, elkarrizketen helburuetako bat talde eta norbanakoei beraien jardunaren inguruan hausnartzeko aukera eskaintzea izan da, eta solasaldietan giro hori mantentzen saiatu naiz, parte-hartzaileei erraz erantzun ditzaketen galderez gain eztabaidarako gai edo zalantza iturri diren ideiak ere helaraziz. Nolabait, elkarrizketa-gidoia irekia mantentzeak elkarrizketatuei beste taldeekin solasean jarduteko aukera eman die. Elkarrizketa batzuetan azaldu diren ideia eta kezkek besteetara eramaten saiatu naiz, pribatutasuna mantenduz baina ideion mezulari lana eginez. Estrategia hori multzo honetan elkarrizketatutako taldeen ideiak elkarrekin partekatzeko zein lehen elkarrizketa-sortako parte-hartzaileen ideiak bigarrenekoei transmititzeko erabili dut.

58 Nire master amaierako lana den “Gizon taldeak eta maskulinitatearen inguruko diskurtsoak” (Azpiazu Carballo 2015a) ikerketan, esaterako, diskurtso analisiaren mugetako batzuk agerian uzten ditu gertakari honek. Amaitutako testuak aztertzean (ikerketa horren kasuan komunikatu eta manifestuak) ezinezkoa da testu horien atzean dagoen kontingentzia ikusaraztea. Ez dago jakiterik berauek pertsona bakarrak idatzi ote dituen, taldean eztabaidatu ote diren, iritzi eta postura kontrajarriak ote dauden edo gatazkarik sortu ote duen hitz edo esaldi zehazten batek ala besteak. Maila horretan, testuen irakurketa genetikoa (alegia, testuek hasieratik izan duten eraldaketa jarraitzeko aukera eskaintzen duen irakurketa) egiteko aukerarik ez dagoenean amaitutako produktua aztertzen dugu. Gizarteak jasotzen duen produktua hori izanik, zentzua du berau aztertzeak baina, lan horretan ere argi utzi dut, emaitza hori ezin da taldearen iritzi bezala aztertu, baizik eta gizarteak jasotzen duen produktu diskurtsibo bezala. Elkarrizketa hauetan, ordea, talde barruan gai baten edo bestearen inguruan sortu daitezkeen iritzi eta postura ezberdinak azaleratu dira, horrek testigantzei aberastasun handia eman dielarik.

Bestalde, atal honetan ere elkarrizketak anonimizatu egin ditut⁵⁹. Kasu gehienetan elkarrizketatuek ez dituzte haien bizitza pertsonaleko elementuak elkarrizketetara ekarri, eta apenas inork ez du aipatu uneren batean esandako zerbait elkarrizketatik kanpo uzteko desioa. Kasu honetan, anonimotasuna mantentzeko interesa nire iritzi propioek bultzatu dute nagusiki. Mugimenduari era zabalean begiratzekoan ideia ona iruditu zait irakurleak ez jakitea nork esan duen zer, izan ere, herri mugimenduak ez dira dinamika sozial kaltegarrietatik at dauden espazioak eta, beste gizarte-arlo batzuetan bezala, esatarien inguruan ditugun aurreiritziek ideia bat edo beste aldeztatik gutxiestera eraman gaitzakete. Horregatik jo dut interesgarritzat iritziak era anonimoan jasotzea. Ez bedi gaizki interpretatu, niretzat ezin dira esanak eta esatariak banatu, uste dut ideiek badutela materialtasun bat eta beren testuinguruan ulertu eta irakurri behar direla. Baina kasu honetan egokia iruditu zait, eztabaida sustatu eta sakontze aldera, testigantza horiek zenbaki hutsez adieraztea.

Kokapenaren inguruko atalean azalduko dudak bezala, hainbat elementu direla medio, ezin dut esan talde eta kolektiboen mapa zehatza egin dudarik. LGTB mugimenduari gainbegirada osoa egin diodala esatea eragozten du, besteak beste, egon litezkeen talde denak ez egoteak. Instituzioekin harreman zuzena duten taldeak edo beraien lana batik bat zerbitzuen kudeaketara zuzentzen dutenak era deliberatuan kanpo utzi ditut. Berriz diot, horrek ez du esan nahi ez dudarik talde horien eta euren kideen jardun aktibista aitortzen; lan honen helburua ez da LGTB* politiken baitako aktibismoak epaitzea. Are gehiago, jakin badakit talde horietan dauden asko aktibismotik datozela edo/eta aktibismoan jarraitzen dutela, bai LGTB* ekintzailertan bai beste eratako ekimenetan ere. Baina lanari koherentzia eman asmoz, beraien jarduna nagusiki kaleko aktibismoan garatzen duten taldeak elkarrizketatu ditut. Edonola ere, elkarrizketatuen artean badira instituzioekin harreman oso ezberdina duten talde eta pertsonak. Laugarren kapituluaren zabal tratatuko dudak instituzionalizazioaren inguruko eztabaida ezin da barruan/kanpoan bikora mugatu, eta ikerketan parte hartu duten gehienek nire iritzi hau konpartitzen dutela esango nuke. Bestalde, agenda eta denbora kontuak medio, ez dut talde batzuekin hitzordua egiteko aukerarik izan eta, horretaz gain, kolektibo batzuk eraldaketa prozesuan zeuden, edo jada desagertuak kontaktatu nituenen. Baziren sortu berriak ziren ekimenak ere, oraindik beraien espazioa egituratzen ari zirenak.

59 Testuan zehar “1. kolektiboa”, “2. kolektiboa”... bezalako erreferentziak erabiliz aurkeztuko ditut testigantzak.

Bi elkarrizketa-sortetan erabilitako gidoia sasi-egituratua izan da: lehen kasuan aholkulari taldearen laguntzaz osatu dut eta bigarrean, lehen elkarrizketa multzoak sortutako kodeak kontuan hartuz. Bietan gai nagusi batzuk zerrendatu eta hortik abiatuz galderak zehaztu ditut, baina elkarrizketetan zehar itaun berriak gehitu eta ordenez aldatu dira maiz. Galdetegiarekiko malgutasun horrek elkarrizketa batean azaldutako gai berriak hurrengo solasaldietan aipatzeko aukera eskaini dit. Horretaz gain, parte-hartzaileek gidoian ez zeuden galderak proposatu dituzte edo emandako erantzunen bidez itaunen ordena irauli dute. Kasu guztietan, ahal izan dela, elkarrizketatuen hitz jarioa eta beraien arteko solasa ez eteten saiatu naiz.

Elkarrizketa hauek egin eta transkribatu ostean parte-hartzaile denei bidali dizkiet, haiek gauzak editatu edo ezabatzeko aukera izan dezaten. Kasu batzuetan ez dituzte ukitu edo zuzenketa gramatikal edo ortografikoak egin ditugu bakarrik. Beste kasu batzuetan edizio ikusgarria egin dugu eta beste batzuetan ikusezina. Edizio ikusgarriaren kasuan parte-hartzaileek baimena eman dute haien pasarte editatuak eta baita originalak mantentzeko, eta beraz ezberdintasun hori nolabait interpretatzeko ere. Edizio ikusezinen kasuan editatutako testua da irakurleok ikusi dezakezen bakarra. Gehienetan anonimotasuna, norbere erosotasuna eta besteekiko errespetua egon dira jokoan edizio ikusezina egin dugunean; edizio ikusgarriaren aldiz, iritzi aldaketak eta azalpen egokiagoak emateko gogoia. Edizio lan hau elkarrizketa guztiak egin ondoren egin dut eta, beraz, elkarrizketaren dataren eta edizioaren unearen artean kasu batzuetan bi urteko epea egon da. Esan gabe doa, azaldu dudaren ildotik, ezinbestekotzat jo dudala horrela lan egitea, elkarrizketatuak ez baititut informatzaile huts bezala ikusi, nahiz eta jakin badakidan haien hitzak interpretatu eta josteko ardura nirea izan dela.

Tesiko elkarrizketetan jasotakoek, nola edo hala, narrazio kolektibo eta nahasia sortzen dute. Mugimenduen politiken ikuspegitik, uste dut lagungarria dela narraziook norbanako indibidualei zuzen-zuzenean ez egozte, bakoitzak esandakoaren atzean “nor” dagoen bilatuz, baizik eta espazio sozial konkretu batean sortzen diren, edo sor daitezkeen, ideia eta diskurtso kopurutzat hartzea. Hala ere, esandakoak hobeto kokatze aldera, egindako elkarrizketen ezaugarri batzuk biltzen dituen taula bat osatu dut elkarrizketa multzo bakoitzarentzat.

1. elkarrizketa multzoa: LGTB* esperientzia herri mugimenduetan		
Izena (fikziozkoa)	Adin tartea (gaur egungo adinaren arabera)	Deskribapena edo parte hartu duen kolektiboen profila (Beren buruaz emandako deskribapena, eman dutenean, <i>kurtsiban</i> dauden esaldiak dira)
Markel	30-40	Ezker Abertzalea, ikasle mugimendua...
Ernesto	30-40	<i>Mutil marika, Eskoriatza, herri mugimenduetako aktibista.</i> Gazte mugimendua, okupazioa, Ezker Abertzalea, aisialdi taldeak, kultura gintza.
Lía	40-50	<i>Mujer, transexual y lesbiana. Pero ante este sistema binarista se declara, también, 'extrangénera'.</i> Ekologia, okupazioa, errefuxiatuen aldekoa, antikapitalismoa, trans* despatologizazioa.
Ekain	40-50	Oinarrizko asistentzia taldeak, GKE, Gay mugimendua (iraganean).
Xune	30-40	Ikasle mugimendua, aisialdia, euskalgintza, Ezker Abertzalea, LGTB mugimendua (puntualki), feminismoa (puntualki).
Marta	50-60	Mugimendu ekologista, euskalgintza, Ezker Abertzalea, kultura gintza.
Anais	30-40	<i>Militante feminista.</i> Feminismoa, GKE.
Alaitz	40-50	<i>Feminista eta lesbiana, sindikalismotik aritzen naiz langile borrokan.</i> Sindikalismoa, Ezker Abertzalea
Pili	50-60	Feminismoa, ezker alternatiboa...
Joseba	40-50	Ezker alternatiboa, antimilitarismoa, GKE, gay-queer mugimendua...
Arane	30-40	<i>Sexologa, aktorea, berdintasun teknikaria eta trans* aktibista.</i> Ezker alternatiboa, transfeminismoa...
Itoiz	20-30	<i>Euskal Herria(K), herri mugimenduko kidea.</i> Gazte mugimendua, ikasle mugimendua...
Mikel	20-30	<i>Ernaiko militantea.</i> Gazte mugimendua
Nadja	30-40	Okupazioa, politika libertario eta autonomoak, feminismoa, langile mugimenduak...
Kepa	50-60	<i>Hombre marica, 56 años, activista.</i> Okupazioa, kultura gintza, komunikazio alternatiboa, errepresioaren aurkako mugimendua, gay mugimendua (iraganean), HIESaren inguruko politikak.
Sara	50-60	Mugimendu feminista, lesbianismo politikoa

1. taula: Lehen elkarrizketa multzoa: parte-hartzaileen zerrenda eta ezaugarriak (norberak egina).

2. elkarrizketa multzoa: LGTB* politikei gainbegirada					
Kodea	Eragin Eremua	Taldea nola aurkezten den	Elkarrizketa banaka edo taldean	Instituzioekin harremana?	Soldatapeko langilerik al du?
01 Kolektiboa	Lokala ⁶⁰	Marika taldea	Banaka	Ez	Ez
02 Kolektiboa	Lokala	Homofobiaren aurkako taldea	Binaka	Puntuala ⁶¹	Ez
03 Kolektiboa	EAE	LGTB	Binaka	Puntuala	Ez
04 Kolektiboa	Estatala	Feminista Lesbikoa	Banaka	Puntuala	Bai
05 Kolektiboa	Lokala	Transmaribibollo	Binakakoa	Ez	Ez
06 Kolektiboa	Ez-aktiboa	LGTB-Gay-Marika	Banaka	-	-
07 Kolektiboa	Probintziala	LGTB+	Banaka	Egonkorra	Bai
08 Kolektiboa	Lokala	Lesbianista/Feminista	Talde osoa	Ez	Ez
09 Kolektiboa	EAE	LGTB/Marika/transfeminista	Talde osoa	Puntuala	Bai
10 Kolektiboa	EAE	Transfeminista	Bikoa	Puntuala	Ez

2. taula: Bigarren elkarrizketa multzoa: parte-hartzaileen zerrenda eta ezaugarriak (norberak egina).

Auto-elkarrizketa

Nire buruari egindako elkarrizketa bat ere burutu dut, lehen elkarrizketa multzoaren eta bigarrenaren artean. Luisa Passerini historialari italiarraren “Memoria y utopía” (2006) liburuaren bidez ezagutu nuen norberaren historia (frantsesez “ego-histoire”) terminoa. Antza denez, antropologian auto-etnografia bezala, ahozko historiaren esparruan ohikoa bihurtzen ari da, baina kasu honetan, subjektu ikerlariak ez du bere historia propioa ikertzen datu

60 Lokala esaten dudanean esan nahi dut beraien jardun gehiena beraien herri, hiri edo auzora bideratzen dutela. Horrek ez du esan nahi ez dutenik loturarik beste talde batzuekin, esaterako plataforma edo koordinadoretan parte hartuz.

61 Puntualak adierazi nahi du talde horrek harremana duela ekimenen bat elkarrekin antolatzen duelako bere herri, hiri edo auzoko instituzioren batekin, esaterako ospakizunen bat (Ekainak 28, Maiatzak 17...) edo diru-laguntzaren bat jasotzen duelako ekimen zehatzetarako instituzioren baten eskutik (udaletxe, diputazio, museo...). Diru-laguntza horiek ekimen zehatzetara bideratuak egon ordez taldearen iraupena bermatzera bideratuak daudenean harreman hori egonkortzat jo dut.

gehiago izateko. Ikerlariaren historia propioa aztertuz bere motibazioak esploratzen dira, ikerketa gaiarekin duen harremana hobeto ulertu asmoz: zergatik planteatu du galdera bat eta ez bestea? Zergatik nahi du gaia ikuspegi zehatz batetik enfokatu eta ez beste edozeinetatik? Guztiok dugu iragana, guztiok dugu memoria, eta ikerlariak ere berea aztertu behar du. Izan ere, behin ikerketa martxan jarrita, gure eta beste parte-hartzaileen arteko elkarrizketa izango da jolasgunea, eta komeni zaigu gure kokaleku propioa (oraingoa, historikoa eta bien artean kokatzen den memoriarena) esploratzea.

Sorpresa atsegina hartu dut ideia hori ezagutzean. Tesi honetako irakurketa asko eta asko bezala, landa lana egin ostean edo bitartean heldu zait irakurgai hau ere, eta zuzendariari horrelako zerbait egitea planteatu diot: beste parte-hartzaileekin erabilitako elkarrizketa gidoi bera erabiltzea berak ni elkarrizketatzeko. Hasieratik ez dugu elkarrizketak emandakoak tesian datu bezala erabiltzeko asmorik, kezka ezberdina izan da: “datu” horiek tesiaren parte dira jada, ikerlariaren (nire) memoria azaleko edo ezkutukoaren parte diren heinean, eta beraz hobe dugu azalera ekartzea. Gainera susmoa dugu ikerketaren inguruko nire motibazio eta desioak hobe ulertzen lagundu izan digula. Elkarrizketak, konfiantza giroan, dezenterako eman du: ageriko eta ezkutuko minen azalratzea, bitxikeria eta pasadizo ugariren kontakizuna, oroitzapen ederrak eta joandako lagunenak, borroka galdu ugari eta irabazitako bat edo beste.

Elkarrizketa horretatik abiatuta hainbat ariketa egin ditut nire aktibismoa hasi nuen garai horiek gogora ekartzeko: egutegi bat osatu dut nire bizitzan garrantzitsuak izan ziren hainbat une kokatzeko, haietako asko aktibismoarekin, musikarekin edo politikarekin lotuak. Kutxa zahar batean gordeta nituen kartel eta idatzi zaharrak berreskuratu ditut eta baita “Arrakala” dokumentalari (Topatu eta Bilgune Feminista 2014) beste ikustaldi bat eman, besteak beste. Norberaren memoriaren mapa eraikitzeke ariketak ikerketan nabigatzeko moduak ere aldatu dituelakoan nago, galdera batzuk irekiz edo gauzak fokatzeko aukera berriak eskainiz.

Analisa

Analisi Situazionalari dedikatutako epigrafean azalduko ditut elkarrizketen analisia egiteko erabilitako prozedura eta eginbehar horretan sortutako zalantzak. Hala ere, horren inguruko zehaztapena egin nahiko nuke aurrera jarraitu aurretik. Hirugarren eta laugarren kapituluetan azaltzen den analisiaren txostena antolatzerako orduan bi estrategia narratibo ezberdin erabili ditut. Talde mistoetan ari diren LGTB* subjektuen bizipenak aztertzen dituen hirugarren atalean segidako narrazio bakarra egin dut, parte-hartzaileen testigantzak

nire analisiarekin eta iturri teorikoekin batera paratuz. LGTB* aktibisten eta taldeen lekukotasunak biltzen dituen laugarren atalean, aldiz, bestelako kontakizun ereduak erabili dut: lehenengo elkarrizketetatik ateratako zatiak gaien arabera ordenatu ditut eta ondoren, bigarren azpiatal batean, horiei buruzko interpretazio sakonagoa egin dut iturri teorikoen laguntzaz.

Kontaketa egituratzeko bi moduek fruitu ezberdinak eskaini dituzte. Hirugarren elkarrizketarekin bizi izandako enpatia eta haien narrazioen tonu biografikoak testigantza oso anitzak jasotzea ekarri du, haien artean loturak egitea uneoro nire eskuetan egon dela sentitu dudalarik. Lotura horiek, kasu bakoitzean teoria sozialen laguntza handiagoa edo txikiagoa erabiliz egin ditut eta, beraz, amaieran ideia nagusien laburpen txikia egin dut, baina ez dago aparteko interpretaziorik testuan zehar dagoenaz gain.

Laugarren atalean, aldiz, ia-ia kolektiboen arteko elkarrizketa edo irudimenezko mahai ingurua jarraitu daiteke, emandako iritzi eta testigantzek elkar-osatu edo zalantzan jartzen dituen narrazio jarraitua. Ziur aski, hori dela-eta, nire ahotsa faltan botatzea posible da. Honetarako arrazoi nagusia mugimenduetan bizi-bizian dauden eztabaida batzuekiko errespetua eta agian larregizko prudentzia ere izan dira. Taldeen artean iritzi ezberdinak azaleratu dira eta baita ere gai batzuen inguruko gatazkak sortzen dituen min eta zailtasunak. Taldeen hitzak nire interbentzio ahalik eta txikienarekin aurkeztu eta ondoren nire interpretazioa egiteak bigarren zati hori nire ideia eta irakurketa propioei egozteko errazago egin dutela esango nuke.

2.2.2 atalean azalduko dudako moduan, bi elkarrizketa-sorta hauek (3. eta 4. kapituluaren oinarria izan direnak, hurrenez-hurren) ezberdinak izan dira haien artean hainbat zentzutan. Horren ondorioz, analisia aurkezteko modua ere aldatu dut batetik bestera. 3. kapituluaren, beraz, elkarrizketen zatiak, analisia eta iturri teorikoak elkarren alboan jarri ditut uneoro eta 4.ean, aldiz, elkarrizketen zatiek osatutako narrazioaren ostean kokatu dut iturri teorikoen laguntzaz egindako analisia.

Ikerketaren aspektu nagusiak laburturik, hurrengo orrietan ezagutzaren inguruko hausnarketetatik abiatuko naiz, ikerketa sozialari buruz ikuspegi teoriko feministek eta beste ikuspegi kritiko batzuek esandakoen laguntzaz nire ikuspegia kokatu asmoz. Horren ostean tesian erabilitako metodo nagusia azalduko dut, Analisi Situazionalaren genealogia txiki bat eginez, burututako lana hobeto uler dadin.

2.2 Ezagutza, kokapena eta mapak marrazteko talaiak

Badira hamarkadak pentsamendu kritikoak jakintzaren ekoizpen prozesuei atentzioa eskaini diela. Ukaezina da zientziak mendebaldeko gizarteetan XVII. mendetik aurrera paper zentrala izan duela, aro modernoarekin batera erlijioa ordezkatu eta egiaren instituzio nagusi bilakatzera heltzeraino (Harding 1996; Haraway 1995). Zientziarena, gizarte harremanak eta munduarekiko loturak kritikoki pentsatzen dituzten pentsamendu korrante marxista, anarkista, feminista edo dekolonialek ekidin ez duten eztabaida da, izan ere gaur egungo testuinguru teknokapitalista, patriarkal eta arrazistaren nondik-norakoak ulertu eta eraldatu nahi dituen orok, pentsamendu zientifikoak, bere diziplina ugariak eta bere instituzioek egia ekoizteko dituzten moduak zehaztasun handiz aztertu beharko ditu. Zientzia modernoari egin zaizkion berrikuspen kritiko guztiak hemen laburtzea ezinezkoa den heinean, pentsamendu feministaren lerroetara mugatuko naiz, ikuspegi partikularra izan arren beste ikuspegiak barne hartzeko edo, bederen, kontuan hartzeko gaitasuna azaldu duelako. Baliatuko dudan zientziaren berrikuspen eta kritika feministak kolonialismoa eta harreman ekonomikoen afera oso presente izan ditu. Hurrengo orrietan, pentsamendu lerro horri jarraituz, zientziaren kritika feministaren elementu orokor batzuk zirriborratuko ditut aurrena, tesirako ontzat emandako ikuspegi metodologikoa azaldu eta, azkenik, horrek ikerketaren fase eta dimentsio ezberdinetan nola eragin duen esplikatu.

2.2.1 ZIENTZIARI KRITIKA FEMINISTAK ETA IKUSPEGIAK

Hainbat ikerlari eta pentsalarik zientziaren ekoizpenei ikuspegi feministatik begiratu izan diote. Diziplinaz-diziplina xehetasun ezberdinak kontuan hartu behar izan ditu berrikuspen kritiko horrek eta azentua ekoizpen zientifikoaren dimentsio ezberdinetan jarri. Medikuntzak emakumeen gorputza eta gaixotasunak nola katalogatu dituen, laborategi kimikoetan dauden emakumeen kopurua zein bertako lan dinamikak generoaren arabera nola antolatzen diren, unibertsitateetako zientzia politikoetako departamenduetan nork eta nola aukeratzen dituen intereseko gaiak, biologiak espezieen eta sexuen arteko banaketa irudikatzerako moduak eta abar, esparru ezberdinetan generoak eta beste botere-ardatzek nola eragiten duten aztertzeke saiakerak dira. Beste hamaika egon daitezke eta denek dute beren interes eta partikularitasuna.

Aitzitik, beste ikerlari batzuen asmoa zientziari bere osotasunean edo, behintzat ikuspegi zabalago batetik, begiratzea izan da. Margrit Eichlerrek (1991), adibidez, ikerketarako metodo ex-sexistak proposatzeko asmoz, diziplina ezberdinetan behatu daitezkeen ikerketa prozedura sexistak identifikatu eta klasifikatu ditu. Lau arazo nagusi eta beste hiru azpi-arazo katalogatu ditu Eichlerrek. *Androzentrismoa* zientziaren jarduna eta ikerketa objektua gizonetzkoengan zentratzea da, adibidez ikerketa medikoa egiten denean gizonak eredu bakartzat hartuz beste gorputz batzuetan gaixotasunek hartu ditzaketen portaerak esploratzeko utziz. Bihotzekoarena zientziaren androzentrismoaren adibide ezagunena da: bere sintomak gizonen perspektibatik aztertu eta deskribatu izanak gaixotasuna emakumeen kasuan identifikatzeko zailago bihurtzen du, horrek dakarren arriskuarekin. Kritika hori eguneratuz, gaur egungo androzentrismoa zis-zentrismoa ere badela esan dezakegu: hormonak hartzen dituen trans* jendeak ere, beren tratamenduak hainbat gaixotasunekin izan dezakeen lotura aztertzeke dagoela salatzen du. Bigarren arazoa *larregizko generalizazioa* da, alegia, genero bakoitzaren barruan gertakari edo ezaugarri bat orokortu daitekeelako ustea, gizon edo emakume batzuen kasuan behatzen den ezaugarri bat guztiei zabalduz. Gizarte-zientzietan, esaterako, begirada interseksionalak (ikus marko metodologikoa) zalantzan jarri du emakume kategoria (eta gizon kategoria) beste aldagai batzuk kontuan hartu gabe orokortu daitekeenik.

Hirugarren arazoa *generoarekiko itsutasuna* da, hots, ikerketak egiterakoan generoari ez erreparatzea. Adibidez, EHUko ikasleek enplegura sartzeko dituzten zailtasunak generoa kontuan hartu gabe aztertzen baditugu, ziur aski arazoa determinatzen duten elementu asko galduko ditugu. Laugarrena *estandar bikoitzak* ezartzea da, hots, genero bakoitzaren inguruan espektatiba ezberdinak eraiki eta, ondorioz, estereotipo sexistak erreproduzitzea. Kasu,

ugalkortasuna aztertzerakoan emakumeen ezaugarri, nahi eta egoerei soilik eskaintzen zaie arreta, umeak izatea emakumeen gauza bailitzan. Eichlerrek lau arazo nagusi hauen ondorio diren beste hiru arazo ere zerrendatzen ditu: *sexuaren berezkotasuna* (sexua eta generoa nahastuz sexu batean izendatua izan denari bere genero sozialaren inguruko ezaugarriak egozte), *familismoa* (familiari gizartearen antolaketa eredu naturala bailitzan tratatzea) eta *dikotomia sexuala elikatzea* (sexuaren izaera bitarra eta horren generoarekiko konkordantzia naturalizatzea). Arazo hauetako bakoitza presenteago dago zientzia diziplina batzuetan besteetan baino, denborarekin eta testuinguruaren arabera aldatzen da eta besteekiko harremanean dago (adibidez, zientziak ez badu sexu bitarra ekoizten, ezin du gero orokortu).

Sexismoak zientziari dakarzkion arazoak hauek eta askoz gehiago dira. Areago, zerrenda osatu eta eguneratu beharrekoa litzateke, izan ere, badira urte batzuk Eichlerrek mailaketa hau proposatu zuenetik eta hainbat praktika aldatu dira. Adibiderako, ikerketa ugaritan, zuzentasun politikoagatik edo zintzotasunez, generoa aldagai moduan tratatzen da baina horrek genero bitarra are gehiago naturalizatzen du. Baina, arazoen zerrenda zabaltzea bezain galdera interesgarria iruditzen zait konponbideena: zein da arazo hauei aurre egiteko modua? Nola kokatu gaitezke ikuspegi feminista kritikotik zientziaren aurrean?

Sandra Hardingek (1996) hiru kategoriatan sailkatu ditu zientziari egindako kritika epistemologiko feministak. Hasteko, *Enpirismo feministak* sexismoa eta androzentrismoa konpontzeko metodo zientifikoak berez eskaintzen dituen tresnak erabiltzea aski dela uste du edo, behintzat, paradigma hori abiapuntutzat hartzen du. Ikuspegi honen aburuz, subjektu orok, metodo zientifikoa zintzoki eta era zorrotzean aplikatzen badu, ezberdinkeriarik gabeko zientzia sortuko du. Adibidez, metodo zientifikoan ondo trebatutako emakume gehiago zientzian parte hartzeak bere sexismoa murriztu dezake. Hainbatek ikuspegi honi sakontasun falta egotzi diote, metodo zientifikoa bera nola eraiki den aztertzen ez duen heinean praktika zientifiko kanonikoak ontzat ematen dituelako eta sexismoa “praktika txar” bezala sinplifikatu. Hardingen kategorizazioan, bigarrena *ikuspegi feministaren paradigma* litzateke:

El punto de vista feminista tiene su origen en el pensamiento de Hegel sobre la relación entre el amo y el esclavo y en la elaboración de este análisis que aparece en los escritos de Marx, Engels y el teórico marxista húngaro G. Lukacs. En pocas palabras, esta propuesta sostiene que la posición dominante de los hombres en la vida social se traduce en un conocimiento parcial y perverso, mientras que la posición subyugada de las mujeres abre la posibilidad de un conocimiento más completo y menos perverso (Harding 1996:24).

Ikuspegi feministaren paradigmak, beraz, botere egoera batean zapalduen posizioa betetzen duten subjektuen begirada eta ikuspegiaren posizio berezia aldarrikatzen du. Marxismoan jatorria duen ideia hori berreskuratu dute hainbat feministak ere, planteamendu ugari sortuz. Feminista marxistek klasea eta generoa kokatu dituzte haien analisi eta ikerketetan, baina marxistak ez ziren feminista askok ere paradigma hau erabili dute emakumeen esperientzia aldarrikatzeko, kasu batzuetan planteamendu reifikatzaile eta larregizko orokorkerietan eroriz. Ikuspegi honi egin zaion kritikarik handiena, hain zuzen ere, zapalduetako subjektu denen esperientzia berdintzearena izan da eta subjektu batzuen “erromantizazioa” egitea, alegia, ezaugarri zehatz batzuk betetzen dituzten norbanakoei begirada zehatz (eta “on” bat) esleitzea. Autore askok emakumea eta feminista izatea gauza bera ez direla adierazi dute (De Lauretis 2000) eta, beraz, ikuspegiaren paradigma kontu handiz tratatu beharreko ideietan oinarritzen dela. Geroago bueltatuko naiz ideia hauetara.

Hardingen sailkapenean hirugarren begirada *posmodernismo feministarena* da. Korronte honek, iturri filosofiko ezberdinetatik edanez, subjektibotasunaren inguruko ideia berriak planteatzen ditu, nortasunaren mugak zalantzan jarriz. Horrekin batera modernitateari kritika sakona eginez, zientzia bera aro historiko horren eraikuntzat hartzen dute eta, beraz, kontingentetzat. Ikuspegi horretatik, *empirismo feminista* objektibotasunaren ideia modernoan oinarritzen den heinean ez doa nahikoa sakon zientzia birpentsatzerakoan eta *ikuspegiaren paradigmak* larregizko sinplifikazioa dakar, subjektuaren irudi bateratu eta bitarra (zapaltzailea/zapaldua) planteatzen duelako. Hardingek Donna Jean Haraway aurkezten du paradigma honen erakusle nagusi bezala. Hurrengo orrietan bere pentsamenduaren inguruko lerro batzuk trazatuko ditut.

Zientziaren azterketa kritikoa egitea Harawayren helburua izan da bere ibilbide osoan zehar. Diziplina “gogorren” ikaslea izanda (zoologia eta filosofia ikasi zituen eta doktoregoa biologian egin ere), bere konpromiso feministak kokapen oso berezia eman zion zientziaren inguruan hitz egiteko. Haraway zientzia goitik behera birpentsatzearen aldekoa da eta, horretarako, zientzia, teknologia eta filosofiaren inguruko pentsalarien ideiak, zientzia fikzio feminista dekoloniala eta bere esperientziazko propioa baliatzen ditu. Bere lanetik berreskuratu nahi dudana lehen aspektua objektibotasunarena da: zientziaren subjektu eta objektuaren arteko harremanaz sakon aritu dela esango nuke, modernotasunean objektibotasunak hartzen dituen formak kritikatzuz:

Esta es la cultura dentro de la cual los hechos contingentes – el estado real del mundo – pueden establecerse con toda la autoridad de la verdad trascendental, pero con ninguno de sus problemas. Esta auto-invisibilidad es la forma científica específicamente moderna, europea y masculina de la virtud de la modestia. Esta es el tipo de modestia que compensa a quienes la practican con la moneda del poder social y epistemológico. Tal tipo de modestia es una de las

grandes virtudes fundadoras de lo que llamamos modernidad. Esa es la virtud que garantiza que el testigo modesto sea el ventrílocuo legítimo autorizado del mundo de los objetos, sin agregar nada de sus propias opiniones, de su influenciante corporeidad. De esta manera, está dotado con el importante poder de establecer los hechos. Ostenta testimonio: es objetivo, garantizando la claridad y pureza de los objetos. Su subjetividad es su objetividad (Haraway 2004:42).

Mendebaldeko kultura zientifikoan absentzia bat nabari du Harawayk. Zientzialariaren figura “lekuko apal” bezala irudikatu dela salatzen du: zientzia erabiltzen duen entitate neutroa, beregandik ezer jartzen ez duena, metodo zientifikoak erabat desagerrarazi duena eta, Harawayk dioen moduan, bere subjektibotasuna bere objektibotasuntzat duena. Izan ere, zientzia modernoaren dogma nagusia objektibotasunaren da: ustez, gertaera bat zientifikoki probatuta baldin badago, gertaera horri buruzko ikerketa hamaika aldiz errepikatu ahalko genuke, ikerlaria beste horrenbestez aldatuz, eta emaitza berdina lortuko genuke. Baieztapen honek ikerlaria aldagarria, bigarren mailakoa eta objektiboa dela aurreikusten du: zientzialaria, ikertzen ari denean, absentzia bat besterik ez da, metodo zientifikoaren izpirituak erabat hartu duen sasi-gorputza. Aitzitik, oso esperimentu sinpleetan soilik bete daitekeen objektibotasun zientifikoaren kontzepzio honek alde zuzeneko beste baldintza bat darama berarekin. Ontzat eman beharreko metodo zientifiko hori *berez* objektibotzat jo behar dugu, eta ez une historiko zehatz batean, subjektu multzo zehatz batek finkatutako arau bildumatzat. Honela, zientziaren objektibotasuna amaigabeko espiral batean murgiltzen da: zientzialaria objektiboa da metodoa jarraitzen badu eta metodoa objektiboa da zientzialariak sortua dela ahazten baldin badugu. Zientziak emakumeen gorputza nola eraiki duen aztertzen duen “Body/Politics” liburuaren sarreran bere egileek dioten moduan, *“gorputzaren inguruko politika feminista batek aldaketaren aukera mahai gainean jartzen du, emakumeen gorputzen definizio ustez «zientifikoan» naturaltasun eta ekidinezintasuna zalantzan jarriz. Horretarako, zientziaren diskurtso eta narratibek generoa eraikitzen dutela erakusteaz gain, deskubritu eta behatzen duten genero kategorio horren beraren dependentzia dutela frogatuz”* (Jacobus, Keller, eta Shuttleworth 1990:7). Diskurtso zientifikoek errealitateari buruz eraiki dituzten narrazioak ezinbestekoak dituzte diskurtso zientifikoa bera posible izan dadin.

Epistemologo feministek salatu duten zientzialariaren absentzia subjektuaren eta objektuaren arteko banaketa hertsian oinarritzen da, hots, ikerlaria ezin da inoiz ikerketa objektu bilakatu eta, hala denean, ikerlari izateari utzi eta beste batek ikertu dezan utzi behar du edo, kasurik onenean, bere adimenean banaketa argia sortu une baten eta bestearen artean. Zientzia “purueta” arazotsua den banaketa hori zientzia sozialetan sostengatzea are zailagoa da. Soziologia, antropologia edo zientzia politikoan ikerlaria beti dago era batean edo bestean ikertzen dituen arazoekin inplikaturik eta horrek objektibotasunaren begirada zurruna

zalantzan jartzen du halaberrez. Baina Harawayk, beste hainbat epistemologo feministak bezala, argi du objektibotasunaren ideia zalantzan jartzea ez dela nahikoa, zerbait gehiago behar da zientziaren begirada kritikoa erabateko erlatibismoan erori ez dadin. Estatubatuarrak errealitatearen nolabaiteko defentsa egiten du bere idatzietan⁶² eta zientziaren inguruko ikuspegi kritikoa feministari erronkak proposatzen dizkio:

Así, creo que mi problema y «nuestro» problema es cómo lograr simultáneamente una versión de la contingencia histórica radical para todas las afirmaciones del conocimiento y los sujetos concedores, una práctica crítica capaz de reconocer nuestras propias «tecnologías semióticas» para lograr significados y un compromiso con sentido que consiga versiones fidedignas de un mundo «real», que pueda ser parcialmente compartido y que sea favorable a los proyectos globales de libertad finita, de abundancia material adecuada, de modesto significado en el sufrimiento y de felicidad limitada (Haraway 1995:321).

“Conocimientos situados: la cuestión científica en el feminismo y el privilegio de la perspectiva parcial” (1995) testu osoa bezala, paragrafo hau trinkoa bezain esanguratsua da. Harawayk erronka ugari planteatzen ditu. Hasteko, ikuspegi feministatik garatzen den praktika zientifikoa ezagutza oro kritikoki aztertzeke gai izan behar da, egiazat ematen ditugunak zergatik diren (edo nola bilakatu diren) egi aztertzeke. Zentzu honetan bere proiektuak bat egiten du ezagutza zientifikoa desmuntatzea helburu duen Foucaulten egiaren genealogiarekin (Foucault 2009; 2005; 2008), baina, Braidottik azaltzen duen moduan (Braidotti 2018:65), Foucaulten ahalegina genealogikoa da eta Harawayrena, kartografikoa. Egungo zientziara heldu ahal izateko pentsamendu zientifikoaren genealogia ezinbestekoa den arren, gaur egun (tekno)zientziak jokatzen duen papera aztertzeak uneko errealitatea eskaneatzea eskatzen du.

62 Erreala denaren begirada paradoxiko hori Haraway naturari berari buruz duen ikuspegiaren ondorio da. Azken finean, bi gauza ezberdin dira natura beti kulturaren bidez jasotzea edo natura bera existitzen denik zalantzan jartzea. Lehengoan gizaki moduan munduan dugun lekua aitortzea dakar, bigarrenak gizakia guztiaren erdigunean kokatuko luke eta bere esperientzia (kulturala) izaki eta gauza guztiei hedatuko lioke, inperialismo antropologikoa eginez. “*Si el mundo existe para nosotros como «naturaleza», esto designa un tipo de relación, un logro entre diversos actores, no todos ellos humanos, no todos ellos orgánicos, no todos ellos tecnológicos. En sus manifestaciones científicas, así como a través de otras formas, la naturaleza está construida por seres humanos, si bien no completamente; se trata de una construcción entre humanos y no-humanos. Es éste un enfoque muy diferente de la observación posmoderna de que todo el mundo está desnaturalizado, reproducido en imágenes o replicado en copias*” (Haraway 2019:36).

Pentsalari estatubatuarrak eginbeharren zerrendara dakarren bigarren ideia zientziaren *praktika* kritiko feministak sortzearen beharra da: subjektu ikerlariok erabiltzen ditugun teknologia semiotikoak agerian jartzeko moduko praxi zientifikoa behar dugu. Geroago sakonduko dut aspektu honetan, baina argi dago praktika hori eraikitzea ez dela, besterik gabe, ikerlari moduan edo subjektu sozial moduan dugun kokapena edo begirada aitortzea. Zientzia modernoak ikerlaria ezkutatzeko ahaleginak egin ditu, zientzialari neutro horren atzean ezkututzen den subjektu europar-anglosaxoi, ekonomikoki ahaldun eta gizonezkoa ikusezin bihurtuz. Arazo horri buelta emateko modua ezin da izan subjektu oro eta bere ezaugarriak agerian jartzea bakarrik. Horretaz gain eta, batzuetan horren kontra ere, ezagutza sortzeko prozesuak zehaztasunez aztertu behar dira, hala nola zientzia ekoizten duten espazioetako dinamika, jakintza baliozkotzeko ditugun mekanismoak eta abar luze bat.

Hirugarren eginbeharra *konpromisoa* da. Zientziaren ikuspegi positibistak baiesten duen errealitatea objektiboa ezinezkoa dela onartzen du Harawayk eta ez dagoela atzera egiterik objektibotasun moderno horren ametsera. Erlatibismoa saihestu nahi badugu, ordea, objektibotasun berria eraiki beharko dugu eta, horrekiko konpromisoan sakondu. Bere ustetan *“erlatibismoari alternatiba, politikan elkartasuna eta epistemologian partekaturiko elkarrizketak deituko genitzakeen erako konexioak ahalbidetzen dituzten ezagutza partzial, kokatu eta kritikoak dira”* (Op. Cit:329). Objektibotasun berriarekiko konpromisoa, hortaz, ez da inuzentea, ikuspegi politikotik kritikoa da eta bere emaitzak kokatu ditzakegu, alegia, nondik etorri diren esan dezakegu horregatik baliorik kendu gabe. Areago, jakintza horiek eta beraien sortze-prozesuak mapan kokatu ahal izatea beren fidagarritasunaren seinale da: bere eskua ezkututzen duen zientzialari absentearen paradigmatic ikerlari presente baina kritikora pasatzen gara. Difrakzioaren⁶³ ideiarene bidez osatzen du Harawayk (2004) bere proposamena: errealitate bat eta bakarra irudikatzeke ezintasunaren aurrean egin dezakegun onena, errealitatera ahalik eta gehien gerturatu ahal izateko, ikuspegi ezberdinak elkartzea da. Pentsa dezagun oinarrizko hiru koloreak banaturik eta argi-iturri ezberdinetatik ateratzen ziren irudi proiektore zaharretan: hiru kolore horiek ondo lerrokatuz gero irudi onargarria lortu daiteke. Ezagutzaren proiektu feministak ideia hori baliatu dezake, beti ere ikuspegiak, oinarrizko hiru koloreak baino askoz gehiago direla onartzen badu. Bestelako objektibotasun berri hau proiektu erradikal eta demokratikoa da, beraz:

63 Difrakzioa uhinei dagokien gertakaria da. Uhin batek elementu batekin topo egiten duenean “difraktatu” egiten da: norabidez aldatu, desbideratu edo banatu daiteke. Harawayren lanean difrakzioa ikusmenari loturik erabiltzen da (ziur aski modernitatetik zientziaren metafora nagusia izan den argiaren ideiarene erreferentzia eginez), baina difrakzioa soinu uhinekin edo uhin elektromagnetikoekin ere gertatzen da.

El yo que conoce es parcial en todas sus facetas, nunca terminado, total, no se encuentra simplemente ahí y en estado original. Está siempre construido y remendado de manera imperfecta y, por lo tanto, es capaz de, unirse a otro, de ver junto al otro sin pretender ser el otro. Esta es la promesa de la objetividad: un conocedor científico busca la posición del sujeto no de la identidad, sino de la objetividad, es decir, de la conexión parcial. No hay manera de «estar» simultáneamente en todas, o totalmente en algunas de las posiciones privilegiadas (subyugadas) estructuradas por el género, la raza, la nación y la clase. Y ésta es sólo una corta lista de posiciones críticas. La búsqueda de una posición «llena» y total como ésta es la del perfecto sujeto fetichizado de la historia opositiva que a veces aparece en la teoría feminista como la esencializada Mujer del Tercer Mundo (Haraway 1995:332).

Abiapuntua subjektibotasun zatikatuaren kontzeptualizazioa da: norbanako oro osatu gabekoa da, besteekiko dependentzian eta harremanean dagoena halaberharrez (ikus marko kontzeptualean komunitateari buruzko atala). Subjektua itxita ez egoteak, bere ezintasunak, atak irekitzen dizkio hain zuzen ere besteekiko konexio partzialari eta konexio horretan sortzen da bestelako jakintza. Gakoa, zientzialariaren jarduna identitatera bideratu ordezt objektibotasunera bideratzea da (eta hemen, objektibotasunak jada objektibotasun berri, konprometitu eta feminista horren esanahia du). Horrela egin ezean, ikerlariak posizio subalterno guztiak okupatu beharko lituzke eta hori ezinezkoa da. Kontuan hartu beharrekoa da testu honen izenburuan bertan Harawayk *ikuspegiaren paradigmarekin (Standpoint Theory)* eztabaidatzeko asmoa adierazten duela (“...la cuestión científica y el privilegio de la perspectiva parcial”). Aurreko aipamenean ikusi dezakegu ikuspegi horrekiko duen objektio nagusia: ikuspegiaren paradigmak dioen moduan zapalduta dauden subjektuek begirada osoagoaren pribilegioa baldin badute, baina aldi berean feminismoak jada zapalkuntza ezberdinen arteko (generoa, arraza, klasea eta abar) gurutzaketa teorizatu badu, nola aurkitu *zinez* begirada pribilegiatua duen subjektua? Harawayren ustez, subjektu hori subjektu erromantiko bilakatzen da, alegia, benetako subjektu bat izateari uzten dio; *lekuko apalaren* ifrentzua bihurtzen da.

Alejandra Araizak (2013), Harawayren ikuspegia ontzat eman arren, lehenago ikusi dugun Hardingen (1996) klasifikazioa ulertzeko moduari eragiten dioten zehaztapan batzuk egiten ditu. Hardingek proposatu zuen hiru ikuspegiaren arteko banaketa (enpirismo feminista, ikuspegi feministaren paradigma eta posmodernismo feminista) zurrunegi interpretatzen dute ikerlari askok eta baita beren burua haietako batean kokatzeko ahalegin gehiegi egin ere, paradigma guztiek egin dezaketen ekarpenetik ikuspegi hibridoagoak eraikitzea ekidinez. Tendentzia horren baitan, ikuspegiaren paradigma gaizki ulertu eta sinplifikatzeko joera ere badago:

En efecto, al igual que Haraway, Harding rescata la idea de objetividad, pues pretende distanciarse del relativismo. Además, intenta crear una ciencia extensiblemente válida -por así decirlo-. Por esta razón, sitúa esta objetividad, en un primer momento y como heredera del feminismo marxista, en la experiencia de las mujeres (y su privilegio epistémico); mientras que, en un segundo momento, la sitúa en la vida de las mujeres, como lectora del multiculturalismo y la teoría postcolonial. De esta forma, Harding pretende escapar del esencialismo y poner el énfasis más bien en la localización o el posicionamiento. La vida de las mujeres le proporcionaría a Harding una posibilidad para seguir defendiendo la objetividad o, más precisamente, una localización objetiva (Araiza 2013:184).

Hardingek, epistemologia feministen ikerlari izateaz gain, bere iritzi propioa du horien inguruan eta nagusiki ikuspegiaren paradigmaten aldekoa da. Baina bere ikuspegia, Araizak azaltzen duen moduan, ez da sinplea ez eta erromantizatzailea, Adrienne Richen kokapenaren inguruko hausnarketekin lotzen da (Rich 1999) eta ez da esentzialismoan oinarritzen. Honela, Hardingek ere, Araizaren irakurketan, bi momentu ezberdintzen ditu ikerketan: zapaldutako subjektuei ahotsa ematea ezinbestekoa duen hein berean emakumeen bizitzaren analisia ezinbestekotzat jotzen du. Esperientzia eta bizitzak azaltzean, marko kontzeptualean interseksionalitateari dedikatutako epigrafean azaltzen dudanez, ezinbestean erromantizazioari eta esentzializazioari ihes egiten dion ertz ugariko irudia sortzen da⁶⁴.

Tesi honetan, paradigma hauek erabatekotzat ez jotzea ezinbestekoa izan da. Azken finean, Harawayren ezagutza kokatuaren ideiarekin bat egiten dut baina, gaur egungo testuinguruan, ikuspegiaren paradigmaten elementu batzuk erabiltzea politikoki emankorra izan daitekeela uste dut. Ikerlari bezala, argi dut objektibotasunera gerturatzeko formarik egokiena nire kokapen propioa agerian jartzea, alde aurretik argi izanez kokapen hori ez dela zapalkuntza-ardatz batzuen inguruko etiketa batzuen bilduma hutsa: mutil zis, homosexual, txuri, euskaldun eta klase langilekoa naizela esatea deus ez esatearen parekoa izan daiteke, horrek ikerketa prozesuan nola eragin duen esploratzen ez badut. Maila horretan, nire posizioa politikoa izatea nahi nuke, eta kokapen horren inguruko analisia situazionala, ez nortasunaren inguruko esplorazio hutsa.

64 Joan W. Scottek esperientzia aztertzean kontuz ibili beharra dagoela azaltzen du. Jasotzen dugun testigantzak, subjektu baten nortasunaren eraikuntzaren ingurukoak direla argi izan behar dugu, eta ez bere nortasunaren existentziaren frogak, bestela diferentzia kritikoki aztertzen egon ordez, diferentzia bera baieztatzeko (reifikatze) ariketa hutsa egin dezakegu: *“The evidence of experience then becomes evidence for the fact of difference, rather than a way of exploring how difference is established, how it operates, how and in what ways it constitutes subjects who see and act in the world”* (1991:777).

Aitzitik, ikerketa bera enfokatzeko unean, orri hauetara ekarri nahi nituen esperientzia eta testigantzak aukeratu behar izan ditut, alegia, noren hitza entzun nahi nuen erabaki. Hirugarren eta laugarren kapituluetan ikusiko dugun moduan, LGTB* subjektuak elkarrizketatu ditut, beraien ahotsari eta esperientziari espazio pribilegiatua emanaz. Horrek ez du esan nahi beraien ikuspegi pribilegiatua dela uste dudarik, baizik eta ikerketan euren ahotsari leku pribilegiatua eskaini nahi diodala. Datozen orrietan azalduko denez, LGTB* subjektu guztiek ez dute begirada bera, ez dute esperientzia berbera konpartitzen, baina denek, ikuspegi analitikoak, kokapen bat konpartitzen dute: genero arauaren eta sexualitatearen normaltasunaren kanpo-muga izatea, edo muga hori igarotzea. Horren inguruko kontzientzia duten? Ados dauden baieztapen horrekin? Kasu batzuetan bai, besteetan ez. Nire ustea hori da eta horrela eraiki ditut lekukotasun horiek ikertu daitekeen multzo moduan, ikerketa honek helburu akademikoak izateaz gain helburu politikoak ere badituelako eta, gaur gaurkoz, LGTB* subjektibotasun kolektibo eta kritiko bat izatea, Richek (Op. Cit) zioen moduan, abiapuntu gisara eta ez helmuga moduan, beharrezkotzat jotzen dudalako. Ikerketa baten helburu akademiko eta politikoek haien artean eragiteko duten moduaren erakusle ere bada Haraway eta Hardingek ordezkatzan dituzten bi planteamendu ezberdin baina gertuko hauen arteko tentsioa.

Harawayren planteamenduei egindako errepassoa bukatzeko bere teorien azken ezaugarri bat aipatu nahiko nuke. Esango nuke ikerketa tesi honetan hiru denbora elementuen arteko tentsioa etengabea dela (marko kontzeptualean ahanzturaz aritzean ere aipatu dut), alegia, iragana, oraina eta etorkizuna konjugatzeko beharra behin eta berriz azaldu dela. Harawayren lanak ere hiru aspektu horiek elkarlotzen ditu: zientziaren ibilbidea eta jatorria kontuan izanik, egungo panoramaren kartografia zaindua egiten du eta etorkizunerako proposamenak dakartza aldi berean. Hainbatetan errepikatuko dudan moduan, etorkizunerako planteamendu horiek egiterakoan, bai epistemologian bai eta edonolako jardun politikotan, zaila da iraganaren eta orainaldiaren kartzelan kateatua ez geratzea eta, beraz, derrigorrezkoa da irudimen politiko eta zientifikoa erabiltzea. Pentsalari estatubatuarraren lanean proposamen hori difrakzioan (oraintsu ikusi dugun ikuspegi ezberdinen batura bermatu dezakeen begirada anizkoitzean) eta figurazioaren ideian zehazten da. Figurazioak, nahiz eta tesi honetan erabili ez ditudan, errealitatearen berri eman dezaketen metafora zientifikoak dira, objektibotasun feministari muzin egin gabe tradizio zientifikoak eta orainaldiak erabat mugatzen ez dituzten irudi mugikorak. Figurazioak ez dira geldi egoten. Harawayk, bere lanean, hainbat figurazio proposamen egin ditu: egungo gizarte teknologiko kapitalista patriarkalean emakumeen posizioaren konplexutasuna adierazteko gaitasuna duen “Cyborg”arena edo ezagutzaren izaera mugikorra eta errealitatearen harrapaezintasuna adierazi ditzakeen “Coyote”arena. Hizkera zientifikoak errealitatea eta ikerketa izozteko joera baldin badu, hizkuntza berriak behar ditugu bere konplexutasuna eta partzialtasun konprometitua adierazteko eta figurazioak, Harawayk maiz zientzi-fikzio feministatik berreskuratzen dituenak, bidelagun misterioitsuak dira eginbehar horretan. Braidottik, Harawayren figurazioen beste alderdi bat ere azpimarratzen du:

Las figuraciones implican también el recurso a la ética discursiva: porque no se puede conocer de verdad y tampoco empezara a comprender algo por lo que no sentimos afinidad. La inteligencia crítica, para Haraway, es una forma de simpatía. Nunca deberíamos criticar aquello de lo que no somos cómplices. Sería menester conjugar la crítica según modalidades no-reactivas, con gestos creativos, en modo de soslayar la trama edípica de la teoría falogocéntrica (Braidotti 2018:68).

Figurazioen bidez, ezagutzarekiko eta ikerketarekiko atxikimendua indartzen dugu, afinitatearen ideian sakonduz. Zientziaren lana, epistemologia feminista, dekolonial edo marxistetatik azpimarratu den moduan, kritikoa izatea da, baina kritika ezin da inoiz distantziatik egin. Ikerketa prozesuek, une ezberdinetan, objektu eta ideiekiko distantziak handitu edo murriztea eskatzen dutela onartu arren, ezagutza kritikoaren prozedurak, halabeharrez, ikerketa gaiekiko eta protagonistekiko afinitatean kokatu behar gaituzte. Afinitatea ez da erabateko identifikazioa, ez eta adostasuna. Afinitatea, berriz ere Harawayren hitzak berreskuratuz, konexio partziala da, ikerketa gai eta subjektu/objektuekin harreman konplexu, tenkatu eta, zergatik ez esan, arriskutsuan kokatzen gaituena.

Steinar Kvalek (1996) zientziaren bi metafora elkarren kontra kokatzen ditu: zientzia mehatze edo bidaia moduan. Mehatzeak zientzia modernoaren metafora ordezkatzeko du zinetan zientzialariak, tresna ezberdinak erabiliz, ezkutuan dagoena zulatuz, zatikatuz, atera eta klasifikatzen duen. Zientzia bidaiariak, ordea, gertutasun handiago du Harawayren planteamenduetan: bidaia beti partziala da, mapa eta egutegi zehatzak egin arren bide bat hartzeak halabeharrez beste bat alboratzea dakarrelako. Ikerketa prozesu inductiboetan aukeraketa hau, eta bere drama, etengabe azaleratzen dira: bidean agertzen diren testigantza, ideia eta eztabaiden bidez, konexio askotarikoen bidez, egunero ikerketa lerroak urrutitzen eta gerturatzen ikusi ditut eta bide bati edo besteari eustea erabaki behar izan dut.

Tesian zehar, uraren ideia etengabe agertu dela ohartu naiz. Lehen elkarrizketa multzoan parte-hartzaile batek ur-uherrak (“aguasturbias”) kontzeptua aipatu zuenetik⁶⁵ buruan bueltaka geratu zitzaidan eta ur uherrez gain ur azkarrak eta geldoak ere agertu ziren bidean. Ondorioz, tesi honen ezagutzaren metafora nabigazioarena da. Ur uher, azkar eta motelak zeharkatu ditut, eta bidaia horren helburua mapak jarraitzea baino berauek marraztea izan da, baina ez naiz uralde erabat ezezagunetan murgildu: behin baino gehiagotan egindako bidea berriz egin dut, oraingoan ikerketa sozialaren begirada kritikoarekin. LGTB* politiken uretan nabigatzeak, konexio partzialak ezartzeko helburua errespetatuz, itsasontzirik ez hartzeri behartu nau ere. Azken finean urarekin kontaktua behar-beharrezkoa nuen eta horrek itsasontzi izatera eraman nau: bidean urratu, busti, higatu eta zahartu egin naiz ikerlari,

65 3.2 atalaren hasieran azalduko dut zer dela-eta erabiliko dudun “aguasturbias” eta ez “aguas turbias”.

ekintzaile eta izaki gisa. Mapak marraztu asmoz, ikusten saiatu naiz, baina ikerketarekiko konpromiso politikoak ukimen-ikusmen⁶⁶ batera eraman nau etengabe eta ukituz ikusteak bustitzea eskatu du, bere ondorio guztiekin. Gizaki teknonabigante moduan nire kokapenak lan honen dimentsio ezberdinei eragin dien moduei buruz hausnartuko dut hurrengo epigrafean.

66 José Val del Omar zientzialari, zinemagile eta poetari hartu diot maileguan ukimen-ikusmenaren ideia: *“La Visión Táctil es un lenguaje pulsatorio elevador de la sensación palpitante de todo lo que vive y vibra. Naturalmente, se apoya en la reflexión parcial y variable de la luz en las superficies, pero es luz es empleada como energía enviada a resonar de acuerdo con la sustancia y la temperatura vital de los objetos”* (Val del Omar 2010:116)

Tesia burutzerakoan nire kokapen sozial eta emozionalaren eragina prozesu osoan presente egon dela esatea nahikoa zehatza ez delakoan, aspektu ezberdinetan izan duen eragina, labur-labur besterik ez bada, mahai gainean jartzen saiatuko naiz. Baina zertaz ari naiz nire kokapen sozial eta emozionalaz ari naizenean? Nagusiki ikerketa prozesu zehatz honetan eragin duten (edo eragiteko gaitasuna izan duten) elementu sozial eta politikoen inguruan ari naiz, prozesuaren une ezberdinetan azalerratu direnak, ia-inoiz guztiak batera. Eragina izan dutenen artean egon dira nire generoa, adina, jatorria, klasea, lanbidea eta herri mugimenduetan izan dudako posizio ekintzailea, nagusiki. Laburki aipatuko ditut, beraz, dimentsio ezberdinetan adierazi duten eragin gaitasuna.

Ikerketaren helburuak zehaztean

Ikerketa orotan, bere era propioan, helburuak zehazten ditu ikerlariak edo ikerlari-taldeak. Kasu batzuetan helburuak oso esplizituak eta argiak dira hasieratik eta beste batzuetan ikerketa prozesuarekin batera hartzen duten forma. Ikerketa deduktiboan kasuan, prozedura ohikoa ikerketa gaia definitu eta mugatu ostean (gehienetan irakurketa teoriko eta gaiari buruzko beste ikerketa batzuen laguntzaz) ikerketa galdera zehaztu eta helburu nagusia zein azpi-helburuak finkatzea izan ohi da. Helburu horiek, kasu askotan, hipotesiak formulatzeko baliagarriak dira eta horiek frogatu edo ezeztatzea izan ohi da landa-lanaren eta bere analisiaren xedea. Nire kasuan, prozesua induktiboa izan den heinean (landa-lana, alegia, elkarrizketak, izan dira lanaren lehen pausua) helburuak zuzenean ikerketa galderatik eratorri

dira, teoriaren edo beste ikerketa batzuen horrenbesteko bitartekaritzarik gabe⁶⁷. Formulaturako galdera nagusia, analisi situazionalaren ikuspegitik, “zer gertatzen ari da hemen?” izan den heinean, helburuak finkatzeak galdera horri lotu zaizkio. Helburu izan dut, beraz, herri mugimendu mistoetan jarduten zuten LGTB* ekintzaileei zer gertatzen (ari) zaien aztertzea. Prozesu induktiboak bigarren helburu bat definitzera eraman ninduen orduan: mugimendu mistoetan ari ziren ekintzaileen elkarrizketak aztertzeak gaur egungo LGTB* politiken egoera azertu nahi izatera eraman ninduen, LGTB* kolektiboetan ari ziren ekintzaileak (banaka edo taldean) elkarrizketatuz.

Baina nola definitu dira edo, hobe esanda, definitu ditut abiapuntuko gaia eta bere helburua? Ekintzaile sozial eta politikoa izan naiz 15 urte inguru nituenetik. Hori baino lehenagotik jada, herrian eta etxean bizi izandako hainbat egoera zirela medio (nagusiki Euskal Herriaren auzi nazionalarekin, errepresioarekin eta borroka armatuarekin lotuak baina baita, oso sakonki, langile klaseko familian jaio izanagatik ere) nire buruan politikari buruzko ideia batzuk banituen, baina adin horrekin hasi nintzen besteekin elkartu eta aktibismoa egiten: euskal kulturaren inguruko taldeetan, gazte asanbladatan, antimilitarismoan, punk kultura autogestionatuan, okupazio mugimenduan, Ezker Abertzalean, Joxemi Zumalabe Fundazioan edo LGTB* mugimenduan jardun dut, besteak beste, 15 urte nituenetik gaur egun ditudan 38 urte izan arte, eta horietako batzuetan jarraitzen dut. Pentsatzekoa da, beraz, ikertzen ari naizen gaiaren inguruan nuen interesa ez zela (soilik) akademikoa.

Nik ere, elkarrizketatuetako batzuk moduan, adin berarekin egin nituen ekintzailtza politikora jauzia eta armairutik ateratzea. 14 urte ingururekin deklaratu nion nire desioa beste mutil bati lehen aldiz eta aktibismoaren eta, bereziki, kulturgintza alternatiboaren esparruetan jarduteak animatu ninduten etxean eta lagunartean 15 urterekin “nirea” kontatzera. Handik aurrera, ez dut apenas inoiz nire sexu-desioaren inguruko hautua ezkutatu.

Hortaz, planteaturako lehen helburuarekin (“herri mugimendu mistoetan jarduten zuten LGTB* ekintzaileen esperientzia ezagutzea”) lotura politiko, akademiko eta biografikoa izan dut, hasieratik. *Politikoa* ekintzaile horien esperientzia ezagutaraztea garrantzitsua dela uste dudalako; *akademikoa* ez delako alde aurretik (eta nik ezagutzen dudala) horren inguruko lan handirik egin euskal testuinguruan; *biografiko* eta, gehituko nuke, emozionala, nolabait nire esperientzia propioaz hausnartzen ari naizelako: 2009an, Bartzelonan, *queer* politiken

67 Ez litzateke zuzena izango mediaziorik egon ez dela esatea, alde aurretik gaiari buruzko ikerketa dezente irakurrita nituen heinean, irakurketa horiek presente egon direlako uneoro. Gogoan ditut Nerea Arestik Ikerketa Feministak eta Generokoak doktorego-programak antolatutako mintegian honi buruz esan zizkidanak. Metodo ezberdinak erabiltzeak ezin du izan aitzakia ikerlariaren objektibotasuna aldarrikatzeko. Hasieratik ez da nire asmoa izan nire teoriarekiko independentzia ez eta objektibotasuna aldarrikatzea.

inguruan antolatzen hasi arte ez nuen inoiz nire burua LGTB* politiken inguruko talde batean antolatu, beraz 1996tik 2009ra doan tartean ni ere “talde mistoetan jarduten zuen LGTB* pertsona bat” nintzen. Nire esperientzia propioa ulertu nahi horrek, noski, ikerketa gaiaren beraren hautapena baldintzatu zuen nahiz eta ez dudan inplizituki horri buruz askoz beranduagora arte hausnartu.

Dimentsio biografiko eta emozionala beranduago esploratu arren, hasieratik nahiko argi izan nuen beste bi dimentsioetan nire kokapenak zuen eragina eta baita berau nolabait neutralizatzeko beharra: nire helburu politikoak eta akademikoak onartzea egokia zen baina, aldi berean, helburu horiek nireak *bakarrik* ez zirela bermatzeko bideak jarri nahi nituen. Horretarako bi tresna nagusi erabili nituen. Lehena, LGTB* talde eta ekintzaile gutxi batzuekin egindako erronda txiki bat izan zen. Haien iritziak jaso ahal izateko taldeokin bildu eta ikerketaren asmoa azaldu nien eta, nagusiki, parte-hartzearekin arduratuta zeudela hauteman nuen: 2015. urtea zen eta esango nuke gaur egun baino motelduago zeudela LGTB* politikak, laugarren atalean sakonago aztertuko dudan moduan. Nire kezka zen horrek (“zer dela-eta ez da gertatzen politizazio indartsuagoa sexualitate eta genero nortasunen inguruan”) haiena ere bazen eta, oro har, desmobilizazioari eta bizitza-ereduen indibidualizazioari egozten zioten arazoa. Egia da mugimendu sozial guztietan, unearen arabera, parte-hartzearen beherakada handiak sumatu daitezkeela, eta horrelako une batek sortzen duen etsipenaren lekuko izan nintzen elkarrizketa formal eta informal haietan.

Hartutako bigarren erabakia ikerketaren helburuak aholkulari taldearekin lantzea izan zen. Lan sesio batean helburuak plazaratu eta horien inguruko hausnarketa eta zehaztapenak egiteko asmoz elkartu ginen. Bere fruituak interesgarriak baina aldi berean mugatuak izan ziren. Parte-hartzaileek helburu espezifikoak planteatu zituzten, hots, beraien ustez ikerketa egiterakoan kontuan izan beharreko elementuak, esploratu ahal ziren gaiak, neutralizatu beharreko jarrerak eta abar. Baina helburu nagusia bera hedatu arren ez zen zalantzan jarri. Alde batetik aholkulari taldeko kideak ados zeudelako baina, bestetik, oso zaila delako jada lanean ari den pertsona bati bere helburua zalantzan jartzea, hartu duen lanarekiko errespetuagatik baina baita ikerketa sozialean ikerlariak bere gaia *hautatzearen* ideiak pisu handia duelako ere. Edonola ere, lan-sesioa oso baliagarria izan zen ikuspegi politiko eta esperientzia ezberdinak zituzten kideek hainbat begirada ireki eta presente izateko aukera eman zuelako.

Esandako moduan, lehen helburua osatzeko egindako elkarrizketa sortatik bigarrena atera zen, LGTB* politiken gaur egungo protagonistak biltzea eta horretan, zalantzarik gabe, nire kokapen politikoak eta ibilbideak eragin handia izan zuen: elkarrizketatu beharreko taldeen zerrenda egin behar izan dut eta ez ditut denak elkarrizketatu. Lehen helburua betetzeko elkarrizketatuak aukeratzerakoan aniztasunari eskainitako pisua murriztu egin zen bigarren helburu honekin eta, beraz, LGTB* politiken esparru osotik instituzioekin harreman gutxien zuten taldeak aukeratu ninduen. Ikuspegi akademikotik aukerak bi ziren: sektore horretako hainbat talde elkarrizketatu eta, beraz, LGTB* politika “kritiko” edo “erradikalak” aztertzea

edo lagin anitzagoa aukeratu eta begirada orokorragoa egin LGTB* politikei (kaleko taldeei, instituzioei eta instituzioekin harreman estuena duten taldeei). Bien artean lehengoa aukeratu dut, lehen elkarrizketa-sortan gehien aipatu diren LGTB* taldeak kalekoak direlako baina, batez ere, instituzioekin lotutako LGTB* politika aztertzeak aurre-lanketa handia eskatzen duelako eta ikerketaren gai nagusitik gehiegi urruntzen delako. Baina hemen ere, berriz nire ibilbide militantearen eragina nabaria da, politikoki gertuen sentitzen ditudan taldeak horiek (kalean jarduten dutenak) direlako eta, gainera, maiz haien planteamendu batzuekiko desadostasuna sentitzen dudalako, alegia, eztabaidatzeko beharra. Noski, instituzioekin harreman estuagoa duten taldeekin ere gertutasuna sentitzen dut eta ez dut esan nahi talde horiek multzo homogeneoa direnik, izan ere talde batzuek besteek baino politika askoz kritiko eta erradikalak dituzte. “Multzo” horretan asko miresten ditudan ekintzaile eta taldeak daude, baina kaleko politiketan fokua jartzeak aukera eman dit kolektibo horiek kaleko beste mugimendu eta adierazpen politikoekin duten eraginaz pentsatzeko ere.

Elkarrizketa eta interakzioetan

Norbere kokapen sozialak eragin handiena izan dezakeen ikerketaren dimentsioetako bat parez-pareko interakzioena da, ikerketa honen kasuan, elkarrizketena. Nire kasuan, lehen aipatu ditudan elementuetako batzuek eragina izan dute, une eta elkarrizketatutako pertsonaren arabera. **Lehen elkarrizketa sortarako** subjektuak aukeratzekoan nire kontaktuak eta aholkulari taldeak emandako beste hainbat erabili ditut, kasu askotan kontaktu zuzen eta gertukoak izanda aholkulariek beraiek zubi-lana egin dutelarik. Kasu gehienetan nire ibilbide militanteak asko lagundu dit, elkarrizketatutako asko ezagunak, lagunak edo lagunak lagunak direlako. Sarbidea erraztu du, beraz, kolektibo eta mugimendu ezberdinetan parte hartu izanak, elkarrizketatutako askori konfiantza eman dielako ikerketa burutzen duen pertsona ere ekintzailea izateak. Noski, konfiantza hori aho biko labana da, ekintzaileak sortzen duen gertutasuna, batzuetan, kokapen politiko eta iritzi ezberdinak izateak urratu dezakeelako. Edonola ere, gertutasun horrek ez du ezagutza akademikoaren eta mugimenduen arteko langa erabat ezabatu eta, elkarrizketak egiterako orduan, parte-hartzaile askorengandik jaso dut “ezer interesgarririk” kontatuko ote zutenaren kezka. Zaila da norberak bere esperientziaren berri ematea berau balioan jarriz eta, are gehiago, parean

dagoenak “soziologo” edo “ikerlari” etiketa duenean. Esango nuke jendeak nahiko aske eta lasai erantzun dituela elkarrizketak, baina horrek ez du ekidin “aztertuak” sentitzearen sentsazioa (edo nik horrela jaso dut behintzat). Egoera hau samurtzeko asmoz, elkarrizketa ugaritan nire esperientzia propioak kontatu izan dizkiet elkarrizketatuei eta haiekin solasaldi politiko eta emozionalean ere engaiatu naiz, baina horrek ez du nire ikerlari posizioa erabat neutralizatu.

Adina eta generoak ere beren papera jokatu dute interakzio prozesuetan, baina adinaz ari naizenean ez naiz soilik adin biografikoaz ari. Orokorrean ni baino nagusiagoak diren elkarrizketatuek segurtasun dezentez erantzun dute, eta gazteagoak diren askok nire presentzia akademikoaz gain adinarena ere nabaritu dutela ez dut zalantzarik. Baina mugimenduetan egindako denborak eta izandako esperientziak ere eragin handia izan du: horren inguruan eskarmentu eta jabetze handiagoa duten elkarrizketatu askok, nahiz eta gazteagoak izan, segurtasun handiagoz erantzun dute. Generoari dagokionean, lehen aipatu dudan moduan, elkarrizketetan nire esperientzia propioak eta ideiak aipatzea ez da soilik enpatia sortzeko estrategia, nire genero sozializazioaren ondorioz dudan jarrera berbatiaren parte ere bada. Zentzu horretan, nahiz eta oso ahalegin kontzientea egin dudan elkarrizketetan parte-hartzaileraren ahotsari zentralitatea emateko, grabaketak entzuterakoan hainbat unetan isiltasunak mozten ditudala ikusi ahal izan dut, eta hori oso lotuta dago maskulinitatearen eraikuntzarekin.

Lehen multzoko elkarrizketatuekiko harremana, hein handi batean, klaseak/posizio akademikoak⁶⁸, adinak, esperientziak eta generoak baldintzatu ditu eta **bigarren elkarrizketa multzoan** elementu horiek presente egon arren, beste era batera artikulatu dira. Kasu askotan adinak eta esperientziak kontrara jokatu dute (oso ibilbide luzeko ekintzaile batzuk beldur ziren haien ideia eta esperientziak zaharkiturik ote zeuden), eta generoaren elementua mantendu egin da, baina elkarrizketako asko taldean egin direnez ezberdin jokatu du (nire zentraltasuna desbideratuz). Klase/posizio akademikoa ezberdin artikulatu da ere. Talde gehienek ez dute ziurtasun faltarik adierazi elkarrizketan, laugarren atalean esango dudan moduan asko eta asko formazio akademikoa duten ekintzailez hornitzen direlako edo ibilbide aktibistan hizkera tekniko zabala domeinatzerara heldu diren pertsonez. Aldi berean, esango nuke haietako gehienekin elkarrizketan presente egon dela ni neu ekintzailea izatea, berriz ere bere anbibalentzia osoan. Gehienetan gertutasun moduan azaldu da, elkargune moduan, baina une batzuetan, gai zehatzen inguruko desadostasunak sumatu direnean soka tenkatu dela esango nuke. Zaila izan da nire zalantza batzuk adierazi edo kolektiboai gai batean edo

68 Bi elementu hauek elkarri lotuak daudela uste dut. Berezi belaualdi nagusiagoekin, haien klase-kokapenak asko baldintzatu zuen ikasketa akademikoak egin ala ez eta, beraz, hizkera edo pentsamendu-lerro akademikoaren inguruan sortzen diren ezberdinkeria, zailtasun eta minak klasearekin zuzenean lotuta daude.

bestean sakontzeko eskatzea haiek beraien hitza zalantzan jartzen nuela sentitu gabe. Arestian aipatu dudan dorpezia komunikatiboa eta kokapen maskulinoaz gain, mugimenduen artean LGTB* afera batzuen inguruan dagoen eztabaida sutsuaren ondorio ere bada gertakari hau: ezbaiak puri-purian daudenean posizioak hartzen dira eta parekoaren posizioa zein den zehazten saiatu, kokatu asmoz. Zaila izan da, une zehatz gutxitan izan bada ere, elkarrizketetako batzuetan elementu hori neutralizatzea.

Elkarrizketa multzo biak oso ezberdinak izan dira haien artean. Ñabardurak ñabardura, lehen multzoko elkarrizketetan aspektu biografiko eta intimoez jarduteak berezitasunak ekarri dizkio eztabaida eta solasaldiei. Elkarrizketatuak, kasu gehienetan, zaugarriago sentitu dira bigarren multzoko elkarrizketatuak baino. Nire esperientzia eta emozioak ere partekatzearen bitartez zaugarritasun hori konpartitua izan denean konexio une sakonak suertatu dira, eta maiz sentitu dut nik elkarrizketatuen hitzak entzutean sentitzen nituen emozioak elkarrekin bizi izan ditugula: enpatia, bizitako esperientzia eskasengatik sentitutako amorrua, gai batzuen inguruan ia-ia lehen aldiz hitz egitearen aldibereko beldur eta lasaitua eta abar. Bigarren multzoko elkarrizketan konexio oso politak bizi ahal izan ditut ere, eta une batzuetan oso pozgarria eta bizigarria izan da ekintzaile horiekin elkarrizketa konpartitzea, baina kasu gehienetan elkarrizketatuek hain esperientzia pertsonalari baino ikuspegi politikoei eman diete lehentasuna, galderen segidak ere hala eskatzen zuelako, ziur aski. Edonola ere ez ditut ahazteko desadostasunen inguruko tentsioak, adostasunen inguruko lasaituak, begirada eta adierazpenetan elkar topatzea edo elkarrizketa batzuen ostean parte-hartzaileekin bizitako besarkadak. Bizitza emozionalaren bi aspektu ezberdin izan arren, ikuspegi politikoak eta bizi-esperientzia pertsonalak estuki lotuta daudela ikusi ahal izan dut.

Elkarrizketa eta bestelako interakzioetan generoaren, sexualitatearen, klasearen edo esperientzia aktibistaren inguruan sortzen diren langak estutzea eginbehar zaila da eta, esan bezala, ez nuke esango lortu dudarik. Hala ere, estrategia ezberdinak martxan jarri izanak lagundu duenaren sententzia dut. Martha Patricia Gastañeda Salgadok honela azaltzen du ikerketa feministetan (edo, honek bezala horretara gerturatzeke asmoa dutenetan) ikerlarien eta beste parte-hartzaileen arteko langak gainditzeko abiatzen diren estrategia ezberdinak:

En la formulación de maneras distintas de revertir esa situación, es posible distinguir por lo menos tres opciones de colocación de las investigadoras feministas (...). En la primera de ellas se re-elabora la posición de quien investiga como sujeto activo del proceso, reconociendo también a las personas con quienes se lleva a cabo la investigación como sujetos que poseen conocimientos distintos a los académicos respecto a los temas que se abordan en la indagación. La iniciativa epistémica sigue estando en manos de quien investiga, aún cuando se intente establecer relaciones más horizontales. Esta opción suele asociarse con la investigación que tiene lugar en el marco de las instituciones académicas. (...) En la segunda opción, la investigación es el resultado de relaciones previas de colaboración entre quien investiga y algún

grupo, colectivo u organización social que establece las necesidades de conocimiento y sus finalidades. En esta modalidad se desarrollan los procesos de co-labor, investigación-acción o investigación participativa, en los que quien investiga pone sus capacidades de generación o sistematización de conocimientos al servicio de sujetos o actores sociales que tienen necesidades políticas o prácticas específicas. En el proceso, ambas partes se legitiman a partir del reconocimiento mutuo como sujetos particulares que comparten intereses e intencionalidades de cambio del orden político hegemónico. (...) La tercera opción es la desarrollada por investigadoras que pertenecen al mismo grupo social con el que investigan. En ella se desarrollan procesos de desmontaje de los conocimientos académicos al uso y se validan los conocimientos propios, lo que trae consigo formas de investigación no canónicas (Castañeda Salgado et al. 2019:20-21).

Castañedaren artikulua birpatsatzean harritu ninduen nire ikerketa esperientzia hiru sailkapen horietan kokatzeko zailtasunak. Lehengo kasuan moduan, nahiko garbi dut nire ezagutza ekimena (Castañedak “iniciativa epistémica” deitzen duen hori) besteenaren gaineratik egon dela. Honetan uste dut berebiziko garrantzia izan duela ikerketa doktorego tesia izateak. Edozein ikerketa akademikok bezala, bere epeak ditu eta horiek ez dute ia inoiz bat egiten beste parte-hartzaileen denborekin. Honela, elkarrizketaz gain gehiago eskatzea larregizkoa izan da kasu gehienetan eta, esaterako, datuak interpretatzeko tailerretan parte hartzeari buruz galdetu diedanean, gehienek denbora aldetik zaila izango luketela esan didate. Castañedak azaltzen duen bigarren kasua ez da osoki ikerketa honena, bere helburuak ez dituelako elkarte edo talde batek finkatu, baina hala ere elkarte batzuekin eta aholkulari talde batekin horiek fintzeko ahalegina egin dut. Edonola ere, eta bere klasifikazioari jarraituz, ez nuke tesi hau ikerketa-ekintza parte-hartzailearen kategorian kokatuko, ez dituelako horretarako beharrezkoak diren beste baldintza gehienak bete. Bere azken kategoriatik ere nabigatu dudala dirudi, ikertu dudako kolektiboaren parte naizen heinean, baina pertenezia hori, hurrengo orrietan ikusiko dugun moduan, oso konplexua da. Luze eztabaidatu daiteke honen inguruan, baina esango nuke bi elementuk zaildu dutela kategoria honekiko erabateko identifikazioa. Batetik elkarrizketatutako pertsona denek eta nik neuk ez genuke ziur aski gure burua “komunitate” beraren parte sentituko, oso era lausoan izango ez balitz. Kondizio sozial orokor batzuk konpartitu ditzakegu, baina ez norberak aukeratutako komunitate baten kide sentitzearen bizipena. Halaber, gure burua komunitate bereko kideztat hartzen dugunon kasuan ere, komunitate hori oso zabala eta bateraezina da: frankismoan jaiotako lesbiana transgenerotik hasita 2000. urteaz geroztik jaiotako ikasle marika edo gizon zein emakumeekin harremanak izan arren bisexual bezala identifikatzen ez den klase langileko emakumeraino. Elementu larregi dira kontuan hartu beharrekoak elkarrizketatu guztiek “insider” bezala ikusi nautela esateko, ez bada (kasu gehienetan) konpartitu dugun

“ekintzailearen” figura oso lausoagatik (bakoitzak ekintzailletza bere ere era ezberdinetan ulertzen duela kontuan hartuz). Berriz ere, estrategia ezberdinen uretan mugitu naizela dirudi: unibertsitateko ikerketa akademikoaren itsasoetatik, ikerketa-ekintzaren errekaetatik eta nire komunitatetzat sentitzen dudana elkartzeko forma oso lauso eta inperfektutik igaroz.

Oro har, elkarrizketa eta kontaktu-lanaren prestakuntza eta gauzatzea erraza eta gogobetegarria izan da. Esango nuke guztietan egon dela errespetuzko giro lasaia eta haietako askotan oso une hunkigarriak bizitzeko aukera ere. Orainsu aipatzen banuen ikerketa hau abiatzea, nolabait, nire esperientzia propioa berrikustea zela, elkarrizketen ostean argi ikusi dut elkarrizketarekin bizi izandako une asko lagungarriak eta are sendagarriak ere izan direla. Elkarrizketa ia guztietan, une batean edo bestean, nire esperientzia propioaren zati bat entzun eta sentitzeko aukera izan dut eta, norberaren esperientzia besteekin partekatzeak eragindako minak samurtzeko era bat da, eta bizitako poztasunak gogora ekartzekoa. Konexio partzial ugari eginez, mugimenduetan parte hartzeak eta LGTB* izateak dituen ur gazi eta gozoetatik nabigatzeko aukera eman didate elkarrizketek. Hori dela-eta, ikerketan parte hartu dutenei izugarri eskertua nago, zalantzarik gabe.

Datuen azterketa eta interpretazioan

Parte-hartzaileekiko interakzioa ez da grabagailua itzaltzearekin amaitzen. Grabaketak entzun eta transkribatzean, elkarrizketen kodifikazioa egitean edo txostenean erabiliko diren zatiak hautatzean harreman partikularra sortzen da parte hartu duten subjektuekin, harreman unilaterala, nagusiki, soziologo moduan haien hitzen aurrean jarri eta hautaketa egitera eraman nauena. Analisi Situazionalak lerroz-lerroko kodetzearen ideia Oinarritutako Teoriatik hartu duen heinean, prozesu nahiko “objektibo” bezala aurkeztu izan du. Baina, elkarrizketa-multzo oso handiak izan eta kodeen ikuspegi kuantitatibo bat eduki ezean, kodetzea egitea, alegia ze kodek aurrera egingo duen eta zeinek ez aukeratzea, edo kodeak beraien artean multzokatzea, asko du ikerlariaren subjektibotasunetik: norberak erabakitzen du, adibidez, familiarekin lotura duten esperientziak lagunartearekin batu eta “inguruarekiko esperientzia” bezala kodetu edo kode independente bezala tratatu eta haien arteko talkan sakontzea. Hemen ere, borondate hori izan arren, ez dago objektibotasun posiblerik.

Burututako elkarrizketek bi prozesu pasa dituzte: kodetzea eta zeharkako irakurketa. Lehen prozesua bi elkarrizketa-multzoei aplikatu diet eta bigarrenak garrantzi handiago hartu du lehen multzoko elkarrizketetan (talde mistoetan ari diren LGTB* pertsonekin egindakoetan). Kodetzearen fasean objektibotasunik egon ez den arren (kodeak ez dira beren kabuz ordenatu), prozesua automatikoagoa izan dela esan nezake: kodeak errepikatu edo oso une puntualetan bakarrik agertzen dira, eta horrek ematen ditu aukeraketa eta multzokatzea egiteko pistak. Baina elkarrizketa horietaz egindako zeharkako irakurketa holistiko eta telurikoagoa izan da eta sakonago inplikatu nau. Nahiz eta elkarrizketok ez ditudan bizitza-historia bezala tratatu, osagai biografiko handia izan dute eta, maila horretan, zaila izan da Miren Llonak (bizi-historiei buruz ari delarik) esaten dituenak gogoan ez izatea:

Analizar una historia de vida exige la realización de dos tareas de forma simultanea, por un lado, examinar el documento longitudinalmente, en su diacronía, explorando la relación que guardan los episodios unos con otros hasta encontrar un hilo conductor general, lo que consideramos el eje narrativo autobiográfico; por otro lado, el análisis de la historia de vida significa también explorar la coherencia y las contradicciones de los diferentes episodios y anécdotas en sí mismos, y también con respecto a la totalidad del relato. Analizar la narratividad de los relatos orales es, pues, una tarea compleja, cercana a la crítica textual y al deconstruccionismo, que acerca la historia oral al análisis discursivo (Llona 2010:162).

Erabilitako metodologiak ez zuen ikuspegi hauek nagusitzat hartzea ahalbidetzen, kodetzearen ideiak berak elkarrizketa bakoitza unitate bezala ulertzea ekiditen duelako: helburua ez da solasaldi bakoitza independenteki ulertzea baizik eta, esperientzia kolektiboaren bila, ideiak elkarrekin nahastea. Aitzitik, osagai biografikoa duten elkarrizketak egin ostean, Llonak aipatzen duen ardatz narratibo autobiografikoan ez pentsatzea ezinezkoa izan zait. Kontakizun ororen ostean esandakoak ardatzen zituen lerroa ikusi ahal izan dut (neuk irudikatutako lerro subjektiboa) edo, gutxienez, entzundakoei zentzua ematen zien ideia edo sentazio bat. Kontraesanen presentzia ere nabarmena izan da: elkarrizketa guztietan ikusi ahal izan ditut lehenago esandako ideia eta ardatz nagusiak zalantzan jartzen zituzten pasarteak eta, horiek, oso lagungarri bilakatu dira narrazioaren ulermenerako. Metodologia horretan fokatu ez arren, elkarrizketen ostean buruan bueltaka izan ditudan ideia horiek zein elkarrizketak beren osotasunean entzundakoan sortzen dizkidanak kodetze-fitxan idaztea erabaki dut. Informazio horrek bestelako elementuak gehituz kodetzearen prozedura “hotzagoak” samurtzen lagundu dit.

Elkarrizketekin egindako bi irakurketa modu ezberdin horiek (kodetzea eta zeharkako irakurketa) elkarrizketatu absenteekiko nolabaiteko gatazka epistemologikoa piztu didate. Alde batetik, kodetzearen tresna metodologiko sasi-automatiko eta objektiboa erabiltzeak elkarrizketatuen hitzekiko lasaitasuna sortu dit, azken finean kodetzea haien hitzak “laburtzeko” modua da. Elkarrizketen zeharkako irakurketak, ordea, osagai askoz subjektiboagoa du (ardatz nagusia identifikatu eta kontraesanei adi egotea) eta, maila

horretan, kokapen epistemologiko pribilegiatua agerian utzi du era argiagoan. Espero ez nuen dimentsio bat ireki da eta, elkarrizketatuen hitzak interpretatzen eta, kasu batzuetan, larregi interpretatzen ari nintzela sentitu dut. Banaketa faltsua den arren, kodeketak besteen ideiak bildu eta ordenatzearen sentsazioa sortu dit, eta zeharkako irakurketak haien hitzak berridazten egotearena. Lehen elkarrizketa-multzoa aztertu ostean, esaterako, aholkulari taldearekin egindako saio batean azaldu nituen gai horren inguruko kezka hein batean nire kokapenarekin lotuta zeuden, eta elkarrizketatuen hitz eta esperientziei larregizko interpretazioa gehitzearen beldurrarekin.

Alde batetik, ikerlariaren kokapenaren inguruko kezka ekidinezinak zirela onartu genuen taldeko saio hartan, izan ere, esandako moduan elkarrizketen interpretazioa parte-hartzaileekin beraiekin egitea ia-ia ezinezkoa zen: haietako askok ez zuten denborarik, edo gogorik ere eta, ikerketa akademikoaren eta eguneroko bizitzaren arteko denbora arrakalak ezinezkoa egingo zukeen lan hori garaiz amaitzea. Denboraren elementua aipatzen dudanean ez naiz ari soilik ikerketan parte hartu duten ekintzaileen denbora faltaz, nire propioaz ere ari naiz: tesia burutu dudanean epean hainbat lan-kontratu kateatu ditut, bi europar proiektutan ikerlari bezala eta irakasle ordezkari bezala (jardunaldi partzial zein osoan), eta ez dut nire ekintzailera ere guztiz alboratu. Ezinbestekoa suertatu zait, testuinguru horretan, ikerketa honetan nuen zentraltasun epistemikoa onartzea.

Kezka epistemologiko denak ez zetozen ikerlariaren posizioarekiko arduratik. Aldi berean, elkarrizketa horiek interpretatzean zailtasunak izan ditut sexualitate eta genero bizi-ortasunarekiko interpretazioarekin. Esaterako, norbere burua gay, lesbiana edo trans* bezala izendatzearen edo ez izendatzearen inguruan interes akademikoa izateaz gain (jendeak horren inguruan egiten dituen hautu ezberdinak ezagutu eta ulertzea) urteetako ibilbidean sendotu den iritzia politikoa ere badut. Beti eman izan diot garrantzia identifikazioari, nahiz eta ikuspegi estrategikotik izan. Gazte-gaztea nintzenetik identifikatu nintzen gay edo marika bezala eta hori borrokarako tresna bezala erabili dut, sexualitatearen eta feminismoaren inguruan komunitate kritikoa sortzeko. Are gehiago, nire esperientzia esploratu dudanean⁶⁹, gay bezala ez identifikatzea erabaki nuen garaiaz pentsatzen badut (13-14 urte bitarteko epe labur batean), nire burua ez izendatzeko arrazoi nagusia beldurra zela ikusi dut. Zentzu horretan, ez identifikatzea, nire esperientziaren zein LGTB* mugimenduen

69 2.1.3 atalean azaldu dudanean auto-elkarrizketaren bidez, baina baita nire nerabezarora eta gaztarora berreraikitze erabili nuen egutegi baten bidez. Egutegi horretan nire bizitzan garrantzitsutzat jo ditudan hainbat gertakizun bildu nituen, hein handi batean internetek eskaintzen duen hemeroteca amaigabea aprobetxatuz. Gertakari politiko, kultural eta sozial garrantzitsuen data eta xehetasunak aurkitzea kasu batzuetan oso lagungarria izan da une horietan non nongoen eta egoera nola oroitzen dudanean esploratzeko.

iruditegiaren bidez, homofobiaren ondorioztat ulertu dut. Elkarrizketak interpretatzerakoan, aldiz, uste hori (beste batzuen artean) suspentsoan jartzea ezinbestekoa da, kokapen politiko propioa eta aurreiritzia ahal den heinean banatuz. Honela, esperientzien aniztasuna ikaspen akademiko, politiko eta emozionalen iturritzat hartu ahal izan dut. Gai honen inguruan tesi-zuzendariarekin zein aholkulari taldearekin izandako elkarrizketak oso lagungarriak izan dira.

Elkarrizketen interpretazioa elkarrekin egitea larregizko lana izan arren, elkarrizketatuen eta nire arteko langa arintzeari begira, parte-hartzaileei esandakoak berrikusteko aukera eskaini diet. Elkarrizketen aurretik parte-hartzaile guztiei solasaldiaren transkribapena eskuratu eta aldatzeko aukera izango zutela azaldu diet. Kasu gehienetan transkribapen osoaren ordez kodetze ariketa egin ostean baliatuko nituen zatiak soilik helarazi dizkiet parte-hartzaileei, dena berrikusi behar izan gabe publikatuko denaren gaineko oniritzia eman zezaten. Ez da ohikoa izan aldaketa asko jasotzea, baina bai zehaztapenak, aipatutako elementu batzuk ez aipatzeko eskaerak eta iritzi aldaketaren ondoriozko moldaketak. Iritzi aldaketak interesgarriak izan dira, aldaketa horiek eta hasieran esandakoen arteko aldeak elkarrizketatuekin beraiekin komentatu ahal izan ditudalako. Ikerketa akademikoan ikerlariak duen pribilegio epistemikoa ezabatu ez duen arren, elkarrizketatuei esandakoak bitan pentsatzeko aukera eman die. Azken finean, txosten hau hainbat aldiz idatzi eta berridazteko aukera izan dudan heinean beste parte-hartzaileei, behin bada ere, esandakoak berrikusteko parada ematea neurri minimo eta egingarria iruditu zait.

2.3 Erabilitako metodoa: analisi situazionala

Ikerketa prozesu orok une eta dimentsio ugari artikulatzen ditu eta horien antolaketari metodoa esaten diogu. Ikerketan burutzen ditugun eginbeharren zerrenda handia da: ikerketa gaia definitu eta mugatzea, ikerketa galdera edo galderak formulatzea, beharrezkoa bada hipotesiak formulatzea, erabiliko den begirada metodologiko eta tekniko ondo zehaztea, gaiari buruzko teoriak ezagutu eta barneratzea, datuak ekoiztea, interpretatzea, ondorioak ateratzea eta abar. Guzti horiek elkarri loturik daude, baina nola lotuko diren erabakitzea ikerketa bakoitzari dagokion betebeharra da. Hipotesiak formulatzeko zenbat teoria irakurri behar dugu alde aurretik? Lehen datu-bilketa lortu ostean berehala aztertuko dugu ala datu denak izan arte itzarongo dugu azterketa eta interpretazioa egiteko? Nahi baino gehiagotan ikerketa prozesuak linealtzat aurkezten dira: pausu bakoitzak hurrengo ahalbidetzen du eta beraz segida-ordenu bakar posiblea dago. Baina, errealitatean, ikerketa guztiek eginbehar horien guztien arteko harreman konplexu eta desordenatuagoa ezartzen dute, beharrezkoa suertatzen delako emandako pausuak berrikusi eta moldatzea.

Tesi honetarako eginbehar hauek ordenatzeko forma partikularra duen Analisi Situazionalaren metodologiara gerturatu nintzen, berau abiapuntutzat hartu eta ikerketaren beharretara zein nire ahalmenetara moldatzeko asmoz. Hurrengo orrietan metodologia horren berri emango dut lehengo, geroago ikerketan nola artikulatu dudana azaltzeko.

2.3.1 ANALISI SITUAZIONALA: JATORRIAK ETA INTERESEKO GAKOAK

Analisi Situazionala Clarkeren lanaren bidez ezagutu dut eta bere planteamenduak izan dira nagusiki metodologia horren inguruko nire ikuskera moldatu dutenak. Hori dela-eta, egun metodologia hori lantzen duten autore gehiago egon arren, epigrafe honetan bere lanari erreparatuko diot nagusiki, oinarri bezala “*Situational Analysis: Grounded Theory After the Postmodern Turn*” (2005) liburua hartuz.

Liburuaren izenburuak berak adierazten duen moduan, Analisi Situazionala hemendik aurrera Oinarritutako Teoria edo OT izendatuko dudana “Grounded Theory”arekin estuki lotzen da. Oinarritutako Teoriaren planteamenduen erdigunean ikerketaren ikuspegi inductiboa dago, eta hainbat arrazoi tarteko, ikerketa honetarako begirada inductiboa baliagarria izan zitekeela ulertuta, OTra eta ondoren Analisi Situazionalera gerturatu naiz tesi honen hasieratik bertatik. Baina, ze ezberdintasun daude metodo deduktibo eta inductiboaren artean?

Metodo deduktibotik abiatzen den ikerketa egituratzen duen eskema, salbuespenak salbuespen, honakoa da. Hasteko, ikerketa gaia hautatu eta mugatu ostean (eta, batzuetan gaia mugatzeko prozesuaren laguntza gisara ere) ikerlariak bere burua gaiari buruzko teoriekin ondo jantzi behar du, hasi teoria “handietatik” eta maila sektorial edo lokaleko teorietaraino. Teoria horien jakitun, bere ikerketa galdera, helburu eta azpi-helburuekin koherenteak diren hipotesi zentzuzkoak artikulatzeko gai da ikerlaria. Hipotesi horiek metodo zientifikoaren bidez (deskribapena, konparazioa edo esperimendua, adibidez) baieztatu edo ukatu egingo ditu, eta ondorioztara ailegatu. Baieztatutako hipotesiek existitzen diren teoriak ontzat ematen dituzte eta ukatzen diren hipotesiek teoria hori baieztatu, ukatu edo zehaztapenez jantzi dezakete.

Gai honen inguruko ikerketa diseinatzen hasterakoan, eredu horrek ikerketari ahalik eta probetxu handiena ateratzeko zailtasunak jarriko zizkiola ondorioztatu nuen. Hasteko, gai honen inguruan ez dagoelako corpus teoriko sendorik gure testuinguruan eta, hortaz, marko teorikoa teoria “handietara” eta beste testuinguruetan sorturiko teoria espezifikotara mugatuko litzatekeelako. Areago, gaiaren inguruko teoria zabaletako asko (interes propioz) aldezturirik irakurrita nituela onartuz, hipotesiak planteatzerako orduan irekitzen ziren aukerak ez ninduten asetzen: edo beste testuinguru batzuetan sortu diren teoria

orokorretatik abiatu edo nire iritzi eta intuizioetan oinarritu behar nintzen hipotesiok sortzeko. Zer esanik ez, ez zaizkit epistemologikoki arazotsuak iruditzen aukera hauek, azken finean ikerlari guztiok dauzkagu intuizio, iritzi eta gure begirada alde aurretik baldintzatzen duen begirada teorikoak. Nire kezka ez zen, beraz, objektibotasunaren ingurukoa, baizik eta ikuspegi horrek ikerketaren panorama mugatzeari buruzkoa.

Kezka hori nuen buruan 60. hamarkadan AEBetan osasunaren soziologiaren ikerketen berotara sortutako Oinarritutako Teoriaren proposamen metodologikoarekin topo egin nuenean. Metodologia horren helburua teoriaren sorrera bera da, eta ez teoriaren bidez sorturiko hipotesien baieztapen edo ukapena. Zentzu honetan, beraz, *teoriarantz* doan ikerketa metodo induktiboa da, eta ez *teoriatik* datorren metodo deduktiboa.

OTaren sorreraren lekuko den osasunaren eta medikuntzaren soziologia nahiko sektore feminizatua izan arren, bi gizon dira proposamen metodologiko horren inguruan oihartzun handiena lortu dutenak. Metodologia horren sortzaile gisa ezagunak diren Barney Glaser eta Anselm Strauss ikerlariak ospitaleetako erabiltzaileen mina eta heriotzaren inguruko ikerketa publikatzen dute 1965eko *“Awareness of Dying”* (2005) liburuan eta, ikerketak sortutako galdera metodologikoei erantzun asmoz (diotenez, ikerketa aurkeztu orduko lehen galdera beti “hau nola egin duzue?” izaten zen) *“The Discovery of Grounded Theory”* (1967) liburua osatzen dute. Testu horretan hasitako bidea hamarkada luzetan zabalduko da, ez horrela beraien arteko kolaborazioa, izan ere, ikuspegi ezberdinak hartu eta haserre amaituko dute. Lanaren izenburuak berak, berriz ere, pista ematen digu haiek une hartan induktibismoaren inguruan duten begirada positibistaren inguruan: Oinarritutako Teoria *deskubritu* egin dutela diote, lehenik hor zegoen baina inork aurkitu ez duen elaborazio metodologikoa bailitzan, eta ez haien proposamen bat.

Kontuan hartzekoa da garai horietan AEBetan soziologiaren baitan ikerketa eredu kualitatibo eta kuantitatiboen arteko eztabaida bizia zela, eta autore hauen lanak ikerketa metodologia kualitatiboen garapen eta onarpenari lagundu nahi ziola. Testuinguru horretan, ikerketa kualitatiboarekin lan egiten zuten askok beren begiradaren objektibotasuna azpimarratu nahi izan zuten haien idatzi metodologikoetan, horretarako printzipio positibistak bere eginez.

Metodologia hori sortzerakoan biek daramaten motxila teorikoa ere ulertzea funtsezkoa da (Glaser Columbia Universitytik zetorren eta Mertonen jarraitzailea zen, eta Strauss Chicagoko eskolaren eta Meaden teoria interakzionisten bueltan formatu zen). OT ez da beti “metodologia” bezala izendatzen, batzuetan “ikuspegi” bezala katalogatzen da ere. Honen oinarrian dagoen eztabaida interesgarria da: ikerketa metodologiak teknika edo prozedura huts bezala ulertuz gero, OT “metodologia” dela esan genezake, ia-ia teknika bat ere. Aldiz,

ikuspegi sakonagotik begiraturaz gero, eta metodologiak teknika hutsen bildumak baino gehiago direla eta epistemologiarekin lotura estua gordetzen dutela onartuz, zintzoa litzateke OTri ikuspegi teorikoa esatea. Edonola ere, ez naiz terminoen arteko eztabaidan sartuko, izan ere, gaiari buruzko bibliografian autore berdinek ere tarteka termino bat eta bestea erabiltzen baitute.

Oinarritutako Teoriaren prozedura nagusiak

OTren planteamendua induktiboa eta konparatiboa da. Helburua teoriak datuetatik eratorzea den heinean, egin beharreko lehen lana datuen bilketa da (Birks eta Mills 2011). Honetarako arrazoi nagusia, berriz ere, ikuspegi positibistan oinarritzen den sinesmen batean datza: aldez aurretik eta irakurritako teoritik abiatuz gero, datuen bilketa fasera heldutakoan datuok biltzea berez mugatutako operazioa izango da. Demagun, ikerketa deduktibo askotan egiten den moduan, soziologoak egindako lanketa teorikotik analisirako aldagai eta kategoria batzuk definitzen dituela eta landa-lana ikuspegi horretatik antolatzen duela. Jasoko dituen datuak kategoria horien araberrakoak izango dira eta posible da beste hainbat datu “pasatzen uztea” hain zuzen ere haien bila ez dabilelako. OTk hori ekidin asmoz datu bilketa abiapuntu moduan jartzen du: datuek sortzen dituzte aldagai eta kategoria esanguratsuak eta ez aldez aurretik idatzita dagoen teoriak.

Begirada hau ikuspegi positibistan oinarritzen dela diot aldez aurretik egindako lanketa teorikoa “kutsadura” moduan ikusten duelako eta errealitate objektibora gerturatu gaitzakeen ikerketa mota bat egon badagoela pentsatzen duelako. Berriz ere, metodologiaren helburu objektibista zalantzan jarri beharrean nago, bi arrazoi direla medio. Lehenengo arrazoa, jadanik aipatu dudan moduan objektibotasuna ikerlariaren esku-hartze ahalik eta txikienarekin berdintzea ezegokia iruditzen zaidala. Egokiagoa ikusten dut ikerlariak ikuspegi bat duela onartzea eta horrekin lan egitea objektibotasun konprometitu baterantz. Bigarren arrazoa nire azalean bertan bizi ahal izan dut: aldagai eta kategoriak finkatzeko aldez aurretik teoritik ez abiatzeak ez dakar norberak bere ibilbideagatik dituenak ezabatzea. Ikerlaria ezin da “zeron” jarri, ez ezagutzen duenari ez eta pentsatzen duenari dagokionean. Berriz ere, OTren begirada lar positibista iruditzen zait aspektu honetan. Hala ere, begirada objektiboagoa bermatzen ez duen arren, metodo induktibo batekin lan egiteak, eta aldez

aurretik kategoriak ez definitzeak, aukera handiak eskaintzen dituela uste dut. Era berean, Oinarritutako Teoriaren inguruko planteamenduak denborarekin aldatzen eta eguneratzen joan dira, ikuspegi epistemologiko ezberdinekin konbinatuz, eta jadanik asko dira ikerketa zerotik abiatzen ez dela diotenak, ikerlariak bere motxila teorikoarekin ekiten diolako kezka eta zalantzen planteamenduari (Andréu Abela 2007:64).

Datuen azterketa lehen pausua izatea ez da OTn soilik erabiltzen den metodoa. Hala ere, gehienetan ez zaie datu horiei balio zentralik ematen eta “azterketa esploratzaile” gisa ulertzen dira lehen analisi hauek. OTn datu bilketa prozesu nagusia da eta ikerketaren bidea datu bilketarekin hasteaz gain, datu horiek lantzeko era partikularra ere dakar: “laginketa teorikoa”. Laginketa teorikoak etengabeko datuen konparazioaren bidez funtzionatzen du (Trinidad Requena 2006), eta bere helburua prozesu induktiboa artikulatzea da.

Datuak jasotzen diren heinean haien azterketari ere ekiten zaio. Horrek ez du esan nahi, adibidez, elkarrizketak eginez gero, lehen elkarrizketa egin eta berehala ekin behar zaionik laginketa teorikoak eskatzen duen kodetzeari, baina kodifikazio guztia amaierako uztea ere akatsa litzateke. Tesi honetarako, adibidez, elkarrizketak hiru edo lau multzoetan kodetu dira, horrenbeste elkarrizketa egin ostean laginketa eginez.

Datuen analisisia lerroz-lerro egiten da (Glaser eta Strauss 1967), alegia, elkarrizketaren transkribapenaren irakurketa motel eta zehatza eginez, eta bertan presente dauden kontzeptu denak kode bezala grabatuz. Kontzeptu horien propietateak eta beraien arteko harremanak seinalatuz kategoriak sortzea da helburua. Prozesu guztia kodeak nola tratatu diren jasotzen duten “memo” edo ohar-koadernoetan egindako anotazioekin osatzen da. Katgoria horiek, astiro astiro, haien propietate eta harremanen bidez elkartzen doaz, gero eta abstrakzio maila handiagoa duten kategoriak lortuz, azkenean katgoria nagusira heltzeko. Katgoria nagusiak, bigarren eta hirugarren mailako katgorien laguntzaz, gertakari (ekintza) sozial zehatza esplikatzeko gaitasuna izango luke, alegia, “zer gertatzen ari da hemen?” galderari erantzutekoa.

Katgoria eta kontzeptuak elkartu eta berauei abstrakzioa ematea da, hain zuzen ere, OTn sorkuntza teorikoa ahalbidetzen duena. Prozeduraren amaieran, hortaz, ikerlariak hipotesi teorikoak formulatzeko gaitasuna du, eremu zehatz batean erabilgarriak izan daitezkeen ondorio teorikoak formulatuz, teoria soziologiko orokorrak espazio zehatzetan “frogatu” ordez. Eremu espezifiketatik sortutako teoria hauei “teoria substantiboa” esaten zaie; eremu ezberdinetako teoria substantiboak konparatu eta uztartuz ondorio zabalagoak eskainiko dituen “teoria formal” izeneko formulazio teorikoak sortu daitezke.

OTren azken ezaugarri esanguratsua datuak zer diren mugatzeko duen era da. Metodologia horren printzipio nagusietako bat “dena dira datuak” da, eta beste metodologia eta prozedura batzuetan alhora utzi edo kontuan hartzen ez diren hainbat osagai ontzat jotzen ditu. Elementu horiek ikerlariak egindako oharra edo beste ikerlari eta irakasleekin izandako elkarrizketak izan daitezke. Esaterako, Glaser berak bere telefono elkarrizketak grabatzen

zituen bere ikerketetan, transkribatu eta datuekin batera aztertzeko. Straussek hainbatetan datuen azterketa kolektiboa egin zuen eta azterketa sesio horiek ere erregistratu egin zituen. Sortzen diren datu berri hauek laginketa teorikoan integratzen dira eta teoria sortzeko lagungarri dira. Ikerketa honen testuinguruan, esaterako, tutorearekin izandako elkarrizketak, beste ikerlariarekin izandakoak eta aholkulari taldearekin izandakoak erregistratu eta aztertu ditut, kodifikazio prozesuari laguntzeko.

OTri egindako kritika epistemologikoak

Orain arte OTren inguruan azaldutakoek ikerketa metodologia eta epistemologia feministekin hainbat konexio eta deskonexio azaltzen dituzte. Glaser eta Straussek OT klasikoa formulatu zutenetik gaur egunera arte, hainbat izan dira ikuspegi hau era kritikoan berrikusi dutenak, askotan ikuspegi feministetatik. Kritika feministak (Fox Keller 1991; Harding 1996; Lazo 2009) eta ikuspegi post-estruturalistek (Kuhn 2004) egindako lanetik tiraka Oinarrizko Teoriaren printzipioetako batzuk zalantzan jarri dituzte autore ezberdinek, tartean Kathy Charmaz (Charmaz 2006; Charmaz eta Bryant 2007) eta Adele E. Clarke (Clarke 2005; Clarke, Friese, eta Washburn 2015).

Charmazek, “Constructing Grounded Theory” liburuan (2006) OT klasikoari bere alderdi konstruktibista eta objektibistak parez-pare jarritz egiten dio kritika. Aipatu moduan, OT klasikoak proposatzen duen metodologia induktiboa ikerlariaren erabateko objektibotasuna bermatzeko forma bezala aurkeztu da: larregizko lanketa teorikoak eta hipotesiak kontrastatzean zentratzeak “errealitatean” gertatzen ari dena partzialki hautematera darama ikerlaria, bere oinarri teorikoei gehien moldatzen zaizkion datuak bilatuz. Aldiz, bere teorizazioak (era induktiboan) datuetatik abiatzen baditu, errealitatearen deskribapen eta teorizazio zintzoagoa egingo du, bere burua alboratu utziz.

OTk teoriak errealitatearekin inolako loturarik gabe sortzeari egin dion kritika ederto konektatu zitekeen esperientzia, materialtasuna eta gorpuztasuna teorizazioetan txertatzearen inguruko planteamendu feminista batzuekin. Aldiz, planteamendu hori ikuspegi positibistatik egitea, subjektu ezagutzaile neutro eta ikusezina (berriz ere) aldarrikatuz, ez doa bat lehenago ikusi dugun Harawayren (1995) objektibotasun feminista eta konprometituaren ideiarekin. Charmazek OTren begirada positibista erabat alboratuz ikuspegi eraldatzaileak berreskuratzearen aldeko apustua egiten du.

Idea berdinetatik tiraka idatzi zuen Clarkek ere bere gida liburua (2005). OTk ikuspegi interakzionistekin duen harremanean sakonduz, eta teoria horien baitan garatu diren ikuspegi konstrukzionistak (bereziki Chicagoko eskolako ekologien ikuspegia) abiapuntu hartuta, soziologo estatubatuarrak bide hori zabaldu, sakondu eta garatu nahi izan du. Oinarritutako Teoriak, ikuspegi post-estrukturalista eta feminista eskutik hartuta, bira posmodernoari erantzun beharko liokeela argudiatu du, zientziaren kritika epistemologiko kritikoeekin bateragarria dela defendatuz.

Clarkek OT errealismo eta positibismoaren paradigman kokatzen du eta bere proposamena (Analisi Situazionala), aldiz, eraikuntzaren paradigman. Horrek subjektu/objektu banaketan eta bien arteko harremana irudikatzeko modua aldatzen du: ikerlariak berak ikerketa objektuarekin duen harremana mahai gainean jarri eta onartu behar duela aldarrikatzen du, ez soilik zintzotasunagatik, baizik eta harreman horrek izan ditzakeen abantailak esploratzeko. Bestalde, objektibotasunaren ideia “naif” eta modernoari aurre egiteko modutzat erreflexibitatea eta subjektibotasun kontzientea proposatzen ditu, planteamendu feministei jarraituz.

Analisi Situazionalaren printzipio eta prozedurak

Clarcken Analisi Situazionala ikuspegi epistemologiko ezberdin eta kritikotik abiatu arren, bere aurrekariarekiko jarraipenean kokatu daiteke (Clarke Straussen ikasle eta lankide izan zela kontuan hartu beharrekoa da). Jadanik aipatu ditugun kritika epistemologiko orokorretik abiatuz, bere lehen kritika OTaren prozedura orokorrari bideratzen dio. OT klasikoan ulertzen den moduko kodetze eta laginketa teorikoak (datuetatik teoria substantiboak eta horietatik teoria formalak sortzeak) prozesu sozialen ulerkera

sinplifikatzen duela seinalatzen du. Izan ere, laginketa teorikoaren prozeduraren atzean interkazionismo sinbolikotik jasotako “oinarrizko prozesu sozial” kontzeptua dago, ekintza sozial bakoitzaren muinean prozesu nagusi bat dagoenaren ideia. Baina teoria kritikoek oro har, eta feministak partikularki, prozesu sozialak dinamiko eta konplexuak direla ulertzeko moduko ekarpenak egin dituzte, gertaeren ulermen zabalagoa lortzeko beharra azpimarratuz. Honela, Clarkek oinarrizko prozesu sozialaren ideia bera zalantzan jartzen du, gertaera sozialen atzean beti azalpen bat baino gehiago gurutzatzen direla argudiatuz eta, beraz, artikulazio guzti horiek bakar batera murrizteak zientzia sozialen azalpen gaitasuna mugatu besterik ez duela egiten salatuz. Soziologo estatubatuarrak, hortaz, prozesuak era konplexuagoan azalduko dituen metodologia aldarrikatzen du. Aldi berean, teoria sustantiboetatik teoria formalak sortzea, alegia, ikerketa kokatu eta lokaletan zentzua duten azalpenak irismen handiagoa izan dezaketen teoria orokorretan biltzea, desegokitzat jotzen du: Analisi Situazionalak teoria sustantiboetara bideratu beharko lituzke bere ahaleginak, baina ez teoria horiek orokortzeko, baizik eta ikuspegi soziologikotik interesa duten ezagutzak kokatuak eta lokalak lortzeko. Horrek ez du esan nahi soziologiatik edo bestelako diziplinetatik ezin direnik teoria abstraktuak egin, baina tentuz ibili beharra dago teoria horiek unibertsal moduan ez aurkezteko.

Teoria orokorren eta prozesu sozialen sinplifikazioa soziologian asko baliatzen den kurba normalaren ideiarekin irudikatzen du Clarkek. Kurba normalean, alde zuzenetik erroremarjina zehaztuko dugu, hots, arau orokorretik kanpo kokatu ditzakegun kasuen portzentaia, gehienetan %10a, kurbaren alde bakarrean edo bitan kokatu daitekeena. Nagusiki ikerketa kuantitatiboan oinarritu den ideia horren bidez, begirada kuantitatibo zein kualitatiboan bidez gertakari sozialak aztertzean arau orokorraren bila tematzen gara eta, horrela, konplexutasuna eta ezarritako arautik desbideratzen den oro akats bezala ulertzen dugu, edo asko jota araua baieztatzen duen salbuespen gisara⁷⁰. Kurba normalaren ordean, Clarkek kartografiaren metafora proposatzen du, egoera zehatzak ulertzeko asmoz prozesu konplexuak irudikatze gaitasuna duten azalpenen bilduma. Horretarako, kode nagusi edo zentralen ordean, *kontzeptu sentigarriak* bilatzea proposatzen du: errealitate sozialen ulermena erraztu arren egoeren interpretazioa erabat ixten ez duten nozioak.

70 Juanjo Olasagarrek ere, bere poema batzuetan kurba normala erabiltzen du normatibotasunarekin lotuz: “(...) *Hor aritzen gintuan hi eta biok / kurba normalaren bazterretan sufritzen, / eta bazterrez bazter bizitzara / erori omen hintzen, hire hitzetan, / ezkondu eta amnesia pilulen zale egin / borragoma itzelaren kontu harekin. // Adi ezak, bazterrez bazter gabiltzanez / hi eta biok, hizpidera ekarriko diat / %10arena. Bai, motel, bai / gizonak maite hituen eta dituk. / Nik jarraitu haut, hauek lanak, / hire gehiegikeriak begiratu, / jarraitu inork sekula guztian / jarraituko ez hauen moduan: honetan / elkarrekin gaudeneko halabeharraz. / Haragi biziko hire erromantizismoa / hondoan estali nahi nian nik, hik baina: kia! / Muturreko gizona izan haiz beti, / eta gaur, jada, bizitzaren / bestaldean hago, eta barrikadaren. / Amore eman duk, ez ezak ezetz esan, / lortu duk, bai, lortu duk, / nahiz eta gaur etsipenaren bazka izan, / bai kabroi zaharra, bai armairumaria, / kurba normalaren erdi-erdian gaudek, / azkenik!” (Olasagarre 2000:16-17).*

Clarkek egoera sozialak, eta ez egintzak, jartzen ditu erdigunean. Egoera kontzeptuak berak (ingelesez, “*situation*”) ekintzak eta bere kondizio sozialak barnebiltzen ditu eta, honela, interakzionismoak ekintzan jarri duen larregizko enfasi eta isolamendua gainditzeko ahalegina egiten du. Zentzu honetan, ekintza (interakzionismotik jasotzen duen maila *mikroa*) eta ingurunearen (estrukturalismotik jasotako maila *makroa*) arteko maila *mesosozialean* kokatzen da egitura eta ekintzaren arteko negozioaren esparrua den bere egoeraren nozioa.

Prozeduraren ikuspegitik, Clarkek Oinarritutako Teoriaren prozeduraren elementu gehienak mantentzen ditu, baina ikuspegi ezberdinetik tratatuz eta aldi berean tresna berriak proposatuz. Analisi Situazionalaren planteamenduan ere abiapuntua datuen sorrera da. Datutzat hartu ditzakegu bizitza sozialetik eratortzen diren edozein elementu (idatziak, elkarrizketak, behaketak, objektuak eta abar) baina hemendik aurrera, eta tesian erabili ditudanak horiek izan direlako, elkarrizketez arituko naiz datuak aipatzen ditudanean. Lehen elkarrizketa multzoa egin ostean hasi behar da kodetzea eta kontzeptu sentigarrien bilaketa, preseski ikerketak aurrera egin ahala kode batzuk nola jokutzen duten ikustek aurrera egiten lagunduko digulako. Tesi honetan, adibidez, lehen elkarrizketa multzoa kodifikatu eta aztertu ostean, kodeetako batzuk jada “betetzen” (“saturatzen”) hasi ziren, alegia, elkarrizketa eta une ugaritan azaltzearen bidez gaitasun esplikatiboa irabazten. Hurrengo elkarrizketetan, beraz, kode horiek errepikatzen jarraituz gero kode komunak direla esan dezakegu. Beste kode batzuk ordea, une puntualetan soilik agertu dira baina indar bereziarekin, izan salbuespenak direlako edo beste kode batzuekin lotzeko gaitasun handia dutelako. Hurrengo elkarrizketetan kode horiei adi egotea garrantzitsua da eta, are gehiago, kasuren batean elkarrizketaren azken unean nik neuk atera ditut ideia horiek solasaldietara.

Kodetze prozesua ere OTren antzerakoa da: transkribatutako elkarrizketa lerroz-lerro irakurtzen eta kodeak orriaren alboan (edo, nire kasuan, testu artxibo batean) gordetzen dira. Hurrengo eginbeharra elkarrizketa bakoitzetik batezbestean atera ditudan 600 kodeak haien artean elkartu eta kode orokorragoak sortzea da. Abstrakzio maila handitzen doan heinean, erabilgarria den kode-multzoa lortuko dugu eta kode sentigarrietara gerturatzen hasi. Kode horiek lantzeko, Clarkek mapekin lan egitea proposatzen du, lau mapa proposatuz, hiru mapa nagusi eta horietako lehengoaren bi aldaera.

Horietan lehena *mapa situazionala* da (ikus 1. ilustrazioa) eta, esan bezala, bi aldaera ditu. Lehengoari mapa desordenatua esaten zaio eta bigarrenari, ordenatua. *Egoeraren mapa desordenatua*n kode guztiak, haien arteko hierarkia edo antolaketarik gabe, agertzen dira. Kodeek era guztietako elementu sozialak ordezkatzeko dituzte mapa horretan: izen propioak, emozioak, lekuak, ideiak, taldeak, bizipenak, erreferentzia kulturalak edo animaliak, besteak beste. Mapa honekin hainbat kopia egin daitezke edo mapa osatzeko mugikorrek diren hitzen bilduma sortu euskarri informatiko batean. Nire kasuan GNU/Linux sistemapean dabiltzan marrazketa bektorialeko Inkscape programa eta Freeplane erabili ditut, hitzak mugitu, multzokatu, banatu eta haien artean gezi, marra, borobil eta bestelako forma geometrikoen bidez lotzeko aukera eskaintzen didatelako. Izan ere, mapa desordenatuon helburua elementu

1. ILUSTRAZIOA: MAPA SITUAZIONALAREN ADIBIDEA



(norberak egin).

ezberdinek haien artean izan ditzaketen harremanak pentsatzen hastea da: ze elementuk baztertzen du beste bat? Zeinen bidez jartzen dira harremanean ustez oso urrun dauden bi kontzeptu? Zeinek desplazatzen du elementu baten ohiko esanahia?

Hurrengo fasean osagai horiek ordenatu eta kategoria ezberdinen pean kokatuko ditugu, *egoeraren mapa ordenatua* sortuz (ikus 2. ilustrazioa). Sailkapen hori egiteko erabili ditudan kategorietako batzuk teoria sozialetan oso ohikoak eta orokorrak izan dira eta beste batzuk elkarrizketen kodetzetik bertatik atera direnak. Besteak beste, eta elkarrizketa-multzo ezberdinak batuz, honako kategoriak erabili ditut kodeak sailkatzeko: norbanako aktoreak,

aktore kolektiboak, isilik dauden aktoreak, gizakiak ez diren aktorek, norbanakoen inguruko eraikuntza diskurtsiboak, elementu politiko eta ekonomikoak, sozio-kultural eta sinbolikoak, denbora elementuak, espaziozkoak, eztabaidagaiak, esperientzia pertsonalak, LGTB* komunitateari buruzkoak, dispositiboak eta abar. Kodeak gerora erabilgarriak izango diren kategorietan sailkatu ezean, laburpen hutsa egingo dugu eta, ziur aski, laburpen horrek elkarrizketarako erabili dugun gidoira eramango gaitu nagusiki. Hortaz, garrantzitsua da prozesu honek datuei abstrakzio eta interpretazio maila gehitzen diela ulertzea. Mapa hauek elkarrizketa bakoitzarekin egin daitezke eta gero haien artean elkartu eta laburtu; nik hala egin dut.

2. ILUSTRAZIOA: EGOERAREN MAPA ORDENATUA


Egoeraren Mapa Abstraktua, bere bertsio ordenatuan. Abstract Situational Map: Ordered/Working version.

Maparen iturburua		Elkarrizketak (5) 3. multzoa	
Data		2018-09-26	
Norbanako elementu eta aktoreak (individual human elements/actors)		Gizakiak ez diren elementu/eragileak (nonhuman elements/actants)	
Aitaren lehengusina lesbiana Lagun marika komunistak Klaseko friki empoloiak Halberstam	Kide feministak Kuadrilan beste marika bat Uniko lagunak Alderdietakoak Militanteak	Gurasoen beldurrak Isiluneak IHESA	
Gizaki elementu eta aktore kolektiboak (collective human elements/actors)			
Ezker alternatiboa Ezker abertzale ONG LGTB mugimenduak zaintzen zaituen sare militantea		Trans-queer mugimenduak (estatukoak) Mugimendu autonomoa Gazte mugimenduak Kuadrilla guai-malotea	
Norbanako edo kolektiboak izan daitezkeen aktoreen inguruko eraikuntza diskurtsiboak (Discursive constructions of individual and/or collective human actors)			
Asistentzialismoa Disforia de genero Epika iraultzailea Feminismoa Lesbofeminismoa Gizarte Eraldaketa Queer eta LGTB mugimenduen arteko gatazka Ikusgarritasuna Ikuspegi kolektiboa Passing		Indibidualtasuna Ilusio militantea Jabetzea Politizazioa Zaintza Maitasun Erromantikoa Amairutik ateratzea Pertsonaia publiko izatea (moztu) LGTB bizitza bizigarriak Identifikazioa (Homo-gay-mari-bollo-trans...) Zure generoan bizitzen ikastea	
Elemento politiko/ekonomikoak (political/economic elements)		Elementu soziokultural/sinbolikoak (Sociocultural/Symbolic elements)	
Ezker Abertzalearen prozesua Errepresioa Minoria hipermilitantea Militantzia Bikoitza HM ahuldadea Zuzendaritza eta oinarrien arteko ezberdintasuna Lana (heteroago jantzi) Demanda aglutinatzaileak	Instituzionalizazioa Erreferentzialtasuna Eraso sexistak Lan banaketa mugimendutan (LGTB eta feministak marroiak jaten) Langile klasea Familiaren izaera Alderdien matxismoa	Sozializatzeko espazioa-komunitatea Tentsioen somatizazioa Belaunaldien artekoak Tentsioak feminismoaren inguruan Ardi beltza izatea baina sarearekin Gizotasunarekin desidentifikatzea Aldaketa estetiko/gorpuzkerakoak	Etxean gatazkak militantziagatik Onarpena familian Zure hitza gubxietsi marika zarelako LGTB barruan ezberdintasunak Genero binarioarekin gatazkak (eskola, kirola, medikuak) Feminizatzeko presioa/transsizioaren inguruko ideiak Armariotik (ez) ateratzeak
Denbora elementuak (temporal elements)		Espazio elementuak (spatial elements)	
Batxilergoa Militantziaren hasiera (15-20) Informazio bila Gehitura Lehen harreman bolloa	28J M8 Aisialdia	Kanpora LGTB aktibismo bila Espazio plural y de convivencia real Espazio seguruak Kolektibo barruan prozesuak Kirola Espazio mistoak	universidad Zonas de ambiente gay/trans Auzoa Alderdietako areak (fem/div) LGTB giroa Trasmariabollo giroa Ambiente ko tabernak
Asunto eta eztabaida nagusiak, (gehienetan errefusatuak) (major issues/debates, usually contested)		Harremandutako diskurtsoak (historikoa, narratiboa, eta/edo bisuala) (related discourses, historical, narrative and/or visual)	
Kolektibotasuna/ indibidualtasuna Instituzionalizazioa		Queer teoria	Rocky Horror Picture Show

(norberak egina).

Bigarren mapak *mundu edo arena sozialen mapak* dira (3. ilustrazioa). Hauetan, espezifikoki dimentsio *mesosoziala* irudikatzea da helburua. Bertan kokatuko dira kolektiboak, komunitateak eta elkarrizketetan agertu diren mundu sozialak, haiek posible egiten dituzten eraikuntza diskurtsiboekin batera (ikus marko kontzeptualeko diskurtsoari buruzko azalpenak). Izan ere, Clarken planteamenduan, mundu sozialak haien diskurtsoekin harremanean ulertu behar dira eta, zentzu horretan, munduen arteko talka, elkargune eta distantziak sortzen dituzten diskurtsoetatik interpretatu. Esparru sozial batek erabiltzen

3. ILUSTRAZIOA: MUNDU/ARENA SOZIALEN MAPA




dituen eraikuntza diskurtsibo ageriko edo ez-agerikoak dira mundu horren mugak markatzen dituztenak, eta beste mundu batzuekin teilakatzen denean sortu daitezkeen disonantziak edo harmoniak aztertzea interesgarria da. Adibidez, mugimendu sozial batek, bere muga diskurtsiboak zehazteko, sakrifizioaren ideia oso presente badu (“gurekin dagoenak kausa eta taldearengatik sakrifikatzeko prest egon behar du”), zer gertatzen da dibertimendua eta aisia komunitateen oinarri moduan aldarrikatzen duen beste mugimendu batekin bat egiten duen une eta guneetan? Mundu/arena sozialen mapek talde sozialak unibertso diskurtsibo bezala seinalatzen laguntzen digute, eta baita haien arteko teilakatze, bat egite eta gatazkak aztertzen. Zentzu horretan atentzio berezia eskaini behar zaie *mugako objektuei*, ustez ezberdinak diren bi mundu sozial elkartzeko gaitasuna duten gauza, pertsona, azpitalde, gai, momentu edo lekuei. Mugako elementu horien pista jarraitzeak mundu ezberdinen arteko harremana esploratzen lagundu gaitzake.

Hirugarren eta azken mapa mota (4. ilustrazioa) *posizioen mapa* da. Hauetan eztabaidan dauden edo iritzi ezberdinak sortzen dituzten gaien inguruko irudikapenak lortzen ditugu. Kokapen horiek diskurtsiboak dira, alegia, lehen une batean bederen, helburua ez da elkarrizketatu bakoitzak gai baten edo bestearen inguruan zer pentsatzen duen azaltzea, baizik ere eztabaidan agertu diren kokapen posible guztiak maparen gainean kokatzea. Izan ere, parte-hartzaileek eztabaida horien inguruko posizio anibalentea hartu dezakete, kontraesankorra ere, une batean iritzi bat eta hurrengoan beste bat adieraziz. Posizio posible denak mapan kokatzeak aktore zehatzen iritzia baino eztabaidaren nolakotasuna eta afera

horren kontingentziaren mugak ikusten laguntzen digu, hots, ezbaiaren joko zelaiaren marra gorriak. Prozedura honen bidez gai ugari buruzko ekoizpen diskurtsiboak behin-behinean esatarietatik banatzen ditugu, sakonago aztertu asmoz eta, maiz, emaitza interesgarriak lortzen dira: diskurtso batzuen aktoreak iruditegi sozialean oso urrun egon, posizio diskurtsiboen arteko antzekotasunak aurki ditzakegu eta alderantziz.

4. ILUSTRAZIOA: POSIZIOEN MAPA



Mapa hauen xedea ez da aztertzen ari garen egoera irudikatzen duten errepresentazio fidagarriak sortzea, ikerketa prozesuan zehar elementu ezberdinen arteko harremana era dinamiko eta aldakorrean pentsatzeko tresnak eskaintzea baizik. Erabili ditudan mapa guztiek hiru, lau edo bost bertsio ezberdin izan dituzte, elkarrizketetatik abiatuz kodeak eta kontzeptuak elkartu, banatu eta harremanean jartzeko egon diren modu ezberdinen adierazle. Mapa horiek denak, gainera, harremanak zehazterako orduan hartutako irizpideak edo izandako zalantzak erregistratzen dituzten ohar eta anotazioz lagunduta doaz. Mapek elkarrizketatuekin beraiekin datuak interpretatzeko balio dezakete, edo egindako interpretazioen inguruko feedbacka jasotzeko, mapa horiek besteei erakusteko modukoak

dira pentsatzen badugu. Tesi honen kasuan, mapak nire pentsamendu lerroak kitzikatzeko zein tutore eta beste ikerlari batzuekin eztabaidatzeko baliagarriak izan dira. Hirugarren kapituluaren ikusi daitekeen moduan, haietako batzuk ontzat eman ditut datuen interpretazioan laguntzeko baina gehienak (50 inguru) ikerketaren prozesuaren partetzat hartu ditut, ez emaitzen erakusletzat.

Teoriaren lekua

Hasieran aipatu dut prozesu inductiboek ez dutela teoria abiapuntu ezinbestekotzat jotzen, baina horrek ez du esan nahi ez dagoenik lanketa teorikorik. Esan bezala, ikerlariak daraman motxila teorikoa presente dago uneoro, baina horretaz gain, Oinarrizko Teoriak proposatu eta Analisi Situazionalak moldaturiko laginketa teorikoaren prozedurak iturri teorikoen erabilera aurreikusten du. Ezberdintasun nagusia teoria horiei esleitzen zaien funtzioa eta kokapen kronologikoa dira. Lehengoari dagokionez, jadanik ikusi dugun moduan, teoria ez da ikerketa gaia mugatu, hipotesiak sortu edo aldagaiak eraikitzeko erabiltzen, datuetan bildutako elementuei indar handiagoa emateko baizik. Esan beharra dut ikerketa honetan Analisi Situazionalan baino leku handiago eskaini diodala, bereziki txostena idazterakoan eta, horretan, ikerketa doktore-tesia izateak eragin handia izan duela ziur aski. Analisi Situazionala erabiliz egin diren ikerketa lokal eta puntual askoren emaitzek ez dute baliabide bibliografiko-teorikoen horrenbesteko erabilerarik egiten, baina horrela egiteak beldurra sortu dit, doktore-tesi onaren kanon ohiko teoria zabal eta sakon erabiltzen duen txostena delako.

Bigarren ezberdintasun elementua teoriak ikerketa prozesuaren kronologian betetzen duen lekua da. Teoriaren lanketari datuen analisiarekin batera ekin diot, laginketaren kodeak elkartzen eta kontzeptuak agertzen diren heinean horien inguruko irakurketak eskuratu edo berreskuratuz. Kasu batzuetan irakurgai horiek alde aurretik ezagunak eta landuak izan ditut, ikerketa gaiarekin oso estu lotzen diren heinean ia-ia ekidinezinak direlako. Hala izan da subjektibotasuna edo identitateari buruz egindako irakurketa edo berrirakurketekin. Beste

kasu batzuetan elkarrizketan agertu diren kontzeptu sentigarrien inguruko irakurgai berriak eskuratu ditut, esate baterako, isiltasuna, gezurra edo transmisoginiaren ingurukoak. Azkenik, ausaren faktoreak ere izan du bere pisua: argitaratu edo itzuli berriak zirelako esku artean izan ditut hainbat testu, edo mintegi, hitzaldi zein solasaldi informaletan gomendatu dizkidalako.

Laburtuz, Analisi Situazionalaren proposamenari jarraituz prozedura induktiboa erabili dut hasieratik, ez zientzialariaren desagerpena bilatzen duen objektibotasun zientifikoa aurkitu asmoz, baizik eta ikerketa honen helburu akademiko eta politikoei hobe lagundu ahal dien planteamendua dela ebatzi dudalako. Gutxi esploratutako gai batean begirada norabide ezberdinetan paratzeko aukera eman dit, nahiz eta ziur aski beste ate batzuk itxi dizkidan. Clarken egoeraren, mundu/arena sozialen eta posizioen mapak nagusiki ideiak eta kontzeptuak haien artean bildu eta egoera era irekian azaldu dezaketen kontzeptu sentigarriak aurkitzeko erabili ditut. Teoria sozial eta filosofikoari ere lekua egin diot analisi osoan zehar eta alde zehar ezagutzen nituen, kodetzearen ondorioz ezagutu ditudan eta bidean paratu zaizkidan beste iturri teorikoak erabiliz.

Kapitulu honetan, tesiaren metodologiaren aspektu orokorrak azaldu ditut: ikuspegi epistemologikoaren inguruko eztabaida feministak laburki aipatu eta nire posizio propioa argitu dut; Harawayren ezagutza kokatuen proposamenari jarraituz ikerketaren dimentsio ezberdinetan nire posizio sozialak izan duen eraginari buruzko hausnarketa batzuk bildu ditut; ikerketa metodo induktibotik garatzeko arrazoiak mahai gainean jarri ditut, hala nola erabilitako Analisi Situazionalaren proposamenari buruzko argipenak eman eta, amaitzeko, teoriak tesian izan duen papera eta pisuari buruz aritu naiz. Hurrengo orrialdeetan, marko kontzeptualera pasa aurretik, ikerketaren egitura orokorrari buruzko ohar batzuk egingo ditut.

3. Ur uherrak: LGTB* pertsonen esperientziak Hego EHko herri mugimenduetan

Kapitulu honetan beren buruak (era lausoan bada ere) gay, lesbiana, bisexual edo trans* moduan identifikatzen diren eta herri mugimendu mistoetan ari diren ekintzaileekin egindako elkarrizketak hartuko ditut abiapuntutzat. Sarrera gisara, parte-hartzaileen ibilbideen inguruko zertzelada batzuk marraztuko ditut, herri mugimenduetara gerturatzeko izan duten moduetan izan dituzten antzekotasun eta ezberdintasunak seinalatuz. Ondoren, elkarrizketen kodetze prozesutik sortu diren kontzeptu eta ideiak azaltzeari ekingo diot, aurrerago azalduko dudak “aguasturbias” edo “ur uherrak” kategoria zentraletik eratorri diren zazpi kategoria landuz: identifikazioak, babesguneak, komunitatea, isiltasuna, aukerak, mugako egoerak eta gorputzak. Amaitzeko, azalduko ideia nagusiak laburtu eta elkarrekin harremanean jarriko ditut.

3.1 Ibilbide (ez hain) komunak

3.1.1 LEHEN GERTURATZEAK

Atal honetako elkarrizketen abiapuntua biografikoa izan da: aktibismo politiko-sozialean zer unetan hasi ziren galdetu nien parte-hartzaileei, hortik abiatuz garai haietaz gogoratzen zutena kontatu eta, hortik aurrera, beraien ibilbidearen kontakizunari bide emateko. Partaide gehienek badute zerbait komunean herri mugimenduetan hasi zirenekoa kontatzerako orduan: beraiak parte hartzen hasi ziren unean mugimendu ugari, oso aktibo eta martxan zeudela diote. Eferbeszentzia hitza aipatu dute askotan, mugimendu asko zeudela, jende asko inplikatzeko zela eta parte hartzea nahiko orokortua zela. Adibidez, mugimenduetan 70eko hamarkada amaieran eta 80ko hamarkadaren hasieran aritu zirenek diktadura amaitu eta berehala bizitzeko gogoak ikaragarriak zirela kontatzen dute, eta horrekin batera ulertu daitekeela parte-hartze aktiborako gogoia ere:

Mucho movimiento, mucha efervescencia, nosotros andábamos mucho de aquí p'allá (...) vamos a las fiestas de los pueblos, intentamos divertirnos... a nivel político... se había muerto Franco en el 77, era un empuje... Unas ganas de salir un poco a la calle también, vamos a drogarnos, vamos a divertirnos (...) empezamos a ir a las verbenas y a los conciertos que había, había pocos conciertos era todo verbenas... Éramos muy musiqueros. Digo efervescencia porque éramos, nos juntábamos la cuadrilla con ganas de salir, de ver cosas... [Kepa]

Beraien aktibismoaren hasiera hamarkada bat beranduago kokatzen dutenek eferbeszentzia bertsua aipatzen dute, eta are beranduago hasi zirenek ere. Elkarrizketatu ditudan partaide gazteenek 2011 inguruan kokatzen dute beren aktibismoaren hasiera eta haiek ere egoera nahasia eta bizia aipatzen dute, parte-hartzea eskatzen eta ahalbidetzen zuena. Ikuspegi soziologikotik, ordea, epealdi hauek oso ezberdin aztertu izan dira, eta ziur aski 80ko hamarkada izan da akademian zein iruditegi kolektiboan “eferbeszentzia” garaitzat jo dena. Lagun hauentzat, aitzitik, garai ezberdinek emozio eta oroitzapen antzekoak esnarazi dituzte eta horrek herri mugimenduen izaera komunitarioarekin lotura izan dezake: herri

mugimenduetara gerturatzea komunitate batera gerturatzea da edo, lehendik ere komunitate horren orbitan zeudenentzat, harreman hori biziagotzea. Zentzu horretan, ohikoa da inguruan gertatzen dena intentsitate handiz bizitzea, gertatzen denaren inguruko irakurketa ere mugimenduen ikuspegitik egiten delako. Badirudi herri mugimendura gerturatzeak berak sentrazio hau areagotzen duela.

Adinari dagokionez, gehienetan oso parte-hartze goiztiarraren berri eman dute ikerketa-kideek. Institutu garaian izan zuten kasu askotan lehen kontaktua mugimenduekin, ikasle mugimenduetan, asanblada irekietan, mugimendu independentistan edo feministan. Gehienek gogora ekarri dute parte hartze maila altua zegoela, bai eta giro oso politizatua ere. Giro horretan, nerabegaroko parte hartze politikoa normalizat jotzen da:

Gure koadrila, gehienak, ni ez, baina beste guztiak ziren A-koak. A-koak gure ikastolan dira guraso euskaldunak dituztenak. Osea, «los RH negatibo»... Esos. «Los RH negatibo» que les llamo yo. Bai, me llaman acomplexao {barreak}⁷¹ porque beti izan naiz B-koa, euskaldundu zena ikastolan (...) eta ni koadrila horretara batu nintzen, orduan normala zen gelditzea manifestara juteko, Bat Egin egunera joateko, berdin lAkoak izateko⁷²... [Marke]

Kasu guztietan horrela ez den arren, aipu horrek ondo adierazten du komunitate politizatu sendoek presentzia zutela, kasu honetan abertzaletasun eta euskaltasunaren inguruan. Aipatzekoa da, noski, mugimendu politiko batetik bestera aldakorra dela gertaera hau, familia politiko guztiek ez dutelako komunitate ikusgarriak sortzeko gaitasun berbera. Hala ere, erreferentzia-komunitate politikoak ez dira Ezker Abertzalearenak soilik. Esaterako, parte-hartzaileetako batek ikastetxe erlijiosoan jasotako eragina azaltzen du:

71 Hemendik aurrera eta testigantza guztietan, { } kortexteen artean daudenak elkarriketatuen esapidetik kanpokoak izango dira, bai gertatu diren gauza extra-linguistikoak (barreak kasu), nik egindako interbentzioak (galderak) edo esaldia hobe ulertzeko behar diren elementuak (adibidez, agertzen ez diren subjektuak, elkarriketaren beste une batean aipatu direlako eta parez-parekoan badakigulako zertaz ari garen).

72 Ikasle Abertzaleki buruz ari da.

Antes te decía que en el cole me habían inculcado algunas cosas muy chungas, pero también algunas muy buenas. Los jesuitas venían también de la teología de la liberación y algunos venían de cosas muy jodidas. Me acuerdo que de repente apareció un cura en el cole que iba por el patio dando vueltas como un zombi y llevaba en la sotana las fotos de sus compañeros asesinados en El Salvador. Te agarraba: «ven aquí, ¿sabes quién es este? Este se llamaba Oscar. Fue asesinado por...» Yo recuerdo, en cuarto de EGB, que decían «no os equivoquéis, aquí no formamos profesionales, formamos agentes de cambio social». Frases que se te clavan. [Joseba]

Hala ere, Hego Euskal Herrian egitura iraunkorrena izan duen mugimendua Ezker Abertzalea izan da, transmisiorako gaitasun handiena izan duena. Nabaria da hori, adibidez, mugimendu horretan parte hartu duten askoren narrazioan, non mugimenduan parte hartzeko gonbidapena oso presente dagoen. Taldeetan antolatuta zeuden ikaskide edo auzokideek parte hartzera animatzen dituzte beste batzuk eta hortik hasten dira maila ezberdinetan inplikatzeko. Hau ere ez da Ezker Abertzalearen baitan soilik ikus daitekeen transmisio politikorako mekanismoa, baina bai bertan parte hartu dutenen artean kontakizun komuna. Herri mugimenduetara gerturatzeko era bat, beraz, politizatuta dauden komunitateen parte izatea edo haietatik gertu egotea da. Ezker Abertzaleak egindako moduan, parte-hartze sozial eta politikoa era positiboan transmititzen duten kulturak dira horretarako gaitasuna dutenak. Oro har, ideario sendoagoa eta ondo finkatutakoa izan ohi dute, baina horrek ez du esan nahi transmisio hori ez denik une batzuetan gatazkatsua. Hainbatek aipatu dute, esaterako, beraien familia-ingurunean parte-hartze politikoa begi onez ikusi arren ez zutela ondo hartu haien seme edo alaba aktibismoan hastea. Familiari buruzko azpiatalean azalduko ditudan arrazoi ugari aipatzen dira, baina babeserako joera izaten da ohikoena, seme edo alaba kontu horietan inplikatzeko ekarri ditzakeen arriskuetatik libratu nahia: *“izan zen zaila, zaila ez beste posizio bat zutelako, zelako familia estandar bat, no te metas en política. Eta izan zen zaila... Oraindik ere da, harreman ona daukat beraiekin baina jarraitzen du izaten demostrazio konstante bat ez naizela gazte ero bat”* [Mikel].

Aldez aurretik politizatuta dauden eremuetatik abiatzen ez diren aktibistek herri mugimenduetara gerturatzeko duten era indibidualagoa da. Arestian aipaturiko eferbeszentzia sozial horren erakarpen gaitasuna hor dago, baina subjektuak familia despolitizatutik herri mugimenduetara salto egin behar du. Halakoetan kontakizunak ez du jada normaltasuna aipatzen, baizik eta borondate indibiduala, ideologia eta, kasu askotan, haustuta: *“siempre he sido de izquierdas”* [Joseba], *“te metías porque te interesaba”* [Lía]. Kasu batzuetan, politikara inguratze hori elkarrizketatuen biografian beranduago kokatzen da.

Hirugarren sarbidea, ziur aski LGTB* kondizioarekin lotuen dagoena, zerbitzuen da. Elkarrizketatuetako batek baino gehiagok atentzio eta laguntza bila LGTB* pertsonentzako asistentzia eskaintzen duten espazioetara gerturatu izana aipatzen du. Interesak ezberdinak izan daitezke (GIB-aren frogak egitea, sostengu emozional eta pertsonala jasotzea gay izateagatik edo transexualitatearekiko ikuspegi positiboa duen asistentzia eredu izatea), baina kasuren batean lehen kontaktu horren ostean aktibismora gerturatu dira eta baita espazio horietatik bestelako militantzia batzuetara salto egin ere.

Izan zen kasualitatea lehen espazio horretatik bidali ninduten jardunaldi batzuetara eta bigarren korrante hau bilatu nuen. Eta ezagutu nituen pertsona batzuk gerora nire lagunak egin direnak eta hor bai bilatu nuen beste ikuspegi... sakonago bat eta zentzu horretan aktibistagoa, ez horren pertsonalista edo asistentzialista. [Arane]

Pentsatzekoa denez, mugimenduetarako gerturatzeak anitzak dira. Aitzitik, garrantzitsua da gerturatze forma ezberdin horiek ez ulertzea elkarrengandik banatuta. Hemen sortu dudana hiruko tipologia lagungarri izan daitekeen arren, ekintzaileen biografietan hori baino nahasiago agertzen dira gerturatze prozesuak. Aldi berean, prozesu horiek soziologian mugimenduak eta parte-hartzea pentsatzeko erabili den dimentsio bakarreko eredu zalantzan jartzeko aukera ematen digute: parte-hartzea ez da soilik *kutsatze* bidez gertatzen, ez eta konbentzimendu ideologiko hutsagatik ere. Espazio batera laguntza bila gerturatzea ere sarbide ohikoa da, eta laugarren kapituluaz aztertuko ditugu horren inplikazioak. Gerturatze moduak anitzak eta nahasiak badira, ezinbestekoa dirudi horretarako motibazioak zein diren aztertzea.


3.1.2 MOTIBAZIOAK

Zerk eramaten gaitu ordea, parte hartzera? Aipatu dugu jada nola gerturatu gaitezkeen mugimenduetara, baina zergatik? “*Dabilen harriari goroldiorik ez*” (Joxemi Zumalabe Fundazioa 2014) ikerketa aktibistan⁷³ militantziaz aritu ginen, nahiz eta etimologikoki kontzeptu horren oso zaleak ez izan⁷⁴, eta militantzia edo aktibismoarako motibazioak asko

eta aldiberekoak izan daitezkeela aipatzen genuen. Lan honetan ere bat egiten dut irakurketa horrekin eta are gehiago esango nuke: motibazio pertsonalak alde batean eta motibazio ideologikoak bestean kokatzen dituen kontinuuma marraztea lagungarria den arren (ikus 5. ilustrazioa) ezinbestekoa da continuumak irudikatzen duen marra jarraituaren ideia konplexuagotzea. Aktibisten esperientzietan motibazio ezberdinak elkarren gainean kokatzen dira, aldiberekoak izan daitezke, kaotikoak eta aldakorrak ere bai, beren egoeraren eta testuinguruarekin duten harremanaren arabera.

Aktibismoak lotura handia izan dezake altruismoaren ideiarekin eta parte hartzeko motibazioak arrazionaltasunari egotzi ohi zaizkio. Gizakia izaki arrazionaltzat hartzeak ez dakar soilik gure pentsatzeko eta arrazoitzeko gaitasuna aitortzea, baizik eta berau

5. ILUSTRAZIOA: HERRI MUGIMENDUETAN PARTE HARTZEKO MOTIBAZIOAK



73 “*Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantziaz eta horizontaltasunaz hausnartzen*” Joxemi Zumalabe Fundazioaren ekimenez 2014 urtean publikatu zen liburuaren izenburua da. Liburu horretan biltzen dira aurreko hiru bat urteetan aktibismoaren eta ekinbide kolektiboaren baitan taldeen barne-bizitzaz egindako hainbat hausnarketa. Liburuari forma eman aurretik hainbat eta hainbat aktibista eta kolektibok eztabaida saio eta dinamika kolektibo ugarian parte hartu zuten. Hortik abiatuz liburuia Joxemi Zumalabe Fundazioaren aktibista eta kolaboratzaileek atondu zuten, talde-ekinbidez. Parte-hartze politikoaren inguruan hainbat erreferentzia ditugu eskura, baina lan honetarako egokia iruditu zait berau aukeratzea, hain zuzen ere ikerketa parte hartzaile eta aktibista duelako oinarri, eta ziur aski ikuspegi fidagarria ematen digulako.

74 Militantzia hitzak militar hitzarekin duen harremanak parte hartzeko modu bertikala iradokitzen zigun askori. Hala ere, hitza mantendu genuen jende askok erabiltzen zuelako.

erdigunean jarri eta arrazionala denaren eta ez denaren artean banaketa garbia planteatzea. Are gehiago, historiaren une zehatz batetik aurrera, dualismo hori bateraezina egiten da. Gizakiak barnean daramatza bai arrazionala bai irrazionala baina, hain zuzen ere, bere alde irrazionala dominatzeko gaitasuna da gizakia gizaki egiten duena, eta betebeharrak horretan huts-egiteak gizatasun estatusaren galera ekar dezake (Esposito 2012). Gure ingurune geografiko eta kulturaletan, kristautasunak zeresan handia izan du prozesu horretan, gizakiengan desiratzeko edo bekatu egiteko tentazio irrazionalekiko kontrola sustatuz. Gizaki egokia, beraz, arrazionaltasunetik bere irrazionaltasuna kontrolpean izateko gai dena litzateke. Kontzepzio hori presente dago modernitateak politikari buruz eraiki duen irudian, non politikagintza eta arrazionaltasuna guztiz parekotasun hartzen diren eta, zeharka, politika eta maskulinitatea ere bai, maskulinitatea arrazionaltasunarekin lotzen den heinean (Haraway 1995; Martínez-Palacios 2017). Herri mugimenduetan ez gara uste-sorta horretatik libratu eta arrazionaltasunetik kanpo dauden aspektuak politikatik at utzi ditugu. Horrek, besteak beste, aktibismo eta teoriarik feminista askoren kritikak eragin ditu, eta baita aktibismo politikoaren begirada osoagoak garatzeko aldarriak ere (Joxemi Zumalabe Fundazioa 2014; León 2018). Edonola ere, arreta eskaini behar zaio aldarrikapen politikoaren reterritorializazioari (Deleuze eta Guattari 2002), alegia, sistemak aldarrikapen politikoak bereganatu eta berritxuratzeko duen gaitasunari. Maila horretan, azken urteotan emozioak mundu politikora sartzen ikusi ditugu, baina ez ikuspegi kritiko batetik. Hainbat kanpaina eta fenomeno politikotan (esaterako “populismo” bezala ezagutzen dugun horretan) emozioei egiten zaien lekua indartu egin da, eta hori politikaren birdefinitze askatzailearen zerbitzura zein lerratze kontserbadorerako erabili daitekeela ikusi dugu⁷⁵. *Politikaren bira emozionala* izendatua izan den horrek aktibista askoren kritikak jaso ditu. Pentsamendu feministak politikagintzaren androzentrismo arrazionalistari egindako kritika azaleko bira estetiko hutsera murriztu izana salatu dute batzuek. Beste batzuek feminismoaren proposamen horiek kritikatu dituzte, baina ez epelak edo eskasak direlakoan, baizik eta ezkerren ekintza eta diskurtso indarra ahultzen dutela uste dutelako. Behin baino gehiagotan ezkerren kultura politiko zurruntara bueltatzearen defentsa egin dute askok, bereziki sozialismoaren, komunismoaren edo anarkismoaren oinarri teorikoak ikuspegi ortodoxotik interpretatuz eta materialismoaren irakurketa murriztatzailea eginez. Ikuspegi horien arabera, emozioak ez dira bizitza materialaren parte eta, ondorioz, berauen inguruan jarduteak ez du zentzurik

75 Nacho M. Segarrak prentsa artikulua honetan horren inguruko analisia egiten du VOX alderdi eskuindarraren gorakada aztertzeko, eta horretarako Kate Ellis feminista sozialistaren ideiak erabiltzen ditu (<https://labur.eus/PbaUC>, 2019ko azaroaren 12an kontsultatua).

ikuspegi eraldatzaile edo iraultzailetik. Posizio horiek oso murriztuak direla uste dut, eta kapitalismoak emozionaltasuna beretzat nola berreskuratu duen⁷⁶ kontuan hartzea ezinbestekoa den arren, eta horrela dela onartuz, egin beharreko lana subjektu modernoan emozioek izan duten papera ikuspegi kritiko feministatik aztertzen jarraitzea da, politikaren nostalgia androzentrikoa ekidinez.

Parte-hartze politikoa helburu zehatzak defendatzeko elkartzen diren subjektu arrazionalen arteko elkarlan moduan hartu den heinean, aktibismorako motibazioak ideien munduan kokatu izan dira: planteamendu politiko eta ideia batzuen alde daudenak elkartu eta ideia horien aldeko ekimenak burutzeko espazioa da aktibismoa. Are gehiago, planteamendu horretatik kanpo dauden desioa eta irrazionaltasuna ez dira aktibismorako motibaziotzat hartu. Sektore kontserbadoreek, aldiz, maiz erabili dituzte bestelako argumentuak aktibismoa azaltzeko, esate baterako Euskal Herrian gatazka independentista transmisio familiar eta ingurunearen presioaren eremuan soilik kokatuz. Tendentziak beraz, aktibismoa erabat arrazionaltzat edo erabat irrazionaltzat ulertzea izan dira. Ikuspegi batak ez besteak ez dute ikerketa honetako elkarriketetan jasotakoa azaltzeko gaitasunik, non parte-hartzaileen motibazio ezberdinak azaldu diren, eta denei egin zaien lekua. Gaur egungo aktibismoaren inguruko diskurtsoetan ohikoa da talde ekimenera eta politizaziora garamatzana motibazio eta desioen multzo zabala dela onartzea, nahiz eta abiapuntua aspektu ideologikotan kokatu, aldarrikapenetan:

Pero nunca he tenido, en mi caso, el «aquí hay un grupo y me acerco» sino hay una reivindicación, y si estaba creado el grupo –siempre había varios grupos–, por afinidad muchas veces personal también, política, personal... pero no buscado. Eeee, «me voy a meter en el tema de la pobreza, ¿quién está trabajando en pobreza?»; no, al revés, te metías en el tema de la pobreza porque te interesaba, y veías la gente que lo estaba trabajando. [Lía]

76 Kapitalismoaren gaur eguneko fasea emozioen kudeaketarekin estuki lotzen dela azaldu dute hainbat autorek (Hochschild 1985; Ahmed 2010; Preciado 2008; Cvetkovich 2018). Braidottik, esaterako, maila afektibo eta emozionalak aipatzen ditu: *“En toda mi obra he sostenido que la forma contemporánea del capitalismo globalizado se articula a partir de los niveles afectivos y emotivos, de las memorias culturales y las aspiraciones de los sujetos, esencialmente contruidos como consumidores de placer ligados a la identidad. Estados de ánimo y aspiraciones se comercializan y expresan públicamente, sobre todo en beneficio de la gobernanza biopolítica y del imperativo de consumir, lo cual provoca un alto grado de distorsión y también de ignorancia involuntaria de los acontecimientos históricos reales (...) la fe consumista y socialmente dominante en lo nuevo coexiste con el rechazo social total del cambio subversivo y las transformaciones radicales* (Braidotti 2018:114-115).

Afinitate pertsonalak aldarrikapenen ondoan kokatzen dira eta egoera sozialaren eragina ere nabaria da, hurrengo testigantzak azalduko digun moduan. Politizazioak zerikusi handia du unean uneko egoerarekin eta, arestian esan bezala, astindura handiko uneak bizitzearekin. Zer esanik ez, horrek ez du gerturatzea berehalako edo automatiko bilakatzen, ezinbestekoa da politizazio giroa piztea (Gil 2011) kolektiboetan parte hartzea aukeratzat har dadin:

Hombre, es un poco lo que vamos viendo y vas viendo lo que va pasando, yo creo que la represión también la vas viviendo, pues de primeras igual no eres... con 15-16 estás juega-juega-juega pero empiezas a ver también lo que es la represión, claro pues esa era una época también de plomo, de detenciones, de muertos... Te acerca también. Estaba todo el tema de las nucleares, el militarismo... pues empiezas a ser un poco más consciente y bueno, nuestras letras empiezan a tirar también por ahí, también vomitivas, eso, “no hay futuro no hay futuro” pero también un poco, pues denunciando, terrorismo policial, la policía... empieza a ser una obsesión la policía, la represión... Ahí empezamos a ser un poco conscientes, porque también la sufrimos, por nuestras pintas, parada de controles... [Kepa]

Musika talde batean aritzen den aktibista honek bere lehen gerturatzea deskribatzen du, oso aberatsa den testigantza honetan. Hasteko, lehen aipaturiko giro politikoaren kontua dago: errepresioa oso ikusgarria zen une batean (70eko hamarkadaren bukaera eta 80koaren hasieraz ari da) bere nerabegaroko interesak (parrandan aritzea) politizatu egiten dira. Garrantzitsua da garai horretan parranda bera ia-ia ekintza politikoa zela ulertzea. Frankismoaren amaieran eta transakzio demokratikoaren⁷⁷ lehen urteetan, elkarrizketatu beraren hitzetan “*bizitzeko gogo*” piztu zenean, lehen zeregin politikoa kaleak betetzea izan zen. Giro politikoak presentzia oso zabala zuen, iruzkinean aipatzen diren mugimendu antinuklearrak eta antimilitaristak kasu, eta hor kokatzen da kontzientzia politikoaren sorrera. Horrek kontzientzia politikoaren inguruko auto-pertzepzioaz ere hitz egiten digu: noiz dakigu zerbait “politikoa” egiten ari garela? Elementu hori diskurtso honen eta beste parte-hartzaile batzuk egindakoen erdigunean dago, eta azken esaldian atea irekitzen zaio kontzientziaren eta esperientziaren arteko eztabaidari. Politizazioaren inguruko diskurtsoa

77 Estatu espainiarrean Francoren diktaduratik sistema demokratikorako ibilbidea izendatzeko “transakzio” hitza erabiliko dut, ohikoan erabiltzen den “trantsizio demokratikoa” esapiderearen orde. Trantsizio hitzak, azken finean, egoera batetik bestera pasatzearen prozesua izendatzen du eta nahiko garbi dago espainiar estatuan gertatutakoek ez zutela sistema frankistarekin haustura suposatu, botere postuen transakzioa baizik (Cañadas Gascón 2000; D 2014). Maila ezberdinetan da ikusgarria fenomeno hau: frankismoaren garaian kargu politikoak zituztenen jarraipena sistema demokratikoaren instituzioetan, lege aparatu frankistaren depurazio eza, enpresa estatalena edo eliza instituzioena, besteak beste.

tesi marxistan oinarritzen da hein handi batean: subjektua despolitizatua dago kontzientzia hori “pizten” edo “aurkitzen” den arte eta hori estuki lotuta dago bere esperientziarekin. Kasu honetan punk izateak, eta egunerokotasunean errepresio poliziala bizitzeak sortzen du punk musika bera sistema politikoaren aurkako erantzun gisara ulertzea. Horren aurretik, amorrua ia-ia *aurrepolitikoa* dela ulertu daiteke:

También es verdad que los primeros años (...) fueron más vomitar y «esto es una mierda», pero no tanto antimilitar o cosas así. Más vomitona y más «puta mierda de sociedad», «vamos a pisar esta sociedad», no tanto al rollo constructivo de la militancia, era más... [Kepa]

Politizazioaren muga horrek badu garrantzirik elkarrizketatuen narrazioetan. Alde batetik, mugimenduetara gerturatu eta parte hartzen hastea une zehatz batean gertatzen da, nahiz eta gehienek zalantza izan zuten une hori denboran kokatzerakoan. Bestalde, alde aurretik gertatutako “kontzientzia hartzearen” uneak ere aipatzen dira, esnatze politikoarenak. Nire buruari egindako auto-elkarrizketa berrikusiz, une “aurrepolitiko” horiek politizatutako gizarte batean bizitzeak sakonki markatu ditu, bereziki *euskal gatazka* deiturikoaren presentziak. Familiako edo gertuko atxiloketek, adibidez, arazo politikoaren existentzia oso gaztetan azaleratzen dute. Era berean klasearekin estuki loturiko narratibak azaltzen zaizkigu lehen kontzientzia hartzearen inguruan. Eguneroko gauza txikiek, esaterako asteburuetan gurasoekin kanpora joan ahal izateko aukerarik ezak, mahai gainean jartzen dute klase injustiziaren presentzia eta hortik elikatzen da arestian aipaturiko kontzientzia hori: “*nik zapaldua izan den familia batean haztearen kontzientzia daukat, orduan langile klasea* {izatearen ideia presente egon da}...” [Alaitz]. Esan gabe doa eskura dauden narratiba politikoaren indarrak zehazten duela zer jotzen den kontzientzia politikotzat, hain zuzen ere politikoa dena ez delako beti eta leku denetan berdin ulertzen.

Orain arte ikusitako testigantzetan, ez da zaila mugimenduetara gerturatzeko moduetan “kausa edo ideia batzuen aldeko” apustua identifikatzea. Esplizituki adierazten da eta, parte-hartze politikorako motibazio legitimotzat jotzen den heinean, ez da arazotsua. Horrekin loturik azaltzen da, ordea, hainbat parte-hartzailek garrantzitsutzat jo duten taldeen barne-funtzionamendua: taldeak ez badu era erosoan parte hartzeko aukerarik eskaintzen, bertara gerturatu eta irauteko aukerak ere halabeharrez murrizten dira. Kasu gehienetan, era erosoan parte hartzeko aukerak eskaintzea horizontaltasuna bermatzeko mekanismoekin lotzen da, eta talde barruan dauden subjektuen egoera ezberdinak aintzat hartu eta kudeatzearekin. Aitzitik, elementu horiek ez dira soilik ikuspegi tekniko edo ideologikotik interpretatu behar, taldeek barne-demokrazia eta haien baitako botere-harremanak kudeatzeko duten gaitasun

bezala ulertuz. Ekintzaile askorentzat elementu horiek presente daude beraien esparru emozionalarekin eta bizi-esperientziarekin lotura zuzena dutelako. Líaren lekukotasunak jasotzen duen begirada horrek arestian aipatu dudan politika eta arrazionaltasunaren arteko ekuazio zuzena kuestionatzen du, emozioak eta barrura begirakoak ere parte-hartze politikorako motibazioen artean kokatuz, nahiz eta ez dituen esplizituki azaleratzen:

Y, luego, había distintos grupos y, al final, acababas en esos grupos, o solo colaboras desde fuera. Con discrepancias porque muchas veces también pasaba en algunas ocasiones que los grupos eran como muy presidencialistas, «soy yo el que lleva el grupo, no hay democracia de ningún tipo, no es nada horizontal aunque hay muchas asambleas que duran horas y horas y horas», pero lo que tú dices es lo que va a misa y al final, no vale mucho. Entonces ahí no estás, apoyabas pero en realidad no estás. [Lía]

Lehen aipatu bezala, ingurune naturalaren ideia ere agertzen da aktibismora gerturatzeke motibazioen artean. Norberaren ingurunean politizazio hori eta aktibismoak ohikoak badira, bertara gerturatzea ez da arraroa suertatuko. Prestigioak eta bizipozak ere badute lekurik. Hain zuzen ere, ingurune batzuetan aktibismo politikoak halako prestigio bat eskaintzen du, eta leku bat, edo funtzio bat esleitu:

(...) guayismokotik ere badauka, ze konpromiso oso antzekoa daukagu 16 urterekin eta orain baina orain ez dut nahi {txosnan} turnorik egin. Eta egiten dut gustura, egin behar delako, baina ez dut nahi egin. Baina lehen, lehen zen como «toma, turno daukagu Bermeon goizeko 7rak arte» y era pa' ser guai ze Busturialdekoak egongo ziren, y te veian, osea, ez? Nik uste dut toke bat hor badaukala... Baina bueno, militantziaren... norberak militatzen du nahi duenagatik. Hori bada faktore bat ere, pues hori gaitzerdi, baina... [Markel]

Parte-hartzaile guztiek aipatu dute aktibismoak asko eman diela. Beste edozein esparru sozialek bezala, militantziak jendea ezagutu eta lagun taldea eratzeke aukera ere eskaintzen ditu, askotariko komunitateak, lausoak zein trinkoak, eraikiz. Aktibismoaren aspektu hori presente egon da ikerketan parte hartu dutenen artean. Pertsonal bezala ulertzen diren motibazio horiek gertuagotik begiratuz gero, zerikusirik izan dezakete sexualitate eta genero nortasun ez-normatiboekin. Onarpen bila joan ote gara herri mugimenduetara? Nork eman dezake onarpen hori eta zertan oinarritzen da? Parte-hartzaileetako batek honela erantzun zuen herri mugimenduetan aritzeko bere motibazio edo motorra zein izan zen galdetutakoan:

Ba nik uste dut onarpenaren... onarpena, maitasuna eta gurpil zoro horiek edo nik zoratu ditudanak. Hori nahi ez izatea baina aldi berean ez dudala bakarrik egon nahi, bakardadeak asko pisatzen didala. Bai. Eta botereak ere bai... [Itoiz]

Onarpena ez da izan LGTB* pertsonon behar eskusiboa. Jende guztiaren sozializazio beharren erdigunean onarpena dago. Denok nahi dugu onartuak izan baina ba ote du zerikusirik horrek gure sexu-aukerek edo eta genero espresio eta identitateekin?

Motibazioa alde batetik izan da nire garapen pertsonalarekin lotuta, edo askatasun espazioak bilatzearekin edo hobeto sentitzearekin ni neu, baina gero ere bai dago lotuta beste ikuspegi sistemikoago horrekin, alegia, badaudela idatzita ez dauden lege asko sexualitatearen inguruan, gizon eta emakume izatearen inguruan, eta zutaz harago doana, ez? Orduan badago hor zati bat nirea dena, nire egoismoarekin... ez dakit hitz egokia den. Nire behar batekin zerikusia daukana. Baina gero badago beste bat eraldaketa sozialarekin edo ez dakit, utopia polit batekin zerikusia duena [Arane]

Aktibista honen testigantzak argi uzten duen moduan, onarpena, segurtasuna, askatasun espazioen bilaketa eta eraldaketa soziala ez dira era bereizian bizitzen, baina horrek ez du esan nahi une berean esperimendatzen direnik. Testigantza honetan, politizazioaren fase ezberdinak ageri dira: une batean behar pertsonalek protagonismo handia dute, eta gero eraldaketa sozialarena dator. Edonola ere, ez daukagu motiborik pentsatzeko segurtasun eta onarpen espazioen beharra denborarekin agortzen denik, bizitza aktibistaren hainbat unetan babes hori ezinbestekoa izango delako, intentsitate aldakorrarekin bada ere. Kasu batzuetan, ordea, aktibismoak onarpenerako gunez gain erresistentzia eta superbibentziarako aukera ere ekarri ditu. Mugimendu eta gune batzuk artikulazio espazio garrantzitsuak dira gizartearen beste esparru askotan kanpo geratzen dena posible izan dadin, eta zentzu horretan ongizatearen eta superbibentziaren arteko muga oso fina da. Ezberdina da mugimenduetan beste leku batzuetan baino hobe sentitzea edo bertan topatzea norbere

burua onartu eta ulertua izateko aukera ia-bakarra. Horrek parte-hartzeari beste dimentsio bat gehitzen dio. Are gehiago, superbibentzia bera erresistentzia forma politikoa dela pentsa daiteke eta zapaldutako komunitateek duten lehen beharrizan politikoa elkar babestu eta existitzeko aukera bermatzea dela argudiatu⁷⁸. Testigantza honek ideia horren oihartzunak ekarri dizkit:

Niretzako izan da «supervivencia pura». Itxaropenari eustea. Etxean bizi izan nuen denagatik. Niri feminismoak bitzta salbatu zidan une batean. Feminismotik landu izan ditut gauza asko. Nire formazio politiko dena hortik etorri da. Nire buruari egiten dizkiodan galderak hortik datoz beti. Horrek, salbatu ninduenak, da orain galderak eta galderak botatzen dizkidana eta hori niretzako oso interesgarria da, baina momentu horretan izan zen hori, bai, itxaropen eta erresistentzia kontu bat. Nola eutsi, ez dakit zeri eutsi eta niretzako izan zen nerabezaroan, imaginatu, nire bizitzako gauzarik onena. Eta horrek egin nau naizen moduan. [Anais]

Anaisek bezala mugimendu feministan parte hartu duten beste elkarrizketatu batzuen narrazioetan ere aparteko indarrez agertzen da ideia hau. Feminismoa gai izan da pertsona hauen bizitzan erdigunean espazio handia hartzeko, eta are gehiago, garapen pertsonal eta kolektiborako lekua izan da. Zentzu horretan, hainbatek feminismoak “bitzta salbatu diela” adierazten dute, beraien esperientziak testuinguru zabalago baten parte gisa ulertzeko aukera eman dielako. Anaisen kasuan, etxean bizi izandako egoera gogorrek ulertzeko eta egoera horiei eta antzerakoei erantzun kolektiboa emateko ezinbestekoa izan zen feminismora gerturatzea. Feminismoak, beraz, erreferentzia eta ulermen marko berria eskaini die parte-hartzaileei, eta ez soilik emakume bezala heziak izan direnei:

78 Ideia hau oso presente dago Audre Lorde pentsalari eta poetaren lan osoan. “The transformation of silence into language and action” (2007) entseguan, esaterako, zera dio: *“For to survive in the mouth of this dragon we call america, we have had to learn this first and most vital lesson - that we were never meant to survive. Not as human beings. And neither were most of you here today, Black or not. And that visibility which makes us most vulnerable is that which also is the source of our greatest strength”*. Bere biografian ere (Lorde 2018) behin eta berriz datorren gaia da, eta ideia horren oihartzunak entzun daitezke ere Octavia E. Butlerren zientzia fikzioan, zeinen lanetako pertsonaiak superbibentziaren eta komunitateen arteko ehunak era gatazkatsuan lotzen aritzen diren. Izan etorkizun distopikoetan (O. E. Butler 2000), esklabotza garaiko Estatu Batuetan (O. E. Butler 2003) ala urruneko planetetan (O. E. Butler 1978) bere lanetan konstantea da superbibentziaren gaia eta estuki lotzen da, Lorderen kasuan bezala, arraza eta klasearekin. Genero eta sexualitatearekiko, Octavia Butlerren ikuspegia ez da Lorderena, azken honek lesbianismoaren inguruan hitz egiteko duen erraztasuna falta duelako. Ez da kasualitatea, ordea, bi autoreek Estatu Batuetako kultura afroamerikarretik egitea ekarpen hauek. Euskal abertzaletasunaren testuinguruan bizirautearen ideia nazioari berari egotzi zaio, gorputzik ez duen egitate horren edo hizkuntzaren superbibentziaz dezente hitz egin den arren, autore hauen lanetan nabarmentzen den superbibentziaren ikuspegia bestelakoa dela esango nuke. Ez dagokio “arraza” edo “nazio” beltzaren superbibentziari baizik eta subjektuen beraien biziraupen materialari.

(...) auzoan zenituen emakume guztiak bueltaka... gero militantzia ostia eman behar dituzula hezkidetzat tailerrak, ta justo nik militantzia unian konpartitu dut lau-bost urtetan Mirenekin ere, orduan klaro, nire inguruan egon da beti jende bat oso... feminista. Osea, sin mas. Esan behar nuen oso, baina ez dakit... feminista. Eta listo. Eta orduan klaro, nik uste dut hor konturatzen zarela, ostia, niri gertatzen zaizkidan gauza batzuk tal cual, ez? [Markel]

Halako gaitasunik izan ote dute beste herri mugimenduek arlo pertsonala eta kolektiboa uztartzeko, sexualitatearen eta genero nortasunaren galderei erantzun kolektiboa emateko? Uneren batean beraien militantzia LGTB* kolektiboetara lotuta egin dutenetako asko ere ideia horren inguruan aritu dira, beraien egoera hobeto ulertzen lagundu zien espazio bat aurkitzearen garrantziaz eta ia-ia “epifaniaz”. Plataforma de Afectadas por la Hipoteca (PAH) kolektiboan aritutako askok ere ideia hau azpimarratzen dute. 2008ko finantza krisi latzaren ondorioz etxegabetzeak ugaritu zirenean, gobernuaren mezua “zuen aukeren gainetik hipotekatu zarete” zenean, PAHk gaitasuna izan zuen nolabait zentzu komunari buelta eman eta arazoa eta erruak sistema ekonomikoaren eta harengandik probetxua egiten duten horiengan jartzeko. Horrek, lehen aldiz PAHra gerturatzen ziren pertsona ugari, errua desplazatzeko aukera eman zien, lasaitu bat (Azagra 2017:194). Antzerako zerbait bizi izan zuen parte-hartzaile honek gay mugimendura hurbiltzean:

Baina bueno, nik sorpresa handia hartu nuen LGTB taldean hasi nintzanean (...) hasten naiz pixka bat daramadalako nire homosexualidadia oso oso oso gaizki, eta entzuten dut Iñigo Lamarcaren konferentzia bat eta eraldatzen nau asko (...) eta konturatzen hasten naiz asko dagoela mobida hortan eta ez gaudela uste duguna bezain bakarrik eta horren bidez inplikitzen hasten naiz eta hasten naiz lagun homosexualak edukitzen, y me muerdo toda. Eske lagunak ditut, eta homosexualak dira! [Ekain]

Edozein talde edo kolektibok eskaini diezaguke zerbaiten parte izatearen sentsazioa baina, kasu batzuetan biratze bereziki esanguratsua dakar talde horietara hurbiltzeak, Ekainek azaltzen duen bezala gure sakoneko espektatibak aldatzeko gaitasuna izan dezakeelako. Beste esperientzia aktibista batzuk izan arren, bere aukera sexuala medio sinesgaitza zitzaien aktibista honi ordura arte lagunak izatea, are gutxiago homosexualak, eta kolektibo horretan hastearekin batera uste hori aldatu zitzaien.

Subjektibatze politikoa bizitako esperientziaren eta ingurunearen arteko bidegurutzean kokatzen da. Bi osagai horien arteko harremana bikoitza da: maila ezberdinetan, inguruneak gure esperientzia determinatzen du, baina esperientzia hori interpretatzeko dugun modua ere zehaztuko du. Esperientziak neurtzeko orduan sexualitatea eta genero bizinortasuna intersekzio berezi batean daudela esan dezakegu. Alde batetik, oso intimotzat jotzen ditugu eta gure bizitza erabat determinatzeko gaitasuna izango dutela uste dugu: gure sexualitatea ez

denez *normala* ez dugu inoiz bizitza normalik izango, agian ez dugu lagunik ere izango. Bestetik, esperientzia hori arazo politikotzat jotzea zailagoa da, hain zuzen ere intimo eta pertsonaltzat jotzen dugunez, eremu politikotik kanpo kokatzen dugulako. Horrela, lehen politizazio esperientziak ez dira horren ingurukoak eta, are gehiago, aktibista askoren ibilbidean sexualitatea edo genero nortasuna ez dira inoiz politizatze espliziturako abagune izango. Motibazioak eremu politiko-ideologikotik ongizate pertsonalera doan lerroaren puntu ezberdinetan kokatu ditzakegu, baina gure motibazioak edozein izanda ere, herri mugimenduetara gerturatzean politizazio prozesuetan murgiltzen gara, edo politizazio horietan sakontzen dugu. Testuinguruak, gizarteak eta talde bakoitzak politikotzat jotzen duenak baldintzatuko ditu gure politizazioaren norabideak eta heldulekuak.

3.1.3 ZER DAGO, BAINA, HERRI MUGIMENDUETAN?

Herri mugimenduen funtzionamendua askotarikoa den heinean, ezin daiteke esan barne-dinamika berdintsuak dituztenik: mugimendu bakoitzak bere egitura, antolakuntza-eredu eta funtzionamendu propioak ditu. Aipatu dudan moduan, parte-hartze politikorako, mugimendu edo talde baten idearioarekin bat egitea garrantzitsua da, baina barne funtzionamenduak ere badu eraginik bertan egoteko edo alde egiteko ditugun gogoetan. Militantzia feministaren inguruko mahai-inguru batean Yayo Herrero madrildarrari entzun nion oso ohikoa dela mugimenduetan parte hartzen ez duen jendearen inguruko epaia egitea: “jendea oso pasiboa da eta ez du parte hartu nahi”; “ez du konpromisorik eta berehala desagertzen da taldeetatik”; “konstantzia falta konbentzimendu ahularen ondorioa da” eta abar. Aitzitik, zailagoa egiten bide zaigu gure mugimenduari galdetzea jendearen parte-hartzea errazten ote duen. Bere ustez, kolektibo orok bere buruari egin beharreko galdera honakoa da: “tontoa al da nire mugimendua?” Nahi baino maizago erantzuna baiezkoa izango da eta arestian aipatu ditudan elementuak (horizontaltasuna, kideen askotariko egoerak ulertu eta kudeatzea edo barne mailako botere posizio ezberdinak aitortzea) gutxi edo batere ez direla zaintzen onartu beharko da, horrek parte-hartzean duen eragina aitortuz⁷⁹ (Aranguren, Montero, eta Herrero 2017).

Elkarrizketa-multzo honetan parte hartu dutenek ere antolakuntzaren eta kolektiboen barne-bizitzaren aferari eman diote garrantzia. Mugimenduetara heltzen garenean ez dugu espazio erabat irekiekin topo egiten, kontrakoa baizik: generoaren eta beste botere ardatz batzuen arabera determinatuak dauden dinamikak ondo finkatuta dituzten lekuetara heltzen gara (Azpiazu Carballo 2017:77-90). Esaterako, taldearen funtzionamendua genero banaketarekin estuki loturik egon daiteke maila askotan: gizonen arteko botere esparru informal ikusezinak egon daitezke; litekeena da botere posizioak dituzten gizonen karisma handia izatea; emakumeen hitzak presentzia eta balorazio txikiagoa izango du beharbada; konfrontazio zuzenak eta lan fisikoak balorazio handia izan dezakete zaintza eta kudeaketa

79 Mahai-inguruan bertan azaldu zenez, taldeen antolaketa eta parte-hartze ereduak dagozkien aspektu hauek kontuan hartzeak ez dakar beste elementu batzuen alboratzea. Parte-hartzearen inguruko eztabaidari sakontasunez eutsi nahi bazaio, halaber, egungo gizarteek konpromisoaren inguruan duten kontzepzioari, individualismo eta atomizazioari, instituzio ezberdinek eta kapitalak egiten duten lan desmobilizatzaileari eta, oro har, mundu komunaren desartikulazioari ere erreparatu beharko zaio.

lan ezberdinekin konparatuz, eta abar⁸⁰. Klase jatorriaren eta hizkeraren arabera ere, posizio intelektualizatuak gehien baloratzen direnak izan daitezke, eta jakintza modu ezberdinak jokoan jartzeko moduetan, zalantza gabe, eredu arrazionalista eta europarra gailenduko da. Portaera eta dinamika horiek (eta beste hainbat) aldatzea posible den arren, prozesua nahiko motela izan ohi da eta, gehienetan, subjektuak taldearen aurrean moldatu behar izaten du, bertan dauden funtzionamenduak ikasi eta barneratuz. Are gehiago, barneratze hori funtzionamenduok zalantzan jarri ahal izateko aurrebaldintza da: heldu berriak taldearen hizkuntza eta moduak ikasi behar ditu taldearekin komunikatu eta aldaketak proposatu ahal izateko. Lehen lana, beraz, molde horietan egokitzea da:

Buruan daukat oso operatiboki funtzionatzen zuela. Pentsamendu oso logistikoa zen, eta ni nola ikusten nintzen bertan... oso ezgauza. Hau egin behar da eta ni ez nintzen kapaza zuzen jartzeko eta itinerario bat egiteko (...) zen espazio bat sozializatzeko ere bai, jendeak oso erretorika potenteak eduki zitzakeen edo momentu horretan horrela ikusten nuen... eskolan oso konpetitiboa nintzen, eta nota asko inporta zitzaidan (...) hori ere pixka bat islatzen zen hor, zeinek hitz egiten zuen hobeto... nik ere joko hori pixka bat jarraitzen nuen, gogoratzen naiz ere kamara aurrean jartzen nintzen hitz egiten... Zirkuituak berak bazeukan egoa elikatzeako asuntxo bat ere eta hori erakargarria zen... Prestigioaren... (...) Hor egon zen bilera bat nun pixka bat harrotu nintzen gehiago eta hasi nintzela gauzak adierazten. Inoiz ez nuena egin eta pixka bat errebelazioa izan zen eta horrela ondo sentitu nintzen, eta handik egun batzuetara etorri zitzaidan zera, arduraduna, esan zidala hemen gaude eta gauza batzuk egin nahi ditugu... [Itoiz]

Mugimenduen barnean sortzen eta elikatzen diren dinamikek gure garapen sozialaren beste arlo batzuekin lotura estua dute. Esaterako, espazio sozial eta politikoak “oso operatiboki” funtzionatzen dutela diogunean, talde sozialaren arauak barneratzeaz ari gara hein handi batean: taldeak badu funtzionamendu praktikoa, bere helburuak gauzatzeko eraginkortasun minimoa bermatu behar duten portaerak onartu eta besteak zalantzan jartzen dituelako. Hitzek ekonomia egokia, argumentuen maneiatze azkarra eta eztabaidak ondo antolatze gaitasuna dutenak izan ohi dira esparru horietan errazten moldatzen direnak (Vercauteren, Crabbé, eta Müller 2010). Aldi berean, espazio politizatueta, beste edozein espazio sozialetan bezala, gunea arautzen duten ideien inguruko erretorikak eraikitzen dira eta narrazio horiek maiz trinkoak eta, testigantzak dakarren bezala, “potenteak” izaten dira. Komunitate politikoak komunitate emozionalak ere badira (Moscoso eta Zaragoza 2017), eta

80 Generoaren arabera beste banaketa erabakigarria denboraren erabilerena da. Herri mugimenduen guneak ikuspegi horretatik aztertu ditu Marina Sagastizabalek (2017), parte-hartzea baldintzatu ditzaketen denboraren inguruko kudeaketa eta kontzepzioetan sakonduz.

politikarekin lotzen ditugun emozioak oso erretorika indartsuen bidez mobilizatzen dira. Emozio horiek (sumindura, haserrea, anbizioa eta abar) historikoki maskulinitateari lotu zaizkion emozioak izan dira, gizonezkooi onartu zaizkigunak eta emakumeek gorputzen dituztenean zalantzan jartzen direnak. Neurri batean bederen, elkartze politikoa emozioen gainean eraikitzen da, baina aspektu horiek ezkutatzek politikaren eta eraldaketa sozialaren ikuspegi arrazionalista elikatzen du. Saritzen diren gaitasunak modernitatean arrazionaltasunarekin eta, zeharka, maskulinitatearekin lotu izan direnak dira: zalantzarik ez agertzea, konponbide azkarrak eta praktikoak eskura izatea, norbere buruan konfiantza izatea, edota abangoardiarako gaitasuna izatea (Martinez-Palacios 2017; Martinez Palacio et. al. 2018; León 2018). Honela, espazio horiek oso maskulinizatuak izan ohi dira, bai parte-hartzearen aldetik bai eta unibertso sinbolikoen eraikuntzaren ikuspegitik ere. Esandako moduan, horrek ezerosotasunak sortzen ditu, espazioak alde aurretik ikuspegi androzentrikotik konfiguraturata egoteak enkaje zaila eskaintzen dielako gizentasunaren molde horretara biltzen ez diren subjektuei:

Lehengo gauza izan zen asanbladatar joan eta ez ausartzea hitz egitera. Lagunekin gauzak komentatu asanblada aurretik baina ez hitz egitea eta gero aldiz egotea super prest beste lanetarako. Batez ere mutilek hitz egiten zutela... [Nadja]

Aktibista berriak beren dinamika propioak dituzten mugimenduetara batzen dira, eta ohitura horien arabera gauzatzen da kolektiboetan lan eta botere sinbolikoaren banaketa, maiz sexista, klasista eta heterozentratua dena⁸¹. Mutilek izan ohi dute hitzaren monopolioa edo menderatze handiena eta aktibista berriaren grina beste lan batzuk egitera bideratzen da maiz. Emakume askoren kasuan, lan hauek kolektiboaren barne bizitzarako beharrezkoak diren zereginekin, aktibisten zaintzarekin eta horren ikusgarriak ez diren lanekin lotzen dira (Martinez Palacios et. al. 2018).

Herri mugimenduen dinamiketara egokitzea ez da aktibista guztientzat berdina, haietako batzuentzat sarbide eta egokitzapena zaila izan da eta beste batzuentzat erraza. Kasu batzuetan, espazioan egoteko moduek eta interesek bat egiten dute mugimenduetan jadanik finkatuta dauden ezaugarri batzuekin, eta hori lagungarria izango da:

81 Herri mugimenduetan egiten den lan banaketaren inguruan jardun du Pili Alvarez Moles ikerlari eta aktibistak, Hego Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladen kasua aztertuz (Alvarez Moles 2012).

Oso militantzia erreza izan zen, oso sarbide txukuna, ez zen batere bortitza izan. Ez zizun gehiegi eskatzen eta aldiz asko ematen zizun, ze ikasi genuen parte-hartze politikoaz... Klaro hau da orain egiten duzulako errelatoa orduan pasa zenaz, seguru orduan beste, ez dakit, ez zen dena polita izango, baina nik daukadan oroitzapena da... parte-hartze politiko eta konpromisoak neureganatzeko oso bide erraza. [Alaitz]

Herri mugimenduetan parte hartzeak eskatzen dituen ezaugarriak (hitz egiteko erraztasuna, determinazioa, lotsagabetasuna eta abar) hasieratik betetzen ez dituzten subjektuentzat “eskola” modukoa izaten dira mugimenduak, eta maila pertsonal zein sozialean aspektu horietan jabetu eta indarra hartzeko aukera ematen die. Parte-hartzaile ugari mugimenduak norbere buruarengan konfiantza izaten, besteen aurrean hitz egiten edo ideiak sutsuki defendatzen erakutsi dieten espazioak izan direla aipatu dute. Baina askok seinalatu dute gaitasun hori bereganatzeak bere alde negatiboa ere baduela. Inguruneak eskatzen digun horretara moldatzea epe luzean ikasketa prozesu indibidual bezala ikus dezakegu, baina horrek, gehienetan, talde edo mugimendu horretan dauden egiteko moduak kuestionatu gabe uzten ditu, eta garrantzitsutzat jotzen diren ezaugarri eta gaitasunen zerrenda aldatu barik. Egokitzapenak, beraz, ikasketa indibiduala dakar, baina ez halabarrez ingurunearen eraldaketa kolektibo. Horren ondorioz, hainbat aktibista bidean geratzen dira, egokitzapen hori egitera heldu ez direlako edo talde edo forma horiekin ados ez egonik mugimendutik urruntzea hautatu dutelako. Horrek guztiak kontuan izanda ere, maila indibidualetan nabaritzen diren aldaketen irakurketa baikorra egiten dute ekintzaileok:

(...) me ha hecho un poco aprender de mí mismo (...) porque como te he dicho yo era una persona muy muy tímida, y el aprender a superar todo eso también me lo han dado los grupos, ir empoderándome de mis timideces, mis miedos, mis cosas. Y ahora me noto una persona más segura conmigo mismo de lo que era antes, tengo mis dudas por supuesto, miles, pero bueno... [Kepa]

Egokitzapen prozesu horiek eta proiektuekiko atxikimenduak pisu handia izan dute aktibista hauek mugimendu horietan jarrai zezaten. Aldi berean, parte-hartzaileek argi adierazi dute kolektiboen barruan dauden pertsona zehatzak, kasu askotan kolektiboen barne-bizitzaren inguruan sentsibilitate politizatuak dituztenak, izan direla taldeetan geratzeko sostengu handiena:

(...) kide eta lagun militante feministak... horiek izan dira oso inportanteak. Izan dira nire militantzia konpartitu duten ehuneko gehiena izan dira lagunak, kideak eta feministak. Eta horrek eragin du asko. Segun eta ze kontestutan igual hautua egingo nuen {beste militantzia baterako}. Honek ez nau asetzen, edo nik konpartitzen dut baina nik behar dut asetu beste modu batean... Baina bai, nik uste izan direla nirekin militantzia konpartitu dutenak eragin dutenak hori {taldean jarraitzea}. [Mikel]

Ekintzaileok mugimendu barruan dauden zailtasunez kontziente dira eta pertsonalki zein kolektiboki azken urteotan barne funtzionamenduaren inguruko hausnarketa ugari egin dituzte. Edozein kolektibotan daude kontingentzia ideologiko eta praktikoak, kideak erosoago edo ezerosoago sentiaraz ditzaketenak, eta halakoetan garbi dute, Mikelek bezala, babesa bilatzea ezinbestekoa dela, egoera horri buelta eman nahi bazaio. Ikerketa honetan hainbatetan agertu den bezala, feminismoa eta haren inguruan antolatzen edo kokatzen direnak ezinbesteko aliatu dira.

Herri mugimenduetara gerturatzeko moduak aztertzen ditugunean mapa korapilatsua marraztu behar dugu nahitaez. Talde eta kolektiboetarako lehen hurbilpena egiteko hiru modu nagusi identifikatu ditut: mugimendu politikoen abaroan sortutako komunitetetatik gertu egoteagatik, afinitate ideologiko sendoagatik eta mugimenduetara laguntza bila gerturatu izanagatik. Ekintzaile bakoitzak hiru horien (eta identifikatu ez ditudan beste batzuen) artikulazio anitzak gorpuzten ditu bere politizazio prozesuetan. Prozesuotan abiatzeko motibazioak ere askotarikoak dira, onarpen eta komunitate beharretatik hasita proiektu politikoen oinarri ideologikoekin bat egiteraino, tartean egon daitezkeen konbinazio posible guztietatik pasatuz.

Herri mugimenduen barruan dauden dinamika eta parte hartzeko moduen inguruko gainbegirada azkarra egin dut hemen, ekintzaileek beraien genero nortasun eta adierazpenen arabera gune horietara egokitzeko egiten dituzten prozesuak kritikoki mahaigaineratuz. Elementu horiek guztiek marrazten duten mapa konplexua da parte-hartzaileen esperientziaren dentsitatea dela-eta, izan ere, gerturatzeko moduak, motibazioak eta egokitapenerako estrategiak subjektu bakoitzean forma ezberdinetan konbinatzen baitira. Hurrengo ataletan mapa horri koordenada gehiago gehitzeko ahalegina egingo dut, elkarrizketen kodetzetik abiatuz.

3.2 Ur uherrak. LGTB* esperientziak mugimendu mistoetan

Egin ditudan elkarrizketak lerroz-lerroko kodifikaziotik abitatuta aztertu ditut. Kodeak elkartzen joan eta, ondoren, mapekin lanean hasi nintzen: mapa nahasiak, egoeraren mapa ordenatuak, esparru sozialen mapak eta posizioenak. Mapa horiek, hainbat konbinazioen bidez, kontzeptuen arteko harremanaz pentsatu eta kontzeptu sentigarriak aurkitzen lagundu didate. Elkarrizketak egin eta sistematizatzeko orduan, kontzeptu edo ideia batzuek bereziki kitzikatu zuten nire belarria. Haietako bat izan zen lehen multzoko elkarrizketa batean agertutako “*aguasturbias*” ideia. Elkarrizketaren une batean genero trantsizioekin lotutako hainbat aspektu komentatzen aritu ginen, tartean genero trantsizioari ekin dion pertsonaren bikotekide sexual-afektibo egonkorak trantsizioa nola bizi duen *bere* sexualitate propioarekiko. Esaterako, genero trantsizioari ekitean emakume batekin harreman egonkorra zuen emakume trans* batek, bikoteak bere heterosexualitate edo homosexualitate propioari begira bizitakoak kontatu zizkidan. Asko gustatu zitzaidan elkarrizketatuak egoera nola laburtu zuen: “*se crea ahí un aguasturbias*”. “*Aguas*” eta “*turbias*” hitzak nola elkartu zituen paregabea zen. Bi hitzok banatuta pentsatzeak ikuspegi ezberdina ematen digu: badira ur batzuk (“*aguas*”) eta berauek nahasi egiten dira (“*turbias*”). Are interesgarriagoa deritzot bi hitzak elkartzeari, alegia, gerora nahasten diren ur garbirik ez dagoela onartzeari: ura eta nahasmena gauza bera dira eta ez dago esaterik noiz hasi zen nahasmena. Ideia horri bueltaka geratu nintzen eta iruditu zitzaidan oihartzun gaitasun handia zuela. Lotura kontzeptu bezala, beraz, “ur uherrak” erabiliko dut datozen ataletan⁸². Ideia horretatik tiraka, LGTB* izanik beste mugimendu batzuetan ari diren edo aritu diren pertsonen militantzien ingurukoak jorratuko ditut.

82 Mapen azalpena ematen nion bitartean “ur nahasiak” aipatu nizkionean, Ibon Egañak Aingeru Epaltzaren (1993) izenburu bereko liburua ekarri zuen elkarrizketara eta hortik “ur uherrak” aukeratu izana.

3.2.1 IDENTIFIKAZIOAREN UR UHERRAK

Identity is the crisis, can't you see?
Identity, identity
When you look in the mirror
Do you see yourself? Do you see yourself?
On the T.V. screen, do you see yourself? in the magazine?
When you see yourself, does it make you scream?
Identity is the crisis, can't you see?
Identity, identity
When you look in the mirror, do you smash it quick?
Do you take the glass and slash your wrists?
Did you do it for fame? Did you do it in a fit?
Did you do it before? You read about it?
Identity is the crisis, can't you see?
Identity, identity?

X-Ray Spex, "Identity" (EMI, 1978).

Identifikazioak eta diferentziak

Gizarte zientzien esparruan konplexutasunaz hitz egitea ia-ia klixe bilakatu den arren, identitate eta identifikazioen inguruan hitz egiten hasi aurretik egin beharreko argipena da. Klixe bilakatu dela diot, maiz, edozein fenomeno sozial azaltzean, lehen abisua bere konplexutasunaren ingurukoa delako, nahiz eta gertakari bat konplexua dela esateak ez digun berorri buruzko informazio berezirik eskaintzen. Baina, zer zentzutan dira konplexuak identitate eta identifikazioak esku artean dugun ikerketan? Hasteko, identitate eta

identifikazio hitzak bereiztea komeni zaigu⁸³. *Identitatea*, mendebaldeko gizarteetan oro har, hainbat ezaugarriekin lotzen den egitate estatiko moduan ulertzen dugu. Esaterako, estatuak, jaiotzean, identitate juridikoa ezartzen digu, eta identitate hori gure betebeharrak eta eskubideen ezinbesteko heldulekua da. Gure harreman sozialak, baita gertukoena ere, identitatearen egonkortasunean oinarritzen dira: lagunak eduki nahi dituenak pertsona bera edo bertsua izan behar du denboran zehar, errekonozimendua posible izan dadin. Praktikan, jakin badakigu identitate horiek ez direla horren estatikoak edo, behintzat, haien aspektu asko aldakorrek direla. *Identifikazio* hitzak, aitzitik, prozesu bati egiten dio erreferentzia. Prozesu hori ere era estatikoan edo dinamikoan ulertu daiteke, egunerokoan egiten dugun moduan. “Poliziak identifikatu nau” esaten dugunean, prozesu estatiko batez ari gara. Prozesua bi aldiz errepikatu arren, emaitza berdina izango da. Aldiz, norbaitek esaten badigu ez dela “publizitateak zabaltzen duen emakumetasun ereduarekin identifikatzen”, prozesu dinamikoagoaz ari zaigula ulertzen dugu. Nahiz eta jendearen koherentzian sinetsi, jakintzat ematen dugu galdera hori urtebeteren buruan eginez gero erantzuna ezberdina izan daitekeela. Identifikazio prozesuak, beraz, aldakorrek ere izan daitezke:

Cuando sólo lo sabía yo y los libros que leía, era homosexual. Leía cosas como “La homosexualidad en Grecia, tomo I y tomo II” {barreak}. Era homosexual. Después fui gay, y después he sido marica. {¿Lo vives como algo que te identifica a ti?} Algo con lo que me identifico. O sea, sí que reconozco que... son cuestiones de edad. Últimamente pienso, si ahora te pusieran en la mano píldora azul, píldora roja, eres marica, eres hetero, tienes la vida de tus hermanos o tienes la vida que llevas, ¿cuál eliges? Dudo cuál elegiría. Eso no quiere decir que dude de cuál es mi sexualidad o qué es lo que hago, pero bueno. Creo que es una elección, no es algo con lo que yo he nacido, es algo que yo he construido. {¿Y estás contento de haberlo hecho así?} A ratos {barreak}. Decir lo contrario sería mentir. [Joseba]

83 Ignasi Terradasek (2004) ere identifikazio eta identitatearen arteko ezberdintasuna egiten du, baina kasu horretan identitatea norbanakoaren prozesu subjektibo moduan aurkezten du eta identifikazioa “kanpotik” egiten den prozesu batekin: “(...) *las personas tenemos una identidad vivida, que es la que se construye subjetivamente, y nuestra sociabilidad nos inclina a convertirla en una identidad cultural. Luego, a partir de esta misma identidad cultural, o a partir de clasificaciones y pertenencias dictadas por criterios jurídicos y políticos, nos acomete otra identidad, que es propiamente una identificación. Es decir, una identidad que nos viene de fuera y que poco o nada tiene que ver con la identidad vivida*” (Op. Cit:63). Aitzitik, azpimarratu nahiko nuke nire ustez ez dagoela identifikazioaren *aurreko* identitaterik, ez eta subjektibotasunaren, nortasun kulturalaren eta nortasun politikoaren arteko banaketa argirik. Identifikazioa prozesu dinamiko moduan aurkezteak identitatearen izaera kontingentea azpimarratzeko balio didan arren, ez du esan nahi biak banaturik daudenik. Terradasek “bizitako identitatea” deitzen duen hori ere, ene aburuz, testuinguru politiko eta juridikoak baldintzatua dago *beti*.

Identitatearen ingurukoetan sakontzeko ekarpen teoriko batzuei erreparatzea lagungarria izan daiteke. Braidotti filosofo italiarrak identitatearen sorkuntza prozesuak halabeharrez diferentziaren gaiarekin lotzen ditu (Braidotti 2000; 2004). Identitatea ezberdintasun sare batean lortzen dugun kokapen espezifikoa litzateke, alegia, zer garen jakiteko ezinbestekoa dugu zer ez garen jakitea eta, zentzu horretan, ez dago identitaterik diferentziarik gabe. Gizartearen egiturei estuki lotuta dagoen prozesu hori maiz pasibotzat hartu da: garena definitzeko, eskuragarri dauden identitateen katalogora mugatzen gara eta ez dugu hortik kanpoko nortasunik hautatuko. Baina nortasunen artean hautatzen dugula esateak berak prozesu horren ustezko pasibotasuna zalantzan jartzen du, gizakiok nortasun ezberdinetan inbertitzen dugulako (De Lauretis 2000), identitateen ontzi hutsak baino gehiago garen heinean. Horrek ez du esan nahi aukera askatasuna dugunik, ez eta identitateak gure borondatez moldagarriak direnik ere (Butler 2002), sortzen garen une beretik esanahiak eta zentzuak erregulatzen dituzten erregimenen sareetan bizi garelako, eta ez dugulako sare horietatik kanpo gure burua ulertzeko aukerarik. Foucaulten lanaren zati handi bat ere (2005; 2009; 1988) ideia horien ingurukoa da, prozesu erregulatzailerik ez diren identitateen sorreran duten eraginari buruzkoa. Kontzeptualizazio horien aspektu batzuk zalantzan jartzen dituzte De Lauretis eta Braidottik, genero ikuspegi batetik itsua izan zela uste dutelako, baina Foucaulten ideien oinarria ontzat eman dezakegu sexualitatearen inguruan jarduteko.

Esandako moduan, Foucaulten lanean estuki lotzen dira identitatea eta egitura sozial-linguistikoak eta, sexualitatearen inguruko bere ikerketan (2005) homosexualitatearen sorrera aztertzen du. Une historiko zehatz batean, hainbat instantzia diskurtsibok, bereziki zientzia medikoek, "homosexuala" sortu zuten⁸⁴. XIX. mende osoan zehar eta XX. mendearen hasieran, psikoanalisiak eta fisionomiak, besteak beste, ezagutza-corpus handia ekoitzi zuten sexualitatearen inguruan. Foucaultek *jakintza-boterea* (frantsesez *savoir pouvoir*) kontzeptuan batzen ditu jakintza eta boterea, banaezintzat hartuz eta, hala, homosexualitatearen inguruko jakintza sortzea ariketa bikoitza da haren aburuz: alde batetik, medikuntzak instituzio bezala duen boterea eta legitimazioa erabiltzen ditu sexualitatearen irakurketa horiek ekoizteko eta, bestetik, ekoizpen horren bidez bere burua boterez janzten du, egia ekoizteko duen gaitasuna finkatuz.


84 Une historiko horretan zientzia ez zen soilik jakintza-botere espazio legitimatua, eskurazina ere bazen. Bere esparru gehienak erabat itxiak ziren gizartearen gehiengoarentzat, langile klaseko jendeentzat, arrazializatuentzat eta estratu sozial guztietako emakume gehientzat. Zientziak estatus egokia zuen egia sortzeko.

Teorizazio guztiotan lengoaiak zeresan handia du: XX. mendearen lehen erdira arte ez da “homosexual” hitza erabiltzen, eta medikuntzak kontzeptua ekoitzi zuenean jada esanahiz beterik zetorren. Gaur egun homosexualitatearekin lotzen diren praktika sexu-afektiboak existitu arren, homosexualitatearen asmakuntza kontzeptual-medikoak berrikuntzak ekarri zituen: homosexualaren identitatea sortu eta hari egiaren ordenan estatutu finkoa ematea. Garai ezberdinetako testuetan presente dagoen “sodomita” hitzak praktika batzuk izendatzen zituen, ondo ikusiak edo onartuak ez zeudenak, baina ez zuen identitate finko bat adierazten. Bestela esateko, sodomita guztiek ez zuten ezaugarri multzo bat komunean, ez gutxienez XX. mendetik aurrera izan duten zehaztasun eta indarrarekin. Sodomita izatea ez zen identitate bat, homosexuala izatea, aldiz, bai.

Identitate hori finkatzeko, zientzia medikoak homosexualak *zergatik* garen edo izan gaitzkeen aztertzen du eta horren ondorioz homosexualek badute arrazoi eta motibo bat, eta baita partekaturiko iragana ere: familian presentzia gutxi duen aita, haurra larregi besarkatu zuen ama, kromosoma okerra, deformazio bat burmuinean eta abar. Diskurtso horien ardura da homosexualak *nola* portatzen diren aztertzea ere eta, era horretan, egoteko eta aritzeko era konpartitua determinatzea: sexu harremanak kudeatzeko era bat, hitz egiteko formak, gorputza erabiltzeko erak eta abar. Horrela, une historiko batzuetan egiatzat jo zen, esaterako, gizon homosexualak identifikatzea posible zela sudurraren itxura edo bizkarrezurrean zuten makurduragatik, edo berezko ezintasuna zutela harreman afektibo egonkorrak izateko. Gaur egunean ideia horiek txorotzat jo eta atzerakoiak direlakoan arbuiatzen ditugu, hain zuzen ere homosexualitatearen inguruko uste berriak daudelako orain, egiaren erregimenak aldatu direlako.

Diskurtso horiei, bizitza soziala arautzeko duten gaitasuna ez datorkie egia izatetik, baizik eta sozialki legitimatuak dauden instituzioek zentzuak sortu eta jakintza-botere korapilo bihurtzeko duten gaitasunetik. Pentsa dezagun “*gizakia lurra zapaltzen*” argazkian (6. ilustrazioa). Argazki horrek munduari buelta eman zion. Adin batetik gorako denok gure iruditegi pertsonalean gordetzen dugun irudietako bat da astronauta estatubatuarrarena. Irudia eta gertaera bera konspirazio teorien iturri izan dira: irudiaren argiztapenak, esaterako, argazkia estudioan hartua dagoela adierazten du, batzuen ustetan. Baina benetan axola al du horrek? Egia borobila da egun horretan gizakiak, gizaki txuri gizon estatubatuarrak, ilargia zapaldu zuela, eta argazki horrek sortu zituen efektuak gertaera hartatik askoz harago doazela: gizakiok zientzian dugun sinesmena areagotu zuen eta AEBek munduko potentzia nagusi gisa zuten leku sinbolikoa indartu. Alegia, mendebaldeko gizarteak gizakiak *ilargia zapaldu izan balu bezala* jokutzen du ordutik. Berdin dio gertatu zen edo ez, argazki hori maila gorenenean autorizatua zegoen instantzietatik heldu zitzaigulako: NASA, zientzia teknifikatua, komunikabide ofizialak, aurrerabidearen sinbolo den herrialdea.

6. ILUSTRAZIOA: GIZAKIA LURRA ZAPALTZEN



Argazkia: NASA 1969

Eraikuntza diskurtsiboek, hortaz, errealitatean eragin materiala izateko gaitasuna dute, gizartearen ohiturak eta portaerak baldintzatuz, eta posible denaren eta ez denaren muga inguratuz. XX. mendearen lehen erdialdean zientziek homosexualitatearen inguruan egindako eraikuntzak eragin zabala izan zuen, homosexualen eskubideen defentsan ari zirenak ere paradigma horretara lerratzeraino: homosexuala “gaixoa” zenez, garaiko mugimendu homofiloek estatutu hori aldarrikatu zuten, kartzela saihestu eta bestelako tratamenduak

izateko aukera eskatuz. 60ko hamarkada bukaeran gaur egun gay mugimendu bezala ezagutzen duguna sortu zenean, aldarrikapenak lekualdatu eta beste alor diskurtsibo batzuetara pasatu ziren: esparru juridikoa, sinbolikoa, politikoa eta ekonomikoa izango dira borroka guneak, horien guztien erdigunean identitate homosexuala kokatuz. Gay mugimenduaren sorrerarekin batera LGTB* pertsonak, une historiko eta forma ezberdinetan, mundura zabaldu ziren⁸⁵, pertsona juridiko zein ekonomikoa gisa, subjektu politiko gisa. Medikuntzak, antropologiak, psikologiak eta beste esparru legitimoek eraikitako identitate homosexuala indartu egin zen halabarrez, finkoago bilakatu. Azken hamarkada bietan bizkortu den prozesuan, merkatu-nitxo bezala ere definitu da LGTB* komunitatea, edo behintzat merkatuarentzat baligarriak diren komunitatearen sektore batzuk.

Prozesu hau ekidin ezina dela esan daiteke, eraldaketa politiko-sozialak gauzatzeko subjektuak bilduko dituen identitateak nola edo hala ezinbestekoak direlako. Identitateak sortzeko prozesuak, aitzitik, ezin dira soilik instantzia diskurtsiboen eragin gisara interpretatu. Braidottik, esaterako, identitateon azterketa proiektu politiko jakin baten baitan kokatzen du, subjektibotasun feminista femeninoaren eraikuntzan. Identitateen sorreran dauden hiru diferentzia mailak (besteekiko diferentzia, norberaren berdinekiko diferentzia eta norberaren barne mailako diferentzia) halabarrez presente daude subjektu bakoitzean, baina ez dira subjektibotasun politikoaren osagai bakarrik (Braidotti 2000; 2004). Subjektibotasuna ekintzarekiko harreman zuzenean dago eta, horregatik, teoria politikoarentzat bereziki garrantzitsua da diferentziaren hiru maila horiek ekintzarekin lotzea. Honela, diferentziak ez dira diskurtsoen emaitza hutsak, desioarekin, barne mailako bizitzaren ezinezko atxikitzearekin eta gura kolektiboekin lotutako potentziak dira.

85 Zaila da kasu honetan anglozentrismotik alde egitea. Kontakizun gehienek arabera mugimenduaren hasiera 60. hamarkadako AEBetan kokatzen da (Stryker 2017; Duberman 2018).

Braidottiren teorian, subjektu feministak ez du soilik kondizio material eta sinboliko berdinen azpian bizitzea konpartitzen, baizik eta baita bestelako kondizioak sortzeko nahia eta desioa ere, feminitatea erabat birdefinitzeko desioa, helmuga zehatzik ez duen eraldaketa sakona gauzatzekoa. Potentzia hori nortasun femeninoan oinarritzen den heinean, binarismo sexualean errotua dagoela eman dezake, baina garrantzitsua da ikuspegi honen begirada esentzialistak saihestea. Braidottik planteatzen duen subjektua nomada eta aldakorra da, identitatean oinarritu arren identitatea bera zalantzan jartzeko gaitasuna izan behar duena. Zentzu horretan, bere proposamena De Lauretisen (2000) subjektu eszentrikoaren edo Gayatri Spivaken (1990) esentzialismo estrategikoaren ondoan kokatu eta – kritikoki ere – aztertu beharrekoa da⁸⁶.

Analitikoki, beraz, hiru osagaien artean ezberdintzea baliagarria izan dakiguke: hasteko, identitateen sorrera eta mantentzea, instantzia diskurtsiboen eragin indartsuaren pean gertatzen dena; bigarrenaz, prozesu horiek posible izateko gizaki bakoitzaren baitan gertatzen diren identifikazio prozesuak, dinamikoak eta aldakorrak direnak, hainbat identitatetan egiten ditugun inbertsioen ondorio; hirugarrenaz, subjektibotasuna, ezin dena aurreko bi osagai horiekin bateratu, desioaren, kontrolaezinaren eta kolektibotasun eraldatzailearen markak daramatzen heinean. Egindako elkarrizketen azterketa egitean lehen galdera identifikazioaren ikuspegitik plazaratu nahiko nuke: identifikatzen ote gara gay, lesbiana, transexual, transgenero, intersexual, bisexual, queer, marika, maritxu, bollera, soropil... hitzekin eta berauek ilustratzen dituzten erreferentziekin?

(...) sekula ez zait gustatu, terminologia hori erabiltzea (...) eta katalogatu dezaket nire burua, horretarako ez daukat inongo problemarik, baina klaro egia da ere, ñaaa, ez zaidala gustatzen katalogazio konkretu bat ere, ez, zu zer zara? Bisexuala, heterosexuala... Nik badakit orain norekin ligatuko nukeen, ta pasatzen baldin bada neska bat ba ez naizela fijatuko ba pasatzen da mutil, bat, bai? Baina esate hutsak hori kontraesanak sortzen dizkit niri, ze ez dakit bihar ez den izango ezberdin. Edo gero, ez? (...) orain ere hitz egiten da que si queer, que si generoak ez dira existitzen edo bai, baina existitzen dira sei mila milloi genero, istoria horiek (...) gehiago gustatzen zaizkit guzti horiek lehengoa, bueno lehengoa edo ohiko horiek baino. [Markel]

86 Proposamen hauen balio politikoa ontzat emateak ez narama haiekin maila teorikoan guztiz bat egitera. Esaterako, Butlerrek Braidottiren planteamenduei egindako emendakin askorekin bat egiten dut (Butler 2010).

Markelek mahaigaineratzen duen lehen elementua bere burua katalogatzeko erresistentzia da. Bere sexu-desioa nagusiki mutilenganakoa dela aipatzen du, baina horrek ez du esan nahi gay edo bisexual bezala identifikatzen denik. Lehenago irakurri dugun Josebaren testigantzan “marika” hitzak identifikazio prozesuari buelta ematen dio: elkarrizketatua da hitz horrekin identifikatzen dena eta ez hitza bera identifikatzen duena. Horrela, bi testigantzok subjektuak identitatei ihes egiteko duen gaitasuna azpimarratu dute; azken finean katalogatua izatea ekiditeko formak dira. Subjektu bakoitzaren baitan gertatzen den erresistentzia honek bere isla du maila kolektiboan ere: badira hainbat hamarkada mugimendu kritiko ugariaren baitan identifikazioaren eta banakotasunaren inguruko eztabaidak tentsioak sortzen dituela⁸⁷. Tentsio horiek beren testuinguruan kokatzeko, ezinbestekoa da modernitateak mendebaldeko gizarteei ekarri dizkien indibidualizazio prozesuak aztertzea, azken urteetan norbanakoaren bakantasun eta berezitasuna egungo gizartearen marka bilakatzeraino areagotu direnak (Esposito 2012). Teoria kritiko zenbaitek banakotasun hori zalantzan jarri dute. Esaterako, teoria marxistak zalantzan jarri du kontzientzia norberarena denik, alienazioaren kontzeptuaren eta bere inguruan egin diren irakurketa ugari eta maiz kontrajarrien bidez (Mezzadra 2014); teoria feministek subjektu modernoaren izaera autonomoa kuestionatu dute, zaurgarritasunean eta elkar-dependentsian begirada jarritz (Saez Tajafuerce 2014; Pérez Orozco 2017). Psikoanalisiak ere zeresana izan du desioaren eta izaeraren sorkuntza aztertzean, subjektua osotasun koherente moduan baino, zatikatutako egitate bezala teorizatu duen heinean. Diziplina hauen arteko sintesia maiz gatazkatsua izan arren, psikoanalisi feminista eta marxistak ekarpen interesgarriak egin dizkie subjektua pentsatzeko moduei (Sáez 2008).

Herri mugimenduek ere, klasea edo generoa moduko kategoriei garrantzia emanaz modernitatea eta subjektu liberala kuestionatzeko gaitasuna izan dute. Adibidez, eskala sozialean gora egitea norbanakoaren gaitasunen eta berauen kudeaketaren arabera izan ordez, norbera jaio den eta hezi den testuinguru ekonomikoaren menpe dagoela esan dute mugimendu antikapitalistek, neoliberalismoaren printzipioak zalantzan jarritz, edo norberaren estiman gure generoak duen eragina gure predisposizio pertsonalak duena baino askoz handiagoa dela esan dute mugimendu feministek (Martínez García 2013). Pentsamendu

87 Mugimendu anarkistak, esaterako, bere hastapenetatik eztabaida bizia gorpuztu du ikuspegi komunitario eta indibidualistaren artean. Horri buruz, ikus (Bookchin 2012).

lerro kritiko horien irakurketetatik abiatuz, norbanakoaren hautuak bigarren planoan geratzen dira, eta hori ezerosoa suertatzen da maiz⁸⁸. Are gehiago, min handia ematen digu egitura horiek gure erabakitzeke gaitasuna zalantzan jartzen dutela sentitzeak, eta teoria eta mugimendu batzuek egiturei garrantzi handiegia ematen diotela pentsatzen dugu batzuetan⁸⁹.

Herri mugimenduen ikuspegitik, geure burua genero, sexualitate, klase edo arraza kategorien barruan errekonozitzeak askotariko efektuak ditu. Alde batetik, norberaren egoera errazago ulertzeko gaitasuna ematen digu, eta kapitalismoak eta patriarkatuak gure bizkarretan jartzen dituzten hainbat ardura arintzekoa. Horrela, lehenago Anaisen testigantzan ikusi dugun moduan, emakume askok mugimendu feministarekin topo egitean beren bizipena partekatutako esperientzia moduan ulertzen dute eta berau kolektiboki eraldatzeko moduak topatzen. Baina identifikazio horrek badu bestelako efekturik: eraldaketarako kategoria den hori berori zapalkuntzarako kategoria ere bada, eta hein horretan subjektuak bere burua harrapatuta atzeman dezake, botere mapa baten baitako puntu huts sentituz.

Audre Lorde poeta, aktibista eta pentsalari afroamerikarrak dio: *“Feminista Beltza naizela diodanean, aitortzen dut nire boterea zein nire zapalkuntza nagusiak nire belztasun eta emakumetasunetik datozela eta, ondorioz, bi fronte hauetan darabilzkidan borrokak banaezinak direla”* (Lorde 1988). Aipu hori interseksionalitateaz jarduteko erabili izan da maiz, subjektuen gorputzetan zapalkuntza anitzek nola funtzionatzen duten pentsatzeko, baina kasu honetan gehiago interesatzen zait subjektuaren boterea eta zapalkuntzak leku

88 Adibide bat jartzearen, azken urteetan sare sozial digitaletan oso arrunta bilakatu da “#notallmen” etiketa, edo gazteleraz “#notodoslos hombres”. Etiketa horren bidez gizon askok erantzuna ematen diote feminismoak, bereziki indarkeriari dagokionean, egiten duen kritikari. Feminismoak aztertu izan du gizonak ez dutela emakumeen kontrako indarkeria erabiltzen beraien ezaugarri pertsonalengatik edo “portaera desagokiak” dituztelako, baizik eta gizentasunaren sozializazioan indarkeriaren erabilera legitimo bezala ikasten delako, eta pribilegio sozialei eusteko mekanismo eraginkorra delako. Hainbat gizonak halako totalizazioa ikusi dute planteamendu hauetan eta horri aurre egiteko banakotasuna aldarrikatzen dut: “ni gizona naiz eta ez dut inor erasotzen, beraz gizon denek ez dute erasotzen”. Horrelako mugimendu erretorikoek, nire aburuz, badute gizarte modernoaren norbanakoaren dogmatik dezente: egiturazko ezaugarriak azpimarratzea (gure banakotasunaren gaitetik badirela eragin handia duten egitura ekonomiko, sinboliko eta politikoak) gizarte modernoaren funtsa bera zalantzan jartzea da. Eztabaida ezberdina litzateke maila estrategikoan zer mezu erabili daitezkeen gizonak feminismora erakartzeko. Horren inguruan hitz egin izan dut, besteak beste “Masculinidades y feminismo” testuan (Azpiazu Carballo, 2017).

89 Tentuz ibili beharra dago determinismo sozial erabatekoan ez erortzeko halako planteamenduekin baina, momentuz, nire argumentua zera da: determinismo sozialaren ideiarekin aurka sortzen ditugun mekanismo erretoriko eta diskurtsibo gehienek norbanakoaren erabakimen-gaitasuna azpimarratzea dute helburu baina, nahita ala gabe, norbanakoaren kontzeptualizazio liberalean oinarritzen dira eta hori indartzen dute. Ideia honen inguruan jardun izan dut behin baino gehiagotan hezkuntza esparruan genero eta sexualitatearen inguruko formazio eta hausnarketa saioak antolatzen eta dinamizatzen dituzten kideekin. Oroitzen ditut, gutxienez, Candela kolektiboko lagunak, Miquel Missé edo Alixe Rodriguezekin izandako elkarrizketak. Milesker beraiei ideioi eztabaidatzen laguntzeagatik.

beretik datozela dioela azpimarratzea (bere kasuan, emakume eta beltza izatetik). Eraldaketarako gaitasuna eman dezaketen kategoría horiek guztiak gure esperientziaren muga edo sinplifikazio gisa bizi ditzakegu maiz. Sexualitatea eta genero biziortasuna intimitatetik oso gertu bizi ditugu eta, nortasunaren elementuak aldakorak direla ulertu arren, beste batzuk baino finkoagoak dauzkagu.

Azken bi testigantzek eta ekarriko dudak hurrengoak bizipen horren izaera bikoitza islatzen dute, eta elementu horiek interpretatzerako orduan izan beharreko zuhurtzia. Lehen irakurketa batean, sexualitatearen kategoriekin identifikatzeko erresistentziak banakotasunaren defentsatzat hartu ditut, sexualitateak gure izaera ez mugatzeko ahalegintzat. Ikuspegi horretatik, gay, lesbiana edo bisexual bezala identifikatzeari uko egitea subjektibotasun indibidualaren aldarrikapena izango litzateke, eta liberalismoak egiten duen banakotasunaren apologiatik gertu egon daiteke. Baina ireki dezagun Markelen testigantzen testua apur bat gehiago:

(...) ze behar daukagu hitz egiteko edo behartzeko bera esaten aber gustatzen zaizkion gehiago edo gutxiago edo den bakarrik neska bat edo diren guztiak, pues no sé, igual da bat eta ez dira gehiago baina zergatik itxi behar dio bere buruari bere gorputzari etorkizunean izatea gehiago, orduan nik uste dut katalogazio horretatik mantendu naizela edo nahi izan dudala mantendu al margen, eta gainera zelan aktibista horren inguruan enaizen izan, ez dut sentitu ere behar hori.
[Markel]

Azken esaldiak identifikazioaz pentsatzeko beste leiho bat irekitzen digu. Elkarrizketan parte hartu dutenek, era batean edo bestean, identitate horien izaera politikoa aitortzen dute. Haien ustez LGTB* identitateak badu une aurrepolitiko eta politikoa ere. Sexu-joera edo identitateak ez gaitu identifikatzen, gu identifikatzen gara harekin eta, aktibista hauen iritziz, identifikazio hori politikoa da: ekintza kolektiborako subjektu politikoa eraikitzeke identifikatzen gara. Jokoan dagoena, beraz, subjektibotasun kolektiboa da. Baina posible al da lerro argi batez banatzea egunerokoan gure egiten dugun identitatea eta ekintza kolektiborako darabilgun subjektibotasun kolektiboa?

Bueno, yo soy muchas cosas, soy vasca, soy euskaldun, tengo mi cultura, mi lengua... Y bueno, pues, ¿mujer? Mujer social, porque la sociedad me ve así porque tengo tetas y coño, no porque yo me considere mujer. Entonces mujer, socialmente. Y luego pues políticamente yo estoy en las luchas, entonces sumo. El lesbianismo es parte de ese hacer y ese querer que yo creo que...
[Sara]

Ez da ohikoa testigantza honetako hitzen argitasuna topatzea, bereziki generoaren inguruan ari denean. Lesbiana politiko bezala identifikatzen den pertsona honek *sozialki* emakumea dela diosku, baina horrek ez duela bere nortasuna adierazten. “*Gizarteak hala ikusten duelako*” edo gizarteak femenino bezala identifikatzen dituen ezaugarri sexuatu batzuk daramatzalako da emakumea. Baina berarentzat lesbianismoa eta, horrekin batera, emakume izatea, borroka baten parte da, alegia, borroka baten oinarrian dagoen subjektu politikoa da lesbianismoa. Aitzitik, euskalduntasuna, kultura eta hizkuntza ez dira horrela ikusten maiz. Ez da horren ohikoa “*ni euskalduna naiz jendeak hala ikusten nauelako*” esatea. Abertzaletasunaren inguruan ikuspegi eta bizipen oso anitzak egon daitezke, baina euskaldun izatea ez da oraindik subjektibotasun politiko hautatu hutsa. Gehienetan euskalduntasuna, edo beste tasun batzuk, subjektibotasun politikoaren parte bezala onartzen ditugu, baina *baita ere* gure eremu pertsonala, edo identitatea, bustitzen duen zerbait bezala. Sexualitatearekin ez da zehazki horrela gertatzen, ez behintzat kasu guztietan:

Ba benetan ez dut erabiltzen {lesbiana hitza} pentsatzen dudalako denok garelako pertsonak, berdin da ze sexu daukazu, ze sexu gustatzen zaizun, ze sentimendu daukazu eta hori. Baina bueno, horrela identifikatu behar baldin bada porque hay que hacer ezdakitzer berdin zait ere bai. [Marta]

Aurreko testigantzan berriz ere zerbaitetarako identifikatzearen ideia azaltzen zaigu, lesbiana etiketa “zerbait egiteko” tresna bezala ulertuz. Zer elementu dira, ordea, egunerokoan identifikazioa zailtzen dutenak? Ziur aski pertsona batetik bestera osagai multzo zabala eta aldakorra da. Hasteko, LGTB* identitateen estereotipatzea dago. Identitate horiek zerbait itxi eta finko bezala aurkezten zaizkigu iruditegi kolektiboan eta, kasu gehienetan, ezaugarri negatiboz kargatuta, baita herri mugimenduetan ere. Aktibismoan zentrala izan den militantearen figurak (sakrifikatua, besteentzat gauzak egiten dituen, heroia...) ez du berez bat egiten gay estereotipoak erakusten duenarekin (hedonista, dibertigarria, *disfrutona*⁹⁰).

Bestalde, sexualitatea norbanakoaren espresibide moduan ulertu ohi da, eta horregatik bereziki mingarria zaigu berau katalogatzea. Pentsatu nahi dugu gure sexualitatea desio kontrolaezinen pean dagoela, are gehiago ezkerreko giroetan, zeinetan gogoz arbuia ditugun sexualitatearen inguruko azalpen biologizista eta deterministak (esaterako, sexualitatearen helburua birsortzea dela). Baina sexualitatea horren instintiboa eta askea bada, nola da posible historiako une ezberdinetan desira zein arbuioa sortzen duten gorputzak hain

90 Milesker Angel Erro “disfrutona hitza aurkezteagatik.

determinatuak egotea? Esaterako, jende gehienari ez zaio desiragarria suertatzen argala eta gaztea ez den gorputzik eta hori ez da portaera sozialetara mugatzen, gure intimitatean ere ez zaizkigu desiragarriak suertatzen. Horrek izango du zerikusirik gure gizarteetan, une historiko honetan, loditasuna tratatzeko dugun moduarekin eta adinaren inguruan ezarritako ideiekin. Kontraesan baten aurrean gaude. Alde batetik, gure sexu-desioa inoiz baino bideratuago eta erregulatuago dagoen unean bizi gara. Sexu-heziketak, komunikabideek eta industria kulturalak eragin handia dute guretzako desiragarria izango dena finkatzerakoan. Hain da horrela non gorputz batzuk, definizioz, ez diren sexualki *desiragarritzat* hartzen⁹¹. Baina, beste alde batetik, erregimen arautzaileen ezaugarri nagusia ikusezintasuna da: arautze hori normaltasunaren ekoizpenaren testuinguruan gertatzen da eta, horrela, gure portaerak baldintzatzen dituzten arau sozialek bere arrastoa zentzu komunaren atzean ezkututzen dute, indibidualtasunaren ilusioa berrezarritik (Braidotti 2000; Esposito 2012; Foucault 2016). Arau sozialen eraginaren menpe egon arren, norbanako sentitzea ezinbestekoa dugu. Erregulazio ikusezin horren eta banakotasun ilusio zein desioaren arteko espazioan ere sortzen da gure sexualitatea aske bezala bizitzeko beharra. Behar hori asebetetzeko, gay, lesbiana edo bisexual kategoria sexualak oso mugatzat jotzen dituzte sexualitate ez-normatiboak dituzten askok.

Zauriak eta biktimizazioak

Kategoria sexuarekin identifikatzeko zailtasunetan eragina izan dezakeen beste elementu bat bizitako esperientziaren intentsitatea izan daiteke, aukera sexualak gure bizitzak baldintzatzeko izandako gaitasuna. Zenbateraino izan da erabakigarria gure bizitzan sexualitate ez-normatiboa gorpuztea? Gure hautu pertsonalak baldintzatu al ditu? Gure lan eta enplegu baldintzak? Gure ibilbideak, gure sozializazio moduak zein ingurukoekin izandako harremana? Horiek guztiak neurtzerako orduan, berriz ere subjektuaren posizio

91 Desiragarritasunaren inguruan hitz egin dute, aniztasun funtzionalaren ikuspegitik, Paco Guzmán eta Lucas Platerok (2012), besteak beste. Gai hori tratatu dute ere Antonio Centeno eta Raúl de la Morenak “*Yes we fuck*” dokumentalean (2015). Lodifobiaren ikuspegitik ere, osasunaren inguruko diskurtsoez gain, desiragarritasunaren gaia zalantzan jarri dute hainbat aktibistek, tartean Lucrecia Massonek (<https://labur.eus/Akg8>, 2019ko azaroak 1ean kontsultatua), (Solà eta Urko 2013).

partikularrak eragina du: esperientzia norbanakoarena da eta bakoitzak pertzepzio ezberdina izan dezake haren inguruan, baina gizartean nagusi diren joerek emango digute gure esperientzia neurtzeko testuingurua eta hizkera. Esaterako, gaur egun emakume askok generoak beraien bizitza maila ugaritan baldintzatu duela pentsatzen dute, baina pertzepzio hori feminismoak ireki duen esparru diskurtsiboari esker da posible, borroka sozialen bidez galderak ireki, esperientzia batzuei balioa aitortu eta norbere bizitza prisma horretatik interpretatzeko testuinguru egokia sortzen delako. Ildo horretatik, herri mugimenduen kultura politikoak LGTB* esperientzia pentsatzeko espazio nahikorik sortu ote duen galdetu genezake. Kasurako, nazio zapalkuntza erdigunean duen mugimendu abertzalean zer tresna daude sexualitatearekiko esperientzia pentsatzeko? Maila berean jarriko dugu gay edo lesbiana izateak eta euskalduna izateak nola eragin digun? Eta klasea erdigunea duen talde edo sindikatu batean? Edo generoa erdigunean jartzen duen mugimendu feministan?

Nola neurtu gure bizitzan eragina duten egiturazko elementuak? Zer da “eragina izatea”? Biktimizazioarena klabe garrantzitsua da, herri mugimenduen dinamiketan eta bertan parte hartzen dugun aktibisten ikuspegi eta interpretazioetan eragin handia duena. Izan ere, oso lerro fina dago zerbaitek eragiten digula eta zerbaiten biktima garela esatearen artean. Wendy Brown estatubatuarrak “woundedness”⁹² hitza erabiltzen du bere ustez kritikoki aztertu beharreko prozesu batez jarduteko (Brown 1995). Gaur egungo gizarteetan biktimak paper berezia jokatzen duela azaltzen du pentsalari estatubatuarrak, eta biktima izaera ikuspegi enpirikotik aztertzeaz gain bere posizio sinbolikoaren berezitasunetik ere arakutzen du⁹³. Mugimendu sozialetan biktimaren figura aldarrikapenen zentroan jartzeak askotariko eraginak ditu, estatus berezi hori aitortza forma bat baino gehiago baita eta efektu negatiboak ere izan ditzakeelako. Alde batetik, botere egituretan duten posizioagatik egoera zehatzak eta errepikatuak bizi dituzten pertsonen aitortza bat lortzen dute biktima estatusaren bidez,

92 Euskaraz itzulpen gertukoena “zauritasuna” izan zitekeen, nahiz eta hitza ez dagoen hiztegian.

93 Wendy Brown ez da gai honen inguruan lan egin izan duen bakarra. Gure ingurune gertukoan Gabriel Gattik (2017) koordinatutako bolumena dugu eskuragarri, besteak beste. Daniele Gilgioli italiarrak ere “Crítica de la víctima” testua idatzi zuen, biktimaren *mitologiaren* inguruan. Bere ustetan biktimaren mitoak posizio zentrala lortu du egungo gizarteetan eta politikagintzaren erdigunean kokatu da, biktima estatusa (enpirikoa edo sinbolikoa) helburu politikoetarako erabiltzea posible eginez. Esaterako, biktima estatusa okupatzen duenak kuestionatua ez izateko eskubidea du, nolabaiteko inpunitatea eskuratuz. Honela, boteretsu ugarik ere biktima estatusa aldarrikatuko dute, beraien mesederako erabiliz. Gilgioliren analisia abiapuntu hartu ordez, Wendy Brownena hartu dut, Gilgiolik ez duelako biktima kontzeptuaren izaera anibalentean nahikoa fintzen bere analisia eta, bereziki, bere lanean kokapen falta bat dagoelako, bere teorizazioa oso ikuspegi politiko ezberdinetatik baliatzea eragin dezakeena. Biktimizazioaren inguruan sortzen duen diskurtsua ez dago eskuin muturrak bere antifeminismoa edo inmigrazioaren kontrako jarrerak justifikatzeko erabiltzen duenetik hain urrun. Zentzu horretan Brownen hausnarketak askoz hobe harilkatzen ditu biktima izaeraren anibalentziak, bere ekarpen teorikoa kokapen feminista eta sozialistatik egiten duela argi uzten duelako.

egoera horien ardura, hein batean behintzat, haien bizkar gainetik kendu eta egiturei so egitera behartuz. Baina, halabeharrez, beste efektu bat ere badu biktimizazioak: langa bat ezartzen du estatus horretan sartu ahal izateko, eta hori politikaren jardunean arazotsua suertatu daiteke. Brownek (1995) zalantzan jartzen du biktimarena eskubideak aldarrikatu eta eredu askatzaileekin esperimentatzeko abiapuntu egokiena denik.

Gai horrek, zuzenean edo zeharka, garrantzia izan du 2016 eta 2018 artean garatu dugun proiektu batean. Unibertsitate esparruetan gertatzen den indarkeria sexualaren inguruan #USVreact proiektuan jardun dut Marta Luxán, Mila Amurrio eta Ainhoa Narbaiza ikerlari eta hezitzaileekin. Biktima estatusak sortzen dituen partikularitasunak hainbat eragin izan zituen gure proiektuan. Alde batetik, indarkeria sexualak unibertsitate esparruan hartzen dituen formak identifikatzerakoan, gizarteak indarkeria mota hori ezaugarritzeko duen modua oztupoa izan da: iruditegi sozialean maiz indarkeria sexuala kale-izkina ilunean gertatzen den bortxaketara murrizten den heinean, biktima beti ere subjektu traumatua da, egoera izendaezinak bizi izan dituen. Biktimizazioaren irudi partikular horren ondorioz, unibertsitateetan protokoloak egin izan direnean indar handia jarri da egoeraren *peritaje*an. Protokolo askotan hitz hori, “konprobazioa”, “frogatzea” eta antzerakoak erabiltzen dira, indarkeria hauei aurre egiterako orduan biktimizazioak jokatzen duen papera argi utziz. Protokolo askotan, enpleguaren esparruan bere eginbeharra zailtzen duten kalte fisiko edo/eta psikologiko ikusgarriak izatea ezinbestekoa da norbait biktimatzat hartua izateko.

Ikuspegi horrek ataka zailean kokatzen gaitu indarkeria sexualei aurre egin nahi badiegu. Hasteko, indarkeria horiek egiturazko baldintza batzuen ondorio dira; gure ikuspegitik, matxismo, sexismo, LGTB*fobia, klasismo edo arrazakeriarenak. Indarkeriok sortzen dituzten egitura berberak gune ilunak elikatzen dituzte eta, hain zuzen ere, horregatik dira maiz frogatzen zailak. Askotan jarri izan dugun adibidea torturarena da: ez da subjektu desbideratu batzuen ekintzaren ondorioz gertatzen, baizik eta estatu demokratikoen zein diktadura militarren ordena mantentzeko estrategia egituratuen baitan. Horregatik ez da posible egitura horiek zalantzan jarri gabe tortura frogatzea⁹⁴. Bigarrenez, begirada biktimarengan jartzeak biktima-biktimario eskema ixtera eramán gaitzake. Norbait biktima bada, norbaitek kalte hori eragin du eta, biktimen estatusa indibidualizatua baldin bada, kaltea eragin duenarena are gehiago: zaila izaten da halako kasuetan eraso egin duen pertsonaz gain beste inoren ardura mahai gainean jartzea. Horrek arazoa bi pertsonaren arteko mugatzen du,

94 Ignacio Mendiola (2014:169) adibidez, “etsaiaren zuzenbide penala” aipatzen du ezintasun horretaz jardutean. Ideia horren atzean hiritarraren eta etsaiaren arteko banaketa kontzeptuala dago: hiritarra mehatxua ez den heinean eskubide batzuen jabe da, eta aplikatzen zaion zuzenbidea hiritarrarena da. Aldiz, uneko egoera geopolitiko edo ekonomikoak hiritar hori *etsaitzat* jotzen badu, bere hiritartasuna zalantzan jarri eta *etsaiaren* zuzenbidea aplikatuko zaio. Horrela, hiritarraren zuzenbidearekin etsaiaren egoera argitu nahi izatearen paradoxa eta ezintasuna gauzatzen dira.

ardura soziala desagerraraziz. Hirugarrenez, biktimizazioaren langak identifikazioa zailtzen du, indarkeria egoerak bizi izan arren, hainbatek ez dutelako inoiz beraien burua biktimizat ikusiko. Alde batetik, *besteei* gertatu zaiena larria dela pentsatzeko joera dagoelako, norberari gertatu zaion txikikeriaren alboan. Bestalde, biktimaren estatusa berezia bezain aldebikoa delako: politika askoren erdigunean egon arren, inork ez du estatus horrekin guztiz identifikatu nahi.

Ezer baino gehiago arduratzen nau, ordea, biktimizazioaren ikuspegi horrek aspektu juridikoak erdigunera ekartzeak. Ikuspegi juridikoak nahi genukeena baino gehiago busti ditu gure ikusmoldeak⁹⁵, eta horrek gure politikak haren inguruan antolatzea eraman gaitu. Subjektu juridikoaren figuraren erdigunean dagoen kontzepzio hori antzinatik dator⁹⁶, eta ikuspegi politikotik problematiko den heinean zalantzan jarri da ikuspegi kritiko askotarikoetatik. Bereziki esanguratsua da indarkeria sexualaren kontzeptualizazio hori zalantzan jartzeko mugimendu feministak azken urteotan egindako lan sakona. Indarkeria sexualen inguruko protesten ziklo berri honetan⁹⁷ eztabaida handia dago mugimendu eta aktibista feminista batzuek egiten dituzten eskaera punitibisten inguruan⁹⁸, eta ikuspegi juridikoa zalantzan jartzen duten hainbat ahots sortu dira. Auzitan jarri da, esaterako, justiziaren aurrean indarkeria sexuala *frogatu* behar izatearen fartsa; emakumeen hitzari balio soziala (eta ez soilik juridikoa) ematearen garrantzia azpimarratu da; indarkeria sexualaren inguruko kritikak erasotzailearen figura gainditu du hein handi batean, ardurak figura horrez

95 Bereziki argigarria izan zaigu (lan honetarako zein indarkeria sexualaren inguruko proiekturako) Patsilí Toledo Vasquez ikerlari eta juristaren ikuspegia. Hemen kontsultatu daiteke gai honen inguruan berak egindako interbentzioa EHU-n antolatutako genituen jardunaldietan (<https://labur.eus/csrPi>, 2019ko azaroak 1ean kontsultatua) eta baita Montse Pineda ikerlari eta aktibistarekin batera indarkeria sexualaren inguruan egin zuen ikerketaren txostena (Toledo eta Pineda 2016).

96 Roberto Espositok (2012) errepasso interesgarria egiten dio gai honi. Erromatar inperioaren garaian subjektu izateko kondizioak berarekin zekarren subjektu ez zirenen gaineko jabetza, izan hauek gauzak edo esklaboak. Esklaboak ez ziren subjektu juridikotzat hartzen, ez zutelako zerbait edo norbaiten gaineko jabetzarik. Kontzeptualizazio honen ondorengoan ondo jarraitzen ditu Espositok mendeetan zehar, erdi arotik pasata eta kristautasunaren - San Agustín - teorizazioekin lotuz. Azken geldialdia Simone Weil-en filosofian egiten du, "inpersonal" denaren gorazarre eginez. Ikerketa hau eguneratzeko era egokia litzateke gaur eguneko fluxu migratzaileen zurrunbiloan izaera juridikorik gabe dauden pertsonen egoera, baina baita hiritartasun sexualaren inguruko hainbat egoera eta eztabaida (Platero 2013).

97 Ez dakit egokia den "ziklo berriaz" hitz egitea baina 2018. urtean nabariak izan dira indarkeria sexualaren inguruan martxan jarri diren hainbat kanpaina eta protesta. #MeToo kanpainak, San Fermin jaietako bortxaketaren inguruko epaia jasotzeak eta hainbat erakunde, kolektibo eta instituziotan -era nabarmenean unibertsitateetan- indarkeria sexualaren inguruko protokolo eta ekinbideak onartzeak urte honetan indarkeria mota honi berebiziko atentzioa jartzea ekarri du. Mugimendu feministaren lana apartekoa izan da duela hamarkada ugari, baina esango nuke azken urte edo urte eta erdi honetan beste dimentsio bat hartu duela gaiak, esaterako 2018ko martxoak 8ko protesta inoiz baino jendetsuagoetan presentzia handia izanik.

98 Eztabaida hau zabalegia da agian une honetan garatzeko, baina ikuspegi punitibistaren kritika sakon eta interesgarria ikusteko baliagarria izan daiteke Rita Laura Segatoren "La guerra contra las mujeres" (Segato 2016), Miren Ortubayren lana (Ortubay Fuentes 2015) edo Laura Macaya Andrésena (2019).

gaindi ere jarri direlako, askotan izaera juridiko pertsonalik ez duten arduradunak seinalatuz (Barjola 2018). Guzti horren ondorioz, besteak beste, indarkeria sexualari bestelako begirada, politikoagoa, ezartzeko beharra indarrez agertu zaigu. Ildo horretan garatzen da ere justizia feministaren inguruko lantaldearen jarduna, Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan aurkeztutako ponentzian ikusi daitekeen moduan (Seminario de justicia feminista 2019).

Indarkeria sexualen gaia lantzean ikasi genuen moduan, biktimaren estatusak zailtasunak sortzen ditu alde batetik langa ezartzen duelako eta bestetik identifikazioa zailtzen duelako, norberaren esperientziak erlatibizatuz. Horretaz gain, Brownek (1995) mugimendu eta aldarrikapenen erdigunean biktimaren figura jartzeari buruz egindako aipamena elkarrizketekin alderatuz. Suerta daiteke LGTB* sigla eta kategoriekin identifikatzeko zailtasun edo erresistentziek biktimizazioaren ikuspegi horrekin loturarik izatea? Posible al da identifikazio horrek, mailaren batean bederen, biktima papera asumitzea ekartzea eta hori problematikoa izatea? Izan daiteke ez dugula gure burua biktimatzat hartu nahi edo ez dugula argi gure esperientzia hori denik? Atentzioa deitu zidan elkarrizketetan traumarekin⁹⁹ loturiko hainbat erreferentzia topatzeak, edo gay, lesbiana edo trans* izateak ekarritako albo-kalteen ingurukoak, kasu gehienetan horiei garrantzia kenduz:

Bai eduki nuen epoka bat e... Igal buruhauste dezente izan nuena, baina ez da izan horrela, ez dakit, super, zelan esan, traumatikoa. [Ernesto]

Beti izan dut argi. Gogoratzen dut une batean, 15 urterekin, esaten nuela, “por qué a mí esto”. Baina saltoa hori adieraztera ez zen izan traumatikoa, igual seguruen lehenagotik modu implizituan adierazi nuelako, jendeak espero zuelako. [Mikel]

Mikel eta Ernestok, testigantza hauetan, traumaz baino buruhauste eta zalantzez hitz egiten dute, traumak izan dezakeen larritasuna arinduz. Aitzitik, gure iruditegi sozialean LGTB*fobiaren traumaren inguruan dugun ideia buruhauste eta zalantzetatik harago joan ohi da. Film zein liburuek, mugimenduen kanpainak edo instituzioen propagandak erakutsi digutena larritasun maila horretatik gorago koka dezakegu: indarkeria fisikoa, eskoletako

99 Hitz honen erabileraren inguruan ulertu beharra dago trauma hitzaren adiera ezberdinak daudela. Hasteko, medikuntzan, esaterako traumatologian, erabiltzen den adiera dugu, kolpea edo haustura adierazteko. Lan honetatik gertuago, literatura psikologiko, psikoanalitiko edo ikerketa kulturaletan besteak beste erabiltzen den traumaren irakurketa konplexu eta nahiko arautuaz gain, egunerokoan erabiltzen dugun hitza da, eta erabiltzen dugunean askotan “arazo”, “min” edo “kalte” hitzen sinonimo bezala erabili dezakegu. Ez bedi ulertu beraz parte-hartzaileok traumari buruz hitz egiten zutenik lehen bi adiera horietako batean, ziur aski azken erregistro horretatik gertuago arituko ziren, edo azken bien arteko nahaste batean.

jazarpena, suizidioa eta erabateko esklusioa familia zein lagunen guneetatik. Esperientzia horien alboan sexualitate edo genero bizinortasuna dela-eta jazo zaizkigun gauza gehienek huskeria dirudite, eta trauma beti ere gertakizun indibidual eta psikologikotzat dugun heinean, esperientzia horretatik kanpo sentitzen gara. Traumak badu ordea dimentsio kolektiboa ere (Cvetkovich 2018), eta horri erreparatzeak irakurketa ezberdina egiten lagundu gaitzake. Ikuspegitik kolektibotik, norbanakoen esperientzia psikologikoetan eragiteaz gain, traumak komunitate osoen espektatiba eta bizipenetan eragina izan dezake, eta komunitate horietako kideen bizitzak baldintzatu. Dimentsio horiei arreta jarri ordez, indarkeria matxistaren eta biolentzia sexualen kasuan gertatzen den moduan, maiz norbanako traumatuen bila aritzen gara. Noski, traumari ikuspegi sozialetik begiratu gero, bi aldeko txanpona aurkituko dugu. Txanponaren alde batean, irakurketa baikorra: garaiak eta testuinguruak aldatu dira, ez dago beste garai batzuetako errepresio bortitz eta erabateko arbuiorik heterosexualak ez diren sexualitateen eta binarismoak zalantzan jartzen dituzten genero espresio eta identitateen kontra.

{una compañera del movimiento feminista} decía que, en general y con respecto al patriarcado y el heteropatriarcado, se vive mejor en democracia pero se lucha mejor en una dictadura. Y añadiría yo: el objetivo es vivir mejor, no luchar mejor (...) una vez que sales de las cloacas y desaparece esa férrea dictadura heteropatriarcal, sexista, homófoba, lesbófoba, pues la gente empieza a vivir... mejor, y ya no es tan necesario, esto pasa con el feminismo pero yo creo que es super claro con la disidencia sexual (...) sigue habiendo agresiones pero no se puede ni comparar (...) es que la mejora en las vidas concretas es de tal calibre, ¿que eso que hace? Que la lucha sea más difusa, más de matiz, menos necesaria, yo creo que realmente es menos necesaria. [Pili]

Testigantza honek dioen moduan, jendeak bere bizi-esperientziaren narrazioa traumaren ikuspegitik ez egitea pozteko modukoa da. Baina hona hemen txanponaren beste aldea: parte-hartzaile gehienek, une batean edo bestean eta intentsitate maila anitzekin, beren sexualitate edo generoagatik bizi izandako gertaera mingarri edo ezerosoak aipatu dituzte, hala nola, beren buruak isildu edo ezkutatzea, maila sinboliko edo fisikoan indarkeria egoerak bizitzea eta abar. Gertaera horiek elkarrengandik urrunegi dauden bi poloren artean mugitzen ari dira, erabateko normaltasunaren eta erabateko zapalkuntzaren artean. LGTB* pertsonon esperientzia mugako bi puntu horietan kokatzeko zailtasunak ditugu: jende gehienak ez du gay, lesbiana edo trans* izan arren bizitza erabat normala eta arazorik gabekoa izan duenik sinesten, baina, aldi berean, gehienek esperientziak ez du bat egiten erabateko

biktimizazioaren ideiarekin¹⁰⁰. Hasteko, ez direlako lehen aipatu ditudan biktimizazioaren estandarrak betetzen, baina baita aspektu horiei garrantzia kentzea bizitzen jarraitzeko estrategia ohiko eta logikoena delako ere¹⁰¹. Erabateko normaltasunaren eta zapalkuntzaren estremoetatik urrun dagoen gune gris horrek politiziaziorako espazio gutxiago uzten du. Ez gara identifikatzen kalte handia bizi izan duten eta, beraz, bere identitate hori aldarrikapenen plataforma bezala erabiltzen dutenen taldean, baina ezin gara komunitate horretatik erabat desidentifikatu ere, sexualitate eta genero *bizinortasunei* inolako garrantzirik eman gabe. Susmoa badugu, baina ez da nahikoa indartsua politizazio sendoa sortzeko, eta gunearen arabera hitz ezberdinak erabiltzen ditugu gure burua izendatzeko:

(...) esplikatu izan dudanetan “mutilak gustatzen zaizkit”, horrela. Gero, igual, koadrilan eta horrela katxondeoan “marika” hitza bai, baina horrela katxondeoan (editatua: gaur egun identitario bezala ikusten dut marika hitza. Subjektu politiko bezala). Baina norbaiti esan behar diodanean, bai, “mutilak gustatzen zaizkit”. Gaur igual erabili daitekeena “homosexual” moduan, erderaz “gay” igual hobeto... euskaraz “gayxa”, suena muy japonés. [Ernesto]

Parentesi artean dagoena elkarrizketatuak berak egindako elkarrizketa osteko edizioa da¹⁰². Bere narrazioan, marika hitza “*katxondeorako*” erabiltzen zuen hitza zen. Normalean izenera jo ordez ekintza izendatzen zuen (“*gustatzen zaizkit*”). Gaur egun LGTB* aktibismoarekin harreman zuzena duen aktibista honek, marika hitza “*identitario*” bezala ulertzen du orain, subjektu politiko bezala. Alegia, hitz horrekin identifikatzea ez dago jada norbere esperientzia zuzenarekin loturik, baizik eta enuntziazio posizio bat bilatzearekin, gaiaz hitz egin eta ikuspegi politikotik aktibatzeke leku bat izatearekin. Orain arte argi geratu denez, beraz, identitateok bi aspektu intimorekin harremanetan daude, gutxienez: oso gure barneko

100 Esan gabe doa, esperientzia hauek oso aldakorak dira gay, lesbiana, bisexual eta trans* pertsonen artean, azken hauek gaur egun oraindik ere indarkeria maila oso altuak bizi dituztelako, oro har.

101 Katalunian emakume/lesbiana eta bisexualekin egindako 19 bizitza-historietatik abiatuz superbibentzia estrategiak aztertu dituzte Andrea Francisco Amat eta Lidón Moliner Miravet ikerlariek. Maila ezberdinetako estrategiak aurkitu dituzte kontakizunetan eta hiru kategoriatan banatu dituzte: maila soziala, interpersonala eta intrapersonala. Gaiari dagokionez, maila sozialean egiten den erreferente positiboen zein elkar-topatzeko guneen bilaketa eta maila intrapersonalean egiten den autoestimaren lanketak biktimaren figura zalantzan jarri eta gainditzea ekarri ditzakete, besteak beste (Francisco Amat eta Moliner Miravet 2018).

102 Metodologia atalean azaldu dut elkarrizketatuek egindako edizioekin nola jokatu dudana.

sentitzen dugun desioaren eta genero bizinortasunaren dimentsioarekin, eta horren politizazioarekin. Lehen adieran, identitatea sarri baino maizago *goitik behera* sentitzen dugun zerbait da, eta berorri uko egitea ia-ia askatzailea da guretzat. Are gehiago, eta traumaren argumentuari jarraituz, ez gaude prest gure esperientziaren egiazkotasunarekin identitate horietan sartu ahal izateko ordaindu behar diren bidesariak gure gain hartzeko.

(...) gogoratzen dut mutilekin liatzea eta ondo, baina gogoratzen dut emakumeetan ere fijatzea eta telebistan eta... Eta gainera ez dut gogoratzen batere traumatikoa baina berriro diot igual ez zen batere traumatikoa mutilak ere gustatzen zitzaizkidalako, orduan... Adibidez nengonean mutilekin ez nuen sentitzen nire burua antzerki bat egiten. [Alaitz]

Alaitzek adibide interesgarria dakarkigu. Ordura arte gizonekin harreman afektibo-sexualak zeuzkan aktibista hau emakumeekiko bere erakarpenaz ari zaigu, eta oso garbia da bere narratiba pertsonalaren eta narratiba sozialaren arteko talka nola bizi duen: mutilekin harremanak zituenean ez zuen bere burua antzeztan sentitzen. Ziur aski sexualitatearen eta desioaren narratiba oso hertsia izan da maila honetan: gustatzen zaizuna gustatzen zaizula, desio hori benetakoa eta sakona da, aldaezina eta betikoa. Narratiba sozialek identitateetan duten eraginaren adibide da: lesbiana izateak gizonak ez dizutela inolako erakarpenik sortzen esan nahi du eta, beraz, inoiz gizonekin harremanak izan badituzu gezurra zen eta zu, zure benetako nortasuna agerian ez uzteko ahaleginean ari zen antzezle hutsa. Identifikaziorako eskura ditugun narratibak hain zurrinak eta partikularrak direnean, ideia estereotipatuotatik alde egiteko asmoz identifikazioari uko egitea ohikoa da.

Identifikazio eta nortasunaren eraikuntza prozesuetan biktimizazioak, zauriak eta traumak joka dezaketen papera aztertu ostean, LGTB* komunitatearen hiztegian berebiziko garrantzia duen hitzaren inguruan jardungo dut hurrengo orrietan: armairua.



7. ilustrazioa: Eibarren 2000eko hamarkadan egindako pegatinak

Armairuak

LGTB* politiken glosarioan ezinbesteko sarrera izan da armairua: “armairuan egon”, “armairua izan”, “armairumari bat izan”, “armairua hautsi”, “ez dok armairu”, “armairutik atera”... altzari hori protagonistatzat duten milaka esamolde daude aktibismoan eta kultura popularrean, hainbat hizkuntzatan gainera (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez zein frantsesez erabiltzen da). Baina zer egiten du armairuak? Nola eragiten digu identitatearen ikuspegitik? Zer harreman du identitate batekin edo bestearekin bat egiteko ezartzen zaizkigun baldintzei begira?

¿Estaba en el armario? Esa es la pregunta. Nunca he tenido la necesidad de hacerme pasar por hetero. Sí he tenido la necesidad de negar mi deseo sexual, pero no la de hacerme pasar por hetero «mira qué tía, qué mamellas». Negar mi deseo significaba no hacerlo público, alguien está hablando de chicas y tú estás callado como esa farola. En plan que pase este momento ya.
[Joseba]

Armairuak, parte-hartzaileen narrazioetan, esanahi ezberdinak har ditzake. Josebak, esaterako, ez du armairua bere sentipenak ezkutatzearekin lotzen, baizik eta dena ez antzeztearekin, lehen aipatu dugun Alaitzen testigantza zentzu berean. Nahiz eta ez duen uneoro homosexuala dela esan, ez du inoiz bere burua heterosexualtzat pasazteko asmoz gezurrik esan eta, ondorioz, ez du hain garbi armairuan zegoenik, galdera bezala bizi du. Josebaren narrazioan, armairuak ez du harreman zuzenik isiltasunarekin eta, modu berean, Mikelenean sorpresarekin duen lotura zalantzan jartzen da:

(...) egia da nik marika izatearekin ez dudala izan inoiz arazorik, ez eskolan, ez familian ez ezer. Ez da izan como «salgo del armario en este momento»... ez nik nahiko argi neukan baina bai, lagundu zidan konpartitzeak proiektua jende batekin, nire bizitzarako aberasgarriagoa (...) Beti, nik beti esaten dut naizela... no marica de nacimiento, ze hor soziologoek esango didate... baina bai, nahiz eta ez modu esplizituan beti izan naiz marika deklaratu, baina txikitatik eta ez berbalizatu, baina ikusten zen «este niño era marica». Beti izan dut argi. Gogoratzen dut une batean, 15 urterekin, esaten nuela, «por qué a mí esto». Baina salto hori adieraztera ez zen izan traumatikoa, igual seguruena lehenagotik modu inplizituan adierazi nuelako, jendeak espero zuelako. [Mikel]

Izan ere, armairutik ateratzearen inguruko beste uste orokortua da une horrek ingurukoentzat errebelazioa dakarrela. Kasu honetan ere iruditegi sozialean, filmetan eta bestelako narrazioetan, horren inguruko adibide ugari dauzkagu: norbaitek “gay nauzu” dioenean parekoen erreakzioa sorpresa, nazka edo shock handia izan daiteke. Errealitatean, bakoitzak esperientzia ezberdina izango du jasotako onarpen mailaren arabera, baina oro har sorpresa elementua ez da horren presente egoten. Mikelen hitzak horri buruzkoak dira: norbera txikitatik “*el niño marica*” izan bada, armairutik ateratzeak ez dio etenaldi berezirik suposatzen. Are gehiago, bere kasuan, armairutik ateratzea prozesu motel eta luzea izan da, era kontziente zein inkontzientean keinu eta espresio askotarikoen bidez gauzatu duena; helduaroan une “magikoa” heltzen denean, deus gutxi geratzen zaio kontatzeko. Edonola ere, dirudienez armairuak ez du horrenbesteko harremanik norbere sexualitatea edo genero nortasun/adierazpena onartzearekin. Armairutik ateratzean jakinarazten dugun berria ez da gay edo lesbiana garena, baizik eta hori era publikoan bizitzen hasteko asmoa dugula, eta hor sortzen dira kezkak familia eta lagunarte askotan. Kezka horiek, gainera, aktibismoarekin harreman handia izan dezakete:

Hori izan zen... Militantea edo aktibista bide hori hartzea eta armairutik ateratzeak eragin handia izan zuen nire familiarekin neukan harremanean, eta bueno, nik erabaki nuen 19 urte nituela gurasoen etxetik alde egitea eta okupatzen hasi nintzen. Hasieran gezurra esan nien gurasoei, nahi zuten ikusi nire alokairu pisua, ze nik egiten nuen lana leku batean baina ez nuen alokairurik ordaintzen, orduan gezurra esan nien eta egon ginen hilabete dezente hitz egin gabe, eta bueno, ez hori bakarrik, ba neskekin ere ibiltzen nintzela... utzi nuen betiko mutil-lagunarekin... gauza guzti horiek ez zituzten ulertzen. [Nadja]

Kasu honetan sexu aukera eta aktibismoa, biak ala biak, ezkutatu beharrekoak dira. Beren seme-alaben aktibismoarekin arazoak dituzten familiak inolako aktibismorik ontzat ematen ez duten familia kontserbadoreak direla pentsa dezakegu baina, lehenago adierazi dudan moduan, elkarrizketatu askoren narratiban normaltasunaren haustura izan da gatazkatsua eta, familia konprometituak edo ezkerrekoak izan arren, aktibismoen eta sexualitatearen aurrean duten erreakzioa antzerakoa da:

Yo siempre he sido la oveja negra, y me he construido en base a ser la oveja negra. Soy el menor de cuatro hermanos, todos hombres (...) Yo ta tenía conciencia de que era maricón, no lo dije hasta unos años después... Tenía una conciencia política clara, tenía muy claro que había cosas que no quería... Y en ese sentido, frente a tres hermanos mayores que se casan con la chica que han conocido con 18 años, que tienen hijos, carreras de éxito, que son profesionales de prestigio, yo decidí ser una especie de ONGero raro, maricón con militancias extrañas que a veces sale en la tele diciendo cosas que nos avergüenzan como familia, ¿sabes? [Joseba]

Josebaren kontakizunean sexualitateak eta aktibismoak bat egiten dute normaltasunari eta transmisio familiarrari huts egiterakoan. Ahmeden ustez (2019) transmisio horrek bi ardatz gurutzatu eta bi elementu barnebiltzen ditu: horizontalki eta bertikalki gertatzen da eta ekonomia eta erreprodukzioa elkartzen ditu. Ardatz horizontalean anai eta arreba agertu ohi dira, ardatz bertikalean gurasoak eta seme-alabak. Familiaren transmisio hori lau esparrutan gauzatu behar da, beraz. Gurasoengandik datorren tradizioa seme-alabei transmititu behar zaie, anai eta arreba egin bezala, eta ekonomiaren eta erreprodukzioaren esparruan gurasoen egoera berdindu edo hobetu behar da, albokoek egiten duten lez. Normaltasuna, maila honetan, zorientasunarekin lotzen da, eta hori bermatzeko gizartean posizio egokira ailegatzea ezinbestekoa da. Baina zorientasuna, egungo erretorikak dioenaren kontrara, ez da norberaren bidearen bilaketa amaigabea, arau sozial ikusezinetara lerratzeko gaitasuna baizik (Ahmed 2010) eta, horretarako, kategoria normalizatuekin identifikatzea ezinbestekoa da¹⁰³.

103 Ahmeden (2010) testuak ondo azaltzen du “zorientasuna” tropo sozial esanguratsu bilakatu dela egungo mendebaldeko gizarteetan. Ustez gizarteko kide guztien nahi eta helburu bilakatu behar den altxor preziatua, zorientasunak misterio bikoitza planteatzen digu: denok nahi omen dugu aurkitu baina inork ezin du definitu eta, horregatik, maiz mugako indibidualizaziotara jotzen da (“zorientasuna norbera ondo sentitzea da”) ala mugako kolektibotasunera (“zorientasuna besteekin bat izatea da”). Kulturaren azterketatik abiatuz, Ahmedek azaltzen du zorientasunaren ideia kontzeptio sozialez kargatua doala beti, klase, arraza eta genero ikuspegitik.

Desidentifikazioak eta ihes lerroak

Orain arte identifikazioaren inguruan aritu naiz, baina identifikazioaren ifrentzua desidentifikazioa da eta bi prozesuok uste baino lotuago daude. Beverly Skeggs ikerlariak, adibidez, langile klaseko emakume beltzen identifikazio prozesuak aztertu zituen 90eko hamarkadaren amaieran Estatu Batuetan (Skeggs 1997) eta, testuingurua erabat ezberdina izan arren, bere lanetik identifikazio eta desidentifikazioari buruzko ideia orokor bat berreskuratu nahi nuke. Skeggs langile klaseko emakumeekin aritzen da, beraien klasearekiko identifikazio maila aztertu nahian eta horretarako langile auzoetan bizi diren zenbait emakumerekin izandako elkarrizketak ditu oinarri. Bere lanean, beraz, klasea, arraza eta generoa harremanetan jartzen dira eta identifikazio prozesuek des-identifikaziotik ere badutela ondorioztatzen du, bi prozesuok gertaera beraren parte direlako. Emakume horiei (berez) zegokien langile klaseko emakumetasuna ez zitzaien gustagarria: gizarte mailan nortasun gutxietsia eta estereotipatua da, eta beraz emakume langile horiek ez dute beren burua ispilu horretan islatuta ikusten, ez dira bertan errekonozitzen. Ezin dute “ni hori naiz” esan, ez eta are gutxiago “nik hori izan nahi dut”. Hori dela eta, denbora gehiago eskaintzen diote des-identifikazioari identifikazioari baino eta, egunerokoan identitate horien errepresentazioak eskuragarri izan arren, ez da identifikazio prozesurik sortzen. Errepresentazio horiek, desiragarriak izate aldera, kapital sinbolikoa metatu behar dute:

It is often assumed that the link between the individual and the social is through identification. This link, the study suggests, is precarious and lived in many different ways. The women spend more time either not recognizing the identifications which it is assumed that they make (e.g. class, femininity or heterosexuality) or disidentifying. Recognition had to occur for identifications to be made and the women either did not recognize themselves or did not want to recognize themselves as the categories of identification that were available to them. Recognition, refusal to recognize, partial recognitions, disidentification, dissimulation and identification are part of the same process and may occur simultaneously or not at all (Skeggs 1997:164).

Ikerketan zehar burura etorri zaizkidan galderetako batzuk horren ingurukoak izan dira: zer errepresentazio ditugu eskura gay, lesbiana edo trans* izatearen inguruan? Errepresentazio horiek gehienetan estereotipatuak eta negatiboak izan dira gure gizarteetan, baina une historiko honetan posible da kapital sinbolikoaren metatze gunea ere izatea. Baina zer errepresentazioz ari gara¹⁰⁴? LGTB* errepresentazio guztiez ala batzuez? Azken hamarkadetan LGTB* politikek lortu dituzten aldaketa gehienak esparru juridiko eta administratiboan gauzatu den normalizazioaren esparrutik etorri dira¹⁰⁵. Hasteko, homosexualitatearen aurkako legeak bertan behera uztea; homosexualitatea eta transexualitatea (azken hau beranduago eta era partzialagoan) gaixotasun mentalen katalogotik ateratzea; ezkontza eta beste lotura zibilak egiteko eskubidea; adopzio eskubidea eta abar. Lorpen horiek guztiak ez dira aldi berean leku denetan onartu.

Gay, lesbiana eta trans*entzako normaltasuna heterosexualaren eredutik abiatuz eraiki da: familia, harreman egonkorra eta monogamoia izatea, sistema ekonomikoan leku egokia betetzea. Beste era batera esanda, normaltasun heterosexualaren neurriko *homonormatibotasuna* eraiki da, eta eredu horrek, halaber, normaltasunean egokitze gaitasuna dutenen eta ez dutenen arteko langa handitu du. Esaterako, beraien bizitza afektibo-sexuala era monogamo eta egonkorrean antolatu nahi dutenek errazagoa dute onarpenaren bidea. Gizon izendatuen ikuspegitik, harreman homosexualak izan arren genero espresio maskulinizatuak dituzten horiek jendartearen errespetatuak izateko aukera gehiago dituzte¹⁰⁶.

104 LGTB* errepresentazioen inguruan ikus (Platero 2008; Mira 2008; Suárez Briones 2014; Missé 2018). Errepresentazioaz ari naizenean sexualitate eta genero ez normatiboek iruditegi sozialean duten formaz ari naiz. Errepresentazio horrek lotura estua du errealitate sozialaren aspektu ezberdinekin, besteak beste, ekonomia, politika edo aktibismoarekin eta, hortaz, ezin da telebista, komunikabide eta pop kulturak egiten duten irudikapenetara mugatu.

105 Normalizazioaren inguruan LGTB* mugimendu batzuek kritika zorrotzak landu dituzte azken urteotan eta mugimenduen izaera eraldatzailea berreskuratzen deitu dute. Ikerketaren bigarren zatian honen inguruan jardungo dut era zabalagoan.

Gizonezkoen kasuan eredu hegemonikoak feminitatea eta maskulinitate parodikoa zigortzen dituen moduan, emakumezkoen kasuan larregizko maskulinitatea zigortzen da, emakumezkoen botere esparru horretarako sarbidea mugatzeko forma bezala (Halberstam 1998) eta baita puta estigmari lotzen zaion larregizko feminitatea ere (Ziga 2009:75-96). Miquel Missé aktibistak aipatu duen moduan, trans* komunitatearen baitan elementu garrantzitsua passinga da: transexualei ondo disimulatuak izatea eskatzen zaie, alegia, inork ez dezala beraien bizitzako unerren batean trantsizioa egin dutela igarri (Missé 2013; 2018). Baina LGTB* subjektuen *normalizazio* aukerak mugatzen dituztenak ez dira egokitzapen hauek soilik. Normaltasun berria elkarri loturik dauden egiturazko elementuek determinatu dute: klase sozialak, jatorriak, generoak, arrazak, kapazitateak... Egitura horien arteko intersekzioek subjektu onargarriak sortu dituzte eta prozesu horretan beste subjektu batzuk hortik kanpo utziko ere. Klase erditik gorako subjektu maskulinoa eta bertakoa izan da bereziki onartua, eta beste subjektuek ez dute halako pribilegiarik izan. Horrekin ez dut esan nahi sexualitate eta genero kontuak konponduta daudenik pertsona horientzat, baina onarpenerako atea irekitzea, ezinbestean, egungo gizarteetan baliagarriak diren balio batzuen errepresentazioarekin lotuta dago, hala nola egungo sistema ekonomikoarentzat funtzionalak diren portaera eta bizimoduekin. Hortik kanpokoa “bestetasun”¹⁰⁷ kategoria zabal eta nahasian kokatzen da.

Sozialki onargarriak diren LGTB* identitateak estuki lotzen dira gizarteek positibotzat hartzen dituzten baloreekin: itxura ona, familiartasuna, dirua, ospea eta abar. Balore horiek betetzen dituzten subjektuek ez dute soilik onarpena lortzen, errepresentazio gaitasuna eskuratzen dute halaber edo, beste era batera esanda, sozialki onargarriak diren LGTB* errepresentazioak dira ikusgaitasunaren langa gaindituko dutenak herri-kultura eta iruditegian: telebista, filma edo aldizkarietan ikusten ditugun LGTB* subjektuak gehienetan sozialki ondo kokaturiko subjektu erakargarriak dira. Baina ikusgaitasuna baldintzatzen

106 Kuriosoa bada ere, maskulinitateak gehiegizkoak ere izan daitezke, eta zentzu horretan askotan ez-funtzionalak egungo ordenuan. Javier Saezek, esaterako, *hartzen* eta *leatherren* gay azpi-kulturak aztertzen ditu, haragitzen duten maskulinitate eredu lar ikusgarria eta parodikoa dela eta, beraz, ez dutela beti maskulinitatearen lurralde normalean enkajatzeko ondorioztatuz (Romero Bachiller, García Dauder, eta Bargeiras Martínez 2005). Esan dezakegu gure gizarteetan hegemonikoa bilakatu den maskulinitatearen ideia ez dela batera femeninoa, baina ezta ere maskulinitatearekiko parodikoa. Maskulinitate hegemonikoa, gizon estereotipo zehatza baino aldakorra den kontzeptu irristakor eta ikusezina dela defendatu nuen “Masculinidades y feminismo” (Azpiazu Carballo 2017) liburuan. Bertan azaltzen dudun moduan, ikuspegi akademiko zein politikotik ezinbestekoa da kontzeptu horren ulerkera dinamikoa analisi sinplistikak ekiditeko.

107 Zuzena den edo ez jakin gabe *bestetasun* hitza erabili dut hemen, ingelesezko *otherness* edo gaztelerako *otredad* hitzen parekide gisa. Hainbat eta hainbat dira teoria kritikoetatik *bestearen* eraikuntza aztertu dutenak, esaterako feminismitik edo anticolonialismitik. LGTB* gaiarekin lotuta esango nuke azken hamarkadatarako teorizazio interesgarri bezain beharrezkoak direla homonazionalismoa aztertzen dutenak. Jatorria eta erlijioa erdigunean jartzen dute teorizazio hauek, eta *beste* zibilizatu gabeko, homofobo eta matxistaren eraikuntzak nola funtzionatzen duen azaltzen dute. Azken urteotan *beste* hori musulman bezala eraiki dugu mendebaldeko gizartetan. Gai honen inguruan ezinbestekoa da Jasbir Puarren lana (Puar 2017).

duen balore horiek hegemonikoak izan arren ez dira unibertsalak, eta barnerapen maila ezberdina dute komunitate batetik bestera. Espazio aktibista askok bestelako balio-sortaren arabera antolatu dituzte beraien komunitateak, eta bertan aspektu horiek (dirua, ospea, itxura ona) ez dira bereziki baloratuak. Horrek ez du esan nahi komunitate horiek gizartean nagusi diren balioetatik kanpo funtzionatzeko gaitasuna dutenik, baina balore horien indarra ahulagoa da, haietako asko zalantzan jarri eta beste era batean barneratzen direlako. Kasurako, ezkerreko mugimenduek, oro har, gehiago baloratzen dituzte lanerako gaitasuna eta sakrifizioa ospea baino. Baina ezagunak diren gay figura gehienek ez dute lan gogorraren irudi hori gorpuzten, oro har homosexual prestigiduna diseinatzaile, artista, musikari, kazetari, zinemagile gisako profesio “liberalekin” lotuta egon delako. Bestelako erreferenteen faltan, zaila da norbere komunitatean gaizki ikusiak dauden ereduak bat egitea.

Kulturaren esparrua adibidetzat hartuz, 2017an Leire Lopez Ziluagarekin batera Gasteizko Orbain Elkartearen emandako “Trans*, maricas y bolleras buscándonos en los arrabales de la escena punk” hitzaldia ekarri nahiko nuke. Bertan musika eszena zehatz batean (punk eta hardcore musikan) identifikazioak nola jokatzeko duen aztertu genuen, besteak beste. Egizu Zuk Zeuk etikan¹⁰⁸ eta musikaren komertzializazioaren kritikan oinarritzen den mugimendu horretan ikusgarriak diren ereduak batik bat maskulinoak eta heterosexuak izan dira eta, hortaz, eszena horretan parte hartzen dugun LGTB* pertsonok zein emakume gehienek beste eszena batzuetako erreferenteak bilatu behar izan ditugu. Erreferente horiek, usu generoaren eta sexualitatearen begirada jostariagoa zuten pop musikariak¹⁰⁹, ez dira ondo onartuak izan gure ingurunean, komertzialak eta apolitikoak direlako. Hala ere, maskulinitatearen erdigunetik kanpo geunden emakume, lesbiana, marika eta trans*entzako, erreferente horiek – sekretuki ere, kasu askotan – gure buruak islatuta ikusteko moduak izan dira. Are gehiago, hipotesi hutsa den arren, hitzaldia eman genuenean identifikazio anizkoitz horrek LGTB* pertsonen eta emakumez osaturiko punk eta hardcore taldeek izandako garapen eta gerturatze estetiko partikularrean eragina eduki ahal izan dutela esan nuen (Lopez Ziluaga eta Azpiazu Carballo 2017).

108 Honela esaten zaio DIY (Do It Yourself) planteamenduetatik abiatzen den musika eta kultura ulertzeko forma etikoari. Musika sortu eta plazaratzeko diskoetxe eta managerrekin lan egin ordez norberak berea egin eta besteak laguntzea da helburua. Ikuspegi horretatik, musika taldeek haien disko propioak grabatu eta kaleratzen dituzte, edo zigilu eta aldizkari txikiak sortzen dituzte, mozkin ekonomikoak sortzeko asmorik ez dutenak eta mundu mailako lurrazpiko sare autogestionatuak sortu eta mantendu dituztenak, musika taldeei leku autogestionatu eta taberna txikietan kontzertu birak egiteko aukera eman dietenak.

109 Hitzaldian Pet Shop Boys, Chumbawamba edo musika elektronikoa aipatu genituen.

Lurrazpiko musikaren eszena horretan gertatzen den moduan, herri mugimenduen esparruan ere LGBT* erreferente propioak ez dira hain ugariak eta ez daude ikusgarri. Hori dela eta, aktibista ugari mugimenduen unibertsotik kanpo bilatu dituzte haien ispiluak edo, Skeggsen ikerketan (1997) parte hartu zuten emakume haiek bezala, denbora gehiago pasatu dute des-identifikatzen identifikatzen baino. Gorpuzten dituzten baloreak mugimenduenak ez diren heinean, LGBT* erreferente ikusgarriek – komertzialek, despolitizatuek – ezkerreko komunitateotan sortzen duten efektua desidentifikazioarena da. Baina aktibisten distantzia ez da soilik LGBT* subjektu ikusgarri eta famatuekikoa. Horretaz gain, ekintzaileek LGBT* mugimenduen eta beraien mugimendu mistoen arteko distantzia ere bizi izan dute:

Ba hor nik uste dut eboluzionatu duela, eh, nire pentsakera aldatu dela, eta lehen osea lar urrun ikusten nituen osea muy frívolo mugimendu hori edo, EHGAM, GazteHgam eta Kaskagorri aurrean jartzen zen beti holako furgoneta bat... Eh, kondoiak eta saltzen baina bi ziren... Hegoak edo. Eta beti izan da... “horiek” baina egia da nik uste dut gaudelako diziplina baten sartuta igual oso Ezker Abertzale edo ezker abertzale zabal bateko diziplina baten sartuta, orduan zelan “horiek” igual ez ofizialki, baina ez ziren kontsideratuak borroka orokor horren parte bat guk ere sentitu ditugula aparte (...) ez genuelako ezagutzen egia esan nik uste dut. Edo sekula ez dugulako ezagutu horren gertutik, eta guretzako ziren “los del Balcón de la Lola¹¹⁰ organiaus”. En vez de locas a las 5 de la mañana borrachas, ba bilera baten, edo bueno, nik dinot, hablo en plural baina... O nik horrela imaginatzen nuen, mugimendu guzti hori. Karo, gero konturatzen zara ezetz, en plan de, osea ez, da beste mugimendu bat, izango ditu bere ereduak edo dana dalakoa baina fundamentua daukate berdin berdin, pertsona normalak dira berdin berdin eta zu bezala Balcón de la Lolan daude goizeko 5etan mozkor. [Markel].

Markelen testigantza mugimenduen artean zegoen distantziaz ari zaigu, hala nola aktibista bakoitzak diferentzia sare horretan kokatzeko egin beharreko hautu kontziente ala inkontzientea, alegia, norekin identifikatu. Identifikazioaren inguruan Althusserrek (1977) egindako planteamenduek gai hau hobeto ulertzen lagun diezagukete. 1969. urtean Estatuaren Aparatu Ideologikoak aztertzen ari zenean, subjektibotasunaren teoriaren inguruan ekarpen interesgarriak egin zituen filosofoak, gerora ikuspegi queer eta feministatik ere garatu izan direnak. Marxismoan ezinbestekoa den ideologiaren nozioa zalantzan jarri zuen edo, behintzat, bere esanahia hedatzeko deia egin zuen, Marxek ideologiaren inguruan egindako analisia, paradoxikoki, ez-materialista zela argudiatuz. Bere ustetan, ideologia ezin

110 Bilboko gay giroko taberna da “El Balcón de la Lola”.

da ideien esparru “idealean” kokatu eta bere materialtasunean ulertu behar da. Horrela, kapitalismoaren pean, ideologia prozesu materialen bidez *ekoiztu* egiten dela argudiatu zuen. Prozesu horiek Estatuaren Aparatu Ideologikoei (hezkuntza, erlijioa, kultura, familia, komunikabideak eta abar) garatzen dituzte, horretarako praktika materialak eta erritualak definituz. Horietan parte hartuz norbanakoak subjektu bilakatzen ditu ideologiak:

Las ideas en tanto tales han desaparecido (en tanto dotadas de una existencia ideal, espiritual), precisamente en la medida en que es evidente que su existencia estaba inscrita en los actos de las prácticas reglamentadas por los rituales definidos, en última instancia, por un Aparato Ideológico. Ocorre, pues, que el sujeto actúa en tanto que es activado por el sistema siguiente (enunciado en su orden de determinación real): la ideología existente en un Aparato Ideológico material, y que prescribe prácticas materiales reglamentadas por un ritual material; dichas prácticas existen en los actos materiales de un sujeto que actúa con plena consciencia, según su creencia (Althusser 1977:110).

Psikoanaliaren ekarpenak kontuan hartuz, ideologia subjektuen esparru idealetik materialera lekualdatzen du Althusserrek. Subjektuak jada ez dira ideologia duten kontzientzia independenteak, baizik eta hain zuzen ere ideologiari esker subjektu bilakatzen diren banakoak. Prozesu horri *interpelazioa* deritzo eta dei baten bidez gertatzen da: ideologiak dei egiten digu eta bere deiari erantzuten diogunean dei horren hartzaileak gu garela baieztatzen dugu. Testuan erabiltzen duen adibidea poliziak kalean “e, zu!” esanez egiten duen deia da. Norbanako gehienek, legearen aurrean ezkutatzeko zerbait izan ala ez, buelta emango dute eta bira hori egitean Legearen (ideologiaren) subjektu bilakatuko dira, aintzatespenaren bidez. Althusserren teoriak ikerketa honetan aplikatu ditzakegun ondorio interesgarri batzuk ditu. Alde batetik, identifikazioa interpelazio eta elkarrekintzaren eremuan kokatzen du, prozesu bezala azalduz. Bestetik, prozesua den heinean, behin eta betirako gertatzen den zerbait baino etengabe berrikusten den gertakaritzat aurkezten du.

Butlerrek (2016) Althusserren planteamenduak tentuz aztertzen ditu, interpelazioaren inguruko eszena hori (poliziak dei egitearena) teoria filosofikoarentzat baliagarria den figurazio ideal bezala interpretatuz, eta ez interakzio egoera gisa. Egoera horrek, bere ustez, Legea (ideologia, hizkuntza) baino lehenagoko subjektu bat identifikatzeko ezintasuna adierazten du. Baina noiz eta nola gertatzen da identifikazio hori? Zergatik ematen dugu buelta “maritxu”, “marichico” edo “maricón” esaten digutenean? Zergatik ematen dugu *guk* buelta eta ez beste batek? Butlerrek dio hitz horiek esaten dituenaren ahotsa, legearen ahotsa, ezagutzen dugulako ematen dugula buelta.

Ahmedek interpelazioaren are irakurketa emankorragoa egiten du. Althusserren ekarpen nagusia ontzat hartuz, hau da, subjektu izatea erregulazio eta debekuak ezartzen dituen aparatu ideologiko sortarekin harreman zuzenean dagoela, bi bariazio proposatzen ditu. Batetik, eta hemen Butlerrek interpelazioaren inguruan egiten duen irakurketa figuratibotik aldentzen da, interpelazioa beti ere esparru inter-pertsonalean kokatzen dela azpimarratzen du, interakzioan. Bestetik, Althusserrek interpelazioak ez duela *apenas inoiz* huts egiten baldin badio (Althusser 1977:115), Ahmedek huts egite hori uste duguna baino gehiagotan gertatzen dela dio eta, are gehiago, estrukturaliki kontuan hartzeko modukoa dela:

(..) the subject as such is never the subject as such, because its point of excess to the very name or signifier of 'the subject' locates it precisely as marked or named by colliding regimes of address which attach (asymmetrical) value and meaning to specific subject positions (Ahmed 1998:114).

Bere teoria sostengatzeko, Ahmedek interakzio egoera partikular batera jotzen du, gaztetan bere Australiako bizitokian poliziarekin bizitakora. Egoera bera hemen azalduko ez dudan arren, esan dezagun haren nondik norakoak aztertzeak klaseak, generoak eta identifikazio kultural aborigenak jokaturako papera ulertzera daramala egilea eta, bereziki, bere identifikazio prozesuaren izaera kontingentea seinalatzera, *“boterearen eta identifikazioaren arteko harremana konstitutiboa baina, aldi berean, zatikatzailea”* dela azalduz eta *“subjektuaren posizioa etengabe esleitua zein zalantzan jarria”* dela, *“elkarrekin harremanean egon arren espezifikoak diren diferentzia erregimenetan duen posizioaren arabera”* (Op.Cit:117).

Althusserrek, beraz, ideologiatik kanpo egotearen ezintasuna azaltzen digu; gure ikergaian zehazki sexualitatearen eta generoaren arauak finkatzen dituzten aparatu ideologikoen ezartzen dute ezintasun hori. Butlerrek esaten digu subjektua Legearen interpelazioaren arabera eraikitzen den heinean, genero eta sexualitaterik gabeko subjektuez aritzea ezinezkoa dela. Ekarpene horiek garrantzitsuak izanda ere, ikuspegi soziologikotik Ahmeden ikuspegiak bestelako ate bat irekitzen digu: identifikazioak iraunkorrak baina prekarioak izan daitezkeela dio eta, bereziki, eskuragarri dauden diferentzia-erregimen kontingenteen arabera egiten ditugula. Prozesu hori hainbat esparrurekiko interakzioan egiten dugu “kanpotik”¹¹¹ interpelatuak garenean bereziki. Egoera sozial konkretuetan besteek egindako interpelazio horrek gure identifikazio propioa sortu, indartu edo zalantzan jarri dezake:

111 Kakotx artean jarri dut “kanpotik” hitza, hain zuzen ere Butlerren planteamenduan interpelazioak argi uzten duelako bagenuela, lehendik ere, eta era ontologikoan, harremanik interpelatzen gaituen beste horrekin.

Inoiz ez dut nire burua etiketatu, lesbiana naiz, bisexuala naiz, ez diot inoiz jarri horri kategoria bat, inoiz. {Inorekin? Ez dizu inoiz balio izan?} Bai balio izan dit neskekin ibili naizen momentuetan, igual bai, bai, hor bai hartu dut... joe ze horrek gainera, behin gogoratzen dut ba ez dakit Laiarekin nenbilen garaietan, Getariatik paseatzen super gazteak ginen, 16 urte, eta atera zen mozkor bat oihuka, lesbianak ta nosequé, ba bai, ba hor, ez dakit zer erantzun genion, zeozer erantzun genion, baina gero, igual ez diot inoiz jarri lesbiana naiz, ba ez dakit zer naizen, bisexuala naiz? Bale baina... zergatik bi? [Xune].

Mutilekin zein emakumeekin harremanak izan duen emakume honen narratiban identifikazioak zalantzak sortzen ditu. Une zehatz batean kanpoko norbaitek bera eta bere bikotekidea lesbiana bezala identifikatu zituen, izan zitzaketen duda eta ñabardurak kolpe bakarrean desagerraraziz, eta une horretan erantzuna kanpokoak ezarritako posiziotik eman beharrean aurkitu zen: “*lesbianak, eta zer!*”. Kanpotik datorren hori ez da, gainera, edozer: iraina edo eraso izan ohi da. Eraso horrek ez du zertan aurpegi zehatza izan, pertsona jakinek egindakoez gain egitura mailako erasoek ere interpelatuak izatearen sentrazioa eragiten digute eta, une horietan, nortasunak berehalakoan politizatu daitezke:

{ez dut lesbiana hitza erabili} igual ez dudalako beharrik sentitu. Nik uste ere bai... ni erasotua izan edo sentitu naizenean bai atera naizela izen batekin, nik ikusi dudanean adibidez diskriminatzen nindutela emakumeekin oheratzeagatik edo erlazio bat izateagatik orduan bai atera naizela lesbiana naizela esaten, baina... askotan esan dut lesbiana naizela baina inoiz ez dut esan bisexuala naizenik. Kurioa da. Noizbait galdetu didate, “zu bisexuala zara”, ba izango naiz, ez dakit. Behar duzu izen bat? Orduan bai. Baina noski niretzako ez da hori terminologia, ez dudalako sinisten genero bitarrean (...) igual formakuntza politikorik ez daukan pertsona batekin hitz egiten badut esango diot bisexuala naizela, ze igual transexualitateaz hitz egiten badiot burua... pum, kableak gurutzatuko zaizkio. “Desioa sentitu dezakezu pertsona batekin titiak eta zakila duena?” Ba bai, eta orduan jendeak egiten dut pixka bat katakrok, orduan segun eta ze esparrutan ba bisexuala, hori da behar duzuna? Ba hori. Esango dizut hori txiki geratzen dela nire desioa azaltzeko, baina listo. Zuri laguntzen badizu aurrera. Ez da, eta esango dizut ez dela. Baina listo. [Anais]

Anais bezala, parte hartzaileetako asko oso kontziente dira beren identitatearen eta besteek norbera identifikatzeko duten behararen arteko langaz. Espazio intimoan gure identitatearen aldakortasuna onartzera ohituta egon gaitzke, ziur aski gure gorputzen barruan egoteak izate propioarekiko lotura eta jarraikortasun sentrazioa bermatzen digun heinean. Besteak, ordea, ez dira gure gorputzetan bizi eta gure nortasuna ondo finkatuta izatea eskatzen digute. Testigantzan identifikazio hori baldintzatu dezaketen guneak ere

seinalatzen dira: genero eta sexualitatearen inguruko irakurketa parekoak dituzten pertsonekin posibleago dugu xehetasunetan sartu eta identifikazioaren ahuldadea konpartitzea. Aldiz, beste batzuek “*katakrok*” egiten dute begirada konplexu horren aurrean eta, kasu horietan, hobe da denentzat ulergarria den etiketa batera jotzea, gure errealitatearen konplexutasuna adierazteko gaitasunik ez duela jakin arren.

Eta herri mugimenduen kasuan? Ahalbidetzen al dute, generoaren eta sexualitatearen begirada konplexuen bidez, bertan ari diren aktibisten identifikazio nominal ahulago edo irekiagorik? Horren inguruan elkarrizketatuek izandako esperientziak anitzak izan arren, batzuek mugimenduen barruan afirmazio nominal argien beharra sentitu dute, beraien buruak besteen aurrean gay, lesbiana edo trans* izendatu beharra errespetua edo aitortza lortzeko. Gainera, herri mugimenduen esparruetan ere LGTB* identitateen konplexutasuna ulertzen zaila izan daiteke, eta nahasmenak sor daitezke. Testigantza honetan Itoizek bere genero nortasuna, adierazpena eta sexualitatea jendeak nola nahasten zituen kontatzen digu, haien ulertzeko moduen eta bere esperientziaren arteko disonantzia azaleratuz:

Nire egoteko formak jendeari adierazten zion argi eta garbi marikoia nintzela, eta klaro, niretzat eten-puntu bat bazegoen genero espresioaren eta bestearen artean... Hori ere ukatu behar nuen. Ez nintzen ikusten gaur egungo Apolo-ekin. Eta badakit hori dena ere zabaldu behar dugula, baina... eta nola bizi dudan bi horien arteko harremana? Orain ez zait axola. Bai egia da hasierako garai horretan errepresentazioa eta jendeak nola esanahitzen zuen hori zure sexualitate perbertidotik, horrek bai... ez nengoen guztiz enpoderatuta ere. Niretzat ez zen oso konstitutiboa norekin enrollatzen naizen eta momentu horretan gay-homosexual-marika izatea hortik konprenitzen nuen... [Itoiz]

Itoizek badaki marika izatea ez dela soilik sexualitate kontua, baina jendeak bere genero adierazpena sexualitatearekin berdintzea onartzen zaila egiten zaio: zergatik ondorioztatzen dute maskulinitatearen espresio arauak ez betetzeagatik bere desio objektua gizonezkoak direla? Bere esperientzian eten bat dago bien artean eta jendeak aldiz elkarren alboan ulertzen ditu: ezin da luma femeninoa eduki eta aldi berean heterosexuala izan. Epai horren ukazioaz gain bigarren ukazio bat ere sortzen da: bere nortasunaren konplexutasuna hitz bakarrera (marika) murrizten bada, gay munduan nagusi den Apolo maskulinoen irudiarekin bat egin behar al du? Kanpotik datorren identifikazio horren ezaugarritzeak gatazka sortzen du, hain zuzen ere *kanpotik* etortzeak identitatean beti hertsadura presente izango dela gogorarazten duelako, alegia, definizio hori ez dela sekula *gure* terminoetan karakterizatuko. Pasarte horrek zein beste hainbat parte-hartzailek kontatutako gertaera antzerakoek Didier Eribonen frantses pentsalariaren hitzak gogora dakarzkidate:

De ahí que la injuria no haga más que decir y repetir al individuo lo que su historia ya le ha enseñado, lo que ya sabe, y cuando recibe la palabra hiriente, toda su infancia emerge a la superficie, todos los momentos en los que ya supo, vio, oyó, comprendió, que a lo que las palabras injuriosas la reducen hoy era precisamente a lo que no debía ser, lo que está considerado como inferior, como “abjecto” (Eribon 2004:86).

Eribonen hitzak tentuz hartuko nituzke. Halako ikuspegi teleologiko bat suma daiteke bere esanetan eta garrantzitsua da beti halako baieztapen borobilak erlatibizatzea, bereziki norbanakoen bizipenez ari garenean: kasu batzuetan goian esandakoarekin bat egingo dute eta besteetan, ez horrenbeste. Lehenago ikusi ditugun testigantza batzuetan ere (“*se veía que este niño era marica*” [Mikel]) haurtzaroan bizi izandakoaren esperientziak badu bere pisua. Kasu horietan, helduaroan jasotako interpelazio horrek (irainak) legearen ahotsa gogora dakar, betidanik norberari zer izan behar zuen esan zion boz hori, eta gogorarazten diona ez duela lortu. Baina aztertu dezagun ideia hau zehatzago.

Homosexualitateaz pentsatzean genero adierazpenaren aldagaia presente izatea komeni da¹¹². Eribonek gizon homosexualaren haurtzaroa ekarri du gogora, eta berehala dator gogora umezaroan heterosexualitatearen ikaspenak maskulinitatearen transmisioarekin duen lotura. Asier Santamari(c)a kazetari eta aktibistak oso ondo azaldu duen bezala¹¹³ marika hitza sexualitateaz inolako kontzientziarik izan aurretik azaltzen da gure interpelazioen katalogoan. Mehatxua da mutiko guztientzat, baina bereziki genero espresioaren zurruntasuna hausten dutenentzat. Interpelazio hori ez dago sexualitatearekin lotua, ez behintzat sexualitateari helduen munduan ematen zaion esanahiarekin (alegia, sexu-harremanak norekin eta nola ditugun), baizik eta sexu-genero-sexualitate triangelua osatzen duten beste bi bektoreekin: zure sexua arra bada, zure sentitutako generoa gizona izan behar da, eta zure adierazpena maskulinoa. Zazpi urterekin ikastolako patioan (edo etxeko salan) *marika* esaten dizutenean ez da beste mutiko batekin sexu harremanak izaten irudikatzen zaituztelako, adin horretan sexu harremanak zer diren ere ez baitago garbi. Baina, nola edo hala, zure portaera sozialen bidez (nesken laguna izanez, mutilen jolasetan ez jolastuz) edo gorputzaren adierazpenen bitartez (hitz egiteko modu edo gorputz espresio femeninoa erabiliz) maskulinitatearen arauak hautsi dituzu. Eribonen baieztapenak indarra hartzen du kasu honetan, heldutan jasotako marika horrek arautze hori guztia dakarrelako gogora. Homosexualak izanda oso genero espresio maskulinoa zutenengan, alegia, armairutik

112 Une honetan gizon izendatutakoen homosexualitateaz ari naiz. Emakumeen kasuan ere genero aldagaia kontuan izan beharrekoa da, baina ezberdin artikulatzen da, 3.2.5 azpiatalean sakonago azalduko dudana moduan.

113 <https://labureus/VovAT> (2019ko azaroak 2an kontsultatua).

ateratzean benetako sorpresa sortzen duten subjektuengan, haurtzaroko bizipenen memoria era ezberdinean artikulatzen da. Arau soziala berdina da, eta ez da zaila atzera begira legearen hausturaren karga ikustea egun jasotzen den irain horretan, baina legea haustearen kontzientzia edo bizipena ez da berdina txiki-txikitatik hura genero espresioaren bidez hautsi dutenengan eta nagusitan bere sexu-aukerekin apurtu dutenengan.

Orain arte aurkeztu ditudan moduan, identifikazio eta desidentifikazio prozesuek subjektuari larregizko pasibotasuna egozten diotela pentsa daiteke. Subjekzioaren kontzepzio horren zurruntasuna izan da teoria estrukturalistei, esaterako Althusserren interpelazioari edo Foucaulten subjektibotasunaren teoriari, egin zaien kritika¹¹⁴. Butlerrek ere, kritika horren beharra azpimarratuz, agentzia eta pasioa dakartza eztabaidara eta interesgarria da horren inguruan Mladen Dolarrekin duen elkarrizketa (Butler 2017). Dolarrek interpelazioaren teoriak subjektua aukerarik gabe uzten duela uste du, erantzun behar horretan inolako gaitasunik gabe. Esloveniarrak filosofoak kezka horri psikoanalisiarekin erantzuten dio. Bere ustetan, Lacanen “errealaren” nozioak subjektuaren *hondarra*, alegia, subjekzio prozesuan aske geratzen dena, edo identitatearen mugetan kabitzeari erresistentzia jartzen diona, izendatzen lagundu dezake. Gizarteak (legeak) egiten digun interpelazio horrek eraikitzen gaitu subjektu bezala, baina Dolarrek, Lacani jarraituz, uste du badagoela kontrolaezina den zerbait, interpelazioak berak erabat atxiki ezin dezakeena. Ezinbestez, horrek subjektuaren aurreko subjektua nor den galdetzera eramango gintuzke. Alegia, interpelazioak ez bagaitu erabat egiten *aurretik* jada zerbait ginelako da. Zer ginen? Arima bat? Nortasun transferiezina? Althusserrek eta Butlerrek egiten duten irakurketan ere ez da halakorik baieztatzen, hain zuzen ere Butlerrek uste duelako *betidanik* gaudela besteei loturik, ez

114 Estrukturalistei egin zaien kritika dela diodanean beharrezkoa da argitzea Foucault “post-estrukturalista” bezala heldu zaigula, nahiz eta bere hasierako lan guztia, hain zuzen ere identitatearen eta subjektibotasunaren sorkuntzaren inguruko azterketari dedikatu ziona, estrukturalismoaren baitan kokatu daitekeen. Instituzio eta diskurtsoek identitatearen sorreran duten eragina askoren ustetan lar determinista zen bere teorian, subjektua bera desagertu araztera arte. Bere azken obran determinismo horri aurre egin nahi izan zion frantsesak subjektuaren eta norbere-sorkuntzaren gaiei helduz.

garelako posible haiek gabe¹¹⁵. Beste era batera esanda, gizakiaren psikologia bere soziologiatik banatuz soilik da posible halakorik pentsatzea, bere izaera soziala ukatuz, edo sozializazioaren garrantzia giza-garapenaren une berantiarraogan kokatuz. Horrela soilik irudika dezakegu lege sozialen aurretiko subjektu bat, alegia, lege sozialekin *zer egin erabakitzen duen* subjektu soberano bat.

Dolarrek kontrolaezina dena, lege sozialei muzin egin diezaiekeena, maitasunean gorpuzten dela dio. Baina Butlerrek ez du harekin bat egiten. Subjektu bat baldin badago subjekzio prozesua baino lehenago, nola sortu da subjektu hori ez bada subjekzio prozesu baten ondorioz? Eta are gehiago, Dolarren adibideari eutsiz, ez al da posible esatea maitasunaren prozesuak ez direla beste prozesu sozial batzuegandik hain ezberdinak? *“Belaunikatzen edo otoi egiten dugun modu oso antzekoan maitemintzen gara edota pentsatzen dugu bata egiten ari garela bestea egiten dugun bitartean”* (Butler 2017:142-143).¹¹⁶

Butlerrek, baina, pasioaren aferari garrantzia aitortzen dio eta Dolarren planteamendutik erreskatatzen du badela zerbait *pasionala*, bai maitemintzearen errituan eta baita makurtzearen eta otoi egitearen horretan ere. Subjekzio prozesuek ez dute zertan erabat kontrolatuak izan, badelako pasioaren elementua tartean, nahiz eta horrek Butlerrentzat ez duen esan nahi elementu hori subjektuaren aurrekoa denik. Bere lanean, Foucaulten lanean lez, subjektua sortzeak zentzu bikoitza du, eta bikoiztasun hori azaltzeko euskaraz itzulpen literalik ez duen subjektu terminoaren polisemiari erreparatu behar zaio. Alde batetik, subjekzio prozesuak norbanakoa “atxikitzea” dakar, ingelesezko “subject to” aditzaren zentzuan. Gizaki bat subjektu bilakatzean nahi eta nahi ez legeak – arau sozialak – atxikitzen du. Maila horretan subjekzioak identitatea emango digu, baina identitate horren baitara hertsiko gaitu, edo horretan saiatuko da. Baina bestetik, subjekzioak egiten gaitu atxikitze prozesuari berari aurre egiteko gai, egiteko gaitasuna eskaintzen digu, subjektu bilakatzen gaitu, gaztelerazko “sujeto para” esapidearen zentzuan. Prozesu horiek aldiberekoak dira Butlerren ustez:

115 Honi lotuta “Los sentidos del sujeto” bildumaren sarreran Butlerrek hausnartzen du: posible da lengoaiaren eta besteekin kontaktuan eraikitzen den *ni*aren zentzu horren aurretik zerbait egotea, baina edonola ere horren inguruan hausnartzen dugunean jada gure *ni* sozializatutik egiten dugu, hausnartzea besteekin kontaktuan garatzen dugun gaitasuna delako. Hortaz, hizkuntzaren aurreko gure *gu* horren inguruan pentsatzen dugunean, lengoaiaren bidezko espekulazioan ari gara, inork ezin duelako bere izaera soziala “itzali” alde aurretik nolakoa zen gogoratzeko: *“En primer lugar, no estoy segura de que haya ciertos «pensamientos» que intervengan cuando sentimos algo. Y en segundo, quiero subrayar el problema metodológico que subyace a cualquier reivindicación de la supremacía de los sentidos: si digo que ya me veo afectada antes de poder decir «yo», mi palabra llega mucho después del proceso que pretendo describir. De hecho, mi posición retrospectiva siembra dudas sobre si realmente puedo describir esta situación, puesto que hablando en sentido estricto, yo no estaba presente en el proceso, y por lo visto, yo misma soy uno de sus diversos efectos”* (Butler 2016:12).

116 Belaunikatzea aipatzeak, berriz ere, Althusserri egiten dio erreferentzia. Elizaren Estatu Aparatu Ideologikoa adibide gisa hartuz, belaunikatzea interpelaziorako erritualen adibide gisa aurkezten du Althusserrek (1977:108-110).

“Me pregunto si podemos pensar juntas acerca de qué es lo que sucede cuando ponemos el adjetivo «constitutiva» al lado de «ficción regulatoria» (...) la regulación y la constitución son, a menudo, pensadas como tipos de actividad separadas, así que, al ponerlas juntas, eso sugiere que los medios a través de los cuales el género y la sexualidad son regulados son también la condición de posibilidad para su emergencia” (Butler eta Athanasiou 2017:63).

Butlerren ideia horrek borroka sozialetan subjektu kolektiboek duten izaera bikoitza adierazten digu. Askatzeko prozesuan sortzen dituzte nortasunak eta, sortu eta berehala, horietatik askatzea izango da hurrengo eginbeharra, LGTB* aldarrikapenen historian nahiko garbi ikusi dugun moduan¹¹⁷. Amaitzeko, askatasunaren gaiaren inguruan, honako ideia hau dakarkigu: *“Kontzientzia existentziaren estekadura kartsuak hartzen duen formetako bat bada, orduan interpelazioaren huts egitea hain zuzen ere funtzionatzen uzten dion estekadura kartsu horretan kokatzen da”* (Butler 2017:143).

Butlerrentzat, beraz, interpelazioaren hutsegitea kontzientzia gertatzen den leku berean kokatzen da, hain zuzen ere biak ala biak estekadura berdinen parte direlako. Binkulazio horrek subjektuok geure buruarekiko izan dezakegun kritikotasuna ere mugatzen du: ezin dugu subjektu egiten gaituen legea erabat inpugnatu, “airean” geratuko ginatekeelako. Beste era batera esanda, legea erabat inpugnatzen dugunean gure subjektibotasuna beste elementu batzuen inguruan antolatu dugulako da. Dagokigun gaiaren harira, elkarrizketatuen narrazioetan subjektu politikoak eraikitzen dituzten osagaiak ugariak dira. Komunitate politiko bakoitzak baditu taldeari berari zentzua ematen dioten partekatutako elementu batzuk, eta genero edo sexualitateak ez du zertan haietako bat izan, edo ez behintzat erdigunean dagoena. Subjektibotasun politikoaren ikuspegitik, beste elementu horien presentziak (nazio edo klasearenak, adibidez) aukera uzten du sexualitate eta genero biziortasunarekin lotutako kategoriekiko identifikazio ahul, lauso eta aldakorragorako. Kasu batzuetan, gay, lesbiana edo trans* bezala identifikatzeko zailtasunak ez du horrenbesteko loturarik identitate horiekin bat egin nahi ez izatearekin, baizik eta identitate horiek konplexuago egiteko nahiarekin. Politizazioaren inguruko diskurtso garatuak dituzten ingurune aktibistetan, termino horiek politizatu gabekotzat jotzen dira eta horrek identifikazioa zaildu dezake. Hala gertatzen da gay identitatearekin:

117 Ikerketaren laugarren atalean sakonduko dut subjektibotasun politiko kolektiboaren paradoxa horretan.

{Zer esan nahi duzu diozunean marika zarela?} Ez naizela heteroa. Igual txorrada bat da, baina lehen gauza da ez naizela heteroa. Eta heteroa... jendeak ez du ulertzen ze esan nahi dugun esaten dugunean hetero, eta ez gaude hitz egiten praktika konkretu batzuetaz (...) baina hetero, kontzeptu bezala, identitate moduan, es mucho más grande, praktika afektibo-erotiko batetik harago doan zerbait da. Eta orduan niretzat marika izatea da, hetero ez izatea, eta marika izatea da zure identitatea eta sexualitatea ulertzea modu politikoan. Osea, no soy homosexual, soy marica por algo, pixkat ematea konnotazio politiko hori eta nik nola ulertzen dudan nire marika izatea, suposatzen du izatea más mariloca, batzutan lotsagabeago, baina baita ere izatea konprometitua... militantea... Bai, niretzako badu hori. [Mikel]

Elkarrizketatuak “marika” bezala identifikatzen du bere burua gay identitatea eduki politikoz bete eta ezaugarri berriekin janzteko asmoz: “*mariloca*” izatea, genero adierazpena feminizatzea, lotsagabea izatea eta politikoki konprometitua izatea.

{la palabra maricón} siempre me ha gustado. Cuando vi el cartel «maricón pasa a la insumisión» me parecía mucho más... más punk. Ahora no me sale decir «soy gay» con mis amigos. Marica o maricón. Yo sigo utilizando esa. Es verdad que para luego hablar públicamente, si empiezo a hablar o me toca hablar y sale el tema es verdad que igual no digo tan así... Incluso también. En la tele antes decíamos gay y tal, pero no me gusta mucho lo de gay. {y cuando eras chaval?} No creo que diría maricón, fijo, sería homosexual supongo... no me acuerdo... Cómo me definía en ese momento... Qué soy... Soy homosexual... Chico normal. Yo quería ser normal {risas} Quería ser normal, eso sí me acuerdo. Joder, cagüen diez. [Kepa]

Hitz berriak bilatzeak badu garrantzirik. Kepak borroka sozial garrantzitsu batekin (intsumisioarekin) loturik aipatzen da “*maricón*” hitza, gay kolektibo batzuek horren inguruan egindako kanpainaren karietara. Alta, gaztetako esperientzia gogora ekartzen duenean, hitzen falta nabaria da: ez da soilik gaur egun oso urrun sentitzen dituen hitzak erabiltzen zituela (“homosexual”, gaur egun konnotazio oso mediko eta tekniko duena), baizik eta ez zegoela hitz zehatzik horretarako, eta geratzen zitzaiona arauarekiko desio galdua da (“*yo quería ser normal*”), lehen aipatu ditudan Eribonen hitzak berriro gogora ekarriz. Emakume transexual honen aipamenak ere norabide horretan jartzen gaitu:

lo sabía de antes, no tenía nombre, no sabía lo que era la transexualidad, sabía lo que me pasaba pero... pero no sabes... y yo me enteré de lo que era en la época en la que nació mi hermano pequeño. Con una revista. Con la famosa Entreviú que había entonces. Pululaba en el colegio y nos lo enseñaban... y salieron los reportajes de una chica transexual que había muerto en su quinta operación en EEUU y explicaba lo que era... pin pan pun. Y ahí le puse nombre, porque hasta entonces, sí que bueno... [Lía]

Hitzik ez izateak egon badauden erreferenteekin bat egiteko zailtasuna dakar, edo horretarako gogo falta. Zaila egiten zaigu iruditegi sozialean heriotza-arriskuarekin lotzen den zerbaitekin identifikatzea, esaterako. Baina itzuli gaitezten identitateen politizaziora. Emakume lesbiana bezala identifikatzen diren hainbatek politizazio hori oso era kontzientean eta kolektiboan bizi izan dute, eta, Nadjaren kasuan, nahiko goiz:

Nahiko paraleloa da, hasten naiz unian eta militantzian eta hasten naiz neskekin liatzen modu publikoan eta... momentu baten bai mutilekin liatzen nintzen baina ez dut egiten... Ez nuen beharrik hori ezkutatzeko, eta une batean ya bada gehiago hautu politiko bat eta lesbiana bezala izendatzea nire burua, eta... ya hori gerora, emakume taldean hasi ginenean eta lesbiana batzuk ezagutu nituenean... Irakurketa batzuk iritsi ziren nireira... Baina bai, oso modu... ez nintzen heteroa kontsideratzen eta ez nuen esaten «heteroa naiz» (...) Taldean batzuk erabaki genuen «gu bollerrak gara» eta gainera praktika bolleroak ditugu, bai egunerokoan... ez zela bakarrik... «Bollera zara ezdakitzeinekin oheratzen zarelako», ba bueno, igual ez da hori, igual dira beste gauza batzuk. Uko egitea izateari gizonetzkoen konplemento hori eta beste gizatasun bat asmatzea, guretik, kasu honetan bollera deitzen dena, eta harremantzea beste koordinada batzuetatik eta gure autonomia eta interdependentzia onartuz, baina ez como la costilla de Adán. [Nadja]

Nadjaren kasuan, bere sexualitatea definitzen duena ez da soilik desioa, eta identitatea bereganatzea zein subjektu politikoa eraikitzea prozesu kolektiboan ondorioz bizi ditu. Emakume nortasuna partekatzen dute talde horretan biltzen direnek, baina ez alde aurretiko lesbiana identitate sexuala, areago, elkarrizketako beste une batean kolektiboa okupazio mugimenduaren guneetan gertatutako eraso sexista batzuei erantzuteko sortu zutela kontatu dit. Baina behin kolektibo horretan parte hartzen ari zirela, hainbatek lesbiana identitatea beraiena egin eta politizatzeko aukera profitatu zuten. Emakume/lesbianen kasuan gertatzen den nortasun sexualaren bereganatze kolektiboa ez dugu mutilen kasuan ikusi. Haien kasuan “gay” nortasunetik “marika” nortasunerako saltoa da praktika kolektiboan bidez gauzatzen dena; ez sexualitate ez-normatiboaren hautua, baizik eta jada dagoen sexualitate horren politizazioa. Emakumeen esperientzia kolektibo honetan, lesbiana izatea sexu-genero sistemak sortutako gizon/emakume posizio politikoak iraul ditzakeen subjektua habitatzea da, lesbiana edo *bollera* hitzak erabiliz beste gizatasun bat asmatzea. Garrantzitsua da kasu honetan “lesbiana” eta “bollera” hitzak elkarrengandik gertuago daudela “gay” eta “marika” hitzak baino: bigarren kasuan “marika” esateak “ez naiz gay” esatea ere badakar hein handi batean, eta lehen kasuan aldiz lesbiana izatea hautu politikotzat jotzen da, bollera hitzarekiko jarraikortasunean. Sararen hitzak ere norabide horretan doaz:

Nosotras somos lesbianas políticas, entonces en ese añadido de qué significa ser lesbiana política evidentemente la sexualidad viene a primera plano, junto con la teoría feminista, porque bebemos de la teoría feminista y porque acompaña, pero también hay una serie de rupturas, con Mónica Wittig, Audre Lorde, Gayle Rubin... Adrienne Rich... todas estas autoras que también beben del feminismo pero que hacen todo un recorrido de qué significa ser lesbiana, no sólo con quién te acuestas, sino dándole un contenido político. Y en ese contenido político, el feminismo también, yo soy feminista de izquierdas, no soy feminista del PP. Entonces, de qué se nutre, pues yo soy antimilitarista, soy antirracista... todos los antis que nos queramos... Estábamos cercanas a la asamblea pero nosotras éramos parte del movimiento feminista, pero no estábamos dentro de la asamblea de mujeres. Por eso éramos colectivo de lesbianas feministas y no de feministas lesbianas, como por ejemplo las de Madrid. [Sara]

Testigantza honetan nortasun sexual-politikoak beste kolore batzuk ere hartzen ditu: militarismoaren, arrazakeriaren edo kapitalismoaren kontra egitea. Era berean, feminismoarekiko harremana aipatzen du, bi mugimenduen artean zeuden topagune zein ezberdintasunak adieraziz. Azken bi testigantza horiek komunean duten beste osagai bat irakurgaiena da. Irakurketa nortasun dispositibo bat da narrazio hauetan, eta parte-hartzaile hauen kasuan irakurketa horiek mugimendu feministaren espazioetan eta era kolektiboan egin dira. Feminismoarekin lotura izan duten elkarrizketatutako gehienek aipatu dute aspektu hau uneren batean. Maila horretan, feminismoak lesbianak “sortu” dituela esanenez, mugimendu feministaren lan lerroen arteko bi sexualitatearekin zuzenki loturik dauden heinean: alde batetik, mugimendu feministak sexualitatearen bizipenaren inguruan (masturbazioa, emakumeen sexualitate autonomoa, norbere ezagutza, sexualitate anitzen planteamendua eta abar) barrura begira egin duen lana eta, bestetik, gizon eta emakumeen arteko harremanen naturaltasuna zalantzan jartzea, sexualitateak ekonomia, estatua edo indarkeria bezalako egiturazko elementuekin duen lotura esploratu eta salatuz. Gure testuinguruko feminismoarentzat ere, garrantzitsuak izan dira lan-lerro hauek (Epelde, Aranguren, eta Retolaza 2015:485).

Amaitzeko, trans* emakumeen kasuan¹¹⁸ ere, kategoria horren politizazioa konplexua eta askotarikoa da. Alde batetik, eta jadanik aipaturiko passing eta ikusgaitasuna medio, trans* subjektu politikoa eraikitzean identifikazio hori era irekian egiteko apustua egiten da:

118 Ikerketako atal honetarako kontaktatu ditudan elkarrizketatuen artean ez da egon haien burua mutil edo gizon trans* bezala identifikatzen zuenik.

Yo soy transexual. Aunque hay gente que dice «no, tú ya has hecho todo el proceso, tú ya eres solo una mujer». ¿Solo?, casi nada. Igual en su momento cuando empecé, como no tenía esa visión política que he tenido después, el término transexual era también un término agresivo, porque estaba marcado desde fuera y transexual no dejaba de estar metido, y también lo digo siempre, en el lado degenerado de la vida. (...) Hasta que yo conozco a STP2012¹¹⁹ no tengo esa visión política, entonces yo no me reapropio del término transexual (...) aunque en la calle sigue estando como insulto y como las transexuales sois esto, sois lo otro, no sé qué... bueno yo ya sé que no. [Lía]

Líak trans* mugimenduan dagoen eztabaida ireki bati egiten dio erreferentzia: noiz uzten dio norberak trans* izateari? Edo noiz hasten da trans* izaten? Ikuspegi oso ezberdinak dauden arren, eta haien artean ñabardura ugari izanik ere, trans* batzuk terminoa erabiltzen jarraitzearen aldekoak dira, transexualitatea ezkututzen saiatzeak oinarriko bezala jotzen duten borrokari (binarismoaren eta sexismoaren aurkako borrokari) kalte egiten diolako (Galofre eta Missé 2015; Stryker 2017; Missé 2018). Transexual terminoarekiko identifikazioa zaila da hasiera batean, kanpotik definitua eta kriminalizatua dagoelako; gerora termino hori subjektu politiko gisa berreskuratzen da, irainari beste leku batetik eutsi eta ekintza kolektiboaren bidez berrezugarrituz. Aipatu moduan, eztabaida hori irekia dago, eta trans* mugimendu eta komunitateen barruan batzuk garaipena hain zuzen ere trans* bezala ez identifikatuak izatean kokatzen dute. Bi mutur horien artean beste hainbat ikuspegi ere posible dira.

Ez dakit, trans edo... Agian da gehiago besteen behar bati erantzuten dion kontu bat... Ez dakit nola identifikatzen naizen. Baina egia da trans erabiltzea da, bizi garen denborei erantzuten die. Nik uste hitz hori ere bai, bere eboluzio naturala jarraitzen badu, desagertuko dela (...) nik ez dut izan nahi «la trans». Gainera horrekin zerikusia ez daukaten gaietan badaukat nire pentsamendua. Hori baino gehiago naiz. (...) ez zait gustatzen interbentzio soziala ez den beste esparru batetik irudi hori proiektatzea, eta ni ez naiz horrekin identifikatua sentitzen... (...) nik aktibismo transa egin dut. Baina aktibismoa egitea gauza bat da eta beste gauza bat da ni trans baina sustantibo bezala. Trans adjetibo bat da, ez da sustantiboa. Ni ez naiz hori. Hori da, ile luzea bezala. Ile luzea izatea edo espero ez dituzun genitalak izateak ez dauka konnotazio berdina edo

119 STP plataforma (Stop Trans Pathologization) trans identitateen despatologizazioaren alde sortu zen 2009. urtean. Hasiera batean espainiar estatuko taldeek bultzatua, berehala nazioarteko izaera hartu zuen. Informazio gehiagorako ikus <https://labur.eus/hQ8l8> (2019ko azaroak 2an kontsultatua).

karga politiko berdina, baina karga politikoa ere bai da nik erabakitzen dudana zerbait egitea. Horrela definitu naizen, «activista trans»? Ba bai, horrela definitu naiz (...) Aktibista bezala bai, baina niretzako aktibista izatea eta trans izatea ez da berdina. Aktibistak esan nahi du planteamendu bat daukazula, era gutxi-gora-behera antolatu batean egiten duzula lan boluntario hori, eta ez dela asistentzialista bakarrik gainera, nire ustez. [Arane]

Aranek ez du arazorik trans* bezala identifikatzeko, baina argi du izendatze horrek besteen beharrei erantzuten diela eta desagertu egin beharko duela. Interesgarria da izenaren eta adjektiboaren artean egiten duen banaketa, hein handi batean Líaren hitzekin alderatuz gero ezberdina dena. Norbere identitatea aspektu bakarrera murriztuta ikustearen arazoari erantzun nahi dio: hainbat gairen inguruko aktibismoa egiten du eta ezerosotasuna sortzen dio bere nortasunaren zein aktibismoaren aspektu askotarikoak trans* etiketara murriztuta ikusteak. Hori dela-eta, alde biko harremana du terminoarekin.

Esan dudana moduan, identifikazioa eta des-identifikazioa elkarri lotuta doaz, eta subjektibitate politikoak sortzeko orduan ere identifikazioa ez da estrategia bakarra. Orain arte aipatu ditudan subjektibatze politikoko estrategiak identifikazioarekin lotu dira (marika, bollera-lesbiana, emakume edo emakume transexual gisa identifikatzea). Ezinbestean, identifikazio horiek des-identifikazio estrategiekin lotuta daude. Esaterako, lesbianismoaren kasuan politizatzea ez da soilik lesbiana lez identifikatzea, baizik eta gizonen osagarri gisa ez identifikatuz eta bestelako genero adierazpenak aldarrikatuz emakumeen nortasun sozialaren aspektu batzuk ukatzea edo zalantzan jartzea:

(...) hay bolleras super-super-super... con mucha pluma, que no han querido, que se reivindican como bolleras con mucha pluma (...) con una conciencia de... porque claro, lo que hemos hecho es dinamitar en qué consiste ser mujer, ves a algunas que dices ¿pero esto es una mujer? Pues sí, esto es una mujer bollera. Vamos a redefinir también en qué consiste ser mujer, ¿no? [Pili]

Berriz ere generoaren eta sexualitatearen arteko bidegurutzetan daude Piliren hitzak. Lesbiana izateak eta genero espresioak bat egiten dutenean irekitzen den galdera da honakoa: emakume izatea zer den zalantzan jartzen ari da, baina nola? Emakume izateko era berriak asmatuz ala emakume izaera bera zalantzan jarriz? Identifikazio eta desidentifikazio praktika horietan emakumetasuna zalantzan jartzen den moduan, marika batzuen narrazioan gauza bera egiten da gizontasunarekin:

Izan nuen trantsizio fase bat nun gizon eta maskulinitatearekin nituen retizentzia asko eta zen esfortzu konstante bat... Batez ere besteekiko, ni ez identifikatzeko horretan. Ya ez zen horrenbeste ni ez nintzelako sentitzen horrela baizik eta besteek ez ikusteko ni horren parte, ez? Eta adibidez estetika asko erabili nuen horretarako, ez identifikatu ni gizon hauek bezela, mesedez. Eta estetika izan zen parte inportante bat, niri estetika gustatzen zait asko eta asko erabiltzen dut. Egia da orain lasaiago nagoela horrekiko. Baina bai, estetika izan zen hein handi batean nire arma bat besteek edo inguruko jendeak ez identifikatzeko ni gizonekin. Bai. Baina hipokrita izan gabe, ni beti sozializatu izan naiz kontestu gehienetan gizon bezala, horrek ematen dituen pribilegioekin, ez naiz hipokrita izango. (...) eta lortzen nuen ez identifikatzea, eta gainera prozesu horrek eman zidan lehen esan dizudana, jende batek ematea niri zilegitasun bat eta jende batekiko izatea botere bat, eta berriz diot, batzuetan botere hori izan da positiboa eta beste batzuetan ez. [Mikel]

Mikelen kontakizunean, genero maskulinoarekiko desidentifikatzea estrategia kontziente baten bidez egiten da, genero adierazpena – estetika – erabiliz. Estrategia horren bidez, barne mailan bizi zuen desidentifikazioa kanpora ere igarotzen da, eta besteek ere ez dute jada ehuneko ehunean maskulinitatearekin identifikatzen. Horrek hainbat zailtasun eta min ekarri arren, ez ditu gizontasunaren pribilegioak erabat desagerrarazi. Analisi konparatiboa eginez, generoaren deseraikitze ariketa horiek inplikazio ezberdinak dituzte gizon eta emakumeentzat oraindik ere¹²⁰.

Ikerketan parte hartu duten herri mugimenduetako kide hauek sexualitatearen eta genero biziaren inguruan eraikitzen diren identifikazioarekin harreman anizkoitza dutela esan genezake. Alde batetik, identifikazio horiekiko erresistentziak ikusi ahal izan ditugu, norbanakoaren definizioan hainbesteko zentralitatea duten sexualitate kategorien azpian ez jartzeko desioak bultzatuta. Egungo gizarteetan norbanakoaren posizioak sortzen duen egoera paradoxikoa ikusi ahal izan dugu, eta orobat gure buruak biktimaren marka daramaten kategorietan kokatzerakoan sortzen diren zailtasunak. Bestetik, identifikazio prozesuak desidentifikazioekin lotzen direla planteatu dut. Nortasun kategoria horiek komunitate zein azpi-komunitate bakoitzean ezaugarritzeko moduek etiketa horiekiko dugun distantzia determinatzeko gaitasuna dutela aipatu dut, erreferente batzuk gertuago edo urrunago sentiaraziz. Horretaz gain, identitate horiek kanpotik ezartzen zaizkigunean edo

120 Generoaren deseraikitze prozesuaren ingurukoak “Gizon taldeak eta maskulinitatearen inguruko diskurtsoak” lanean tratatu nituen (Azpiazu Carballo 2015a), deseraikitzearen teoriak beste feminismo batzuen planteamenduen alboan jarriz. Bereziiki lagungarriak izan ziren De Lauretis (2000) eta Braidottiren lanak (2000; 2004).

erreapropiazioaren bidez geure egiten ditugunean subjektibotasun politikoaren oinarri bilakatu daitezkeela planteatu dut eta, aldi berean, LGTB siglen azpian gordetzen diren partikulartasunak azaldu ditut, bereziki generoaren araberakoak. Hurrengo atalean, identitatearen eta subjektibotasunaren ur uherrak nahastu ondoren, babesguneen inguruan arituko naiz.

3.2.2 BABESGUNE ETA UNEEN UR UHERRAK

The air is so cold here
It's so hard to breathe
We better take cover
Will you cover me?

Way up here with the Northern lights
Beyond you and me
I dreamt of us in another life
One we've never reached

You know we're sinking. We could fade away
I'm not going down, not today
The air is so cold here, too cold to see
We have to take cover, cover me

Way up here with the Northern lights, beyond these broken bars
I pictured us in another life where we're all super stars

Depeche Mode, "Cover me" (Mute Records, 2017).

Beso zabalik hartu gintuzten... beti?

Ikerketa hau martxan jarri zen lehen unetik babesguneen ideia buruan bueltaka izan dut. Aktibismoaren eta sexualitatearen ideia babesguneekin lotzean burura zetozkidan galderak formulatzean ziur aski esperientzia pertsonal bezain gazi-gozotik abiatzen nintzen: LGTB* pertsonok aktibismoaren espazioetara babesgune bila joan ote gara? Aurkitu al dugu? Ze preziotan? Zintzoa izan behar badut, hasiera batean “babesgune” hitza baino “segurtasun gune” zetorkidan burura, ziur aski feminismoan eta LGTB* politiketan hainbestetan aipatu den segurtasun espazioen ideiatik tiraka. Non sentitu izan naiz seguru? Segurtasunak nire bizitzan pisu handia izan du, ideia, irudi eta, ziur aski, galdutako objektu gisara ere: langile klaseko familian hazia eta hezia izanik, gurasoek etxean zuten presentzia eskasak eta homofobiaren bizipenak nire azpiko lurra dardarka jarri zuen, zerbait “ondo ez zihoala” sentitu nuenean. Hurrengo orrietan, babesguneekin dugun harremana esploratuz, segurtasun beharraren argi eta ilunak azaleratzen saiatuko naiz eta, horretarako, esperientzia pertsonaletik abiatuko naiz:

Ez da deskubrimentu bat, norberak ez du deskubritzen bere sexualitatea hau den edo hau ez den, norberak deskubritzen duena da onartu gabe dauden konportamentu edo jokaera edo gogo batzuk dauzkala. Ez duzu 10 urterekin edo 11 urterekin pentsatzen «ni izango ote naiz hau edo bestea?». Pentsatzen duzuna da: «nik dauzkadan gogoetako batzuk ez daude onartuak» eta zentzu horretan gay eta lesbiana identitateak izatean dira guretzako helduleku bat, azkenean heltzen diogulako identitate kolektibo bati, ematen dizuna aukera pentsatzeko ez zarela zu bakarrik arau batetik kanpo bizi dena, edo ez zarela zu bakarrik beldurra pasatzen duena egoera batzuen aurrean...¹²¹

121 Tesirako nire buruari egindako elkarrizketak memoriaren hainbat ate ireki zituela dirudi eta, nire “memoriaren mapa” osatzeko egindako ariketen artean, maila pribatu zein publikoan egindako hainbat interbentzio berrikusteko aukera izan dut, hain zuzen ere memoria-pieza txikietan “idatziak” geratu direlako. Hala da “Arrakala” dokumentalaren kasuan (Topatu eta Bilgune Feminista 2014) zeinari, aspaldiko partez, beste ikustaldi bat eman diodan. Aipu hau dokumental horretarako eman nuen testigantzaren zati bat da.

Pasarte horretan azaltzen ditudan beldurren aurrean, lagungarri izan zitzaidan identitate politizatua neure egitea eta herri mugimenduen segurtasun espazioetara gerturatzea. Leku bat eskaini zidan, ingurune bat, eta nire garapenerako ezinbestekoa izan zen. Are gehiago, nire aukeratutako familia izan zen eta horregatik izan ditut hainbat mugimendu eta kolektiborekin erromantzeak, dibortzioak, ika-mikak eta desengainuak ere, maitale, lagun eta familiarekin izaten diren moduan. Kapitulu honen sarreran herri mugimenduetara gerturatzeko ditugun bideak eta motibazioak askotarikoak direla aipatu dut. Motibazio horien artean babesa bilatzea ere egon daiteke, gure bizipena etengabe zalantzan jartzen ez duten espazioen beharra:

(...) en todos los grupos en los que puedo decir que he estado como activista ha sido así; quizá porque siempre he buscado, sobre todo después de haber empezado en el tema del tránsito de género, sitios de protección. Entonces, allá donde yo veía que no había una relación... que luego yo he podido ser la más bruta en ese grupo e, pero que no se cuidaban las relaciones humanas, para qué quería participar: para mí no eran un grupo de protección, un grupo de seguridad [Lía].

Lehenago ere ikusi ditugu Líarentzat talde batean parte hartzeak dituen bi dimentsioak: aspektu ideologikoak eta barne-zaintzari emandako atentzioa. Aktibistontzat, segurtasun esparru izan dira herri mugimenduak, hain zuzen ere sexualitatearen edo genero gaien inguruko begirada irekiagoa izan dutelako, beste gune batzuekin alderatuz gero bederen. Josebaren esperientziak ideia horrekin bat egiten du, nahiz eta bere anbibalentzia azpimarratu:

{En los ambientes militantes} ser gay lejos de estar mal visto estaba bien visto. Era como «que guai» (aaaa) y todo el mundo quería ser tu amigo... Y salir contigo (...) sí que ha habido momentos en los que ha sido muy desagradable, pero en general ha sido muy bien recibido. [Joseba]

Une ezerosoak izan badirela onartu arren, oro har ezkerreko guneak homosexualitatearen gaiarekiko beste batzuk baino irekiagoak izan direla dio ekintzaile honek. Gay elementuan kultura herrikoian¹²² txertatu den heinean, herri mugimenduetara ere homosexualitatearen *pop* ikuspegia heldu da. Beste hainbat unetan azaldu dute parte-hartzaileek honen inguruko kezka edo herra: norberaren sexualitatea edo genero biziortasuna besteen irekitasun eta tolerantziaren garaikurra bilakatzeak onarpena dakar baina erabilia izatearen sentsazioa ere, eta irekitasun eta zuzenkeria politikoak egoera aldatzen ez duenaren ustea.

Mugimenduen irekitasun hori beraien finkatze mailak baldintzatzen du, alegia, mugimendu edo taldeak bere bizkarrean duen ibilbideak. Urteek aurrera egin ahala, sendotzen eta egonkortzen diren mugimenduek beren espazioetan ohitura eta kodeak ezartzeko gaitasun handiagoa dute, kultura politiko komunak eraikiz. Kasu horietan zenbait gairen inguruan finkatzen diren adostasun eta begiradak oso ezberdinak dira mugimendu hasiberri edo emergenteetan topatuko ditugunekin alderatuz, afera baten edo besteren inguruan iritzi eta jarrerak adosteak denbora eskatzen duelako. Josebaren testigantzan, esaterako, *“sí que ha habido momentos desagradables”* [Joseba] adierazpena hasiberria zen mugimendu baten testuinguruan ulertu behar da. Mugimendu ugaritan eskarmentu zabala du ekintzaile honek eta, oro har, bere sexualitatearekiko esperientzia positiboak izan ditu. Aitzitik, sortu berria zen mugimendu batean murgildu zen buru-belarri duela urte gutxi batzuk. Bere ibilbidearen lehen pausuetan 15M mugimenduaren loratzearekin oso lotua zegoen mugimendu horrek jende kopuru handia bildu zuen, horietako asko eta asko aldeztu aurretik eskarmentu aktibistarik ez zuten pertsonak. Kasu horietan politika ia-ia zerotik eraikitzen ari da, lehenagotik mugimenduetan zeudenek beraien ohiko espazioak utzi eta espazio berriak esploratzen dituzte eta parte-hartzaileen soslaiari eta iritzi politikoei dagokienez, aniztasuna da nagusi. *Gertaerak* politizazio berriei bidea irekitzen dieten uneak dira¹²³, eta betiko aktibistek hizkuntza berrietara moldatzeko ahaleginak egin behar izaten dituzte. Baina, bereziki, une horietan mugimenduak ez dira jada ezagutzen genituen espazio egonkorrak non arau sozialak, kodeak, hizkerak eta botere posizioak finkatuta edo sasi-finkatuta zeuden.

122 Kultura herrikoia hemen gazteleraizko “cultura popular” esamoldearen zentzuan darabilt.

123 Jose Enrique Ema Lopezen hitzetan, gertaera (“acontecimiento”) politikoaren ideiak honakoa adierazten digu: *“(…) un acontecimiento político interrumpe los posibles de un orden dado, es, en este sentido, imposible; es productivo (no es la expresión o el resultado de unas condiciones dadas, sino que las crea); no encuentra ningún fundamento último como causa de su acontecer (ni un actor, ni unas condiciones estructurales, ni cualquier otro), es indecible; y por último, no se produce en la nada, está materialmente situado”* (Ema López 2007:62).

Emergentsia une horiek ezinbestekoak dira herri mugimenduentzat, beren jardunari bultzada eman eta aktibismoak eraldatzen dituztelako (Santos 2006). Paradigma aldaketak izan daitezke, ezinbesteko desplazamenduak mugimenduak egonkorregi eta auresangarri bilakatu eta beraien eragin gaitasuna galtzen duten uneetan; finean, haize berriak dakartzaten aldaketak dira. Aldaketa horrek eragin positiboak izan ditzake herri mugimenduen alderdi batzuetan, baina kudeatzen zailak ere izan daitezke. Gogora ekarri nahi nuke herri mugimenduek bi dimentsio hartzen dituztela haien baitan: alde batetik kanpaina eta zeregin askotarikoen bidez eraldaketa soziala bultzatzen dute, baina bestalde esperimentazio guneak ere badira, aktibistek asmatu nahi duten mundua martxan jartzeko espazioak (Joxemi Zumalabe Fundazioa 2011)¹²⁴.

Herri mugimenduen bi dimentsio horiek txanpon beraren bi aldeak dira eta oso gutxitan izaten dugu aukera biak batera ikusteko. Mugimenduen irekiera uneak gogorak izan daitezke mugimendu horiek babesgunez dituzten aktibistentzat, hain zuzen ere esperimentazio horrek sortutako espazio egonkor edo sasi-egonkorak dardarka jartzen direlako. Ikasteko unea da, baina askotan dardara horrek eragin negatiboak ere izan ditzake. Azken testigantza honen kasuan, esaterako, aldaketa handia dago aktibista honen ordura arteko ibilbidetik jende eta sektore berriekin elkartzean bizi duen esperientziara. Homofobiaren itzulera sentitzen du, segurua zitzaion mugimenduen mundua ez da jada babesgune eta, une oso ezerosoak bizitzeaz gain, atzean utziak zituen egoeretara itzultzearen sentazioa kudeatu behar du:

124 Konfrontazioaren eta esperimentazio guneen arteko tentsioak zenbait kolektibok izandako eztabaiden argitan hauteman ditzakegu. Okupazio mugimenduak, esaterako, eztabaida etengabeak izan ditu bi aspektu horien arteko oreka bilatzeko asmoz. Alde batetik, okupazioa bizi-estilo alternatibo eta ezberdinen esperimentazio gunea da, eraikin eta lursailak espekulazioaren logiketatik ebasten dituena. Esperimentazio horrek, gehienetan, kapitalismoak hobesten dituen komunitate formulazioak zalantzan jartzen ditu: familia, soldatapeko lana, eta indibidualismoa. Horretarako bestelako konfigurazioak probatzen ditu: amatasun eta aitatasun eredu kolektiboak, ekonomia partekatuak, sexu-harremanen eta harreman afektiboen kudeaketa ezberdina, berdinen arteko elkartasun esperientziak eta abar. Nahi baino maizago, ordea, eredu hori bere baitan hertsu daiteke, aktibista askori kezkak eraginez, hain zuzen ere okupazioak irlak sortu ditzakeelako baina itsasoak bere horretan utzi. 2005 eta 2008 artean Bartzelonako okupazio asanbladan parte hartu nuenean eztabaida handiak izan genituen bi ikuspegi horien artean, eta klabe garrantzitsuetako bat jada ezagunak genituen guneetatik beste gune batzuetara nola ireki izan zen. Nola lortu okupazioa praktika ireki eta askotarikoa izatea eta ez sakon ideologizatutako talde edo sektore gutxi batzuen soilik? Lagungarri izan zitzaigun une historiko zein komunitate ezberdinentzat okupazioa zer izan zen aztertzea: Bartzelonan okupazioa praktikatzan zuten asko eta askok ez zuten sinbolik erabiltzen, ez eta era hain argian planteamendu ideologiko batekin bat egiten halaberrez (Gertaera hauek nire garaiko oharretatik abiatuz berreraiki ditu, garai horretan asanbladak ez zituelako aktak publiko egiten). Eztabaida berberaren oihartzunak aurki ditzakegu euskalgintzan, ekonomia sozial eta eraldatzailearen esparruan edo feminismoan ere, besteak beste.

(...) tú aterrizas allí y te pones a hablar en femenino y alguien te grita en una asamblea «no queremos mariconadas, estamos hablando de cosas serias»... no tienes ningún apoyo, tienes que enfrentarte tú sólo o callarte. Tu vida sexual se utiliza en algunos momentos como elemento de cuestionamiento político «ya está la maricona esta diciéndonos lo que tenemos que hacer», como si por ser maricón tus ideas fueran de segunda, más superficiales o menos valiosas. Tenemos una organización muy masculinizada en la base. Masculinizada y machista. [Joseba]

Josebak bezala, beste elkarrizketatuek ere antolaketarekin lotutako hainbat elementu azaleratu dituzte. Antolaketa ereduak kolektibo zein talde ugarirentzat buruhauste-iturri izan dira, baina talde gehienek parte-hartze eta antolakuntza horizontalaren aldeko jarrerak izan arren, oso mugimendu gutxi dira egitura erabat horizontalak dituztenak. Espazio politikoak antolatzeko moduak, maiz, taldeen helburuen arabekoak izan ohi dira eta, oro har, hegemonia xede duten mugimenduek (Day 2016) ez dituzte egitura horizontalak hobesten, helburu horiek eskatzen duten eskalari erantzun diezaioketen koadroen egitura – leninista – baizik. Euskal Herrian historikoki ikusgaitasun handiena lortu duten mugimendu gehienek kasua horixe da. Antimilitarismoan, mugimendu anarkista edo libertarioan, okupazio mugimenduetan, feminismoan eta abarretan bestelako egituren presentzia aurkitu dezakegun arren, hegemonia helburu duten mugimenduek arduradun, koordinatzaile eta area espezifikoa dituzten egiturak sortu eta mantendu dituzte eta horrek ondorio espezifikoa ditu dagokigun gaiarekiko. Esaterako, hainbat elkarrizketatuek mugimendu edo talde baten baitan koordinazioan edo agintaritzan daudenen ikuspegiak eta oinarrian daudenen arteko jauzia aipatu dute. Bi gune hauek kuantitatiboki oso ezberdinak dira: oinarriak jendetsuagoak eta koordinazio gune eta agintaritzak murriztagoak izan ohi dira. Homofobia edo sexismoaren inguruan hartzen dituzten posturak eta partaidetzari dagokionez duten konposaketa ere oso ezberdina izan ohi da gune batean edo bestean. Sindikalgintzan ari den emakume lesbiana honek ere ideia hori azpimarratzen du:

Nire segurtasun espazioa, eta hori da tristeena, nire ustez izan da ahaldundua egotea, politikoki ahaldundua egotea, izen bat edukitzea, lidergo bat edukitzea... Orduan hori da ni kezkatzen nauena, ze zenbat jendeak dauka aukera horrela ahalduntzeko? (...) adibidez, niretzat ezezaguna den oro edo ni ezezaguna naizen espazioak, ba ez dakit, oportetara joaten garenean... ba kalea ez da segurtasun espazioa (...) Orduan nik balorazioa egiten dudanean esaten dut: nik arazoak eduki ditut {lesbiana izateagatik}... ba ez. Baina batetik, ez zen gauza jakina eta bestetik nik sindikatuan arduragarrantzitsuak izan ditut. Orduan botere harreman bat dago. {esaten denean} «sindikatu honetan ez dago arazorik LGTBI pertsonen edo homosexualen aurrean». Bueno, ez dakigu zer dagoen. Ni ziur nago badagoela. Ez da berdina idazkari nagusia izan edo izan oinarriko bat edo izan egiturako herri bateko arduraduna... [Alaitz]

Esandako moduan, zuzendaritza espazioak kuantitatiboki txikiagoak dira eta, beraz, sexismoaren edo homofobiaren inguruko iritzi bateratuak adostu eta transmititzeko aukera gehiago dituzte; kasu honetan egitura horretan parte hartzeak sexualitate ez-normatiboaren onarpenean izan dezakeen eragina azaleratzen digu Alaitzek. Ekintzaile honek posible izan du bere militantzia esparruan kontuan hartzeko moduko botere maila atxikitzea eta, gainera, egitura egonkor baten baitan dagoen heinen, botere hori sindikatuan dauden guztiek ezagutu eta aitortzen dute.

Egoera honen inguruko interpretazioan sakontzeko, marko kontzeptuarean landu dudana *homonazionalismo* kontzeptuaren desplazamendu bat proposatu nahiko nuke. Laburki berreskuratu dut homonazionalismoaren kontzeptualizazioa: historikoki, erreproduktiboak ez diren sexualitateak nazioaren ideiatik kanpo geratu dira, baina, azken hamarkadetan, normalizazio eta homologazio prozesuen bidez nazioaren proiektuari batu zaizkio. Gainera, hiritartasunarekin eta legearekin lotzen diren LGTB* eskubideak (ezkontza, adopzioa eta abar) nazioen garapenaren neurritzat jo dira eta baita beste nazio batzuk atzerakoi bezala irudikatzeko erabili ere, helburu nazionalista eta inperialistekin (Puar 2013; 2017). Ideia hori naziotasunetik ezkerren esparrura desplazatuz gero beste irakurketa bat ere proposa dezakegu: historikoki, Euskal Herrian, ezkerreko mugimenduek LGTB* subjektuak eraldaketarako subjektuaren ideiatik kanpo utzi dituzte, hala proiektu abertzalean zein eraldaketa ekonomiko eta sozialaren aldeko proiektuetan. Lehen kasuari dagokionez, jada azaldu dut proiektu nazionalen baitan nola artikulatzen diren subjektu horiek, zer partikularitasun dagoen nazionalismo periferiko eta hegemonikoen artean eta nola aldatu diren kondizio horiek¹²⁵. Proiektu sozialen kasuan, LGTB* nortasunek ez zuten talde sozialista, ezkertiar zein libertarioek proposatzen duten sakrifizioaren eta seriotasunaren kultura politikoarekin bat egiten eta LGTB* politikak, beste hainbat borrokarekin batera, bigarren mailakotzat jo izan dira.

Erresistentziak erresistentzia, LGTB* mugimenduek sortutako presioen eta mugimendu mistoetan zeuden LGTB* pertsonen presentzia gero eta ikusgarriagoaren ondorioz, LGTB* nortasunak progresiboki ezkerren proiektura batzen joan dira. Baina ezkerrek ere, homosexualitatea bere termino propioetan berreskuratu du, ez balio propioz, baizik eta bere printzipio eta kultura politikoetara errazen moldatzen ziren subjektuak bere eginez. Kasu honetan ere normalizazioaren eta homologazioaren ideiak badu pisurik, beren praktika eta diskurtsoen arabera subjektu batzuk besteak baino errazago integratu direlako mugimenduetan. Adibidez, ezkerreko kultura politikoan, bereziki hegemoniara bideratutako ibilbide luzeko mugimenduetan, ikuspegi familiarista oso presente egon da eta sozialismotik

125 Ikus marko kontzeptuarean homonazionalismoaz idatzitakoa.

oinordetzan jaso dira etorkizunaren eta utopiaren ideien oinarriak¹²⁶. Ezkerraren esparru ideologikoetan eredu horiek ondoen ordezkatzeko dituzten subjektu homosexualak integratu dira, errespetatuak izatearen ordainetan ezkerraren termino klasikoak bere egitearen aurrebaldintzarekin: inor baino borrokalariago, langile klasea bera baino langileago eta gizon-gizon direla demostratu behar izan dute hainbat aktibistek. Horrek leku oso partikularra eman die mugimenduetan:

Militantzia prozesu honetan kostatu zitzaidan beste batzuei baino gehiago jende batek niri zilegitasuna aitortzea, ba gazte bat, jantzen dena, jartzen dituen gauza arraroak, zapiak buruan, no se qué movidas, makilatzen da... guai egotea hemen pero será... a saber qué es este. Eta bai uste dut kostatu zitzaidala jende batek aitortzea gehiago mugimenduan nintzela Ezker Abertzaleko militante bat besteak bezala. Baina, onartu behar dut ere, gero ya garai hori edo prozesu hori gertatu zenean bai eman zidala militante bezala botere bat. Kostatu zitzaidan gehiago jende batek ematea zilegitasun bat, momentuan nintzen kontziente, baina gerora ya pixkat demostratu nuenean, gaizki esanda, militantea nintzela besteak bezala ba ez dakit erreferentziagatik edo nire estetika zelako deigarriagoa, ibili naizen espazioengatik bai uste dut botere bat izan dudala eta botere bat dudala. Onerako eta txarrerako. De cero a cien. [Mikel]

Integrazioaren esperientzia beti ere alde biko dela azaltzen duen testigantza hau Ezker Abertzaleaz ari zaigun arren, beste ezker batzuetara ere hedatzerik badagoela esango nuke. Gainera, subjektu zehatzen integrazioaz gain, sexu eta genero aniztasunaren inguruko politikak integratu diren moduz ere hitz egin beharko genuke. Izan ere, LGTB* politikek erronka espezifikokoak planteatzen dizkiete ezkerreko mugimendu eta begiradei, arau sexualak kuestionatuz, gizarte-egituretan familiak duen zentraltasuna zalantzan jarriz, sexualitateak ekonomiaren antolakuntzan duen papera salatuz edo ezkerrean ere presente dagoen moralismoa kritikatzuz. Mugimendu feministarekiko paralelismoa ikus genezake hemen ere: nahi baino maizago feminismoak ezkerri planteatutako erronkak subjektu batzuen integrazioarekin edo ordezkapen kuotekin konpondu nahi izan ditu ezkerak, feminismoak ezkerren proiektuari berari egiten dizkion emendakin eta ekarpenei ezikusia eginez.

Ildo horretatik, ezkerak homosexualitatea eta – azken urteotan, transexualitatea – diskurtsiboki barneratzeak ez dakar halabeharrez mugimenduen giroa, antolatzeke moduak eta helburuak aldatzea. Hala uste du Kepak ere, onarpenaren diskurtsoaren eta ikusgaitasunaren artean disonantzia handia aurkitu duela dioenean:

126 Lan honen laugarren atalean LGTB* politikek egiten duten etorkizunaren eta utopiaren erabilera diskurtsiboa aztertuko dut, besteak beste Edelman (2014), Halberstam (2011) eta Esteban Muñozen (2009) ideiek lagunduta.


Yo, mis referencias eran la radio libre y el Gaztetxe. Casi... lo marica estaba bien, pero de lo marica yo renegaba muchísimo en el 94 porque todo lo que se empezó es como que no había forma de unir el mundo alternativo de las radios libres y tal con... decíamos “¿ahí no hay maricas?” Y había por otro lado pues el folklorismo de... las actuaciones del playback con la Lola Flores, la música disco... Y eso sí que durante mucho años fue... aghhh, qué pasa que no hay rockandrolleros maricas? Qué pasa que no hay gaztetxeros maricas? ¿Que en la izquierda abertzale no hay maricones? Ese tema sí que me chinaba muchísimo, en el Gaztetxe, en el Rockandroll... [Kepa]

Mugimenduetan diskurtso mailan dagoen onarpenak ez du bere espazioetan dagoen ikusgaitasunarekin bat egiten. Kontrara, giroko taberna eta guneeetan ikusgaitasun handia eta diskurtso gutxiago dago. Elkarrizketatu askoren esperientzia da ezkerra eta bere mundu alternatiboak alde batetik eta gay munduak bestetik bizi izana. Haietako batzuk bi espazio horietan sozializatu dira, eta beste batzuek uko egin diote *ambientearen* espazioari, haien gogo eta interesekin bat egiten ez zuelako, baina usu zaila suertatu da bi aspektu horiek – sexualitate ez-normatiboa eta militantzia – bateratzen dituzten espazioak aurkitzea. Mugimenduen ohiko guneeetan gay eta lesbiana asko daudela jakin badakigu baina ez ditugu horren erraz topatzen, edo ez dira ikusgarriak. Ofizialki inork sexualitate edo genero *bizinortasun* ez normatiboekin arazorik izan ez arren, alegia, transfobia edo homofobia agerikorik egon ez arren, erreferentzia eta ikusgaitasun falta horrek lekuz kanpo sentitzea eragin dezake. Esaten denaren eta gertatzen denaren arteko arrakala horren ondorioz, diskurtso mailan gaia gehien lantzen duten kolektiboak ez dira halaberrez gusturen sentiarazten gaituztenak:

(...) ez dugu landu ere gai hau espezifikoki en plan «borrokatuko dugu hau» edo «bidaliko dugu zirkular bat ekainaren 28an egiteko ezdakitzer»... pues ez, ekainak 28 oporrak direlako eta ez dagolako eskolarik, bainan bai niretzako izan da espazio seguruago bat (...) Hori da, bai, osea nahi dut esan, askatasun gehiago edo nire desioak asetzeko segurtasun gehiago izan dut Ikasle Abertzaleetako batzordearen afari baten dagoen giro horrengatik, koadrilako afari baten baino, adibidez. Eta normalagoa iruditu ahal zait edo logikoa, nire koadrila guztia heterosexual normatiboak baldin badira nahiz eta feministak izan eta nahi duzun guztia, ez? Aukerak murrizten dizkizulako, ez dauka beste... Zoazen tabernetara, zoazen guneeetara... [Markel]

Grafiko honetan (ikus 8. ilustrazioa) erosotasunaren eta gaiaren inguruan taldeak egiten duen lanketaren ardatzen arteko mapa ikus dezakegu. Elkarrizketatuek, une batean edo bestean, posizioen mapan dauden talde eta mugimenduetan parte hartu dute. Y abzisan parte-hartzaileek beren sexualitate eta genero bizinortasunari dagokionez talde horietan izan duten

8. ILUSTRAZIOA: KOKAPENEN MAPA II



erosotasun maila agertzen da. X abzisan, aldiz, mugimendu edo talde horrek sexualitate eta genero gaiak lantzen dituen ala ez¹²⁷. Bertan agertzen diren itemek oso izaera eta dimentsio ezberdina dute: batzuk talde edo kolektibo oso zehatzari egiten diote erreferentzia (adibiderako, Gehitu edo Ikasle Abertzaleak) eta beste batzuek, aldiz, talde ugari barnebiltzen

127 Taldeek egiten duten lanketa neurtzeko ez dut kolektibo horien adierazpen, programa edo agenda politikoen inguruko analisirik egin. Parte-hartzaileek erantzundako galderen arabera ordenatu dira, zehazki “parte hartu duzun mugimenduetan genero edo sexualitatearen inguruan lanketa berezirik egiten al zenuten?” galderaren arabera. Parte-hartzaileen ustez, kasu gehienetan mugimenduetan egiten den lanketa minimoa da, gehienetan egun zehatzei begira (ekainak 28, maiatzak 17 eta abar), eta gutxi izan dira lanketa garatuagoa egin dutenak, agenda propioa sortuz edo barne mailako programak eta formazioak martxan jarritz.

dituzten mugimenduei (feminismoa, kulturgintza, Ezker Abertzalea). Maila horretan tentuz interpretatu behar da irudian dagoena, item batzuk aniztasun handia biltzen dutelako haien baitan. Halaber, mapa ondo ulertzeko, ezinbestekoa da kontuan hartzea elkarrizketatuen testigantzetatik abiatuz sortu dela eta, ondorioz, talde berdina bi aldiz azal daitekeela. Esaterako, Gehitu LGTB taldearen kasuan, argi dago gai hori lantzen duela baina parte-hartzaile batentzat erabat eroso sentiarazi zuen kolektiboa izan arren, beste baten kasuan ezeroso xamarra suertatu zen. Mugimendu feministaren kasuan ere, parte-hartzaile batzuk eroso sentiarazi dituen mugimendua da, baina desadostasuna dago mugimenduak gaia – nahikoa – lantzen duenetz ebaztean eta, hain zuzen ere, lanketa hori eskasa izateak partaide batzuen ezerosotasuna ekarri du.

Ikus daitekeen moduan, Y abzisaren goiko aldea da gehien elikatu den ardatza, pentsatzekoa zenez: aktibistek borondatezko militantzietan badihardute hein handi batean mugimenduotan gustura egon direla espero dezakegu. Aitzitik, adierazgarriagoa da gustura egote hori maila antzerakotan banatzen dela gaiaren inguruan lanketa egiten duten eta egiten ez duten taldeen artean, espero zitekeelako gaia gehien lantzen duten mugimenduak direla LGTB* pertsonak erosen sentiarazten dituztenak. Baina ez da beti horrela eta, kontraesankorra izan daitekeen arren, kasu batzuetan gaiaz ez hitz egitea da kolektibo batzuetan bilatzen duguna, bizitza sozialeko beste esparru batzuetan anonimotasuna bilatzen dugun hein berean:

Ya baina nola nik ere ez nion garrantzirik ematen... jo, bestela bazen beste gai bat mahai gainean jartzeko, ze esan dizut hitzaldiak ere antolatzen genituen eta beste, baina bueno, igual nire ardura zegoen beste gauza batzuetan, baina igual zen hori baina horretaz ez hitz egiteko topatzen nuen beste zeozer, vete a saber, gure burua batzuetan... nola ez dudan nahi nire gauzez hitz egin ala pues una plataforma en contra de lo de la antena. Urte bat horrekin a saco, eta gero beste gauza bat. Igual bai, baina eske inoiz ez naiz jarri pentsatzen. [Marta]

Martaren kasuan, erosotasun hori bere espazio aktibistetan gaiaz ez aritzearekin batera dator, preseski berak ere horri atentzio berezirik eskaini nahi ez diolako. Baina norberak bere buruarekin zein besteekin gaiaz hitz egin nahi ez izatea ez da elementu bakarra. Gerta daiteke, halaber, kolektiboak gaiaren inguruko lanketa espezifikoa egitea, esate baterako genero eta sexualitatearen inguruko formazio eta eztabaida-saioak eginez, eta hala ere kolektiboan lan egiteko moduak eta giroak ez izatea gustagarriak sexualitatearen edo genero-bizipenaren ikuspegitik. Arestian planteatu dudan bezala, kolektiboek barne-bizitza antolatu eta beraien giroa sortzeko duten moduak bere agendak beste baldintzatu dezake gure parte-hartzea eta horren inguruan egiten dugun irakurketa.

Ikus dezagun behean eskuinean dagoen koadrantea. Espero izatekoa litzateke koadrante hau hutsik aurkitzea, baina izen bakarra agertzen zaigu: mugimendu feminista. Lehenago esan dudan bezala, bi alditan azaltzen da elementu hau. Askatasun espazio bezala, mugimenduan egiten den lanketa ezinbestekoa izan da batzuentzat, feminismoa norbere sexualitatea zalantzan jarri eta “irekitzeko” dispositibotzat hartzen dutelarik. Beste batzuentzat, aitzitik, mugimenduak ez dio nahi beste atentzio eskaini sexualitatearen eta, batik bat, lesbianismoaren gaiari. Desadostasun historiko hori, lesbianismo feminista eta feminismo lesbianoaren artekoa, bizi-bizi agertu zaigu grafiko honen interpretazioan. Sara eztabaidaz oso kontzientea da eta era irekian hitz egiten du horri buruz:

Gracias a que estábamos nosotras la palabra lesbiana y nuestras reivindicaciones aparecían, porque si no estamos no aparecen, en ningún lado... Nosotras podemos ser antimilitaristas, hemos ido a todas las manis que ha habido en aquellos años de objeción de conciencia y antimilitaristas (...) pero luego el feedback no ha habido, no ha habido pero por parte de nadie, ni siquiera de nuestras amigas las feministas, que si no estamos nosotras, no sé por qué siempre hay una nebulosa no... [Sara]

Gai hau, berriz ere, identifikazioarekin lotzen da, finean, eraiki nahi den subjektu politiko eraldatzaileak abiapuntu moduan izan beharreko identitateaz: lesbiana da subjektua ala emakumea da eta horren barruan kokatzen da lesbianismoa? Historikoki, eztabaida luzea eta emankorra izan da eta ez dugu orain argituko. Edonola ere, ikerketako aholkulari taldearekin egindako kontraste saioretako batean [AT02] kide batek egindako zehaztapena egokia iruditzen zait: historikoki asko kritikatu zaio mugimendu feministari lesbianismoari eta sexualitateari behar bezalako atentziorik eman ez izana; are gehiago, gizon gay askok ere kritikatu izan dute. Beste mugimendu batzuekin ez da horrela izan eta horrek espektatibekin du lotura: mugimendu feministaz espero da halako lanketa egitea eta beste batzuez, ez. Mugimendu feministako kide ugari larregizko kritika bezala ikusten dute hau, edo behintzat minduta sentitzen dira beste mugimenduen aurrean deus esaten ez denean, argudiatuz mugimendu feministak lesbianismoaren eta sexu-askapenaren inguruan egindakoa nahikoa ez bada ere beste mugimenduek egin dutena baino askoz gehiago dela. Horren inguruan bizi izandako esperientziak oso anitzak dira:

Se suele entender que el feminismo ha sido como un poco hostil, o muy hostil, o no ha incorporado bien las reivindicaciones bolleras, y... qué más dicen, estando nutrido por militantes y activistas feministas lesbianas en realidad el lesbianismo siempre ha estado infravalorado, bueno... Pero yo, ya lo siento, yo ya sé que con algunas amigas que cuentan esa narrativa super enfatizada, yo les digo «habla en tu nombre, mi historia es todo lo contrario». A mí el feminismo me salvó no sé si de la locura, que supongo. Me quitó toda la capa de sufrimiento que llevaba

porque ya te digo yo era una lesbiana «genética», indudable, con un punto trans de pequeña, que eso es algo que hemos hablado muchas, que no acabas de saber. Yo creo que hoy en día, con el... con la hipertrofia de la transexualidad que hay yo hubiera sido trans ahora (...) pero vamos yo con 14 años me hago feminista y me siento super valorada en mi opción sexual, en un entorno feminista muy joven pero vinculado también a las feministas más mayores, en el que ser lesbiana no sólo no es que está bien, sino que está fenomenal, muy valorado. Eso me permite salir del armario con una alegría en un entorno confortable (...) el feminismo para mí fue la vida, la alegría, no me parece justo el relato que hacen muchas lesbianas de que el feminismo... Me parece que no es justo, que no es completo, que también debería recoger la experiencia de otras (...) muchas lesbianas se ponen fuera del feminismo y dicen «el feminismo no ha hecho...» yo es que no me puedo poner fuera del feminismo, el reproche me lo haría a mí misma. [Pili]

Mugimendu feminista da, beraz, mugako bi esperientziak bildu eta iritzi kontrajarriak sortzen dituen, ikerketan parte hartu duten batzuentzat sexualitatearentzako babesgune ezinbestekoa izan arren beste batzuentzat nahikoa izan ez den heinean. Uler bedi hemen egindako interpretazioa ez dela kuantitatiboki ulertu behar: ikerketako parte-hartzaileen artean bi posturak presente egoteak ez du esan nahi mugimendu feministan bi postura horiek indar berarekin azaltzen direnik. Ikuspegi kualitatibotik, ordea, bi postura horiek – eta bitarteko beste hainbat – presente egotea mugimenduak eztabaidari eman dion lekuaren adierazgarritzat hartu behar dira. Aldi berean babesguneen gaia subjektu politikoekin nola lotzen den azaltzen digu: mugimenduek segurtasun espazioak eskaintzeak ez du esan nahi lesbianismoaren erronka politikoa denen gustura lantzen denik.

Segurtasuna ala babesa?

Oraintsu ikusi dugun Piliren testigantzan “*eso me permite salir del armario con una alegría en un entorno confortable*” irakurri ostean, argi dago babes espazioez hitz egitea segurtasun espazioez hitz egitea baino egokiagoa dela. Atal honetarako elkarrizketak egiten hasi orduko konturatu nintzen ez niela parte-hartzaileei segurtasunaz galdetu nahi. Galdera egiterako orduan zalantzak sortzen zitzaizkidan: “*zeintzuk izan dira zuretzat espazio... seguru... edo espazio libreak, askatasun espazioak*”. Baina *segurtasunetik askatasunera* dagoen aldea

ñabardura baino gehiago da, ez baita berdina seguru edo libre sentitzea. Segurtasuna, usu, eraso edo arbuio zuzenik ez jasotzearekin lotzen dugu: seguru gaude ezer txarrik gertatu ez bazaigu. Askatasunak, aldiz, bestelako osagaiak ere biltzen ditu: zerbait egiteko, esateko edo sentitzeko aske sentitu gaitezke. Seguru egon gaitezke ezer egin gabe, baina aske sentitzeak egitea dakar, ideia aktiboa da.

Segurtasunari dagokionez, lehen ere esana dut herri mugimenduak beste espazio batzuk baino seguruagoak izan direla, nahiz eta askotan erasorik larrienak soilik izan ikusgarriak eta, ondorioz, problematizatuak¹²⁸. Erasoen larritasunaren afera honetaz gain, espazio seguruez aritzean segurtasunaren definizio juridikoa gure egiteak duen eraginaz ere pentsatu beharra dago. Kapitulu honen hasieran aipatu bezala, segurtasuna guztion beharra da, eta mugimenduek espazio seguruak sortzeko lan egitea ezinbestekoa da, baina mugimenduen lana orainaldia zalantzan jarriz etorkizun irekiak pentsatzea ere bada (Esteban Muñoz 2009) eta, maila horretan, ezin dira segurtasunera mugatu. Mugimenduek ezinbestekoa dute dimentsio utopiko horri eutsi eta posible den horretaz gaindiko planteamenduak egitea (Garcés 2002). Adibidez, instituzionalizazioaren eztabaidaren harira¹²⁹ herri mugimenduen eginbehar utopikoa ezinbestekotzat jo izan da. Hau dena kontuan hartuz, zentzua du askatasunaz, eta ez soilik segurtasunaz, itaundu eta pentsatzeak. Baina askatasunak, kontzeptu bezala, berreskurapen indibidualista eta liberal erraza du eta hori dela-eta babesgunez hitz egitea hobetsi dut. Zer behar da herri mugimenduetan askatasunaren

128 Arestian aipatu dudana #USVreact proiektuan mugimendu feministaren eztabaidak gure eginez, erasoek ezaugarri ezberdinak dituztela ontzat jo genuen. 2017 eta 2018 urteen artean Joxemi Zumalabe Fundazioaren protokoloa (Joxemi Zumalabe Fundazioa 2018) lantzen ari ginela eztabaida luzea izan genuen honen inguruan ere: nola irudikatu eraso ezaugarritze ezberdin hori batzuei edo besteei garrantzia kendu gabe? Figurazio ohikoena piramidearena da: piramidearen puntan eraso larrienak daude, baina azpiko oinarria ezinbestekoa dute. Beste posible bat iceberg-arena: puntako eraso larri horiek dira ikusten ditugunak eta azpikoak ezkutuan daude. Protokolorako sumendiarena erabili genuen. Irudikapen hau Montse Pinedari ikasi (Toledo eta Pineda 2016) eta gure egin genuen. Hala ere ez genuen erabat asmatu genuenik sentitu: larregitan ez dakigu eraso larrien eta ez hain larrien arteko mailakatzea zeren arabera egin. Esate baterako, nola ulertu hamaika aldiz errepikatzen den eraso ez-larria?

129 Instituzionalizazioaren inguruko eztabaida une eta leku ezberdinetan gertatu da mugimendu ezberdinentzat. Euskal Herrian 80ko hamarkadan bizi-bizi zegoen eztabaida eta horrela da oraindik mugimendu feministarentzat (Epelde, Aranguren, eta Retolaza 2015; Esteban 2017); beranduago heldu zitzaion LGBTB* mugimenduari (Romero Bachiller, García Dauder, eta Bagueiras Martínez 2005); mugimendu independentistak Euskal Herrian 2011. urtean EH Bildu koalizioaren legalizazioak eta hauteskundearen emaitzek ireki zuten zikloak (bereziki 2011-2015 urteetan) bizitu zuen eztabai hura. Estatu mailan, eta Hego Euskal Herrian ondorioz, Podemos alderdia instituzioetan sartzeak ekarri zuen debate hori eta Latinoamerikan ere goeko hamarkada bukaeratik. Eztabaida guzti horietan klabeak izan dira herri mugimenduen eta instituzioen arteko harremanak, eta bereziki garrantzitsua izan da herri mugimenduen funtzio eta betebeharrak zehaztea testuinguru horietan.

erabilera kolektibo eta emantzipatzaileak sustatzeko? Babesaren ideiak nahiko ondo defini dezake herri mugimenduetan presente dauden bi elementu horien arteko konbinazioa: gauden munduari aurre egiteko behar ditugun sostengua eskaintzea, bereziki zaurgarritasun egoera larrian daudenei, baina, aldi berean, posible denaz gaindi imajinatze gaitasuna mantentzea. Maila horretan, segurtasunaz jarduteak gure begirada mugatu dezake:

Ni sindikatuan oso seguru sentitu naiz baina egia da sindikalgintza, adibidez nazioartera atera naizenean, edo hemen beste sindikatu batzuekin aritzean, sindikalismoa ez da segurtasun espazio bat, ez emakumeentzat ez homosexualentzat. Nik ez dut sentitu nire burua ziur... ba galdetzen dizutenean «zer moduz senarra», ze zuzenean galdetzen dizute «zer moduz senarra», esateko «ez daukat senarrik eta emaztea daukat». Eta askotan ez dut esan. Eta ez da izan nire bizitza pribatua zaintzeagatik, da ez dudalako egin. Ez da beldur fisikoa, baina zu nazioartera bakarrik zoaz askotan, eta orduan ezin duzu, bueno bai ahal duzu, baina bueno, herrialde ezezagun batean, hizkuntzarekin arazoak, eta gainera haserretuko naiz guztiekin ze esango diet «qué me preguntas por mi marido». Nik ez dut uste sindikalismoa espazio seguru bat denik. [Alaitz]

Sindikalgintzan dabilen aktibista honek segurtasunaren eta babesaren arteko ezberdintasuna argi erakusten digu. Berak dioen bezala, espazioa ez da segurua, baina ez da segurtasun fisikoa egoera batzuei aurre egiteko behar den bakarra. Zaila dugu identifikatzea zerk eraman gaituen une batzuetan gure sexualitatea aldarrikatzera eta beste batzuetan ezkutatu edo ez aipatzera. Faktore ugari izan daitezke, baina seguru sentitu arren babestuta ez sentitu izana izan daiteke hemen gakoa. Testigantza hori oso bestelakoa da lehenago irakurri dugunarekin alderatuz (“*salir del armario con alegría en un entorno comfortable*” [Pili]). Segurtasunaz pentsatzen dugunean maiz egiten dugun totalizazioak alboratzea ere komeni zaigu, espazioak erabat seguruak edo erabat ez-seguruak direla pentsatzea ekidinez. Babesgunez ari garenean argi izan behar dugu babesak ez duela erabateko aprobazioa esan nahi, ez eta babestua sentitzeak txalotua izatea ere. Hurrengo testigantzek babesguneen izaera hori azpimarratzen dute:

Yo ha habido nocheviejas en las que me he montado tríos allí. Me he podido sentir juzgado luego, ¿eh? Osea, que sea un sitio en el que hay libertad de hacer no significa que luego no haya crítica y sanción social y cuestionamiento. Pero bueno, había libertad para hacer. [Joseba]

Espazio segurua izan den? Feminista bezala, ez. Nik uste dut alderdi politikoak matxistak direla. Eta hau ere nahiz eta morez jantzita egon matxista da. Beste gauza bat da ea hor beste leku batzuetan baino seguruagoa edo errespetatuagoa sentitu naizen. Eta hor esaten dizut baietz. Bai. Hori, bai eta ez, baina agian beste espazio batzuetan baino gehiago. [Arane]

Aranek aipatzen duen bizipen anbiguo hori (“*bai eta ez*”) ekintzaileen esperientzian maiz agertzen da. Pertsona orok espazio sozial ugari zeharkatzen ditugun heinean horien arteko konparaketarik ez egitea ezinezkoa zaigu. Elkarrizketatuetako gehienek herri mugimenduak beste espazio batzuekin alderatzen dituzte seguruak direnetz erantzun orduko. Lehen esan bezala, konparaketa horretan, kasu gehienetan, herri mugimenduek balorazio positiboa jasotzen dute. Horrek ez du esan nahi anibalentzia hori desagertzen denik, ez eta onarpen horren jatorriaren inguruko kezkarik ez dagoenik:

Nire inguru soziala beti egon da oso lotuta herri mugimenduekin edo Ezker Abertzalearekin eta parriba edo pabajo banekien babes, zilegitasun edo behintzat «no cagarla» nirekiko. Por siacaso, ahora que está de moda esto {barreak}. Baina klaro, lanean izan da une bat non hasi naizen harremantzen jende batekin zeinarekin kalean ez nuen ezer konpartituko, eta orduan... bai egon da muga bat {janzkera eta lumarekiko}. [Mikel]

Aipamen honetan babesaren izaera kontraesankor hori azaleratzen da berriz ere eta zor zaigun errespetua formula eta zuzentasun politikoari egoztearen susmoarekin batera dator. Beste behin ere, konparazioa ekidinezina da eta Mikelentzat, elkarrizketatutako beste hainbatentzat bezala, enpleguaren espazioa bere egunerokoa era negatiboan markatzen duen espazioa da, bere kontroletik harago dagoen joko-zelai erregulatua eta gune iluna. Bertakoekin ezer ez konpartitzeak mesfidantza sortu dio eta ez da konfiantza espaziorik eraiki. Ez zaio harrigarria suertatzen.

Espero ez genuen lekuan...

Hurrengo testigantzek ezohiko eta espero gabeko egoerak dituzte hizpide, eta babesguneen inguruko baieztapen guzti horiek tentuz hartu beharrekoak direla gogorarazten digute, mugimendu feministaren adibideak argi utzi duen moduan espazio berak testuinguruaren, egoeraren eta parte-hartzaileen hainbat ezaugarriren arabera esanahi ezberdina izan dezakeelako. Garrantzitsua da, beraz, ze mugimendu diren babesgune eta zeintzuk ez interpretatzerako orduan tentuz ibiltzea eta aurreiritziak alboratzea. Izan ere, ohikoa da mugimendu batzuk erradikaltasunarekin lotzea eta erradikaltasun hori askatasun handiagoarekin, eta beti ez da horrela. Batzuetan, babesguneak espero ez genuen lekuetan aurkitzen ditugu:

Ez... ikusi... bai, militantzia batean non bai ikusi dudan ez duela bat ere inporta zer gustatzen zaidan niri, zer orientazio dudan, izan da –bueno militantzia remuneratua izan da baina bueno bai, militantzia–, aisialdi taldean. Hor bai daude, ikusten dut kolektibo batzuek egin dutela kriston lanketa horrekin eta hori izan zen gainera, sorpresa ez, baina niretzat egon zen guay, hostia, qué guay. (...) gazteekin landu behar delako... gauzak esajeratu egin behar direlako, batzuetan. O sea, jarri behar diezu musuen aurrean. Baina egia da igual beste leku batzuetan zergatik... ja... Ba hor betikoa da baita ere, «zergatik esan behar dut», nik beti esaten dut esateko «eh, estamos aquí, y lo digo, qué pasa» (...) gainera guay, gazteei eskemak apurtu behar zaizkie aspektu denetan. Eta bai, hor bai. (...) efektibotasunaren aldetik igual ez dut ikusten efektiboagoa denik. Beharrezkoagoa bai. Beharrezkoagoa gazteek ere edukitzeko esperientzia bat horren inguruan. Jo eduki nuen hezitzaile bat marikoia zela. Beste lekuetan? Ba igual ere bai, igual ere bada beharrezkoa. Baina ez dakit, diferentea ikusten dut; eske helduak, helduak zailagoak dira. [Ernesto]

Ekintzaile gazte askorentzat, aisialdiarena hain irmoki egituratu gabeko espazio ekintzailea da, ideologikoki lausoagoa eta hierarkia ahulagokoa. Horrek ez du esan nahi ez direnik espazio ideologikoak, ez eta hierarkiarik ez dagoenik ere. Testigantza honen kasuan, esaterako, enpleguan oinarritutako hierarkia dago, eta nolabait adinean oinarritutakoa ere bai, ohikoan koordinatzaileak begiraleak baino helduagoak izan ohi diren heinean. Baina koadroetan oinarritutako antolaketa ereduak dituzten beste mugimendu batzuekin alderatuz

hierarkia horiek lausoago bezala hautematen ditugu maiz, aktibismoa bera informalago den heinean. Ernestorentzat, esaterako, gune askea da, eta bere sexualitatearen inguruan gazteekin era irekian hitz egiteko parada aprobetxatzen du. Berak aisialdian nola, Anaisek ere helduleku egokia aurkitu zuen, pronostiko eta aurreiritzien kontra, oinarri erlijiosoa zuen Gobernu Kanpoko Erakunde batean:

{Jesuiten} lantaldeak kriston baloreak zituen. Orokorrean oso humanitate handiko pertsonak zirelako. Nik uste aplikatzen zituztela jesuitek hitz egiten dituzten baloreak, eta berehala nabaritzen da: eta gero ere bota ahal diezu arma berbera. Beraiek hitz egiten dizute elkartasuna, laguntzea eta pertsonak zaintzea... jartzen dizkidazu «en bandeja». Orduan nik planteatzen dizudanean hau esango dizut gai hau dela «elkartasuna, pertsonen zaintza, justizia soziala». Orduan horrela zen: «hemen zatoz berriz». Eta nik esaten nien, ba bai, erakundearen misioa, bisioa eta baloreak denari aplikatu beharko dizkiegu, ezta? [Anais]

Kasu honetan babesgune egokiaz baino genero eta sexualitateen agendak txertatzeko arrakala egokia bilatzeaz ari zaigu aktibista feminista hau, halako GKE batean humanismoari ematen zaion garrantzia eta jesuitismoak humanismoarekin duen lotura berezia profitatuz. Edonola ere, espazio erlijiosoak edo, zehatzago, oinarri erlijiosoa duten interbentzio espazioak, ez dira denentzat babesgune izan:

Ni armariotik atara nintzarian, elizan bertan, jende askok ez zuen ulertu. Bizitu zuen kontraesan bat bezala, orduan ez zuen nirekin harremanik izan nahi, «crees en Dios o eres de GEHITU, osea, esto como va». Eta homosexualen artian ikusi nuen ere oso antiklerikalismo bortitza, ordun gauza horiek uztartziak eman zidan lana. (...) duela 10 edo 15 urte seguro esango nizula ni garai hortan sentitzen nintzela, ez dakit nola esan, defizit bat banu bezala nire homosexualitatearengatik, nik nere buruari barkatua niona baina gizarteak ez zuena ulertuko, eta jaungoikoaren aurrian nere abnegaziyuak salbatzen ninduela, erreskatatzen ninduela. Eta ordun, osea zoriontsu egiten ninduen besteak laguntzeak baina bazuen ere ebasio zentzu bat eta ez badet aitortzen ez naiz ari egia osua esaten (...) Es marica pero es majo, ez? (...) nere denbora eraman zidan ulertzeak azkenian (...) behar zirala marica jatorrak, marika putasemiak, lo que fuera. Eta horrek ez zuela baldintzatu behar inoren bizitza (...) Ze denbora askotan bilatzen nuen redentziyua. Yo me abnego y algo me redime. Bai. [Ekain]

Bere ekintzailtza kristau oinarriko espazioetan hasi zuen aktibista honek, beranduago LGTB talde batean ere jardun zuenak, hausnarketa lerro berri bat irekitzen digu, lehenago aipatu dudan beste gai batekin lotzen dena: mugimenduetan hasten garenean, alde zurretik finkatuak dauden kodeak ikasi eta aplikatu behar ditugu bertan iraun eta, zorte apur batekin, kode horiek eraldatu nahi baditugu. Ideia horri lotuta azaldu dut, era berean, herri mugimenduetan zentrala den figuratik kanpo dauden subjektuek bere baliagarritasuna

erakusteko besteek baino indar gehiago dutela demostratu behar izatea. Erakustaldi hori ez da soilik espazio horietan egokitu ahal izateko egiten den ahalegina, norberak gizarte heterosexualaren espektatibei ez erantzuteagatik izan dezakeen min edo beldurraren adierazle ere bada. Gure bizitzetako aspektu batzuek gizartean egokitzea zailtzen badigute, zailtasun horiek konpentsa ditzaketen estrategiak martxan jartzea ohikoa da, alde batean galtzen dugun onargarritasun soziala bestean irabazteko asmoz. Erredentzio estrategia horiek, eta hemen testigantzak inspiratutako hizkera erlijiosoa erabiltzea komeni zait, uste baino zabalagoak izan daitezke eta alor ezberdinetan egikaritu. Esaterako, ohikoa da sexualitate eta genero *bizinortasun* ez arautuak dituzten subjektuek ahalegin berezia egitea ikasketen alorrean nabarmentzeko [Itoiz], emakumeen, pertsona arrazializatuen eta beste subjektu periferiko batzuen kasuan gertatzen den moduan. Besteekiko sakrifizio eta altruismoa ere gure sexualitate eta genero *bizinortasun* ez normatiboak infernu sozialetik salbatzeko estrategia izan daitezke eta, nagusiki laikoak diren arren, herri mugimenduek ere balore horiek ordezkatu ditzakete.

Babesguneen inguruko errepasso hau gizakion zaurgarritasunetik hasi dut, guztiok babeserako dugun beharretik eta, herri mugimenduek behar hori asetzeko aukerak eskaini ditzaketen arren, haien nondik norakoak konplexuak eta sinplifikatzen zailak direla esan dezaket. Sinplifikazioa ekiditeari begira, kontzeptu esanguratsu eta egokiak erabiltzearen beharra azpimarratu dut, segurtasuna – erasotua ez izateko bermea – babesagatik aldatzea proposatuz, gizakion bizitzetan esanguratsuak diren beste elementu batzuk ere kontuan hartzen lagunduko digulakoan, egiteko eta adierazteko askatasuna kasu. Begirada aldaketa horrek ezkerak sexu eta genero aniztasunaren inguruan egindako lanketa kritikoki begiratzera garamatza, intentzio oneko adierazpen eta segurtasun neurriez gain, mugimenduen antolaketa eta planteamendu ideologikoak noraino aldatu diren pentsatzera. Aldi berean, babesguneak maiz paradoxikoak direla azaldu dut: subjektu berak bere burua babestua eta babesgabe senti dezake gune berean une ezberdinetan; subjektu ezberdinek oso era anitzetan hauteman dezakete espazio bera eta, hala espero ez arren, segurutzat ez genituen gune batzuek babesa eskaini dezakete. Subjektuek mugimendu eta egituren barruan betetzen duten posizioak babesaren maila determinatu dezakeela ikusi dugu halaber, aldagai eta dimentsio bakarreko analisi eta begiradak ekiditeko beharra plazaratuz. Azken finean, herri mugimenduen unibertsoan dauden posizio anitz eta aldakorrek bereziki zaurgarriak diren subjektu batzuen babesa bermatzea eginbide sakon eta konplexu bilakatzen dutela defendatu dut. Hurrengo atalean herri mugimenduen (babes)gune horiek beste batzuekin nahasten, teilakatzen eta talka egiten dutela ikusiko dugu, bizi ditugun eta bizi gaituzten komunitateak pentsatuz.

3.2.3 KOMUNITATEAREN UR UHERRAK

Tanto la categoría de individuo, como su pareja, la de comunidad, cierran con respuestas política y socialmente codificadas la verdadera pregunta, que no es cómo ser comunidad sino «¿cómo queremos vivir juntos?»

Marina Garcés, “Común sin -ismo” (Pensaré Cartoneras, 2014).

Herri mugimenduen espazioa, gure bizitzetan nahikoa finkatu eta egonkortzen bada, bizileku erdi-iraunkor bilakatu dakiguke. Ekintza politikoaren inguruan antolatzen diren guneotan, denboraren poderioz, komunitateak sortzen ditugu, eraldaketa sozialerako une eta ekimenak konpartitzeaz gain lotura emozional zein intelektualak eraiki eta elikatuz. Lotura horiek ezin dira ukitu edo ikusi, baina komunitateek, abstrakzioak izan arren efektu erreal eta materialak sortzen dituzte: geure buruari buruz dugun iritzia aldarazi diezagukete, beste batzuei buruz ditugun inpresioak moldatu, biziraupen ekonomikorako ateak ireki eta abar. Alegia, era ugaritan, gure bizitzako prozesuetan lagundu edo oztopatu gaitzakete, baita sexualitatearekin lotura dutenetan ere:

{Zer ekarri zizun parte-hartze politikoak?} Ekarri zidan alde batetik komunitate bat, eta militantziak hori ere ematen dizu, komunitate bat, sare bat, planteamendu... ez horrenbeste bizi-ereduarekin loturikoa, porque no es tan grande, baina bai, 17 urterekin edo gaur egun egin ahal izatea beste planteamendu batzuk (...) eskaintzen dizu komunitate bat, sare bat, eta niri lagundu zidan nire prozesuaren... [Mikel]

Zaila zaigu mugimenduek sortzen dituzten komunitateen indarra neurtzea. Mikelek tamainarekin lotzen du: “*ez da hain handia*”, dio. Herri mugimenduak ez dira aktibisten erreferentziazko komunitate bakarra, azken finean, komunitate zehatzak subjektuen erreferentzia bakarra bilakatzea oso mugako egoeretan soilik gerta daiteke-eta. Pentsa dezagun isolamendu egoeretan, esaterako kartzelan edo klandestinitatean, non komunitate guztien presentzia bakar batera murrizten den. Bada, halako salbuespenetzko egoeretan ere,

erreferentziazko komunitateak fenomenologikoki bizi ditugun komunitate horiek baino gehiago dira, fisikoki presente egon ez arren bestelako komunitateen mamuak gudan eragiten duelako. Aitzitik, mugimenduetan sortu eta elikatzen ditugun komunitateen eragina erabatekoa ez izan arren, aktibisten bizitzetan zeresan handia izan dezakete, bizitzako hainbat alderdi asez:

Ya no son solamente compañeros de militancia ni presentes ni pasadas. Son amigos y son compañeros (...) sí que está esa red. Si que hay otras personas que me cuidan y no forman parte de mi militancia. Aunque curiosamente son militantes muchos de ellos, que no militantes de lo mismo... Hay un elemento de dependencia porque mi red social, mi entorno social está construido entorno a las militancias. [Joseba]

Joseba eta Mikelen hitzek mugimenduek eta haien inguruan antolatzen diren komunitateek izan dezaketen pisua eta garrantzia seinalatzen lagundu didate. Gaia mahai gainean jarri ostean, hurrengo orriotan komunitatearen ideian zentratu eta elkarriketen bidez jasotako ideia, hausnarketa zein testigantzak dantzan jarri nahi ditut. Horretarako, bi kontzeptu izango ditut lagun. Alde batetik Clarken (2005) mundu eta esparru sozialen kontzeptua erabiliko dut, soziologo estatubatuarrak proposaturiko mapen elaborazioa ere baliatuz. Bestetik, komunitatearen kontzeptua bera erabiliko dut, marko kontzeptualean Esposito (2009), Agamben (1996) edo Butler eta Athanassiou (2017) filosofoek egindako hainbat definizio eta hausnarketetatik abiatuz zabalago azaldu dudana.


Mundu sozialak eta komunitateak

Elkarriketen kodifikaziotik abiatuz mundu sozialen mapak eraiki eta bertan azaltzen diren azpimundu nagusiak seinalatu ditut. Nagusiki, parte-hartzaileek egunero igarotzen dituzten mundu eta azpimundu sozial ezberdinen arteko mugak, zubiak, atak, teilakatze eta hormak identifikatzea zen nire asmoa. Horretarako aukera ezberdinak zeuden: mundu edo azpimundu espezifiko bat erdigunera ekarri eta sakonean aztertzea edo gainbegirada egitea eta mundu eta azpimundu horiek era azalekoagoan behatu arren denen arteko harremanen

irudi zabalagoa izatea. Ikerketa-gairen inguruko lehen gerturatzea egin eta gainbegirada osatzea helburu nuen heinean, bigarren horrek hartu du nire analisisan indarra, eta horrenbestez azpimundu espezifikoaren azterketa etorkizunerako utzi dut. Horien artean, esaterako, oso interesgarria litzateke mugimendu feminista edo Ezker Abertzalean gehiago sakontzea.

Herri mugimenduen espazioa hainbat azpi-mundutan banatzen da (ikus 9. ilustrazioa). Bost azpi-mundu nahiko argi agertu zaizkit, kasu batzuetan esplizituki izendatuak izan direlako (Ezker Abertzalea, LGTB* mugimendua, mugimendu feminista) eta beste batzuetan parte-

9. ILUSTRAZIOA: MUNDU SOZIALEN MAPA III



(norberak egina).

hartaileek esandakoetatik orokortu dudalako, jadanik ezagunak nituen espresio batzuetara (ezker alternatiboa, mugimendu autonomo-libertarioa). Parte hartzaileak mugimendu horietan aritu dira, eta mugimendu bakoitzaren azpi-munduak ere aipatu dituzte: Ezker

Abertzalearen kasuan prozesu feminista¹³⁰ aipatu dute, ezker alternatiboan eta mugimendu autonomo-libertarioan komisiok (feministak, erasoen kontrakoak edo aniztasunaren ingurukoak). Mugimenduen barruan dauden espazio txiki horietara gerturatu dira elkarrizketatuak, eta sarritan feminismoarekin edo hezkidetzarekin lotura zuten batzordeetara gerturatu dira, ez halaberrez LGTB* gaiak lantzen zituztenetara.

Bai, baina beitu, ba egia da, esanguratsua da, ze orain, e, heltzen dira irakurketak eta horrelako istorioak, eta aukera genuen emateko bi arlotan, bi arloetako irakurketak jasotzeko, eh barne mailan. Eta nik eman nuen hezkuntzan eta politika feministan. Osea, ez nuen eman sexu aniztasunean izena, adibidez (...) Bai, bai bai. Osea, orain hori, EhBildun egingo balitz hezkidetz lantalde bat lantzeko hezkuntzatik guzti hau, feminismoa bainan gauza guzti hauek, identitateak, sexua, sexualitatea, hori guztia, osea hor bai parte hartuko nuke oso gustora, baina hori LGTB talde batean ez. Ya mira, nunca me he hecho esta pregunta, ¿y por que no? ¿No? No sé. Pues ez, anda, pues ez. [Markel]

Beste kasu batzuetan LGTB eta feminismoaren gaiak talde bakoitzaren barruan berariazko espazioak sortzeko aukera emateaz gain mugimenduen arteko elkarguneak erraztu dituzte. Esaterako, mugimendu autonomo-libertarioko kide batek azaldu du okupazio batean gertatutako eraso sexista tratatzeko batzordea sortzean beste feminista batzuekin elkarlanean jarduteko aukera sortu zela. Erasoen gaia bereziki aipatzen dute beste parte-hartzaile batzuek ere, kolaboraziorako eskaerak sortzen dituen gaia delako¹³¹.

Azpimundu hauen artean, mugimendu feminista eta LGTB* mugimendua dira ziur aski lausoena, beraien barne-aniztasuna dela medio. Halaber, mugimendu horietako talde batzuk beste batzuekin lotzen dira ekintzaile batzuen ustez. Esaterako, elkarrizketatuetako batzuek EHGAM Ezker Abertzalearekin lotzen dute, baina beste batzuek ez dute familia politiko horren baitan irudikatzen. Azpimundu berdinen baitan agertu da “transmarikabollo”

130 Prozesu feministak Ezker Abertzaleko erakunde ezberdinek une ezberdinetan burututako prozesuei egiten die erreferentzia. Prozesu horren baitan ikuspegi feministatik berrikuspena egiteari ekin izan diote talde ezberdinek azken urteotan, izan programak berraztertuz, barne mailako indarkeriaren kontrako protokoloak eginez edo kanpora begirako komunikazioa berriz planteatuz. Ikerketa honetako aktibista ezberdinek aipatu dute prozesu horretan aritu izana antolatzaile edo parte-hartzaile bezala, eta indar bereziz agertu da Ernai antolakundearen prozesu feminista, nik dakidala egin del luzeena (lau urte inguruko luzapena daramana jada).

131 “Masculinidades y feminismo” (Azpiazua Carballo 2017) liburuaren hirugarren atalean mugimenduen barruan sortzen diren indarkeria sexisten inguruan idatzi nuen duela pare bat urte jada. Denbora horretan areagotu egin da gertaera hauen salaketa espazio aktibistetan, eta mugimendu feministaren eta beste mugimenduen arteko kolaborazio espazio ohikoa bilakatu da erasoen kudeaketa, alegia talde ezberdinek mugimendu feministari aholku edo laguntza eskatzea halako gertakari baten aurrean. Gai honen inguruko interesaren eta garapenaren inguruko hausnarketak plazaratu ditu akademian EHUko ikerlari eta irakasle den Tania Martinez Portugalek (2019), besteak beste.

izendatzen den entitate lausoa ere: aktibista talde txikiez edo norbanakoez osatzen den mugimendu kritiko eta erradikalago gisa agertzen da, eta bere partikularitasuna mugimendu ezberdinen arteko elkargune izatea da, mugimendu autonomo, feminista eta Ezker Abertzale zein ezker alternatiboko hainbat kidek aipatu baitute. Azpimundu guzti horien arteko harremana ez da beti harmoniatsua, talde eta kolektiboen artean iritzi ezberdinak, tirabirak eta, maiz, gatazkak ere egon daitezkeelako. Elkarrizketetan parte hartu duten subjektuak aktibistak izanda, ez dut gatazka horietan larregi sakondu nahi izan, alde batetik ez nituelako talka horiek hauspotu nahi eta, bestetik, ez dudalako haien partetik elkarrizketetan horretan sakontzeko nahi berezirik sumatu. Hizketaldiok eta horretarako sortutako gidoiek nire ikerketa helburuei erantzun arren, bertan sortzen den giroa eta tonu komunikatiboa errespetatzea garrantzitsua iruditu zait eta, zentzu horretan, gatazkatuak izan zitezkeen aspektuen inguruan galdetu aurretik horretarako aukera zegoenez egiaztatu dut.

Familia

Kolektiboen artean sortzen diren gainjartze horiez gain, herri mugimenduen esparrua beste mundu batzuekin harremanetan dago. Mundu horiek parte-hartzaileentzat garrantzitsuak dira eta horrek beharrezko egiten du haien artean nola artikulatzen diren pentsatzea. Indarrez azaltzen den lehen mundu soziala familia da. Parte-hartzaile guztiek erreferentzia gune bezala hartu dute familia beraien aktibismoaren inguruan jardutean, bereziki haren hastapenetan. Kasu askotan nerabezaroan ematen dira militantziaren lehen pausoak eta familiarekiko haustura bikoitza izan daiteke: sexualitate eta genero bizonortasunarena, alde batetik, eta aktibismoarena bestetik. Kontrara, kasu batzuetan, bereziki Ezker Abertzalean, militantzia transmisio familiarren parte izan daitezke, sektore politiko horrek familia eta mugimendua komunitate bakarrean integratzeko gaitasuna duelako¹³². Komunitate horrek konpartitzen dituen baloreak iraganaren eta etorkizunaren inguruko diskurtsoetan oinarritzen dira hein handi batean: nazioaren ideia bera historikoki artikulatzen da, eta

¹³² Hein txikiagoan gertatzen da egoera hau ezker alternatiboaren sektore batzuetan ere, bereziki oso finkatuta edo instituzionalizatuta dauden mugimenduetan, esaterako ezkerreko alderdi edo kolektibo “klasikoagotan”.

mugimenduak berak baditu hamarkadetan zehar garatutako historia eta mistika politikoa ere. Mugimenduaren baitan ikuspegi ezberdinak daude eta, esaterako, nazioaren inguruan askotariko begiradak plazaratu dira azken hamarkadetan, baina, hori horrela izanda ere, Ezker Abertzaleak komunitate zentzu indartsua darabil oraindik. Edozein komunitate bezala, kanpokoaren arabera definitzen da hau ere, eta zentzu horretan sexualitatea eta – beherago datorren testigantzan – genero adierazpena maiz komunitatearen kanpo-muga gisa ezartzen da. Horregatik da gatazkatsua, une eta kasu zehatz batzuetan, komunitatearekiko pertenezkoa hori: “{Gurasoak} *hasieran egon zitezkeen gustura Ezker Abertzalean aritzen nintzelako baina gero hasi ziren kritikak haien kontra ere. Pues bueno, nola jantzen nintzen...*” [Itoiz]

Familiak eta mugimenduak talka egiten dute elkarrizketatu honen testigantzan. Alde batetik, Ezker Abertzaleko gurasoek ondo ikusten dute etxeko gazteak militantzia hori izatea, azken finean ekintzailtza mota horrek espazio komunitario berean kokatzen baititu, partekatzen duten unibertso sinboliko eta erlazionalean. Bestetik, ordea, komunitate horrek ez ditu ontzat ematen Itoizen jantzeko moduak, preseski egotzitako generoaren arauak betetzen ez dituelako. Gainera, komunitate horretako kideek egiten duten kritika ez zaio zuzenean ekintzaile gazteari zuzentzen, familiara bueltatzen da, seme-alaben portaera erregulatzen duen instituzioa den heinean genero arauen zaintzaile ere badelako, komunitatearen arauak errespetatzea bermatzearen arduradun. Horren inguruko diskurtso aurrerakoiak izan arren, ezkerreko mugimenduetan, bereziki familiaren eta mugimendu politikoaren komunitateak elkarbiltzeko gaitasuna duten horietan, familia kuestionaezina izan daiteke. Hala ere, aktibista honek, genero rola eta patriarkatua zalantzan jartzeko prozesuan familia egiturak erdigunean jarri eta guraso zirenekin senidetasuna hausteko ahalegina egin du:

(...) esan nien izenez deituko niela, niretzako aita eta ama ez zirela. Eta hori, identitatea ulertzeko ere... ulertu zuten bezala espainol eta euskaldunen arteko kontu hori... Agobiatzen zidana haien eginbeharren zerrendan egotea {zen}, eta nirekiko zuten ardura... Zilbor-hesteko lotura... eten nahi nuen. Lagunak bezala ikusi. Eta pixkat amatasuna eta aitatasuna joan daitezkeela, suntsitu daitezkeela. Uste nuen trans-a ulertzeko beste kontu horretatik oso maternalak zirela nirekin, beldurra ematen zien, nola joaten nintzen kaletik, paliza bat emango zidatela horregatik edo parre egingo zutela, lagunak galduko nituela... gauza guzti horiek (...) hasieran asko kostatu zitzairen. Eta asko mindu zituen ere bai. Noski, ze nik egun batetik bestera beren izenez deitzen nien, ezta? Bai, ze klaro, haien etengabe gizontzen ninduten, eta hura zen nire bengantza txikia. Edo espainolizatu egiten nituen. Banekien horrek asko izorratzen ziela: gaztelaraz egiten nien, edo espainolak deitzen nien... Baina bueno, gero egon zen momentu bat ere, ez dakit oso argi zein zen, baina ikusi zutela asko urrundu nintzela eta ikusi zutela edo buelta eman, edo hau

galbidera doa. Nik ere horrekin jokatu nuen, apur bat isolatu eta etorriko direla (...) eta gero duela bi urte edo izenez aldatu nuen, eta hori esan nien. Hasieran pixkat kostatu zitzaien baina gero hartu zuten. Egon ziren bi edo hiru hilabete pixkat nahasten zirela, edo egiten zuten nahasten zirela... Ze lagunek segidan egin zuten. Bueno, koadrilakoei gehiago kostatu zitzaien adibidez. [Itoiz]

Ahaidetasuna zalantzan jartzeak sexualitate bat edo bestea aldarrikatzeak baino gatazka handiagoa dakar kasu honetan. Are gehiago, genero rolen hausturak hainbat erresistentzia sortzen ditu familiaren eremuan (*etengabe gizontzen ninduten*), eta hori kontra-erasoak ere sortzen dira, kasu batzuetan komunitate politikoaren elementuak erabiliz: “familiak esaten badit gizona naizela esango diet haien nortasun agiriak dioela espainolak direla”. Normaltasuna normaltasunaren kontra. Mundu bakoitzak bere arauak ditu, horien arabera jokatu du eta, arau horiek erabatekoak edo zurrinak izan ez arren, horrela hautematen ditugu. Maiz, arau sozial eta komunitarioak ez dira era esplizituan izendatzen, ez dago berariazko debekurik, isiltasuna besterik ez dago. Eta isiltasuna, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan, normatibotasunez bete da. Azken finean, esaten ez denak espazio hutsa uzten du, baina hustasun hori fantasia bat da: diskurtso hegemonikoak betetzen du izendatzen ez den horren lekua.

Gogoratzen naiz pentsatzen nuela nire buruan, eta Ezker Abertzalean ze iritzi egongo da marika izatearen inguruan? Eta neukan beldur hori, pentsatzen nuen, ez daude ados marika izatearekin porque es... yoquesé, ¿contrarrevolucionario? Eta justu hasi naizenean pentsatzen hori etorri zait burura, ze irakurketa politiko egingo da horri buruz... Gero deskubritu nuen arte ba bueno izan dela nire prozesuaren parte inportante bat militantzia. [Mikel]

Aktibista honen testigantzan bi elementu oso ezberdin agertzen dira. Alde batetik mugimenduan parte hartu aurretik marika baten buruan dagoen galdera: zer pentsatuko ote dute nitaz? Mugimenduak ez du, noski, kontrako ezer esan, baina nortasun aldetik zalantzak sortzen dira; mugimendua iraultzailea da eta ez dago hain argi hedonismoarekin eta fribolitatearekin lotzen den sexualitate hori izaera iraultzailearekin ezkondu ahalko den. Mugimenduak isiltzen duenak esaten duenak besteko pisua du hemen. Bigarren elementuak kontrako norabidean garamatza: militantzia sexualitatearen inguruko prozesuaren parte garrantzitsua izan dela, babesgune bat eskaini duelako. Zentzu horretan badirudi ez dugula

galdera termino dramatikoetan planteatu behar: mugimendu hau edo bestea homofobia al da? Kasu gehienetan erantzuna ezezkoa da, homofobia arbuiatze argiarekin lotzen dugulako. Aurreko testigantzatik abiatu eta gaiari sakonago erreparatuz gero, galdera egokiagoa litzateke mugimenduok era aktiboan sortzen ote duten diskurtsorik sexualitatearen inguruan, edo barne mailan lantzen al diren babes eta konfiantza espazioak LGTB* jendeentzako¹³³.

Familiaren eta aktibismoaren mundu sozialen artean sortzen diren teilakatzeekin jarraituz, bien arteko disonantziari eutsiko diot. Kasu askotan, familiek beren kideen aktibismoarekin ideologikoki bat egin eta ontzat ematen duten arren, aktibismoa bera desadostasun gunea izan daiteke:

{militantziarena, etxean} zaila izan zen, zaila ez beste posizio bat zutelako, zelako familia estandar bat, «no te metas en política». Eta izan zen zaila... Oraindik ere da, harreman ona daukat beraiekin baina jarraitzen du izaten demostrazio konstante bat ez naizela gazte ero bat: «gaztea zaren heinean ez dauzkazu ideiak argi, jende batek baldintzatzen zaitu eta ikusiko duzu eta aldatuko zara ze gaztea zara eta ez dakizu oraindik». Eta kostatu zitzaidan gurasoek ematea ez zilegitasun bat baina bai onarpen bat: badakit zertan ari den eta hori erabaki du. Zaila izan zen. [Mikel]

Eta Gazte Asanbladan jada zegoelako jende ezaguna ere bai, eta ez zen ezer politikoa (alderdikeria bezala ulertuta) ere igual. Ni ere nator familia jeltzale batetik, orduan, horrek ere izan zuen eragina ez sartzean ni mobida horretan. [Ernesto]

Hainbat izan dira elkarrizketetan beraien familiarekin izandako tentsio eta desadostasunak aipatu dituztenak. Kasu batzuetan familiek ideologia kontserbadorea dute eta, horren ondorioz, ez dute beraien seme edo alabak ezkerreko mugimenduetan jardutea ondo ikusten. Are gehiago, Mikel eta Ernestoren testigantzetan azaltzen den bezala, gaizki ikusia dagoena parte hartzea bera da eta hor eraikuntza diskurtsibo indartsuak daude jokoan: ordenaren ingurukoa da bat, ideologia kontserbadorearekin bat egiten duena, baina bada horrekin maila mikro-soziologikoan lotzen den beste ideia bat ere, normaltasunarena.

133 Aurreko bi testigantzak Ezker Abertzalearen testuinguruan kokatuak dira baina ez nuke transmititu nahi izango hemen azaldutakoak mugimendu horren monopolio direnik edo gehiago gertatzen direnik mugimendu horretan. Zalantza gabe, era partikularrean gertatzen direla esango nuke, baina ez gehiago ez gutxiago, beste arrazoi batzuen artean, ikerketa honek ez duelako kuantifikazio asmorik izan inongo momentutan. Bestalde, bi testigantza hauek nahiko argi uzten digute maiz aipatu dudana L, G, T, B eta + siglak elkarren alboan jartzean galdu dezakegun espezifikotasuna. Ez dut uste maila berean daudenik onartuak edo babestuak sexu berekoen arteko harremanak edo genero bitarraren hausturak.

Normaltasunaren ideiak garrantzi berezia du familiek egiten duten balore sozialen transmisioan, ziur aski normaltasunetik kanpo egotea egoera mingarria eta zigortua den heinean, familiako kideak ataka horretatik libratu nahi direlako. Norbere familian tradizio aktibistarik izan ezean, eta batzuetan izanda ere, aktibismoak ez digu familiari normaltasuna demostratzen laguntzen. Lehenago Josebaren hitzetan ikusi dugun moduan, gure sexualitate edo genero bizinortasunagatik jada oso normaltzat ez bagintuzten, ekintzaitzak ez du iritzi hori aldatzen lagunduko, kontrakoa baizik. Adin batetik aurrera, politikoki inplikaturik egotea ez da seriotzat hartzen eta aktibistak maiz betiereko nerabeak dira familiako beste kideentzat. Judith (Jack) Halberstamek (2005) egiten duen denboraren irakurketa *okerra* aktibismoarekin ere lotu daiteke. Autore estatubatuarrek genero ez-normatiboa duten askoren esperientzian denboraren izaera normatiboa ere hausten dela uste du, esaterako, zailago eginez helduen mundura sartzea, mundu horretarako sarbidea errazten duten elementuak sistema heterozentratuarekin daudelako loturik: bikote egonkorra izatea, seme-alabak izatea, familia osatzea. Homonormalizazioak gauza hauetako asko ñabartu dituen arren, sexualitateak eta genero *bizinortasunek* badute loturarik adina eta, partikulariki, helduaroa ulertzeko dugun moduarekin. Aktibismoaren kasuan ere, gure bizitzan presentzia handia badu, lehentasunen artean kokatzen dugulako izango da, nahitaez beste elementu “normalago” batzuk – familia sortzea, ikasketa edo lan karrera solidoa eraikitzea – beherago kokatuz gure balore-eskalan. Zaila izango da gure inguruneak pertsona heldu bezala ikus gaitzan. Aktibismoak denbora narratiboan sortzen duen haustura hau ez da LGTB* pertsonen soilik gertatzen zaien zerbait. Ziur aski militantziak denboraren dimentsio batzuei¹³⁴ eragiteko duen moduak aktibista guztiei eragiten die, baina hemen proposatzen ari naizena LGTB* pertsonen kasuan bi osagai horiek, sexualitate eta genero bizinortasuna alde batetik eta militantzia bestetik, denbora moldeatzeko nola uztartzen diren aztertzea da.

Beste elementu adierazgarria segurtasunarena da, familiako kideak arazoetan sartzea ekiditea. Frankismotik errepresio maila oso handia bizi izan duen gizartean bizi gara, eta errepresio horren arrastoak oso presente daude zirkulu aktibistetatik harago ere: iragan gertukoan estatuaren errepresioa indiskriminatuak aztarnak utzi ditu aktibistak ez diren familia askotan ere. Errepresioak ekintzaileengan sortzen duen besteko tentsioa eragiten du familian ere, izan ere errepresio politiko eta sozialak ez du atxilotuak edo epaituak diren pertsonengan soilik eragiten. Bere ekina gizarte sektore zabalen kontrakoa da, eta hainbat

134 Matxalen Legarretak (2012), bere doktorego tesian, Ramon Ramosen denboraren metaforen proposamena bere egiten du, denbora kontzeptualizatzeko erabiltzen ditugun lau metafora nagusi seinalatuz: *baliabide* denbora (zerbait egiteko behar dugun denbora kalkulatzean), *ingurune* denbora (ekintza baten agerlekua den denbora), *ipar* denbora (iragana, oraina eta geroaren artean ezberdintzen laguntzen dugun denboraren kontzeptzio abstraktua) eta *gorpuztutako* denbora (gure biografian kokatzen dugun bizitzaren zikloen denbora). Hemen egin dudana azken kategorian honi erreferentzia nagusiki, nahiz eta hirugarrena ezinbesteko kondizioa izan azaldu dudana gertakaria egikaritzeko.-(Legarreta Iza 2012)

mailatan eragin nahi du: aktibistak atxiloketari, torturari edo prozesu judizialari beldurra dio, baina mehatxu horrek lagunarte eta familian izu giroa sortzen du, aktibismoa zalantzan jarriz eta arazoak ekiditeko mezua zabalduz. Zaila bilakatzen da familian konplizitaterik aurkitzea eta askotan aktibisten hautua militantzia ezkutatu edo hari garrantzia kentzea izaten da, familia babesteko eta beraien aktibismoa zalantzan jar ez dadin.¹³⁵

Batez ere errepresioaren kontuarekin (...) asko-asko asustatu nintzenean nik jada etxean kontatu nituen gauza batzuk {militantzian egiten nuenaz} eta orain damutzen naiz apur bat, ze kontatu nuen ni lasaitzeko baina lortu nuena izan zen haiek arduratzea eta oraindik txapa handiagoa sartzea niri, batez ere (...) esaten zidaten «zu ezin zara zentratu zentratu behar zaren horretan eta, ez dizut esaten lagatzeko hori dena baina bai... ez egon lehen lerroan». Horrekin matxake konstante bat izan zen (...) familiarekin beti igarri dut presio asko. [Xune]

Errepresio politikoaren gaia tratatzea zaila da, beraien beldurrak konpartitzea suposatzen duelako aktibistentzat. Alde batetik, beldur horiek militantearen irudiarekin talka egiten dute: aktibistak gogorra izan behar du eta beldurrik ez adierazi, abangoardiaren ezaugarri horiek bete behar ditu nolabait¹³⁶. Bestalde, hain zuzen ere errepresioaren helburua izua transmititzea den heinean, aktibistek ez dute nahi izaten beldur giroa areagotzerik, jakin badakitelako horrek aktibismoa ahultzen duela. Horrela, errepresioaren eragina zabala eta gorpuzt sozial osoari zuzendutakoa den arren (Mendiola Gonzalo 2014:67-69) haren inguruan pertsona gutxi batzuek baino ez dute hitz egiten edo, maiz, norberaren barne-forora mugatzen da gaia. Errepresioa nola ekidin, nola aurre egin edo nola salatu hizpide izan ohi da taldekideekin, baina ez da ohikoa beldurraz hitz egitea, nahiz eta azken urteotan tendentzia hori aldatzen ari den.

135 Elkarrizketetan parte hartu duten pertsonak mugimendu oso ezberdinetako kide dira edo izan dira. Mugimenduen arabera errepresioaren eragina ezberdina da, bai eta horrekiko esposizio maila. Maila honetan beraien aktibismoa Ezker Abertzalearen egituren inguruan egin dutenek errepresioaren presentzia handia bizi izan dute, baina ez beraiek bakarrik. Esaterako, parte-hartzaile hainbat kartzelan izan dira beraien aktibismoagatik (gazte mugimenduan zein bestelako egitura politikoetan) baina baita intsumisio mugimenduan parte hartzeagatik. Berdin gertatzen da errepresio "puntualekin", ordu gutxitako atxiloketak, identifikazioak edo protestetan bizi izandako uneko kolpe eta mehatxuekin.

136 Aktibismoetan gertatzen den abangoardiaren kritika sakon eta landua egin du Carolina Leon aktibista eta idazleak (2018) zaintza eta politika elkarrekin jartzen diren lekua atzeguardia ("retaguardia") dela argudiatuz. Ezin aipatu gabe utzi hemen Maite Arroitauregi eibartarrak Mursegoren "Hiru" diskoan (Bidehuts 2013) publikaturiko "retaguardia" abestia, zeinetan bere ohiko umore zorrotzaz zioen: *"Ez dut maite abangoardia, ez dut maite situazionismoa, ez dut maite modernismoa, are gutxiago postmodernismoa. Ez dut maite abangoardia, ez dut maite situazionismoa, ez dut maite modernismoa, are gutxiago post-situazionismoa. Yo prefiero la ensalada a Beethoven y Sinatra, a Vivaldi, uvas pasas que me dan más calorías"*. Arteen abangoardiei egindako keinua erraz aplikatu liteke politikagintzan.

{errepresioari buruz} Ez naiz ausartzen guztiz... nituen 17 urte, ez nekien zer zen hori... ez nuen inoiz entzun... ez dakit esaten momentu hori nola bizi zuen jendeak. Nik bizi izan nuen, bueno, beldurrez, baina maila berdinean, orain bezala. Quitándole drama. [Mikel]

Errepresioaren zama familian ez jartzea norbere aktibismoa kuestionatua ez izateko estrategia da, arazotsua bezain ekidinezina den espazio bat negoziatzeko modua. Azken finean, familia gure bizipen komunitarioan ezinbesteko katebegia da, instituzio indartsua da eta mundu sozialera sarbidea ematen digu, esate baterako, klase sozialaren, generoaren edo sexualitatearen inguruko baloreen transmisioa eginez. Familiaren eta beste mundu sozialen arteko korapilo horrek oso ondo adierazten du komunitatearen izaera paradoxikoa: baliteke norbanako bezala talka egitea komunitatearekin, gure alderdi batzuk mugatzen edo zentsuratzen dituelako, baina garena egin gaituen heinean komunitate horrekiko haustura oso zaila da, eta artikulazio posibleak bilatzea izaten da ohikoena. Artikulazio horiek maiz barne banaketa edo subjektuaren erdibitze bezala bizi ditugu, bizitza bikoitz edo antzerki bezala. Komunitateak, azken finean, etengabe besteei irekia egotea suposatzen du eta gure hertsidura zalantzan jartzen du, banakotasuna ezinezko bihurtuz.

Gure etxean asko ziren jaungoikoa eta lege zaharra... eta orduan hor... militantzia zen oso konfliktiboa... orduan etxean ezkutatu izan dut, nik uste dut trebea naizela ipuinak kontatzen horregatik, etengabe gauzak asmatzen nituelako nire ordutegi xelebreak justifikatzeko. Gero jakin zutenean integratu nuen militantzia askoz modu naturalagoan nire bizitzan, jada ez zegoen bi bizitza, doble vida paralela hori, ze egia da batzuetan dela zamatsua. [Alaitz]

Parte-hartzaile honentzat aktibismoa *ordutegi xelebreen* iturri ere bada. Militantziak gure bizitzei gauza asko ematen dizkie, hala nola babesguneak eta zaintza-sareak baina, esan dudanez, denbora normatiboaren haustura gune ere bada. Eguneroko ordutegiak zein epe erdi-luzeko bizitzaren planifikazioa hankaz gora jartzen dira eta, denbora horiek gure mundu sozialetako batzuekin eszisia eragiten dutenean, ipuinak kontatzeari ekiten diogu. John Cameron Mitchell zinema eta antzerki zuzendariari entzun nion behin LGTB* pertsonok harreman berezia dugula egiarekin eta gezurrarekin¹³⁷. Gure sexualitatearen edo genero bizipenaren nondik-norakoak oso era selektiboan azaldu behar ditugu maiz, ia uneoro erabakiz zein den gure errealitateak ulertzeko gai eta zein ez eta, hortaz, zenbat eta nola

137 “Gay garenok komunean dugun gauza bat da, hazten ari garenean ez dugu egia kontatzen. Ez behintzat berehalakoan. Beraz baduzu artifizioaren berri, badakizu zer den antzeztea, badakizu badirela gauza batzuk neurritz gorakoak direnak (exajeratuak). Metafora ere, ondo ulertzen duzu” (Ades eta Klainberg 2006:15:00 min)

erakutsi dezakegun kasu bakoitzean. Aktibismoaren eta sexualitateen arteko paralelismo bat ikus daiteke hor: bietan neurtzen da esaten eta erakusten dena, parekoa ez arduratzeko, ezulertuak ekiditeko, norbere burua babesteko, azken finean, normaltasuna ez hausteko. Gainera, militantzia umekeria irudituko zaie askori, bazterrak nahastea edo kontu aspergarri eta txatxuekin aztoratzea¹³⁸, eta irudi hori mingarria da sarritan.

Esaten denaren, esaten ez denaren eta oker esaten denaren arteko bidegurutzean, Ignacio Mendiolak (2006:49) gezurra hutsegite moralizat hartu ordez errealitatearen negoziaketa tresna gisa pentsatzera gonbidatzen gaitu. Gezurrak duen konnotazio negatiboaz harago, egoera sozial batzuetan gezurrak kendu beste eman dezakeela planteatzen digu eta bere izaera sortzailea aldarrikatzen du. Areago, erregulazio ordenen hertsiduraren aurrean egiten dugun erresistentzia mota bat ere izan daiteke gezurra. Butlerren (2006) performatibitatearen teorian akatsa eta hiperbolea badira Legea etengabe errepikatzea ekiditen dutenak, Mendiolaren planteamenduan gezurrak hizkuntzaren eta egiaren etengabeko erreprodukzioan etena eragin dezake:

Se mente, pero nunca se mente igual, cada mentira abre su escenario, su específico campo moral, cada mentira arrastra su política, el modo en que se sujeta al sujeto y, por ello, cada mentira ofrece distintas posibilidades de problematizar la mentira, de poner en cuestión aquello que se nos dice, de desnaturalizar lo que se presentaba como una evidencia, de acometer, en definitiva, la interminable tarea de mostrar la contingencia de lo (supuestamente) necesario (Mendiola 2006:90).

Gezurrak aktibismoak eta sexualitate/genero ez-normatiboek familiaren esparruan sor ditzaketan etenaldien berri ematen digu, egiaren erregimena agerian utziz. Normaltasunaren hausturaz jarduteko, ostera ere, ardi beltzaren metafora agertzen da testigantzetan, sexualitatearen eta aktibismoaren arteko figura gisara:

Familian, familian ezer ez, familian animatu naute beti. Gainera 3 anai-arreba gara eta beste anaiek ez dute parte hartu inon eta orduan ni izan nintzen apur bat oveja negra edo ez dakit. Eta orduan ezer ez. Bai izan zena zen konfliktu bat nire koadrilarekin, hori bai, eta orduan apurtu nuen harremana guztiz bastante modu txarrean, daukat rekuerdia, eta koadrila berri bat sortu nuen, Gazte Asanbladan mugitzen zirenak. Hori bai, hori bai gogoratzen dut izan zela konfliktiboa, bastante (...) Ez, bai, konturatu nintzen jende horrek ez zidala... bueno, igual orain

138 Kontu aspergarrien inguruan Ahmedek “feminist killjoy” (poztasunen izorratzaile feminista) kontzeptua erabiltzen du (2018).


konturatzen naiz, lehen igual ez nintzen konturatzen, orain konturatzen naiz jende horrek ez zidala ezer aportatzen, nik mugimendua behar nuela eta topatu nuela jende bat roilo horretakoa. Eta musika aldetik ere bai... Eta bai, hortik sortu zen baita ere musika-talde batean parte hartzeko aukera ere bai... Nik uste dut feelinga sortu zela eta besteekin zela droga (gainera ez nintzen drogatzen orduan) eta niretzako ez zen leku aproposa, ez, ez [Ernesto].

Ardi beltzak normaltasunaz besteko lehentasunak eta hautemandako adina ditu eta denbora ere bestela erabiltzen du eta horrek familiaren transmisio normatiboan etenaldia suposatu dezake. Edo ez. Ernestoren esperientzian familiak bere ardi beltz izaera ulertu du eta, bere anaiak militanteak izan ez diren arren, bera beti animatu dute horretara. Gatazka nagusia beste nonbait kokatzen du berak.

Koadrila

Hemen da, azkenik, hitz potoloa: koadrila. Txantxa giroan, Lucas Platero ikerlariari entzun nion behin Euskal Herrian balizko ikergai interesgarri bakarra dagoela, eta hori koadrila dela¹³⁹. Lagunarteak gurean hartzen duen forma bereziak, gure mundu sozial edo azpimundu garrantzitsu bezala jokatzen du, eta harreman partikularra du aktibismoarekin, sexualitatearekin eta generoarekin. Irudian ikusi bezala (ikus, berriz, 10. ilustrazioa), koadrilak beste mundu sozialekin askotariko harremanak ditu. Alde batetik, hausturaren ikuspegitik – Ernestok bezala –, elkarrizketatu ugari aipatu dituzte lehen politizazioa eta militantzia

10. ILUSTRAZIOA: MUNDU SOZIALEN MAPA III



beren betiko lagunartearekiko harremana moztu edo aldatzea eragin zuten gertakari gisa. Bizilekuak eta eskolak definitzen zuten heinean, betiko lagunartea ez zen guztiz hautatua. Aurreko azpiatala ixten zuten hitzetan, haustura sortzen duena koadrilako kideen interes ezberdinak direla zioen elkarrizketatuak. Normalizat jo beharko litzatekeena, alegia, gure ingurunea interesen arabera moldatzea, mingarria eta gatazkatsua da, koadrilaren instituzioak uste baino indar handiagoa duen erakusgarri.

139 Koadrilak askotan ikerketa gaiak izan dira edo ikerketa askoren unitate, gazteriaren errepresentazioak (Eizaguirre 1993), herri zehatzetako identitate eraikuntzak (Ramírez-Goikoetxea 1984; R. Aranguren 2004) edo jaiak aztertzean (J. I. H. Martínez 1997).

Beste esperientzia batzuetan, koadrilako sektore batzuk herri mugimenduetara hurbildu eta betiko lagun horietako batzuek aktibismoarako bidea egiten dute elkarrekin. Kultura politiko sendoak eta komunitateak integratzeko gaitasun handia erakutsi duten mugimenduetan ohikoa da hori; berriz ere Ezker Abertzalea dugu adibide. Mugimendu horrek familia eta militantzia integratzeko izan duen gaitasuna koadrila integratzeko ere izan du. Agian horregatik, aktibista batzuek bi esparru horiek era independentean bizitzearen garrantzia azpimarratu dute:

{Nire koadrilakoek} behartzen ninduten etengabe militantzia aztertzeraz, «zertarako pasatzen duzu... daukagu arratsaldea libre eta bilera duzu, edo pankartak egitera zoaz...» eta orduan ikusten duzu nola bi errealitate ezberdin dauden. Orduan antolatua egotearena eta militantiari hainbeste garrantzia ematea izan zen erabaki kontziente bat. Daukazu familiarena, daukazu koadrila eta hala ere {militatzea} erabakitzen duzu. Izan zen erabaki kontzientea. [Alaitz]

Alaitzek garbi du bere kasuan koadrila historikoa mantentzeak ahalbidetzen diola militantzia kontzienteagoa izatea. Bere zirkulu soziala aktibismoaren zirkulutik banatzeak erabaki hori kontzienteagoa dela ziurtatzen dio, ez dagoela inguruneak baldintzatuta. Aktibismoaren eta lagunartearen arteko banaketa horrek ez du bi norabideetan berdin funtzionatzen: posible da norberaren lagunetako asko aktibistak ez izatea, baina zailagoa norberarekin aktibismoan aritzen direnak, maila batean edo bestean, lagun ez bilakatzea:

Hemen daukadan lagunak dira aktibismo LGTBarekin zerikusi gutxiago duten pertsonak, baina kanpoko lagunak ba gehiago horrekin harremandutakoak. Nire lagunik onena bai da aktibista, baina beste batzuk gehiago mugitu izan dira ba beste kontu batzuetan, Ezker Abertzale inguruan, edo kulturaren munduan... [Arane]

Bata bestearen gainean jartzen diren zirkuluak dira lagunartea, koadrila eta ingurune aktibista. Esan dudan moduan, koadrila, ingurune tradizionala, emana datorkigu: non bizi garen, ze eskolataraz joaten garen, gure familiak beste familiekin dituen harremanak eta abar. Kasu batzuetan, aktibismoak ingurune tradizional horiekin talka egiten du, beste batzuetan gure sexualitate edo genero nortasuna dira koadrila birpentsatzeko zirrikitua. Edonola ere, aktibismoak lagunartea banatzea edo zalantzan jartzea ekar dezakeen arren, sexualitate eta genero nortasunak ez du gehienetan halakorik eragiten eta diferentzia horrekin bizitzen ikasteko joera zabalduagoa da. Ziur aski, sexualitatea edo genero nortasuna aldaezinak direla uste dugu, eta ideologia politikoa edo aktibismoa bultzatzen gaituzten bulkaden multzoa, aldiz, hautu bezala ikusten ditugu. Komunitateen izaera kontraesankorra da eta mundu sozialen arteko teilakatzea nabarmena, eta hautuaren eta garenaren arteko kontziliazio lan hori ez da erraza azpimundu sozial horiek nahasiagoak diren heinean.

Eta hor juntatu nintzen berriro koadrilako batzuekin... Auzoarekin beste rekontziliazio bat, baino hor ya auzotik ere pixkanaka urruntzen... Bueno, auzotik, Ezker Abertzaleak auzoa deitzen duen hori, direla hiru taberna eta ya. Ba hortik (...) {izen aldaketari buruz} egon zen jendeak esan zidana «ya se veía venir», destino bat jarraitzen ariko banintz bezala... bai, orokorrean ondo. Koadrilako batzuk oraindik lehengo izenez deitzen didate. Eta hor bai izaten dela... Ez dit mintzen ze ez gara sekula ikusten, ez dut dramatismotik bizi. Momentuan ondo, jendeak berehala onartu zuen. [Itoiz]

Interesgarria da zita honetan ikusi dezakegun espazio fisikoaren berrirakurketa, auzoa ingurune geografikoa izateaz gain, mugimenduen ingurune sozial zehatzean sortzen den komunitate gisara ulertuz. Lehenago ere adierazi dut komunitateak entitate abstraktu eta mamuzkoak direla, baina nabarmena da espazio fisiko edo birtualak¹⁴⁰ ezinbesteko dituztela haien garapenerako. Are gehiago espazio horietan gertatzen diren interakzioek forma ezberdina hartu dezakete: komunitateak indartzeko guneak izan daitezke edo komunitateen barruan arrakalak sortu ditzakete. Gune horietako batzuk muga-esparruak ere badira, komunitatearen kontzepzio ezberdinen artean kokatzen diren mugaldea. Horietara gerturatzen diren subjektuek zerbait daramate bueltan jatorrizko komunitateetara, berauek indartu edo zalantzan jarriz. Muga-eremu horietako bat da hurrengo epigrafean aztertuko dugun *ambientea*.

¹⁴⁰ Espazio birtualak aipatzen ditut subjektibitate politizatuen inguruan sortzen diren komunitateak ez direlako bakarrik kalearen edo espazio fisikoen esparruan sortu eta garatzen, sare sozial digitalek eskaintzen duten espazio birtualean ere konfiguratzeko komunitate eta identitate kolektiboak. Areago, sare sozial birtualak ere, nolabait, espazioak dira, nonbaiten dauden heinean. Erabiltzaileok gure ordenagailu eta mugikorretan hautematen baditugu ere, komunikaziorako erabiltzen diren tresna digital horiek (emailak, foroak, mezularitza aplikazioak, *twitter* edo *facebook* bezalako sare sozialak) zerbitzaritan daude, leku fisiko batean kokatzen den ordenagailu eta *datu-zentrotan*.

LGTB* ambientea, mugimenduak eta komunitateak

Mundu eta esparru sozialak aztertzean mugako gune eta objektuei erreparatzea interesgarria da, alegia, mundu sozialen arteko teilakitzean garrantzi berezia izan dezaketen elementuei. Marruskadura gune horiek harmoniatsuak edo gatazkatsuak izan daitezke. Dagokigun kasuan, haietako bat “giroa” (“el ambiente”) da, parte-hartzaile gehienek une batean edo bestean erabili duten espresioa, gay eta lesbianen – eta, neurri txikiago batean, trans* jendeen – presentzia normalizatuagoa duten aisialdi guneei erreferentzia egiteko. Hainbat kontakizun historikok gaur egun ezagutzen dugun LGTB* mugimendua sortu aurretik taberna eta kafetegiak elkar aurkitzeko gune bereziak zirela aipatu dute, beren ahulgune eta indargune guztiekin¹⁴¹. Mugimenduak sortzearekin batera gune horiek ugaritu egin dira eta, zer esanik ez, homosexualitatearekiko onarpen soziala handitu ahala hasiera batean zuten izaera klandestinoahuldu da. Gaur egun espazio horiek beharrezkoak izan arren ez dute garai bateko urgentziarik eta askotan gune komertzial bezala ikusten dituzte hainbat parte-hartzailek. Herri mugimenduetan aktibo dauden pertsona hauen testigantzetan ambienteak, kasurik onenean, balorazio anbiguak sortzen du:

{Bares de ambiente} había dos, tres, nunca ha sido una plaza... Sí que hubo una época más importante, esa del 94 al 2000... Luego cayeron un poco, el tema internet... Entonces la gente se iba mucho más a Bilbo. Había mucho ambiente en el Modet, había mogollón de peña, se ligaba... Se supone {risas}. Ahí íbamos con los de Gaytasuna, con mi novio alguna vez... {¿Cómo estabais ahí? ¿Como en casa?} Bah, sí, sí, sí... (...) Claro, íbamos ahí... podía ir, pero me sigue sin

¹⁴¹ Kontakizun ohikoena New Yorkeko Stonewall Inn tabernarena da, Martin Dubermanek (2018) era zabalean kontatzen duena. San Frantziskoko Compton Cafeteriaren inguruan Susan Strykerrek (2017) idatzitakoa norabide antzerakoan doa, hala nola Leslie Feinbergen “Mari-mutil handi baten bluesa” (2018). Hirurek ala hirurek EEBBn testuinguruko ambienteak deskribatzen dituzte, LGTB* jendearentzat zuten garrantzia azpimarratuz, baina baita ezkututzen zituzten gauza ez-hain-ederrak azalduz: taberna eta kafetegi horiek askotan ez ziren LGTB* jendeak kudeatuak, baizik eta jende horien topatzeko eta babesteko beharrezko negozioko egoitza maila etiko aldakorreko jendeenak (hasi tabernari sinpleetatik eta mafiaraino). Espainiar estatuaren testuinguruan Alberto Mirak (2008) edo Ricardo Llamas eta Paco Vidartek (2000) inguratu dute gai hori, beste askoren artean. Euskal esparruan ez dago horren aztertua ambienteak izan duen papera eta bere berezitasunak.

gustar a veces el... cada uno que haga lo que quiera, pero ahora no me pillas en una manifestación en Madrid el 28J. Ni loco. Ya he ido, ya he visto, las carrozas, el espectáculo... Ahora me la refanfinfla un poco, si te digo la verdad. Ahora, con la militancia marica tampoco es que haga mucho, si te digo la verdad. En el día a día, si tengo que decir algo, lo digo, pero... [Kepa]

Anbientea herri mugimenduen iruditegiarekin talka egiten duen gay kulturaren aspektu hedonista eta kontsumistekin identifikatzen da. Maiz espektakuluarekin lotzen da: ekainak 28ko manifestazioa edo hiri handietako ambiente guneak inoiz ikusi beharreko ikuskizuna dira. Manifestazioaren kasuan, gainera, herri mugimenduetan hain ohikoa ez den mobilizazio ereduak ikusi dezakegu, festan eta umorean oinarritua, askotan ikuspegi komertzialarekin lotuta ere¹⁴². Manifestazioaz harago, LGTB* mugimenduen inguruan daukagun ideia herri mugimendu mistoen neurgailuarekin neurtuz eraikitzen da:

Eeee, zen, o sea, nik neukan irudia zen marika koadrila bat, roilo despektiboan. Beste batzuk gehiago: Gehitukoak ya, yo les tenía como maricas perdidos, ya otro nivel. Baina bai, eta orduan zen, puf, nik uste, retxazo hori oraindik ere, nahiz eta onartu, retxazo hori de «yo no soy así». Ez dakit, baneukan gogoa, jo, ba igual sartuko nintzake hor, aparte ezagutuko dudalako jendea ere bai nire egoera berean egon daitekeena, txarto pasa duena edo... Eta ez dut uste nik oso txarto pasa dudarik e, nirea izan da bastante horrela. Baina bestalde zegoen baita ere, no me... Igual zen, ez identifikatzea, igual, kolektibo horiekin... ez dakit zer izan zitekeen, baina bai. Baina bueno, gero, hasi naizen arte apur bat horren inguruan kontzientziatzen (...) Guk ikusten genituen, eta batez ere Gehitukoak, ikusten genituen como esas maricas que tal que cual, ez zenituen ikusten, kolektibo horiek ez zenituen ikusten Gazte Asanblada bat edo beste erakunde bat ikusten duzun moduan, ez zenuen imajinatzen jende horrek mahai baten inguruan bildu eta bilera luzeak egiten zituztela, ez direlako ados jartzen ez dakit zeren inguruan. Eta seguru egiten zutela ere bai, egongo zirela hor... (editatua: sistemak asimilatutakoak bezala ikusten nituen GEHITUkoak. Koadrila de marikas que se juntan para hacer mariconadas y nada politizadas. EHGAMekoak berriz beste modu batean ikusten nituen). [Ernesto]

142 Azken urteotan enpresa pribatuen presentzia areagotu egin da mobilizazio hauetan, bereziki ekainak 28ko harrotasunaren ingurukoetan. Mugimendu askok inizatiba komertzial hauei aurre egiteko estrategia jarri dituzte martxan, manifestazioetan bloke alternatiboak konbokatuz edo, kasu batzuetan, bestelako mobilizazioak deituz. Tesiaren laugarren atalean hitz egingo dut honi buruz.


Ekintzaile honek ere LGTB* politikak hedonismoarekin lotzen ditu eta gainera “marika” hitzaren iragana eta oraina argi eta garbi azaltzen da bere hitzetan. Bere garaian, mugimendukoak “marika kuadrilla” bat zela esatea ia-ia despektiboa zen, ekimen despolitizatuak egiten zituen talde bat, herri mugimenduetan politikotzat jotzen denaren mugetatik kanpo kokatzen zirenak. Gaur egun, Ernestok bere jarrera aurreiritziaren ondorioa zela uste du, kasik homofobiaren ispilu bat. Pasarte honek berriz ere gaizki pasatzearen ideiarekiko anibalentzia dakar: LGTB* talde batean egotearen abantailak min horiek partekatzearekin lotzen ditu, baina aldi berean ez du bere esperientzia pertsonala bertan kokatzen. Minak eta kalteak LGTB* komunitatea batzen du, baina zauritu bezala identifikatzea ez da horren erraza. LGTB* antolakunde horien jarduteko moduak beste prisma batetik ikusi eta positiboki baloratzen ditu ekintzaile honek egun, halako kolektibo baten bilera batean lehen aldiz parte hartu zueneko gogoratzen duenean:

Baina bai, bai, ikusi, gogoan dut {Kitzikanen} bilera bat. Pentsatu nuen jendeak hitz egiten zuela askeago, edo esaten zuela pentsatzen zuena: ni egon naizen beste leku batzuetan baino bai. Iguar izan daiteke jendearen hori, bizitzeko modua, egiten duen bizitza ere. [Ernesto]

Mugimendu bakoitzak gauza ezberdinak eskaintzen dizkie bere parte-hartzaileei: batzuek politikagintzaren orube barrutik jokatzearen sentsazioa eskaintzen dute, beren burua espazio politiko eraginkor eta esanguratsu bezala irudikatuz; besteek taldean egoteko forma ezberdin bat, egitura eta giro lausoagoak. Ekintzaileak komunitate eta giro ezberdinen teilakatze espazio horietan bizi diren heinean talde bakoitzean beren nortasunen alor bat edo bestea gehiago asetzeko aukera topatu dezakete.

Hasieratik esan dut subjektuen esperientzian mundu sozial ugari gurutzatzen direla eta ia ezinezkoa dela identifikazio erreferentziatzat komunitate bakarra izatea. Nahasmen horrek komunitatearen ideian arrakala irekitzen du, izan ere, komunitatea definitzen duen galdera nagusia “nor gara gu?” da beharbada, baina subjektu bakoitzak galdera horri erantzun ezberdinak emango dizkio une eta leku bakoitzean habitatzen dituen espazioen arabera. Horrek ez du esan nahi nortasun kolektibo eta komunitarioak erabat lurrunkorrak direnik; era erlatiboan bada ere, egonkorak dira. Baina egonkortasun hori elementu ugari osatzen dute, pertenezia eta komunitate sentimendu anitzek. Azken finean, galdera bakarrera sinplifikatzea zaila delako, nor garen galdetu dezakegun moduan itaundu dezakegulako zertarako garen, noiz arte, edo norekin garen/gauden. Komunitatea elkartze bat bada, bere unitateak subjektuak direla pentsa dezakegu, baina banako bakoitzak badu bere baitan eszizio bat (Braidotti 2000; Passerini 2006).

11. ILUSTRAZIOA: MUNDU SOZIALEN MAPA III



Ikerketan parte hartu dutenetako asko herri mugimendu mistoen babesean sortzen den *ni* militantearen eta LGBT* giro eta mugimenduetan egikaritzen den nortasun kolektiboaren arteko marruskadura guneetan daude eta subjektibotasun politiko horiek komunitateen arteko elkarguneetan eraikitzen dituzte (ikus 11. ilustrazioa). LGBT* kolektiboarekiko kidesasuna, sexualitate edo genero bizi nortasun ez-normatiboen bidez sortzen dena, herri mugimenduetan

sortzen den kidesasunarekin gurutzatzen da. Pentsa daiteke lehen kidesasun forma zurrunagoa edo finkoagoa dela, izan ere sexualitate eta genero bizi nortasunak gurekin datoz edonora goazela ere eta mugimenduetan parte hartzea konpromiso ideologiko maiz aldakorragoaren menpe dago. Aitzitik, paradoxikoa bada ere, sexualitateekiko identifikazioa herri mugimenduekiko baina ahulagoa izan daiteke. Mugimenduetako printzipio eta balio batzuekin identifikatzeak LGBT* komunitatearekiko identifikazioa ahulagoa izatea ekarri dezake, lehenago azaldu dudana bezala, LGBT* kulturak islatzen dituen baloreekiko disonantzia dagoelako.

LGBT* mugimenduen eta herri mugimendu mistoen arteko gunea ere gatazkatsua da. Kasu honetan tentsioa militantziaren izaera politikoaren ingurukoa da eta bi interpretazio lerro irekitzen ditu. Alde batetik, LGBT* mugimenduaren barruan dagoen banaketa aipatu behar da, mugimenduetako batzuek ikuspegi kritiko eta interseksionaletik eta beste batzuek ikuspegi asistentzialista eta asimilazionistatik jarduten dutelako¹⁴³. Bestetik, herri mugimendu gehienek iruditegi eta jarduteko moduak maskulinitatearen estandarretatik eraiki dira: efizientzia, seriotasuna, arrazionaltasuna, indarra, pertsonala albora uztea eta abar (Azpiazu Carballo 2017:75-114). Logika horien arabera, LGBT* talde gehienak ez dira serioak ez eta nahikoa politikoak ere.

143 Banaketa hau askoz konplexuagoa da. Hemen oso era zabarrean irudikatu dudana arren, laugarren kapituluaren sakonago arituko naiz horren inguruan.

Aldi berean, LGTB* komunitateko kide izateak ez du LGTB* mugimenduekin bat egitea esan nahi. Lan honek ez du aktibistak ez diren LGTB* pertsonen mugimenduarekiko duten atxikimendua esploratu, baina aholkulari taldearekin egindako saio batean [AT02] horren inguruan jardun genuen eta mugimenduen erdigunean dagoen subjektuak (gizon gay, txuri eta ekonomikoki ahaldunak) komunitate horren eta mugimenduen arteko identifikazioa zaildu dezakeela ondorioztatu genuen. Azken finean, genero eta sexualitate ez-normatiboak dituzten subjektuak LGTB siglekin eta mugimenduekin identifikatzen direnak baino gehiago dira. Mugimenduek maiz egiten duten errepresentazio mugatu horretaz gain, badaude jendarte zabala edozein mugimendu sozialetatik urruntzen duten elementuak ere: aktibismoaren desprestigioa, bake soziala mantentzea ezberdintasun sozialen gainetik, indibidualismo liberalarekiko atxikimendua eta abar. Tentsioa mugimenduak ordezkatu nahi duen komunitate idealaren eta benetako komunitatearen artean kokatzen da beraz, norbere sexualitatea bizitzearen eta politizatzearen artean. Politizazio horren zentzua askotarikoa den heinean, beti izango da arazotsua LGTB* mugimenduek LGTB* komunitatea ordezkatzeko dutela esatea.

Ikerketa honetan parte hartu dutenek, era batean edo bestean, hiru mundu horiek konpartitzen dituzte. Lehenago ere esan dut komunitate batek, gure bizitzan eragiteko, ez duela zertan fisikoki presente egon. Esaterako, parte-hartzaile askok ez dute LGTB* mugimenduetan parte hartu baina beraien subjektibotasun politikoa eraikitzerakoan LGTB* mugimenduak presente egon dira, maiz kontzepzio negatiboetatik (mugimendu ez-serio edo ez-politiko bezala). Kontzepzio horiek, hein handi batean, mugimendu mistoetan parte hartzeak eman dizkie, baina baita LGTB* komunitateko beste kide eta eredu batzuekiko identifikazio eta desidentifikazio jokoak ere. Horrela, hiru munduen arteko muga tentsioak eta argitu gabeko auziak daude, indar magnetikoak bailiran subjektibitate politikoak alde batera edo bestera bultzatzen dituztenak. Horietako bat LGTB* mugimenduaren agenda da, usu bestelako herri mugimenduetan dauden kideentzat identifikatzen eta ulertzen zaila dena. Proposamen multzo identifikaezin edo nahasitzat dute, bereziki agenda egituratu eta finkatuak dituzten mugimenduetan aritzen badira:

Nik, gaur da eguna ez dakidala zeintzuk diren aldarrikapenak. Eta gero, baina hori mugimendu feministarekin ere gertatzen zait, ez ditut ulertzen subjektuaren... Ez ditut ulertzen eztabaida batzuk, eta onartu behar dut ez naizela jarri eztabaidatzera, baina gero eta letra gehiago jartzen zaizkio, transekin ezdakitzere... sindikatuak atera du kartel bat oso queer dena eta sekulako urratsa dela esan didate eta nik onartu egiten dut, baina ez dakit urrats hori den beharrezkoa edo beharrezkoagoa den lantokietan ulertu behar dela homofobia oraindik existitzen dela. Badaukat iritzi bat feminismoaren aurrean eta feminismoan egon daitezkeen aukera ezberdinen aurrean badut hautu politiko bat, baina oraindik ez dut hautu politiko bat egin LGTB mugimenduan. Ez dakit zeintzuk diren korranteak, ez dakit zeintzuk diren talkak. [Alaitz]

Elkarrizketatu honek LGTB* mugimenduaren agenda ulertzeko zailtasunak aipatzen ditu, horretan bere utzikeriak izan dezakeen eragina onartuz, baina akatsa litzateke argitasun falta hori guztia bere interes urriari egoztea. LGTB* mugimenduek, beste mugimendu askok lez, guztiontzat ulertzen erraza ez den konplexutasun kontzeptual eta semantikoa garatu dute azken urteotan, eta analisi gaitasun handiagoa irabazi duten arren, sektore askorekiko urruntzea ekar diezaike, tartean ordezkatu nahi duten komunitatearekikoa. Agendaren argitasunaz gain edukiak ere aintzat hartzekoak dira. Aktibista honek azaltzen duen moduan, talde eta kolektibo ugariak beste horrenbeste ikuspegi eta begirada dakartzate LGTB* politiketara, eta espero izatekoa da gai askoren inguruko iritziz landuak dituzten aktibistek gai horretan ere norekin dauden pentsatu nahi izatea. Agenda eta helburuak era garbian azaltzea ezinbestekoa izan daiteke lerratze hori errazteko.

Mugimendu batean edo bestean parte hartzea mugimendu horrek irudikatzen duen subjektu kolektiboarekiko identifikazio-mailak baldintzatzen du. Epigrafe honetan mugimendu mistoen eta LGTB* mugimenduen arteko bidegurutzeak deskribatzen saiatu naiz, esparru bakoitzak borroka subjektu ezberdina irudikatzen duen heinean LGTB* izanik mugimendu mistoetan militatzen duten aktibisten posizioa konplexua dela argudiatuz. Beren ibilbidea finkatu ahala, herri mugimenduek nortasun kolektiboaren irudikapen hertsia sortzen dituzte, eta irudikapenok ez dute beti bat egiten LGTB* subjektu eta aktibistez dugun irudiarekin. Litekeena da bi irudikapen horien artean sortzen diren identifikazio eta desidentifikazio jokoek LGTB* mugimenduarekiko desidentifikazioa eragitea, eta baita gay, lesbiana edo trans* nortasunekikoa ere. Elementu horiek aztertzean LGTB* pertsonen arteko diferentziak azaleratzen hasi dira. Alde batetik, gay, lesbiana, bisexual edo trans* izatearen arabera identifikazio eta desidentifikazio hori era ezberdinetan artikulatzen da eta, bestetik, genero banaketaren arabera ere. Bestetik, identifikazio hori ezberdina da ere mugimenduen izaera, finkatze maila eta tradizioaren arabera, hain zuzen ere komunitatearekiko atxikimenduak era ezberdinean jokatzen dutelako mugimendu bakoitzean.

Partaidetza komunitarioaren inguruan orain arte esploratu dudan tentsioa herri mugimendu mistoen eta LGTB* mugimenduen artekoa izan den arren, LGTB* komunitateetako kideen eta mugimenduen artekoa ere kontuan izaten saiatu naiz. Aspektu horretan sakontzeko aukera laugarren atalean izango dugu, LGTB* politikan aktiboki jarduten duten kideen elkarrizketak lantzerakoan.

Azaleratzen joan diren kontzeptu sentigarrien bidez dagokigun gaia inguratzen ari naiz. Oraindino xehetu ditugun elementu horiek (identifikazioak, babesguneak eta komunitateak) beraien artean loturak dituztela ere erakutsi dute. Esaterako, norbere esperientziaren irakurketa, termino traumatiko edo ez-traumatikoetan egiten dena, komunitate ezberdinek afera horiei onartzen dieten garrantziaren arabera da. Irakurketa horrek baldintzatzen du babesguneen beharra eta gune horiek topatzeko nora jotzen dugun. Mugimendu guztiak dira nolabaiteko babesgune, baina babes behar espezifikoaren arabera, nahikoa izango dira mugimendu mistoak ala “gure antzekoen” mugimenduak beharko ditugu.

Mugimendu mistoen barruan bizitako esperientzia ere ez da kasu guztietan berdina: batzuetan gure esperientzia besteekin konpartitu eta landu dezakegu, beste batzuetan gure sexualitate eta genero biziortasunen presentzia minimoa edo hutsala da. Kasu horietan, isiltasunak zeresan handia izan ohi du, eta litekeena da segurtasunaren ordainsaria izatea. Hurrengo atalean, isiltasunaren dimentsio ugariak aletzen saiatuko naiz.

3.2.4 ISILTASUNAREN UR UHERRAK

Se me dirá que callarse no es un hecho, que es una omisión. No estoy de acuerdo. Al menos en nuestro caso callarnos fue exactamente un hecho, un acto, un ejercicio de intimidad. También no callarse es un acto. Y hay que elegir

Belén Gopegui “Tocarnos la cara” (Anagrama, 1995).

Atara zarata

(Markos Gimeno Vesga, palindromista).

Musika jo eta entzuteari denbora asko dedikatu diodan heinean, nahiko garbi daukat ez dagoela isiltasunik. Gaur egun entzuten eta jotzen dudana musika gehiena anplifikatua da, aparatu elektrikoetatik pasatzen da nire belarrietara heldu orduko edo, hobe esanda, heldu dadin; izan entsegu lokalean edo zuzeneko emanaldi batean, aparailu horiek guztiek notarik jotzen ez denean ere zarata egiten dute, hondoko marmarra sortuz. Beste musikariek edo bakarka jendaurrean jotzen dudanean isiltasuna ondo maniatu beharreko elementua da, izan ere, abestien artean uzten den hutsune hori, isiltasuna deitzen duguna, ez dago benetan hutsik eta ezkutuan dauden elementu horiek emanaldiaren dinamika zein magia hautsi ditzakete. Taldea isiltzen da, baina aretoa ez, eta bizi garen kinadaz betetako munduan musikak eskaintzen duen murgiltzea oso hauskorra da. Musika sortzen duenak isiltasuna borrokatu behar du maiz, baina ez hura txarra delako, baizik eta isiltasuna ezinezkoa den heinean musikariak transmititu nahi duena desitxuratu dezaketen elementuak agertzen direlako isiltasunean: berpizten den elkarrizketa bat, telefono dei bat, erortzen den edalontzia, ondo adituz gero itogarria bilakatu daitekeen publikoaren arnas sotila. Bada

hamarkada bat baino gehiago “después de nunca¹⁴⁴” taldearekin jotzeari utzi niola, baina gogoan dut gure estrategia kontzertuetan isilunerik ez uztea zela, kantuen arteko zubiak eraikiz, elementu oso txikiakin bazen ere. Nagusiki, isiltasunak agerian uzten dituen zaratek gure esperientzia propioa disolbatzea saihesteko estrategia zen, kontzertuaren “barruan” jarraitzen laguntzen ziguna.

Musikaren kontzepzio sakratutik musika herrikoira doan bidearen erdian publikoaren isiltasuna exijitzen duen musikaren kontzepzio burgesa kokatu dezakegu, goi kulturako musikatik – klasikotik – zetorren ohitura bestelako espazioetara zabaldu zuena. Kontzertuetan jendea hitz eta pitz entzuteak ernegatzen nauen neurri berean, jakin badakit musika herrikoian publikoaren isiltasuna – eta arreta – ez zirela egintzat ematen, irabazi egin behar ziren, aitzitik. Hor dago Maurizia Aldaiturriagaren kasua, abesteko estilo gordina garatu zuena, ahotsaren bolumena erabiliz plaza berean beste hainbat trikitilari bikoterekiko konpetentzian publikoaren jakingura bereganatzeko (Paya eta Paia 2008). Isiltasunik ezean zarata dago, eta zarata soberakintzat ala informazioa ematen digun elementutzat hartu dezakegu. Damon Krukowskik (2017) musikaren digitalizazio prozesuak zaratari egindakoa aztertu du, musikari gisa izandako esperientziatik abiatuz. Soinuak 0 eta 1etan biltzeko gaitasuna sortu eta garatu denetik, musika munduaren joera zarata desagerraraztea izan da: grabaketetan zein zuzeneko emanaldietan soinua gero eta gertuago dago *inolako interferentziarik egon ezean* izango litzakeenetik, gero eta puruagoa, gardenagoa. Musika inguratzen duten beste aspektu batzuetan izandako aldaketak ere, hala nola disko fisikoen edizioa murriztea azalik eta formatu fisikorik ez duten edizioen alde, norabide horretan doaz. Garbiketa prozesu horretan, ordea, entzuleak zerbait galdu du: zaratak eskaintzen dion informazioa. Eta informazio gabe, zarata gabe, norbanakoaren desorientazioa handitzen da.

Isiltasuna, beraz, ezinezkoa da eta hondoko zaratari arreta jarritz gero, informazio dezente lortu dezakegu. Diskurtsoak aztertzerako orduan, oso lagungarria izan daiteke isiltasunei erreparatzea, esaten ez dena ere diskurtsoaren parte garrantzitsua den heinean¹⁴⁵. Are gehiago, isiltasun horren atzean zer zarata azaleratzen diren jakitea, marmarraren erradiografia egitea, betebeharrak soziologiko garrantzitsua da. Gure ikerketa gaira ekarriz, galdetu genezake: zein da

144 “Después de nunca” Malagan Carlos Desastre eta Emilio Salvatierra musikariek sortu zuten 1998 inguruan. Carlosek Azkoitira emigratu ostean taldeak formazio ezberdinak ezagutu zituen (bikote, hirukote zein laukote moduan, hainbat musikariren kolaborazioekin). 2003 inguruan forma berria eman genion taldeari, boskote formatuan. Hasiera batean taldearen logistikarekin arduratzen nintzen baina progresiboki zuzeneko emanaldietara batu nintzen landa-grabaketak, samplerrak eta sintetizadoreak joz. 2005ean disko labur bat kaleratu genuen eta 2007an luzea grabatu ere, argitaratu gabe, ordea.

145 Tesi hau diskurtso analisisian oinarritu ez den arren, hizkuntza eta hitza pentsatzeko eredu horrek eragina izan du analisia egiterako orduan, halaber. Diskurtso analisiak errealitatearen azterketa kritiko eta kokatua egiteko tresna egokiak ematen dizkigula uste dut (Mendia Azkue eta Biglia 2015) eta, beraz, teknika eta ikusmolde horrek eskura jartzen dizkigun tresnak presente izan ditut datuoi begiratzerako orduan.

herri mugimenduen hondoko zarata? Tesiaren atal hau osatzen duten elkarrizketetan isiltasuna une batean baino gehiagotan azaleratu da eta horri atentzioa eskaintzea ezinbestekoa iruditu zait. Abiapuntu gisa, Keparen hitzak ekarriko ditut, berauek irakurtzerakoan sentitu nuen identifikazioagatik, ziur aski¹⁴⁶.

Callao, quiero decir, oculto, tampoco hacía comentarios de que me gustan las chicas y así. No hacía comentarios. Callaba. (...) hay una fase que sabía que eso era lo que había pero quería cambiar. Decía quiero ser... quería ser normal. Jode, podré tener una chica como los demás, se podrá cambiar... Pero al principio, con 14, 15, sí pensaba eso. El no salir... Una parte un poco de miedo, si lo digo qué va a pasar... Pero luego la realidad es nada, una mierda, quiero decir, que yo no viví nada de eso, al revés. Sorpresa sí pero no he vivido rechazo. Al final es más la película que te vas montando tú, bueno, no, y cómo está la sociedad también. [Kepa]

Parte-hartzaile honen eta nire artean ia hogeituro urteko adin tartea egon arren, kontatzen duenak bat egiten du nire esperientzia propioarekin. Berak isiltasuna ingurune sozial gehienei aplikatzen zien eta nik bereziki punk kontrakulturaren inguruko espazio batzuei, ez preseski espazio bereziki homofoboak zirelako, baizik eta berri xamarrek zirelako niretzat. Gure kontroletik kanpo dauden esparruetan ezagunak zaizkigun esparruetan baino isilago jarduten dugu, baina isiltzeko era ugari dago: Keparen kasuan isiltasunak ezkutatzea eta bere desio sexuala agerian ez uztea dakar. Beste batzuetan, nirean kasu, gune horietako batzuk nire aukera sexualaren jakitun ziren eta beste batzuk ez, baina jakitun ziren horietan ere isiltasuna mantentzen nuen, inor (ni barne) ezeroso ez sentiarazteko.

Testigantzaren bigarren zatian, homofobia oso agerikoa edo bortitza ez den testuinguruan norberaren isiltasunaren arrazoiak ulertzeko ahalegina ageri da. Atzera begiratu eta homofobiarekin izandako esperientzia errepatatzen du: esaterako, desio sexualaren norabidea esplikatzean sorpresa bai, baina mespretxu edo arbuio zuzenik ez du jaso. Zalantza elikatzen duten osagaiak azaleratzen dira, isiltasun hori bere beldurren fruitu dela pentsatzera

¹⁴⁶ 2019ko martxoaren 22 eta 23an Sant Andreu auzoko La Cinetika eta L'Harmonia gune autogestionatuetan ospatu zen "Pa'lante amiga" jaialdian hitzaldia eman nuen, prestaketarako bi urte lehenago Gasteizko Orbain elkartearen Leire Lopez Ziluagarekin emandakoa abiapuntutzat hartuz. *"Maricas y bolleras buscándonos en los arrabales de la escena punk"* izenburua zuen solasaldi horren lehen zirriborroa egiten eta hitzaldia ematearen artean gertatu ziren tesi honetako elkarrizketa gehienak, haien artean punk eszena musikalean era aktiboan parte hartu zuten pertsona batzuenak. Hunkitu egin ninduen hitzaldirako eraikitzen ari nintzen nire esperientziaren kontakizunak eta elkarrizketatu honen hitzek bat egiten zutelatik ikusteak.

daramatenak, gertatuko ez den arren irudikatzen duenaren ondorio, ziur aski homofobiaz pentsatzean lehenago ere aipatu ditudan biktimizazio espresio kanonikoen bila ari garelako. Aitzitik, berehala ohartzen da beldur hori ez duela berak asmatu, baizik eta ingurune sozialak: “*Al final es más la película que te vas montando tú, bueno, no, y cómo está la sociedad también*” [Kepa].

Zentzumenak (ikusmena, entzumenak, dastamena, ukimena, usaimena) zein bere aldetik ulertzeko joera dugu, baina beraien arteko loturak nabarmenak dira eta elkarri eragiten diote modu ugarian. Entzumenak eta ikusmena oso era partikularrean daude erlazionatuta (Toop 2013:55) eta isiltasunaren funtzioetako bat norbera ikusezin bilakatzea da, 4.4.4 epigrafean ikusgaitasunaz hitz egiten dudanean argudiatuko dudako moduan. Hitzaren absentziaren bidez, entzunezin bilakatzeaz gain ikusezin ere egiten gara. Sexualitate eta genero nortasunen kasuan, gai horien inguruan (era abstraktuan bada ere) jarduteak, gure gorputzaren eta izaeraren gaineko susmoa piztu dezake eta gure burua agerian utzi:

(...) tampoco me podía atrever yo a sacar todo siempre, porque «¿Tú por qué estás siempre con estos temas? ¿No serás maricón?». Claro, no quería llegar ahí, entonces, había que jugar con ese instinto de... sacas un tema de vez en cuando, muestras solidaridad... Entonces, para mí más que incómoda, joder, de tensión. Tampoco te voy a decir que estuviera calculando cada cuántas asambleas sacaba el tema para que no se me notara que sacaba el tema, pero tenías que estar con un control. O sea, estrés. [Lía]

Aktibista honen esperientziak gaiaren konplexutasuna ulertzeko argia eskaintzen digu. Deskribatzen duen egoeran, isiltasuna ez da soilik bere genero identitatearekikoa, baizik eta baita gai hori inguratu dezakeen edozerekikoa. Elkarrizketaren puntu horretan, genero trantsizioa egin aurretik parte hartzen zuen kolektiboetan emakumeekin eraikitzen zituen konplizitate sareez ari zitzaidan. Besteek gizon bezala ikusi arren bere genero biziortasuna beste bat zela adierazi nahi ez zuen une horietan, arriskutsua zen beste emakumeekin elkartasuna sortu eta, ondorioz, gizonen arteko konplizitate sareak haustea, horrek agerian jar zezakeelako. Horrek ez du esan nahi kolektiboko besteek bazekitenik agerian jartzen zuena zer zen, bere sexu-joerari egotziko lioketelako (“*no serás maricón*”) berez genero identitatearekin lotura zuena. Larregi dramatizatu gabe, estresa eragiten ziola adierazten du Lía. Kasu honetan ere, isiltasun osoa ezinezkoa da, norberak ezion diolako etengabe eutsi. Hala ere, baliteke isiltzea gudan sortu eta hazten den tendentzia izatea eta gure genero edo sexualitateaz harago beste hainbat kontu isiltzera ere eraman gaitzake, parte hartzen dugun talde edo kolektiboan bizi ditugun ezerosotasunak kasu:

{parte hartu nuen kolektibo batean} Hor ikusten nuen: jende interesgarria egon daiteke, ni ez nago egoerei aurre egiteko, gauzak esateko moduan, baina bueno, pixkat jarraituko dut. Nire kasuan isiltzea izan zen gehiago. {Zer isildu zenuen?} Batetik eztabaida konkretutan diskrepantziak edo beste ideia batzuk. Gero, igual jende bati isiltzeko esan. [Itoiz]

Isiltasuna interpretatu daitekeen pieza musikala da, eta norberaren egoera emozional eta politikoak determinatu ohi du partitura zenbat luzatzen den, eta orobat interpretazio horri zein zentzu, intentzio eta bariazio ematen dizkiogun¹⁴⁷. Aktibistak ez daude beti talde edo kolektiboetan gertatzen direnei aurre egiteko gogoz edo indarrez, eta ez dira beti gertatzen diren egoerez hitz egiteko eta eztabaida irekitzeko indarrak biltzen. Beste parte-hartzaile batek horrela laburtzen du: *“Ez esatea gauzak, hori bai egin dut. Laneko bazkarian, lankideekin, entzutea hau edo beste eta sentitzea bakarrik aurre egiteko komentario horri eta hautatzea: gaur ez dut bataila hau borrokatuko”* [Nadja]. Egunerokoan bataila hori borrokatu nahi izateak aktibisten arteko tentsio maila igotzea, beste kideekiko harremana okertzea eta kolektiboaren barne dinamika eta giroa izorratzen duenaren papera jokatzeko suposatzen du. Askotan feminista izatea festa zapuztea den bezala (Ahmed 2018), norbere kolektibo barruan dauden ezberdinkeria horiek mahai gainean jartzeak ere badu bere ordainsaria.

John Cagerek ere, “4:33” konposatu zuenean bazekien ez dagoela isiltasuna lortzeko aukerarik. Edozein instrumentazioerentzat egokia den pieza horrek irauten dituen lau minutu eta erdi horietan, berezko soinuak gain hartzen du eta ingurunea isilaraztearen ezintasuna nabarmentzen da. Isiltasunaren bilaketa mugara eramanez eta ingurunearengandik isolatzeko prestatuta dagoen kamara batean sartuz gero ere, gure barrunbeen soinua entzun dezakegu (Cage 2007)¹⁴⁸. Isiltasuna erabateko hutsune izatea ezinezkoa bada, zerekin betetzen dira absentsia horiek? Cagen konposaketan bezala, oharkabean pasatzen den egunerokoaren soinuak betetzen ditu isiluneak libre utzitako bazter guztiak. Eta zein da, maila diskurtsiboan, egunerokoaren soinua? Arauaren eta hegemoniaren soinua da, zalantzarik gabe, oharkabean

147 John Cage konposatzaileak 1952an “4:33” musika pieza sortu zuen, notarik gabeko partitura bat, isiltasuna interpretatu eta entzutera bideratua. Bere obra zabala izan arren, paradoxikoki, pieza hau izango da ezagunen egin zuena musika garaikidearen zirkulu intelektualetatik kanpora, ziur aski lanaren izaera tranpatia eta bere interpretazio umoristikoaren eraginez.

148 Cagek “Música Experimental” entseguan Harvard unibertsitatean izandako esperientzia azaltzen du. Bertan isiltasuna “sortzeko” erabiltzen zen kabina batean sartzeko aukera izan zuen eta barruan zegoela bi soinu entzuten zituela esan zion ostean hango soinu-ingeniariari. Alde batetik oso soinu zorrotza eta bestetik oso soinu apala. Ingeniariak azaldu zion soinu zorrotza bere nerbio-sistema zela eta soinu apala bere odolaren jarioa (Cage 2007:7). Gerora hainbatek zalantzan jarri dute hori posiblea denik, gure nerbio-sistema ez delako entzungarria gizakiontzat eta ezta odolaren jarioa ere, ez bada, adibidez, bihotzeko bat edo takikardia bat jasaten ari garela. Batzuen iritziz, beraz, ziur aski Cagerek entzuten zuena “tinnitus” zen (<https://labur.eus/LOoOa>, 2019ko azaroaren 9an kontsultatua).

entzuten dugun hori, sexualitate eta genero nortasun arautu eta normalizatuena. Isiltasunak utzitako hutsuneok bestelako nortasunen baieztapenaren bidez – ageriko zaraten bidez – bete ezean, heterosexualitate eta zis-nortasunaren armoniaz beterik jarraituko du ikus eta entzunezko espazioak. Beste era batera esanda, guk ezer esan ezean besteek gugandik entzungo dutena heterosexualitatea eta esleitutako generoarekiko bategitea dira:

(...) orduan konturatu nintzen esaten ez baduzu... zuk pentsatzen duzu naturaltasun osoz daramazula baina ez da egia, edo esaten duzu edo {jendea} ez da enteratzen. «Zu neska batekin zaude»? «Ez zenekiten? Nik ez dut sekula ezkatatu». Eta hor ikasi nuen... Ez da egia hau nire bizitza pertsonala... Badakizu? Horrelako tranpak egiten ditugula. Errespetu osoz, baina nire ustez tranpak dira: «ez dut zergatik nire bizitza pertsonalaz...» Hori da zure bizitza pertsonala ezkatzen duzula. [Alaitz]

Bizitza pertsonala, kapitalismo liberalak bere bandera nagusi egin duena, subjektuaren eta bere politizazioaren artean kokatzen da hemen. Alaitzek, denborarekin, pribatutasunari beste leku batetik begiratzea erabaki du: ez da jada altxor preziatua, baizik eta isiltasuna bermatzeko tresna, isiluneak normaltasunez betetzen dituen katalizatzailea eta, horregatik, gauzak bere lekuan jarri eta bizitza pribatua ezkatzeari utzi behar zaio. Beste aktibista honek ere horrela uste du: *“Evidentemente, todo el mundo te trata de hetero hasta que tienes que decir lo contrario”* [Kepa]. Inguruneak, beraz, normalizaziora jotzen du eta isiltasunak sexualitatearen inguruko eztabaidaren absentsia islatzen du. Gaiari egoki eusteari begira, aldiz, garrantzitsua da ezbai horren konplexutasunari heltzea, hitz egin nahi baina ezin duten subjektuen figura sinplifikatzeko tentaldiari eutsiz:

{Herri mugimendua berez ez zen oso leku eroso maila horretan, ez da hitz egiten ez da existitzen...} Ya baina nola nik ere ez nion garrantzirik ematen... jo, bestela bazen beste gai bat mahai gainean jartzeko, ze esan dizut hitzaldiak ere antolatzen genituen eta beste baina bueno, igual nire ardua zegoen beste gauza batzuetan, baina igual zen hori baina horretaz ez hitz egiteko topatzen nuen beste zeozer, vete a saber, gure burua batzuetan... nola ez dudan nahi nire gauzez hitz egin ala pues una plataforma en contra de... [Marta]

Martak argi azaltzen digu ez dela errepresioa isiltasuna sortzen duen elementu bakarra, ez behintzat errepresiotzat ohikoan ulertzen duguna. Nahi baino maizago errepresio sexualaz ari garenean bere barneko egiaz jakitun den subjektua irudikatzen dugu, egia hori azaleratu nahi ez eta ezkutuan mantentzeko ahalegin kontzientea egiten duena. Ikuspegi horrek ez du sexualitate erregimen eta sistemen izaera produktiboa kontuan hartzen (Foucault 2005) eta egiazat ematen du gay edo lesbiana subjektua aldeztirik existitzen dela baina, ingurunearen eraginez, isilik dagoela. Bai eta ez. Ikusi dugu ingurunearen eragina nabaria dela

isiltasunak ekoiztu eta, bereziki, isiltasunaren espazioak normaltasunez betetzerakoan, baina horrek ez gaitu sexualitateen ikuspegi teleologikoa onartzera eraman behar. Ekintzaile honek argi uzten duen moduan (*“gure burua batzuetan...”*) ez dugu jakiterik sexualitate hori erreprimetua ala sortze prozesuan zegoen. Hala ere interesgarria da Martak ekarri digun ideari atea irekitzea: mugimenduetan hitz egiteko indarrak biltzea zaila da, baina horretaz gain ez dago argi gure buruarekin hitz egiteko gogoia dugunetz, eta aktibismoa areagotzea eztabaida hori isilarazteko beste era bat izan daiteke.

Hortaz, eraikitzen ari den subjektuaz ari gara, ez bere joera edo desioa argi duen eta era kontzientean isilarazten duen subjektuaz. Subjektibitatea eraikitzerakoan, herri mugimenduen espazioa, beste askoren artean, prozesu horren agerlekua da eta norbanakoaren barne foroan gertatzen den eztabaidak ez luke zentzurik espazio horiek gabe, ez dagoelako barne mailarik kanpikorik gabe, agertoki gabeko antzokirik ez dagoen bezala. Hari horretatik tiraka, oso zaila da ezberdintzea ze unetan ari garen gure kabuz isiltzen eta ze unetan isilarazten gaituen inguruneak. Galdera horren bidegurutzetik ateratzea zailagoa da ingurune hori guk aukeratutakoa eta sakonki esanguratsua denean:

Aber, herri mugimenduetan ez naizela inoiz deseroso sentitu... Ez dut uste inork ez didanik ahotsa eman, baina aldiz bai ikusi dut, eta igual gure utzikeriaren ondorioa da, heterosexismoaren hegemonia, baina bai gai asko jorrazten ditugunean LGTB jendea gaudela ez da kontuan hartzen, eta guk ere ez ditugu aipatzen (...) gainera uste dut gero, militante LGTB eta militante feministak beti dira «carne de cañón que se comen todos los marrones», gainera errekonozimendurik ez edukitzeko... Baina nik uste dut guk ere hartu beharko genukeela momenturen batean megafonoa-edo, eta hasi aipatzen gauza horiek. [Nadja]

Herri mugimenduetan ere arau heterosexuala errealtate ukaezina dela uste du Nadjak eta, horrez gain, bere esperientziaren arabera, militante LGTB* eta feministek nahi baino maizago mugimendu mistoetan errekonozimendu gutxiko lan handiak hartzen dituztela iritzi dio, baina nahiago du harria pareko teilatuan ez utzi: LGTB* pertsonen ardura ere bada isiltasun hori haustea. Galdera zaila da: nola lortu errealtate batzuen inguruko isiltasuna haustea mugimenduan bigarren mailako posizioa izanik? Beste elkarrizketatu honek, ordea, argi du ingurunearen presioa gogorra dela batzuetan eta egoera deserosoak ekiditeko aukera bakarra isiltasuna dela maiz: *“no tienes ningún apoyo, tienes que enfrentarte tú sólo o callarte”* [Joseba]. Bakarrik aurre egin edo isiltzearen arteko hautua egitea ez da erraza eta elementu ugariren menpe dago: norberaren egoera pertsonala, inguruan dituen babes sareak, kolektiboak gai horien inguruan hitz egiteko espazioak izatea edo taldearen antolaketa moduak (León 2018:165). Kasu askotan, pieza korala den heinean, isiltasuna elkarrekin eraikitzen da. Herri mugimenduekin lotura zuzenik ez duen arren, pasarte hau ekarri nahi izan dut isiltasunaren inguruko atal honetara, esanguratsua iruditzen zaidalako:

(...) nik kontatu nahi nion nire aitari (...) bere lehengusinarekin oso harreman ona zuen eta lehengusina hori bollera zen (...) lehengusinaren inguruan justu urte horretan entzun nuen, Avilan bizi zela, medikua zela, neska batekin ibiltzen zela... Baina asko ez zen aipatzen horren inguruan. Nik aitari esan nahi nion. Pentsatu nuen: berak lehengusina asko maite zuen eta ni ere maiteko nau. Eta orduan momentu batean, geunden aita eta biok sukaldean eta aita zerbait esan behar dizut, eta hasi nintzen negarrez, eta «ze, zure neskatik ari zara? Ez da ezer gertatzen maitia». Hori izan zen. Ez nion ezta esan, baina berak bazekien zer gertatzen ari zen. Gero nire amarekin askoz aldrebesatuagoa eta oso gaizki. [Nadja]

Testigantza honetan isiltasuna inposizioa baino onarpena da, parekoari azalpenik ez eskatzean oinarritzen dena: alaba lesbianari esplikazioak eman beharraren ataka ekiditeko, isiltasuna nahikotzat jotzen da. Hala ere, isiltasun horrek badu ondoriorik: tesitura horretan lasaigarria da, baina bestalde hutsunea sortzen du. Familien barruan ohikoa den gertaera hori herri mugimenduetara ekarriz gero, isiltasun forma ugarien artean ezberdintzeko zailtasunak agerikoak egingo zaizkigu. Azken finean, nola jakingo dugu isiltasun tazitu horrek gure alde edo kontra jotzen duen, alegia, etengabe azalpenak eman beharraren lana aurreztu nahi zaigun ala normatibotasuna elikatzen ari garen? Izan ere, isiltasunak ekuazioaren bi aldeetan eragiten du: indiferentziarako eskubidea ematen die arautik kanpoko sexualitate eta genero nortasunei, baina normaltasunaren pribilegioa gorpuzten dutenentzat ezerosoa zaien gaia tratatzetik libratzeko era bat ere bada.

Azpiatal honetan isiltasunaren inguruan jardun dugu, berau esanahiz eta zarataz beteta dagoen gertaeratzat hartuta. Herri mugimenduetan eta aktibista hauek bizi dituzten beste hainbat espaziotan isiltasunak balio ugari hartu ditzakeela ikusi ahal izan dugu: sexualitate eta genero nortasun ez-normatiboek sortzen duten zaugarritasun egoerak kudeatzeko erabiltzen den estrategia kontzientea da batzuetan eta norberak bere buruari, zergatik jakin gabe ere, ezartzen dion egoera beste batzuetan. Edonola ere, elkarrizketaren parte den heinean, isiltasuna elkarrekin eraikitzen dela ikusi ahal izan dugu eta isiltasuna haustea denon ardura izan arren, eginbehar hori diferentzia gorpuzten dutenen eskuetan uztea herri mugimenduen guneak ulertzeko era eskasa litzateke. Atal honen hasieran abestien artean isiltzeak musikariengan sortzen duen bertigoa aipatu dut, baina, paradoxikoki, atala ixteko kontrakoa aipatu nahiko nuke: isiltasuna amaitzeko forma bakarra isiltasunari lekua uztea da, baina ez berezko isiltasun tazituari, zarata berriak entzuteko prest dagoenari baizik. Hain zuzen ere, hurrengo atalean, entzuten ditugun zaraten inguruan jardungo dut, arreta berezia jarritz jatorria gure barnean edo kanpoan ote duten ebaztea zaila den soinuei. Azken finean, sexualitatea barnekoaren eta kanpokoaren muga-esparruan kokatzen den soinua da, batzuetan abarrots, besteetan hondo-zarata.

3.2.5 AUKERAK ETA BAZTERRAK: SEXUALITATEAREN UR UHERRAK

Françoiserekin topo egin nuen berriz, 30 urte beranduago... Oso pertsona sexuala zen. Berak erakutsi zidan homosexualitatea. Dibertigarria zen, estrabagantea, zoragarria; asko gustatzen zitzaidan. Denda ixten genuen igande eguerdian, eta azkar batean kotxerantz joaten ginen eta kanpoaldeko auzotara joan, berak etxe txikitxo bat zeukan han. Hain leku polita zen, eguzkia hain epela zen, eta gu, han, hain biluzik! Azkenean maitasuna gailendu zen. Bere eskua niregan igarri nuenean mundua hankaz gora jarri zitzaidan. Norbere bizitza zeinen era erradikalean aldatu daitekeen esku baten ukituarekin! Plazera beraz emakumeen eskutik ezagutu nuen nik. Hain sinesgaitza zen. Itxura berria nuen, pentsamolde berria, gorputz berria, desira berriak... benetako emakume bilakatu nintzen

Thérèse Clerc, “Les invisibles” dokumentalean (Sébastien Lifshitz, 2012).

2008 urte inguruan, Bartzelonan Ronnie Sundin musikariaren emanaldi bat entzuteko aukera izan nuen¹⁴⁹, baita berarekin solasaldi txiki bat izateko ere. Sundinek loaren alterazio arraro batekin konpartitzen du egunerokoa: berak hizkuntza arruntean azaldu zuen moduan, nolabait esateko bere burmuinaren zati batzuk besteak baino azkarrago esnatzen dira eta, lo egon ondoren, maiz esna baina mugitu ezinik aurkitzen du bere burua. Guztiok noiz edo noiz bizi izan dugun egoera hori – lo gaudela eta ezin garela esnatu amesten dugunekoa – bere kasuan normala baino gehiago luzatu daiteke, zenbait minutuz batzuetan. “Ametsaren paralisia” deritzo eta alterazioaren bertsio larrienak bizi dituztenek pasarte horietan haluzinazioak izan ditzakete, bertan ez dauden irudiak ikusi edo soinuak entzunez. Une horietan, subjektuak ezin du berezi entzuten duen hori benetakoa den ala *bere buruan* dagoen. Musikari suediar honek, ideia horretatik tiraka bere emanaldiak isilunetik oso gertu

149 Kontzertua “El món com a instrument” (“Mundua musika-tresna gisa”) zikloaren barnean kokatzen zen, CGCB kultur zentroak antolatua. Ziklo horretan musika egiteko tresna ohikoen ordez munduan aurkitu ahal diren soinu eta aparatuek erabiltzen zituzten musikari askok parte hartu zuten, tartean landa-grabaketak erabiliz soinu paisaiak sortzen dituen Francisco Lopez musikaria, zikloaren koordinatzailea ere badena. Bereztasun gisa, musikari horiekin kontzertuaren aurretik elkarrizketa izateko aukera izan genuen, haien lana eta asmoak hobe ulertzeko parada izanez. Ronnie Sundinekin izandako solasalдитik atera ditut hemen azaltzen ditudan ideiak. Zikloaren programa osoa hemen dago (<https://labur.eus/7k2s5>) eta Ronnie Sundinen lanen katalogoa hemen ikus daiteke (<https://labur.eus/aWZK7>) (2019ko abenduak 4an kontsultatua).

dauden landa-grabaketak konbinatuz eraikitzen ditu, entzulea ziurgabetasun egoera horretara eramateko asmoz. Nik entzundako emanaldian, gela ilun eta borobil batean hainbat estereo sistema erabili zituen eta zinez esperientzia sakona eta interesgarria izan zen soinuok espazioan kokatzen saiatzea: lehenengo existitzen diren erabaki behar du entzuleak eta, horren ondoren, *non dauden* ebatzi. Zaila da, izan ere, kanpotik datozen zaratak guregana heltzen direnean, era batean edo bestean, gure *barruan* daude.

Aurreko azpiatalean soinuaren inguruko metaforak erabili ditut bizitza sozialean isiltasunak izan dezakeen papera pentsatzeko. Oraingoan, soinuaren inguruan Ronnie Sundinek oparitu zidan esperientzia beste helburu batekin erabili nahiko nuke, preseski barrukoaren eta kanpokoaren artean ezberdintzeko subjektuok ditugun zailtasunez aritzeko. Horretarako LGTB* esperientziaren atal partikular batean zentratuko naiz, hots, sexualitatean. Hau ez da ausazko hautua: bat egiten dut De Lauretisek (2000:168) sexualitatea eta desioa gorputzaren, adimenaren eta bizitza sozialaren arteko bidegurutzean kokatu behar dela dioenean. Sexualitateak, barruan eta kanpoan dagoenaren artean ezberdindu nahian mantentzen gaitu, desiratzen duguna nondik datorren jakin nahian, kokatu nahian. Zergatik gustatzen zait gustuko dudana? Nire sexu-joera bestelakoa litzateke beste ingurune batean banengo? Sexualitateari buruzkoak ikasi egin ditut ala neure-neureak dira? Neureak noiztik?

Bazterrak

Onar dezagun, hipotesi bezala, sexualitatea, desira eta plazera, ezin direla ez barruan ez eta kanpoan ere kokatu¹⁵⁰. Barrukoak misterioa izaten jarraitzen duen heinean, kanpotik hastea abiapuntu egokia izan daiteke eta, analisi horri ekiterakoan, gorpuzten ditugun diferentziek pisu nabarmena hartzen dute, generoaren aldagaiari arreta eskaintzea ezinbesteko bilakatu. Abiapuntu bezala hartuko dugu sexu binarismoa sortzen duen sistema berberak elikatzen dituela sexualitatearen inguruko ezberdintasunak. Ikuspegi feministatik sexualitateei

150 Ahmedek (2014) emozioen politika aztertzen duenean ere, bere lan osoan erabili duen analisi-ereduari eusten dio, berarek barrukoa eta kanpokoaren arteko harremanaren gunean kokatuz, barne-bizitzak eta testuinguruak elkarri eragiten dioten esparruan.

erreparatzean, kezkarik nagusia heterosexualitate egoeretan sortzen den desoreka eta indarkeria izan dira: gizonaen plazer nahia indar kontrolaezin bezala irudikatu da modernitatean eta emakumeena aldiz, ikusezin bilakatu da edo sexualitate maskulinoaren arabera definitu. Ideia horiek eta beste hainbeste ikusaraztearen bidez, mugimendu feministek hamarkadak daramatzate gizon eta emakumeen sexualitateak desnaturalizatu nahian.

Heterosexualitatearen testuingurutik kanpo ere artikulatu behar dira ideia hauek, desio ez-normatiboak ditugun pertsonok ere gure sexualitateak nola eraiki ditugun kritikoki pentsatzeko. Izan ere, gay edo lesbiana izateagatik ez gara sexualitate sexistaren ikasketa prozesuetatik libratu¹⁵¹: plazera genitalera mugatzea, gozamenaren bat-batekotasuna, boterearen erotizazio ez-kontzientea, maskulinitatea aktibotasunarekin eta feminitatea pasibotasunarekin lotzea eta abar luze bat gure kultura sexualen parte garrantzitsua izan dira. Alabaina, lesbianismoaren kasuan sexualitatearen inguruko eztabaida ohikoa izan den arren¹⁵², gay gizonen kasuan ia beti alboratu egin izan da. Paradoxikoki, gizonon kultura homosexualak, sexualitateari dagokionez askoz ikusgarriagoak izan arren, apenas landu dute sexualitatea ikuspegi kritikotik¹⁵³.

Elkarrizketetan azaleratu zen desio sexualaren objektuaren eraikuntzaren auziari erreparatuz, lehen ere formulatutako galdera birformulatu nahi nuke: nola dakigu, sexu-aukerari dagokionez, mutilak ala neskak gustatzen zaizkigun eta, bereziki, aukera hori egonkorra dela? Informalki lehendik hainbat lagunekin komentatua nuen ideia elkarrizketetan ere aurkitzeak atentzioa deitu dit: gizonok tendentzia handiagoa dugu gure desira sexuala egonkortzat hartzeko eta emakumeek erraztasun gehiago haien desira aldakor gisa ulertu eta espresatzeko. Ez da gai makala, beste noizbait adierazi dudana moduan¹⁵⁴ sexualitatea ulertzeko dugun moduak determinatzen duelako LGTB*fobiaren aurrean nola erantzuten dugun eta ze neurri proposatzen ditugun¹⁵⁵.

151 Gai hau tratatzean sinplifikazioak ekidin behar dira. Esaterako, tentagarria da gayok sexualitatearen sozializazio maskulinoa jaso dugula esatea, eta lesbianek, femeninoa. Baina gure sozializazioa ez da soilik sozialki hautematen den generoaren arabera eta, marko kontzeptualean azaldu dudana sexu-genero-sexualitate (eta genero adierazpen) eskemaren arabera, sozializazioa eta jasotako baloreak desplazatu daitezke.

152 Honen erakusgarri izan dira, besteak beste, butch-femme rolen, s/m kulturaren edo emakumeen sexualitate autonomoaren inguruko eztabaidak. Kasurako, ikus (C. S. Vance 1989; Osborne 1993; Platero 2008; Suárez Briones 2014).

153 Salbuespenak gutxi izan dira. Adibide bezala 2015ean publikatu zen *“Consentimiento sexual. Una cosa de... ¿maricas?”* liburuxkan hainbat hausnarketa jasotzen dira (Ezezaguna 2015).

154 2017ko otsailaren 7an, Gasteizko Goiuri jauregian eta Gasteizko jabekuntza eskolak gonbidatuta, eskoletan LGTB*fobia ekiditearen inguruko hitzaldia eman nuen, “Ikasgeletan LGTBifobia prebenitzea eta praktika eraldatzaileak eraikitzea” izenburupean. Besteak beste honen inguruan jardun nuen bertan. Hitzaldia hemen ikusi daiteke <https://labur.eus/IjzT2> (2019ko azaroaren 9an kontsultatua).

Lesbiana eta gayontzat, hainbat arrazoi direla medio, errazagoa izan ohi da gure sexualitatea nortasun edo joeratzat hartzea aukeratzat baino (Coll-Planas 2010). Hasteko, aukeraz ari garenean erabat askea den eta gizakiaren borondatea islatzen duen prozesuaz ari garela pentsatzen dugu, hainbat aukeraren artean erabakitzeaz. Errealitateak ideia hori etengabe ukatzen du, izan ere, egunerokoan hainbat elementuren artean hautatzen dugun arren, hautuak ez dira inoiz bakarka deliberatutako erabaki libreak, baina aukeraren inguruan dugun irudi ideal horrek sexualitatea aukeratu bezala ez ulertzera garamatza. Bestalde, inguruko onarpenak ere badu zeresanik: sexualitate ez-normatiboak betikoak eta ekidinezinak badira, alegia, ez baditugu guk aukeratu, besteek *garen bezala* onartu behar gaituzte halabeharrez, edo errazagoa izango zaie gutxienez. Azkenik, zaila zaigu gure bizitzetan horrenbeste min eta buruhauste eragin dizkigun hori aukeratu egin dugula pentsatzea, logikari jarraituz, min gutxien egiten digun hautua egingo genukeelako.

Aukeratu dugunaren eta garenaren arteko ekuazioa askatzeko inolako asmorik gabe, interesgarria deritzot sexualitateak nola garatu eta kimatzen¹⁵⁶ diren pentsatzeari, berauek emandako errealitate bezala baino prozesu gisa ulertuz. Psikoanalisiak gizakion sexualitatea jatorriz forma anitzekoa dela defendatzen du eta, ideia horretatik tiraka, sexualitateak zuzendu eta finkatzen diren unea haurtzaroan kokatzen du. Sexualitate zuzenaren ikasketa prozesuan haurtzaroa une erabakigarria izan ohi da, beste hainbat arau sozialekin batera sexualitatean ondo eta gaizki dagoena ikasten dugun unea, norabide anitzetan hazi daitezkeen adaxkak kimatzekoa. Elkarrizketatuetako batek honen inguruko pasarte bat kontatu zidan:

Badaukat momentu bat nire bizitzan... une honetan ez dut jada kontatzen traumatiko bezala, baina bai momentu horretan izan zela traumatikoa, 8 edo 9 urte genituela joaten nintzen eskola kontzertatu batera eta oso laguna nintzen hiru neskena, eta beste hiru mutilena, eta gure jolasa zen futbol zelaiko atzeko gradaren atzera, eta kentzen genituen prakak edo gonak eta ibiltzen ginen jolasten, eta egun batean etorri zen eskolako apaiza edo... eta hurrengoa izan zen

155 Fondoko afera hori sexualitatearen eta genero nortasunaren inguruan egiten den aktibismoak hartzen dituen bide ezberdinen atzean dago. Adibidez, sexualitateak egonkor eta betierekoak direla uste badugu, gure aktibismoak joera horiekiko errespetua aldarrikatuko du eta, aldiz, desioa eraikia bezala ulertzen badugu, gure ekintzailtzak helburu sortzaileagoak izan ditzake. Tesiaren laugarren kapituluan gai honen inguruan sakonduko dut, aktibismo lesbianistaren inguruko analisisan.

156 Azpiatal honen hasieran zitatu dudana "Les Invisibles" (Lifshitz 2012) dokumentalak frantses estatuko adin nagusiko gay eta lesbianen bizitzak kontatzen ditu. Lesbiana haietako baten hitzek kimaketaren ideia ondo adierazten dute: "*Berehala konturatu nintzen urte luzetarako giltzapetua nengoela. Min arraroa zen, ez nion inoiz izenik jarri. Ez nintzen inoiz gai izan hitzez adierazteko. Nire desiraren zati bat errotik moztua zen hilik zegoen, asesinatua. Freud maiteak zioen sexualitate forma anitzekotik gure gurasoek konformista txikiak izatera eramán gintuzten. Gure desirak ezabatzen erakutsi ziguten. Urteak behar izan nituen hori ulertzeko*" (Lifshitz 2012).

asteburuan nire aitak, etxean, bronka eta ia egun bakarra aitak jarri zidala eskua gainean eta gainera mina emateko benetan, eta «de mayor vas a ser puta, eso no se hace, no se bajan las bragas» eta hartu zuen uhala eta utzi zidan ipurdia astebete edo gehiago ezin nintzela ezta eseri. Eta nik hor ez nuen ezberdintzen neskekin edo mutilekin edo zer, eta gero jarraitu genuen egiten jolas horiek, eta gainera gero neskekin askotan mahai baten azpian eta han ibiltzen ginen hirunaka, binaka, segun eguna. Gerora bai ikusten duzu nerabezarora heltzen zarenean igual que te molaban las tías pero que eso no lo podías decir. Gehiago izan zen... nik jakin dut betidanik desira hori egon dela, egin izan dut ezkutatu askotan nere burua babesteko ziurrenik, eta une batean ikusi dudanean euki dudala ingurua, euki dudala aukera, askatasuna hori egiteko... [Nadja]

Nadjaren haurtzaroko oroitzapen honetan, badirudi jasotako zigorra sexualitatearekin berarekin lotzen dela hartu dezakeen joera edo norabidearekin baino, baina, zehatzago begiratu gero, osagai ugari aurkituko ditugu, eta sexualitatearen erregulazio aparatuen makineria osoa. Sexualitatea tentuz hartu beharreko gaia dela irakatsi nahi dio aitak eta horretarako genero araua erabiltzen du, puta izatearen estigmaren mehatxuaren bidez. Esaten dion esaldiak oso garbi adierazten du identitatearen eta inguruaren eraginaren arteko harremana nola egikaritzen den: arazoa ez da nagusitan *putatzat* hartuko zaituztela, puta *izango zarela* baizik. Sexu joeraren inguruan isiltasuna gailentzen da, ez dago lesbiana bihurtuko den mehatxurik. Beranduago, nerabezaroen, desio haiek interpretatu zituen eta ez du argi esaterik orduan jada neskak gustukoak zituenetz, baina desio horren presentzia aitortzen du, eta horri bide eman edo ez inguruak baldintzatu zuela adierazten du. Ingurua, askatasuna eta une honetan interesekoa dudana *aukera* aipatzen ditu.

Aukerak

Aukera hitza etengabe errepikatu da beren sexualitateaz hitz egin duten emakume eta lesbianen¹⁵⁷ testigantzetan. Orain arte, aukera hitza bere adiera liberalean azaldu zaigu: bide ezberdinen artean era librean askatasunez hautatzeko prozesu gisa. Testigantza hauetan, ordea, aukerak beste dimentsio bat hartzen du: inguruneak baldintzatua bada ere, bide bat edo bestea esploratzeko gaitasuna adierazten du. Zentzu horretan, oso adiera anbibalentea hartzen du. Desioa gauzatu edo adierazteko baldintza bat da, ala desio horren existitzea posible egiten duen kondizioa?

Ni oso gaztea nintzen lehenengo aldiz neska batekin, bueno, oso gaztea, aber, 14-15 urte neuzkan, eta bai, eta izan zen ba, futboleko inguru horretan, eh, eta hor egia da nire kuadrillan, begira, hor dago beste gauza bat, gogoratzen dut kuadrillako batek kontatu zigula niri, Edurneri eta Mikeli, bueno, hiru laguni kontatu zigun, «jo, uste dut mutilak gustatzen zaizkidal», orduan ba Mikelek, nola nagusiagoa zen pare bat urte, gaztetxean edo ez dakit non antolatu zuen Gehituren hitzaldi bat {barreak} eta joan ginen, mutil hau, Edurne, Mikel eta ni, laurok. Lau lagunak hara, entzutera hitzaldi hori. Eta gero, Mikel ez, baina Edune neska batekin liatu zen, gero ni ere... eta gero inoiz esaten dugu txantxetan, buah hitzaldi horrek aldatu egin gintuen. Txorrada bat da, ez da kasualitatea joan ginela gu ta ez beste batzuk, baina bai... Hor igual hasi nintzen aukera ematen, ze la laugarren DBHrako nik neukan bikotea eta neska zen, eta gainera super maiteminduta egon nintzen, esan nahi dut ez zela izan garai horretako txorrada bat, niretzako oso harreman inportantea izan zen. [Xune]

¹⁵⁷ Emakume eta lesbianak erabiltzen dut hemen parte-hartzaileen artean identifikazioaren inguruan dauden aukera ezberdinak biltzeko. Elkarrizketetan parte hartu dutenen artean gehienak, baina ez denak, emakume bezala identifikatzen ziren. Ekintzaileetako batek emakume bezala identifikatzeaz gain transexual bezala identifikatzeko nahia azpimarratu zuen, hala nola lesbiana bezala. Beste batzuk ere lesbiana bezala identifikatzen ziren, edo praktika bisexualak izan arren uko egiten zioten bisexual bezala identifikatzeari edo inolako etiketarik jartzeari beren sexualitateari. Inork ez zion uko egin, dena dela, lesbiana bezala identifikatua izateari lan honen testuinguruan ez eta ekintza politikoaren alorrean.

Xuneren hitzek zalantza hori gorpuzten dute: hitzaldia entzutera joan ziren beraien sexualitateak bestelakoak zirelako ala hitzaldia entzun, horretaz jardun eta hausnartzeak ireki ziren atea beste emakume batzuekin harremanak izateko? 14 urte inguru zituela ekin zion Xunek futbolari era serioagoan, ekipo batean jolastu eta dinamika egonkorra garatuz. Bere ustetan, giro horrek asko erraztu zion emakumeekin harreman sexual-afektiboak izateko aukera. Kirolaren praktikak eskaintzen zizkion aukeren inguruan hitz egin zuen, kasurako, partiduetara joateko kanpora joan beharraz eta ondorioz herriaren kontroletik kanpo dauden espazioak bisitatzeaz, edo goiz abiatu behararen aitzakiarekin susmorik sortu gabe bere garaiko maitalearekin lo egiteko aitzakia izateaz¹⁵⁸.

Nadja eta Xuneren lekukotasunek genero eta sexualitatearen inguruko arauak elkarri nola eragiten dioten azaltzeko balio dezakete. Lehen kasuan genero estereotipo sexistek muga bezala jokutzen dute sexualitatearentzat, sexurako prestutasuna izatea, kuleroak jaistea, emakumetasun egokia zalantzan jartzea den heinean. Bigarren kasuan, garai horretan eta oraindik ere nagusiki gizonezkookin lotzen den kirola praktikatzuz emakumetasunaren arauak zalantzan jartzen dira eta sexualitatearen esparruan ere ohikoa ez den atea irekitzen da, gorputza erdigunean jartzen duen kirol jardueraren eraginez generoa eta sexualitatea ezegonkortuz (Esteban 2013).

Gizonen kasuan narratibak nahiko ezberdinak izan dira eta elkarrizketatutako batek gaur egun bere sexualitatea aldagarria dela aipatu arren (*“Nik badakit orain norekin ligatuko nukeen, eta pasatzen baldin bada neska bat ba ez naizela fijatuko ba pasatzen da mutil, bat, bai? Baina esate hutsak hori kontraesanak sortzen dizkit niri, porque ez dakit bihar ez den izango ezberdin”* [Markel] gehienek mutilekiko duten erakarpena egonkortzat jo dute. Egonkortasunaren osagaiak ez die soilik gaur eguneko desio eta orientabideei eragin, garrantzizkoa izan da orobat iraganaren eta sexualitatearen genealogia eraikitzeko.

158 Kirol are maskulinizatuagoa den halterofiliaren kariatara, Mari Luz Estebanek antzeko testigantza jasotzen du Ana izeneko informatzaile baten gorputz-ibilbidea lantzen duenean: *“Comenta que, de todas formas, en el ámbito del deporte hay mucha libertad en cuanto a la sexualidad, por los viajes, las relaciones con gente muy diversa y en condiciones un poco al margen de la vida cotidiana”* (Esteban 2013:160)

Aukeraren ideiak pisu handiagoa du emakume eta lesbianen kasuan eta erabiltzen dituzten hitzak ere horrekin lotuta daude. Parte hartzaile batek kanpoko herrialde batean lesbianismo politikoaren espazioak ezagutzean sentitu zuena deskribatu du: “*Para mí fue... yo siempre tengo el recuerdo de que me abrió todas las puertas de lo que soy ahora y de lo que he sido todos estos años*” [Sara]. Berriz ere, aukeratutako metafora atea irekitzearena da, baina sexualitatearen garapena ireki eta ixten diren ateen menpe badago, zeintzuk dira atea ireki ditzaketen giltzak? Arestian aipatu dut espazio feministetan jarduteak sexualitatearen irekiera dispositibo gisara joka dezakeela, eta horri erreferentzia egiten dioten hainbat testigantza aurkitu ditut elkarrizketetan. Hona hemen esanguratsuenetako bat:

Muchas mujeres que han tenido una práctica básicamente heterosexual, hubo un momento en el feminismo, que yo creo que ahora no pasa tanto, donde realmente cualquier mujer podía tener deseos y momentos y vivencias y ser un poco bollera y quedarse ahí o no quedarse. Osea, todo el monte era orégano (...) me encantaba estar en un sitio donde nadie suponía nada, el espacio feminista era un espacio en el que respecto a la orientación sexual nadie suponía nada (...) hubo un momento, o yo por lo menos lo viví así, en el que estaba todo muy abierto. (...) Los espacios informales que han derivado de ahí {en el movimiento feminista} han sido para mí los que me han proporcionado mejores ratos, donde más he ligado, donde mejor me lo he pasado, donde más me ha gustado estar. Y luego el tema de la sororidad feminista-bollera, bollera-feminista (...) grandes momentos de alegría compartida, de estar cantando juntas de estar... muchos momentos... ahí sí que se mezcla mucho el hecho de ser bollera con el feminismo y ha sido donde más feliz he sido, sin ninguna duda. [Pili]

Testigantza honetan feminismoa sexualitatearen dispositibo askatzaile bezala agertzen zaigu eta mugimendu horren zeharkako izaerak paper garrantzitsua jokatzen du. Mugimendu feministak oso esparru ezberdinetan zeuden elementuei erreparatu die eta, haien arteko konexioak ezarri eta kritikoki aztertuz. Afera feminista bezala definitu ditu, besteak beste, gizartearen antolaketa-eredu politikoak, ekonomiaren antolakuntza, espazio sinbolikoak, hezkuntza, sexualitatea edo ingurumenarekiko harremana. Arazotsuak diren elementu horiek eta beste hainbat izendatuz gizartearen instituzioak elkarri loturik aztertzeke gaitasuna izan du feminismoak, errealitate sozialaren maila askotarikoak ere – mikro, meso, makro – haien artean konektatuz. Sexualitatearen inguruan ere halako azterketa egin du eta, nola ez, beren artean ezberdinak eta kontraesankorrak diren analisiak sortu ditu, feminismoa aldi berean pentsamendu korrante bat eta barne mailan desadostasun ugari dituen teoria baita. Baina, nagusiki, teoria eta praktika feministak sexualitatea esparru pribatutik atera du eta lan horrekin jarraitu ahal izan du *queer* teoriak ere. Sexualitatea emakumeen aurkako indarkeriaren esparru bezala ere teorizatu izan da; patriarkatuaren inposizio leku bezala eta zapalkuntza mekanismo gisa teorizatu zuten feminista erradikal ugari. Lerro horretatik

tiraka, eta baita lerro horren kontra ere, ireki ziren 70eko hamarkadatik aurrera hainbeste hedatu diren sexualitatearen inguruko esplorazio feministak mugimenduaren baitan¹⁵⁹. Sexualitatearen aspektu zenbaitek, hala nola ezinbesteko heterosexualitateak, ezkontzak, erreproduzioak edo plazeraren inguruko usteek, eztabaida eta kuestionamendu ugari ekarri dituzte eta, maila intimoan, norbere sexu-aukerak zalantzan jartzeko parada ere izan dira.

Beste mugimendu batzuek ere sortu dituzte norbanakoaren pertzepzio eta jarreretan eragina duten teorizazioak. Kasurako, mugimendu ekologistan ari diren pertsonak beren kontsumoaren inguruko hausnarketa oso sakonak egin izan dituzte, beren bizimoduak erradikalki aldatu asmoz. Hala egin dute euskalgintzak, mugimendu libertarioak, animalismoak edo beste mugimendu batzuek ere. Denek dute beraien parte-hartzaileen bizitza pertsonala eraldatzeko xede eta gaitasuna, baina mugimendu horiek, gehienetan, sexualitatea intimoegitza jo eta eztabaidatik kanpo utzi dute. Sexualitateaz jardutean, pertsonaltzat hartzen denaren alderik intimoena ukitzen ari gara eta sexu joera, desioa eta sexualitateak mobilizatzen dituzten intimitate horien inguruan jardutea ezerosoa izan da, oro har, herri mugimenduen espazioetan. Elementu guzti horiek intimitatetik atera eta bizitza sozialean kokatzen ditugunean lar desjabetuak sentitzen gara, pertsonaltzat genuen zerbait sozialki (ere) determinatua dagoela pentsatzean gure bizitza eta gorputzengan eragiteko gaitasuna murriztua sentitzen dugulako.

Mugimendu feministak heterosexualitatearen inguruko galdera plazaratzeko gaitasuna izan du, desio hori naturala izan ordez hertsaduraz hautatua izan daitekeela planteatuz¹⁶⁰. Galdera hori ireki izanak ez du esan nahi mugimendu feministan posizio zentrala izan duenik eta elkarrizketatuetakoa batzuek horri buruz hitz egin dute, feminismoak heterosexualitatea behar beste kuestionatu ez duela adieraziz¹⁶¹. Hala eta guztiz ere, feminismoa beste mugimendu batzuk baino sakonago joan da norbere desio sexuarean eragiteko planteamenduetan, sexualitatearen dispositibo deserregulatzaile bezala jokatu.

159 Bereziki Estatu Batuetan garaturiko formulazio teorikoak azalduz, Raquel Osbornek feminismo erradikalak sexualitatea ezaugarritzeko moduak sorturiko tentsioak azaltzen ditu, hala nola Adrienne Richen *continuum* lesbianoaren idearen ekarpen eta mugak mugimendu feministan kontsentsuak sortu edo apurtzeko (Osborne 1993:111-125)

160 Noski, Gay mugimenduak ere ideia horri jarraitu zion garai batean, baina azken 20 bat urteotan desioa egonkortzat jo (berezkotzat) eta berau errespetatzean dadin aldarrikatzera jo du gehiago, desio oren eraikuntza zalantzan jartzera baino.

161 2019ko azaroan Durangon ospatu ziren Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan ere, sexualitatearena izan zen aukeratutako bost ardatzetako bat eta mahai horretan hainbat parte-hartzailek ere iritzi hau plazaratu zuten. Mahai-inguruaren bideo osoa hemen dago ikusgai: <https://labur.eus/tYZkS> (2019ko azaroaren 8an kontsultatua).

Emakumeek beste emakume batzuekiko duten desira sexuala ez da nahikoa seriotzat hartu, eta kasu askotan fase edo esperimendazio bezala ezaugarritu da. Sexu-askapenaren ikuspegitik positiboa izan litekeen ulerkera horrek – norbere sexualitatearekin esperimendatzeak, alegia – emakumeen arteko sexualitatearen inguruko iruditegian ondorio negatiboak ere baditu, esperientzia horiei balioa eta seriotasuna kentzen dien heinean. Sexu-aukera horri balioa kentzeko beste era bat emakumeen arteko sexualitatea gizon heterosexualen iruditegi sexualean txertatzea izan da. Kasu horretan sexismoak eragiten duen desoreka argia da: emakume heterosexualen fantasia sexualetan bi gizon elkarrekin sexua izaten ikustea askorentzat kitzikagarria izan arren, ez du iruditegi sozialean halako eraginik izan. Alderantziz, ordea, bai: emakumeen arteko sexualitatea, kultura popularrean, gizonen begiradarentzako elementu gisara birdefinituz, lesbianismoa heterosexualitatearentzat berreskuratu nahi izan da, bere indar eraldatzailea neutralizatu asmoz, bai sexualitatearen ikuspegitik (sexualitate ez-normatiboa ekiditeko) baina baita genero arauen ikuspegitik ere (lesbianismoak gizonetako harremanetan sortzen zuen haustura saihesteko). Amaitzeko, gizonen arteko sexualitatearen mugak oso argiak, zehatzak eta ondo gordetakoak izan dira. Askok esan dute gizonen arteko kontaktuari eta sexualitateari beldurra izatea maskulinitate hegemonikoaren ezaugarrietako bat dela (Connell 1995b; Bonino 2000; 2000): benetako gizon izateko norberak ezin du ez homosexuala, ez femeninoa ez eta autonomia falta duen subjektua (haurra) izan eta horrek, besteak beste, gizonen arteko sexualitatea errezeloz gordetzea eskatzen du, behin zeharkatuz gero berriz pasatu ezin den marra gorri bezala ulertuz (Langarita Adiego 2015). Kondizio horiek, beste askoren artean, azaldu dezakete nola eta zergatik ulertzen den gizonen homosexualitatea finko eta haurtzarotik/jaiotzatik erabakia bezala.

Mugimendu homosexualen estrategiek ere badute zeresana hemen. XX. mendearen lehen erdialdean homosexualitatearen zergatien inguruko eztabaida pil-pilean zegoen, planteamendu psikoanalitikoaren eskutik, diziplina hau bere gailurrean zela. Gizarte mailan ikusgaitasun handiagoa zuten heinean, gizonak izan ziren eztabaida horren objektu nagusiak, haien kasuan desbideratze sexuala, homosexualitatea, ez zelako emakumeen kasuan bezala sexualitatearen beste gaitz batzuekiko jarraikortasunean ulertu. Emakumeen kasuan histeria, frigidositasuna eta bestelako gaitzen *espresio* bezala tratatu zen lesbianismoa; gizonen kasuan homosexualitatea eta umekiko erakarpena – garai horretan ere oso lotutzat jotzen zirenak – izan ziren sexualitatearekin lotzen ziren gaitz ia bakarrak. Psikologiaren esparruan sortu ziren teoria ugariak iruditegi popularrean eragin handia izan zuten: amarekin harreman estuegia zuten umeak homosexualak zirela nagusitan, aitaren figura garbi ez zutenak eta abar. Testuinguru horretan mugimendu askoren helburua uste horiek alboratzea izan zen, eta horretarako askok azalpen esentzialistei eutsi zieten, homosexualitatea jaiotzatik dagoen zerbait bezala azalduz. Hamarkadek aurrera egin ahala fokua homosexualitatearen arazoietatik urrundu zen eta, horrela, eremu diskurtsiboz aldatu zen, medikuntza eta psikologiatik lege eta etikaren esparrura. Eztabaida hori ez dago hain urrun gaur egun transexualitatearen inguruan dagoenetik. Medikuntzaren hainbat diziplinatatik (psikologia,

neurologia edo sexologia klinikotik, adibidez) transexualitatearen arrazoiak azaltzeko ahaleginak egiten ari dira, horretarako azalpen hormonal edo fisiologikoak emanaz. Ildo beretik, transexualitatearen inguruan aktibismoa egiten duten talde eta norbanako batzuk ere, azalpen horiek ontzat jo eta transexualitatea esentzial bezala definitzen dute, norbanakoen ezaugarritzat hartuz egoera sozialen ondorioztat bainoago. Beste une batzuetan azaldu dudan moduan, gertakariak esentzial *edo* eraikitzen jotzeak ziur aski ez digu lagunduko, bi elementuak presente daudelako bizitza sozialean. Edonola ere, azpimarratzekoa da une historiko eta leku bakoitzean sexualitatea edo genero nortasunak eremu diskurtsibo ezberdinetan borrokatu direla, eta transexualitatea eta homosexualitateak jaiotzatik ditugun ezaugarri bezala aurkeztea mugimendu eta subjektu hainbaten estrategia izan dela.

Esentzia eta eraikuntzaren arteko eztabaida antzua dela aipatu dute beste hainbatek ere (Coll-Planas 2010) sexualitatea hain zuzen ere norbanakoaren eta gizartearen arteko esparruan kokatuz, muga-esparru bezala, sozializazioaren eta inkontzientea ez den desioaren arteko area lausoan (De Lauretis 1986; 2000). Desioaren ezaugarri hori, mugan egotearena, zehatzago aztertu nahi badugu, ordea, ezinbestekoa dugu sexualitatearen dispositiboak generoaren arabera eraiki diren formei erreparatzea. Zeregin horri eusteko, testuinguru historiko eta esparru sozial ezberdinetan genero teknologiak nola artikulatu diren deskribatu beharko dugu, era probisionalean bada ere. Lan hau definitu duen herri mugimenduen mundu sozialari dagokionean, desioa egitate finko bezala ulertzea sexu askapeneko mugimendu askoren tresna izan da eta errespetua lortzeko bide bat mugimendu mistoetan dabiltzan LGTB* aktibistentzat. Hainbat arrazoi direla medio, ezinbestekoa da lesbianismoaren kasuari erreparatzea, bereziki mugimendu feministarekin kontaktuan egon diren aktibista eta taldeen kasuan: norbanakoen desioa interpretatu, ulertu eta eraldatzeko tresna kritikoak eskaini ditu alde batetik eta sexualitateen inguruko aldarrikapen eta borroka fokatzeko bide berriak ireki ditzake, bestetik. Desio hori norabide ez normatiboetara irekitzeko, ordea, gune eta une bereziak lagungarriak direla ikusi dugu, bi faktore horiek – desioaren inguruko pertzepzio mugikorragoa izatea eta arauak zalantzan jartzea – lerrokatzen direnean eraldaketak sortzen direlako. Sexualitatearen espaziotik salto egingo dut berriro genero bizi-nortasunari presentzia handiagoa ematen dion eremu zabalagoa eta hurrengo atalean gune eta une berezi horietan berezienak direnetako batzuk aztertuko ditut, herri mugimenduen jardunari loturik sortu daitezkeen salbuespen egoera batzuek subjektibotasunen desegite eta berregitean duten eragina esploratuz.

Fragmentos para dominar el silencio

II

Cuando a la casa del lenguaje se le vuela el tejado y las palabras no guarecen, yo hablo.
Las damas de rojo se extraviaron dentro de sus máscaras aunque regresarán para sollozar entre
flores.

No es muda la muerte. Escucho el canto de los enlutados sellar las hendiduras del silencio.
Escucho tu dulcísimo llanto florecer mi silencio gris.

III

La muerte ha restituido al silencio su prestigio hechizante. Y yo no diré mi poema y yo he de
decirlo.

Aun si el poema (aquí, ahora) no tiene sentido, no tiene destino

Alejandra Pizarnik, "La extracción de la piedra de locura y otros poemas" (Visor, 2005).

Errealitatea lerro zuzen gisara ulertzeko joera dugu, zerbaitek linealtasuna eten ezean denboran luzatzen den narrazioa bailitzan. Narrazio lineal hori ondoen definitzen duen hitza normaltasuna da beharbada. "Force majeure" (Ruben Östlund 2014) pelikula suediarrek familia normal baten istorioa kontatzen du; hain normala non hasieratik ulertzen baita zerbait *arraroa* gertatuko zaiela. Diru arazorik ez duen bikote txuri heterosexual batek umeak eskiatzera daramatza eta, hainbesteko normaltasun zorientsuaren erdian, dena hankaz gora jarriko duen gertakizun txepel bezain erabakigarria biziko du, otordu baten erdian. Hain da ezdeusa jazotzen zaiena, ingurukoek ez dute inolako aldaketarik sumatzen. Baina gertatutakoa aski da haien normaltasuna hausteko eta bikote harremana, familiari buruz duten iritzia eta genero rolen banaketa hankaz gora jartzeko.

Noiz eta nola hausten da normaltasuna? Zerk eraman gaitzake, une zehatz batean, gure identitateak eta ingurunean ditugun posizioak birpentsatzera? Zerk ekarri dezake, adibidez, nortasun edo ideia batekiko identifikazio ahul batetik beste indartsuago batera igarotzea? Egoera berezietan, gure inguruneaz dugun ulerkera eta berau erregulatzen duten arauak zalantzan jartzen diren une horietan, zerbait gertatzen zaie gure sexualitate eta genero nortasunei, eta azpiatal honetan horren inguruan jardun nahi nuke. Izan ere, ikerketan parte

hartu duten hainbatek elkarrizketetara ekarri dituzte egoera bereziak edo mugakoak, salbuespen egoerak, Agambenek (2013) dioen bezala normaltasunaren arauak ulertzeko oso erabilgarriak izan daitezkeenak. Ekintzaile hauek aipatu dituzten egoera eta uneek askotariko efektuak izan zituzten, baina badute ezaugarri bat komunean, haien baitan mugimenduren bat sortzeko gaitasuna, zerbait mugiarazteko boterea.

Fui a Inglaterra y allí pues después de las vicisitudes que para una chavala de pueblo que se acerca... Pues terminé en Leeds y allí conocí a un grupo de lesbianas. Lesbianas y okupas. Y radicales feministas. Bueno, radicales feministas no, radicales lesbianas. Y me hice amiga de ellas, por circunstancias de la vida acabé viviendo un año con ellas en una casa okupa... Para mí fue, yo siempre tengo el recuerdo de que me abrió todas las puertas de lo que soy ahora y de lo que he sido todos estos años. (...) en los pueblos no tenías ese... tenías esa intuición, ese que te gustaba alguna mujer... como siempre... (...) pero no se me pasaba por la cabeza que pudieras... En el pueblo, la cuadrilla mixta, algún noviete, dos, tres... [Sara]

Normaltasuna hausten duten egoeren artean, Sarah azaltzen duenaren moduko borondatezko lekualdatzeak ohiko eta gozoenak dira. Sexualitatearen edo genero biziortasunaren ondorioz lekualdaketa ugari gertatzen dira, LGTB* azpikulturetan “sexilio” moduan ezagutzen direnak¹⁶². Onarpen handiagoren bila herria edo auzoa utzi eta beste edonora egiten diren desplazamendu horien ulerkeran ohikoa da subjektibotasunak alde aurretik egintzat ematen dituen ikuskera: bere sexualitatearen kontzientzia argia duen pertsona da alde egiten duena, gehienetan hiri handiago edo kosmopolitago batera, bere sexualitatea edo genero nortasuna askatasun handiagoz bizitzeko beharrezkoak dituen espazio eta komunitateen bila.

Sexilioaren inguruko narratiba honek gure sexualitate edo genero nortasuna alde aurretik ezaguna zaigula adierazten du, beste edonora joan orduko jada finkatuta dagoela. Kasu askotan horrela izan arren, Xuneren testigantzak ez du soilik ikuspegi horretatik hitz egiten. Lekualdatzeak berak irekitzen ditu ate batzuk eta irekiera horretan eraikitzen da sexualitatea. Ez du esan nahi lehendik ez zegoenik ezer (*“tenías esa intuición, ese que te gustaba alguna mujer... como siempre... (...) pero no se me pasaba por la cabeza que pudieras... En el pueblo, la cuadrilla mixta, algún noviete, dos, tres...”*) baina hipotesia zen horri errealitate estatusa emateak ateak irekitzen dizkio: ez soilik beste emakume batzuekin harreman sexu-afektiboak

162 Nora Mogrovejok (2018:91) sexilioaren inguruko hainbat istorio aztertzen ditu, maiz ezinezko misioa izan daitekeela ondorioztatuz, Nazio Heterosexualak edonora jarraitzen gaituelako.

izateko, baizik eta bere emakumetasuna zalantzan jartzeko eta bere bizitza afektibo zein laguntasunezkoa espazio ez-mistoetan egiteko. Aurreko azpiatalean iradoki dudan bezala, sexualitatea espazio kontingente, ireki eta sakonki politizatu bezala ulertzen denean lesbianismoa ez da erreprimitutako desio pertsonala bakarrik, aukera politiko askatzailea ere bada.

Sexualitate eta genero biziortasunaren ondorioz egiten diren lekualdatzeen inguruko irakurketa zalantzan jarri gabe, narratiba irekiagoei ere lekua egitea proposatu nahiko nuke, alegia, bizitza sozialean hainbat arrazoi direla medio igarotzen ditugun espazio ugariak gure sexualitatea eraikitzean duten eraginaz ere pentsatzea. Berriz ere, helburua ez da natural/eraikitakoa dikotomia elikatzea, baizik eta lerro hori desegin dezaketen elementu berriak gehitzea eskemari.

Maila horretan, lekualdatze oro eskema sozialen eraldaketa bat da, gure erreferentzia eta inguruneak berriz kokatzea eskatzen digun gertaera (Ahmed 2019). Baina zer gertatzen da lekualdatze hori espero ez dugunean? Edo, espero arren, nahi ez dugunean? Euskal Herriko herri mugimenduei, beste herrialde gehienetako mugimenduei bezala, ez zaie arrotza errepresio politikoa eta horren espresio latza den espetxeratzea. Askorentzat presente egon arren, hiru elkarrizketaturen kasuan bereziki zuzena izan da espetxearekiko harremana, beren azalean bizi izan dutelako. Kasu batean intsumisio mugimenduan parte hartu zuen aktibista bat soldaduskari uko egiteagatik espetxeratu zuten eta beste bietan Ezker Abertzalean militantzia politikoa izateagatik. Hiru kasuetan elkarrizketatuek beraien espetxealdia aipatu dute horren inguruko galdera espezifikorik izan gabe, eta hirurak, maila ezberdinetan, espetxealdiari buruz hitz egiteko prest agertu dira.

Eskema sozialen haustura ia erabatekoa suposatzen duen diziplina-erregimenik baldin badago, hori kartzela da. Kartzeletan, instituzio psikiatrikoetan bezala, beste errealitate batekin egiten dugu topo, erabateko salbuespenekoa, arauen ezagutza eta normaltasunaren sentazioa eten egiten baitira. Maila horretan, aktibisten atxiloketa trantsizio gune bezala azaltzen zaigu, ekintzaileek bizi behar duten gune gris bezala, zeinetan dena posible den, testuinguru horretan gertatzen diren tratatu txar eta torturak kasu. Legea bera ere airean etenda dago, zintzilik bezala, eta espazio gris horretatik alde batera edo bestera egin daiteke. Gizartearen araudi *normalera* itzul gaitezke edo epe luzeko salbuespen egoera horretara,

zeinetan araudi berria dagoen, maila guztietan: intimitatearen, hierarkiaren, espazio eta denboraren eta harreman sozialen zentzu berria eta, finean, gure pertsona estatusaren legezko eta araututako degradazioa¹⁶³. Apenas dago aspekturik kartzelak bere horretan utziko duenik, bere zigor eta kontrol sistemak hala eskatzen duelako. Baina zer gertatzen zaie sexualitate eta genero arauari kartzelari? Eta gure identitateari?

Eta orduan bueno nik kideren batekin ere ez ez dut hitz egin horren inguruan ez ezer, ez dakit zergatik... klaro, konplikatua da eta igual dira konplejoak, eh? Bueno, seguru direla konplejoak (...) joe, empiezo yo aquí (...) nire kideekin esaten «ez eske begira, nik ulertzen dut sexualitatea holan edo identitateak holan...» que hubiera sido super divertido pa todo el colectivo {barreak} baina klaro ya konpartitu behar duzu 8 metro karratuko txabolo bat, mutil batekin, no? En un espacio totalmente masculino, machista, itxia, orduan hor nik ez nuen landu edo bueno ez nuen jorratu horren inguruko gairik... ez neukan bikoterik ez ezer, osea orduan, horrek eman zidan... «Bikotea daukazu?», seguramente galdera, aber, osea ez dut gogoratzen zehazki baina bueno podría afirmar kide berri bat neukan bakoitzean galdera zela: «neska daukazu?» osea, ez zen izango «bikotea daukazu», seguru galdera zela «neska daukazu?» ta nire erantzuna ez zen «ez ez daukat neska baina mutila bez», erantzuna zen «ez». Osea sekula ez diot eman eta ez, bu, eta ez... bueno bai, apur bat bai, bai da ezkutatzearen... esan behar nuen ez dela ezkutatzegatik, dela por no dar más información de la que te piden... no, pues claro eso tiene de eso, ezkutatzegatik ere bada. [Markel]

Markelen testigantzak, berriz ere, isiltasuna dakarkigu mahai gainera. Aurreko azpiatalean isiltasunaren presentzia beti konplexua dela nioen eta pasarte honek argi uzten digu hori. Galderak berak (“*neska daukazu?*”) ez du aukera irekirik uzten, eta horren ostean isiltasuna, edo esaldia ez bukatzea da ohikoena. Aktibista honen kasuan, gainera, ez duenez hari eusteko moduko kategoria egonkorrik (elkarrizketaren beste une batzuetan aipatu du ez duela bere sexualitatea “gay” edo “bisexual” bezala era itxian definitzen) jakin badaki azalpen horiek guztiak luzeak eta ulertzeko zailak izango liratekeela. Bikotekiderik ez izatea beste klabe garrantzitsu bat da, ezin duelako berez gertatzen ari den zerbaiten inguruan hitz egin (“mutila dut”) eta horrek desioaz hitz egitera behartuko lukeelako (“mutilak gustatzen zaizkit” edo “neska zein mutilak gustatzen zaizkit”). Areago, bikotekiderik ez izateak bere kartzelako portaera erregulatuko lukeen konpromiso monogamorik izatea ere ekiditen dio (“mutila dut eta beraz zu eta nire artean ez da ezer gertatuko”). Hori dela eta, 8 metro karratuko “txaboloa” (ziega) konpartitzen duenean, mutilekiko desioa adierazteak ingurukoekiko harremana zaildu

163 Nerea Barjolak (2018) Agambenen salbuespenaren inguruan egiten duen irakurketa feminista oso lagungarria izan zait hemen.

diezaioke, gizonei beste gizon batek desiratua sentitzearen ezerosotasuna sortu diezaiekeelako, paniko homosexuala. Isiltasunaren konplexutasun guztia jartzen da mahai gainean hemen: ez esatea ez da ezkutatzea, baina, era batean, bada. Eta berriz ere norberak bere buruarekin du eztabaida: zergatik ez nuen esan? Agian ezkututzen ari nintzen? Isiltasunaren ardura isildu denaren gain erortzen da ostera ere.

Kartzelaren ezaugarri argienetakoa da asigmatutako generoaren arabera – hizkera bitarrear, sexuaren arabera – bereizten den espazioa dela. Mutilak modulu batzuetan eta emakumeak besteetan daude, biak hartzen dituzten espetxeetan. Beste kasu askotan espetxeak beraiek dira gizon edo emakumeentzako eskusiboak. Banaketa hori bera indarkeria mota bat da bai pertsona ez-bitarrentzat bai eta transexual gehientzat. Hala da ikuspegi androzentrikotik antolatzen diren espazioetan bizi behar diren emakumeentzat ere (Ruiz Torrado 2016). Mutilen kasuan, kartzelan maskulinitate hegemonikoaren ezaugarriak indartsuak dira eta sexualitatearen inguruan hitz egiterakoan heterosexualitatearen eskusibotasuna gailentzen da, beste sexualitateak isilaraziz. Euskal Preso Politikoen Kolektiboan (EPPK) parte hartu duen aktibista honek horrela laburtzen du:

(...) niri behin emakume kide batek esan zidan: ze gustura egongo zinateke zu emakumeen moduluan (...) eta nik: «qué razón tienes». Bueno, ez dakit zelan dauden neskak baina mutilen artean bai da gainera mantendu behar duzu irudi hori, osea, zara kolektiboko kide eta mantendu behar duzu zurruntasun hori... Nik hori bizi izan dut (...) Ta sexualitateaz bai hitz egiten da baina, klaro, bikotea daukateneak bisak dituztelako. Eta mutilen arteko komentarioak batzuetan dira... Baina bai dira... zuk entzuten dituzu y dices «mira... que cuadrilla de gilipollas». Espetxean bai dira horiek: «hombreee, habrás venido contento!» osea holako... y no es contento egon zarela bis familiar baten da, porque has echao un casquete después de un mes, osea horrela lantzen da, edo bueno, niri tokatu zaidan urte t'erdi horretan mutilekin, horrela landu izan da, baina gainontzeko gauzak, eh... zaintza... holako beste termino batzuk... cero. [Markel]

Espetxean beste gizonek sexualitateaz hitz egiteko duen moduak ez dio Markeli bere sexualitateaz hitz egiteko konfiantzarik eman. Mutilen arteko konplizitate heterosexualaz harago ez da sexualitateaz hitz egiten eta elkarren zaintza ez da aspektu horretara hedatzen. Espazio banatuetan, gainera, egoera batzuk bereziki ikusgarriak bilakatzen dira. Aktibista honek kartzelan bere lagun batekin ezkon-paperak egin zituen horrek ematen dituen eskubideak, parez-pareko bisitak egitea kasu, eskuratu ahal izateko. Berak bezala, bikoterik ez duen jende askok ezkon-paperak egiten ditu lagun baten, intimitate une horiek harekin partekatzeko, nahiz eta harreman sexualik ez izan.

Joseba etorri zenean espetxea mutilena zen bakarrik, orduan klaro, bis a bisetan geunden: preso mutil guztiak eskumako aldean eta bisitak, hau da dena neskak kenduta Joseba, pasilloan ezkerreko aldean. Orduan klaro, hori jada gainontzeko sozialentzat da: «mira los maricas». Ze noski, dena neskak eta bapatean Joseba itxaroten kolan. Pues es como, vale. Eta hor bai egiten duzu la de «pero si dator lagun bezala que explicaciones tengo que dar» ta dinozu «aber, tranquilizate porque nadie te ha pedido explicaciones». Ya, nadie, baina mundu guztia fijatu da. Edo ez. Ez baina jada, segundu batez bai pentsatzen duzu «mira toda una fila de tías eta mutil bat». [Markel]

Mugaraino erregulaturiko espazio horretan araua itogarria bezain ikusezina da, eta araua betetzen ez duena bereziki ikusgarria bilakatu daiteke. Kartzela-sistemak presoekiko duen zelatatze eredu panoptikoa beste presoen begiradara ere zabaltzen da, intimitate espazioak minimora murriztuz. Horrela, ikusia izan gabe ezer egitea ia ezinezkoa da eta beste presoen begiradak garrantzi handia hartzen du. Berriz ere, barne gatazka pizten da: zer dela eta arduratzen naiz? Norbait ohartuko ote zen? Eta azalpenak eskatzen badizkidate? Baina ez ditu inork eskatu... Mutilen kartzeletan, panorama ez da oso irekia sexualitate ez-normatiboak dituzten gizonentzat, narrazio honek aditzera ematen duenez: sexualitatearen inguruko elkarrizketa gutxi eta estereotipatuak, etengabe agerian sentitzearen sentsazioa, kultura hiper-maskulinizatuak eta abar. Noski, preso bakoitzak bere kartzelaldia du eta beraz egoera partikularra ari gara aztertzen, hain zuzen ere EPPKn antolatuta dauden preso politikoen ingurunean gertatzen dena. Ingurune horrek, kartzeletako beste errealitateetatik isolatuta egon ez arren, beste preso gehien kasuan topatuko ez ditugun kondizio batzuk ditu: antolakuntza maila handiagoa, espetxeko kontuei era kolektiboan aurre egiteko aukera, nola halako diziplina bat, gaitasun ekonomiko minimo bat, kaleko bizitzarekin kontaktu dezentea izatea eskutitz, bisita eta babes-sareen bidez eta abar¹⁶⁴.

EPPKko kide izan zen beste parte-hartzaile hau ere, baina bere kasuan espetxeak sexualitateari dagokionez ekarri zion aldaketa sakona bestelakoa izan zen erabat:

164 Lerro hauek idazten ari naizen unean ezinezkoa zait irakurketa honen inguruan zehaztapena egitea, izan ere elkarrizketa egin eta atal hau idaztearen aretan hiru bat urte pasa dira. Azken urte hauetan Euskal Preso Politikoen Kolektiboan dauden kideen egoera asko aldatu da maila askotan. Adibidez, kale mailan gaiaren inguruan dagoen presio soziala murriztu egin da, gizarte sektore zabalagoen babesa jaso zezaketen espetxeratuak – odol deliturik ez zutenak edo erakunde politikoetan parte hartzeagatik zigortuak – gero eta gutxiago dira eta, kopuruz ere murriztu den heinean, pentsatzea dago kolektiboaren eragin eta antolaketa gaitasuna murriztuko zela. Honek preso politiko askoren egunerokoa dezente zaildu du.

{Beste espazioren bat sentitzen duzu izan dela bereziki inportantea zuretzako konfiantza hartzeko eta esateko ba bai, begira ba niri gustatzen zaizkit emakumeak edo gustatzen zait emakume hau edo...} ...ba justu toki txarrena, espetxea. Azkenean ba bai, gauza onerako eta txarrerako da zure burua ezagutzeko, eta nesken artean zaude, eta nesken gauzei buruz hitz egiten duzu, eta ez dakit, bai, nik uste dut hor soltatu nintzela gehienbat, ez? Baina nire burua askatu nuelako bertan (...) kriston konfiantza hartzen duzu, azkenean lau pareten artean hitz egin dezakezuna edo aske zarenean kalean ba ez dakit, igual aske zarenean beste entretenimendu batzuk daukazu. Eta gero eske kideekin askatu behar zara, benetako... Nik kartzelan kontatu ditut gezurrak... ze posta interbenitua zegoen, pues todo chorradas. Ez nintzen gai kartetan esateko benetan... bueno batzuetan bai, pasatzen genituen batzuetan. Baina berez interbenituta zeudenez, nik amaitu nuen postal txikiak idazten: kaixo zer moduz, hemen gabiltza ta listo. Baina han hitz egiten duzu, pila bat, ordu pila bat daukazu. Orduan, barre, negar, hitz egin,... niretzako sekulako eragina... [Marta]

Mutilen kasuan gertatzen denaren kontrara, aktibista honentzat espetxea kideekin irekiagoa izateko parada da. Kanpokoekin komunikazio azalekoa izan arren, espetxeko kideekin sakonera jotzen du eta bere barneko kontuek, tartean emakumeekiko erakarpina, azaleratzera ausartzen da. Martaren narrazioan, “nesken gauzei buruz” hitz egitea zintzotasun ariketa bilakatzen da, aukera ugari zabaltzen dituen mugimendua. Elkarrizketako beste une batzuetan adierazi dit bere ustez horrek ez zuela beste kideekin izandako harremanean eragin, ez zuela inolako mesfidantza edo jarrera urduririk nabaritu bere sexualitateaz era irekian hitz egin zuenean. Mutilekin aktibatzen den paniko homosexualak ez du lekurik bere narrazioan.

Intsumiso izateagatik egon zen espetxean Lía. Barre artean kontatu zidan sartu zutenean jendeak ez zekiela zergatik zegoen espetxean eta, bere egoera ekonomikoa erabateko pobreziazkoa ez zela ikusten zutenean, ETAkoa zela pentsatzen zutela. Berak ez zuen kontrakorik esan tarte batez, nolabaiteko posizio errespetagarria ematen ziolako, edo gutxienez kokatzeko tarte bat. Baina bere bizitza betirako aldatuko duen esperientzia beste bat izan zen:

(...) no decidí dar el paso {de transitar en el género} hasta que no salí de la cárcel, porque ahí tuve una experiencia malísima, malísima de estar a punto de perder la vida porque un tío, bueno al final en una bronca pues se me echa encima, y lo tengo encima de mí, y con la navaja en el cuello, a pesar de haber hecho todos esos talleres {en el movimiento de insumisos} para gestionar la violencia en la cárcel, que normalmente las enfocábamos para gestionar la violencia o el enfrentamiento que nos podían buscar los carceleros por buscarnos la boca, y quizá gracias a esos talleres también, te pones a negociar: «que no... que esto que lo otro» esperando... Luego lo ves y qué gilipollez, alguien que está con un brote con una navaja y tú estás intentando convencerle de que no merece la pena que te corte el cuello, ¿no? Porque tú le has dicho que no

vas a tomarte esas píldoras y no vas a dejar que se aproveche, que los demás tengan relaciones sexuales contigo (...) Y estar peleándomelo con él, además estábamos en la celda, o sea era mi compañero de celda, la celda estaba cerrada, no había nadie que pudiera venir a ayudarte. Hasta que llegó un momento que no sé si fue cinco minutos después de cuando empezó la cosa o tres horas después, yo ya estaba agotada psicológicamente y le pegué un manotazo a la mano y le dije «mira me voy a dormir, si mañana estoy vivo» – todavía no había realizado el tránsito –, «me largo de esta celda, pido otra celda», y automáticamente me dormí, de puro cansancio. Pero automáticamente me dormí que lo siguiente es un segundo después, igual siete horas después, oigo al carcelero cuando abre la cancela para ver si estamos vivos y no nos hemos fugado, y entonces automáticamente como Nosferatu me levanto y salgo y pido un cambio de celda. Entonces digo, «hostia, tienes no sé cuántos años, no has hecho nada, has estado a punto de perder la vida y, joder, por lo menos intenta vivir la vida que es la que te corresponde, no la que te han dicho que te corresponde». Entonces, en cuanto salí empecé a buscar tratamiento. [Lía]

Berriro ere maskulinizaturiko gune horretan gaude, zeinetan emakume transexual honentzat instituzioa bera indarkeria iturri den, gizonen espetxean egon behar izate hutsak erabateko ikusezintasunera edo larregizko esposiziora daramalako. Indarkeria sexual gertakari bortitz honen ondoren, heriotzaren arriskuari muzin egin eta bizitza bera abandonatzeko saioa egiten du. Loa bera da, heriotza txikia, egoeratik ateratzeko aukera bakarra, eta deshumanizazio horretan sortzen da bizitzeko aukera berria. Hain zuzen ere bizitzak axola ez balu bezala, bestearen eskutan utziz bere burua salbatzea lortzen du, eta irauteko desio horren baitan loratzen da bizirauteaz harago, *bizitzeko gogoa*, “*tokatzen zaion bizitza*” bizitzeko beharra, eta ez egotzi zaiona. Esanguratsua da nola, mugako esperientzia honek errealitatearen helduleku denak moldatzeko gaitasuna duen: espazioa eta denbora erabat deformatzen dira eta, gizatasuna nahi eta nahi ez dimentsio horiei loturik egonda, pertsonaren estatusa bera da tarte baterako suspentsoan jartzen dena. Salbuespen horrek, zorionez, aukera berriak irekitzeko gaitasuna ere badu.

Hurrengo aktibista honek ez du kartzelarik zapaldu, zorionez, baina bere testigantzak bestelako salbuespen egoera baten berri ematen digu, heroinaren kontsumoak dakarren errealitate paraleloan bizitzearena. Elkarrizketatu honek hizpide duena ez da erabateko haustura bat, bere narratiban elementu ugari konbinatzen baitira: hainbat drogaren kontsumoa, hazten doan kontzientzia politikoa, aktibismoa eta punk musika eszenan bere taldearekin aktibo egotea. Taldeak 1978 inguruan hasi zuen bere ibilbidea eta 1985 edo 86 arte bere sexualitatea ezkutuan gorde zuen Kepak. Hemen ere ez dago parez-pareko arbuiorik edo erreakzio biolentorik, gertu-gertuan behintzat, koadrilakoen komentario batzuez gain. Baina astiro-astiro hiru elementuotatik (musika, politika, drogen kontsumoa), batek protagonismo berezia hartuko du eta egoera mugarantz gerturatuko da:

Todo este tiempo con el grupo de música y todo eso, nadie en mi grupo sabe nada, que soy maricón, pero ya llega a mitad de... 85-6... Ya les dije también. Lo flipan, no hay ninguna mala relación, osea... no daban crédito «¿ah, sí?» no sé, como que todo les pillaba como «¿ehhhh? No puede ser». Pero no hay ningún rechazo en el grupo, no éramos, no eran especialmente homófobos. La cuadrilla sí puedes oír más comentarios... pero yo no tuve un rechazo de la gente cercana. Vamos que vengo ahí... es que el pueblo... ahí te pica algo y tú ves que con el rock and roll en el pueblo, había poco que hacer. Entonces, pues después del desenganche... Bueno es verdad que con el caballo pasas bastante de todo... Tú única prioridad es ponerte. [Kepa]

Lehentasunak aldatu izana heroinaren kontsumo jarraituak bere normaltasunean sortzen duen arrakala handiena da. Beste dena lausotzen doa eta “jota egotea” (“*ponerte*”) eguneko lehen eta azken asmoa bilakatzen da. Salbuespen egoera horretatik ateratzeko beste salbuespen egoera batera pasatzen da, heroina eta beste droga batzuk uzteko zentro batera doa eta lehenago drogen kontsumoak bere lehentasunak aztoratu bazituen, oraingoan zentroan egoteak bere errealitate guztia, lagunak, gertukoak, musika eta abar suspentsoan jarriko ditu¹⁶⁵. Salbuespen egoera horretatik ordea, berrituta eta guztiz eraldatuta aterako da.

Ese año estaba muy mal. Entonces yo ya me vengo aquí, al proyecto {Proyecto Hombre}. El año siguiente es un año vacío, y luego ya cuando empiezo a tocar calle en la ciudad empiezo a conocer maricas y así. Bueno, conozco allí en el Proyecto otra marica yonki, me empieza a meter en... bueno habían abierto el Modes {bar de ambiente}, cuando ya estoy acabando, en fase de re inserción, ya estaba con mi novio... Ahí empiezo a conocer maricas yonkis, bueno a otro en concreto, que ya murió hace tiempo. Él es el que me empieza a ... Bueno, yo ahí estoy muy emocionado, bueno ya he salido de «ponerme», el tema marica me lo he currado mucho en el Proyecto, salgo bastante empoderado y nadie me va a decir nada por ser marica y entonces quiero hacer algo. Sí es verdad que allí {en el centro de desintoxicación} hago un trabajo personal bastante fuerte y el tema marica buff, me sale muy p’afuera y... Y bueno, ahí es donde empiezo a decidir que me quiero mojar. Eso y la comisión {Antisida} vienen juntas (...) Necesito purgar, necesito poder decir que soy maricón, me molestan mucho los comentarios en las

165 “Proyecto hombre” droga gogorrek eragindako adikzioak gainditzeko programa da. Adikzioa duenak bere eguneroko bizilekua utzi eta zentro espezializatu batean igarotzen ditu droga kontsumoa utzi edo murriztearen ondorio gogorrenak. Halako lekuetan sortzen den isolamendu egoera arazotsua izan daiteke, programak drogen kontsumoa eten nahi dutenak beraien ingurunetik erabat banatzea proposatzen duelako, lagun taldearekiko haustura totala sortuz. Maila horretan, drogak uztea bizimoduz aldatzearekin parekatzen da eta, maiz, normalizazio sozialerako dispositibo bezala funtzionatzen du, erabiltzaileak gustuko dituzten hainbat jarduera – musika, esaterako – utzi eta normalizatuak dauden beste batzuetan – lana, kasurako – inbestitzera bultzatuz.

duchas, y empiezo a comentarlo, todo el mundo sabe que soy maricón allí. La verdad es que me vino muy bien por eso, el trabajo personal de valorarme, de empoderarme... Yo era un poco tímido... En la época del grupo no hablaba, me daba terror hablar ante la gente, en la batería, detrás, siempre decían el bonito del grupo, ahí... Estos eran más «aaaahhahhaa», yo era más... [Kepa]

Bere narratiban, mutileko desio sexuala konstante bat da, betidanik jakin edo sentitu duen zerbait, eta ezkutuan mantentzeak min ematen dio: *“Yo siempre he dicho que nunca reniego de esa época. Yo me lo he pasado genial, lo peor ha sido el lado marica, no haber podido sacar desde el principio esa cosa mía y que estuvo escondida durante miles de años”* [Kepa]. Musikan zuen rola ere, bateria jotzea, normalean beste denen atzean egiten den jarduera, horrekin lotzen du, oso herabea izatearekin: besteek aurrealdea hartzen zuten eta berak atzeguardia. Heroinarekin hondoa jotzeak aldaketa dakarkio, aurrera pausoak emateko aukera. Erabat desegin eta berregitearen kontakizunaz gain bere narrazioan isiltasuna agertzen da ostera ere, HIESaren krisiaren eztearen ondoko eserleku hutsak, eta joandakoen hutsuneak bere aktibismoa bultzatzen du. Amaitzeko, bere musika taldeko beste kideek egindako prozesua du hizpide, hasierako ataletan aipatutako amorru pre-politiko horretatik kontzientzia politiko landuago batera:

Se había ido un montón de gente, se había muerto un montón de gente, el tema Sida... ahí sí había un poco más de conciencia de todos. Y entonces, yo ya estaba en la comisión, la propuesta de hacer ese concierto sale de ahí y sí nos da mucho más pie a hablar de esto más abiertamente, más de otra forma... (...) Ahí sí que tuvimos claro. Habíamos vivido muy de cerca toda la gente que se había ido... Entre que yo había reflexionado... Yo, ellos... Bueno, otro del grupo estuvo también militando en el 92 en Jarrai, Gestoras... Bueno, sí. No era ya sólo la rabia y así, sino... [Kepa]

Azpiatal honetan subjektuak mugan jartzeaz hitz egin dut, ulermen eta kokapen eskemak hautsi eta berregiteaz, hondoa jo eta eraldatuta bueltatzeaz, baina nola interpretatu dezakegu, ikuspegi soziologikotik, gertaera hori? Saul Tobiasek (2005) zientzia sozialetan eta bereziki teoria kritiko feminista eta queerrean subjektuaz izan dugun ikuspegiaz hausnartu du. Horretarako Foucaulten lana berrikusi eta Amartya Sen eta Marta Nussbaumen teoriekin parez-pare jartzen du. Ustez ezin kontrajarriago dauden autore horien lanetan erdibide bat topatzea du helburu Tobiasek eta, nahiz eta erabateko koherentziarik ez izan, begirada interesgarria eskaintzen digu. Bere ustetan Foucaulten subjektuaren teoria mugara eraman dute batzuek, eta eraikuntza sozialaren eta genealogiaren izenean esentzia oro ezabatu da. Eztabaida luzea litzateke proposatzen duen hori, baina hemen interesatzen zaidana filosofo frantsesaren azken lanaren aitzakiaz egiten duen bidea da: desubjektibazioaz aritzen da,

“mugako esperientzia” (“limit experience”) nozioa erabiliz. Mugako esperientzian, subjektua desagertzeko zorian dago, deusezteko puntuak: *“Subjektua zalantzan jartzeak norberak subjektu horren deusezte, deskonposaketa, leherketa edo eraldaketa ekarriko lukeen zerbait esperimentatu behar duela esan nahi du”* (Foucault 2000a:247, Tobias 2005:75ean aipatua). Subjektu modernoa ezagutzaren bidez eraikitzen da: medikuntzaren bidez eraikitzen da osasuntsu bezala, ekonomiaren bidez langile bezala, eromena ezagutzearen bidez buru-osasuntsu bezala eta abar. Arrazionaltasuna galtzea da beraz subjektu izateari uztea, baina Foucaultek bere eromenaren inguruko ikerketetan argi utzi lez, eromena objektu gisa eraikitzeak zentzutasunaren eraikuntza dakar ere, eromena epaitu dezakeen subjektu jakitunboteredunarena¹⁶⁶.

Subjektua bere bizitzaren gaineko ardura ere galtzeraino deseraiki daiteke, ekarri ditudan testigantza batzuetan ikusi dugun moduan, baina horren ostean subjektua berriz eraiki behar da halaberrez, esnatu eta altxatu egin behar da, zuloa utzi eta bizi. Tobiasen ustetan, subjektu horrek era koherentean berreraiki behar du bere burua, hain zuzen ere praktika etikoa ahalbidetzeko¹⁶⁷. Gertaera horrek argi uzten digu desubjektibazioaren izaera bikoitza. Alde batetik, subjektu izateko beharrezkoak ditugun minimoak zalantzan jartzeak berreraikuntza prozesua dakar eta berreraikuntza horretan zentzu etikoa bera berregituratu egiten da. Prozesu hori, maila horretan bederen, askatzailea izan daiteke. Baina bestalde, hortik inoiz ez bueltatzeko aukera ere badago, eta horren ondorioz etika ezinezko bilakatu daiteke, gizakiari besteekiko harremana ezindu edo zailduz. Subjektua zalantzan jartzea, askatzailea bezain txikitzailea izan daiteke¹⁶⁸.

Ikusi ditugun testigantzetan subjektuaren nozioa, ingurunearekiko harremanean kokatzeko duen modua, eta horrekiko gure pertzepzioa kolokan jartzen da maila ezberdinetan. Kasu batzuetan mugara heltzen da banakoa eta une horietan desegin egiten da berriz egiteko; begiak irekitzean beste egun bat eta subjektibotasun berri bat agertzen dira. Kasu gehienetan, subjektibotasun horiek sexualitatea eta genero biziortasuna era ezberdinean irakurtzera datoz, politizazio prozesuak abiatuz gai horien inguruan.

166 Maila horretan, etika botere-jakintzaren akordioen parasittoa besterik ez da, etika beti dagoelako boterearen akordioei lotua eta, beraz, kontingentea da beti.

167 Foucaulten teorian elementu batzuk ezinbestekoak dira praktika etikorako: substantzia etikoa, subjektio modua, norberaren sortze-aktibitatea eta aktibitate etikoaren telos-a. Substantzia etikoa eta aktibitate etikoaren telosa gizakiaren arrazionaltasunaren oinarriak dira eta beraz etika ezin dira banatu botere eta ekintzatik. Norberaren sortze-aktibitatea, Foucaulten azken lanean garrantzi dezente hartu zuen ideia, bere teoria erabateko determinismotik ateratzen duen elementuetakoa da.

168 Ziur aski, askatzailea izan dadin baldintza batzuk izan behar ditu. Esaterako, kritikarako elementuak ahalbidetzen dituztenak, hala nola deseraikuntza horren aldeko giroa, hori gauzatzeko tresna analitiko eta praktikoak, mugimendu bat eta kolektibotasun baten baitan gertatzea eta abar. Mari Luz Estebani eskertzen diot honen inguruko apuntea, tesian zehar egindako beste hainbat gomendiorekin batera.

Aktibista hauen narratibetan ikusi ahal izan ditugu errepresio politikoarekin lotutako une bereziak, kartzelarekin edo drogen kontsumoarekin zerikusia dutenak, bidaia eta mundu berriak ezagutzearekin eta, oro har, bizitza hankaz gora jartzeko gaitasuna duten gertaerekin. Hankaz gora jartze horren eraginez-edo, beste atal batzuetan baino askoz gehiago utzi diet aktibistei beren kabuz hitz egiten. Beste ataletan ere hala den arren, sekzio honetan oso garbi ikusi dut beraien kontakizunak errespetatzea garrantzizkoa zela, eta tesian une narratiboago bat izatea lagungarri izango zela. Atala ixterako orduan ere, beste parte-hartzaile baten hitzak ekarri nahi nituzke:

Ematen du gainera bizitzak eramaten zaituela erabaki batzuk hartzera por hostias, ezta? Nik izan ditut bi esperientzia (...) batarekin oraindik laguna naiz, bestea nahiago dut gertu ez izan. (...) Biak zis mutilak ziren, batarekin hasi nintzen harremanak izaten eta esan nion ez zitzaidala gustatzen, eta oso ondo, lagun bezala geratu ginen eta listo. Bestearekin behin bakarrik liatu nintzen eta gainera esan zidan «ikusten duzu nola mutil batek daukan zuk nahi duzuna?». Buah, esque paso... Gorputzetik hori, eta gero plazeretik ere bai, niretzako, eta gainera berriki egon naiz berriro mutilekin... baina plazeraren istorioa oso inportantea da niretzako eta nahiago dut emakumeekin sexu harremanak izatea baina azkenean momentu honetan gaude borroka politiko batean eta gainera gizon askok ez dutela nahi euren jarrerak aldatu... ba beharrezkoa zait ateratzea euren desiraren kodeetatik. Eta gainera hor egon zen momentu bat... propio moztu nuen ilea, hasi nintzen nire burua beste modu batez... gorpuzkera beste modu batez irudikatzen eta momentuan ikusi nuen aldentzen nintzela begirada horretatik eta beste mundu bat irekitzen zela ere bai. Gero ere badauzkat nire gauzak feminitatearekin, maskulinitatearekin, non nagoen, zer naizen, nola jolastu horrekin... Oraindik da kriston mobida niretzako. Baina bueno, ikusi nazaten bollera bezala eta gero gerokoak, baina lehendabizi bollera. [Nadja]

Ekintzaile honen hitzek berehalakoan jarri didate hurrengo atala hasteko oina, hain zuzen ere (mugako) esperientzien inguruan ari garen honetan bere hitzek oso argi azaltzen digutelako esperientzia horiek non gauzatzen diren. Gorputza da gertakizun horien agertokia eta subjektibatze politikoaren gunea: ilea moztu zein gorpuzkera era ezberdinean jokatzearen bidez norbere ongizatea, esperientziazioa eta gizonen desioaren eskemetatik ateratzea. Espetxeko ohean labana lepoan etzanda egon ondoren lokartzen den gorputza, bis-a-bisaren zain dagoenean bere laguna lerroko mutil bakarra dela ikusten duena, bateriaren atzean izerditan dagoena edo ilea mozten duen gorputza. Jokaleku politikoak denak ala denak, aldakorrak eta indartsuak bezain zaugarriak.

3.2.7 GORPUTZAREN UR UHERRAK

My body is a cage
We take what we're given
Just because you've forgotten
That don't mean you're forgiven
I'm living in an age
That screams my name at night
But when I get to the doorway
There's no one in sight
I'm living in an age
That laughs
When I'm dancing
With the one I love
But my mind holds the key

Arcade Fire, "My body is a cage" (Merge Records, 2006).

Gizartek gorputza sentitu, pentsatu eta irudikatzeko modu anitzak dituzte, testuinguru sozial eta kultural batetik bestera zein une historikoaren arabera aldakorrak. Gorputzek adimenekin edo, ikuspegiaren arabera, arimekin, duten harremana ere era ezberdin ugaritan ulertu daiteke: batzuentzat gorputza eta bere materialtasuna adimenaren izateko kondizioa da, beste batzuentzat adimenak edo arimak gorputza gainditzen dute, eta bi mugako irakurketa horien artean dauden konbinazio posibleak amaiezinak dira. "Years and years" (BBC-HBO 2019) fikziozko seriean, Bethany gazteak bere gurasoei trans dela esaten die. Gurasoen erreakzioa positiboa da: asko maite dute haien alaba eta ez zaie axola semetzat tratatzea. Baina Bethanyk barre egin eta deus gutxi ulertu dutela esaten die, bere asmoa ez delako transexualizatzea, baizik eta transhumano bilakatzea: bere gorputza oztopo bat da eta ez du gustuko. Bere arima eta adimena, hiper-konektatua dagoen mundu batean, datu eta konexio sorta bat dela argi du eta helburutzat du bere gorputza utzi eta, internetarekin bat eginez, bere adimen/arima sarera igotzea. Gorputza soberan du eta, hala ere, bere min, itoaldi eta haserrearen guda-zelaia da, hala nola bere datu bilakatu eta sareratzeko desioarena. Gorputzari balio bat eman nahi izaten diogu (ona edo txarra, sana edo gaixoa, ederra edo zatarra, aukera edo oztopoa eta abar) baina, egiaz, balio anitzekoa zaigu nahi eta nahi ez.

Fue mucha tensión, una época de mucho estrés... Las calvas, acideces, malestares físicos... Mucho estrés. Acabé cansado, pero encantado, me encantó lo que hicimos, y cuando ves que lo que haces funciona, pues es una satisfacción, para ti, para el grupo... [Kepa]

Aktibismo politikoan ere gorputzak presentzia anbibalentea du. Bateko, mugimenduen iruditegian gorputzak leku berezia dauka: kalean poliziari aurre egiten diona edo ekintza ez-biolentoetan lehen lerroan jartzen dena gorputza da, besteak beste. Besteko, jada aipatu dudana politikaren ikuspegi arrazionalistaren arabera, gorputza politikarako erabiltzen den tresna izan daiteke baina ez du berezko agentziarik, gizakiaren eta bizitza sozialaren begirada kartesiarrean adimenaren menpe dagoelako. Baina gorputzak badu bere mintzoa, bere egitea aldarrikatzen du oso forma partikularretan, azpiatal honetara ekarri dudana lehen testigantzak azaltzen digun moduan. Ekintzaitza politikoak estresa, tentsioa eta beldurra sortzen dituenean, jatea zailago bilakatzen da bihotzerrearen ondorioz, ilea jausten da eta bestelako ondorezak azaleratzen ditu gure gorputzak.

Gorputza, beraz, absentziaz agertokira arrapaladan sartu ohi da, bidean aurkitzen dituen hainbat gauza bota eta zarata eginez; gure kontra egiten du, aztoratu egiten da, asaldatu. Azken urteetan ahalegin asko egin dira, bereziki aktibismo feministetatik eta aniztasun funtzionalaren borroketatik, gorputza aktibismoaren (eta baita ikerketa sozialaren) eszenan kokatzeko (Agulló 2011; León 2018; Castañeda Salgado eta beste 2019). Mugimendu horiek ireki dituzten galderetatik tiraka, gorputza – bere potentzia, muga eta minekin – erdigunera ekartzea aktibismoa sostengatzen duten gorputzak norenak diren hausnartzea da, nora arte eutsi ahal dioten pentsatzea, nola eraldatzen diren aztertzea. Baina gorputza ez dago presente aktibismoak une itogarriak dakartzanean bakarrik, gorputza ekintza politikoak sortzen duen bizipozaren agertokia ere bada. Gorputza beti dago hor, bestela zerekin pentsatuko genuke, zerekin ekin, zerekin jarraitu edo erretiratu? Nadjak aktibismoan gorputzak egiten dituen gauza askotarikoak ditu aipagai, baina horien artean zaintza ez egoteak haserretzen du:

Militantzia da para hacer la mani, para hacer el comunicado, para hacer la rueda de prensa, para hacer la ekintza eta ya está. Eta ez da horrela. Hau da niretzako ez da horrela, nik ez dut horrela bizi eta ez nuke horrela bizi nahi. (...) ikasten dugun bezala pankarta bat egiten edo a hacer el muerto cuando te vienen a detener, ikasi beharko genuke {elkar zaintzen}, ez? Sensibilitate hori entrenatu egiten da. [Nadja]

Lehenago ere esan dut herri mugimenduek ez diotela zaintzaren gaiari behar besteko garrantzirik aitortu. Atentzio falta horrek militantziaren zikloak ulertzea zailtzen du eta kolektibo zein komunitate politikoek bizitza eta gorputzek beharrezko duten zaintzari erreparatu ezean, ohikoa da horren bila aktibismotik urrundu eta beste espazio batera joatea. Urruntze horrek, politikoa denaren eta ez denaren arteko lerroa marrazten du eta lerro hori, ez da kasualitatea, publikoaren eta pribatuaren artekoaren artean dagoenaren gainean inprimatzen da:

Pretender que la política se ejerce una vez «y sólo si» han sido satisfechas las necesidades del cuerpo es una idea teñida de melancolía vista desde hoy. Le doy la razón {a Hannah Arendt} en que la esencia humana política se esparce en lo privado expandido. Pero más bien lo celebro. La asamblea de la polis se ha hecho felizmente impura. Hasta dónde se ha asumido esa impureza es la pregunta (León 2018:158).

Aipu horretan Carolina Leonek aipatzen duen Hannah Arendtek politika eta ekintzaren arteko harremanaz hausnartu zuen, biak parekatuz: ez dago politikarik ekintzarik gabe, eta bere oinarria gizakien *egiteko* gaitasuna da, ez pentsatzekoa. Bere analisisan hiru kontzeptu biltzen ditu: ekintza (politika), lana eta eginbeharra¹⁶⁹. Eginbeharrak ezinbesteko zereginak dira, lana eta ekintza posible izan daitezten: erreprodukzioari buruz ari da, nagusiki, baina ez soilik. Eginbeharrak bere teoria politikoan ez dira soilik etxe barruan gertatzen, estatuak ere baditu bere eginbeharrak ekintza eta lana posible direla bermatzeko. Esate baterako, ez baldin badago janik, etxerik eta zirkulazio eskubiderik ekintza eta lana ez dira posible, bere ustetan. Klabea da elementu horiek (erreprodukzioa eta eskubide minimoak) esparru *aurrepolitiko* batean kokatzen dituela, politika posible egiten duten elementuak dira baina ez dira bere horretan politikoak.

Arendten ustez, azken hiru mendeetako iraultza politiko, industrial eta ekonomikoen ondorioz, hiritartasun eskubideak eta erreprodukziorako bermeak lortzea jardun politiko bilakatu da. Gaur egun ere, finantza-krisi etengabe eta aldaketa klimatiko garaian, borroka politikoaren zentzua gero eta gehiago bideratzen da superbibentziara. Bere ustez, horrek politikaren beraren zentzua nahastu du: erreprodukzio eta superbibentzia hori *aurrez*

169 Gazteleraz erabiltzen dituen terminoak “acción”, “trabajo” eta “labor” dira. Ez dute itzulpen errazik euskarara, izan ere, ekonomia feministaren terminologiari jarraituz tentagarria den arren “ekintza”, “enplegua” eta “lana” erabiltzea, agian ez litzateke erabat zuzena. Ikuspegi feministatik ekonomiaz aritu direnek enplegua lanaren barruan kokatzen dute, alegia, lana biziraupenerako beharrezkoak diren eginbide guztiak izango lirateke eta enplegua aldiz, horietatik ordainsaria jasotzen dutenak. Arendten planteamenduan “trabajo” eta “labor” gauza erabat ezberdinak dira, nahiz eta konektaturik egin. “Labor”-ek ez ditu kontsumo objektuak sortzen eta hori da bere ezberdintasun nagusia “trabajo” nozioarekiko. Maila horretan, kontsumoa salerosketa bezala ulertuz gero, zuzena litzateke ekintza, enplegua eta lanaz jardutea. Kontsumoa salerosketa barruan zein kanpoan kokatu badaiteke, hobe litzateke agian ekintza, lana eta eginbeharrak hitz egitea.

bermatuta egon beharko lirateke, orduan politikaz jarduteko; gizakiek ez lukete horien alde borrokatu beharko. Goiko aipuan, ordea, Leonek nahasmen hori ospatzen du: sakratua zen politikaren plaza hori, eginbeharren kutsaduratik libre zegoena, zikindu egin da. Idazlearen ustez, gizarte modernoek afera hori ulertu ote duten izan beharko litzateke eztabaida eta, dagokigun gaira ekarrita, herri mugimenduek politikaren ideia bereizi batekin (politikoa alde batetik, pribatua bestetik) jarduten duten ala banaketa hori gainditzeko mekanismoak sortu dituzten. Leonek, beraz, Arendten ekarpena ospatzen du erreprodukzioa mahai gainean jartzen duelako, baina lan hori politikaren esparruan kokatzearen beharra azpimarratzen du.

Aktibismoek asko dute oraindik pentsatzeko banaketa horren eraginaz, eta baita, lehen aipatu bezala, mugimenduen komunitateak sakonki ulertzearen garrantziaz (Sagastizabal Emilio-Yus 2017). Testuinguru horretan, gorputzak politikoki pentsatzea (Sembler 2019) ezinbestekoa izan daiteke eta, dagokigun gaira are gehiago lerraturaz, zenbait galdera plazaratzea. Adibidez: zer egiten du gorputzak LGTB* pertsonen bizitza aktibistetan? Zer egiten zaio gorputzari, eta nola artikulatzen da hori aktibismoarekin? Michel Foucaultek (2005) gorputza diziplina-boterearen erdigunean jarri zuenetik mila aldiz entzun dugu gorputzetan esanahiak eta diziplina-boterea inskribatzen direla. Baina boterea dagoen lekuan erresistentzia – kontzientea ala ez – ere badago, lehenago ere ekarri dudana Nadjaren testigantzak gogorarazten digun moduan: “*Hor egon zen momentu bat... propio moztu nuen ilea, hasi nintzen nire burua beste modu batez... gorpuzkera beste modu batez irudikatzen eta momentuan ikusi nuen aldentzen nintzela begirada hortatik eta beste mundu bat irekitzen zela ere bai*” [Nadja]. Bere ikuskeran, lesbianismoa edo lesbiana bezala izendatzea gizonen desioaren zirkuituetatik atera eta konexio berriak bilatzeko formetako bat zen eta bere gorputzean islatzen du prozesu hori, ile motzaren eta bestelako gorpuzkeraren bidez. Heterosexualitatearen desio objektu den emakume femeninoaren esparrutik ateratzen da, baina ez da era kontzientean egiten den transformazioa soilik, genero nortasunaren inguruan bizi dituen barne-zalantzen agertokia ere bada gorputza: “*Gero ere badauzkat nire gauzak feminitatearekin, maskulinitatearekin, non nagoen, zer naizen, nola jolastu horrekin... Oraindik da kriston mobida niretzako. Baina bueno, ikusi nazaten bollera bezala eta gero gerokoak, baina lehendabizi bollera*” [Nadja]. Identifikazio mota hori aldi berean kontzientea eta inkontzientea da, eta gorago, identitatearen ur uherren inguruko atalean ikusi dugun testigantzaren ifrentzua. Aktibista batzuek bestelako eredu batekin identifika ditzagun nahi duten bezala, beste batzuek eredu hegemonikoarekin identifikaatuak ez izatea dute xede nagusia: “*Izan nuen trantsizio fase bat nun gizon eta maskulinitatearekin nituen retizentzia asko eta zen esfortzu konstante bat... Batez ere besteekiko, ni ez identifikatze horretan. Ya ez zen horrenbeste ni ez nintzelako sentitzen horrela baizik eta besteek ez ikusteko ni horren parte, ez?*” [Mikel]. Desidentifikazio hori ere, gorputzaren bidez egikaritzen zen.

Herri mugimenduen esparruak gorputzarentzat erresistentziarako aukerak eskaini ditzake. Ohikoan, kulturaren eta mugimendu sozialen esparruak banaturik aztertu ditugu¹⁷⁰, baina parte-hartzaile batzuen militantziak hori zalantzan jartzera eramanez. Esaterako, elkarrizketatuen artean badira musika taldeetan jotzen duten bi lagun eta, ñabardurak ñabardura, bertan duten jarduna beste gune politikoetan dutenaren antzerakoa da: musikan ere talde lana egiten dute, kulturaren ikuspegi politizatua dute, bolondreski aritzen dira eta beraien nahi pertsonalak eta komunitateari egindako ekarpena uztartzen dituzte. Edonola ere, kultura autogestionatuarena nahiko espazio partikularra da, aldi berean aktibismoa eta norberaren adierazpen artistikoa uztartzen dituelako. Bidegurutze horretan arautik kanpo dagoenak ere aurkitzen du adierazpiderik:

Musika-taldearekin hasi nintzenean, adibidez, kontzertuak ematerakoan eta horrela, bai izan zen... Eta gainera, ikusi, hor, oraintxe gogoratzen..., beti disfrazatuta irteten nintzen kontzertuetan abesten, eta ateratzen nuen, ba hori, jantzen nintzen holako lumadun hori batekin, txupa bat lagun batek utzi zidana, neska-txupa bat ajustatua eta... Bai, ikusi igual ateratzen nuen nik hor aspektu... e, ez dakit zer... bai, igual alde... arropa femeninoak eta horrela janztean eta... ikusi igual hor ateratzen nuen, igual orain konturatuta. Modu de esatea «e, eszenario gainean nago, espetakulo bat da, voy a sacar mi pluma», bai, izan daiteke. Baina {Rock mundua} muy macho todo. Muy macho todo. Baina niretzako igual bai zen modu bat askatzeko. Azkenean, eszenario gainean nagoenean paper bat jokatzen nabil, de chulo puto o lo que sea, eta orduan baimenduta dago irtetea tipo bat boa batekin eta esku bat jantzita con una red de no se qué... Bai, niretzako zen leku bat liberatzeko igual. [Ernesto]

Musika esparrua espresibide bilakatzen da aktibista honentzat eta agertokiak eskaintzen dituen lizentziak hartzen ditu, hala nola abeslariari egotzen – edo barkatzen – zaion harrokeriarena. Abeslariak eskubidea du gainetik agertzeko, harroa izateko, “chulo puto” izateko, eta behin hori egiten duela, zergatik ez du ba genero adierazpenarekin eta lumarekin jokatuko? Azalpen handirik eman gabe espresibide horiek esploratzeko aukera eskaintzen dio bere ekintzailatza kulturalak elkarrizketatu honi¹⁷¹. Berarekin izandako elkarrizketak

170 Euskal Herriko kasuan euskaraz egindako kulturagintzari trataera politikoagoa eman diogula esango nuke, askotan euskal kulturaren inguruko jardueri mugimenduen estatus edo jarduna egotziz. Hala ere, esango nuke ez direla maila berdinean jarri kulturagintzaren inguruko espresioak eta beste mugimendu batzuk, betidanik politiko edo eraldatzailetzat ulertu direnak (independentismoa, klase mugimenduak, feminismoa...). Euskal kulturaren esparru horretatik kanpo, esango nuke kultura eta politika banatuta ulertzea izan dela tendentzia nagusia.

171 Generoarekin loturik musika estilo ezberdinek eskaini duten errepresentazio eta identifikazio aukerak aztertu dituzte Simon Reynolds eta Joy Press ikerlariak *“The Sex Revolts: Gender, Rebellion, and Rock’N’Roll”* (1996) liburuan. Reynoldsek berak, “glam rock” musika-estiloan zentratuz gai bertsua landu du ostera *“Como un golpe de rayo”* (2017) liburuan. Musikari dedikaturiko azken hiru artikuluetan ikuspegi ugaritatik aztertu dute gaia ere *“Queering the popular pitch”* (Whiteley eta Rycenga 2006) bolumenean.

epifania une txiki bat izan zuen biontzat, berak adierazten duen bezala erantzuna ematerakoan erreparatu gabeko aspektu horren inguruan hausnartzeko aukera izan zuelako eta ni neu ere ohartu nintzelako kontatzen zuenak bat egiten zuela nire esperientzia propioarekin. Argazki zaharrak ikusten hasi eta han topatu nituen hainbat kontzertutako argazkiak enkaje eta bordatuak zituzten kamisetak jantzita, edo takoiekin. Agertokiak eskaini zidan niri ere, punk musikaren probokazioaren ideia babesean, aukera hori.

Gorputza bidegurutzean dago. Genero biziortasunaz ari garenean, narrazio sozialak gorputzari leku berezia ematen dio, okerreko gorputzaren metaforaren bidez. Ideia horrek trans* pertsonak *beraiena ez den* gorputzean jaio direla diosku, baina horrek ez du zertan bat egin trans* pertsona guztien bizipen eta esperientziekin. Ikerketa honetan behin baino gehiagotan adierazi dut subjektuok gure esperientziaz egiten dugun narrazioa ulertzeko ezinbestekoa dugula kontakizunok inguratzen dituzten testuinguruak kontuan izatea. Gizon homosexualen kasuan jaiotzatiko sexualitatearen narratiba iltzatuta dagoen bezala, trans* pertsonen kasuan, oker dagoen gorputzaren ideia oso zabaldua izan da. Ez da kasualitatea: gizarteak horrela ezaugarritu du transexualitatea hain zuzen ere arazoa pertsona gutxi batzuen gorputzean kokatzen duelako (Missé 2018). Trans* pertsonen esperientzia, baina, hori baino konplexu eta anitzagoa da, eta gizarte diskurtsoen hermetikotasuna zalantzan jartzen du:

(...) la primera vez en la que en gimnasia tienes que tener el cuerpo desnudo y los cuerpos de los demás desnudos. Entonces, las primeras veces es, cambiarte de forma que nadie vea... pero luego ves que el cuerpo es igual, el suyo y el mío. Yo ahí, con ese pequeño paso de vestuarios y no sé qué... y soy transexual pero si me muestro como tal me agreden, si me muestro como me ven no me agreden. Entonces para mí, mi cuerpo en ese momento, en esos niveles de enfrentamiento de sociedad no me plantea ningún problema. (...) a nivel social y a nivel activismo no. Yo lo tenía muy claro precisamente por eso, porque claro, ellos no están viendo a una mujer, ni a una mujer transexual, ellos están viendo a un tío, entonces mi cuerpo es de tío, era de tío. Además con un cuerpo yo creo que bastante bien hecho, bien formado me refiero, le he exigido de todo y me lo ha dado (...) me puedo desnudar porque no tengo diferencias con otros, pero coño, yo sé que eso es que al final es... en teoría este no era mi cuerpo, con lo cual yo me estoy haciendo algo muy positivo desde una negatividad. [Lía]

Líarentzat, bere gorputza ez da ezerosotasun iturria bakarrik, trantsizioaren aurreko urteetan babesgunez ere badu. Bere gorputza teorian ez zen berea, baina bere hautua negatibotasun horretatik indarra ateratzea da: gorputza bere egitea, aurrera egiten eta superbibentzian lagundu dion konplizetza hartuz. Berreskurapen horretan, operatu aurretik zein ostean, gorputzak bere funtzioa bete du, eskatu dion guztia eman dio, baina une bakoitzean ezberdin eragin dio. Beste testigantza honetan ere gorputza eta trans* pertsonaren arteko harremana ez da barne forora mugatzen, argi eta garbi bere testuinguruarekiko harremanean agertzen da:

6. mailan naturalizatuta dauden zure konportamendu batzuk beste batzuei nabarmenak egiten zaizkie, ez daudelako horrekin... ez direlako normalizatu. Hor bai egon ziren galdera asko egin zizkidatenak bai inkomodatu ninduten asko. Ezagutu aurretik lehenengo gauza aber homosexuala nintzen (...) Gero ere egon ziren lehenengo mailako... Gehitukoak etortzen direla, sexu heziketa... momentu batean neska eta mutil banatzen gintuzten eta nik aitzakia merkeak asmatzen nituen, aitona hiltzen zegoela... negarra justifikatuta egoteko leku horretan... [Itoiz]

Pasarte horretan Itoizen gorputza da gatazkaren marka daramana, baina binarismoa testuinguru osora hedatzen da. Ikasgela osoa da neska eta mutil artean bereizten dutena, baina banaketaren unean subjektu batzuk bereziki ezeroso sentitzen dira, eta gorputzak negarraren bidez erantzuten du. Gorputzak beren ingurune diskurtsiboetan dauden heinean, negarra ingurune horretan onargarriak diren arrazoiekin justifikatu beharra dago. Aitzitik, kanpoko begirada beti dago presente eta gorputza defentsa bat izan daiteke, *besteek* gizon bat ikusten dutelako bertan, edo *besteek* emakume bat ikusten dutelako:

El cuerpo no me molesta, me haya operado o no me haya operado, porque entonces esta gente me está viendo mujer; de hecho, hasta que no salí en la prensa, con fotos y se dieron cuenta, había gente que me conocía, compañeros de trabajo, que no sabían que era transexual, pensaban que era una lesbiana muy machorra, con lo cual, aciertan también. [Lía]

Estuki lotzen da testigantza hori passingarekin: emakume trans* batek passing handia edo ona izateak esan nahi du jendeak emakume bezala ikusten duela, baina ze emakume? Aktibista honen kasuan lesbiana oso maskulinoa dela pentsatzen du jendeak, eta beraz ez da bere trans* izaera zalantzan dagoena. Elkarrizketaren beste atal batzuetan hainbat esparru sozialetan beretzat arazotsuena emakume maskulinoa izatea izan dela azaltzen du edo, besterik gabe, emakumea izatea. Esaterako bere enpleguan, trantsizioaren ostean, lehenago egiten zituen hainbat zeregin ez zizkioten hain erraz edo era ohikoan esleitzen. Líaren lekukotasunari konplexutasuna dario, bere burua kategoria horietan guztietan ikusten duelako: emakume, transexual, lesbiana eta maskulino gisa identifikatzen da. Gorputzek

identifikazio prozesuotan jokatzeko duten rola ulertzeari begira fokua lekuz aldatzea interesgarria izan daiteke: baliteke trans* jendeak bere gorputzarekin harreman gatazkatsua izatea, baina harreman hori ez dute bakardadean eraikitzen¹⁷². Gizartearen maila guztiekin kontaktuan egikaritzen da gatazka hori, eta beraz ardura eta atentzioa zabaldu beharko genituzke, ezinegona kanpotik datorrelako:

(...) he estado muy a gusto (...) mis parejas sabían que yo era trans, pero claro, ellas estaban conviviendo con un cuerpo de chico. Entonces ahí había un aguasturbias... que cuando se va definiendo (en la transición de género), y me ha pasado, entonces van viendo que aparte del cuerpo hay una persona con la que convives, y que la estás viendo, y es una mujer, aparte de cuando se desnuda, entonces, empezaron a llevarlo mal ellas porque no eran bolleras. [Lía]

Berriz ekarri nahi izan dut *aguasturbias* hori, sexualitate eta genero nortasunaren bideak gurutzatzen diren unea ondo azaltzen duelakoan. Emakume bezala bizitzen hasten den heinean, progresiboki, bere bikotekideentzat aukera sexualaren galdera irekitzen da, eta horrek ere gorputzarekin zerikusia du, nahiz eta ez soilik. Gurutzaketa horren beste adibide bat Aranek dakarkigu, berriz ere passinga aipatuz:

LGTB aktibismoan jendeak asumitzen du lesbiana naizela, eta horrek badauka zerikusia passing deitzen den horrekin, zure gorputzaren proportzioak edo ahotsa... Adibidez nik lanak eukitzea eta lan ez oso txarrak edukitzea nahiz eta merkatua oso eskas dagoen, baina errekonozimendua duten lanetan egiten dut lana, horrek ere badauka zerikusia ez bakarrik nire ikasketekin, baizik eta ere, si pasas emakume bezala edo ez. Elkarrizketatzen zaituztenean ez da berdina galdetzea zer da zure esperientzia edo «qué coño eres». Ezberdintasun bat dago. [Arane]

172 Trans* nerabeen esperientzietatik abiatuz, nortasun generikoak eraiki eta berreraikitzen diren moduak aztertu ditu Andrea Fonzalida Estupiñán ikerlariak. “Adolescencias trans*: agencia y resistencias contra la transfobia” (2018) lanean, besteak beste, nerabeek genero trantsizioak egiterakoan haien bizitako generoa haragitzen duten moduak aztertu ditu eta prozesu horietan inguruneak (esaterako, gurasoek) izan dezaketen eragina azaltzen du, genero trantsizioa ahalik eta ikusezina eta uneko genero errepresentazioekin koherenteena izan dadin presionatuz. Bere ikerlana oso espezifikoa da, adin-tarte zehatzean zentratzen delako, baina generoaren finkapen normatiboa eta trans* gertaeraren ikusezintasunaren exigentzia beste testuinguru batzuetan ere (agente eta protagonista ezberdinekin) gertatzen dela ondoriozta dezakegu.

Bere esperientzian passing ona izateak eman dizkion abantailak identifikatzen ditu. Enpleguaren munduan, esaterako, bere baldintzak mugatzen dituen ez da berak bere gorputzarekin harreman ona edo txarra duen, baizik eta besteek ikusten dutena. Ulergarritasuna bilakatzen da neurgailu nagusia, genero ikuspegitik erabat koherenteak ez diren subjektuei *gauza* izaera egozten zaielarik: parekoaren generoa ulertzeko gaitasunik ezean *zer zara* galdera azaleratzen da. Passinga inklusiorako giltza da baina, sekretua hausten bada, aho biko ezpata izan daiteke. Kasu horretan, larregizko inklusioa baztertzea bezain deserosoa suertatzen da:

Ni hasi nintzen lanean aktore profesional moduan (...) eta momentu batean enteratu ziren nire asunto hontaz, osea zakila daukadala, eta orduan hasi zitzaizkidan eskaintzen paperak antzerkian baina rolo genitalak erakusten, oso gauza... metidas con calzador, oso morboso... Desilusio handia hartu nuen irekiagoa zela pentsatzen nuen mundu batekin. [Arane]

Gure genero nortasuna besteekiko harremanean eraikitzen dugu guztiok. Gizon edo emakume izaten testuinguru zehatzetan ikasten dugu eta ikaspena, metatzen den esperientzia kopurua, saiakera-akats prozesu etengabea da, zeinetan onartuak diren portaerak barneratzen ditugun, eta onartuak ez direnak baztertzen. Butlerrek (2001) planteatzen duen performatibitatearen teoriatik oso gertu dago ideia hau. Estatubatuarrak, J.L. Austinen (1998) ideietatik abiatuz, ekintza performatiboan arrakasta edo porrota aztertzen ditu. Hizkuntzalariak “gauzak egiten dituzten” esamoldeak, alegia, esapide performatiboak, definitu zituen eta Butlerrek ideia hori baliatu zuen generoaren ikaspena eta haren subertsioa pentsatzeko. Luze gabe bere teoriaren inguruko begirada boluntaristari aurre egin behar izan zion, tresna berberak erabiliz: hizkuntzalaritzak esapide batzuei izaera performatiboa esleitu dien bezala, esandako horien arrakasta edo porrota pentsatzea ezinbestekoa dela defendatu du eta, hortaz, ez gara ari subjektuak libreki egiten duen antzezpen bati buruz, sozialki arautua eta determinatua dagoen gertaerari buruz baizik (Butler 2002). Butlerrek zitazioaren (“iteración”) ideia hartzen dio Derridari: zitatzea alde aurretik existitzen zen testu bat ekartzea da, eta testu horrek nolabaiteko onarpenera izan behar du, ulergarritasun bat, zita ontzat emango bada. Norbaitek generoa performatzen duenean, gizontasuna edo

emakumetasuna “antzezten¹⁷³” dituenean, aurretik zegoen zerbaiten zita egiten du, bazegoen zerbait dakar orainera eta, noski, prozesu horretan zerbait aldatu edo desitxuratuko da beti. Desitxuratze hori zenbatekoa izango den uneko arau sozialek erabakiko dute hein batean, eta uneko arau sozialez ari garenean beti ere errealitate sozialaren maila ezberdinak – mikro, meso, makro – izan behar ditugu kontuan.

Gure ikaspena bizi esperientzia performatibo horien guztien metatzea dela esan dut eta, esperientzia horiek testuinguru zehatzetan garatzen diren heinean, halabeharrez, esperientzia sozialak dira. Arazoa ez da soilik zein generotan identifikatzen garen, baizik eta ze genero bizitzeko eta esperimendatzeko aukera izan dugun:

Ni plantatzen naiz 20-21 urterekin eta nik ez neukan emakume bezala bizi-esperientziarik. Gizon bezala ezta ere ze beti izan nintzen oso androginoa eta... aurpegia tapatzen nuen... eta oso zaila zen inorekin harremantzea aurpegia eta dena tapatzen baldin banuen, eta ezin zizkidaten argazkiak egin... (...) eta hori, ba esango nukeena da, orain badaukadala emakume bezala bizi-esperientzia bat eta besteek ez dute zalantzan jartzen emakumea naizenik, normalean. Eta klaro, horrek badauka neregana... munduaren aurrean jartzeko beste konfidantza bat. Eta orduan, zentzu horretan ba lehenago inseguridade handikoak ziren espazioak orain ez dira horrenbeste. (...) zentzu horretan zer den espazio seguru bat aldatu egiten da. Badaukadalako ibilbide bat emakume bezala sozializatzen. Ze hori ikasi egin behar da. Ikusten baditut familiako argazkiak, dauzkagun gutxiak, norbaitek kanpotik ikusten du eta esaten du “neska bat”, baina zuk ez daukazunean bizi-esperientzia hori, eta ez bazara gizarte honetan neska bat bezala erlazionatzen, gero hori dena ikasi egin behar da. Orain ez naiz espazio horietan lehenago kolokatzen nintzen bezala jartzen. Badauka zerikusia horrekin. [Arane]

Sentitzen den generoa bizitzen, esperimendatzen eta probatzen hasi ahala irabazten da konfiantza eta genero hori gorpuzten doa. Esperimendazio horrek, halabeharrez, askatasun eta babes esparruak behar ditu eta, aktibista batzuen kasuan, herri mugimenduak jabetze prozesuok katalizatu ditzaketen guneak izan daitezke. Horri buruz ari zaigu hurrengo testigantza eta lehendik ere aipatu ditudan beste hainbat elementu dakartza, kasurako, irakurketaren dispositiboa:

173 Ohar bedi komatxo artean jartzen dudala “antzeztu” aditza. Ingeleseko “to perform” aditzaren itzulpen posibleetako bat “antzezte” litzateke, baina antzezteak badu elementu boluntarista larregizkoa hitzari eman nahi diodan esanahiarentzat. Antzezten dugunean, teoriarik behintzat, kontziente gara nor garen gu eta zein den antzezten dugun papera. Generoaz ari garenean hor dago koxka, hain zuzen ere: ez dugu ezberdintzen gu garena eta antzezten dugun generoa, ezin dugulako gure burua gaurko gizarte bitarrean ulertu genero gabe.

Batxillerretik unibertsitatera bitarteko uda horretan asko irakurri nuen. Eta hortik aurrera irailean Ernaiko plangintzarekin eta gauza horiekin ya horrekin {generoaren gaiarekin} nengoan. Nahi nuen hori landu edo... auzoan gauzak egin horrekin. Eta... Nik uste... horrek eragin zidan boteretzea gauza batzuekin, luma izan zitekeela... orduan bai ikusten nuen txoke bat zegoela. Auzoan egia da ez zirela txoke... Inork ez zidan ezer erreprimitzen... Ez zen izan, ez zen egon momentu biolento bat nik konfliktuatu nuena hori azaltzeko. (...) erantzun dizut gehiago herri mugimenduen ikuspegitik. [Itoiz]

Babesguneez jardun naizenean azaldu dudan bezala, herri mugimenduek eskaintzen dituzten jabetzerako aukerak anbibalenteak izan daitezke. Adibiderako, ekintzaile honek auzoan bizitakoa azaltzen duenean berriz ere ezaguna zaigun bizipena dakar: egoera biolentorik egon ez arren, bere gorputz adierazpena – luma – auzora ateratzen dituen heinean talka bat sentitzen du.

Aurretik azaldutako beste edozein elementuk baino hobeto azaltzen du gorputzak LGTB* pertsonen esperientzia herri mugimenduen esparruetan eta bestelako espazio sozialetan. Gorputzak erresistentzia gune izan daitezke eta baita zapalkuntzaren agertoki ere, ia-ia uneoro kontraesankorrek dira eta, kontraesan horretatik tiraka, bizipenak moldatzeko eta mugiarazteko gaitasuna dute. “Gorputzak” etengabe lekualdatzen ditugula pentsatzen dugu, “gure gorputza” alde batetik bestera “eramaten dugula”, baina haiek ere lekualdatzen gaituzte “gu”, eta gutxien espero dugunean gatazka berriak edo babeslekuak irekitzen dizkigute. Eraldaketa sozialean murgilduta dauden mugimenduentzat gorputzak zer egin dezakeen, nora heldu daitekeen, esploratu beharreko gaia da (Braidotti 2018, Esteban 2015, 2017), baina babesguneak sortzea ezinbestekoa da, esperimentazioa posible izan dadin. Halabeharrez, zaintzaren eta politikaren arteko harremana birpentsatzetik etorriko da eginbehar horren gauzatzea, politika eta eraldaketaren beraren inguruan dugun ideia kolokan jartzetik. Horrela soilik lortu daiteke politikaren agora horren inguruan biltzen diren subjektuek haien gorputza etxean utzi gabe jardun ahal izatea.

Koda

Hasieratik nekien zaila izango zela herri mugimenduetan aritzen diren LGTB* ekintzaileen errealitateen irakurketa bateratua egitea eta, sumatzen nuen moduan, interpretazio itxiak baino hausnarketa irekiak sortu dira elkarrizketen azterketatik. Baliteke elkarrizketatuen esperientziak ez homogeneousizatzeko egindako ahaleginean galdera gehiegi airean utzi izana, baina ikerketa orok askotariko ekarpenak egin ditzake, eta galderak erantzuten dituzten bezala, zalantza berriak ere plazaratzeko balio dute. Hala ere, eztabaida horiek errazteari begira, orain arte bildutakoak laburtzeko ahalegina egingo dut, zehaztasuna galdu arren ideiak ordenatzen lagundu dezakeelakoan.

Aztertu ditudan elkarrizketek bidaia bat eskaini didate pertsona sozial bezala igarotzen ditugun esparru ugarietatik eta, herri mugimenduaren joko-zelaiari atentzio berezia eskaini nahi izan diodan arren, beste guztiekin duten harremana kontuan hartzea ezinbestekoa izan da. Familia eta koadrila izan dira, ziur aski, herri mugimenduen guneekin gehien teilkatu diren espazio komunitarioak, eta teilkatze horretan hainbat elementu mobilizatzeko gaitasuna azaldu dute. Izaera komunitario sendoa duten mugimenduen kasuetan, bereziki Ezker Abertzalearen kasuan, familia eta mugimenduen arteko gainjartzeetan ez da zertan hausturarik gertatu ikuspegi ideologikotik, baina, errepresioarekiko arriskua bezalako elementuak medio, gatazka sortu daiteke. Gehienetan, ordea, aktibismoak familia esparrura ika-mika dakar eta koadrila tradizionalarekiko haustura ere suposatu dezake. Hautatuak ez diren ingurune sozialetatik hautatzen direnetara salto egiten dugu gaztaroaren hasieran, elkarrizketatu gehienek kasuan aktibismoan hasten garen une berean. Sexualitate eta genero biziortasunek badute prozesu horretan zeresana, eta hirugarren edo laugarren geruza bezala agertzen zaizkigu mundu sozialaren gardenki anizkoitzean. Litekeena da familian eta koadrilan negoziatu beharreko aferen artean beste bat izatea sexu aukera edo nortasun generikoa, normaltasunean bat egitea zailtzen digun osagai bat gehiago. Familian eta lagunengandik ingurunean jasotzen ditugu bizitzaren helburuei, denborei zein espazioei buruzko normaltasun arau ugari, eta herri mugimenduak horiekin hautsi eta bestelako konfigurazioak bilatzeko esparru izan daitezke. Edo ez. Azken finean, komunitate atxikimenduaz ari gara, beti ere gatazkatsua den terminoa, eta komunitate guztiak besteengandik ezberdinduz eraikitzen diren heinean, beren arau eta erregulazio propio – txikiak – sortzeko gaitasuna izan ohi dute. Herri mugimenduen esparrua oso azpimundu partikularretan banatzen da eta ez dute ez denek, ez beti, genero biziortasunaren inguruan eta sexualitatearen inguruan bizi ditugun minak babesteko gaitasuna, ez eta esperimentaziorako ateak irekitzekoa ere.

Mugimendu eta taldeen aterkipean egiten den aktibismoak ez die asmo ideologikoei soilik erantzuten, pertenezia eta babes behararen lainopean gertatzen da beti, eta sexualitate edo genero nortasun ez normatiboa gorpuzteak behar hori areagotu dezake. Garrantzitsua da, berriz ere, ondorio sinpleak ekiditea: esperientzia anitzek askotariko irakurketak ahalbidetzen dituzte eta ez da afera hau segurtasunaren ikuspegi zurrunetik irakurri behar, babesgunearen ideiak ez baitu segurtasun sentipenarekin korrespondentzia zuzenik. Hasteko, mugimenduak ez direlako halabeharrez espazio seguruak; beraien izaera, helburu eta egiteko moduen arabera, arrisku eta esposizio gune ere bilakatu daitezke. Baina, areago, irekiera espazio izateko bokazioa izan arren, errespetua eta ez erasotzea ez dira nahikoa espazio horiek aske bezala bizitzeko. Askatasun horrek esateko, egiteko eta, paradoxikoki, komunitateok konfiguratzeko dituzten eremu sinboliko eta identitarioak zalantzan jartzeko ahalmena inplikatzeko du. Komunitatea bere osotasunean bizitzeak komunitatea bera arriskuan jartzea dakar hein batean, hura ezinezko elkartzeko bezala ulertzea. Talde eta mugimenduek izaera trinkoagoa izan ahala zailagoa da finkatuta dauden harresiotan arrakalak topatzea nortasun batzuentzat, baina zailtasun hori ez da termino erreprezentatzen ulertu behar, baizik eta begirada konplexuagoetatik, afera ez baita mugimenduek beraien kideen desio edo adierazpenak mugatzen dituztela, baizik eta isiltasunaren bidez normaltasuna gailentzen dela maiz. Isiltasuna haustearen ardura genero bizinortasun eta sexualitate ez-normatiboak dituzten horietan jartzea baino, mugimenduetan marruskadura sortzen duten aspektuak berrikustea eta disonantzia horiei lekua egitea da kontua, bide horretan herri mugimenduen eraldaketaren inguruko iruditegia zalantzan jarritz.

LGTB* subjektuok identifikazioaren ur uherrak etengabe gurutzatzen ditugu, bai eta berarekin murgildu ere. Interpelazio anitzen hartzaile bezala, esanahi eta arautze erregimen askotarikoen artean desplazatzen gara uneoro eta, maiz, identitateen eitean ez da sexualitatea edo genero bizinortasuna erdigunean dagoena. Identitate elementu horiek, gizakiok gure burua besteentzat ulergarri egiteko ezinbestekoak ditugunak, bigarren planora pasa daitezke, hain zuzen ere mugimenduen esparruak eskaintzen dituen berezitasunengatik, lehen planoan beste elementu batzuk daudelako: pertenezia ideologikoa edo taldekoa, kasu. Bigarren edo hirugarren planoan egoteak ez du esan nahi ez daudenik presente eta, aldi berean, lehen planoko elementu horiek transformatzen dituzte, baina maiz ez dira lehentasunezko bezala bizi. Identifikazioak desidentifikaziotik ere badu eta, LGTB* nortasun hegemonikoak zalantzan jarri eta negoziatzen direnean, eredu horiek elementu berriz hornitzen dira, subjektibotasun konplexuagoak sortuz. Sexualitatearen eta genero bizinortasunaren ardatza irakurketa kritiko antikapitalista eta aktibisten bidez aberasten da. Bide horretan, ordea, posible da LGTB* subjektibotasunek, baita hegemonikoei ere, genero eta sexualitate sistemak zalantzan jartzeko dituzten potentziak amatatu edo ahultzea, mugimenduetan oraindik nagusi den ereduaren alde, zeinak borrokak garrantziaren arabera mailakatu eta borroka subjektuaren irudi maskulino eta arrazionala bultzatzen duen.

Babesgune bezala jokatu dezaketen mugimenduek mugako egoeretara ere eraman gaitzakete. Talde eta kolektiboetan parte hartzea familian edo koadrilan ezartzen diren normaltasunaren arauak hausteko modua izan daitekeen bezala, aktibismo politikoak normaltasuna ia-erabat eten dezaketen salbuespen egoera eta erdibideko espazioak bisitatzera eraman gaitzakete, esate baterako, kartzela edo polizi-etxeak. Egoera horietan, litekeena da subjektuaren konfigurazioak zintzilik geratzea, aukera berriak ireki ditzaketen hutsuneak ahalbidetuz; era berean, gerta daiteke sexualitate zein genero bizinortasunak lehen lerroan jartzea, subjektua identitate kategorietara gerturatuz edo haietatik erabat urrunduz. Errepresio politikotik soilik ez datozen mugako esperientzia horiek lekualdatzeak sortzen dituzte subjektuen konfigurazioetan eta, maiz, inflexio puntu bezala bizi dira.

Azkenik, mugimenduek gorputzarekin harreman oso partikularra dute: ekintzailtzaren une askotan gorputza erdigunean egon arren, usu ikusezina da. Ekintzaile hauen kontakizunetan, gorputzak balio anitzetako agentzia konplexuak agertu ditu, une batzuetan normalizazioarekiko erresistentziaren agertoki kontziente edo inkontziente bezala, beste batzuetan ezkutaleku bezala eta gehienetan kontraesanen jokaleku. Gorputza erakutsiz, ezkutatuz, eraldatuz, espazio publikoan ezberdin jokatuz eta abar, subjektuok zeharkatzen gaituzten eta zeharkatzen ditugun esanahi eta erregulazio erregimen anitzak barneratu eta, batzuetan, zalantzan jartzen ditugu. Egiteko gaitasun hori, subjektu orojakileen narratiba modernoa baino, subjektibotasuna bera zalantzan jartzen duen elementua da, kontzientziaren eta inkontzientziaren artean kokatzen da, desioaren eta hizkuntzaren artean, ezinezko banakotasunaren eta komunitate pertenezia inbertsonalaren artean. Gorputzak, maiz, diskurtsoak mugatzen dituen aukerak irekitzeko gaitasuna du, baina baita kontrakoa egitekoa ere; erregulazio sozialak kolokan jartzeko palanka izan daiteke edo esanahien erregimenak larruan tinta larriz egonkortzeko balio dezake, baina inoiz ez bietako bat bakarrik. Subjektuen esperientziek, halabeharrez, bi elementuon presentzia etengabea dela erakusten digute, elkarri eragiten dioten indar magnetikoen eremu sasi-egonkorra izan arren, alde zurretik erabat definitzen zaila dena.

4. Hego Euskal Herriko LGTB* politika kritikoei gainbegirada

4.1 Sarrera

Ikerketa honen hirugarren atalean LGTB* pertsonen esperientziak aztertu ditut, beraien militantzia eta aktibismo testuinguruetan atentzio berezia jarritz. Kasu gehienetan, LGTB* aferez bestelako gaiak lantzen zituzten aktibistak izan ditut protagonista, mugimendu ekologistan, gazte mugimenduan, abertzalean edo sindikalgintzan, besteak beste, aritzen direnak edo aritu izan direnak. Elkarrizketa horietan maiz atera da egungo LGTB* politiken¹⁷⁴ gaia. Hainbat elkarrizketatuk aipatu dituzte haien gertutasun eta distantziak mugimendu horiekiko, edo haien bizitzako une ezberdinetan beren inguruan izan duten iritzia. Ezinbestekoa iruditu zitzaidan mugimendu horretara gerturatzea eta gaur egun aktibo dauden talde batzuen ideia, ekimen eta pentsamenduen hainbat aspektu aztertzea.

¹⁷⁴ Hemendik aurrera LGTB* politikak izendapena erabiliko dut, nahiz eta izendapena bera ere arazotsua izan. Elkarrizketatutako ekintzaile eta taldeek ez dute LGTB bezala identifikatzen beraien jarduna eta ekintzailtza. Haietako askok nahiago dute TransMarikaBiBollo bezala definitu haien taldea, edo transfeminista bezala. Beste batzuek ez dute haien burua LGTB aktibismoan kokatzen, hain zuzen ere transfeminismoaren edo feminismo lesbikoaren esparruan irudikatzen dutelako haien jarduna. Horregatik LGTB* politikez hitz egingo dut eta ez LGTB ekintzailtza edo mugimenduaz. Argi utzi nahiko nuke horrek nire hautu pertsonala adierazten duela, nire ibilbide militantearekin lotuta dagoena eta amaieran gehitutako asteriskoak ez diola soilik, ez eta nagusiki ere, erreferentzia egiten sigla horiei gehitu beharreko izendapen berriei, ohikoan ulertzen den bezala (intersexualak, *queer...*) baizik eta identitate horiek denak subjektu politiko bihurtzean har ditzaketan forma ezberdinei ere (bollera, lesbiana feminista, transfeminista, marika, trans* eta abar).

Ikerketaren lehen atalean ur uherrak kontzeptua erabili dut eta, oraingoan ere, uraren ideiarekin jarraitu nahiko nuke. Atal honetarako *ur azkarrak* eta *ur motelak* izendatu ditut, LGTB* politikak igarotzen duten une historiko kontraesankorra ondo adierazten dutela uste dudalako. Ur azkarrak korrante bezala irudikatzen dugu, erreka edo ibai baten baitan sortzen diren abiadura indarrak, gure borondatearen kontra ere herresta gaitzaketenak. Ur motelak, aldiz, mugimendu aukera urriagoa duten espazioak dira, kondizio iraunkoragoak bizi dituztenak. Paradoxikoa bada ere, ur moteletan bizitza asko sortzen da ere, mikrobio eta bizitzaren eraldaketa nimiñoak.

Aztertutako mugimenduek une historiko zaila bizi dute haien aktibismoarako, eta horren jakitun dira. Azken urteotako tendentziak aztertuz, euren burua panorama aldakorrean kokatu nahi duten mugimenduak dira hauek, etengabeko analisisian dihardutenak iraganeko akatsak ez errepikatzeko eta aktibismo berritua eratzeko, testuinguru sozial, ekonomiko eta politiko beharrari egokitzeko. Haien ur azkarrak etengabe aldatzen ari den panorama sozial eta politikoa dira. Ur geldoak, aldiz, bi dira: alde batetik, LGTB* aktibismoaren eta militantziaren moteltzea (beste mugimendu batzuek ere bizi duten egoera) eta, bestetik, subjektu politiko eraginkorrak eraikitzekeo prozesuak, ez direnak egun batetik bestera egingarriak.

Metodologia atalean aipatu dudan moduan, elementu horien analisisa egiteko prozedura lehen ataleko elkarrizketekin erabilitako berdintsua den arren (elkarrizketak kodifikatu, kodeak bildu, mapak sortu, interpretatu), emaitzak aurkezteko era ezberdina aukeratu dut atal honetan. Gai ezberdinetatik bidaia egingo duen formatu narratiboa aukeratu dut oraingoan, elkarrizketen zatiak elkarri lotuz jasotakoaren inguruko kontakizuna osatzeko. 4.2, 4.3 eta 4.4 epigrafeetan garatu dudan narrazioan iritzi esplizitu eta erreferentzia teoriko larregi ez txertatzen saiatu naiz, jasotako ideia eta testigantzak gaika antolatzerara mugatuz nire papera. Ondoren, 4.5 atalean elementu horiek interpretatzeari ekingo diot, ekarpen teoriko batzuen laguntzaz eta nire ikuspegia era argiagoan azalduz.

4.2 LGTB mugimenduetara lehen gerturatzeak

Hirugarren atalean herri mugimenduetara gerturatzeko motibazioak ugariak direla aipatu dut eta aktibista gehienek ere horrela ikusten dute: haien motibazioak askotarikoak dira eta ez dira aktibismoa kontzeptualizatzeko modu instrumentalekin. Bigarren atal honetan ere, elkarrizketatuek parte-hartzearen elementu ideologiko eta arrazionalak aspektu emozionalekin zein gure bizitzen bizigarritasunarekin lotuta daudela erakusten dute. Askok argi dute ez direla mugimenduetara gerturatzen, edo taldeok sortzeko lehen pausoak ematen hasten soilik motibazio ideologikoengatik. Esperientzia pertsonala eta ikuspegi ideologikoak uztartzen dituzten planteamendu hauek politikoa denaren eta ez denaren arteko mugak lausotzen dituzte:

Lo primero que me ha proporcionado ha sido una base de cariño, de cotidianidad, de escucha que no he tenido en otros espacios. Yo he tenido muchos problemas derivados del acoso, depresiones cíclicas que me hacen muy complicado también el sistema de cuadrillas que hay aquí que te exige esta cotidianidad y esta normalidad impuesta a la que todas nos sometemos un poco, de “no seas tan notas” para convivir con gente... Que es muy bonito a su vez porque las cuadrillas tienen dinámicas muy chulas que están ahí siempre, pero yo no podía... Y entonces el colectivo... es que son mis amigas. Y al tejer redes surge mucho la palabra “prima” que es una palabra que me encanta, esa sororidad como un poco más laxa... Vas a un espacio donde no conoces a la gente pero ya son tus primas. [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]

Testigantza honetan lerro zuzena marrazten da esperientzia pertsonalaren eta aktibismoaren artean. Are gehiago, sozializazio eredu ezberdinen arteko alderaketa proposatzen da, Euskal Herrian hain ohikoa den koadrilaren figurak eskatzen dituen betebeharrak gogora ekarriz. Taldean egon edo sentitzeak ez du soilik elkar ezagutu eta lagunak izatea eskatzen, egonkortasun bat adieraztea ere eskatzen du, eguneroko lana, eta egonkortasun hori era normalizatuan garatzea. Elkarbizitza hori, maiz, ez da ondo ezkontzen sexualitate eta genero biziortasun batzuekin. Aktibista honi bere taldeak eskaini dio bestelako elkarbizitza baterako aukera, “lehengusinak” ere diren lagunekin. Aktibismoko kideek bigarren lerroko familia eskaintzen diote, lehengusinekin dugun harreman horietan bezala: lotura bat dago, baina ez zaigu eskatzen egunero-egunero lotura hori zaintzea, ez eta normaltasunera erabat egokitzea ere. Lehengusinen kasuan bezala, ezberdintasunerako aukera aitortzen zaigu, anai-arrebekin ez bezala, zeinekin maiz berdinak ez izatea egitate

mingarria den. Deigarria da aurreko hamarkadetan gay gizonen artean ohikoa zen “ahizpa”¹⁷⁵ lehengusina bilakatu izana. Parte hartzaile honek “sororidad” hitza ere erabiltzen du, “ahizpatasuna”. Hitzak, gazteleraz bereziki, esanahi sakona du mugimendu feministan, eta aktibista marika batzuek bere egiten dute, baina prozesu horretan eraldatu egiten dute, ahaidetasun eskalan maila bat urrunduz.

Ekintzaile honek minaren ideia dakarkigu, beste elkarrizketa batzuetan ere aterako dena, eta askotan zaila dena onartzen gure aktibismoaren bultzatzaile gisa. Aktibismoa gure sexualitate eta genero nortasun eta adierazpenekin lotuta dauden gertaerek sortzen dizkiguten min eta sentipenak baretzeko espazioa izan daiteke. Lehenago ere ekarri dut gaia: biktimaren hainbat kontzepzioekin lotuta dago minaren inguruan jarduteko zailtasuna:

Niretzako ere bada modu bat jasandako indarkeria guzti hori kanalizatzeko. Askotan hitz egiten dugu amorruez oso emozio eta sentimendu ilun eta grisen inguruan, eta subjektu marikak nolabait hori ahalbidetzen dizu, hori modu osasuntsuago batean kanalizatzea, biraoaz apropiatzen zara eta horrek daukan potentzialitatea eta nola aurkezten zaren zure inguruan, niri horrek, marika bezala aurkezteak, askoz gehiago lagundu dit “soy homosexual” edo “me acuesto con hombres” esateak baino. Ah, muy bien. Pero digo, “no, yo soy marica”, entonces ya no es “muy bien”, konfrontazioak eta (...) arrakala bat sortzen dut, ezerosotasun bat. [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea]

Partaide batzuek babesaren ideia ere azaleratu dute: “*Nik uste dut babes, halako espaziotan babestua sentitzen zara, berdinen artean zaudelako. Nolabait esateko. Gero talka ideologikoak daudela, beti. Baina bai, subjektuen arteko babes hori badago*” [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea]. Aktibista hauetako askorentzat LGTB* politikak ez dira izan beraien lehen esperientzia eta, beraz, mugimenduaren berezitasunak identifikatzeko gai dira. Gehienek LGTB* politiketan aukera aurkitu dute beste espazio batzuetan zentralitatearik ez zuen sexu askapenaren borroka erdigunean jartzeko, beste borroka batzuk alboratu gabe: “*Beste honetan, zentraltasun bat dauka horrek, identitario horrek, baina gero ere daude beste borroka batzuk hor daudenak, borroka marikan, intersekzioen elkartze hori dago*” [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea]. Aldi berean mugimendua espazio anitza

175 Aitor Aranaren hiztegia: “*Mutil gay baten lagun mina, honek harekin harreman sexualik ez duenean. Hauek oheratuz gero, intzestua egiten dutela esan daiteke, bien arteko ahizpa izate errota azpimarratu nahian. / Ahizpen arreak kontuak ez dira beti ondo konpontzen*” (Arana 2005:19). Hortik eratorritzen dira “ahizpa nagusia” eta “ahizparte” ere.

dela onartzen dute, hein handi batean mugimenduan elkartzen dituen ez delako posizio ideologiko hutsa, baizik eta elkarrekin bizi dugun kondizio soziala. Areago, taldeak esperientzia komun horren inguruan elkartzen direnean, elementu ideologikoa aipatzeak gatazka sortu dezake kolektiboan. Elkarre honetako kideek, esaterako, prozesu honek beraien taldean izandako eragina aipatu dute:

Niretzako asko aldatu zena zen LGBT munduan politikoki oso ikuspuntu ezberdinak dituzten pertsonak ezagutzea, ni egon nintzen beste talde politikoetan alde aurretik definituta zegoen talde hori, eta niretzat hau oso ezberdina izan zen, ez bakarrik dibertsitatea LGBT kolektiboaren barruan baizik eta ikuspuntu politikoaren aldetik ere, ze ni aurretik egon nintzen ingurune politikoetan liberalismoa ez zen gure arteko gatazka bat, baina justu LGBT munduan bai ikusi ditut. Eta gainera LGBT kolektiboetan aniztasun hori oso goxoa da baina aldi berean da la maldición. Interseksionalitate horretan jende askok ez du bere pribilegioa aitortzen... eta gauza horiek lantzea ere... [03 Kolektiboa - EAE mailako LGBT taldea]

Elkarrizketatu honek kokapen ideologiko oso anitzak aurkitu ditu LGBT talde misto batean¹⁷⁶ parte hartzen hasi denean, baina kokapen ideologiko anitzez baina, bizitako esperientziaren aniztasunaz ari gara hemen. Ustez, taldeak bizitako esperientzia komunaren arabera elkartzen dira, LGBT* izatearen esperientzia konpartitzen dutelako, baina elkarrekin bidea egiten duten heinean azaleratzen da bizitako hori ez dela hain komuna, eta ardatz ezberdinen araberrako pribilegioen lanketa egin behar izatera daramatza. Frustrazio eta haserreak sortzen dira ezaugarri horiek (maskulinitatea, zurtasuna, zis izatea eta abar) ez direnean pribilegio bezala ulertzen eta ez zaienean izaera politikorik aitortzen. Horrek lan handia eskatu diela onartzen dute ekintzaileok eta, ezinbestekotzat jo arren, une askotan taldearen dinamikarekin aurrera egiteko zailtasunak ekarri dizkiela diote. Horri gehitu behar zaio iritzi ezberdinak izatea. Kolektiboa irekia eta mistoa izateak politizazio eta hausnarketa maila ezberdinetako jendea gerturatzea eragin zuen. Berriz ere, taldearen oinarri ideologikoak finkatzea ezinbesteko lana izan arren, prozesu zailtzat dute (*“la maldición”*). Prozesu horretan pertsona ugari bidean geratu daitezke, taldea dezente murriztuz. Besteak beste, kolektiboak ideologikoki hartzen duen norabidearekin ados ez dauden pertsonak eta, ziur aski, baita halako prozesuetan sortzen diren definizioekin eta terminologiarekin moldatzeko zailtasunak dituztenak ere.

176 Testuinguru honetan, talde mistoak adierazi nahi du kolektibo horretan beren buruak pertsona gay, lesbiana, trans* (transexual, transgenero) eta bisexual bezala identifikatzen diren aktibistak topatzen direla.

Izan ere, parte-hartzaile batek uneren batean deskribatu duen bezala, LGTB* politiken mapa semantikoa oso zabala eta intentsitate handikoa izan daiteke. Elkarrizketa hauetan guztietan espezializazio maila altua topatu dudala esan behar dut, elkarrizketatu gehienek oso lengoia landu eta espezifiko erabiltzen dutela. Hain da horrela, kasu batzuetan zaila izan baita nire hizkera analitiko soziologikoa taldekideen hizkera propiotik bereiztea. Horrek eztabaida interesgarriak izateko aukera zabaldu du, baina beste zerbaiten adierazgarria ere bada, hots, LGTB* politikek egun darabilten hizkera eta konplexutasuna, bere aberastasunaren iturri ere badena, zaila dela askorentzat. Hirugarren ataleko elkarrizketatutako batek hainbat elementu ulertzeko dituen zailtasunez hitz egin zuen (zehazki aipatzen zituen Ekainak 28aren bueltan sortutako hainbat material bisual eta idatzi) eta hori beste LGTB* pertsona askoren esperientzia ere bada. Sortzen den “*gehiegizko mapa semantiko horrek*” [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea] badu pentsarazteko gaitasuna, baina aldi berean mugimenduarekiko distantzia ere sortu dezake.

Mugimendu feministan, hizkuntzaren espezializazio hau emakumeen posizio subalternoari egotzi izan zaio, hitz egin aurretik esango dena zuzena dela ziurtatu beharri, eta baita esperientziak teoriarekin balioztatu beharri ere. Emakumeek, beste subjektu batzuekin alderatuz, ahalegin bikoitz hori egin beharra ideien eta diskurtsoen munduan esatari zilegi izateko zailtasunen adierazle da. Posible da LGTB* politikan diharduten taldeek ere posizio horretatik hitz egitea, baina kontuan hartu beharko genuke, halaber, herri mugimendu gehienek teorizazio maila handitzen ari dela, besteak beste talde ugari “ondo prestatutako” kidez edo goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen osatzen direlako. Bestalde, aberastasun semantiko horrek mugimenduek eztabaida eta formazio politikorako espazioak sortzeko duten gaitasuna adierazten du. Izan ere, elkarrizketatutakoek lengoia konplexua erabiltzeak ez du esan nahi denak unibertsitatean ikasitakoak direnik, askok mugimenduan bertan jaso dute teorizazio eta konplexutasun hori. Edonola ere, konplexutasun semantiko horrek terminoekin ondoen eta okerren moldatzen direnen artean langak sortzeko arriskua dakar.

Lehenago aipatutako esperientzia komunaren ideian sakonduz, azpimarratzekoa da elkarrizketatuek LGTB* aktibismoaren izaera egunerokoa azaldu dutela, aktibismook garenarekin edo, bederen, garenaz erakusten dugunarekin oso harreman estua dutela adieraziz. Noiz uzten diogu aktibista izateari? Pausatu daiteke aktibista izatea? Parte-hartzaileetako batek honela azaltzen du:

Sí que hay una diferencia entre cuando yo era militante de Gestoras Pro-Amnistía y otros grupos... es decir yo ahora soy, yo ahora no soy, luego puedo seguir siendo y luego no serlo, pero uno es marica siempre. Yo soy activista cuando voy a una bilera o hago algo del colectivo, u organizo... pero soy activista también en mi curro, soy activista en la calle, en la familia, en absolutamente todos los espacios. Yo creo que son activismos muy diferentes. [02 Kolektiboa - Homofobiaren aurkako talde lokala]

Berezitasun hau LGTB* politiken eskusiboa al da? Testigantzak aipatzen dituen espazio horiek denak (lana, kalea, familia...) aktibismorako espazio potentzialak dira bestelako ekintzaileentzat ere. Demagun euskalgintzan aritzen den ekintzaile bati galdetzen diogula. Erantzun dezake euskararen alde egiten duena ez dela kanpaina edo eskaera ofizialetera mugatzen. Egunerokoan, bere lanean, familian edo kalean euskaraz aritzeko bere nahia defendatu behar duela erantzungo luke beharbada. Ziur aski bien arteko ezberdintasuna aukeran datza. Adibidearekin jarraituz, euskararen aldeko aktibismoa ez da ikusten, ez da antzematen berehalakoan. Hori dela-eta, aukera dugu aktibista bezala azaltzeko ala ez. Esaterako, unibertsitatean ikasi edo lan egiten dugunok ia egunero hizkuntza-eskubideen urraketaren aurrean zerbait esan edo ez erabaki behar dugu: kexa bat jarri, gure ezinegona adierazi edota isildu. Testigantza horrek dakarkiguna antzerakoa den arren, baditu hainbat berezitasun: LGTB* pertsonok egunerokoan erabaki egiten dugu hainbat komentario, esamolde edo jarreraren aurrean zerbait esatea edo ez; maiz isildu egiten gara eta beste batzuetan ez. Ezberdintasuna izan daiteke gure sexualitatearen edo bizi dugun generoaren adierazpena egiten dugunean askotan nahi eta nahi ez ikusgarri bilakatzen garela. Alegia, askorentzat militante ikusezina izatea ez da aukera bat, gay, lesbiana edo trans* ikusezin izatea ere aukera ez den bezala. *“Uno es marica siempre”* hori passingarekin lotu daiteke, passingik ez izatearekin edo izan nahi ez izatearekin.

Honela, ikusgaitasunaren bidez eguneroko aktibismo haragitu bilakatzen da askorentzat LGTB ekintzailetza: *“Ba hori ere aktibismoa da, egotea egun osoa hor, siendo el peso, todo el día diciendo «esto es homofobia», bada kontzientzia batekin lotutako zerbait...”* [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea]. Ez da postura aldaezina, etengabe berrikusten da bizi ditugun eta bizi gaituzten espazio ezberdinen ezaugarrien bidez. Aktibista honek honela azaltzen du:

(...) defentsa hori murriztu egiten dut konfiantza dagoen lekuetan, familian adibidez. Igual errazago egiten zait aurre egitea ezezagun bati eta ez nire amonari kriston komentarioa egiten duela... hor eginbeharra beste bat da, hori jada lotuta dagoelako armairutik ateratzearekin, familian eta halako eremuetan bizitako beste kontu batzuekin... [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea]

Honela, aktibismoaren zentzua egunerokotasuna beste era batean bizitzeko bideak jartzea ere bada, eta beraz gure egunerokoan duen eragin hori positibotzat jotzen dute: “*Yo diría que el activismo es un modo de vida (...) creo que tiene más que ver con un sentido de colectividad de la vida, romper estas individualidades capitalistas, intentar entender la cotidianidad como el espacio en el que se hace política*” [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]. Herri mugimenduek komunitateak sortu, indartu edo hausteko gaitasuna dute, eta komunitate horiek bizimodu ezberdinak probatzeko espazioak ere badira. Beste aktibista batzuek zehaztapenak egin dituzte horren inguruan:

Siempre me ha llamado mucho la atención el rollo del activismo como ocio (...) mi objetivo es vivir libremente, no vivir activista. A mí me gustaría no tener que ir a ninguna mani que tenga que ver con lo que soy yo (...) el activismo es también un espacio de socialización (...) a alguna gente le dices que mañana llega el fin del heteopatriarcado y que se tiene que buscar amigas en su barrio, y te dicen que no firman. Ese es el espacio de seguridad y la vida que han elegido (...) El hecho de ser lesbianas es obvio que dificulta nuestra socialización (...) te acerca a gente que está en la misma situación que tú y ahí encuentras la comodidad, yo entiendo que tiene que ver con eso, con «yo aquí encuentro un sitio de seguridad» respecto al «mundo grande» que dice el Viruta¹⁷⁷, «en el mundo grande hace mucho frío»... Y de esto hago una trinchera, pero es que en verdad no quiero salir. [04 Kolektiboa - Estatu mailako ekimen feminista-lesbikoa]

Segurtasun espazio horrek baditu, beraz, indargune eta ahulguneak. Baina, posible ote da horiek banatzea? Gizaki orok bere ingurunea komunitateetan eraikitzen du eta, komunitate horiek biziarazten dituzten elementuak zalantzan jarriko balira, ziur aski beldurrez jokatu genuke. Herri mugimenduek bi elementu horien arteko tentsioa bizi dute etengabe: egoera eraldatu edo bizitzeko forma berriak esperimentatu; ezberdinkeria sozialak sortzen dituzten banaketak zalantzan jarri edo banaketa horien ondorioz ezberdinkeria bizi dutenak babestu ditzaketen komunitateak indartu. Zentzu horretan jasotako azken aipua interesgarria izan daiteke, tarte txikia baitago LGTB* subjektuen bizitzak bizigarri egiten dituzten babesguneak sortzearen eta babesgune horiek espazio isolatu bilakatzerearen artean. Azken horrek talde eta kolektiboen eragiteko gaitasuna mugatu dezake, eta kezka iturria da elkarrizketatutako talde askorentzat.

177 *Viruta FTM* zirkulu transfeministetan ezaguna den abeslari eta aktibista trans* bat da. Bere burua “*cantautor transexual y precario que hace música transfeminista y rebelde*” moduan definitzen du. Orain arte kontzertu, grabaketa eta bideoklip andana egin ditu, beste musikari eta artista batzuekin kolaboratzeaz gain. Bere web orrian ikusi daitezke berari buruzkoak: <https://virutaftm.com> (2020ko otsailaren 6an kontsultatua).

Azkenik, elkarrizketatuek LGTB* aktibismoa usu bigarren maila batean utzia dela azaldu dute. 80. eta 90. hamarkadetan, mugimendu berri ugari sortzen eta suspertzen hasi zirenean, aktibista honek errealitate horrekin topo egin zuen:

Cuando alguien exteriorizaba su homosexualidad tenía que ser en entornos muy concretos. No se exteriorizaba y solamente había en aquellos momentos más en el mundo de las mujeres el lesbianismo dentro de lo que era el feminismo, eran las tías las que más visibilizaban... Visibilizaban entre comillas, eran las que más hablaban o se encargaban de la manifestación del 28 de junio... Ellas también se escondían un poco detrás del feminismo, pero desde ahí reivindicaban el lesbianismo. Era lo único que existía... Dentro del EMK, LKI... El resto de los partidos... como la izquierda abertzale, era un tema que no se le ocurría a nadie hablar de él, era totalmente tabú, había que ser vasco y bien macho o buena hembra... pero marica... era un vicio burgués... [06 Kolektiboa - Gay mugimendua (gaur egun ez-aktibo)]

Gaur egun, halako diskurtsorik agerian ez egon arren, mailakatze horrek bere horretan jarraitzen du:

Lagun askoren ahotik entzun behar izan dut «zure gauzak». Gutxiespen hori, ezta izenik ez jartzea nik egiten dudan horri (...) borroken arteko mailaketa bat dago, hori entzun behar izan dut, nazioa eta euskarak pisu gehiago dauka eta gero ya zuen identitate arraroak (...) gero ere paradójikoa da baina oso-oso Ezker Abertzaleko jende bat gerturatzea esanez “qué guai egiten duzuen hori”, “zu bezalako norbait behar zen”... eta esaten duzu, «baina non uzten nau honek?». Gero jakinda beste jende batek kentzen diola garrantzia... baina... (...) lotzen dutelako underground eta modernoa izatearekin... [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea]

LGBTB* politikai leku berezia egotzi izana da hemen auzi nagusia. Ez da horrenbeste etengabeko mespretxua jasan behar izatea edo borroka hori bigarren mailan jartzea, baizik eta jasotzen diren balorazio positiboek ere aparteko lekuan jartzen dutela sexu askapenaren aldeko aktibismoa. Babes hitz horiek askotan ez datoz bat LGTB* politikak sistema osoari eragiten dioten borroka bezala ulertzearekin, baizik eta tolerantziaren adierazgarri diren jarrerak hartzearekin. Gogora ekar dezagun hirugarren atalean elkarrizketatutako aktibistek ere gai honekiko ezinegona azaldu dutela, beren burua batzuetan baztertuta, ikusezin, eta beste batzuetan politikoki zuzena den onarpenaren esparrura mugatuta ikusi dutelako. Errekonozimendu dinamikak sakonak izango badira, mugimendu eta ekintzaile ezberdinen artean oniritzi hutsa baino gehiago behar dela adierazten dute aktibista hauek.

Ikusi ahal izan dugun moduan, mugimenduek aktibisten bizitzetan betetzen dituzten askotariko funtzioak presente daude LGTB* politiketara gerturatzen diren aktibisten esperientziak aztertzerakoan. Hala ere, mugimenduak baditu bere berezitasunak: sexualitatearen eta genero biziortasunen inguruko konplizitateak esploratzeko lekuak dira eta, mugimendu feministarekin gertatzen den moduan, parte-hartzaile askok LGTB* politikak beren identitateen parte sakona diren aspektu batzuekin lotzen dituzte. Aldi berean, espazio politiko partikular hauek beste gune aktibista batzuetan bigarren planoan uzten diren elementu batzuei protagonismoa emateko aukera dira eta, beraz, mugimenduen artean gertatzen den borroka mailakatzeko joerari aurre egiteko. Amaitzeko, hirugarren ataleko elkarrizketetan ere ikusi dugun moduan, mugimenduek parte-hartzaileen inguruko gortina ezartzeko gaitasuna dute, babesa sortuz baina baita isolamendua ere eta, maila horretan, ekintzaileek mugimenduen babes-funtzioari zentraltasun ezberdina ematen diete haien diskurtsotan.

4.2 Ur azkarrak: mugimenduak kapitalismo arrosaren, instituzionalizazioaren eta neoliberalismoaren aurrean

No nos falta con formarnos e ir a charlas. Tenemos que coger las calles, porque si no, ellos ganan. [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]

(...) ¿las prácticas sexuales determinan una identidad? ¿O es más el género? ¿La pluma? ¿Hacer lo que quieres? ¿El matrimonio es lo nuestro? (...) queríamos dar un vuelco realmente a la situación que había de lo suponía la norma heterosexual. Yo sigo un poco en esa línea todavía. Pienso que el matrimonio me parece muy bien y todas estas cosas pero realmente lo que hay que acabar es con ciertas estructuras sociales que lo que están haciendo es mantener el sistema que es capitalista y que es necesario romperlo. Hoy en día agravado por la colonización, racialización... Me parecen importantes todas estas cosas porque significa abrir a otros puntos de vista de intervención sobre lo que puede ser la política entre comillas «LGTB normal». [02 Kolektiboa - Homofobiaren aurkako talde lokala]

Maila globalean gertatzen ari diren prozesuek eragin berehalakoak dituzte subjektuek politikoki antolatu eta eragiteko duten gaitasunean. Hainbat gertakizun eta konfigurazio politiko, geo-estrategiko, ekonomiko eta kulturek diskurtsoek duten gaitasuna baldintzatzen dute eta baita mugimenduek egin ditzaketan aldarrikapen eta ekimenen forma mugatu ere. Dagokigun kasuan, LGTB* politiken jarduna baldintzatzen ari diren hiru elementu nagusi agertu dira elkarrizketetan, elkarren artean harremana dutenak gainera: kapitalismo arrosaren garapena (eta mundu mailako joera geo-estrategiko eta kulturekin duen harremana), mugimenduaren eta LGTB* bizitzaren instituzionalizazioa (dimentsio ezberdinetan) eta neoliberalismoaren eragina kultura politikoetan zein nortasunen konfigurazioan. Hiru aspektu horiek egindako elkarrizketetan bereziki presente egon dira. Aktibista hauek argi dute beren egoeraren analisia egiterakoan elementu horiek, besteak beste, kontuan hartu behar dituztela. Ikus ditzagun banan-banan.

4.1.1 KAPITALISMO ARROSA, “GAYPITALISMOA”

Elkarrizketatuen artean kezka zabaldua da sistema kapitalistak sexu eta genero identitate ez-normatiboen inguruan egiten duen berreskurapen ariketaren ingurukoa. Klabe horretan interpretatzen dituzte azken hamarkadetan gertatu diren hainbat aldaketa, eta estuki lotuta ikusten dute geroago aztertuko dudan instituzionalizazio prozesuarekin. Elkarrizketetan nabarmendu den bezala, gay, lesbiana eta trans* pertsonak kapitalismoaren eskuetan merkatuarentzat hobi berriak izan gaitezke. Maila horretan, nortasun batzuk normalizatzea ez dute interpretatzen aurrerapauso bezala soilik, eta gutxienez alde biko gertakizun bezala ikusten dute. Are gehiago, batzuek zalantzan jartzen dute normalizazio hori ontzat eman ote daitekeen, kapitalismoaren estrategiatzat duten heinean.

Baina, noiz hasi zen prozesu hori eta noiz heldu zen Euskal Herrira? Aspalditik da LGTB* politiken kezka, baina gaiaren inguruan gurean esaten zen gehiena etortzeaz zegoen prozesu baten aurre-irakurketa zen duela gutxira arte. Aitzitik, azken urte gutxi batzuetan zenbait gertakari zehatzek bultzatu dute honen inguruko kezka zabaltzea, bereziki hiri batzuetan. Horrela, Bilbon PRIDE¹⁷⁸ ospakizunaren inguruan sortu diren tirabirek edo Donostian gay publikoari zuzendutako hotela eraikitzeak *gaypitalismoari*¹⁷⁹ datak, lekuak eta zenbakiak jarri dizkiote. Bilbok 2022an Europride ospakizunaren hiria izan nahi du, eta 2019ko irailean bertan ekitaldia antolatuko duten lobbyen bilera egin zen. Gayei zuzendutako Donostiako hotelak, bestalde, 1,3 milioi euro balioko ditu. Hiriaren erabileraren eta turismoaren inguruko eztabaiden erdi-erdian gertatu dira biak ala biak. 2018 eta 2019 artean Bilboko hainbat eragilek hiri-ereduaren inguruko kezka azaldu dute, nazioarteko rugbi txapelketaren finala edo MTV sariak bezalako ospakizun handiak sustatu baitituzte instituzioek. Donostian turismoaren inguruko kezka hedatuz doa, eta ez soilik alde aurretik antolatuta dauden aktibisten artean; gero eta herritar gehiago ari dira gaiaz kezkatzen. Testuinguru horretan

178 Ekainak 28an mundu zabalean ospatzen den harrotasun egunaren kariatara, badira urte batzuk hainbat hiritan enpresa pribatuek eta instituzioek elkarlanean antolatutako ospakizunak antolatzen dituztela. Ingelesezko “*pride*” (harrotasuna) hitzaren pean hainbat jaialdi eta ekimen ekonomiko biltzen dira (kruzeroak barne). Bilboko testuinguruan ospakizun eredu horrek haustura sortu zuen Ekainak 28ko ekimena historikoki antolatu duen koordinadoraren baitan. Talde gehienek ekimenaren protagonismoa elkarre eta ekintzaileek izan behar dutela uste dute eta beraz kide gutxi batzuek beste talde bat sortu dute, instituzioek mintzaide bakartzat hartu dutena eta antolaketa komertzial horren negozioazio esparruetan dagoen bakarra dena.

179 Hitz hori hainbat parte-hartzailek erabili dute elkarrizketetan zehar.

hirien antolaketa eta erabilera ereduak lotura estua du auzoen eta gunen batzuen eraldaketa eta birkalifikatzearekin. Kasu batzuetan birkalifikatze hori teknikoa da, lurzoruek eginbide espezifikotarako erabilera izan dezaten ahalbidetuz, baina hiri edo auzoei bizigarritasun eta erosotasun maila ezberdinak egozten dien prozesu sozial eta kulturala ere bada. Mugimenduen kale-hizkuntzan ere gentrifikazio bezala ezagutzen den gertaera horrek loturak izan ditzake LGTB kolektiboaren inguruan egiten diren hainbat balorazio eta baieztapenekin:

El barrio que siempre se ha señalado como el barrio más peligroso es el barrio que siempre ha habido negros, gitanos, maricas y bolleras. Para mí Sanfran¹⁸⁰ nunca ha sido un sitio peligroso. Me he sentido más en peligro aquí, enrollándome con una tía hace años aquí en Somera¹⁸¹ me sentía más en peligro que en Sanfran. Porque los moros muy moros, pero estaban hartitos¹⁸² de ver a maricas y bolleras entrando y saliendo de los bares de ambiente. [04 Kolektiboa - Estatu mailako ekimen feminista-lesbikoa]

Bilbon bizitako esperientziaren testigantza honek prozesu horien berri ematen digu. Auzo eta gunen batzuk, LGTB* pertsonentzako arriskutsu bezala irudikatzen dira, baina aktibista honek gogora dakarren bezala, auzo horiek historikoki gay, lesbiana eta trans*ak mugitzen ziren taberna eta txokoen (ambientearen) kokagunea izan dira. Ez da harritzekoa, izan ere, LGTB* kultura oso klandestino eta ezkutukoa zenean, auzo horiek eskuragarriak baitziren ekonomikoki. Mundu zabaleko zenbait hiritan gertatu den bezala, instituzioek alboratu zituzten auzo horien, alokairu merkeenak eta, kasu askotan, errenta zaharrak zituztenak, klase ertain errespetagarriaren erreinutik kanpo zeuden talde sozialen biltokia izan dira: immigranteak, sexu-langileak, langile klase baxuena... eta gay, lesbiana eta trans* giroa¹⁸³.

Auzo horietako bizitza gatazkatsua eta zaila izan arren, LGTB ambientearen taberna horien presentziak halako familiartasun bat sortzen zuen auzoko biztanle ezberdinen artean, haietako asko LGTB* auzokideak. Elkarrizketatu honentzat, familiartasun horrek beste auzoak baino seguruago bilakatzen du auzoa, baina gizarte iruditegian arriskutsu izaten jarraitzen du, hein handi batean arrazializatutako jende asko bizi delako bertan. Arrazializazio

180 Bilboko San Frantzisko auzoaz ari da.

181 Bilboko Alde Zaharrean.

182 Uler bedi hemen "hartitos" esapideak "ohituta" esan nahi duela, eta ez "nazkatuta" edo "nekatuta".

183 Horrela izan da, esaterako Bartzelonako Ciutat Vella barrutiko "El Chino" auzoan, gaur egun jendeak "Raval" eta "Gótico" auzoetan banaturik ezagutzen duena. "Matar al Chino" liburuan, Miquel Fernandezek honela dio: "Contrariamente a lo que el imaginario oficial sobre la zona intentó imponer, el barrio ha llegado hasta nuestros días como un importante centro de libertad y autonomía de mujeres, travestidos, homosexuales y, en general, perseguidos por la represión institucional, que podían vivir en aquella —o de aquella— «isla»" (Fernández 2014:141)

eta kulturizazio horrek – LGTB*fobia kulturen arteko talka bezala aurkezteak – erraztu egiten du homofobiaren auzia *besteengan* kokatzea. Esaterako, azken urteotan asko zabaldu da homofobia eta matxismoa kanpotik etorritakoen arazoak zirela, gure gizarte aurreratu eta berdinzaleak ulertzen ez dituzten kultura fededunenak. Argumentu hori sendoen erabiltzen ari diren sektore politikoei, esaterako espainiar estatu osoan gorakada handia izan duten eskuin muturreko talde eta alderdiei, ideia horien erabilera biziki korapilatsua egiten dute. Alde batetik, kanpotarrak indarkeria sexualaren erruduntzat jotzen dira¹⁸⁴ baina, aldi berean, emakumeen babeserako genero politiken kritika egiten da, esaterako, genero indarkeriari aurre egiteko legeak zalantzan jarriz¹⁸⁵. Eskuin muturreko bezala identifikatzen ditugun talde eta pertsonena soilik ez diren diskurtso horiek, faltsuak izan arren, oso funtzionalak dira nazionalismo europar eta espainiarrarentzat. Kontraesan horretan, eskuineko talde eta alderdiok LGTB* eskubideak banderatzat hartzen dituzte haien kideek eraso homofoboak egin edo justifikatzen dituzten aldi berean. Homonazionalismoarekin lotzen den panorama konplexu horrek gaur egungo aktibistak kezkatuta dauzka: *“A mí personalmente sí me preocupa eso, no me gustaría que... no me gusta que con lo LGTBI después de toda la liberación que ha habido, de repente se utilicen esas siglas para machacar a nadie o para alimentar un sistema injusto”* [07 Kolektiboa - LGTB+ taldea].

Taldeek bi fenomeno aipatzen dituzte: alde batetik kezkatzen ditu LGTB* pertsonen eskubideak beste batzuk zapaltzeko erabiltzeak eta, bestetik, badakite hori kapitalismoaren merkantilizazio joeraren bidez elikatzen dela. Sexu-askapen aktibismoak hausnarketa ugari egiten ditu, ziur aski oraindik sakondu eta findu beharrekoak, arrazakeriaren, negozio-gosearen eta LGTB komunitatearen normalizazioaren inguruan. Normalizazioa, maila honetan, ezaugarri jakin batzuk dituzten subjektu batzuen sexualitateak ontzat ematean datza. Ezaugarri horiek estatus ekonomikoarekin, arrazarekin, hiritartasunarekin eta sistemaren beharrei egokitzeko ahalmenarekin lotzen dira. Subjektu horiei begira garatzen du kapitalismoak bere eskaintza eta beraz ezin daiteke esan “gaypitalismoa” LGTB* komunitate osoari zuzentzen zaionik, gaur egun bederen:

184 <https://labureus/qNseo>, 2019ko azaroak 19an kontsultatua.

185 <https://labureus/ZIGKX> 2019ko azaroak 19an kontsultatua.

Oso zaila da lesbianak euro arrosan erortzea. Zergatik? Emakumezkoek normalean soldata baxuagoak dituztelako eta gainera lesbianak ez dira agertzen lobby ekonomiko bat bezala. Adibidez nik hemen ezagutzen ditut lesbiana fatxa pilo bat, baina ez daude kontestu politikotan, ez daude antolakuntzan (...) transexualitatearen esparruan, eta trans maskulino bezala, ez dakit ziur baina dago trantsizio prozesu bat oso binkulatua fitnessari, oso maskulinitate bortizari, hormona txuteak hamabostean behin, oso rollo gimnasio batera... eta hor bai ikusten dut, maskulinitate hegemoniko baterantz doan trantsizioa den heinean, hor bai ikusten dut uneren batean sortu daitekeela horrelako lobby bat, baina lesbianen kontua... [10 Kolektiboa - Talde transfeminista]

Kapitalismo arrosak beste merkatu-xede batzuk ere izan ditzakeela onartzen den arren, aktibista gehienen iritzia da berreskurapen horren erdigunean dagoen subjektua gizona eta zuria dela. "Pride" ospakizunaren inguruan egiten diren iragarkiak eta iruditegia ikustea besterik ez dago horretaz ohartzeko, baina bereziki tentuz ibili behar da horrekin ere, izan ere oso posible da iruditegi horretan arrazializatutako pertsonak ere aurkitzea, askotan exotizatuta eta sexurako kontsumo elementu bezala, gay sexualitatearen eta kolonialismoaren arteko bidegurutzean¹⁸⁶. Maskulinitateak berak duen erakarpen gaitasuna ere badakarkigu testigantzak. Gizon transexualen trantsizio prozesuak maskulinitate eredu hegemonikoekin lotzen ari diren heinean merkatuari atea irekitzen zaiola uste du aktibista trans* honek.

Kapitalismoari egindako kritika horiek guztiak oso presente egon dira elkarrizketetan, baita ezkerreko sektore zenbaitek egin dituzten irakurketa batzuekiko kezkek ere:

(...) larritzen nau, eta da oso ezkerreko matxuenoengandik datorren kritika, feminismoak kapitalismoarekin duen harremanarena. Bueno, kapitalismoak merkantilizatzen eta bereganatzen eta potentziaz husten saiatzen da mugimendu guztiekin. Orain feminismoak gorakada duenez, hartuko du gehiago hortik... [10 Kolektiboa - Talde transfeminista]

Feminismoari aipamen zehatza egiten zaio elkarrizketaren pasarte horretan, baina LGTB* politiken inguruan ere hainbat kritika zabaldu dira azken urteotan, eta aktibista hauei zalantza sortzen zaie, ez horrenbeste kritikaren zuzentasunaren inguruan baizik eta berauek totalizatorako duten joeraren inguruan, LGTB* eta feminismoaren aldarrikapen guztiak kapitalismoarentzat baliagarritzat aurkezten direlako maiz, beste mugimendu batzuetan hori gertatuko ez balitz bezala. Alegia, kapitalismoak hainbat borroka sozial eta politiko beretzat

186 Gai honen inguruko adibide bezala, ikus Kuntsman (2008), erotizatze nazionalizatua Israel eta Palestinaren arteko gatazka gunean kokatzen duena.

berreskuratzeko abilezia azaldu du azken urteotan. Adibiderako, langile-borrokak hein handi batean borroka sindikalera murriztu dira, kasu askotan sindikalismoa estatuaren eta langileen arteko negoziazio esparru bezala ulertuz, eta ez sistema ekonomikoaren funtsa zalantzan jartzen duen indar politiko bezala (garrantzitsua da hemen sindikalgintzaren kontzepzio eta praktika oso ezberdinak daudela argi izatea). Era berean, ekologismoaren indar eraldatzailearen zati handia xurgatu du “kontsumo arduratsu eta berdeak” eta, une honetan bertan, aldaketa klimatikoaren gaia norabide berean doala esan daiteke. Aitzitik, erreformazaleak, ez-erradikalak eta “sistemak xurgatuak” izatearen akusazioa, nagusiki, mugimendu feministari eta LGTB* mugimenduei egotzi zaie azken urteotan. Ikerketan parte hartu duten hainbat aktibisten ustetan, kritika horiek erakunde eta mugimendu mistoen barruan feminismoak eta LGTB* ikuspegiak egindako kritikak era egokian kudeatzen ez jakitearekin izan dezakete lotura hain batean. Aktibista ugari beren pribilegio posizioarekin egin dute topo feminismoaren bidez, eta posizio horiek agerian uztea ezerosoa da, bereziki ezkerreko mugimenduetan posizio zentralak izan dituzten gizonentzako: beren kokapena berrikustea eskatzen die, zentraltasun sinbolikoa galtzea eta erosoak zitzaizkien eremutan kuestionatuak izatea. Ondorioz, aktibista hauek ez diote muzin egiten feminismoaren eta LGTB* borroken berreskurapen instituzional eta kapitalistaz kritikoki hitz egiteari, baina eztabaida horien elementu guztiak kontuan hartu beharrekotzat dituzte.

4.2.2 INSTITUZIONALIZAZIO ETA NORMALIZAZIO PROZESUAK

Talde guztiek konpartitzen duten bigarren kezka instituzionalizazioaren ingurukoa da, nahiz eta kezka partekatzeak ez duen esan nahi irakurketa berbera daukatenik. Oso era ezberdinetan interpretatzen dute instituzionalizazio prozesua eta baloratu ere hala baloratzen dute. Baina zertaz ari gara prozesu hauek aipatzen ditugunean? Herri mugimenduetan instituzionalizazioarena oso eztabaida zabala eta luzea da. Azken hamarkadetan mugimendu askok bizi izan dute beraien instituzionalizazio unea eta baita horren inguruko eztabaidak ere, instituzioetan sartu direnean edo mugimenduak maila horretan egonkortzeko aukerak sortu direnean; orobat urte batzuen buruan horren ondorioak aztertu eta baloratu direnean. Adibidetzat aipa ditzakegu euskalgintzak hezkuntzarekin eta beste instituzio batzuekin duen harremanari buruz egindako hausnarketak, mugimendu feministak 1980 eta 1990ko hamarkadetan udal, diputazio eta bestelako instituzioetan izan beharreko funtzioaz izandako eztabaidak, edo Ezker Abertzalearen baitan Sortu legeztatu ostean instituzioekin izan beharreko harremanaz izandako eztabaidak.

LGTB* politikei dagokienez, bi elementu seinlatu nahiko nituzke. Alde batetik, instituzionalizazioaren eta normalizazioaren paradigmak elkarrekin daudela: talde eta kolektibo batzuek, bereziki egitura egonkor eta profesionalak izatera iritsi direnek, haien diskurtsoa LGTB* normalizazioan oinarritzen dute eta, zentzu horretan, haien banderak onarpena eta aitortza legal, juridiko eta soziala dira. Maila horretan, diskurtso batzuk instituzionalizatzen direla esan dezakegu, haien aldarrikapenek harreman estua dutelako hainbat instituzioekin. Aldarrikapenak aitortza legal eta juridikoa duelarik, aldarrikapen horiei erantzuteko moduan daudenak instituzioak dira: estatua eta botere legegileak, edo medikuntza-instituzioa, esaterako. Eskatera horiek familia eta gisako instituzio sozialetara ere zabalduta daitezke, LGTB* subjektuen integrazioa eskatzen denean, baina kasu horretan ere, instituzioen bidez erregulatzen da integrazioa, familia eredu ezberdinen aitortza legal edo administratiboa eskatuz. Aitortza sozialari dagokionez ere, maiz instituzioen eskuetan uzten da aitortza eta, berriz ere, integrazioa bideratzeko eskakizuna, bereziki hezkuntza formalaren esparruan. LGTB* politiken normalizazioa ulertzeko modu horrek, aldarrikapenen izaeran eragiteaz gain, politikaren instituzionalizazioa ere bultzatzen du, gauzak aldatzeko mekanismoa instituzioei eskakizunak egitea denaren ustea zabalduz.

Instituzionalizazioak taldeen egituretan ere eragin zuzena du. Elkarteek instituzioekin (udaletxeak, diputazioak eta abar) adostasunak lortu dituzte, esaterako, arreta zerbitzuak edo hezkuntzan garatzen diren programak koordinatzeko eta, bide horretan, talde batzuk egonkortu eta profesionalizatu egin dira. Euskal Herriko LGTB* politiketan, harreman nahiko zuzena dago taldeen biziraupenaren eta instituzioekiko harremanaren artean. Salbuespenak salbuespen, instituzioen bidez egonkortu eta iraunkor bilakatzen dira taldeak, nahiz eta talde txikiak izan.

Prozesu horren testigantza zantzu txiki batzuk lehen pertsonan jasotzeko aukera izan dut ikerketan zehar. Parte-hartzaileetako batek abiapuntua beste hainbatetan agertuko den gertakari batean jartzen du: mugimenduak, hasieran, egitura erabat militantea zuen eta espiritu erabat aktibista. Ezagutzera eman ahala, ordea, jendea mugimendura gehiago gerturatzen hasi zen, baina ez halabarrez aktibismo gosez. Halako langa bat dago mugimenduko aktibisten interesen eta bertara gerturatzen diren hainbat pertsonaren artean:

(...) venía gente, se sentaba en las reuniones, nos veía discutir del color de las amapolas y flipaba, porque era lo que menos le interesaba del mundo, discutíamos como un partido político... nuestros debates internos de identidad... mil cosas. Había gente que le aburría porque no iba buscando una militancia de ese tipo, iba buscando otras cosas, lo que pasa es que nosotros decíamos que éramos activistas. Que no éramos un grupo de apoyo. Ahí pasan diez años y después se ve la necesidad, o hubo gente que vio la necesidad de transformar eso en otra cosa. Se hacían los grupos de apoyo mutuo (...) a la gente nueva que venía se les juntaba y había una persona que dirigía un poco esos grupos, y no las metías a tus reuniones habituales... viene alguien, y la ponen en una reunión... dice “yo no vengo buscando esto, vengo buscando otra marica u otra bollera como yo que esté en frente mía, que me diga cuatro mariconadas y que me eche cuatro risas y que me invite a tomar una cerveza, y si me la ligo igual mejor”. Se generaban espacios donde al final conocías a gente y eso era lo más enriquecedor, conocer a gente diversa, gente que te molaba, que no te molaba (...) espacios de encuentro que era lo que buscabas. [06 Kolektiboa - Gay mugimendua (gaur egun ez-aktibo)]

Talde eta kolektiboak askotan kontziente dira sortzen dituzten dinamikak ez direla ez gustagarriak ez ulergarriak haiengana gerturatzen diren pertsona guztientzat, baina era berean taldeok badute jende horrengana nolabait gerturatzeko asmoa. Goiko testigantzak hizpide duen garaian, 90. hamarkada hasieran, LGTB* pertsonen lehen beharra superbibentzia soziala zen, beste batzuekin topo egin eta sareak sortzea eta, zentzu horretan, talde eta kolektibo askok sare sozial funtzioa bete zuten. Horrela, elkarteen barruan funtzio eta espazio ezberdinak sortzeko beharra ikusi zuten, jendea artatu baina aldi berean ez aspertzeko. Artatze espazio horiek, hasiera batean, aktibismoaren eta asistentziaren artean kokatzen ziren: aktibistek dinamizatzen zituzten eta laguntza bila gerturatzen zirenetako

batzuk gerora aktibista bilakatzen ziren. Denborarekin, ordea, laguntza hori ematearen mugak ere azaleratu ziren. Alde batetik, eman beharreko laguntza eskaintzeko prestakuntza nahikorik gabe sentitu ziren ekintzaile asko eta, bestetik, asistentzia lana beraientzako prekariedade iturri bilakatu zen. Arreta zuzena eta pertsonalizatua ematera pasatu zirenean prekariedade hori areagotu egin zen:

“Toda esa gente, ¿en qué condiciones trabajaba? Precariedad absoluta. Por militancia, ni tan siquiera cotizaba... eso no puede vivir toda la vida. Eso tiene un periodo, donde todo es muy libre, muy nosequé, pero eso de alguna manera lo tienes que enganchar, porque si no no se mantiene” [06 Kolektiboa - Gay mugimendua (gaur egun ez-aktibo)].

Ataka horretan, ekintzaile batzuek profesionalizatzeko aukera bere egin eta beste ekimen batzuk martxan jarri zituzten, beraien izpiritu ekintzailetik abiatuz baina bizitza profesionala eta aktibista uztartu nahian. Zaila da egitura profesionalak eta aktibistak aldi berean mantentzea eta batean gora egiten duenak bestean behera egiten du, halabeharrez. Gainera, une horrek militantziaren beherakada orokorrarekin bat egin zuen, 2000. urtean kolektibo ugari ahultze nabarmena pairatu baitzuten.

(...) gutariko batzuk profesionalizatu ginen, eta taldea geratu zen militante gabe. Oso potentea izan zen 90. hamarkadan, baina 2000rako behera egin zuen (...) Aktiboen geundenak profesionalizazioaren eremua probatu nahi genuen, nahi genuen sortu... jarraitzen genuen militantzian, baina ez zen egon denarentzako eutsilekurik. [07 Kolektiboa - LGTB+ taldea]

Prozesu horiek ez dira une berdinean gertatu Hego Euskal Herri osoan, eta ez dute ibilbide berdina izan. Profesionalizazioaren bidea hartzeak ez dakar halabeharrez egitura instituzionalaren ateak irekita izatea. Esaterako, nafar aktibisten ustez, 2015ean “aldaketaren gobernu” deiturikoa heldu arte LGTB* politikek ez zuten sarbide handirik izan instituzioetan. Une horretatik aurrera foru mailako politiketan eragiteko aukera izateak eta, udal mailan, arreta bulego irekitzeak aro berri bati hasiera eman zion. 2019ko hauteskundeen ondoren ziurgabetasuna nagusitu da berriz, instituzioekiko harremana ere faktore ezberdinen menpe dagoela argi utziz. EAEn kasuan kolaborazio hori iraunkorragoa izan da. Esaterako, Eusko Jaurlaritzak hainbat elkarteren laguntzaz kudeatzen duen Berdindu zerbitzua 2002an jarri zen martxan eta gaur egunean oraindik aktibo dago.

Instituzioekin kolaboratzearen inguruko balorazioak ere anitzak dira baina, instituziotatik kanpo lan egiten duten kolektiboekin edo harreman puntuala duten egitura ez-profesionalak elkarrizketatu ditut batik bat eta, beraz, espero izatekoa da auziaren inguruko iritzi kritikoak aurkitzea. Azken finean, instituzionalizazioa biderik egokiena dela uste izango balute, bide hori hartua izango zuketuen. Instituzionalizazioaren efektuak aztertzerakoan, ordea, askok eta askok analisi lauak ekiditen dituzte, zuhurtziaren alde eginez:

Nosotras no recogemos (...) temas de delitos de odio, violencias y tal. Otras asociaciones trabajan esto con instituciones que a mí me parece importantísimo, y nosotras como somos anarquistas y anti-institucionales no vamos a trabajar esto con las instituciones. Eso no quiere decir que yo a título personal no considere que este trabajo sea crucial y tengan que hacerlo otras asociaciones. Noto esas diferencias pero el trabajo que estamos haciendo nosotras es muy importante y otras asociaciones no lo hacen. [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]

Ekintzaile honek hasieratik utzi zuen argi bere helburua ez zela beste batzuek egiten zuten lana epaitzea eta, are gutxiago, mespretxatzea. Estrategia ezberdinen bateragarritasunak elkarrekiko aitortza eskatzen du. Edonola ere, beste ekintzaile batzuk oso kritiko azaltzen dira instituzioetan sartu ahal izateko hainbat kontutan amore eman beharrarekin: *“historikoki aldaketa asko egon dira, instituzionalizatzeko prozesuan gauza asko galdu dira, edo gaizki egin dira, nire ikuspuntutik. Orduan, instituzionalizatzea puntu beltz bat bezala ikusten dut, baina eske egoera oso ezberdina da...”* [05 Kolektiboa - Transmaribibollo talde lokala].

Instituzionalizazio prozesuaren zati bat profesionalizazioa izan zen eta aktibista batzuk kritiko azaldu dira prozesu horien inguruan ere, ez horrenbeste aktibistek beren lanari mozkin ekonomiko edo profesionala ateratzearekin, ezpada politika horiek mugimendurekin loturarik ez duten profesionalen eskuetan uztearekin: *“Se empiezan a hacer unos discursos planos, asistencialistas pero planos, además de lo profesional, de la sexología, Dios mío, ¿esto qué es? ¿Estos señores quién son? O psicólogos, ¿qué tiene que ver?”* [ELK02]. Aktibista honen esanetan horrek LGTB* jendea biktimizatzen du, sexu aukera edo nortasunagatik traumatizatuta leudekeen pertsonatzat hartuz, eta gaia esparru sozialetik atera eta eremu pertsonalean giltzapetuz.

Instituzionalizazioari egindako azken kritika instituzioen eta talde aktibisten arteko harremanari dagokiona da. Ekintzaile batzuen esanetan, instituzioek etengabe erabiltzen dituzte talde aktibistak beraien lana zilegiztatzeko, politikaren izaera konplexua onartu ordez:

Ni batzuetan sentitzen naiz {instituzioek} erabilia, gure ahotsa hartzen dute haien beharrentzat, hau egin nahi dugu, ezdakitzer taldek esan digu behin hau ondo dagoela orduan talde horren ahotsa eta haien mugimendua erabiltzen dute beraiek nahi dituzten gauzetarako... sinadura moduan... en plan «ez gara gu bakarrik baizik eta LGTB mugimenduaren babesa daukagu». Ba ez. [03 Kolektiboa - EAE mailako LGTB taldea]

Instituzioetara sartzea talde denentzat lehentasunezko apustua ez izateak ez du esan nahi, nola edo hala, instituzio horiek kontuan hartzen ez dituztenik edo beraiekin kolaborazio puntualak egiteari uko egiten diotenik. Taldeak ezin dira era garbian instituzional edo ez-instituzional bezala klasifikatu, kolektiboek beraiek beste irizpide batzuk ere erabiltzen dituztelako beren politikak definitzeko.

Ezberdintasunak daude... adibidez trans taldeak, daudenak, guztiz instituzionalak dira, eta bestalde marika taldeak eta lesbiana taldeak guztiz instituziotik kanpo geratzen dira eta gero LGTB misto taldeak instituzionalki inplikatuak daude. Orduan gu justu ez gara instituzionalak, LGTB gara eta gure ikuspuntua erradikala da, ez dugu neoliberalismoaren lerroa jarraitzen. [03 Kolektiboa - EAE mailako LGTB taldea]

Talde honentzat instituzioekiko harremana ez da afera garrantzitsu bakarra eta harreman hori kolektiboaren izaera markatzen duten beste bi elementurekin lotzen dute: alde batetik nortasun zehatz batera ez mugatzearekin, kolektiboa LGTB talde misto bezala definitzen baitute, eta, bestetik, ikuspegi erradikal eta politizatua izatearekin. Noski, erradikaltasuna insituzionalizazioen inguruko eztabaidaren erdigunean dago: posible al da politika erradikalak egitea eta instituzioekin kolaborazio iraunkorra izatea? Baina LGTB* politiken subjektuen aferan galdera alderantziz ere planteatzen da: nortasun-talde zehatzagoetatik abiatzen diren politikek (politika marika edo lesbikoek) aurkitzen al dute solaskiderik instituzioen esparruan? Bi elementu horien arteko konbinazioak hirugarren galdera bat ere ireki dezake: zer gertutasun edo distantzia erlazio sortzen dira LGTB* taldeen eta komunitateen artean instituzioarekin duten harremanaren eta hautatzen duten subjektuaren arabera? Galdera horiek 4.5 atalean berreskuratuko ditut, hausnarketa teoriko batzuen laguntzaz. Momentuz, ur azkarren hirugarren korronteari eutsiko diot, identitateen eraikuntzak sistema politiko eta ekonomiko liberalaren ethosarekin dituen harremanak mahai gainean jarritz.

4.2.3 NEOLIBERALISMOA ETA IDENTITATEEN FAKTORIA

Talde hauen begietan, LGTB* politiken inguruan gertatu diren eraldaketen inguruko irakurketa ezberdinak egin daitezke. 2005az geroztik, PSOEn gobernupean aldaketa ugari gertatu ziren: sexu berekoentzako ezkontza eta adopzio eskubidea, nortasun agerietan izena aldatzeko administrazio-prozedurak azkartzea trans* pertsonentzat, homosexualitatearen presentzia mediatiko eta kultural handiagoa, onarpen sozial handiagoa... Horiek guztiak garaipen eta lorpen bezala edo askapenerako traba bezala irakur daitezke. 2019ko maiatzean EHUko Donostiako campusean burututako jardunaldietako mahai-inguru batean eztabaida hori bera sortu zen hizlarien artean¹⁸⁷. Parte-hartzaile batzuen iritziz LGTB* identitateen normalizazioa subjektu zehatz batzuen normalizazioa besterik ez da eta, gainera, homologazio prozesuen ondorio da: gizarte patriarkalaren egiturak, bereziki familia, ontzat emanez LGTB* pertsoneri eredu bitarra, monogamoa eta erreproduktiboa ezartzen zaie. Gauzak horrela, aldaketa horiek lorpenentzat hartzea ez ote da sexu-askapenari aurrerabidearen ideia moderno eta mendebaldira aplikatzea? Begirada kritikoak aplikatuz, aldaketa horiek aurrerapauso bainoago, kapitalismo patriarkalaren eraldaketa izan daitezke baina, bestalde, esan ote dezakegu aldaketa orok kapitalismo patriarkalaren mesedean soilik jokatu duela? Ez ote da hori kapitalismoari eta patriarkatuari erabateko gaitasuna aitortu eta, ondorioz, menderaezinak direla esatea?

Herri mugimenduen baitan, baina baita oro har gizartean ere, etengabe azaltzen den galdera da: kondizioak aldatu badira, ez badago legalki diskriminatzerik LGTB* izateagatik, eskubideetan ia berdinduta bagaude, ateak irekita badaude eta LGTB* pertsona batzuk gizartearen erreferente bilakatu badira, nola da posible oraindik indarkeria LGTB*fobikoaren presentzia hain handia izatea? Eta bazterketa soziala? Eta nerabe LGTB*en osasun emozional eta mentala? Normalizazioaren alde eta eraldaketa juridiko eta administratiboaren bidetik jo duten elkarte eta aktibisten erantzun ohikoena bi erritmoen ingurukoa da. Hau da, eraldaketa juridiko eta administratiboak transformazio ororen motorra direla, eta horien ondotik, erritmo askoz motelagoan datozela aldaketa kulturalak. Denbora behar dela, itxaron beharra dagoela. Gauza bat dela legeak aldatzea eta bestea, gizartearen sinesmen eta ohituretan

187 "LGTBIQ+ Euskal Herrian" jardunaldiak 2019ko maiatzaren 30 eta 31n ospatu ziren Donostiako HEFA fakultatean. Renoko Unibertsitateak, EHUk eta Ikerketa Feministak eta Generokoak (EHU) masterrak antolatu zituzten, Jone Miren Hernandez, Xabier Irujo eta Marta Luxánen gidaritzapean.

eragitea. Ikuspegi legalista-administratibo horren begietan LGTB* afera, nagusiki arazo kulturala da. Areago, perspektiba horrek alderdi legal-administratiboa eta kulturala bi lerro paralelo bezala irudikatzen ditu, elkarren artean eraginik gabeak edo, asko jota, eragin positiboa dutenak norabide bakarrean. Ikuspegi horretatik, sexu bereko pertsonen ezkontza eskubidea aitortzeak halaberrez gizartearen iritzia eraldatzen lagunduko luke, LGTB pertsonen onarpen sozial maila handituz.

Joera hori hausteko gogoia da, nire ustez, kolektibo askoren diskurtsoan azaltzen dena. Errealitatearen irakurketa konplexuagoa eginez, eta gertaeren arteko eraginak norabide anitzekoak direla onartuz, pentsamendu lerro ezberdinak zabaltzen dituzte talde hauek. Ez soilik aldaketa administratiboek maila kulturalean ekarri ahal izan dituzten onuren inguruan, baina baita eraldaketa beste eremu batzuetatik bultzatzeko aukeretan izan duten eraginari buruz ere:

Eta hortik aurrera bueno, nik uste du kolektiboak, bertara dedikatzen den mugimenduak ez zuela guztiz asmatu agenda berria perflatzan eta agenda berri hori gizarteratzen. Hainbeste denbora eman eta gero «ezkondu nahi dugu, ezkondu nahi dugu» ze ezkontzen bagara udaberri eterno bat sortuko da, bueno, ba jada ezkon zaitezketen eta zer. Eta nik uste dut horrek ere izan zuela bere moda eta nolabait ere ari gara erdi normaltzen (yo soy muy enemigo de la palabra normalización) erdi modaz pasatzen. Es como bueno, ya está ya estáis. [Ekain]

Talde batzuentzat eskubide horiek ez dira nahikoa. Beste batzuk urrunago doaz eta normalizazioa aldarrikatzeak normaltasun hori patriarkatuak eta kapitalismoak nola eraiki duten agerian uztea oztopatzen duela uste dute.

(...) los movimientos LGTB de alguna manera son más públicos, más visibles y se han integrado en la agenda política (...) me da un poco de miedo que esas políticas que están ya en la agenda no correspondan verdaderamente a una lucha que vaya en contra de la heteronorma, es decir a la desaparición de los géneros, a que la gente pueda hacer lo que quiera... Que me parece muy importante porque si no lo que puede haber es una especie de calco. Siempre hemos dicho: ¿el objetivo es que seamos tan vulgares y ordinarias como las personas heterosexuales? No. Lograr eso en un momento fue casi supervivencia, pero no era el objetivo, era un poco más allá, no era simplemente unas políticas diría identitarias de «lo mío, lo mío, lo mío»... [02 Kolektiboa - Homofobiaren aurkako talde lokala]

Aktibista honek normalizazioaren estrategiarekin lotzen du nortasun politiken hedapena. Baina zer dira nortasun politikak eta nola kokatzen dira taldeak horien aurrean? Esango nuke kasu gehienetan taldeek identitate politiken kontrako jarrera dutela, baina ez dago argi solaskide guztiek gauza bera esan nahi ote duten identitate politikez ari direnean. Orain ikusi dugun testigantza araberako identitate politikak subjektu zehatz batzuentzako eskaerak egitera bideratutako politika gisa definitzen dira. Politika horien ondorioz identitate horiek indartu eta finkatu egiten dira. Esaterako, gay eta lesbianentzako eskubideak aldarrikatzen ditugunean identitate horiek indartzen ditugu, eskubide horien subjektu nominalak izan daitezten. Identitate politikak, alde horretatik, instituzionalizazioarekin daude lotuta, baina ez soilik harekin, mugimenduen espazioetatik ere bultza baitaitezke. Aktibista hauek beste elementu birekin lotzen dituzte identitate politikak: indibidualizazioarekin (sexualitatea norberaren ezaugarri bezala ulertzearekin eta ez egitura sozialen baitan) eta atomizazioarekin (identitateak etengabe zatikatu eta berriak sortzearekin):

Ha habido en los últimos años como que han salido un montón de identidades, yo no sé ya cómo encajar... el activismo ha cambiado mucho por supuesto, pero asistimos a que ha habido borbotones de identidades, todo con la palabra «sexual», fíjate... pansexual... mira que durante una época decíamos que no hay que cargar tanto en el rollo sexual, que mira que hay gente que no folla, o no follamos tanto... y sin embargo ahora pansexuales, nosequesexuales... que para mi gusto... Son políticas a mi parecer ultra-identitarias en el sentido de “qué hay de lo mío”, que yo soy tal-tal-tal... Hay veces que son bastante herméticas, y entonces las alianzas son complicadas, y más si ponen sólo el término ese, «-sexual» y ya está... [02 Kolektiboa - Homofobiaren aurkako talde lokalak]

Ekintzaile honek aktibismoarako beste bide bat aldarrikatzen du hemen: ez ematea horrenbesteko zentraltasunik sexualitateari. Baina zer zentzu izan dezake nortasunen biderkatze horrek eta nola ulertu daiteke? Beste talde honetan ere garbi dute identitate politikak arazotsuak direla eta beraz berriz pentsatu beharrekoak, baina kontzeptuaren beste definizio bat ematen dute, agian zehatzagoa:

Gure ideologian horren kontrako puntu bat sortu nahi dugu, identitate politiken kontra. Bada nortasun bakoitzetik identitate bat sortzea... Nik jasaten dut hau eta hau eta hortik identitate bat sortzen da, eta azkenean diluitzen duzu benetako borroka eta sistema horien oinarria eta nola eragiten diguten. Zuk esaten baduzu ez dakit zer zarea... ni naiz... genderqueer. Neretzat ez dauka oinarrikerik horrek. Hori da zure esperientzian oinarritzen duzun zerbait eta ez sisteman oinarritzen den kategorizazio bat. Hori dira niretzat identitate politikak, esperientzia hutsean oinarritzen diren hitz, termino eta jarrera batzuk (...) guretzat identitateak sortzen dira opresioetatik eta ez alderantziz. Politikoki zer esan nahi du genderqueer? Horrek politikoki ez du zentzurik. Adibidez, patriarkatuaren arabera zer zara? Opresioan goian doana edo azpian

dagoena, hori ezin da aldakorra izan (...) Genero ez binarioen artean... ni hor sartzen naiz baina horrek politikoki ez dauka zentzurik. Hain talde heterogeneoa da (...) egin behar den sailkapena da patriarkatuak nola jotzen dizun, zure onerako edo txarrerako. Orduan politikoki horrek zentzu bat dauka eta identitate politiken imaginariotik kanpora doa (...) ez badugu erradikalizatzen, ez bagoaz sistema opresiboen errora, liberalismoak berreskuratzen ditu kontzeptu horiek eta galtzen duzu esanahia, opresio sistemaren ulermena. [03 Kolektiboa - EAE mailako LGTB taldea]

Ekintzaile hauen ikuspegitik esperientzia pertsonala eta subjektu politikoak nahastean datza arazoa. Eta hala ere nabaria da arazo hori ondo definitzerakoan zailtasunak ditugula, hizkera oso zehatza erabili behar delako. “*Nortasun bakoitzetik identitate bat sortzea*” zaila da bere horretan ulertzen, askotan nortasun eta identitate hitzak sinonimo bezala erabiltzen ditugulako. Hala ere, pasarte osoa irakurrita badirudi arazoa lotuago dagoela nortasunak eta esperientzia pertsonalak subjektibotasun politikoen oinarri bakartzat hartzearekin. Esperientzia eta bizipenak errepikaezinak diren arren, zapalkuntzen kontrako borroka batek esperientzia komunak bilatu behar ditu, eta horiek topatzeko egiturari begiratu behar zaio. Talde honetako kideek jarritako adibideari jarraituz, gauza bat da norberak bere generoa aldakortzat sentitzea eta beste bat generoa zein egoeratan kokatzen den gizartearen botere egituretan. Irakurketa sistemiko eta sistematikoa egitea da kontua.

Badirudi identitateen faktoria amaigabe honek mugimendu feministan gertatu izan diren eztabaida batzuekin lotura duela eta, eskarmentu hori medio, beste aktibista batzuek zalantza gehiago azaldu dituzte gaiaren inguruan. Azken urteotan, identitate politikak aitzakia ere izan dira LGTB* eta politika feministen aurka jotzeko, ezkerreko sektore ortodoxoetatik bereziki. Garai bateko mamuak itzuli dira eta duela zenbait hamarkada feminismoaren aferak langile klasea zatikatzen zuela edo LGTB* aldarrikapenak hedonismo hutsa zirela esaten zen bezala, azkenaldian argumentu zabaldua da identitate politikak sistemak irensten dituela kapitalizazio ekonomiko eta murgiltze instituzionala medio. Kritika horien elementu interesgarriak alboratu gabe, aktibista batzuek beharrezkotzat jotzen dute identitate “berri” horiek ekarri ditzaketen irakaspenak kontuan hartzea, eta nortasun berri horiei espazioa ukatzearen arriskua azpimarratzen dute. Zenbait posizio epaitzea, hain zuzen ere, bere garaian (eta, zoritxarrez, gaur egun ere) mugimendu feministan sektore batzuek hartutako jarrera izan zen, esaterako trans* subjektuekin, edo beren burua subjektu propio gisa aldarrikatu nahi zuten lesbianistekin.

Are gehiago, identitate politikei egindako kritikaren elementu asko bere egiten dituzten arren, beste talde honetako aktibistek ñabardurak egiteko beharra azaltzen dute, baita elementu ezberdinak taulartzekoa ere. Horrela, mugimendu feministarekin harreman estua duen talde transfeminista honek beste analisi bat dakar:

Al final el feminismo hegemónico es bastante biologicista, estamos hablando de la categoría mujer como nacida mujer, con sus genitales de mujer. No nos representa ese feminismo hegemónico porque no representa a las lesbianas desde el punto de vista de que no nos categorizamos como mujeres, esto es muy controvertido, pero luego entra el movimiento trans muy fuerte y de repente se nos invisibiliza... Hay un salto cualitativo donde el movimiento trans no solamente nos acusa a las bolleras de haberles invisibilizado, que lo podemos asumir, porque es verdad, pero de repente es como que otra vez pasamos a ser invisibles. Y entonces ahí nos aferramos para decir “tiene que haber esto también” (...) muchas veces se nos entiende como si fuésemos identidades... como si fuese esencialista, cuando también puede ser un feminismo dentro del transfeminismo, nómada, cambiante, que atraviesa varias identidades (...) creo que en esta lectura habría que incluir el concepto de género, en todo el discurso LGTB y queer, lo típico, lo que siempre se ha dicho, en contacto con los chicos, con los gays, se da la discriminación típica de género y creo que esto también lo cumple un poco... porque es curioso, porque identitario es decir que trabajas el feminismo desde un concepto lesbianista, pero no son identitarios los conceptos normativos sobre transexualidad hombre/mujer. Luego hay cosas que... me sorprende la valentía que tiene la gente frente a determinados sujetos políticos y frente a otros no. Por ejemplo la crítica hacia lo gay como algo identitario no la he oído jamás, dentro del movimiento feminista clásico quizás (...) hay como un montón de vergüenza para decir que tu activismo es lesbiano porque no está guai, no está de moda... me sorprende como un montón de colectivos tienen una valentía identitaria super potente. Yo creo que el discurso de la identidad es larguísimo y muy cuestionable pero nosotras en seguida somos esencialistas... [08 Kolektiboa - Talde lesbianista lokala]

Generoa kontuan hartzeko deia egiten dute, beraz, feminismoaren begirada kritikoa aplikatzeko, eta hala identitate politiken kritika birkokatzeke. Kolektibo honetakoak feminismo biologizistatik urruntzen dira alde batetik, eta, hortaz, nolabait beste identitate batzuk aldarrikatzen dituzte. Nagusiki lesbiana identitatea aldarrikatzen dute, emakumetasunarekin identifikatu gabe, hainbat mugimendu lesbianoen tradizioan. Baina identitate batzuen presentziak eta haien inguruan sortzen den diskurtsoak efektu bikoitza du beraien ustez. Trans* politikek, alde batetik, beren lekua aldarrikatzen dute, trans* subjektuen errealitate espezifikoa mahai gainean jarriz. Honetarako ezinbestekoa dute orain arteko mugimenduei kritika egitea, trans* politikak eta haien subjektuak albora utzi izanagatik. Elkarrizketatutako talde honek kritika hori bere gain hartu eta transfobiaren inguruko auto-kritika egiteko erabiltzen du. Azken finean, beraien feminismoari egiten dioten kritika antzerakoa da, hots, subjektu batzuk kontuan hartu ez izana. Bestalde, feminismoan egon den transexualitatearen inguruko eztabaidak lesbianismoa ikusezin bilakatu dezakeela sentitzen dute, posizio politiko horri lekua kenduz. Horren aurrean identitate ezberdinen elkarbizitza aldarrikatzen dute “*tiene que haber esto también*” diotenean (azpimarra nirea da). Beraien

ikuspegian identitate horiek ez dira soilik identitate berrien produkzio bezala irakurri behar, kapitalismoaren eta liberalismoaren ikuspegitik egindako interpretazio batek egingo lukeen eran. Aitzitik, identitate berri horiek ezagunak ez genituen botere positio batzuk irudikatzeko azaleratzen dira, eta horrek borrokarako terminoak berrikustea eskatzen du, halaber mugimenduari konplexutasuna gehituz.

Aldi berean begirada feministak aukera ematen digu identitateei egiten zaien kritika hori zehatzago aztertzeko. Esaterako, ikerketa honen ibilbidean zehar ikusi dut nola izendatze batzuen erabilera areagotzen ari den mugimenduan eta beste batzuen, aldiz, ez. “Marika” eta “lesbiana” edo “bollera” izendapenez ari naiz. Azken bost urteetan, gutxi gora behera, politika marikak egiten dituzten taldeen gorakada ikusi dugu: hainbat topaketa antolatu dira, estatu osoan zehar zenbait talde eratu eta *marika* subjektuaren indartzea gertatu da. Ezin daiteke gauza bera esan lesbianismoaren inguruan eta, nahiz eta mugimendu feministaren sektore batzuk “bollerismoa” aldarrikatu, esan daiteke lesbianismoa aukera politiko edo identitate bezala ez dagoela horren bogan. Hala ere, aktibista hauek sentitzen dute errazago egozten zaiela esentzialismoa eta identitarismoa lesbianeiei mutul gay edo marikei baino.

Edonola ere, aktibistontzat, identitate politiken arazo bakarra ez da sistema neoliberalak termino abstraktuetan egin dezakeen berreskuratze ariketa. Eraldaketa politikoa eta bere subjektua artikulatzeko eredu horrek LGTB* komunitateetan eragina du, subjektu ezberdinen arteko artikulazioari oztopoak jartzen dizkiolako. Edozein mugimendutan bezala, LGTB* taldeetan ere iritzi ezberdinak daude eta hauek findu eta akordioetara heltzea funtsezkoa da, baina lehenago aipatu dudana bezala, aburu ezberdinak egoteaz gain positio eta esperientzia anitzak ere badaude. Talde barruan presente dauden botere harremanen azterketak pribilegio eta zapalkuntzak identifikatzeko aukera eman dezake, baina, nahi baino maizago, positio horiek izoztu eta kokapen identitario bilakatu daitezke, boterearen inguruko diskurtsoa esperientzia pertsonalaren prisma bati bakarrik iragaziz. Horrek, usu, eztabaidak zaildu ditzake, gai baten edo bestearen inguruan proposamenak egiteko edo iritziak izateko legitimotasuna erdigunean jartzen denean paralisirako arriskua dagoelako: *zer garen* erdigunean jartzen denean, berez positiboa eta politikoki ezinbestekoa den pribilegioen berrikuspenera perbertsio bilakatu daiteke, eta taldeen funtzionamendua asko zaildu dezake. Hala ere, lehenago esan bezala, taldeek ez dute kolektibo barruan dauden ezberdintasun eta pribilegioen inguruko eztabaida alboratu nahi, baina bere konplexutasuna onartuz, bere perbertsio eta albo kalteak ere kritikoki pentsatzeko beharra azpimarratzen dute, bereziki kapitalismoaren identitateen ekoizpenaren ikuspegitik:

Tiene mucho que ver con la cristalización de las identidades, y con la encarnación de los discursos en los cuerpos. Me parece muy problemático y creo que ocurre, sobre todo mucho en twitter. No puedes decir o hacer esto o esta no es tu lucha porque tú eres {enfasiarekin} esto o lo otro. Me parece muy peligroso. Al mismo tiempo es útil, para quitarnos de encima machunos y cosas, pero pone demasiado foco a mi juicio a algo tan fluido como es la identidad, compartimentalizandola y definiéndola en un espacio demasiado acotado que es que no es así. A mí me han dicho que el feminismo no es mi espacio. A mí me han dicho que lo trans no es mi espacio. A mí me han dicho muchas cosas. Pero creo que, entendiendo todas esas posturas, tendríamos que centrarnos en qué dinámicas forman parte o facilitan o pertenecen a qué discursos y espacios. Dejemos de señalar a los sujetos y entendamos que aparte de saber cuáles son los sujetos tenemos que entender cuáles son las dinámicas feministas. [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]

Ekintzaile honen testigantzak oso ondo azaltzen du oraintsu aipatutako eztabaida. Espazio politikoak nolabait mugatu behar direla onartu arren, “matxunoak eta halakoak gaintetik kentzeko”, nortasunak izoztu eta kristalizatzen direnean ideia eta ekintzen fluxua ere zaildu egiten dela uste du. Are gehiago, joera hori sare sozial digitalei egozten die, hor gertatzen den nortasunen atomizazio eta eztabaiden polarizazioari. Kide honek identitateak eta subjektu politikoak nahastea salatzen du, eta identitateetan zentratu beharrean, dinamikak aztertzea proposatzen digu, dinamika feministak identifikatu eta bultzatzeko xedez. Berak bezala, identitatean oinarritutako politikak arazotsuak direla uste dute elkarrizketatu gehienek eta gaia oso konplexua dela onartzen dute. Aitzitik, talde bakoitzak ikuspegi eta proposamen ezberdinak dauzka identitate politiken irakurketa zurrinak sortu dezakeen paralisia gainditzeko. Badirudi klabea subjektu politiko bat definitu edo eraikitzea dela, baina nola izendatu? Nola bildu? Nola banatu?

Atal honetan normalizazioak izandako ondorioetatik abiatuz identitateen finkapena eta sistema ekonomiko-politikoan jokatzen duten paperaren inguruko hitzak bildu ditut. Hurrengo atalean, identitate horiek kapitalismoak eta liberalismo politikoak bere egiteko duten gaitasunari kritikoki erreparatuz, mugimenduek beren artikulazio politikorako beharrezkoa duten subjektuari buruzko ikuspegi eta ideiak bilduko ditut. Kapitalismo arrosaren, instituzionalizazioaren eta liberalismo politiko berriaren ur azkarrak utzi eta artikulazio politikoaren ur moteletara gerturatuko gara.

4.3 Ur motelak: identitateetatik subjektura

(...) nosotros entendimos el tema de la identidad como una estrategia de lucha. Otros hablaban de que no había etiquetas, que éramos personas sexuadas y que no había una identidad homosexual, sino que éramos personas sexuadas que en cada momento de nuestra vida podíamos elegir una forma u otra de relacionarnos. Pero ahí había posturas encontradas. A nosotros la definición nos parecía utópicamente bonita, pero no nos la creíamos porque había mucha gente que decía “yo no he elegido ser gay y lo soy, yo no quería ser gay, me hubiese gustado no ser, porque me ha hecho sufrir...” (...) nos parecía que definirnos era un arma, cambiar la palabra gay por la palabra marica o maricón, nos parecía muy importante porque era darle la vuelta, quitarle la parte negativa (...) reivindicábamos la identidad como medio de lucha, porque nos parecía que estábamos en un momento en el que no se podía estar hablando de... había que coger el toro por los cuernos (...) empezamos a romper todo y a hablar en femenino y romper todas las normas posibles y enfrentarnos a ese discurso que solamente les venía bien a los heterosexuales y al heteropatriarcado, les venía ideal ese discurso, para tenerte siempre arrinconado. Cuando te veían de frente y te veían como marica las cosas cambiaban... [06 Kolektiboa - Gay mugimendua (gaur egun ez-aktibo)]

Hainbat parte-hartzailek genealogien garrantzia azpimarratu dute elkarrizketetan, mugimendua nondik datorren eta diskurtso zein praktikak nola eraiki diren aztertzeko. Aipu honetan, esaterako, 90. hamarkada hasieran identitatearen inguruan gertatutako eztabaida aipatzen da. Orduan ere, identitate marika aldarrikatzea heteropatriarkatuaren aurkako estrategia gisa ulertzen zuten batzuek. Mugimenduen genealogian murgiltzean azaleratzen den lehen ideia, beraz, eztabaida batzuen ibilbide luzearena da, borrokarako subjektua(k) sortzearen inguruko aferarena kasu. Debate horrek, gaur egun, zehaztapen berriak behar dituela argi dago, baina ondo legoke gogora ekartzea “identitate politika” izendatzen ditugun praktika asko bere garaian mugimenduko sektore kritikoenek garatutako estrategiak izan zirela, patriarkatuaren eta kapitalismoaren erabateko asimilazioa geldiarazteko asmoz pentsatuak.

Subjektuaren aferaren inguruan ere, talde eta kolektiboek posizio ezberdinak dituzte. Batzuen lehentasuna beraien subjektua eraikitzea da, haien ustez dagoen hutsunea betetzeko subjektu politiko eraldatzaile bat proposatzea. Beste batzuek haien subjektua legitimatzea eta aukera posible bezala kontuan hartua izatea aldarrikatzen dute. Beste talde batzuentzat kolektibo ezberdinen arteko aliantzak sortzea da lehentasunezko helburua, bai LGTB siglen barruan bai eta beste talde batzuekin ere. Talde batzuetan elementu horiek denak presente daude intentsitate ezberdinetan.

(...) Zergatik subjektu bat? Behar dugulako bizileku bat. Ahal zara sartu transfeminismoan, aterki horren pean, baina zure bizipenak oso konkretuan izan dira eta biografia oso oso konkretutik gatoz. Ni ez nago bakarrik subjektu marikaren alde, baizik eta bakoitzak izendatu ahal izatea nahi duen forman bere subjektu hori. Azkenean subjektu masa batera helduko gara, baina bueno (...) zentzu horretan uste dut interesgarria dela egotea subjektu marika abiapuntu bezala, punto de partida hacia, nire ahotsa dator hemendikan, nire esperientzia dator hemendikan, nire paterhartzea dator hemendikan, eta ez dator hainbeste transfeminismotikan, ze horren barruan sartzen dira hamaika identitate baina gero bakoitzak kokatu behar du... kategoria itxiago bat, eroso sentiarazten zaituen kategoria hori estruktura txikiagoak osatzeko (...) zentzu horretan da interesgarria, gero ez dakit noraino eramango nukeen nire borrokan amaierara... baina abiapuntu bezala, niri gustatzen zait. [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea]

Subjektu marikak, talde honentzat, gutxienez bi funtzio betetzen ditu. Alde batetik, subjektu propioa eraikitzea ahalbidetzen du, genealogia horretan kokatzea. Maila horretan feminismoarekiko zorra aitortzen dute, baina baita genealogia propioa egiteko beharra ere, feminismoaren eta transfeminismoaren espazioak errespetatzeko asmoz. Aterki zabala da transfeminismoarena, haien ustez zabalegia subjektu bakarra osatzeko, barruan daudenen esperientzien aniztasuna medio. Bestetik, subjektu marika hori ez dute amaierako puntutzat ulertzen, abiapuntutzat baizik. Ekintzarako ezinbestekoa den etxea da subjektua hemen, baina kontuz ibili beharra dago etxe horretatik atera nahi ez izatearekin. Subjektu hori, gainera, geografikoki eta kulturalki kokatu nahi du talde honek: *“Euskal Herrian eta Euskal Herritik subjektu marika definitzeko beharra eta ez bakarrik pendiente egotea zer egiten duten Madrilekoak, Bartzelonakoak edo New Yorkekoak, guai, ze ideologikoki eta ekintza aldetik leku horietan egiten diren gauza guztiak ikusi egiten ditugu eta haiengandik ikasi baina hemen badago behar bat”* [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea].

Subjektu hori orain eta hemen kokatzeak sistema politiko eta ekonomikoekin izan dezakeen harremana kontuan hartzea eskatzen du. Talde guztiek adierazi dute nola edo hala subjektu horrek abizenak behar dituela, elementu ezberdinak kontuan hartzea. Antikapitalista izan behar du, (trans)feminista, kolonialismoaren aurkakoa eta anti-arrazista, besteak beste. Sexualitate eta genero bizipenak soilik definitzen duen subjektua gainditzen den heinean, ezbaian jartzen da orain arte LGTB* izaera ulertzeko izan dugun moda. Zentzu horretan, zaila da batzuetan ezberdintzen LGTB* izatea (esperientzia bezala) eta LGTB* subjektua (borroka posizio bezala). Are gehiago, izendatze horretan estrategia ezberdinak defendatzen dituzte taldeek. Esaterako, batzuk LGTB siglak erabiltzearen alde agertzen dira eta beste batzuk transmarikabollo, transmaribibollo, queer edo bestelakoen alde:

Alde batetik bai hartzen dugu politikoki eta historikoki garrantzi handia izan dutelako [LGTB siglak] eta aldi berean bereganatu nahi ditugulako berriro, ez? Ulertzea gay ez dela Bilboko udalak egin zuen gida horretan agertzen ziren gizon estereotipatu horiek, guretzat gay bada beste gauza asko. Gainera historikoki gay «término paraguas» izan da eta berreskuratzea guretzat garrantzitsua da. Kontuz ibili behar garela badakigu.... [03 Kolektiboa - EAE mailako LGTB taldea]

Identitateen atomizazioari aurre egiteko estrategia bezala gay mugimenduaren ideia berreskuratzea proposatzen dute, historikoki txapel zabala izan dela ulertuz, eta beraz atzean subjektu anitz bat ezkututzen duen hitz bezala onartuz. Galdetu beharko genuke gay hitzak gure testuinguruan ere balio hori izan ote zuen eta, hala izan bazen, zenbat iraun zuen horrek eta zein eragin izan zituen. Kontakizun gehienetan, gay mugimenduaz hitz egiten denean gizonak lehen planoan zituen mugimenduaz ari gara. Lesbianak eta trans* pertsonak txapel horren pean zeudela baino, hitz horren atzean ikusezin bilakatzen zirela entzun dugu maizago. Hitz berreskuratzearena eta berriz zentzuz janztearena, ordea, oso estrategia interesgarria izan daiteke; baliagarria bezain konplexua. Hainbat taldek proposatzen dituzten izendapenen atzean, marika, transmarikabollo, ingelesezko *queer*, ideia hori bera agertzen da, berreskuratu eta zentzua aldatzearena. Estrategia horrek bi elementu ditu. Alde batetik, iraina zena berreskuratzean irainak egin dezakeen kaltea neutralizatu egiten da, pertsonen bizitzeko baldintzak hobetuz. Bestalde, iraina erabiltzea asimilazio estrategien kontrako proposamena ere bada. Ez dira LGTB* subjektuak kategoria errespetagarrien pean kokatu nahi, gay edo lesbiana onargarrien terminotan, eta aitzitik jendeak iraintzen duen hori izatea proposatzen da, bazterrak aldarrikatzea. Bi estrategia hauen artean disonantzia nabari dute elkarriketatuetako batzuek:

Bereganatzea insulto horiek termino indibidual bezala oso garrantzitsua da baina aldi berean indibidualismo horretatik kolektibizatzea guretzako oso arriskutsua da. Horregatik ez dugu erabiltzen transmaricabibollo, ze badago jende asko horrekin identifikatuko dena baina LGTB barruan badago jende asko horrekin identifikatuko ez dena. Insultoak gureganatzea enpoderamiendo bezala guztiz baliagarria da, baina modu pertsonalean. Justo beste elkarte batzuekin dugun gatazketako bat hori da. Onartzen dugu jende asko horrekin identifikatzen dela eta onartu behar dugu baina aldi berean onartu behar dugu ere hitzek zer esan nahi duten edo duten boterea. [03 Kolektiboa - EAE mailako LGTB taldea]

Iraina jaso eta bere egitea, norberari laidoak eragiten dion kaltea neutralizatzeko estrategia eraginkorra da, baina horrek ez du hitzaren beraren esanahia neutralizatzen, ez eta maila sozialean erabat aldatzen ere. Bere buruari izen horiez deitu dion edonork badaki espazio askotan ulergaitza dela norbere buruari marika deitzea, esaterako¹⁸⁸. Beste kide batzuek “gay” hitza jotzen dute, hain zuzen ere, berreskurazintzat. Normalizazioak eta kapitalizazioak larregizko marka utzi bide du hitz horrengan eta horrek berreskuratzeko zaila bilakatzen du. Deigarria da funtsean estrategia berdinak efektu ezberdinak izan ditzakeela, eta dituela:

Yo sueño con un futuro en el cual bolleras, trans, maricones... podamos volver a sentirnos unidas y unitarias en un movimiento más holístico, más pleno, por entender que nuestra lucha es la misma. No estamos en ese momento todavía, en absoluto. Pero creo que esas tensiones de las que me hablas no son del pasado, son del presente también y que la solución pasa por volver a reunificarnos como un movimiento de liberación gay, a lo mejor no con esa palabra, de hecho no con esa palabra, por la contaminación que ha tenido, pero sí en ese concepto, entenderlo como una identidad política que no se sujeta a nuestros deseos sino más bien a una concepción, bueno, también sujeta a nuestros deseos pero no definida por nuestros deseos, sino más bien por una forma de entender la colectividad, el activismo, el feminismo, el decolonialismo.... [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]

Desioa eta sexualitatea agertzen zaizkigu berriz, baina sexualitateei erabateko protagonismoa eman ordez horiekin batera beste elementu batzuk kokatu nahi dira: nola ulertzen den kolektibotasuna, aktibismoa, feminismoa edo dekolonialismoa. Hiru puntu horiek irekia uzten dute zerrenda, gainera. Identitate sexual espezifikagoez harago mugimendu zabalagoan biltzen den subjektu hori etorkizunerako apustua da, ibili beharreko bidean iparra erakutsi dezakeen argia. Abizen ugari dituen subjektua, beraz, ez da soilik LGTB edo transmaribibollo (TMBB) subjektu bat. Horrek, halaber, subjektu horrek zerk biltzen dituen galdetzeraz garrantzitsuak, eta ikerketaren lehen atalean parte-hartzaile batzuek plazaratutako zalantzekin ere lotzen da. Zeren inguruan biltzen gara? Edo, hobe esanda, LGTB/TMBB subjektuak, besteak beste, antikapitalista, feminista edo antiarrazista izan behar badu, zer du espezifikotik subjektu horrek?

188 Pasadizo bitxien zerrendan gehitzekoa dut Katalunian kongresu batean gertatu zitzaizkidan. Nire aurkezpenaren une batean memoria historikoaz ari nintzen eta “gure aitona mariken” memoria berreskuratzearen garrantziaz aipamena egin nuen. Publikoan norbaitek errieta egin zidan, ez nuelako eskubiderik aitona horiek iraintzeko. Esplikatu arren estrategia kontzientea zela eta, hain zuzen ere, irainduei balioa emateko era, ezin izan nuen konbentzitu hitz horren egokitasunaz. Estrategia batzuen mugak argi erakusten dituen kontakizuna ere bada, nolabait.

No puede ser que redefinas ser gay de manera que Maroto no sea gay. Hay que poner la discrepancia en otro lugar, no en el hecho de... Hay miles de formas de ser marica como hay miles de formas de ser hetero, entonces es verdad que la reflexión sobre la normalidad que hace la teoría queer es muy interesante, ¿no? ¿Queremos asimilarnos? Pero esto es una opción política sobre el lesbianismo, la homosexualidad, la transexualidad o transgeneridad... entonces es que estamos en otro punto, de... (...) no creo que la cuestión sexual, una vez que se consiguen los derechos humanos y la libertad sexual/libertad para amar, dé para mucho más. Yo no lo creo. Creo que da para más una concepción que es política, que es feminista, que es queer, que es lo que quieras sobre el mundo, sobre el mundo incluidas las relaciones personales, ¿no? Pero la libertad sexual... es un poco bruto esto que digo, pero creo que la lucha por la libertad sexual se acaba cuando hay libertad sexual. Entonces es verdad que no podemos afirmar que la haya, ergo sigue siendo necesaria aquí, pero imagínate en pura teoría, que llega un punto en el que en un contexto social determinado es absolutamente irrelevante la identidad sexual, que estés en un lado en el otro... si conseguimos eso y es irrelevante ya no tiene sentido hablar de orientación sexual normativa. Ojo, eso es posible en convivencia con un montón de injusticias de índole social. [Pili]

Aktibista feminista honentzat ekintzailetzaren osagai guzti horiek zilegi eta beharrezkoak dira, baina ez ditu horrek bateragarri bilakatzen. Bere ustetan, LGTB* borroka espezifiko da sexu askatasunaren inguruan, eta onartzen du borroka hori ez dagoela akitua, ez delako oraindik askatasun hori lortu baina, aldi berean ez du uste borroka bizirik mantentzeko *halabeharrez* beste elementu horiekin guztiekin elikatu behar denik. Elkarrizketatutako aktibista gehienek, ordea, beste iritzi bat dute auzi honen inguruan, orain arte ikusi dugun bezala, eta LGTB/TMBB subjektuak abjekziotik egin dezakeen ekarpena azpimarratzen dute, subjektu zapalduen arteko konplizitateari begira:

La condición de ser marica no nos hace (...) qué es lo que nos identifica a los maricas... Que nos gustan las personas de nuestro mismo sexo, ¿porque otra cosa? De la de la casa okupada a la otra... dime a mí qué pueden hablar esas dos personas, ¿no? A los dos les gusta comer pollas, pero... ¿Qué les une? Absolutamente nada, ideológicamente, en su forma de entender la vida... (...) somos muy diferentes, no se nos puede meter en un cajón, puedes ser marica, puedes ser gay, puedes ser marica rica, bueno, marica más bien pobre... (...) la marica siempre va a tener mucha más sensibilidad para defender todas las posturas, mucho más que la gay... la marica va a defender la postura de la gay y de la marica, y la gay va a defender la suya, pero la de la marica no, y menos si es pobre, que las miran como de lado (...) A nosotras nos parecía que teníamos que ser maricas, pero a la vez teníamos que ser revolucionarias, y teníamos que estar por la independencia de Euskal Herria y por... todo. Por todo junto. Y no todas las maricas buscaban eso. [06 Kolektiboa - Gay mugimendua (gaur egun ez-aktibo)]

Testigantza honek elementu interesgarriak gehitzen dizkigu. Alde batetik aurreko testigantzan jasotako ideia bat azpimarratzen du, hots, berez ez gaituela gure sexu-aukerak beste batzuekin beste ezertan lotzen, alegia, sexu-aukerak ez dakar berezko konpromiso politikorik. Bestalde, ontzat ematen du nortasun horiek politizatzeo aukera dagoela, subjektu politiko konplexuagoak sortuz. Aitzitik, onartzen da, eta hemen dago koska, politizazio horrek ez dituela LGTB* subjektu denak gurera bilduko, haietako askok ez dutelako hori bilatzen. Dena dela, aktibista batzuek uste dute ate bat irekitzen dela, gizartean posizio zentralak okupatzen ez dituzten subjektuen esperientziak beste aukera batzuk ireki ditzakeelako: *“Al final, al ser un colectivo discriminado, siempre tenemos más la posibilidad de tener la capacidad de reflexionar cuál ha sido, cuáles han sido mis dificultades... Lo que pasa es que no siempre es así, pero sí tenemos la oportunidad más cerca”* [ELK07]. Normaltasun heterosexual eta zisgeneroaren aurrean LGTB* izateak irekitzen duen haustura beste normaltasun batzuk zalantzan jartzeko aukera bezala ikusten dute aktibista zenbaitek, baina hori nolabait behartu beharra dago: *“lo que digo yo es que no se puede exigir a los gays, a las lesbianas, a las trans que se ubiquen en esa coordenada política. No se puede exigir por defecto, se lo... le invitamos a todo el mundo a ponerse ahí, pero no por defecto”* [Pili].

Pentsa daiteke subjektuaren arazoa kanpora begira hautatzen den izendatze politikoarekin soilik dagoela lotuta, baina barnera begira ere marruskadura sortzen du kolektiboen artean. LGTB/TMBB siglen atzean lotzen diren subjektu espezifikoen arteko batasuna askok aipatu dute etorkizuneko lorpen desiragarri bezala. Haatik, horrek ez du esan nahi halako saiakerak egitean ez direnik zailtasunak sortzen, subjektu horiek aldatu nahi dituzten botere sare berberetan murgilduta daudelako eta, horrenbestez, beraien pribilegio eta zapalkuntzak bizi dituztelako espazio komun horietan ere:

“En la coordinadora del 28 J en Bilbo si no me iba acababa a ostias con algún marica. A mí el día que uno me dijo «tranquila, guapa, sabes lo que pasa que yo he trascendido ya los roles de género»... Yo decía, «no puede ser»...” [04 Kolektiboa - Estatu mailako ekimen feminista-lesbikoa].

Azaleratzen den lehen talka sexismoaren ingurukoa da. Aktibista honek bezala, beste hainbatek ere adierazi dute gay gizonekin jardutean sortzen diren tirabirak, gizontasunaren pribilegio ugari ez aitortzetik datozenak eta orobat gizon gay edo marika posizioak sexismotik libratzen dituztela pentsatzetik. Aktibista marika eta gay batzuek hasiera batean mugimendu barruan iraganean sortu ziren talka horien arrastoak larregi irauten ari direla uste dute: *“Hay estos mensajes y estos discursos que se repiten y termina siendo performativo:*

«es que los hombres son así, los gayses son así y tal» [02 Kolektiboa - Homofobiaren aurkako talde lokala], baina aldi berean gaur egunean ere oraindik zentzua dutela aipatzen dute, ezin direla iraganeko dinamikaren oihartzun huts bezala tratatu. Zailtasun horiek ez dira soilik mugimenduen arteko espazio aktibistetara mugatzen. Instituzioetan ere horien isla nabaria da:

Badaude topaguneak (...) plataforma E28n bertan, gehiago nahasten da, transmarikabollo kontua, hori pluralagoa da. Elkartzen gara kolektibo erradikalagoekin edo instituzioetatik kanpo daudenekin (...) mugimendu feministarekin ez dago horrenbeste harreman, nik nahiko nuke harreman gehiago egotea (...) LGTBI politikak Berdintasun Institutoan daude, baina gertatzen dena da kontutxoak daudela, enkajea ez da izan erraza. LGTBik dakarrena genero ikuspegitik... talka egiten du emakume subjektuaren, genero politiken hartzaila den emakume subjektu politikoarekin. Eta justu LGTBik dakar apur bat kategoria hori hausten duen zerbait... Beste kategoria batzuk dakartza... Enkajea etorriko da, baina momentuz hitz egin beharra dago, eta diskurtso bat sortu... apur bat gurutzatuta ikusten ditut baina oraindik ez da uztartu. [07 Kolektiboa - LGTB+ taldea]

Talka hauek bi esparruotan gertatu arren, pentsa daiteke era ezberdinetan kudeatzen direla espazioaren arabera. Esaterako, herri mugimenduen kaleko esparrua malguagoa da maila horretan eta aktibistek aukerak dituzte gustura sentiarazi ez dituzten edo politikoki egokiak ez diren lekuetatik alde egin eta aliantza berriak bilatzeko. Instituzioen eremua trinkoagoa da eta ohikoa da hainbat kexa isiltzea instituzioekiko harremana ez hausteari begira, maiz hasita dauden proiektuak bukatu ahal izateko edo norberak jasotzen duen finantzaketa arriskuan ez jartzeko.

LGTB* politikek behar duten subjektua artikulatzeko modu ugari ikusi ahal izan ditugu epigrafe honetan. Identitate sexual eta generikoak borrokarako tresna moduan erabiltzeko bidean identitateok jokatu duten papera definitzen saiatzen dira mugimenduak, horretarako batasun eta banatzeak proposatuz termino ezberdinen artean. Terminologia mailan arazotsua dena (esperientzia ezberdinak bildu eta borrokarako subjektu bat sortzea) maila praktikoagoan ere ez da erraza, mugimendu eta elkarguneez nortasun eta bizipen ezberdinak kudeatzeaz gain berauek sortzen dituzten botere-kokapenekin ere jardun behar dutelako. Orain arte LGTB* politiken subjektuaz esandakoak bildu badituzte, hurrengo epigrafean politika orokor horien azpian kokatu daitezken ekimen espezifikokoak esploratuko dituzte, hain zuzen ere subjektu partikularrak proposatu eta horietaz baliatzen direlako.

4.3.1 SUBJEKTU ESPEZIFIKOAK

Talde batzuek, beraz, subjektu bateratuen aldeko jarrera dute, LGTB* siglen azpian dauden nortasun ugariak elkartu ditzakeen aterkiaren aldekoa. Beste batzuk subjektu partikularrak indartzearen alde daude, eta asko dira erdibideak planteatzen dituztenak: subjektu partikularrak desagerrarazi gabe, elkarrekin jardutea erraztuko duten konfigurazio eta izendatzeak bilatzea. Atal honetan, laburki bada ere, subjektu espezifikoaren inguruko berezitasun batzuk aipatuko ditut, berariazko ekarpenak egin ditzaketela uste baitut.

Hasteko, **subjektu marika** dago. Gogora dezadan subjektu hori, gaur egun berri xamar bezala agertzen zaiguna, 90eko hamarkadatik gay politika asimilatzaileekiko erresistentziaren genealogian kokatu dezakegula. Nolanahi ere, azken urteotan indartu egin da subjektu hau, hainbat talde eta ekimen agertzearekin batera eta, gaur egungo errealitateari moldaturik bada ere, garai haietako elementu batzuk mantentzen ditu. Politika hauen erdigunean sexualitatea baino generoa kokatzen dela esan dezakegu, nahiz eta sexualitateak ere baduen lekurik: *“ez dago horren gaizki ikusia mutil bat gustatzea baizik eta zu zisheteronorma horretatik zenbat ateratzen zaren, si vas con las uñas pintadas, con los ojos pintados, con una falda...”* [05 Kolektiboa - Transmaribibollo talde lokala]. Sakonean dagoen proposamen indartsua generoaren aldetik praktika eta irudikapen subertsiboak irudikatzean datza. Are gehiago, proposamen hau gay nortasunen eta maskulinitate hegemonikoaren arteko paktuak kritikatzetik dator, eta, esan bezala, oso lotuta dago homonormatibitatearen ideiarekin:

Antes el estado te quitaba la vida y ahora te da vida y te obliga a muerte, pero no te da muerte, te obliga a ella, y no sé, creo que tiene mucho que ver con lo marica de alguna manera, en el sentido de que nos dan la homosexualidad y nos quitan lo marica. Por eso lo marica es importante, porque la homosexualidad ya no es un caballo de batalla. Nos están quitando lo marica y nos están poniendo la homosexualidad. [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]

Ikuskera honetan, homosexualitatea eta gay identitatea arautuaren barruan ulertzen dira. Marika subjektuak, aitzitik, homosexualitateak bere garaian izan zuen izaera subertsiboa berreskuratzeko ariketa izan nahi du. Zer ezberdintasun dago bien artean? Funtsean marikak bi elementu gehitzen dizkio identitate homosexualari: alde batetik, politizazioa eta, bestetik, maskulinitatea zalantzan jartzea. Honezkero eztabaidatu dut lehen elementua, eta baita sexu-aukera eta kontzientzia politikoa parekatzearen mugez jardun ere. Politika marikek,

maskulinitatea zalantzan jartzean, historikoki alboratua izan den figura berreskuratzen du eta baita normalizazioaren historia bera berrikusi ere. Gizonen homosexualitatearen onarpenerako tresna handienetako bat generoa eta sexualitatea banatzea izan da, alegia, homosexualaren eta “afeminatuaren” figurak banatzea. XX mende hasieratik afeminatzearekin lotu izan den homosexualitatea termino horietatik banatzea gay mugimenduaren estretagietako bat izan da. Gizonen arteko erakarpeneren estigma arintzeko tresnetako bat maskulinitatearen onarpena izan da eta, prozesu horretan, ezinbestekoa izan da subjektu ugari kanpoan uztea. Lumadun maritxua baztertu eta homosexual maskulino eta errespetagarria hobestu du mugimenduak maiz eta jendarteak errazago onartu du bigarren figura hori lehena baino.

Politika marikiek subjektu horiek eta beren politikak lehen lerrora dakartzate. Lumaren aldarrikapena egiten dute eta baieztatzen dute marika izatea ez dela besterik gabe gizon izendatua izanik beste gizon batzuekiko erakarpenera edo sexu harremanak izatea. Marika izateak maskulinitate horri uko egitera bultzatu dezake, heterosexualitatearengandik ezberdinduz, baina baita gizon gay onargarri eta normalizatuengandik ere. Klabea hemen ez da horrenbeste sexu-orientazioa edo aukera, ezpada generoa: “*es una lucha profundamente adscrita [al feminismo] si no la misma, la lucha marica, ¿es que no nos damos cuenta de que nos insultan llamándonos «mujer»?*” [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]. Aktibista marika askoren analisisan, hain zuzen ere, gizonen homosexualitatea askorentzat jasangaitza egiten duena ez da beste gizon batzuekin sexu harremanak edo harreman afektiboak izatea, baizik eta horrek gizentasuna kolokan jartzea. Marika mugimenduek homosexualitateak maskulinitatea ezegonkortzeko izan dezakeen potentziala aldarrikatzen dute.

Politika horiek, beraz, abjekziotik abiatzen dira, gay mugimenduak albora utzi, bigarren lerroan jarri, alfonbra azpian ezkutatu edo kuriositate bezala erakutsi dituen maritxu lumadun, eskandalagarri, barregarri eta onargaitzak aldarrikatzen. Ikuspegi honek estetika eta ekimen politiko batzuk berreskuratzea dakar, haietako asko gay mugimenduaren hastapenetan nahiko ohikoak zirenak: kabaret, dantzaldi, trabestismo eta “vogue”¹⁸⁹ dantza bezalako praktiken potentzia politikoa errebindikatzeko da. Eta noski, maskulinoa dena zalantzan jartzeak aliantzarako aukerak irekitzen ditu historikoki gay mugimenduarekin

189 “Vogue”-a dantza estilo bat da, hein handi batean New Yorken 80. hamarkadan garatu zena, batik bat langile klaseko eta beltzak ziren gay komunitateetan. Dantza estilo horrek esku eta besoan mugimendu azkar eta bortitzak ditu, “camp” edo luma mugimendu gehiegizkoak bezalakoak. Madonna abeslariak bere izen bereko kantuan famatu egin zuen dantza estiloa, urteetan zehar autogestionatutako dantza txapelketa (“ball”) ugaritan garatu zen, non “vogue” edo “voguing”a elementu garrantzitsua zen. Dantzaldi horien inguruan “Paris is Burning” (1990) filma ondu zuen Jennie Livingston zuzendariak. Filma horretan azaltzen dira, besteak beste, nola sortu ziren “etxe” eta “familia” ezberdinak, eta ze harreman zegoen moda munduaren eta klase langile eta komunitate beltzeko gay eta trans* pertsonen artean.

harreman tenkatua izan duen mugimendu feministarekin: *“nik ikusten dut feminismoak markatu duela bidea eta hortik joan behar dela mugimendu marika ere, aliatuak gara baina gero ere bai ikusten dut historikoki egon dela bollerekin... talkak, eta oraindik hor daudela, eta daudela sentimenduak (...) ze marika mugimenduan ere ikusi ditut maskulinitate batzuk... que tela”* [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea].

Generoaren bidezko subertsio horrek, estrategia bezala, baditu ere bere muga eta arriskuak. Askotan proposamen horiek estetikitzat baino ez dira hartzen eta neutralizatu egiten dira komunikabide edo bestelako espazioetan. Aktibistak kontziente dira horretaz, nahiz eta ez duten horregatik bere izaera eraldatzailea zalantzan jartzen:

(...) llegará un momento en el que ser la loca también será normativo, no pasa nada {barreak}. Egia da, helduko da momentua, 20 urte barru igual. Kontua da que nos asimilan... ze egingo dugu? Orain gizonen artean feminitatea gaizki ikusia dago baina gero eta gehiago dira Youtuben makillatzen agertzen diren mutilak, begira Oto Vans¹⁹⁰... gero eta gehiago. Eta helduko da momentu bat ez dela ezer gertatuko izateagatik locaza, ultra-femenina... ez da ezer gertatuko. Eta kapitalismoak jarraituko du. Jarraituko du zukutzen identitate guzti horiek... Orduan zer egin behar den? Desaparecer como especie {barreak}. [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea]

Umore puntu batekin ekarri digu aktibista honek kapitalismoak dena irensteko duen gaitasunaren aurrean sentitzen duen frustrazioa. Aurreko ekintzaileak esaten bazigun homosexualitatea ez dela jada gatazka lekua, beste honek argi du laster gizonen feminitatea ere ez dela izango, eta guztia kapitalizatu dezakeela sistemak. Agian klabea bi elementu hauek (politizazioa eta maskulinitatea zalantzan jartzea) elkarrekin ulertzean dago:

190 Oto Vans snapchat, instagram eta youtube sare sozialei esker oso famatua egin den 20 urteko Gasteiztarra da. Bere itxura oso femeninoa da eta gaur egun Telecinco katean jarduten du, besteak beste.

España es barroco, es barroquismo, para entender este estado es muy interesante ver el barroco, quién lo crea, para qué... Pienso en barroco y pienso en Manuela Trsobares, pienso en La Veneno, pienso en Ocaña¹⁹¹, y es que verdaderamente es cierto (...) quién viste las vírgenes? Las solteras y los maricones (...) yo creo que el salvoconducto de los maricas en el estado español ha sido estético en gran parte¹⁹². Qué ocurre ahora. El tema moderno, de las modernas, lo alternativo... se está volviendo a nutrir de todo esto. Entonces lo marica despolitizado entendido como algo meramente estético vuelve a estar de moda (...) Hay un montón de cisgas que se han acercado a lo marica por lo estético. [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]

Identitate lesbikoaren inguruko eztabaida, aldiz, beste parametro batzuetan garatzen ari da. Identitate horrek ez dio gay mugimenduak eraiki duen irudikapen mugatu bati aurre egiten, edo ez bakarrik. LGTB* mugimenduek lesbianen kasuan ere identitate normalizatu eta onargarrien ikusgaitasunaren alde egin dute, eta horrek harreman estua izan du generoaren aferarekin: lesbiana askoren maskulinitatea alboratu edo bigarren lerroan utzi da eta genero, klase eta jatorri ikuspegitik gizartearentzat onargarriak ziren errepresentazioak hobetsi dira. Baina, lesbianismoaren irudi mugatua emateaz harantzago, lesbiana *guztiak* bigarren planoan utzi ditu historikoki gay mugimenduak. Horretaz gain, mugimendu feministarekiko harremana ere ez da erraza izan:

(...) el eje que nos atraviesa a todas es el feminismo, a cada una de nosotras en nuestra vida y trayectoria. Hace mucho tiempo que no hablamos de un solo feminismo, hablamos de distintos tipos de feminismo, no desde un punto de vista de separar y pelear sino desde el punto de vista de los diferentes discursos que se pueden tener alrededor del feminismo. Creo que a través del sujeto lesbiano lo que hacemos es crear un feminismo específico con unas reivindicaciones específicas y que tiene un pensamiento sobre lo global específico también. No sólo sobre el feminismo, sino sobre el mundo. Creo que a pesar del impacto de la vida y de las modas, de los nuevos sujetos políticos dentro del pensamiento feminista etcétera, cuando aparece todo el discurso trans tan rico y tan bonito, nosotras nos recolocamos, yo me recolo personalmente

191 Hirurak ala hirurak LGTB munduarentzat pertsona erreferentziazkoak dira. Trsobares kataluniar artista eta politikaria da, emakume transexual bezala oso ikusgarria izan dena, bereziki Herrialde Katalanetan. Cristina Ortiz Rodriguez, “La Veneno”, vedette eta abeslaria izan zen. Espainiar pop kulturako transexual ezagunetarikoa, hamarkadatan telebistan eta beste medio batzuetan agertu zen 2016ko azaroan indarkeria matxistaren biktima hil arte. José Pérez Ocaña andaluziar artista eta “performer” anarkista izan zen, Bartzelonako transakzio garaiko kontrakulturaren oso garrantzitsua. Berari buruz, ikus Mérida Jiménez (2018).

192 Bidez-bide GKEak eta Xirimiri Films ekoizleek egindako “Coreografías de la transgresión” dokumentalean ere, testuinguru ezberdinean (Perú) antzeko zerbait ikusi dezakegu santuak janzen dituen trans* emakume baten kasuan. Dokumentalari buruzko informazio gehiago: <https://labur.eus/qx83U> (2020ko otsailaren 6an kontsultatua).

otra vez dentro del lesbianismo, como una identidad más dentro de la defensa de la no-heteronorma dentro del feminismo (...) un sujeto en completa vigencia, que a veces se nos trata como las abuelas cebolletas, que defendemos esa identidad en el Siglo XXI (...) la trayectoria está yendo otra vez hacia ahí, vamos a reivindicar esa identidad lésbica que sigue siendo necesario reivindicar, y creo que nuestro feminismo es un feminismo que cuestiona la heterosexualidad, la heteronorma, interseccionado con otras millones de cosas, a nivel global, de identidades... estamos haciendo como doble activismo, con el tema de Palestina, o el Orgullo Loco... No solo somos lesbianas, somos anticapitalistas o intentamos serlo... [08 Kolektiboa - Talde lesbianista lokala]

Identitate horrek iturri ezberdinetatik edaten du. Alde batetik feminismoaren baitan ekarpena egiteko asmoz azaltzen da, onartu arren feminismoak askotan ez dituela ordezkatzeko ("No nos representa ese feminismo hegemónico porque no representa a las lesbianas desde el punto de vista de que no nos categorizamos como mujeres" [08 Kolektiboa - Talde lesbianista lokala]). Baina, gatazkatsua izan arren, beren erreferentziazko harremana feminismoak dira eta, zentzu horretan, proposatzen duten subjektua ez da LGTB* politiken esparruan soilik kokatu behar. Beraien ataka, ordea, etengabeko ikusezintasunaren kontrako borroka da. Zentzu horretan beste nortasun batzuk datozen heinean haiena ere mantentzeko beharra ikusten dute. Subjektu lesbianoaren erronka nagusia subjektu politiko bezala bere existentzia bermatzea da, eta bere proposamena pentsamendu feministan errotuz horretan sakontzeko tresnak planteatu nahi ditue, heterosexualitatea patriarkatuaren tresna bezala ulertuz. Horrek ez dio soilik planteamendu teorikoari eragiten, mugimenduaren izaerari berari ere eragiten dio, hala nola egikaritu daitezkeen estrategiei eta mugimenduan parte hartzen dutenei:

El movimiento lésbico y feminista es una relación de amor/odio continuamente... (...) no entiendo como en el movimiento feminista una de las grandes preguntas no es cómo es posible ser feminista y hetero. No me entra en la cabeza cómo no están quedando día sí día no para hablar de esto. Para preguntarse, "¿por qué nos gustan, por qué nos ponen, por qué nos los follamos?" (...) el rollo de dejar de relacionarnos con tíos porque nos violentan ni siquiera se plantea a nivel utópico... (...) se plantea un mundo donde los tíos no nos hagan daño, que igual es mucho más complicado! (...) eso en el feminismo, que viene a decir que las cosas que son naturales no lo son... [04 Kolektiboa - Estatu mailako ekimen feminista-lesbikoa]

Aktibista honen hitzetan mugimendu feministak ez dio arreta nahikorik eskaintzen heterosexualitatea eta gizonekiko desioa deseraikitzeari. Lesbianismoa ikuspegi politikotik ikusten duten ekintzaileentzat zaila da ulertzea mugimendu feministak dena zalantzan jartzeko izan duen gaitasuna ez erabiltzea desio heterosexualaren kasuan: militante hauen iritziz, naturaltzat hartzen den desio hori zalantzan jarri beharra dago. Lesbianismo politikoa

ez da ulertzen beste aukera bat bezala soilik, eta aktibista hauen helburua ez da aukera hau besteak bezain baliagarria dela aldarrikatzea: lesbianismoa subjektu politiko ikusgarri bezala aldarrikatzen dute, aukera berriak irekitzen dituen tresna bezala. *“Nuestro activismo se dirige a bollerak de nuestro entorno o a futuras posibles bollerak (...) nosotras creamos al final posibilidades de ser”* [08 Kolektiboa - Talde lesbianista lokala]. Proiektua ez da gaur egun dagoen horretara mugatzen, izateko aukera ezberdinak sortzea dute helburu, eta forma ezberdin horiek estuki lotuta ikusten dituzte feminismo transfeminista eta interseksionalarekin. Forma berri horiek kapitalismoaren eta patriarkatuaren konfigurazioak zalantzan jarri ditzaketen esperimentuak dira. Hasteko, desio sexualaren eskematik gizonen presentzia kanporatuz. Puntu honetan taldeek gizon trans*en inklusioari buruzko iritzi ezberdinak dituzte. Mugimenduetako kide batzuek argi ikusten dute trans* gizonen eta emakume lesbianen arteko aliantza gertatu daitekeela; lesbianak emakume bezala ez identifikatzean continuum bat ere ikusi izan dute lesbianismoaren eta trans* maskulinoen artean. Aldiz, beste aktibista batzuek espazio horiek ez nahastea ezinbestekotzat dute: *“Gertatu zaigu inoiz gizon trans batzuei birgogoratu behar izatea gizonak direla eta gizon bezala lesbiana batekin ez dutela zer egiterik. Batzuetan gizon moduan saiatzen direla emakumeen espazioetara sartzen, baina oso gutxitan izan dira gatazka horiek”* [03 Kolektiboa - EAE mailako LGTB taldea]. Generoaren ulerkeran desadostasunak ugariak dira mugimendu barruan eta lesbianismoaren eta transexualitate maskulinoaren artekoa da horren adierazleetako bat.

Baina lehengo aipura bueltatuz, zer esan nahi da *“etorkizuneko bollerak”* aipatzen direnean? Lesbiana izatea berezko zerbait dela edo aldatu daitekeen zerbait? Mugimenduek iraganean jarraitutako estrategiek orainaldian eztabaidak sortzen dituzte, eta joan-etorriko argumentazioak. 70eko hamarkadatik aurrera “Born this way” motako argudioa gay mugimenduaren izarretako bat izan da¹⁹³. Lesbianismoaren planteamendu politikoak ate bat

193 Horren arabera, gizarteak halabeharrez onartu behar ditu pertsona homosexual, bisexual eta transexualak hain zuzen ere horrela jaio zirelako eta ez dutelako halakorik aukeratu. Homosexualak izan ziren lehengoak aldarrikapen honi eusten. Are gehiago, Stonewall aurreko mugimendu homofiloetan ohikoa zen homosexualitatea gaixotasun moduan katalogatua izatearen aldeko estrategiak aurkitzea, edo gutxienez postura hauek defendatzen zituzten subjektu eta korrontek. Gaixotasun bezala aldarrikatzea subjektu homosexualen errugabetasuna aldarrikatzea zekarren eta, beraz, haiekiko errespetua, ez baitziren desbideratuak edo perbertituak, baizik eta beren joerak ekidin ezin zituzten pertsonak. Era berean, transexualen mugimendu askok Benjaminen teoriak ontzat emanez aurkitu zuten bide bat haien aldarrikapenentzako. Haren ustez, genero nortasuna aldaezina zen eta, beraz, hobe zen pertsona transexualei beraien gorputzak eraldatzeko tresnak eskaintzea, kirurgia bidez (Stryker 2017). Bi kasuetan aldaezina den oinarri bati egiten zaio erreferentzia. Ikusten dugunez argumentu horiek LGTB mugimendu modernoa sortu aurrekoak dira baina mugimendu askok eutsi izan diote planteamendu horri.

irekitzen du diskurtso hori auzitan jartzeko, baina ez zalantza eta kontraesanik gabe. Emakumeek beraien artean harremanak sortzeko modu berriak bilatzeak, gizonekiko desioa deserakitzeak eta emakumeekikoa eraikitzeak badakar aukera bat orientazioa bideratzeari dagokionez. Horrek ez du esan nahi berehalakoan eraiki daitekeenik lesbianismoa, aktibista honen aburuz:

Con un amiga (...) me ponía de mala ostia cuando me decía que ella había decidido hacerse bollera. Claro y yo pensaba ¿tú sabes lo que yo hubiese pagado por haber podido ser hetero? Que no tía, que esto no es un rollo que se elige... Luego por otro lado lo razono y sé que tampoco hay nada en mi ADN que me haga bollera, que han sido decisiones igual inconscientes pero decisiones si lo piensas. Pero lo de quiero ser bollera de la noche a la mañana... hay como esa tensión entre «no entiendo que seas hetera» y «me molesta que quieras hacerte bollera» (...) una vez alguien me echó en cara que si la única vara de medir era el dolor y me jodió, porque un poco lo que yo quería decir era eso. «Tú qué vas a ser bollera si tú no sabes lo que es sufrir por esto»... me tocó porque pensé, ¿qué estoy protegiendo, mi dolor? ¿Estoy haciendo de mi dolor identidad? Pero por otro lado, que la gente no juegue con esto que duele de verdad. [04 Kolektiboa - Estatu mailako ekimen feminista-lesbikoa]

Lehen atalean ere eztabaidatu dugu gai honen inguruan. Bizitako esperientzia eta, bereziki, *sufritutako* esperientzia da nortasun sexuala eraikitzen duena, horregatik, gogorra egiten da jendea egun batetik bestera lesbiana egin daitekeela planteatzea. Aktibista honek ez du erabaki hori hartu izanaren oroitzapenik, baina bai horren ondorioak sufritu izanarena. Izan ere, lesbiana “egin” zenean ez zuen horrelakorik esplizituki bilatzen eta, are gehiago, indarge eta baliabiderik gabe sentitu zen maiz baztertzen zuen munduari aurre egiteko. Horrekin alderatuz, konbikzio politiko edo askatasun espazioetan – gune feministetan – bizitako esperientziaz ondorioz lesbianismora gerturatzen diren subjektuak baliabidez hornituta doaz, jabekuntza maila handiagoeekin. Horrek ez du esan nahi ez diotenik aurre egin behar baztertzen dituen munduari, baina tresna gehiago dauzkate eskura. Sufrimendutik nortasuna eraikitzeak identitate horiek finkatu eta betikotzea ekarri dezake eta, aldiz, lesbianismoa eraikuntza-prozesu gisa ulertzeak borondatearen eta desioaren arteko mugak esploratzen ditu. Eztabaida konplexua da halabeharrez.

Esan bezala, lesbianismoak harreman partikularra du mugimendu feministarekin. Askotan auresuposatzen da mugimendu feminista gune erosoan izan dela lesbianismoarentzat, ahaleginaren ondorioz lortua izan arren: *“Bollerek behintzat feminismoan topatu dute leku hori (...) gero igual barruan badaude haiek esanez «y las bolleras qué» baina da borroka handiago baten barruan eta oso indartsu dagoen borroka baten barruan”* [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea]. Feminismoaren espazio politiko zabalean parte hartzeko aukera ez da berehalakoa izan, eta haren protagonistek prozesu bezala azaltzen dute gertakari bezala bainoago:

18 urterekin, momentu horretan izan zen klaka, ulertzea ze erlazio zeuden feminismoaren eta heteroarauaren kritikaren artean eta ulertzea bollera izatea aukera bat bezala zure praktika feministak aurrera eramateko eta zentzu askotan askatzeko eta abar (...) sortzen da ere beste aliantza bat talde batzuekin feminismoa bollerizatzeko, edo transfeministatzea, ez ulertuta superazio bat bezala, ezta are gutxiago ere. Baizik eta hor zegoen zerbait are zentrorago eramatea behintzat momentu horretan. [10 Kolektiboa - Talde transfeminista]

Desioa deseraikitzea planteatzeaz gain agenda feministarekin estuki loturik dauden elementu batzuen zentraltasuna zalantzan jartzea ere badakar apustu lesbianistak, eta baita subjektu politikoa bera ezberdin pentsatzea ere. Aktibista hauek tentu handiz azaltzen dute, hala ere, ez dutela feminismoa gaintzea planteatzen, ezpada aliantza eta artikulazio forma berriak bilatzea. Subjektuak baino, agentziak dira interesatzen zaizkienak: *“patriarkatuaren zapalkuntza bizi dutenak emakumeak dira, baina feminismoa agentziarako erabiltzen dutenak gorputz gehiago dira, ez soilik emakume bezala identifikatzen diren horiek, eta emakume kategoria bera zalantzan jarri behar da beste errealitate batzuekin”* [10 Kolektiboa - Talde transfeminista]. Hala ere, mugimendu feministarekiko harremana ez da denentzat berdina, eta lesbiana batzuek beren aktibismoa mugimenduaren espazioetatik kanpo garatzea erabaki dute, edo mugimenduarekiko gertutasun-maila ezberdinak artikulatzea aldarrikapen zehatzen edo uneen arabera. Gainera, askok aipatzen dute praktika lesbianoak zituzten emakume asko topatu arren, mugimenduan erreparoa aurkitu dituztela gaia lantzeko: *“nosotras como bolleras hemos militado en espacios feministas y le hemos exigido a los espacios feministas... en espacios feministas donde la mayoría eran bolleras, es que ¡es perverso! La mayoría eran bolleras, pero había un armario empotrado (risas) (...) ¿me estáis diciendo que como bollera no os reivindicáis?”* [08 Kolektiboa - Talde lesbiana lokal].

Subjektu espezifikoen aferarekin jarraituz, ikerketa honek **trans*** mugimenduen errealitate espezifikoa jasotzeko izan dituen zailtasuna eta mugak aipatzea ezinbestekoa da. Honetarako arrazoi ugari daude. Hasteko, elkarrizketatu gehienek aipatzen dute erritmo ezberdintasun bat LGTB* subjektu politikoaren barruan. Gay subjektua ikusgarriagoa izan da, oso maskulinizatua eta partziala izan bada ere. Subjektu lesbikoa ikusezinagoa izan da eta, ikusgarria izan denean, ez da lesbianismo politikoaren ikuspegitik izan. Bisexualitatea oso ikusgaitza da oraindik, eta subjektu gatazkatsua, bai mugimendu barruan zein kanpoan. Trans* subjektua gero eta ikusgarriagoa egin dela aipatzen dute denek, baina berantiaragoa izan dela historikoki eta talde edo kolektiboen bidez baino indibidualizatua izan den ikuspegi batetik irabazi duela ikusgaitasuna. Mugimenduaren hastapenetatik horrela izan da, 90eko hamarkadan aktibo egon zen militante honen aburuz:

(...) el tema trans... no había discurso... Ha cambiado tanto... Lxs trans toda la vida han estado ahí, dentro del grupo también, pero no había un discurso político desarrollado. En su momento la gente se lo gestionaba individualmente y el grupo le ayudaba a buscar la vía para darle salida, darle apoyo. Pero al final el debate trans nace de las trans, ¿no? Tú lo único que puedes hacer es escuchar. Pero eso nace mucho más tarde. Hubo gente y se le acompañó... recuerdo una niña super joven que no era ni mayor de edad y recuerdo ir cuando ella tenía 16 a su pueblo y hablar, ir a los servicios sociales, buscar la manera para que le dieran consulta... Pero bueno, todo el debate trans amanece aquí a partir del 2004, 2003 cuando ya nació el grupo trans aquí... [06 Kolektiboa - Gay mugimendua (gaur egun ez-aktibo)]

Gaur egungo ikuspegitik, beste ekintzaile batzuek ere aipatzen dute zaila dela trans* jendeak osaturiko talde espezifikorik aurkitzea. Esaterako, talde batzuek aipatu izan dute trans* taldeekin artikulazio zuzena izateko zailtasunak izan dituztela, bereziki talde horietako batzuk instituzionalizatuta daudelako eta ez dutelako apenas kale-politikarik egiten, edo ez direlako trans* jendeak osaturiko taldeak. Bereziki nabarmentzen dute haur transexualen guraso elkarteak, aktibista batzuen ustez ez dena interlokuziorik egokiena, ez dutelako kontuan hartzen transexualitateaz jardun arren subjektu nagusi eta ikusgarrienak zis pertsonak direla eta pribilegio positibotik mintzo direla. Elkarrizketatuen artean, subjektu politiko bateratu eta mistoaren alde egiten duen taldea izan da beraien kolektiboan trans* jende gehien duena. LGTB aktibista hauentzat garrantzitsua da instituzionalizaziotik alde egitea, baina baita identitateen partikularismotik ere. Trans* aktibisten presentzia handia dute eta leku handia egiten diete trans* gaiei, atentzio berezia jarritz transmisoginiari. Gai hori ez dute kanpora begira soilik landu, kanpainen bidez. Barrura begirako lanketa ere egin dute, haien taldean eragin zuzena duela uste dutelako:

Batez ere gizon zis gay edo bisexualak direnek transmisoginia itzela emakume transen kontra... Izatez emakume trans ez garen guztiok transmisoginiak baliatzen gara askotan, ez? (...) Azkenean LGTB kolektibo barruan pribilegioak ditugun guztiok ba pribilegio horiek ez dituztenentzako segurtasun espazioak sortzearen ardura hartu behar dugu (...) Gizon gay eta bisexualak emakume transak hipersexualizatzen dituzte eta ez dituzte emakume moduan hartzen eta gero beste aldetikan emakume zis askok, feminismotik datozenak, transmisoginia kutsu hori daukate. Adibidez komun mistoek hitz egin dugunean, mistoak izan behar direla, emakume zis asko esaten «como puedes saber si quien entra es un chico o una chica» eta holakoak (...) edo ez hainbeste eraso zuzenak baina gero definizioak egiterakoan LGTB taldearen erreproduzio eskubideen inguruan eta emakumeak lantzen direnean bakarrik emakume zisen inguruko lanketa egitea... [03 Kolektiboa - EAE mailako LGTB taldea]

Aktibista hauentzat transmisoginia erdigunean jartzeak mugimendu ezberdinen politikak berregituratzea ekarri beharko luke, lesbianen mugimenduek feminismoarekin planteatu bezala. LGTB* politiken eta mugimendu feministaren hainbat ikuspegi, haien ustez esentzialismoan oinarritzen direnak, mingarriak egiten zaizkie eta berauek aldatzeko beharra azpimarratzen dute. Esango nuke gai horrek ibilbide laburragoa izan duela mugimenduotan eta, ziur aski horren ondorioz, aktibistek ez dute horrenbesteko sotiltasunez hitz egiten gaiaren inguruan. Lehen ere aipatu dut gure aktibismo askoren oinarrian, era esplizitu edo inplizituan, mina dagoela. Aktibista hauentzat transmisoginiak sortutako minak areagotu egiten dira aitortzen ez diren heinean. Esanguratsua da mugimendu feministarekin duten harremana beste era batera interpretatzen dutela:

(...) gaur egungo feminismoan ez dut nire burua aurkitzen. Teorikoki gauza batzuetan oso ezberdina ikusten naiz (...) orain emakume kontu hori ulertzen dut LGTB barnean. Beste taldeekin lan egin ez arren feminismoaren ikuspegi hori badaukat LGTBaren barruan, gazte mugimenduarena ere... niretzat dena elkartzen den kontua hau da. [03 Kolektiboa - EAE mailako LGTB taldea]

LGBTB* politikak unitario bezala ulertzen dituzten aktibistentzat potentzialitate berriak irekitzen dira. Aktibista honen aburuz, feminismoa barne hartzen du bere LGTB* politikak, bai eta beste elementu batzuk ere, antikapitalismoa edo arrazakeriaren kontrako borroka, kasu. Beste aktibista batzuei, ordea, ziur aski LGTB mugimenduaren ibilbide historikoa dela medio, zalantzarria zaie planteamendua: “{el movimiento LGTB} *recurre a argumentaciones que vienen del feminismo pero no reconocen que es feminista, omiten esa parte, no dicen feminismo, como mucho pueden decir «transfeminismo», pero el feminismo es como si tocaran un clavo ardiendo*” [08 Kolektiboa - Talde lesbianista lokala].

Sexualitate eta genero aniztasunaren inguruan subjektu politikoa eraikitzea eginbehar konplexua da. Izan ere, subjektu horrek gaur egungo testuinguruan kapitalismoaren eta normalizazioaren arriskuak ekidin behar ditu, barne mailan dauden ezberdintasunak era orekatuan artikulatu eta inoren hitza ez isilarazi (edo bere gain hartu subjektu isilak kontuan hartu gabe). Halako subjektu konplexu eta alde-anitzekoa ez da antolatu gabe dauden LGTB* pertsona eta komunitateetara gerturatzeko egokiena kasu askotan: antikapitalismoa edo anti-arrazakeria bezalako osagaiak gehitzen zaizkion heinean, talde batzuegana gerturatzeko aukera beste batzuegandik urruntzeko arriskua ere bada. Amaitzeko, kategorizazio konplexu horrek LGTB* borroka bera beste gai batzuen atzean disolbatzeko arriskua ere badakar, batzuen ustez. Dilema horiei helduz, hurrengo ataletan barne mailako talkak, komunitatearekiko distantziak eta agendaren inguruan esandakoei jarriko diet arreta.

4.4 Intimitateak, agendak, estrategiak eta distantziak

Lehen atalean elkarrizketatutako pertsona batzuek azaldutako kezka baten haritik, bigarren atal honetan aktibistei LGTB* politiken agendaren inguruan galdetzea ezinbestekoa iruditu zait. Lehen elkarrizketa-multzoan, parte-hartzaile batzuek hizpide izan dituzte LGTB* mugimenduen agenda ulertzeko zailtasunak eta, horien ondorioz, talde edo kolektiboetara gerturatzekoan sortzen diren ezerosotasunak. LGTB* pertsonen eta LGTB* politiken arteko distantziak hasieratik eragin dit jakin-mina eta, era berean, mugimenduek agenda zehatz eta egingarriak sortzeko dituzten zailtasunek beti arduratu naute, ikerlari zein aktibista bezala. Nolanahi ere, LGTB* mugimenduekiko distantzia hori ezin da agendaren ikuspegitik soilik azaldu, elementu ugari daudelako tartean. Esaterako, subjektu batzuei zaila egiten zaie LGTB* politiketara gerturatzeko identitate mailan ezerosotasuna sortzen dielako mugimenduaren ikusgaitasun mailak, edo beren bizitzako alderdi horri garrantzi gehiagorik eman nahi ez diotelako. Baina nortasunaren inguruan zabal jardun dut jada eta, beste elementuak albora utzi gabe, agenda, estrategia eta distantziei erreparatu nahi diet oraingoan. Mugimenduen jarduna hobeto ulertzeko, ordea, intimitatearen inguruko ideia batzuk aipatu nahi ditut lehenbizi.

4.4.1 INTIMITATEA ETA EXTIMITATEA¹⁹⁴

1970eko hamarkadatik aurrera sortutako “mugimendu sozial berrien” inguruan egiten den interpretazioaren arabera, mugimenduok ez dute soilik helburu zehatz batzuk lortzeari begirako mobilizazio eta protesta multzoa proposatzen, barrura begirako lana ere egiten dute taldeok, bi zentzutan bederen. Alde batetik, mugimenduak jakitun dira kontzientzia politikoa izate hutsak ez duela berezko eraldaketarik sortzen eta, beraz, ezinbestekoa dela talde barruan presente dauden botere desorekak lantzea. Bestalde, herri mugimenduek zapalkuntza sistemak borrokatzeaz gain beren idearioan dauden komunitate eredu positiboak martxan jarri eta esperimentatzeko asmoa ere badute eta, horretarako, autonomia eta askatasun espazioak sortzea estrategikoa da haientzat. Talde eta kolektiboak, nolabait, desiratzen duten bestelako mundu horren entsegarako espazioak dira.

Barne helburu horiek tentsioak sortzen dituzte kanpora begira lantzen diren kanpaina, ekintza eta bestelako ekimenekin, taldeen egiteko gaitasuna mugatua den heinean, barrura begira asko jarduteak kanpora begirako lana ahultzea dakarrelako. Tentsio horretan mugitzen dira mugimenduak, extimitatearen – kanpora begira egiten diren ekimenen – eta barne lanketaren intimitatearen artean. Elkarrizketatutako kolektibo batzuen jardunean bi ziklo horiek txandakatzen dira eta beste batzuk, aldiz, bien arteko aldibereko oreka topatzen saiatzen dira. Denek onartzen dute bi elementu horien existentzia, nahiz eta bakoitzari garrantzi ezberdina aitortu:

Gurea ez da kolektibo bat en plan «asanblada-asanblada-asanblada», da gehiago lagunarte bat eta funtzionatzen dugu... hasieran gehiago zen parranda pilo bat egiten genituen eta gero beti egiten genituen... gauzak antolatu, jardunaldiak... baina beti laguntasun giro baten barruan, eta horrek igual zailtzen du jendea sartzea edo dena delakoa... Ez dakit, jende asko herrietatik etorri delako eta agian ez du nabaritu... herrietan zailagoa da harremana LGTB kontuaren inguruan

194 “Extimitatea” kontzeptua elkarrizketatuetako batek jarri zuen mahai gainean elkarrizketa batean. Berak emandako zentzuan, intimitatea taldeek barrura begira egiten duten lana dago, eta extimitateak kanpora begira egiten denak. Kontzeptu hau, beraz, haien emandako zentzuan erabiliko dut, eta ez, adibidez, Jacques Lacanek planteatutako adieran, non extimitateak subjektuaren kanpotasun intimoa (“exterioridad íntima”) adierazten duen (González eta Ema 2017:238).

Kolektiboen jardunaren alderdi formalak estuak eta zurrinak izan dira maiz. Asanblada eta bilerak astunak suertatu zaizkie askori eta, gainera, botere harremanen irakurketa kritikoa egin denean ustez horizontalak ziren espazio horiek botereak gurutzaturiko posizio-zelai bilakatu dira askoren begietan: norik hitz egiten duen, noren proposamenak hartzen diren serioago, noren sare informalek ematen dioten botere formal zein informala, zein ardura hartzen dituen bakoitzak eta horren ondorioz zein beste zeregin alboratzen dituen eta abar. Euskal Herrian, antolaketaren inguruko kezka horiek, batetik, eta koiuntura politikoaren aldaketak, bestetik, antolaketa eta parte-hartze ereduaren eraldaketa ekarri dute azken urteotan, bereziki Ezker Abertzaleari loturiko taldeetan, baina ez soilik horietan. Herri mugimendu guztiei eragin dieten elementu horiez gain, ordea, badira beste batzuk LGTB* politikek berezko izan ditzaketenak.

Goiko testigantzan herritik hirira egindako bidea aipatzen da. Herrietan beste LGTB* pertsonekin kontaktua egiteko aukerak urriagoak izan ohi dira eta, beraz, askotan mugimenduak hori lortzeko modua dira. Hala da, bereziki, gay eta lesbianeiei zuzendutako kontsumo-espazio komertzialetan eroso ez dauden askorentzat¹⁹⁵. Hego Euskal Herriaren egitura demografiko eta geografikoari begiratzea besterik ez dago herrietatik hiri handira joateak dakarren aldaketaren ideia ñabartu beharrekoa dela ikusteko. Hiriak, kualitatiboki herriekiko ezberdinak izan arren, tamaina aldetik ez dira horren handiak; ez behintzat gure iruditegian hiriek eskaintzen duten anonimotasun hori bermatzeko adina. Horregatik ere sortu dira azkenaldian LGTB* taldeak hainbat herritan, talde txikiak. Txoko horietan LGTB* gune komertzialak ezinezkoak lirateke, baina ikusgaitasuna handitzen den heinean, taldeak osatzen dira. Gehienetan egitura informala, jarduera intermitentea eta iraupen laburra izaten duten taldeak dira, baina askotan parte-hartzaileei “beren gisakoekin” jarduteko aukera eskaintzen diete.

Ez da alboratu behar elkar topatzeak duen garrantzia, ez eta parte-hartzaileentzat izan dezakeen zentzua ere. Gune bizigarriak aurkitzea lehentasunezkoa izan daiteke eta talde askok ez dute arazorik elementu hori beraien agenda politikoaren parte dela esateko: *“gure artean saretze prozesu hori sortzea guretzako ere militantziaren parte da, ez da soilik topaketak egitea edo tailerrak egitea edo dinamikak sortzea, baizik eta eguneroko horretan*

195 Honen inguruko aipamen interesgarriak egiten ditu, ikuspegi autobiografikotik, Didier Eribon filosofo frantsesak “Regreso a Reims” (2017) liburuaren azken atalean. Bere esperientzia hamarkada batzuk lehenago kokatu arren, ondo azaltzen du ambienteko giro eta tabernak ezkertiar militante komunista zen garaian ez zituela ontzat hartzen “dibertimendu desegokiak” zirelako (Op. Cit:217).

gure identitatearen biolentzia guztiak... ba horien kontra joatea” [03 Kolektiboa - EAE mailako LGTB taldea]. Egunerokoan bizi dituzten indarkeria horiek osatzeko eta haiei aurre egiteko espazioak sortzea garrantzitsua da, eta aldi berean ekinbide politikoa martxan jartzeko lehen pausua. Duela 30 bat urteko garaiaren testigantzek gogora ekarri diguten bezala, baldintzak aldatuz joan arren, behar hori konstantea eta aski iraunkorra da LGTB* mugimenduetan. Isiltasunaren eta klandestinitatearen intentsitatea murriztu egin da eta, bat batera, gizarteak LGTB* pertsonentzat eskaintzen dituen lekuetan ez egokitzearen ideia indartuz joan da. Lehen ez zegoen espaziorik gay, lesbiana edo trans* izateko. Gaur egun dauden espazioetan ez dira LGTB* pertsona guztiak berdin barne hartzen, hain zuzen ere gay, lesbiana edo trans* izateko haien moduak ez duelako eredu hegemonikoarekin bat egiten.

Barrura begira lan egitean, espazio komuna topatzearen beharra asetzeaz gain ezkerreko herri mugimenduen ikuspegi klasiko batzuk ezbaian jartzen dituzte taldeok. Masa-mugimenduen ikuspegitik, talde eta kolektiboen helburuetako bat ahalik eta jendetsuenak izatea litzateke. Handitasun hori nola kudeatu ebaztea, aginte-koadroak sortzea ala asanblada erraldoiak egitea, kokapen ideologikoak baldintzatzen du, baina ezberdintasun horien gainetik, mugimendu asko dira hazteari eta masa-izaera lortzeari garrantzia ematen diotenak. Elkarrizketatutako talde batzuek, ordea, desio hori zalantzan jarri dute. Haien ustez ez da desiragarria mugimenduak gero eta handiagoak izatea, eta beharrezkoagotzat dute taldeek txikiak direnean lortu dezaketen potentziala ustiatzea.

No proyectamos hacia afuera, sino de dentro hacia afuera. No queremos cubrir una demanda, quien quiera activismo aquí estamos pero tiene que... tienes que ser tú quien quiera... Nuestro fin no es tener más activistas, no es llegar a... estar en todas las cosas porque no llegamos. Porque el cuidado y el auto-cuidado es algo político, hay otros grupos que tienen cuatro asambleas al día... nosotras estamos en lo que llegamos y hasta donde queremos y si nos sentimos bien, y en ese sentido tenemos un acuerdo muy explícito. Cada una aporta lo que puede, cuando puede, siempre partiendo de lo que nos apetece hacer a las que estamos aquí.
[08 Kolektiboa - Talde lesbianista lokala]

Talde txikiak norberaren eta ingurukoen zaintzarako espazio egokiak izan daitezke. Txikitasun hau aldarrikatzen duten talde askok lotura berezia edo oso gertukoa dute mugimendu eta teoria feministekin, zeinek zaintzaren diskurtsoa erdigunean jarri duen, bai gizarteko eremu ugarian eta baita herri mugimenduen barruan ere¹⁹⁶. Horretaz gain, talde txikiek ikusgarri egiten dituzte herri mugimenduen erritmo frenetikoak maiz sortzen dituen

196 Ikus (Sagastizabal Emilio-Yus 2017).

ezintasunak. Erritmo horrek militanteen bizitzetan ondorioak eragiten ditu eta ziklo laburreko ekintzailletza bultza dezake, askotan gaztetasun garaian kokatutakoa. Azkenik, aktibismoaren eta plazeraren arteko zubia ere eraikitzen du testigantzak, historikoki sakrifizioarekin lotu den eginbidean gozamenaren dimentsioa indartuz. Horrek egin beharrekoen zerrenda laburtzea dakar: ezin dira astean lau asanblada izan eta, aldi berean, egiten denaz gozatu. Horrek irekitzen duen kontraesana agerikoa da. Disfrutatzea, ordea, sormenarekin loturik dago. Ez da hedonismo hutsa, plazeretik sortu daitezkeen aukera subertsiboak esploratzeko gogoia ere bada. Hainbat mugimenduk, nagusiki feministak, horren inguruan egindako kritiken ildotik jarraitzen du, beraz. :

Afinitate taldeak, txikia izateak, ematen dizu aukera zuk erabakitzeko zertan zentratzen zaren. Gauza batzuk onak eta beste batzuk txarrak... flexibilitate bat badaukazu, edo ahal zaizkizu okurritu ideiak poteatzen ari zarenean, lagunak zaretelako ere, eta bizitzako beste eremu batzuetan ere sortzen da (...) Argi izan dugu behar ditugula segurtasun espazioak eta sorkuntza espazio propio batzuk, oso esperimentalak, oso radikalak (...) baina aldi berean garrantzi handia eman diegu konexioei eta gure garapenei (...) konektatuta gaude, emakumeen mundu martxa, M8ko greba, asanblada horietan gaude, nahi ditugu politika transformatzaileak egin eta konektatuak gaude (...) Boladak daude, batzuetan gehiago zaude talde barruko proiektuetan, eta bestetan gehiago zaude beste gune batzuetan. [10 Kolektiboa - Talde transfeminista]

Esperimentazio espazioak, beraz, intimitate erradikalen gune dira. Mugimenduok argi dute ezinbestekoa dela sormen politikoa lantzea, dagoenaren kontra egiteaz harantzago, ideiek eta planteamenduek eboluzionatu ahal izan dezaten. Afinitate bidezko talde txikiek aukera ematen dute taldearen lehentasunak errazago definitu eta agenda propioagoak izateko, nahiz eta, aurreko testigantzan ikusi dugun moduan, horrek taldean jende berria sartzea zaildu. Esandako moduan, talde denek ez dute berebiziko kezkarik erreleboarekin edo jende berria sartzearekin; talde txikiak ugaritzean afinitate talde berriak agertu eta beste batzuk desagertzea ontzat ematen dute. Afinitate talde horiek beharrezkoa den segurtasuna eskaintzen dute esperimentazio eta inprobisaziorako. Mugimenduetako kideek, edonola ere, denbora-muga bat ezartzen diote jardun bakoitzari, eta esperimentazio gune horiek kontaktu guneekin konbinatzen dituzte. Uneka esperimentazioa eta beste taldeekiko kontaktua batera gertatzen dira, baina gehienetan taldeak ezin die biei aldi berean eutsi eta, tarteka, batean edo bestean ardatzu behar da: proiektu propioak garatu edo besteekin elkartu koordinakunde zein asanbladetan. Afinitate taldeak esperimentazioarentzako baliagarria den segurtasuna eskaintzen du; koordinakundeak eta gune zabalak gure ziurtasunak zalantzan jartzen dituzten kontaktu espazioak dira. Intimitate eta extimitateak elkar lotzen dira.

Bi elementu horien arteko harremana utilitariora da kasu batzuetan, ezin baita espazio zabalera atera kanpaina edo aldarrikapenak egitera aurrez barne lanketa egin gabe. Zentzu horretan barne-lana askorentzat ez da esperimentazio gunea, baizik eta ezberdintasunak lantzeko, iritziak sendotzeko eta diskurtso eraginkorrek sortzeko aukera. Ildo horretatik posible da taldearen norabidea finkatu eta kanpora begira lanean hastea:

Badaramagu urte eta erdi barne lana egiten ari garela, lehenengo geunden kanpora begira beti eta ikusi dugu lehenengo gure elkartearen zentzu ideologikoa eta linea politikoa sendotu behar ditugula, barneko formazioa, barne ulermena... eta aldi berean lehenengo gure proiektu guztiak ziren hitzaldiak edo jardunaldiak eta orain nahi duguna da kaleetara joan. Horra heltzeko lehenengo topaketa txikiak eta elkarrizketa txikiak egin behar ditugu. [03 Kolektiboa - EAE mailako LGTB taldea]

Talde honek, esaterako, kanpora begirako ekimen ugari antolatzearen alde negatiboak dakartza gogora. Ekimen ugari burutu arren, askotan ekimen horiei zentzua emango dien norabidea topatzeko zailtasunak dituztela aipatzen dute. Aldi berean, taldearen kanpora begirako jardunean aldaketa batzuk sortu nahi dituzte, sentsibilizazio eta eztabaidatik (hitzaldi eta jardunaldiak) protesta eta astintzera pasatuz ("*kaleetara joan*"). Norabide aldaketa horrek denbora eskatzen du eta begirada estrategikoa lantzeko barnera begira jartzea.

Kideok oso kontziente dira haien talde eta kolektiboek betetzen dituzten funtzioak ez direla kanpaina eta protestetara mugatzen. Kideen zaintza eta, kasu batzuetan, oinarri-oinarriko ongizatea bermatzeko espazioak dira mugimenduak eta horrek dimentsio ezberdinak zaintzera eramaten ditu taldeak. Taldekideen eta inguruko beharrei erantzuten jakitea, moldagarriak eta gustagarriak diren antolakuntza ereduak aurkitzea edo talde barruan dauden botere-harremanak lantzea aktibismoaren parte dira, baina aldi berean kolektiboen eta kideen energiak ezin dira horretan geratu, eraldaketa sozialera bideratzen diren ahaleginekin uztartu behar dira. Horretarako tresna egokia izan daiteke helburu eta agendak osatzea, taldeen intimitatea hautsi gabe haien mugetatik at, espazio extimoan, eragina izan ahal izateko.

4.4.2 AGENDAK

Agenda politikoak oso zehatzak direnean helburuak eskuragarri izatea dakarte, baina potentzial politikoak agortzeko arriskua dute ere. Aitzitik, zehaztapen-maila txikia izateak helburuak ulergaitz bilakatu ditzake. Elkarrizketatuetako batek aipatu dit “lorpen” batzuk bereganatu bezain laster (ezkontza, adopzioa...) agenda berria perfilatzeko beharra izan zuela mugimenduak, baina ez zuela horretarako gaitasunik izan. Ondorioz, zereginik gabe geratu izanaren sentsazioa izan zuten askok eta askok. Nola moldatzen dira gaur eguneko taldeok hutsune horren aurrean? Ala lorpen horiek ez ziren beren aburuz desiragarriak eta, ondorioz, ezin dira lorpenzat hartu? Ba al dago agenda bat ala? Beharrezkoa al da?

En unas jornadas (...) les dije, vamos a escribir los diez puntos de la agenda lesbica ahora mismo en el estado español. No lo sacamos. No había diez concretos. Porque “la visibilidad” en general... pero no, no, vamos a concretar. Llegamos a decir “la visibilidad de las lesbianas en los medios de comunicación”, “la visibilidad de las lesbianas en la ficción”... Y cuál más? El tema de la maternidad, registro civil y tal... y un punto sobre datos. Una de las cosas que decían era que no podíamos tener agenda porque no tenemos claros los diagnósticos... Yo tengo la intuición de que las lesbianas sufrimos muchísima más precariedad [laboral] pero no tenemos cómo saberlo. [04 Kolektiboa - Estatu mailako ekimen feminista-lesbikoa]

Testigantza honek oraintxe aipatu ditudan eztabaida asko laburtzen ditu. Hasteko, ez genuke beldurrik izan behar onartzeko mugimendu askok ez genukeela jakingo gure asmo eta intuizioak hamar puntutan zehazten. Horren arrazoiak asko izan daitezke. Lehenik, zapalkuntza bat bizitzearen sentsazioa izateak ez gaitu halabeharrez plan orokor baten jabe egiten. Bigarrenik, mugimendu batzuek besteek baino gai zehatzagoak lantzen dituzte eta, zentzu horretan, errazagoa izan ohi dute proposamen konkretuetara jotzea. LGTB* politiketan, aldiz, azken hamarkadetan legeak eta aitortza sinbolikoak zentraltasuna hartu badute ere, dimentsio askotarikoak biltzen dira: ekonomikoak, sinbolikoak, legalak edo administratiboak. Horren ondorioz, alde batetik, esparru legalean puntu itsu batera heldu garela esan dezakegu, gurean ez baitago jada diskriminazio esplizitua bultzatzen duen legerik

apenas, eta egiteko geratzen direnak hobekuntza administratiboak dira. Bestalde, espazio sinbolikoan zaila egiten zaigu proposamen zehatzak egitea, tartean sinbolikoak beste dimentsio batzuekin duen harremana ulertzea kostatzen zaigulako. Sarritan, abstrakzio maila altua duten elementuekin lotzen dugu: onarpena lortzea, jendearen jarrerak aldatzea, errepresentazioa izatea... Eta elementu horiek zehaztea zaila egiten da.

Testigantza berberak agenda garatzeari begira eman daitezkeen pausuen inguruko pistak ematen ditu. Ba al dakigu nola gauden? Adibide bat jartzeko asmoz, diagnostikoa helburu duen ikerketa bat ekarriko dut hona. Duela gutxi irakurritako txosten batean Bartzelona eta inguruetan emakume transexualek duten enplegu-egoeraren berri izan nuen¹⁹⁷. Ikerketaren arabera emakume horien portzentaia oso altu batek enplegua lortzeko zailtasunak dauzka, eta horrek egoera prekarioetara daramatza, hala nola arrisku altua dakarkien eta errekonozimendu legalik ez duten lanbideetara, sexu-langintzara, esaterako. Diagnostiko hori gogoan hartu ezean ziur aski gizarte mailan nagusi den diskurtsoa baliatuko genuke transexualitatearen inguruko agenda sortzeko: onartu dadila gizarte mailan, jar daitezela gorputz-eraldaketarako baliabideak hala nahi duten emakumeen esku, sentsibilizazioa egin dadila ikastetxeetan eta bestelako guneetan eta abar. Halako diagnostiko batek baieztatu digu, ordea, emakume transexual askok esan izan dutena: autonomia ekonomikoa bermatzen duten neurriak ezinbestekoak direla emakume askoren biziraupenerako, eta haien artean emakume transexualak bereziki zaugarriak direla. Beraz, arazo hori arindu edo konpontzeko neurri zehatzak behar dira. Mota honetako txosten batek agerian uzten du dimentsio materiala kontuan hartu behar duela transexualitatearen inguruko agenda politikoak. Ildo beretik, elkarrizketaturiko ekintzaile honek lesbianek enplegu eta lan prekarietate maila altuagoak bizi dituztela uste du, baina aldi berean ez dauka daturik eskura, eta diagnostikoak egitearen beharra azpimarratzen du.

Beste elkarrizketatu batzuek, aitzitik, salatu egiten dute neurri administratibo, ekonomikoa edo juridikoekin lotura duten agendak soilik hartzea seriotzat eta ez dute onartzen askotan entzuten den kritika, hots, LGTB* mugimenduak, edo lesbianen mugimenduak, ez duela agenda sendorik. Haien ustez, ez da kasualitatea proposamen zehatzen falta botere guneetatik herri mugimenduen kontra erabili den argumentu bera izatea, eta elementu hau kritikoki aztertzeko beharra azpimarratzen dute:

197 Ikus Coll-Planas et al. (2017).

(...) hay un montón de reivindicaciones en otros movimientos que son muy concretas pero que yo no haría (...) la pregunta sería ¿cuándo se crea un discurso y cuándo consideras que hay una reivindicación que llega? ¿Cuándo están institucionalizadas? (...) Que haya una ley... a mí me da igual que haya una ley de matrimonio. Que sí que está muy bien que esté, pero a mí en mi vida diaria, como si... Entiendo más que es algo mucho más en lo cotidiano y en esa red de cuando vamos a la calle, aquí mismo (...) nosotras creamos al final posibilidades de ser, somos conscientes de los vacíos que hay, de los silencios, y de alguna manera desde nuestra humildad estamos creando, haciendo un poquito de ruido, diciendo que existimos, hay posibilidades de ser, esto existe, la heterosexualidad es obligatoria es también una elección, no sólo lo nuestro es una elección... que se elimine la familia... el discurso de la heteronorma es un discurso super potente, ¿por qué no cuaja? [08 Kolektiboa - Talde lesbianista lokala]

Talde honen ikuspegitik aldaketa juridikoak ez dira horren garrantzitsuak. Beraien ahalegina egunerokoan izateko eta bizitzeko aukera berriak sortzera bideratuta dago: berdinen arteko sareak sortzera, elkar babestera, eta zarata egitera, hain zuzen ere hetero-araua salatzeke, lesbianismoa emakumei indarrez inposaturiko aukera bakarrari aurre egiteko erabili eta zabaltzera. Beraien ustez feminismo lesbikoak oso diskurtso eraginkorra sortu du horren inguruan eta berau zabaltzea haien agendaren erdigunean dago.

LGTB* agendak zehatza eta ukigarria izan behar duelako ustea zalantzan jartzen dute, nahiz eta aldarrikapen zehatzen inguruan bil daitezkeen indarrak ere interesgarriak iruditzen zaizkien. Aldarrikapen zehatz baten inguruan jendea bildu arren aldarrikapen zehatz horretan ez geratzean datza zailtasuna, eta horrek agenda bera eta estrategiak antolatzeke era ezberdinak eskatzen ditu. Eskema ohikoan ekintza lokalak agenda zabalago baten isla dira, eta planifikazio handiago baten baitan daude. Talde batzuek, ordea, lokalari beste ezaugarritze bat ematen diote: leku ezberdinetarako eraginkorrak izan daitezkeen planteamenduen bila aritu ordez, horren ezintasuna onartu eta tokian tokikoa ekintza politikoaren gune lehenetsizat dute. *“Más que por objetivos finales nos interesamos por acciones particulares que tienen su... nos fijamos en acciones locales porque queremos cosas muy concretas (...) como objetivos finales son... un enfrentamiento frontal al Pride y a que se establezca, generar pegamento social entre movimientos...”* [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]. Maila honetan, helburu lar konplexuek partikulartasuna galtzeko arriskua dakartela aipatzen dute eta lehentasunezko helburutzat dute beren ingurune eta momentu zehatzean jardutea, adibidez beste taldeekin elkarlanean Bilbon ekainaren 28ko ospakizunaren komertzializazioa ekiditea. Espazio sinbolikoan eragiteko asmoa ere badute taldeok. Aukera berri horiek sortzeak iruditegiak aldatzea dakar, eta lan ezberdinak egiteko beharra ikusten dute, halaber, iraganera begiratzeari uko egin gabe etorkizunean eragiteko asmoz. Memoria eta genealogiak aipatzen dituzte:

Baita ere genealogia marika bat sortzeko beharra, hasierako zer gara horretan pentsatu genuen formakuntzaren inguruko proposamenak, jada ari ginelako, eta baita ere ikerketarantz bideratzeko gogo hori (...) nahiko problematika handia dago marika edo bollera izanda zure nerabezaroan zure erreferentzia puntuen bila zaudenean, askotan da estatala edo yankia, eta ez dakizu zure albokoaren ingurukoa. Sortzen den identitate marika ere balio oso konkretuetan eraikitzen da orduan, jakin gabe zure inguruan ere egon zela gauza potenteak egin zituen jendea eta zure identitate hori osatzen joateko aukera dela ere. [09 Kolektiboa - LGTB/Marika/Transfeminista taldea]

Genealogia lan hori ikerketa lanarekin lotzen dute talde honetan, eta lan-lerro hori irekitzeko gogoaz azaltzen dute, LGTB* erreferentziak ere nolabaiteko kolonialismo kulturalen eror daitezkeela salatuz. Erreferenteen berrezaugarritze horrek iraganen eta gertu egon ahal izan diren pertsona eta taldeen memoria berreskuratzea dakar, baina ez soilik hori; sortzaile izatea ere eskatzen du:

(...) a fuerza de visibilizar esto que no existe, generarlo (...) había muchas maricas que eran afines a los movimientos de liberación etc, que no se sentían identificadas con el movimiento LGTB que veían, y de repente ven un grupo de maricas punkis, con crestas, con tacones, maquilladas como puertas por las calles, reclamando voces que les apelan y se van uniendo o nos hacen altavoz, nos utilizan como referentes como comodines... [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]

Lehenago kolektiboek barrura begira egiten duten lanaren nondik norakoak azaldu ditut eta testigantza honek gogorarazten digu kanpora begira egiten den lanak ere dimentsio ezberdinak hartu ditzakeela. Mugimenduek egiten dituzten ekarpenen artean gizarte iruditegiak hedatzea dago, aukera berriak mahai gainean jarritz erreferente berriak proposatzea, dagoena aldarrikatzeaz gain egon litekeena zirriborratuz, ez dagoena soilik delako posible¹⁹⁸. Aipagai dugun kolektiboak eginbehar horri ekarpena egin nahi dio dio eta, horretarako, haien estetika erabiltzen dute bestelako subjektu marika bat aldarrikatzeko, iruditegian hain ohikoa ez den punki marika. Lehenago aipatu dudana gay errepresentazio monolitiko eta dimentsio bakarrekoari aurre egiten diote iruditegi berri horren bidez, horretarako genero politikak erabiliz, adibidez, *drag* edo makillajea. Proposamen hori gertuko esparruan, kalean eta beraien auzoan, garatzen dute ekintzaile hauek eta, honela, erreferentzia

198 Einstürzende Neubauten taldeari hartu dizkiot azken hitzok: “*Was ist ist, Was nicht ist ist möglich, Nur was nicht ist ist möglich*”. Badena bada; ez dena, posible da; soilik ez dena da posible” (“*Was ist ist*”, *Ende Neu* diskatik, 1996, Mute Records).

posible bilakatzen dira beste batzuentzat. Lan honen lehen zatian erreferentzien inguruan jardun dut, interpelazio eta identifikazio prozesuetan jokatzeko duten papera azpimarratuz: eskura dauden erreferentzien arabeko identitate inbertsioak egiten dituzte subjektuak eta, horren jakitun, LGTB* politiken ardatzetako bat berauek ikusaraztea da, hala nola ikusgaitasun hori bermatzeko espazio eta aitzakiak antolatzea:

(...) hori egiten dugu, ezta? Crear posibilidades, posibilidades de sociabilidad, posibilidades de encontrar lugares y ámbitos seguros. Begira, egin genuen festa bat hemengo diskoteka batean eta gero ireki zituzten ateak, kontzertu areto bat delako, eta leku seguru bat izatetik bihurtu zen espazio ez-segueroa, minutu batean. Ikusgarritasun handia egin genuen, kontzertua antolatu genuen, gure burua ikusarazi y (...) de repente viene la marabunta y te come el espacio, erasoak daude, begiradak, adierazpideak, taldean kokatzeko formak, genero dinamikak... gauza da errealitatea ikusten dugula transformatzen ari garen heinean, eske ezin da... Ez bazara bizitzen ez duzu ikusiko (...) [07 Kolektiboa - LGTB+ taldea]

Segurtasun espazio horiek ere intimitate eta extimitate ardatzen artean mugitzen dira. Elkar ezagutzen ez duten pertsonen topalekuetan ere kanpoan dagoenarekin negoziatu beharra dago, espazio segurua hauskorra delako. Agendan kokatu beharreko gai batzuek (espazio seguruaren auziak, egoera ekonomikoak edo erreferenteak sortzeak) ibilbide luzea dute eta beste batzuk (ekainaren 28a "Pride" jai komertzial bilakatu dadin ekiditea) uneko egoeraren irakurketarekin estuki loturik daude. Taldeen agendak horrela osatzen dira, nahiz eta gehienetan egutegia den agendaren motor nagusia: ekainaren 28ko harrotasun eguna, apirilaren 26ko ikusgaitasun lesbikoaren eguna, martxoaren 8ko emakume langileen eguna, azaroaren 25ko emakumeen kontrako indarkeriaren eguna, maiatzaren 17ko homofobiaren aurkakoa eta abar. Egun horien inguruan antolatzen diren manifestazio, ekintza eta jardunaldiak aldarrikapen zehatzak pentsatu eta plazaratzeko parada dira baina, askotan, epe erdirako irakurketek ere determinatzen dute diskurtsoen eta aldarrikapenen norabidea. LGTB* komunitatearen egoeraren irakurketa egitetik eta barne-mailako entzuketa prozesuen bidez ere zehazten dira beste lehentasun batzuk:

Bi helburu oso zuzenak ditugu. Bata da transmisoginiaren kontra egitea, eta haien bai daudela oraindik superbibentziaren borrokan, zenbat emakume trans hiltzen diren oraindik, bizi itxaropena dago oraindik 50 urte inguruan... eta bestetik neoliberalismoaren kontra egitea... eta batez ere gaur egun gero eta gehiago ikusten ari garen faxismoaren kontra jotzea (...) Nik uste azken urtetan gertatu den kapitalismoaren asimilatze hori LGTB kolektiboarekiko, ba hori, badirudiela oraintxe bertan ez ditugula borroka asko eta berriro ulertu behar dugula sistema batzuen baitan gaudela eta sistema horien kontra egin behar dugula, gaur egun oraindik ulertu behar dugu heteronorma sistema bat dela, opresio sistema bat dela, ZISnorma beste sistema opresibo bat dela eta nahiz eta hobeto egin sistema horiek mantentzen direla, kapitalismoak

mantentzen dituela... Ez da bakarrik gure bizipenen kontua baizik eta bizipen horiek nola koherentzia baten barruan sartu behar ditugun. (...) Neoliberalismoaren ikuspegitik ez dago ezer egiterik, ze jada lortu ditugu eskubideak eta abar, baina ikuspuntu erradikal batetik sustraira heltzeko eta sistema apurtzeko lan asko dago oraindik. Guretzako lan itzela dugu aurrean. [03 Kolektiboa - EAE mailako LGTB taldea]

Lehen aipatu dugu transmisoginia barrura begirako lanketa eskatzen duen zapalkuntza forma dela, eta aipu honetan kanpora begira ere lan egiteko beharra dagoela azpimarratzen da, trans* emakumeak zaurgarritasun egoera larrian eta superbibentziaren aldeko borrokan daudela ulertuz. Egungo egoeraren irakurketa kritikotik abiatuz, neoliberalismoa zalantzan jartzea da talde honen bigarren helburu estrategikoa, norbere esperientziez harago LGTB* borrokak estruktural bezala ulerrarazi eta artikulatzea. Helburu hau lehen ere aipatu dudan subjektu politikoaren auziarekin lotuta dago: LGTB* politikak berrezaugarritzeari begira finkatzen den helburua dugu, barne mailako politikaren eta gizarteari egindako aldarrikapenen artean kokatzen dena. Liberalismoari aurre egiteaz hitz egiten denean hein handi batean LGTB* talde eta elkarteak dira proposamen horren hartzaileak, haiekin batera eraldatu nahi baita gizarteratzen diren aldarrikapen eta mezuen forma. Testigantza berriz ere eskubideen diskurtsoaren kontrako planteamendua azaltzen zaigu, edo behintzat aldarrikapen horiek estrategia eta lorpen bakar izatearen kontrako. LGTB* agenda agortu izana, argi eta garbi, taldeek izandako ikuspegiari egotzen zaio. Eskubideetan oinarrituriko ikuspegi liberalak bere muga jo duela esan daiteke, baina horrek ez du esan nahi ez dagoenik zer aldarrikatu. Gainera, beren agendan helburu estrategikoak ere badira, politika egiteko moduak eta mugimendua artikulatzeko formak aldatzeari begirakoak: *«lehentasuna koalizioak sortzea da. Elkarte asko daude, baina elkarrekin ez daude asko. Oso hitz gutxitan lehen nahi genuen «enseñarle a la gente que debemos vivir y que tenemos derechos» eta oraintxe bertan da gure artean ikustea «cómo tenemos ese vivir, ese crear»...»* [ELKB3]. Elkarrekin egin beharreko bide hori oinarritzko eskubideen aldarrikapenetik fase sortzaileago batera iragatea eta fase horretan komunitatea artikulatzea ezinbestekotzat jotzen dute. Hori egiteko taldeen arteko elkarlana giltzatzen dute, barnekoa eta kanpoko konektatu ditzakeen erdibideko espaziotzat.

Hasierako urteetan LGTB* politikek eraldaketarako zuten grina aipatu dute elkarte askok. Iraganari buruzko idealizazioak zeresanik izan dezake eztabaida honetan, eta baita arestian aipatu dudan erreferente gertukoak sortzeko zailtasunak ere. Stonewalleko gertakariak eta haren osteko mugimenduak hainbatetan aipatu dira elkarrizketetan, dena hankaz gora jartzeko borondatea zuten mugimenduen erakusgarri. Nostalgia maila ezberdinekin, talde

askok aipatu dute erreforma txikiak aldarrikatzeaz harago erabateko eraldaketa defendatzearen garrantzia eta, aldi berean, zailtasuna. Ipar gisara jarri dituzten helburuak handiak eta zailak direla onartzen dute, eta jakitun dira krisialdi garaietan ohikoa dela helburu zehatz eta egingarrietara jotzea, baina hain zuzen horregatik daukate beharrezkotzat helburu utopikoei eustea eta amesteko gaitasuna ez alboratzea.:

Mundua aldatzeko grina ez galdu. Baina kontziente izan. Gainera estatu espainolean oso azkar doaz aldaketak. Hori eta que los putos tíos se espabilen. Los de izquierdas. Ezkerreko aliantza posible horietan espabilatzeko behingoz que si el eje público... ematen ari diren eztabaida batzuekin. Es pa darles un txalo. Hori eta oso maskulinoa den rol bat: ikustea feminismoa como la parienta a la que culpo de mis problemas eta aldi berean ematen du ez naizela kapaza ni nire buruaren jabe egiteko eta posizio argiak hartzeko... [10 Kolektiboa - Talde transfeminista]

Talde honen esanetan, gaur egun artikulatzen ari den eta mundu osoan zabaltzen ari den erreakzio politikoaz kontziente izan behar dute mugimenduek. Eskuinera eta faxismora biratzen ari den panorama politikoaren aldaketa azkarra izaten ari dela uste dute, baina aldi berean erantzun posizioetara soilik mugatzearen arriskuak nabarmentzen dituzte: ez da mundua aldatzeko grina galdu behar, bestela gauzak okerrera egin ez dezaten egungo egoera mantentzea aski begitandu dakiguke. Mundua eraldatzeak proposamen sortzaileak eta ausartak egitea eskatzen du, eta horiek ez dira defentsa posizio hutsetatik etorriko.

Amaitzeko, talde honen testigantzak azken garaietan pil-pilean dagoen eztabaida batekiko kezka dakar mahai gainera, hain zuzen, ezkerreko posizio ortodoxoetatik LGTB* politiken eta politika feministen inguruan garatzen ari den kritikaren ingurukoa. Erdigunea berriz ekonomian jartzea proposatzen dute talde eta subjektu batzuek, beti ere ekonomia ikuspegi klasikotik ulertuz (esaterako, ekonomia feministak lan erreproduktiboaren inguruan eginiko analisiak alboratuz). Posizio horien ustez, politika LGTB* eta feminista gehienak ez dira aski, alde batetik, esparru sinbolikora mugatzen direlako ekonomia kontuan hartu gabe eta, bestetik, klaseen arteko aliantzak bultzatzen dituztelako, haien subjektua ez baita langile klaseko nortasunera mugatzen. Ikuspegi horren inguruko kezka hainbatetan azaldu dute elkarrizketatutako talde eta ekintzaileek. Kritika horren alderdi batzuk kontuan hartzearen garrantzia azpimarratu dute, beraien jardun eta errealitatearen irakurketan klasearen dimentsioa presente dagoelako. Baina askoren ustea da klase-borrokaaren egoera ahula feminismoari edo LGTB* politikei egozte irakurketa okerra dela, eta ardura falta erakusten duela ahultze horren benetako arrazoiekiko. Halaber, kritika horiek feminismoak planteatu dituen berrikuspen eta aldarrikapenei bizkarra emateko modu bezala ikus daitezke askotan. Baina elkarteok gehien arduratzen dituen gaur egungo egoeraren aurrean aliantza estrategikoak sortzerako orduan ikuspegi horrek sortu ditzakeen zailtasunak dira. Eta nolako aliantzak dira beharrezkoak? Elkarrizketatu gehienek ustez, zapalduen arteko aliantza estrategiko eta interseksionalak.

4.4.3 BIDE GURUTZEAK

Aktibista gehienek LGTB* subjektua sexualitate eta genero bizi-ortasunetara ez mugatzea aldarrikatu dute, beste zapalkuntza batzuekin batera eta haiengandik banatu gabe ulertu behar delako subjektu hori, azken hamarkadatan mugimendu feministak planteatu duenaren haritik. Ikuspegi hori aplikatzen ez denean jendearen errealitateetan eragiteko dugun gaitasuna mugatzen dela aipatzen dute:

Me sorprende mucho cuando veo cómo las instituciones fragmentan estas cosas, ver cómo me molaría que actuara el Gobierno Vasco ante la diversidad me parece que explica muchas cosas. Que Emakunde no trate el tema del lesbianismo, que eso esté relegado a Berdinu, que Berdinu no hable de racismo... No le veo ningún sentido. Me veo, me imagino como bollera gitana ante el gobierno diciendo, «y yo a qué puerta entro?». Está claro que tal y como está fragmentado no funciona. Qué pasa, que a mí me da mucho miedo que se abra una puerta gigante de «diversidad» y que nos perdamos... [04 Kolektiboa - Estatu mailako ekimen feminista-lesbikoa]

Gorpuzten ditugun genero, sexualitate eta klase jatorriarekin zerikusia duten eta egunerokoan bizi ditugun egoerek gure identitateetan zantzu sasi-iraunkorrak uzten dituzte. Zantzu horiek gure esperientziaren narrazio bilakatzen ditugu, eta ezin ditugu era argian konpartimentu itxietan banatu, izan ere, identifikatzen eta botere harremanetan posizionatzen gaituzten elementu horiek – klasea, generoa, sexualitatea, jatorria eta abar – aldi berean artikulatzen baitira. Hori dela-eta, oso espezifikoa diren klasifikazioak egiten direnean askotan ez dakigu zein ate ireki, bata aukeratuz gero beste batzuk alboratu beharrean gaudelako, eta hori ez letorke bat ez gure esperientzia eta arazoekin. Interbentzio forma orok, hortaz, kontuan hartu beharke lituzke unean uneko eta lekuan lekuko zapalkuntza indarrak eta orobat indar horiek ez direla besterik gabe pilatzen, errealitate espezifikoa sortzeko artikulatu baizik. Edonola ere, zapalkuntza ezberdinen arteko

artikulazioak ulertu eta berauei aurre egiteko mekanismoak jartzeko gai izan beharko luke instituzioak, zapalkuntza bakoitzaren espezifikotasuna alboratu gabe. Aktibista honek amaieran azaltzen digun beldurrak (“*a mí me da mucho miedo que se abra una puerta gigante de “diversidad” y que nos perdamos*”) lotura izan dezake ikuspegi interseksionala politika publikotara aplikatu zen unean estatu espainiarrean zegoen egoera ekonomikoarekin¹⁹⁹.

2008an estatuek bankuen erreskatea erraztearen ondorioz finantza krisia krisi ekonomiko bilakatu zenean, berdintasunera bideratutako aurrekontuetan murrizketa larriak izan ziren hainbat instituziotan. Usu, horrek politika eta departamendu ezberdinak bateratzea edo bateratzeko proposamenak egitea ekarri du eta horretarako aitzakia bezala erabili izan da interseksionalitatea: ezberdinkeria guztiak harremanean badaude, zergatik ez denei batera erreparatuko dien sail bakarra? Diskriminazioa ikuspegi (ustez) interseksionaletik lantzeko modu horrek politika espezifikoei zuzendutako diru eta baliabideak mugatzea ekarri du, eta proiektu batzuk bertan behera geratu dira. Elkarrizketatutako beste kide batek horren inguruan maila instituzionalean sortzen diren gatazkak ekarri dizkigu hizpidera, adieraziz LGTB* politikak emakume eta gizonen arteko berdintasun politiken zaku berean jartzeak kezka eta zalantzak sortzen dituela. Historikoki arreta eta aurrekontu apalak izan dituen sektoreak beldur dira beren egiteko eta eragiteko gaitasuna ez ote den mugatuko, kasu askotan horrela gertatu baita. Horrek bidea zailtzen du LGTB* politika instituzionalek beren lekua topatu dezaten, eta elkarlanerako bideak ireki daitezten.

Disoluzioaren eta kategoriak desagertzearen ingurukoa da ikerketan zehar agertzen den beste kezka handietako bat. Kategoriak indartu edo ahultzeko forma ezberdinak daude, eta atomizazioaren eta orokortzearen arteko tentsioan dago arazoa: zapalkuntzak larregi espezifikatzen direnean horietatik identitateak sortu eta egonkortu daitezke, eta hori arazotsutzat jo dute hainbat parte-hartzailek, atomizazioak subjektu eraginkorak sortzea zailtzen duelako. Aldi berean, subjektu oso zabalak sortzen direnean, hainbat errealitate irakurketatik kanpo uztea gerta daiteke. Kategoria bakarraren inguruan egindako irakurketa horiek konplexuago egitea izan da ekintzaile transfeminista hauen xedea:

199 Hurrengo paragrafoan azalduko dudan interseksionalitatearen eta politika publikoaren inguruko begirada oso azalekoa da. Gaiak sakontasun handia du eta zehaztasun gehiagorekin aztertuz gero beste interpretazio eta ñabardura ugari azaleratuko lirake. Espainiar estatuaren kasuan, interseksionalitatea oraindik hastapenetan dago maila teoriko eta, bereziki, aplikatuan, eta une honetan interseksionalitatea ezaugarritzeko eredu oso ezberdinek bat egiten dute politika publikoetan, analisi bateratua zailduz. Esaterako, lurralde beraren barruan instituzio ezberdinek edo instituzio berdinen sail ezberdinek begirada ezberdinak aplikatu ditzakete interseksionalitatea politika publikotara eramateko: eredu bateratua (ezberdinkeria faktore bakarra kontuan hartzen duena), eredu asimetrikoa (zeinetan ezberdinkeria aldagai bat erdigunean dagoen eta beste batzuk horren osagarri bezala ulertzen diren), eredu anizkoitza (zapalkuntza paraleloak) edo batuketazkoa (zapalkuntzak batu egiten direla ulertuz) (Cruells 2015:61). Cruellsen bakarkako lan honetaz gain, interseksionalitatea politikara eramateko modu ezberdinen inguruan ikus ere Coll-Planas eta Cruells (2013) eta McCall (2005).

Adibidez, abortua irakurri behar da beste gorputzaren kontrol formekin, eta abortuaz hitz egiten denean hitz egin behar da ere transexualitateaz, hitz egin behar da gorputzen aniztasunaz, eta gorputzen gaineko indarkeria medikoaz (...) konexio horiek egitea eta ez soilik subjektu batez hitz egitea (...) niretzat bada bazterren aldarrikapen horretan halako klak bat edo buelta bat ematea... badago beti ezkerrean zapalkuntza ardatzen inguruko eztabaida bat, eta ziur aski eztabaida hori etengabe eman beharko dugu ze ez dago definizio argirik behin betik... Ardatz horien inguruan eta subjektu anitz horiekin kanpoko edo gu hori definitzeko niretzat, bazterrak aldarrikatzea da trans ikuspegitik, edo bollerren ikuspegitik edo dibertsitate funtzionaletik buelta ematea eta zentroa bera izatea sistema osoa nola egituratzen den begiratzea (...) [10 Kolektiboa - Talde transfeminista]

Aldarrikapenak egiteko moduak zalantzan jartzen dira eta negoziazioa sortzen da finkatuta dauden aldarrikapen batzuen eta ikuspegi berrien artean. Begirada berriok bazterrean geratu diren beste subjektu batzuei arreta eskaintzea proposatzen dute, eta maiz erresistentziak ere sortu ditzakete mugimenduetan. Izan ere, mugimenduek lan handia egin behar izaten dute aldarrikapen bat ulertua, konpartitua eta babestua izan dadin, gizarteak darabiltzan irudikapen eta esanahiak aldatzea oso prozesu motela delako. Aldarrikapen bat berrikusi eta aldatzen denean, hark jasotzen duen babesaren ere aldatuko dela aurreikusi daiteke, eta hori atzerapauso bezala bizi daiteke maiz. Edonola ere, aktibista hauek beharrezkotzat jotzen dute begirada interseksional hauek integratzea. Integrazio hori etengabeko berrikuspen prozesu baten parte da, herri mugimenduek inklusibitate eta demokratizazio forma erradikalak entseatzeko dituzten prozesu baten parte. Gainera, ikuspegi estrategiko hori esperientzia aktibistetan oinarritzen dela aldarrikatzen dute, eta ez irudikapen teoriko edo akademiko batean. Horren erakusgarri, hainbat esperientzia dakartzate mahai gainera, tartean subjektuen arteko aliantza interesgarriak eragin zituen HIESaren kontrako aktibismoa:

Con la Pandemia del Sida los referentes que podíamos tener eran ACT-UP²⁰⁰, que me parece algo que debería estudiarse más porque es una de las formas políticas de respuesta más interesantes, ese tipo de alianzas que se daban... había una presión enorme porque nos moríamos, pero es cierto que ahora se está buscando este tipo de alianzas, se habla de interseccionalidad, y ahí se producían esas interseccionalidades. Conocimiento y respeto a diferentes cuerpos (...) Ahora están surgiendo nuevos paradigmas de entender la realidad, me refiero a todo eso del poscolonialismo, la racialización. Me parece interesantísimo porque es una ruptura epistemológica muy grande en lo que supone aventurarse a hacer política y creo que tenemos mucho por hacer, yo por lo menos he descubierto todo eso y entonces tener que cuestionarme mi privilegio racial, no sólo racial sino de pensamiento y de como construyo el mundo y cómo lo veo... Incluso que me incomoden, creo que hay que hablar de una gestión de la incomodidad que nos pueden producir estas cosas de que nos cuestionen los privilegios. Pero por otro lado veo que hay también una gran reacción en lo cual la cuestión LGTBI o la diversidad sexual puede ser una pata más de formas de integración y de exclusión de otras realidades. Entonces creo que todavía queda bastante por hacer que sigue siendo cuestionar las normas y la norma que tiene su base en un sistema capitalista. Entonces tenemos que estar ahí reforzando y reforzando alianza. Hay que buscar ahora mismo en qué puntos coincidimos, además yo hablaría de entrañabilidades, de ciertas carnalidades que nos pueden mover a juntarnos, buscar esos puntos que tenemos en común para que surjan nuevas directrices, nuevas líneas de fuga que hagan frente a lo que se nos viene encima. [02 Kolektiboa - Homofobiaren aurkako talde lokala]

Aktibista honek aliantza eta interseksioak espazio konpartituetatik eraikitzeke deia egiten du, eztabaidagai ezberdinak planteatuz. Alde batetik, ekintzailtza politikoan sor daitezkeen subjektuen arteko aliantzak aldarrikatzen ditu, elkarrekin biltzean eta esperientziak komunean jartzean sor daitezkeen entitate politiko forma anitzekoak. Bigarrenik, garbi uzten digu elementu horiek denak berrikustea ez dela lan erraza. Subjektu guztiek, herri mugimenduetan daudenean barne, besteek mahai gainera dakartzaten zapalkuntza horiekiko kokatu behar dute beren burua, eta kasu batzuetan horrek pribilegioaren inguruko hausnarketa dakar, eurak pribilegiadunak izan daitezkeela ohartzeari, transmisoginiaz aritzean

200 ACT-UP AEBetan sortu zen talde aktibista izan zen. 1987an New Yorken sortua, berehala zabaldu zen AEBetako beste hainbat hiritara zein Europara, bereziki ezaguna izan zelarik Parisko taldea. Beren helburua HIESaren kolpea jasan zuten talde ezberdinen arteko aliantza sortzea zen, ekintza ikusgarrien bidez osasun krisiaren gestioan zeuden utzikeria eta gehiegikeria salatuz, estatuen zein farmazia-industriaren aldetik. Espainiar estatuan haien ekintzailtza eta antolakuntza moduak erreferente izan ziren hainbat talderentzat, esaterako Madrileko *La Radical Gai* edo *LSD (Lesbianas Sin Duda)* taldeentzat, zein HIESaren aurkako talde edo batzorde hainbatentzat. ACT-UPen inguruan gehiago jakiteko (Gould 2009; Roth 2017) liburuak kontsultatu daitezke, besteak beste. Azken urteetan zinemara ere eramane dituzte talde honen ingurukoak, bai fikzioan. “120 battements per minute” (Robin Campillo, 2017) filmak fikzioaren bidez Parisko ACT-UPen abenturak biltzen ditu. “How to survive a plague” (David France, 2013) eta “United in Anger: a history of ACT-UP” (Jim Hubbard, 2012), aldiz, dokumentalak dira eta bereziki New Yorkeko tadearen inguruan aritzen dira. Bereziki gomendagarria da Hubbarden filma, ikuspegi aktibistatik oso gertu dagoelako.

aipatu dugun moduan. Horrek ezerosotasunak sortzen ditu aktibisten artean eta, kudeatu ezean, ezerosotasun horiek paradigma aldaketak gauzatzeko muga bilaka daitezke. Hirugarrenik, koiuntura politikoaren gaia azaleratzen du testigantzak, “*lo que se nos viene encima*” aipatzean: eskuineko politikaren gorakadak eta kapitalismoaren kondizioen gordintzeak aliantza berriak sortzeko beharra dakartela. “*Entrañabilidades*” hitza erabiliz, ekintzaile honek abiapuntu posible bat iradokitzen digu: bere ustetan aliantza horiek ez dira irakurketa arrazional eta teoriko hutsaren ondorio izan behar, eta ez dute mugimendu ezberdinen agendek beraien arten dituzten elkargune teorikoetan oinarritu behar²⁰¹. Subjektu horiek beren barnean, erraieran, topatu behar dituzte beraien arteko konexioak, horretarako esperientziak, edo esperientzia zatiak bederen, konpartituz. Konexio horiek, beraz, ohiko aliantza estrategikoak baino sakonagoak dira, baina ez halabeharrez iraunkorrakoak. Gorputzetatik igaro behar dira eta erronka handia dakarkie, gaur egun LGTB* politikei, izan ere, erraieratik abiatzen diren aliantzak sortzeko gai badira beren politikak askatzaileak izan daitezke, modu horretara egungo kapitalismoak egotzi nahi dien papera desafiatuz. Baina, konexioak elkartze strategikotzat onartuta ere, mugimenduek parean duten galdera hurrengoa da: nola eraiki konexio horietan oinarritzen diren ikuspegi estrategiko komunak?

201 Ana Cecilia González eta Jose Enrique Emak (2017:245) honen inguruan jarduten dute ere: “*No se trata tanto de reconocerse o de identificarse en un ideal político, como de encontrarse afectivamente implicado, es un proceso «en carne y hueso» porque finalmente es así como habitamos materialmente el mundo del lenguaje que nos constituye*”.

4.4.4 ESTRATEGIAK

Taldeek, gehienetan, badituzte unean unekotik harago doazen begiradak, lortu beharreko helburu zabalagoak edo urrunera begirako asmoak. Horiek garatzeko moduak pentsatu eta eztabaidatu behar dituzte, bide-orriak zehaztu, lehenesten dituzten borroka eta protesta tresnak hautatu. Talde bakoitzaren arabera, estrategia horiek hausnartuagoak ala inprobisatuagoak izan ohi dira eta maiz iraganetik oinordetzan hartuak ere bai. Atal honetan elkarrizketetan eztabaida handiena sortu duten hiru estrategien inguruan arituko naiz, berauen inguruan sortzen diren korapilo batzuk aurkeztu nahian: ikusgaitasuna, indarkeriaren kontzeptualizazioa eta sare sozial digitalen erabilera.

Ikusgaitasuna askotariko gaien harira agertu da elkarrizketetan. Esaterako, elkarrizketatu batek bere aktibismoa definitzean zera dio: *“Nik uste aktibismoa dela taldean egiten dena baina baita ere norbanakoan, adibidez lagunekin, familiarekin (...) egiten duzu bisibilizazioa. Bisibilizazioa da gure estrategia estrella, edo estrategia transbersala, exponentziala. Orduan bai, ezinezkoa da ez egitea”* [07 Kolektiboa - LGTB+ taldea]. Lehenago ere aipatu dugu, aktibista askok oso gertuko eta ekidinezin sentitzen dituzte LGTB* aktibismoa eta hark egunerokoan sortzen dituen une mikropolitikoak. Bere burua sendotu nahi duen politikak subjektu ikusgarriak behar ditu, eta ikusgaitasun hori ezinbesteko arma izan da LGTB* politikentzat.

Estrategia politiko *izarra* izan den ikusgaitasunak, ordea, zalantzak sortzen dizkie haren zentraltasuna kuestionatzen duten beste ekintzaile batzuei. Elkarrizketatuetako batzuek belaunaldien arteko talka bezala interpretatu dituzte ikusgaitasunaren strategiaren inguruko iritzi ezberdinok, mugimenduaren lehen belaunaldiei ikusgaitasunaren inguruko euforia egotziz eta aktibista berriei estrategia horren inguruko berrikuspen kritikoa²⁰². Parte-hartzaileen artean, aktibista berriek – eta gazteenek –, ikusgaitasuna guztiz zalantzan jarri gabe, estrategia horren alderdi guztiak kontuan hartzearen beharra azpimarratzen dute:

(...) jende helduagoarekin topatu garenean eta bisibilitate horren inguruan hitz egin digutenean beti hitz egin digute «hay que salir del armario»... kontuan hartu gabe norbanako ezberdinak garela, oso egoera ezberdinak daudela eta pertsona batentzat armariotik ateratzea eta beste batentzat ez dela berdina. Nik uste dut helduagoen artean beti dela hori, «sí visibilidad, sí como sea...» oso ulergarria da, baina agian beste gauza batzuk ikusi behar dira, zer irabazten duzun, zer galtzen duzun, nor ateratzen den, zein den pertsona horren egoera... agian kontraproduktiboa da edo beste baliabide batzuk daude. [05 Kolektiboa - Transmaribollo talde lokala]

Ekintzailetza eta sakrifizioa ulertzeko forma ezberdinak ere egon daitezke testigantza honek azaltzen duen korapiloaren atzean. Pentsatzekoa da armairutik ateratzearen politika erdigunean jartzeak ondorio ezberdinak izango zituela subjektuen arabera beste garai batzuetan ere, baina hala ere ez zen alboratu. Baina itaundu beharra dago estrategia hori erdigunean jartzeak nolako eraginak izan dituen LGTB* errepresentazioen baitan gertatu diren baztertze eta gune itsuen aferan. Mugimenduak beren burua era ikusgarrian azaltzen duten subjektuak bilatu ditu etengabe, eta erreferentzialtasuna horien inguruan lortzeko ahalegina egin duenez, ikusgaitasun politiken eta eredu jakin horien artean harreman estua dagoela esan genezake. Kontuan hartzekoa da armairutik ateratzean sortzen den ikusgaitasun estrategia norbanakotik abiatu behar dela halabeharrez, norberak egiten duen zerbait dela²⁰³. Galdetzea dago, beraz, nork duen indarra edo aukera ekintza pertsonal hori egiteko. Subjektu batzuek erraztasun gehiago dituzte, edo gutxienez baldintza aldekoagoak. Egoera ekonomikoak, hiritartasun eskubideak, pertinentzia kulturalak, familia-egoerak eta abarrek eragina dute horretan. Kasu batzuetan subjektuek beren pribilegioak mantentzeko xedez

202 Luisa Passerini (2006), mugimendu feministan gertatu den belaunaldien arteko transmisioa eta gatazkak aztertuz, honako proposamen interesgarria dakarkigu: “*el problema ¿es} si es posible o no transmitir un mensaje que no sea ni autoritario ni autorizado, sino más bien, que quede en suspenso, incompleto, opuesto a un mensaje de veterana o de superviviente, no del estilo de: «tú que no has vivido esta experiencia no la puedes entender si no me escuchas», sino del estilo de: «ni yo misma consigo comprender del todo mi experiencia si tú no la escuchas y propones una interpretación»* (Passerini 1991a, Passerini 2006:60n zitatu). Bere ikuspegia oso baliagarria izan daiteke herri mugimenduetan belaunaldien arteko harremanak kritikoki aztertzeko, memoria eta historiaren ikuspegitik mugimenduei zentzua ematen dieten narrazioak komunean nola eraikitzen diren pentsatuz.

sexualitatea ezkututzen dute. Adibide kuriooa da eliteko kirolarena, non ia ezinezkoa den homosexualitatea agerian bizi duen gizonik aurkitzea, oso egoera ikusgarrietan dauden pertsonok jakin badakitelako beren maskulinitatea zalantzan jar dezakeen deklarazio horrek ordura arte lortutako prestigioan eragin dezakeela. Baina kasu gehienetan zapalkuntza egoerek zailtzen dute irekitasun hori; esaterako lan egoera prekarioan dauden trans* pertsona askok ahalegin berezia egin behar dute inork ez dezan jakin trans* direla. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar nortasun kategoria batekin identifikatzea konplexua dela subjektu guztientzat.

ikusgaitasuna LGTB* mugimendu gehienek erabili dute estrategia kolektibo bezala, baina bereziki proiektio mediatiko eta instituzionala izan duten mugimenduen kasuan, estrategia horren bidez sortu den erreferentzialtasuna mugatua izan da: gizon gay, zuri, osasuntsu, dirudun eta errespetagarriaren figura. Ez da erreferentzia anitzik sortu eta horrek bi efektu eragin ditu: alde batetik LGTB* jende asko ezin izan da erreferentziokin identifikatu eta, bestetik, LGTB* pertsonen arazo eta zailtasunen inguruko pertzepzio soziala talde zehatz eta pribilegiatu horren arazo eta zailtasunetara mugatu da.

Ekintzaile batzuek estrategia hori berrezaugarritu eta ikusgaitasuna beste elementu batzuekin harremanean ulertzearen premia nabarmentzen dute. Aipatzen dute ikusgaitasuna gehiago txalotzen dela LGTB* komunitateen barruan pribilegiatuak direnak protagonista dituen eta horrek beste elementu batzuk are gehiago ezkutatzeko ekarri dezakeela:

Ikusgarritasunak ematen digu boterea baina aldi berean ospatu da ikusgarritasuna heteronormatik gertuago dauden identitateen kasuan, baina subertsiboak gehiago subertsibizatu dira. Kontuz ibili behar gara ze ikusgarritasuna eskatzen dugunean segurtasuna eskatu behar dugu ere. Ezin diogu ikusgarritasuna eskatu jendeari eta gero ez egon hor jipoitzen dituztenean. Eta pentsatu behar da ikusgarritasuna nondik sortzen den: kapitalismoak sortzen badu eta bereganatzen badu, horrelako ikusgarritasuna nahi dugu? [03 Kolektiboa - EAE mailako LGTB taldea]

203 Bere garaian, eztabaida handia sortu zuen "outing"-ak, estrategia politiko bezala. Outingak beste pertsona batzuk armairutik ateratzea zekarren, bereziki pertsona horiek beren sexualitatea ezkutatzeko jarrera publiko kontserbadoreak erabiltzen bazituzten. Askotan outinga jasaten zutenak eskuineko politikariak edo elizarekin lotura zuten pertsonak ziren baina baita bizitza bikoitza zeramaten famatuak ere, Rock Hudson aktorearen kasuan esaterako. HIESak jota hil zenean eztabaida sortu zuen bere betiko homosexualitateaz (edo, behintzat bisexualitateaz) publikoki jarduteak. Paragrafo hauetan outinga albo utziko dut armairutik ateratzea estrategia boluntario bezala aztertzeke.

Bestalde, ikusgaitasunak eragin ditzakeen efektu askotarikoak aztertzeraz garrantzitsuak aktibista hauen testigantzek. Horren harira, kapitalismoak, identitateen merkatuaren estrategiaren baitan ikusgaitasun horiek bere probetxurako nola erabiltzen dituen aztertu beharko genuke, izan ere, merkatuaren esparrura eraldaketak dakartzate erreferentzialtasun horiek. Hala, talde eta pertsona espezifikoari zuzendutako zerbitzu eta produktuak sortzen dira, eta ildo horretatik, identitate batzuen moldekatzea azken hamarkadetakoko kapitalismoaren jardueraren emaitza bezala ere uler daiteke. Halaber, ezin gara inuzenteak izan eta ezin dugu pentsatu ikusgaitasunak beti ondorio positiboak dituela. Kasu batzuetan zaugarritasuna larriagotzen duten prozesuak eragin ditzake eta halakoetan taldeek hor egon behar dute ondorio horiek bizi dituztenak babesteko ere:

Guk ez dugu inoiz aldarrikatu bakarrik ikusgarritasuna (...) Ikusgarritasuna ikusten dut baita ere arma bat garrantzitsua, izateko eta beste errealitate batzuk erdigunean jartzeko, baina oso kontziente izan behar gara bulnerezarekin. Eske bakarrik ikusgarri izatea, edozein peajekin... biolentziarekin... ez da bere horretan... [10 Kolektiboa - Talde transfeminista]

Ikusgaitasunak dakartzan bidesariak askok aipatu dituzte, eta agerian utzi dute askotarikoak direla bidesariok ere. Dagoeneko aipatu dut ikusgarri diren pertsona edo taldeek bereganatu dezaketen boterearen auzia. Horrez gain, etengabeko ikusgaitasunak kategoria horretara murriztarazi ditzake aktibistak, eta aldarrikapen batzuk beraien kontu bezala ulertzea ere eragin dezake: *“te hacía que ya eras como un referente, ya te constituía.. que te mosqueabas también, porque era «lo tuyo, lo tuyo» bueno, lo mío es de todo el mundo”* [02 Kolektiboa - Homofobiaren aurkako talde lokala]. Azkenik, esposizio maila horrek hainbat erreakzio eragin ditzake, horietako zenbait indarkeria maila askotarikoekin lotuak. *“Bidesari”* horien jasagarritasuna aktibista batzuek anonimotasunarekin lotzen dute: ez da gauza bera ikusgarria izatea hirian edo herri txikian. Esaterako, soldatapeko lanaren eremua eta norbere bizitza soziala askoz era zuzenagoan konektaturik egon daitezke herrietan, eta horrek badu ondorioak:

(...) ikusgarri egiten duzunean, esan dezagun sexualitatearekin, eta izaten ari zarenean makarragoa edo agerikoagoa, hori bereziki herrian, badaudela peaje gogorak, zure bila joatea, edo jipoi bat, edo lana galtzea, baina bestea ere paternalismoa: tipo «cuidate, por qué haces esto...» (...) el tema de la loca. Nik uste dut hori ere aldarrikatu dugula: zuei normala iruditzen zaizkizuen gauza horiek indarkeria maila oso altua dute. Orduan, niri ere paternalismo horrek amorrua sortzen dit (...) tu puta complacencia. [10 Kolektiboa - Talde transfeminista]

Indarkeria zuzenaz gain paternalismoa ere aipatzen du herri txiki batean bizi den ekintzaile honek, eta baita nola normaltasuna hausteak besteen epaia artikulatzen duen ere. Indarkeriaren gaia behin baino gehiagotan agertu da elkarrizketetan ikusgaitasunarekin lotuta. Eta, hari horretatik tira eginaz galde liteke ikusgaitasuna *aukeratutako* estrategia ote den LGTB* komunitateko kide guztientzat. Aukera al dute kide guztiek hautatzeko noiz eta non izan ikusgarri? Ondorioz, posible ote dute denek bidesari horiek aurreikustea eta horiek ordaintzeko prestatuta egotea, halakorik posible bada behintzat?

(...) fui al Europride de Madrid hace dos años. Yo soy una persona no-binaria que puede salir a la calle tanto con un pantalón como con un vestido y unos tacones, y no es tampoco... no lo planteo como decirle nada al mundo, sino como una experiencia estética subjetiva de género... y recuerdo que aquel fin de semana en el Pride recibí más violencia que un fin de semana cualquiera aquí... No era un espacio seguro, todo lo contrario... [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]

Aktibista honentzat bere genero nortasuna, ez-bitarra izatea, bere esperientzia estetikoak ikusgarri egiten du, baina berak ez ditu elementu horiek halabeharrez *“munduari zerbait esateko”* tresna gisa bizi. Alegia, estetika hori bere aktibismoa izateaz gain bere izaeraren aspektu intimo bat ere bada. Politizaturiko esperientziaren mugak oso era lausoan agertzen dira hemen. Alde batetik, genero espresio forma batzuk borroka tresna bezala ulertzen dituen mugimendu bateko kidea da; bestalde, estetika hori ezin da murriztu politika egiteko erabaki kontziente batera, bere izaeraren parte bezala ulertzen duelako edo, hobe esanda, bere espazio intimoan gertatzen den esperientzia eta esperientzia gisa.

Aldi berean, LGTB* komunitatearen espazio barruan gertatzen den indarkeriaren berri ere ematen digu aipuak. Gay gizonek dominaturiko espazio komertzial horretan, “Europride”-ean, sortzen den bere kontrako erreakzioa LGTB* espazioetatik kanpoko eremuetan jasotzen duena baino gogorrago bizi du ekintzaile honek. Horretarako arrazoiak asko izan daitezke: bertako jai giroan daudenen normatibotasun partikularraren begirada normatiboak; gizon homosexual askok beren maskulinitatea indartu eta berreskuratzeko asmoz haragitzen dituzten jarrera transmisogino eta matxistak; edota indarkeria maila baxuagoa espero zitekeen lekuetan jasotako biolentziak sortzen duen samin bikoitza. Baina indarkeria, bere intentsitate maila anitzetan, presente dago aktibista hauen bizitzetan eta, esan bezala, minak sortzen ditu:

Nik jasaten dut, nahiz eta biolentzia fisikoa ez izan, jasaten dut egunerokoan biolentzia bat. Eta kalera ateratzea... lanera ateratzea... edo etxean egotea gurasoekin bizi bazara... Ez da berdina, baina bururatzen zait guk, kolektibo bezala, indarra erabiltzea ez zaigu utzi edo gaizki zegoen... eta gure aldetik, nahiz eta beste biolentzia modu bat izango den baina bai erabili behar dugu. Parte hartu behar dugu agian ez eraso horietan, edo bai, baina baita ere biolentzia erabiliz edo jakinda biolentzia erabili dezakegula. Gure imaginarioan beti dago «una panda de heteruzos pegando a un marica que se queda quieto porque no sabe pegar, o porque cree que no puede pegar»... pues bueno... edo ixilik geratzea... [05 Kolektiboa - Transmaribollo talde lokala]

Indarkeria horren aurrean egin daitekeenari buruzko eztabaida irekitzen da hemen. Egunerokoan bizi den oldarrari erantzun ahal izateko estrategia indibidual eta kolektiboak martxan jartzea mugimendu askoren kezka izan da. Mugimendu feministan bezala, LGTB* politketan ere afera honek baditu berezitasunak. Iruditegi sozialean indarkeria maskulinitatearen monopoliotzat jo da eta emakumeei bere erabilera mugatu zaie, eta gogor zigortuak izan dira baliatu dutenean. Indarkeriaren erabilera legala egiten duten instituzioek ere, armadak edo poliziak kasu, sarbidea mugatu diete emakumeei duela oso gutxira arte (1979 poliziaren kasuan, 1988 armadan). Gizon homosexualak ere, feminizatuak izan diren heinean, indarkeriatik libre zegoen iruditegi horretan kokatu dira: jipoia jasotzen zutenak ziren, asko jota erantzuteko “emakumeen armak” erabiltzen zituzten subjektuak, baina inoiz ez indarkeriaz baliatzen zirenak. Eztabaida oso konplexua da. Feminismoaren baitan ikuspegi batzuek indarkeria sinbolikoki eta materialki maskulinitatearen botere posizioari egozten diote eta, beraz, baztergarritzat jotzen dute, kontrol mekanismo eta zapalkuntza tresna den heinean²⁰⁴. Ekintzaile marika honek banaketa kontzeptual hori bere bizipenean nola gorpuztu duen kontatzen digu:

204 Mugimendu feministaren baitan indarkeriaren erabileraren inguruan egon diren eztabaidak hemen azaltzea oso luzea izango litzateke eta gauza asko kanpoan uzteko arriskua egongo litzateke. Adibide bezala, indarkeria matxisten aurkako gaueko manifestazioen inguruan, eta berauek irudikatzen zuten estetikaren inguruan eztabaida bizia egon zen sare sozial eta asanbladatan, “el miedo va a cambiar de bando” lemaren kariatara. Ikus Maitena Monroyk idatzitako artikulua <https://labur.eus/zZ3eg> eta Begoña Zabalarena <https://labur.eus/QF2cR> (Biak 2019ko urriak 26an kontsultatuak). Indarkeriaren erabileraren inguruan kontsultatu daitezke ere Arrate Gutierrez Gomez (2017), Medeaken planteamendua indarkeria performatiboaren inguruan (<https://labur.eus/41fDi>, 2020ko ekainaren 18an kontsultatua) edo “*Transfeminismos. Epistemes, fricciones y flujos*” liburuan (Solà eta Urko 2013) duten kapitulua. Halaber, Rote Zora talde feminista alemaniarraren idatzi eta komunikatuak biltzen dituen liburua kontsultatu daitezke (Ezezaguna 2012).

Nunca me he pegado con nadie y creo que nunca me pegaría. A mí la masculinidad me ha sido impuesta, y con la masculinidad el mandato de ser violento y defenderme con violencia. No estoy deslegitimando la violencia, en absoluto, pero a mí la violencia, el hecho de tener que pegar a alguien, me genera disforia. Porque ha sido un mandato para mí: «defiendete». En el momento del acoso: pega. «Le tenías que haber partido la cara». Pues a mí no me salía partírla la cara y no quería partírla la cara. Pero Stonewall era una revuelta callejera, se lanzaron botellas y ladrillos, pero las lanzaron las travestis, que no es lo mismo que tíos encapuchados... No es el mismo tipo de violencia. ¿Mi respuesta a todo esto? Más Vogue, amigas. El Vogue es un discurso político de la violencia y de la ocupación del espacio público super interesante, porque son nuevas formas de agresividad o de marcar territorio... Para marcar tu territorio generas tus propias dinámicas, las casas de Vogue tenían claro que se podía reivindicar tu espacio con el apellido de Yves Saint Laurent, o de Versace, y mi revolución va más por ahí (...) para mí ir con un tacón por la calle es más efectivo que gritarle a alguien, y es violento, porque genera una disrupción total, en plan “esto no se puede”. [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]

Elkarrizketa hau abiatu zuen komentarioa Stonewalleko errebolta ingurukoa izan zen. Elkarrizketatuari bere iritzia eskatu nion nire ustez eztabaidagarria den elementu baten inguruan. Arazotsua dela uste dut azkenaldian sexu askapenaren inguruko mugimendu batzuek, eta baita sexu askapenaren inguruan espezifikoki lan egiten ez duten mugimendu batzuek ere, Stonewalleko gertaerak nola irudikatu dituzten eta, beraz, haien ikuspegitik nola berrezaugarritzen dituzten. Stonewall errebolta izan zela aldarrikatzen da, matxinada bat, eta bere indargune nagusizat hartzen da bertan poliziarekin izandako konfrontazioa. Elementu horiek azpimarratzea normalizazioa eta instituzionalizazioa desafiitzen dituen mugimendu bat aldarrikatzeko modua izan daiteke, bere espiritu askatzaileari balioa aitortzea. Aldi berean, Stonewalleko errebolta gainean egin diren irakurketa ugari borroka subjektuen inguruko eztabaida pizten dute, hurrengo hamarkadetan gizonezko gay zurien hegemonia pairatu zuten LGTB* politiken hasiera izan zen unea kritikoki aztertuz. Taberna hartan zeuden asko trans* emakumeak ziren, haietako gehienak langile klasekoak eta asko eta asko jatorriz latinoak eta immigranteak. Subjektu guzti horiek izan ziren errebolta hasi zutenak eta ondoren haien mugimendua beste subjektu batzuen eskuetan geratu zela ikusi zuten²⁰⁵.

Stonewallen inguruan dagoen dokumentaziora eta ahozko iturrietara joz gero zaila da kontakizun koherentea eraikitzea. Batzuek diote lehen harria emakume trans beltz batek bota zuela. Beste batzuek lesbiana butch bat izan zela. Auskalo. Historia horiek interesgarriak diren arren, eta memoria hori berreskuratzea ezinbestekoa, arduratzen nauena da sinbolikoki Stonewallek izan dezakeen indarra nondik datorkion. Zergatik sortzen da horrenbeste

205 Reapropiazio honek sortutako haserrearen inguruan ikus Rivera eta Johnson (2015).

eztabaida *lehen harria* nork bota zuen jakiteko eta ez, esaterako, lehen elkar-laguntza taldea nork sortu zuen jakiteko? Zergatik hartu du protagonismoa poliziarekin izandako liskar horrek (ordu batzuk baino iraun ez zituenak) eta ez, esaterako, une horretan bertan ia-ia era klandestinoan funtzionatzen zuten trans* edo lesbianen arteko babes sareek? Nire susmoa da herri mugimenduen iruditegian, hala nola gizarteak gertakari historikoez duen iruditegian, indarkeriak leku pribilegiatua duela. Indarkeria eta odola dagoenean aldatzen dira gauzak benetan. Galdetu beharko genioke geure buruari nor den, oro har, indarkeria horren subjektu eta noren lana geratzen den ezkutuan epika heroiko hori guztia martxan jar dadin.

Elkarrizketatuak ondo azaltzen digun bezala, harri eta adreiluak botatzen dituztenak trabestiak direnean ezin dugu analitikoki indarkeria hori beste indarkeria forma batzuekin parekatu. Baina horrek ez du esan nahi ezin dugunik aztertu zergatik hartzen den gure mugimenduaren fundazio unetzat denbora-tarte oso mugatu batean gertaturiko indarkeria defentsibo edo autodefentsa gertaera bat. Mugimenduak egin dituen gauza guztien artetik hori aukeratu dugu guk, eta baita historialariek ere, hasiera-unea markatzeko. Iruditegi horiek eraldatzeko deia egiten du aktibista honek, indarkeriaren hainbat alderdi kontuan hartuz.

Hasteko, bere esperientzia pertsonalean indarkeriaren erabilera defentsiboak sortu dizkion bizipen kontraerriak dakartza solasera. Eskolan eta beste gune batzuetan bizitako jazarpenak eta indarkeriak bere gaztetako esperientzian presentzia handia izan zuela kontatu dit. Bere genero adierazpena eta nortasun ez-bitarra medio, indarkeria jarraitua bizi izan zuen, eta hain zuzen ere indarkeria defentsiboa bere arazoa konpontzeko eta bere posizioa berrezartzeko forma gisa ikusarazten zioten ingurukoek maiz. Bizi zuen jazarpena nahikoa gizon ez izatearen ondorioa zen, alegia, bere mugitzeko, hitz egiteko eta harremantzeko moduetan gizentasunaren estandarrak ez betetzearena. Egoera horretan indarkeriaz erantzutea lan bikoitza zen: alde batetik, eraso zehatzak gelditzea eta erasotzaileei freno jartzea esan nahi zuen baina, bestalde, indarkeria erabiltzea gizon bezala jokatzeko zen, eta horrek maskulinitatearen konstelazioan bere lekua berrezartzea zekarren. Mugimendu zirkular horren bidez ez zen soilik bere kontrako indarkeria ekiditen; horrekin batera indarkeriaren eragile zen aspektu *okerra* zuzendu ere egiten zen. Ondorioz, defentsarako indarkeria estrategia nagusitzat planteatzeak normalizazio dispositibo bilakatzen du biolentzia hori.

Horren aurrean, aktibista honek zirkuitu itxi hori hautsiko duen proposamena dakar. Voguearen inguruko bere proposamena zehatza eta mugatua den arren esango nuke iradokizun zabalagoa ere egiten digula LGTB* mugimenduaren ekintza-formak eta estrategiak berrezaugarritzeari begira, indarkeriaren irakurketa sinplista edo bakezale “naif”a egin gabe, eta mugimenduaren jatorriaren eta ezaugarrien arrastoak jasoz.

Estrategien gaiarekin amaitzeko, sare sozial digitalen erabilera aipatu nahi nuke, laburki bada ere. Aktibismo politikoaren esparruan sare sozialei erabilera posible ezberdinak aitortzen zaizkio. Ekintzaile batzuk optimistak dira eskaintzen dituzten abantailen aurrean eta beste batzuek, aitzitik, ekidin ezin diren espazio bezala baino ez dituzte ikusten: jarduera handia duten espazioak dira eta jendeak komunikatzeko erabiltzen dituen mugimendu

bezala hor egon beharra dago, nahiz eta ez gustatu. Oro har, elkarrizketatutako gehienek bigarren iritzi hori adierazi dute. Gehienek onartzen dute ez direla oso abilak sareen erabileran. Facebook kontuak dituzte kolektiboentzako eta, kasu batzuetan, kontu pertsonalak ere bai. Haietako batzuk, gazteenak batik bat, Twitterren daude, eta gutxi batzuk Instagramen. Bestelako sarerik ez dute aipatu.

Interneten eragina sare sozial zehatzetan jardueren berri zabaltzeko egiten den erabilera baino handiagoa dela onartzen dute parte-hartzaile gehienek. Internetek eta sare sozialek ez digute soilik informazioa helarazten, gure egoteko formak, harremanak egitekoak, komunikatzekoak eta gure buruak ulertu eta kokatzekoak ere eraldatzen dituzte. Esaterako, aktibista gazteenei galdetu diedanean beren LGTB* erreferenteak zeintzuk diren, maila teoriko zein praktikoan, mundu osoko erreferenteak aipatu dituzte. Sare sozial digitalen kulturak erabat eraldatu ditu LGTB* komunitateak, izan erreferente politikoak sortzerako orduan, izan beren egoera antzekoetan zeuden beste pertsona batzuen esperientziak ezagutzerakoan.

Las feministas, y las bolleras, y las disidencias y los márgenes, hemos hecho un salto a internet brutal, hemos encontrado en internet unos espacios de resistencia que en la calle eran más peligrosos, porque siempre ha habido espacios de resistencia en el mundo real... bueno, real, en el offline, porque para mí son reales los dos. Siempre hemos buscado espacios para resistir, pero los de la calle física, siempre han sido también espacios peligrosos, peligros que no había en internet. [04 Kolektiboa - Estatu mailako ekimen feminista-lesbikoa]

Testigantza honek diagnostikoaren konplexutasuna adierazten digu. Aktibista honen aburuz internet segurtasun espazio bat izan da, potentzialki behintzat. Kanean ere erresistentzia espazioak egon direla gogoratzen du, baina espazio horiek errealitate LGTB*foboarekiko negoziazioan egon dira beti, eta arrisku espazio ere izan dira. Internetek anonimotasun espazioa eskaini die LGTB* pertsona askori, eta horrek halako lasaitasuna eskaintzen du, nahiz eta askatasun hori ez den erabatekoa, eta askok interneten inguruan sortzen diren mitoei egozten dieten:

Sare sozialek sortzen dituzte espejismoak ere. Ematen duela feministek botere handia dutela, badakizu? Ez. Igual zaude leku batean bisibilizaziorako edo ahotsa hartzeko aukera dagoela, kendu ahal dizutena bere koste eta peaje guztiekin, baina gero ikusi behar da beste eremu batzuetan ze botere eta harreman daukazun... Sortzen ditu zera efimero eta espejismo batzuk ere bai. [10 Kolektiboa - Talde transfeminista]

Bi testigantzak bat datoz: ezin da internet aparteko errealitate bezala ulertu eta interpretatu. Errealitate sozialaren beste esferekin dituen harremanean kokatu behar da sare digitaletan gertatzen dena, bata errealizat eta bestea birtualizat jo gabe. Biak ala biak dira jendearen bizitzan agertokiak eta bietan jazotzen dira bizitza horietan eragina duten gertakariak. Bigarren testigantzak, alabaina, internetek iruditegi efimero eta faltsuak sortzeko duen gaitasuna dakarkigu gogora. Errepresentazio-espazio zehatz horretan subjektu batek, subjektu feministak esaterako, izan dezakeen presentzia gaizki interpretatzea erraza da. Horri gehitu behar zaio gehienetan sare sozialek nodo homogeneoak sortzeko duten joera: gure inguruan dauden pertsonak anitzak direla uste dugu, baina sakonean afinitate maila altua dugu haiekin hainbat alderditan²⁰⁶. Aniztasunaren ameskeriak gizartean gertatzen denaren irudikapen okerra egitera garamatza, afinitate algoritmoen bidez iragazitako sare sozialen panorama gizartearen ispilutzat jotzen dugulako. Horregatik ekainaren 28a gerturatu eta gure inguruan jendeak bere *Whatsapp*, *Facebook*, *Twitter* edo *Instagram*eko kontuetan ortzadarra jartzen duenean, sexu askapenarekin oso sentsibilizatua dagoen inguruneetan gaudela sinets dezakegu. Amaitzeko, sare sozialetan dugun ikusgaitasunak ere indarkeria sor dezake gure kontra, sare digitaletan bertan edo haietatik kanpo gauza daitekeena.

206 Natalie Fenton ikerlariak honela azaltzen du: *“La evidencia empírica señala que casi todos utilizamos Internet para fines de entretenimiento. Aquellas personas que lo utilizan principalmente para fines políticos o informativos pertenecen a grupos muy concretos de la clase media y altamente educada. Así, lejos de aumentar la participación política de todos, Internet crea guetos políticos de los que ya están bien informados; afianza las desigualdades que existen offline”* (<https://labur.eus/lb09f>, 2020-04-10ean kontsultatua). Bere ikuspegia hobe ulertzeko, ikus (Fenton eta Freedman 2017).

Sare sozial digitalek harremanak egiteko gure formak eraldatu dituztela diogunean ez gara soilik ligatzeko aplikazioez ari. Sareetan politika egiteko ohitura zabaldu da azken urteotan, dela gai ezberdinen inguruan eztabaidatuz, dela informazio eta deialdiak zabalduz. Hainbat aktibistak, ordea, sare digitalak eztabaidarako gune egokia ez direla adierazi dute²⁰⁷. Gogoan hartzekoa da sareetan sortzen den berdinen arteko multzokatzea korporazioek tentuz diseinaturiko estrategien ondorio dela, erabiltzaileak multzokatu eta datuak saltzeko, “target” zehatzei zuzendutako iragarkiak jarri nahi dituzten enpresei, esaterako²⁰⁸. Sareen konfigurazio horiek eztabaidatzeko forma konkretuak sortzen dituzte, eta alde handia dago beste espazio batzuetan egiten diren eztabaidekin alderatzen baditugu:

La mía es la primera generación que no utiliza twitter como un espacio de ampliación o contacto con otros movimientos sociales, sino que hacen lo que ellos conciben como su activismo social a través de twitter y eso genera que las dinámicas propias del movimiento feminista y LGTB que me parecen preciosas, la sororidad, la escucha, el asamblearismo... no existan. [01 Kolektiboa - Talde marika lokala]

Herri mugimenduak eztabaida handiko guneak izan dira beti, eta maiz aurkitzen dira haietan elkarren kontra dauden iritziak, etsaitasunak, haserreak eta baita dinamika toxikoak ere. Taldeak haustea edo bitan banatzea tipikoa da eta *frentismoa* ohikoa. Baina herri mugimenduek badituzte tresnak barne mailako zein taldeen arteko ezberdintasun eta enfrentamendu horiek era kolektiboan lantzeko ere, eztabaidak ordenatuz eta elkarren arteko errespetuan oinarritutako debateak bultzatzen saiatuz, nahiz eta ahalegin guztiek ez duten arrakasta maila berdina lortzen. Aktibista marika honen ustez mugimendu feministan oso aberasgarriak diren dinamika horiek sare sozialetan desagertu egiten dira eta eztabaida harro eta oldarkor bilakatzen da. Are gehiago, sare digitaletan elikatutako joera horiek beste espazio batzuetara salto egin izan dutela uste du eta, noiz edo noiz, bilera batean “*twitterreko*

207 2019ko azaroaren hasieran ospatu ziren Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministen kariatara, kezka berdina azaldu du Andrea Momotio kazetari eta aktibistak, sexu-lanaren inguruan Durangon egondako eztabaidak sare sozialetan izandako isla aztertuz (<https://labur.eus/rMxWc>, 2019ko azaroaren 15ean kontsultatua). Aldi berean, lagungarriak zaizkit hemen Joxemi Zumalabe Fundazioaren kultura politiko lantaldean egin ditugun hainbat hausnarketa, sare digitalen erabilerak hainbat eztabaidaren polarizazioa sortu eta mugimenduen funtzionamenduak zailtzeko dituzten moduen inguruan. Sareek mugimenduei asko eskaintzen diete baina aldi berean hain barne eta kanpo funtzionamenduan arazotsutat jo ditzakegun hainbat efektu dituzte.

208 Sare sozial digitalen datuak biltzeko asmoa kapitalismoaren azken eraldaketen baitan kokatu beharra dago. Ez dira sare sozial digitalak datuak sortu eta hirugarrenei saltzea estrategia komertziala duten bakarrak. Azken hamarkadan, datuak sortu ditzaketen ekinbide ekonomikoak nagusitzen ari dira bai maila industrialean, bai eta zerbitzuetan. Sozializatorako sare digitalak tendentzia horren parte eta, kasu batzuetan, abangoardia dira, baina haien egitekoa transformazio zabalagoan kokatu behar da. Horren inguruan analisi nahiko xehatua kontsultatu daiteke hemen: Smicek (2018).

eztabaida batean bezala” sentitu izana aipatzen du. Beste aktibista batzuek interneteko eztabaiden arintasuna eta azalergia aipatu dituzte, hala nola tonu inbertsonala, kasu askotan mugimenduek elkarrekiko kexa edo gaitzespenak sotiltasunik gabe adieraztea dakarrena. Parez-parekoan, beharrezkoak diren mekanismoak jarrita, elementu horiek arindu daitezkeela uste dute, besteengan eragin ditzaketen min eta ezinegonak baretuz. Momentuz, dirudienez, taldeok ez dituzte probatu eztabaida digitalak hobetu edo kalitatezko bihurtu ditzaketen mekanismoak, 1.0 munduan aplikatu ohi dituztenak (asanbladak dinamizatzeko taldeak, parte-hartze horizontala sustatzeko araudiak eta abar).

Amaitzeko, sare digitalen egitura eta funtzionamenduarekin bat datozen indibidualizazio dinamikak aipatzen ditu ekintzaile honek:

Con las redes una de mis preocupaciones es cómo caemos una y otra vez en agendas super hedonistas. Lo que lo peta son historias en primera persona de gente contando sus movidas y como lo personal es político pues yo te cuento mi película y ya vale... Bueno, para que lo personal sea político habrá que politizarlo... [04 Kolektiboa - Estatu mailako ekimen feminista-lesbikoa]

Sareetan egiten den politika indibidualismoak xurgatua izateko arriskua aipatzen du aktibista honek. Ildo horretan, mugimendu feministak landu duen pertsonala politizatzearen ideia nola perbertitu den aipatzen du. Bere ustetan edozein bizipen pertsonal ez da bere horretan politikoa, “politizagarria” baizik. Hori gerta dadin, esperientzia hori komunean jarri eta haren egiturazko irakurketa egin beharra dago. Irakurketa horretatik sare digitalak agertoki perfektua dira esperientzia pertsonalaren sasi-politizaziorako: gure esperientziak beste anonimo horiei guztiei ezagutzera ematea esperientziak kolektibizatzearekin nahasten dugu. Banakotasuna desagerrarazi eta, aldi berean, inoiz baino ikusgarriago egiten dute sareek.

Sare sozial digitalen inguruan egiten duten analisisian elementu horiek guztiak kontuan izan arren, talde gehienek ez dituzte espazio digital horiek eraldatzeko estrategiak sortu edo garatu. Kasu gehienetan beraien ekimenak zabaltzeko erabiltzen dituztela onartzen dute, edo beste batzuen mezu interesgarriak hedatzeko. Kasuren baten sarean komunitateak indartzeko eta elkarren zaintza sustatzeko erabili izan dituzte, “Bollopop”²⁰⁹ lesbianeiei zuzendutako elkartruke eta sustengu sarearen kasuan, esaterako. Sare hori sortuz isolamendua ekidin eta

209 Bollopop.com atariak foro formatuan funtzionatzen du eta bertan parte hartzeko erregistratu egin behar da. Behin sartuta, era guztietako zerbitzu eta kontaktuak aurkitu daitezke, izan mendira elkarrekin joateko proposamenak, etxerako gauzak oparitu edo eskatzea edo mudantza baterako langile koadrila biltzeko asmoa zerbeza batzuen truke.

elkarren zaintza komunitarioa balio politiko bezala irudikatu nahi dute, eta sare hori aipatzeak ilusioa pizten die ekintzaile hauei. Beste kasu gehienetan, ostera, aktibistek asperdura aurpegiz erantzuten zidaten sareez galdetzen nienean. Gehienetan espazio galdutzat ematen dituzte sareok, eta ez dago, momentuz, eztabaida irekirik haien funtzionamendua hobetu edo iraultzeko moduen inguruan, ez bada sare digitalak bere osotasunean zalantzan jarri eta 2.0 espazioarena borroka galdutzat jotzea.

Talde eta kolektiboek haien estrategia politikoak pentsatzerakoan elementu ugari dituzte esku artean, eta horien arteko harremanak batzutan zailak dira kudeatzen. Esaterako, ikusgaitasunaren inguruko eztabaidek argi uzten digute estrategia hori noiz eta nola erabiltzea ez dela erabaki sinplea eta mugimenduetako belaunaldi ezberdinekin lotuta dagoela. Batzuentzat oso estrategia ohiko eta maitatua dena besteentzat zalantzarria izan daiteke, haien bizipen eta kultura politikoak bestelakoak direlako. Azken finean, estrategia politikoa zehaztea ez da soilik helburu batzuk lortzeko bide egokiena hautatzea, bide horrek sostengarria izan behar du ekintzaileentzako eta bere efektuak asimilatzeko prest egon behar dira aktibisten komunitateak. Indarkeria defentsiboaren eta sare sozialen erabilerari buruzko eztabaidek ere konplexutasun honen berri ematen digute, hautatzen diren estrategia guztiek baitituzte aktibistek espero zituzten emaitzak gainditzen dituzten efektuak. Indarkeriaren kasuan, gainera, mugimenduetan dauden kultura politiko eta iruditegiek talka egin dezakete maskulinitate heroikoaren aspektu batzuen kritikarekin, ekintzaileen diskurtsoetan kontraesanak eta zalantzak sortuz. Duda-muda eta kontradikzio horiek oso erabilgarriak izan daitezke estrategia politikoak beren osotasunean pentsatu eta aplikatzeko, ohikoan ematen zaien erabilera elitista eta sasi-militarra ekidinez. Mugimenduetako kideok estrategia politikoaren nozioa irudimenez eta zalantzaz elikatzen dute, eta ekarpen hau LGTB* politikentzat bezain lagungarri izan daiteke beste mugimendu batzuentzat ere.

4.4.5 DISTANTZIAK

Estrategia politikoak taldeentzako bizigarri eta sostengarriak izan behar direla esanez amaitu dut aurreko atala. Talde eta kolektiboek hartzen dituzten erabaki estrategiko (eta diskurtsiboen) eragin nabarmenena militanteen eta beste herritarren arteko distantzia handitu edo murriztea da: egiten eta esaten denaren arabera gerturatuko da jendea ekimenetara edo taldeetan parte-hartzea erabakiko du ala ez. LGTB*/TMBB politiken paradoxa handia da egun. Bere militantzia minimo historikotatik atera den arren (duela hamar urte eskasagoa zela aipatzen dute aktibista beteranoenak) gaur egun aktibo dauden kolektibo gehienak ez dira jende larregiz hornitzen. Kasu batzuetan, lehen aipatu ditugun afinitate politikak medio, taldea txiki mantentzea kolektiboaren apustu estrategikoa da. Beste batzuetan kide gehiago izan nahiko lituzketela onartzen dute, baina gutxi dira lortzen dutenak; talde gehienak 10 pertsonatik beherakoak dira, askotan lau edo hirukoak ere bai. Hala ere, ez da analisi kuantitatibo azkarrik aplikatu behar taldeok aztertzerakoan: gehienek nukleo txikia izan arren badute inguruan jende multzo zabalagoa, beren ekimenetan parte hartu edo une puntualetan laguntzen diena. Aldi berean azken urteotako mobilizazioak, batik bat ekainaren 28koak baina baita trans* ikusgaitasunaren egunekoak ere, inoiz baino jendetsuagoak izan dira. Bi elementu horien arteko kontrastea, LGTB* komunitateen eta talde antolatuen arteko distantziaz mintzo da:

(...) antolatzen dugu harrotasuna eta agertzen dira milaka pertsona. Manifestazioan todo el mundo es transmaricabollo (...) bagaude indibidualismo batean... nik nireak ateratzen ditut eta E28koa da... ba joan behar zaren manifa bat baina... gatzetxoek gaur egun se lleva mucho el posturoo... argazkia egitea «ni harrotasunean»... Jai-giroak asko errazten du, ez dizu konpromiso bat eskatzen epe luzera. (...) badaude koadrila transmarikabollo super gazte batzuk... baina gehiago da lagun talde bat borroka bat baino... [05 Kolektiboa - Transmaribollo talde lokala]

Gizartearen indibidualizazio maila altua aipatzen dute talde ugari, alegia gutxiago inplikatzeko eta parte-hartzeko joera. Parte-hartzearen inguruko ikuspegi horretan bi ideia kontrajarri identifika ditzakegu. Alde batetik, lehenago ere aipatu dut, elkarrizketatutako talde batzuk afinitateari eta laguntasunari garrantzia ematen diote, kolektiboek dimentsio hori zaindu behar dutela azpimarratuz. Bestetik, TMBB lagun koadrilak daudela aipatzen da, baina haien politizazio falta deitoratzen da. Maila batean, txanpon beraren bi aldeak dira. Izan

ere, ondo aztertu beharrekoa da afinitatean oinarritutako politikek eman eta ken dezaketena. Esaterako, zaila suertatu daiteke antolatu gabeko koadrila horientzako martxan dauden kolektiboetara gerturatzea, *beste* afinitate batzuen inguruan antolatuak dauden heinean. Agian, manifestazioetara besterik etortzen ez diren transmarikabollo taldetxo horiek, etorkizunean afinitate bidez funtzionatzen duten aktibista bilakatu daitezke baina, zer egin dezakete jada aktibo dauden taldeek politizazio hori sustatzeko? Nondik hasi?

Es difícil que la gente milite. Que se enganche. Porque la gente necesita referentes pero luego no quiere que los referentes tomen decisiones, es una cosa un poco rara. La gente está falta de referentes, la gente no es capaz de generar dinámicas, hay gente que sí lo hace, por supuesto, pero hay todo un potencial de gente que querría militar pero no sabe cómo. (...) Tu ves la mani del 28J aquí y ves toda esa gente joven y dices, joder si toda esta gente se pusiera a militar... sería la bomba. [ELK07]

Elkarrizketatutako batzuek lidergoarekin lotzen dituzte joera horiek: mugimenduak erreferenteak sortzeak, halabeharrez, kide batzuek botere sinboliko eta efektibo handia metatzea dakar. Horrek efektu bikoitza sortzen du, izan ere, erreferente diren heinean pertsonai horiek jendea erakar dezakete, baina aldi berean oztopo izan daitezke beste kideek beren hitza kontuan hartzen dela pentsatzeko. Bestalde, dinamika propioak sortzen dituen jendea gutxi dela uste du elkarrizketatu honek, baina aldi berean denak aktibismora biratuko balira ikaragarri ona izango litzatekeela. Ziur aski honek badu antzekotasunik mugimendu feministak bizi duen atakarekin, azken hiru urteotako martxoaren 8ko mobilizazio jendetsuen ostean indar hori guztia eguneroko ekintzaitzara bideratu ahal izateko mekanismoak pentsatzen diharduen heinean. Baina, mugimendu feministarekin gertatzen den bezala, kontua ez da soilik jendeak ez duela bere denbora aktibismorako erabili nahi. Distantzia hori diskurtsiboa ere bada: *“nosotras montamos el 28J, lo hemos montado durante un montón de años, controlamos ese discurso, nos viene muchísima gente, pero también es verdad que muchísima gente de la que viene no comparte lo que decimos”* [02 Kolektiboa - Homofobiaren aurkako talde lokala]. Mediatikoki eta gizarte mailan inoiz baino oihartzun handiagoa duen gaia da LGTB* askapena, baina horrek ez du esan nahi mugimendu hauetan antolatu gabeko jendeak eta oro har gizarteak gaiak dituen ideiak eta antolaturiko taldeek buruan dutena bat datozenik. Elkarrizketatutako taldeek diskurtso erradikala daukate sexu askapenaren inguruan, justizia sozialaren irudikapen zabalagoaren baitan kokatuta dagoena, antikapitalista eta interseksionala. Diskurtso hori holistikoa eta konplexua ere bada maila askotan: erabiltzen den terminologia espezifikoa da eta politika zehatzen alde edo kontra azaltzeko argumentuak ere ezin dira berehalakoan laburtu. Taldeen eta LGTB* pertsona batzuen artean dagoen distantzia horren ondorio ere bada. Distantzia horiek neurtu eta, hala nahi bada, laburtzea, mugimenduen erronketako bat litzateke.

4.4 azpiatala intimitateaz hitz egiten hasi eta distantziari buruzko ideia batzuekin amaitu dut. Bien bitartean agenda, bidegurutze eta estrategiez hausnartzeko parada izan dugu. Mugimenduek esku artean darabiltzaten dimentsio hauek guztiak haien artean loturik daude: estrategiek distantziak handitu edo txikitu ditzakete; agendek estrategiak determinatu; intimitateak distantzia batzuk laburtu eta beste batzuk handitu. Mugimenduak konfiguratzeko dituzten zapalkuntza-ardatz ezberdinek eta horiek gurutzatzen diren moduari buruzko ulerkerak, estrategia partikularrak eskatzen dituzte, eta ez dira beti intimitatearekin konpatibleak. Konplexutasun horren baitan, taldeek maiz beren jardunaren irudi osoa ikusteko zailtasunak dituzte, egoeraren kartografia egokiak egiteko tresnak urriak direlako eta, gainera, analisi eta balorazio horiek eguneroko jardunarekin uztartu behar dituztelako.

4.2 azpiatalean azaldu dudana moduan, maila ekonomiko, geo-politiko, sozial eta kulturalean gertatu diren aldaketek taldeen ingurune-esparrutik harago doazen egoerak konfiguratu dituzte eta LGTB* politikek horiekiko etengabeko ber-kokatze ariketak egiten dituzte. 4.3 atalean, subjektibotasun politiko ireki baina aldi berean eraginkorrak artikulatzeko dituzten zailtasunak ere aztertuta ahal izan ditut, hein batean panorama konplexu horren ondorioz, baina baita borroka ezberdinen ibilbide historikoak hala baldintzaturik. Orain arte talde eta ekintzaileen testigantzen bidez osatu dudana narrazio horrek gaiaren konplexutasuna eta, beraz, LGTB* politikek parean duten erronkaren zailtasuna irudikatzeko balio izan didate. Hurrengo atalean taldeek azalerarazi dituzten kezka hauek ardatz hartuz, ikuspegi teorikotik lagungarriak izan daitezkeen hainbat ideia eta hausnarketa paratuko ditut, orain arte ikusitakoak interpretatzen lagunduko dutelakoan baina, bereziki, eztabaida horietan aurrera egiteko gako batzuk eskaini ditzaketeelakoan.

4.5 Mugimenduak ur azkarren, motelen eta geldoen artean igerian

Neure buruari jarritako azken zeregina zen Stonewall topatzea. Gogoan nuen nolako eragina izan zuen, ikasi genuenean polizien kontra 1969an izandako borroka. Oinezko bati eskatu nahi nion nire irudia har zezala haren aurrean. Pentsatu nuen ezen, noizbait, ni hil ondoan, norbaitek argazkia aurkitu zezakeela, eta hobekixeago ulertuko ninduela.

-Ba al dakizue non dagoen Stonewall taberna? -galdegin nien farola baten kontra bermaturik zeuden bi gayri, Sheridan Squaren.

-Hura zen taberna -haietako batek erroskilla denda seinalatu zuen.

Leslie Feinberg, "Mari-mutil handi baten bluesa" (Katakarak, 2018).

4.5.1 NORMALIZAZIOAK ETA IRENSTEAK

4. atala mugimenduek egungo testuinguruarekin duten harreman konplexua aztertuz hasi dut. Hego Euskal Herrian zein maila geopolitiko zabalago batean (espainiar estatuan eta Europan) gertatu diren aldaketa ugari baldintzatu dute testuinguru hori, eta LGTB* politikei dagokionez, azken hamarkadetan maila administratibo eta legalean erdietsi dituzten aldaketek ere eragin handia izan dute. Ez da erabat zuzena aldaketa horiek guztiak "lorpen" bezala aurkeztea, izan ere horrek esan nahiko luke (adibidez) ezkontzeko eskubidea gauzatu zen garaian talde eta eragile guztiek lehentasunezko helburutzat zutela, eta ez da horrela. Ekintzaile askok adierazi dute aldarrikapen horiek ez zirela haientzat horren beharrezkoak eta, kasu batzuetan, ez dituzte onuragarritzat ere jotzen. Hala ere, LGTB* politiken ikuspegitik, zaila da lege-onarpen horiek inflexio puntutzat ez hartzea. Paco Vidarte ekintzaile eta filosofoak, hil baino lehentxeago, "Ética Marica" (2007) publikatu zuen. PSOEn gobernuak sexu berekoen arteko ezkontza onartu berria zuen eta txalo artean jaso zituen goraipamenak, orduan ere instituzioekin harreman estua zuten hainbat mugimenduren eskutik. Garaipen handi horren ostean, Espainiaren tolerantzia eta progresismoa inguruko herrialdeetara zabaltzeko garaia zela esan zuten orduan instituzioekin harreman estua zuten hainbat LGTB* eragilek. Testuinguru horretan, Vidartek LGTB*

politiken agortzearen inguruko testu sutsua idatzi zuen. Kolektibo eta taldeen etorkizunaren inguruan profetizatzeke aukera ere hartu zuen, hausnartzekoa: *“si desde abajo no les transmitimos lo que queremos, lo que nos hace falta, se van a convertir en meros gestores, se van a quedar sin ideas, se volcarán en la labor asistencial”* (Vidarte 2007:76). Madrildar filosofoak, beraz, asistentzia lanak ekintzailtza erabat irentsiko zuela aurreikusi zuen. Pena handia da ekintzaile hau gure artean ez izatea, oso interesgarria litzatekeelako gaur egungo egoerari buruz egingo lukeen azterketa²¹⁰.

Lege-aldaketa horrek LGTB* politikak ere aldatu zituen. Mugimenduaren erdigunean egon ziren sektore horiek, ezkontza eta adopzioaren aldeko diskurtso garbia zutenak, desaktibatu egin ziren eta bestelako ekintzailtza erduei lekua utzi zieten. Ekintzailtza berri horiek queer perspektibekin eta orduko mugimendu feminista berriekin lotu ziren (Gil 2011). LGTB erakunde handiek protagonismo handia galdu zuten, bereziki aldarrikapenak plazaratzeari begira, eta sortu ziren ekimenak ikuspegi erradikalago baina aldi berean marjinalagoetatik elikatu ziren. Hego Euskal Herrian ere, sona handia izan zuten hainbat talde (Gehitu, Aldarte, EHGAM...) bigarren lerrora pasa ziren. Haietako batzuk asistentzia lanetara gehiago bideratu eta profesionalizatu egin zirelako (lehenagotik bazetozen prozesuetan sakonduz) eta beste batzuk errelebo falta larriagatik. Prozesua ez zen berehalakoa izan, ez eta Hego Euskal Herri osoan aldi berean gertatu ere.

Talde txiki berriak agertu ziren, kasu batzuetan aspalditik ontzen ari ziren aliantzen emaitza, beste batzuetan piztu eta berehala itzali ziren prozesuen ondorioz. Esaterako, gay mugimenduek, gazte perspektibatik, oso urte gutxitan bokazio nazionala zuten hainbat talde sortu zituzten. 2011. urtean sortu zen Gaztehegamek ibilbide oso laburra izan zuen. 2015ean Kitzikan plataforma aurkeztu zuten Bergarako gaztetxean eta ezin esan ibilbide askoz luzeagoa izan zuenik. Gasteizen Gaytasunaren ostean EHGAM Araba eta Lumagorri sortu ziren, Iruñean EHGAM desagertu ostean Kattalingorri sortu zen, asistentziarako bokazio handiagoa zuena. Bestalde transfeminismoa eta proposamen lesbianistak ere agertu ziren, bereziki hiriburuetan, Medeak, Siete Menos Veinte edo MDMA taldeak sortzearekin batera. Talde horiek politika eredu ezberdinak planteatu zituzten, eta bete-betean LGTB mugimenduko taldetzat jo ezin badira ere, LGTB* politikaren aspektu batzuk lantzea eragin zuten, feminismoekiko harremanean. Herri eta auzoetan ere, oso izaera intermitentea duten taldeak sortu ziren, Soraluzeko Komite Arroxa edo Goierriko Zubia, esaterako. Talde handien panoramatik talde txikienerako aldaketa gertatu zen, eta talde horiek gehienetan ezaugarri

210 Paco Vidarteren lana eta oinordekotza jasotzen duen web orri txikia dedikatu diote bere gertukoek, omenaldi gisara: <https://www.hartza.com/paco-vidarte> (2020-02-20an kontsultatua).

komunak dituzte, ñabardurak ñabardura: talde txikiak dira, ez dute bokazio nazionalik edo estatalik, eta askotan beraien jarduna eta existentzia laburra edo intermitentea da. Horrekin batera sortu ziren plataforma batzuk ere hirietan, Gasteiz edo Donostian, kasu, transmarikabollo izendapen berria hartu zutenak, hein batean queer mugimenduak planteaturiko biraoen berreskurapen subertsiboaren asmoei jarraituz.

Azaleko errepasso honek talde eta kolektiboen irudi orokorra egiten lagundu diezaguke, baina azken urteotan ez dira soilik mugimenduen forma eta egiteko moduak aldatu, LGTB* politiken bihotza bera aldatu da. Mugimenduek hiru fenomeno nagusiren aurrean kokatu behar izan dute beren burua: kapitalismoak egin duen LGTB* nortasunen aprobetxamendu edo esplotazioa, aktibistek gappitalismoa edo kapitalismo arrosa deitu dutena²¹¹; eraldaketa administratibo eta legalen bidez gertatu den normalizazio eta instituzionalizazio prozesua, LGTB* komunitatearen barruan zeuden posizio ezberdinak agerian utzi dituenak; eta azkenik LGTB* politikek hartu duten norabidea, aurreko biekien estuki lotzen dena eta liberalismoaren ideia, aldarrikapen eta estrategiekin harremanean dagoena.

Althusserren (1977) teoriak atea ireki zuten kapitalismoa sistema produktibo bezala ulertzeko, baina ez soilik gauza edo zerbitzuen produkzioari dagokionez. Bere planteamenduan sistemak subjektuak ekoizten ditu, kapitalismorako eta obedientziarako prest egongo diren subjektibotasun otzanak. Azken urteotan, kapitalismoak nortasunen ekoizpenerako duen gaitasuna bereziki emankorra izan da. Errepara diezaiogun, esate baterako, datuen salerosketa prozesuei. Azken hamarkadetan gehien hazi diren enpresak datuekin nola edo hala loturiko enpresak dira, Google izanik ziur aski horren adierazlerik argiena (Ippolita Colectivo 2010). Bere enpresa ereduaren muina, gerora beste askok jarraitu dutena, datuak ekoitzi ahal izatea ahalbidetzen dion estrategiak garatzea da: erabiltzaileen soslai zehatzak sortzeko aukera ematen duten zerbitzuak eskaintzea, hala nola, posta elektronikoa, biltegiatzea, edo dokumentuak online editatzeko plataformak. Zerbitzu horiek, gehienetan, defizitarioak dira, baina ekoizten dituzten datuekin egindako negozioek konpentsatzen dituzte galerok, hala nola material fisikoen fabrikazioan (zerbitzariak, ordenagailuak, telefono mugikorrek) eragindako deslokalizazio bortitzak²¹². Enpresa horiek saltzen dutena datu pertsonalak dira, publizitatea eta bestelako mezuak erabiltzaileei oso era pertsonalizatuan helarazi ahal izateko, edo jendearen portaera-ereduak aurreikusi ahal

211 Cinzia Arruzza, Tithi Bhattacharya eta Nancy Fraserrek batera idatzitako “Feminismoa %99aren alde” (2019) manifestuaren 7. tesian, esaterako honela azaltzen dute arazoa: *“inoiz tabu izandako sexu-moldeak normalizatu nahi zituzten, estatu-mailako araudi zabalagoen barruan sartu, eta kapitalismoaren aldeko itxura eman nahi zieten, zeinak indibidualismoa, etxekotasuna eta kontsumoa sustatzen baitu”* (Arruzza, Bhattacharya eta Fraser 2019:48).

212 Google eta bestelako informatika eta komunikazio enpresa handien alde material bezain ikusezinari buruz biziki gomendagarria da “La máquina es tu amo y señor” liburua (Yang et al. 2019).

izateko. Horretarako, erabiltzaileak ezberdindu eta klasifikatu egiten dira etengabe, eta taldekatze horiek ez dira soilik aldez aurretik existitzen diren ezaugarrien araberrakoak, kapitalismoak merkatu-nitxo berriak egonkortsu ahal izateko identitateak ekoizten ditu: talde espezifikoei zuzentzen zaizkien produktuek, nolabait, talde horien identitatea sortu edo indartu dezakete.

“Sortu ala indartu” diot, ez dadin ulertu identitateak kapitalismoaren produktu hutsa direnik, prozesu askoz konplexuagoen fruitu baitira. Hala da LGTB* siglen azpian dauden identitateen kasuan ere. Kapitalismoak LGTB* pertsoneri zuzendutako produktu eta jarduera bereziak ondo xurgatzen jakin du, esaterako aisialdira bideratutako espazioak. Ambienteko taberna eta inguruneak gero eta gehiago komertzializatu dira, negozio txikiaren muga gaindituz, eta elkargune zena (López Romo 2008) baztertzaille bilakatu da maiz. Horrela ugalduz joan dira maila batetik gorako diru-sarrerak dituztenei zuzentzen zaizkien gune eta ekintza bereziak, kruzeroak edo luxuzko hotelak, edo ekainaren 28ko ospakizunen kariatara antolatzen diren bidaia-pack osoak, hotela, sauna eta diskotekarako sarrera biltzen dituztenak. Are gehiago, LGTB* pertsonen estatus legal eta administratiboa homologatu denetik, bidea zabaltu zaie estatus berri horiek posible egiten dituzten zenbait negoziari: subrogazioa eta erreproduktzioarako beste bide batzuk, genero baieztapenerako ebakuntza eta interbentzio pribatuak eta abar. Kapitalismoak ondo onartu ditu nortasun horiek, probetxuzkoak diren heinean.

Horren aurrean, elkarrizketatutako talde denek azaldu dute sistema ekonomikoarekiko ikuspegi kritikoa, ez bada konfrontazio zuzena eta kapitalismoak LGTB* identitateak bere probetxurako erabiltzen dituen heinean, LGTB* politikak horren erresistentzia gune ere badirela seinalatzen dute, “gure izenean ez” estiloko politiken bidez. Kapitalismoa identitateen ekoizpen makina gisa ikusten dute ekintzaile askok eta maila horretan sexualitatearen inguruko nortasunen ez-tandarekin arduraturik azaldu dira. Merkatuak gero eta gehiago atomizatu eta zatikatzen ditu identitateak, nortasun horiei bakantasunaren promesa helaraziz produktu eta mezu pertsonalizatuen bidez, jendarteak anonimotasun mugagabearen galtzearen sententzioa duen aldi berean. Pertsonalismoaren paradoxa horrek (Esposito 2012) indar askatzaile direnak atxikitze indar bilaka ditzake sexualitatearekin eta generoarekin lotutako bizipeneri dagokienez, eta hemen ezinbestekoa da ikuspegi liberalaren eragina kontuan izatea. LGTB* politikak norberaren egiteko eskubideen aldarrikapenean oinarritzen direnean, nortasun horiek merkatuaren logika huts bilakatzen dira (Espinosa Miñoso 1999).

Jada aipatu dut kapitalismoaren maniobra horiek zerikusia dutela normalizazioarekin. Normalizazioa prozesu bikoitz moduan aztertu behar da LGTB* politiken ikuspegitik, eta talde hauek zailtasunak dituzte maiz bikoiztasun hori azaltzeko. Beren sorreratik LGTB* politiken helburua sexualitate eta genero bizinortasun guztiak normalizat joak izatea izan da, elkarrizketatutako batek aipatu bezala, “*LGBT aferek afera izateari utzi eta errealitate izan daitezen*” [07. kolektiboa]. Normalizatzek maila horretan komunitate horien kontrako

indarkeria desagerraraztea du helburu, bazterkeria amaitzea, errespetua bultzatzea. Baina heterosexualitatearen eta zisgenerismoaren arautik kanpokoak normalizatzen joan diren heinean prozesu horren “b alde” ikusi ahal izan dugu: normatibizazio prozesu horiek LGBT* komunitatean dauden identitate eta espresio ugariak zatitu eta inklusio-esklusio dinamikien bidez batzuk kanpo utzi ditu. Prozesu horri homonormatibizazioa deritzo (Duggan 2003; Agathangelou, Bassichis, eta Spira 2008; López Clavel 2015; Platero, Rosón, eta Ortega Arjonilla 2017), eta egungo aktibista askoren aburuz kezagarria da.

Prozesuotan, hegemonikoa den eredu heterosexualera gehiago gerturatzen diren praktika eta estiloak dira onarpen maila altuagoa sortzen dutenak. Horrek bi efektu sortzen ditu epe labur-ertain eta luzera. Epe labur eta ertainean onarpen sozial (eta juridikotik) kanpo uzten ditu LGBT* komunitateko kide izanda arau heterosexualetik urruntzen diren praktikak dituzten pertsonak. Esaterako, haien bizitza afektibo eta sexuala bikote ereduaren barruan antolatzen ez dutenak, sexu harremanetan promiskuitatea aldarrikatzen dutenak edota sexu-praktika ez-normatiboak dituztenak. Maila horretan Rubinen (1989) planteamenduei jarraituz Coll-Planasek (2010) proposatzen digun “sexu onaren” eta “sexu txarraren” arteko muga desplazatzen doan arren²¹³, etengabe onargarria denaren eta ez denaren arteko gradazioak bere horretan dirau. Sexu, bizi-estilo edo praktika horien gizarte onarpena, ordea, arestian aipaturiko kapitalismoaren gaitasun xurgatzailearekin ere lotu behar da, izan ere, praktika batzuk sozialki onartuak ez egoteak ez du esan nahi kapitalismoak ez duenik haietatik probetxua ateratzeko maniobrarik egingo.

Genero bizinortasunei dagokienez, antzekoa izan arren erritmo ezberdinak dituen prozesua bizi dute. Azken urteotan trans* ikusgaitasunean gertatu den gorakada ez da trans* errealitate guztien azaleratze bat izan, ezpada errazago onartzen den atal horrena (Missé 2018) eta, maila horretan ere, bi efektu paralelo izan ditu. Alde batetik, passing handiena duten pertsonak izan dira onarpen maila altuena lortu dutenak. Trans* komunitateetan ez da hori esperientzia bakarra (Missé 2013; Platero 2014) eta badira genero ez-normatiboetan bizi diren pertsonak ere, genero maskulino eta femeninoa ez dituztenak elkarren baztertzailerik bezala sentitzen. Esperientzia ez-bitar horiek ez dira normalizatu eta soilik eredu oso estetizatuetan irudikatu dira, exotismo androginoetik (gizartearen estandarretatik oso ederrak diren pertsonengan ezaugarri androgino hauek goraiatu dira, esaterako modelo edo aktoreengan). Egunerokoan, ordea, beraien generoan ondo identifikatu ezin ditugun pertsonak, oro har, ez dute onarpen hori bizi eta genero ikara²¹⁴ sortzen dute, askotan indarkeria oso bortitzen jomuga direlarik. Amaitzeko, bi joeretan, homosexualitatearen kasuan bezala edo are gehiago, baldintza batzuk betetzen dituzten gorputzak izan dira onarpena lortzera gehien hurbildu direnak. Eta “hurbildu” diot irudikeria litzatekeelako esatea erabateko onarpena lortu

213 Pierre Bourdieuk “egituraren translazioa” deitu zion gertaera honi (2006:151).

dutenik. Aitzitik, posible da azken urteotako trans* normalizazioaren subjektua subjektu gazte edo haurra bilakatzen ari dela esatea, subjektu osasuntsua, bazterkerian ez dagoena eta sozialki txalogarria dena. Estatu espainiarrean transakzio politikoaren garaitik transexualitateaz genuen irudia trabestismoari, gauari, prostituzioari, gorputz helduei eta *era ikusgarrian* transexualak zirenei lotua egon da. Gaur egun, aldiz, batik bat nerabezaroari lotzen zaio transexualitatearen inguruko irudi hori, passinga duen trans* gorputzari eta genero sistemetan errazago integratzen diren genero adierazpenei. Aldaketa horren bidez, kasu batzuetan estigmatizazio prozesuak arindu egin dira baina beste hainbat subjektuentzat efektua kontrakoa izan da (Goffman 1963 ; Platero 2013).

Aldi berean, normalizazioa familiak kapitalismoari eskaintzen dion funtzionalitatearekin lotzen da. Estatu gehienetan, eta gurean partikulariki, familiak dira unitate ekonomiko nagusiak eta eskubide askoren jabe. Hori ez da horrela alderdi formalean soilik, eguneroko antolaketa ekonomikoan ere familia egiturak dira oinarri nagusia, eta hori garbi geratu zen 2008ko finantza krisiaren ostean: familien bidez bideratu zen nagusiki ekonomia berrantolatzeko lana (Pérez Orozco 2017) eta aldi berean zaintza lanaren sare internazionalaren bidez indartu, sare horiek ere hein handi batean familien arabera antolatuak zirelarik (Pérez Orozco, Paiewonski, eta García Dominguez 2008). Arestian kapitalismoak edozer xurgatzeko duen gaitasuna aipatu badugu ere, maila kultural-sinbolikoa eta ekonomikoa ezberdintzea lagungarria da. Egungo panoraman, kultura popularrak identitate ezberdinak xurgatzeko gaitasuna izateak ez du esan nahi gure gizartearen ekonomia ez denik ikuspegi familiaristatik antolatzen. Maila horretan, heterosexualitateak, sistema bezala (Wittig 2006) lotura estua du sistema ekonomikoarekin eta, ondorioz, ez da arraroa familiara eta heterosexualitatera gehien gerturatzen diren eredu (homo)normatiboek lortzea onargarritasun sozial gehiago eta estatuaren zein bestelako instituzioen aitortza eta babesa.

214 “Gender panic” edo “genero ikara” era argian genero batean edo bestean kokatu ezin diren pertsonen aurrean hainbatek duten erreakzioa da. Mendebaldeko gizartetan, genero bitarraren erregimen estuetan pertsonen genero argi adierazi behar dute eta bere arauak bete. Hain da horrela generoaren inguruan zalantzak ditugunean pertsona horien izaera gizatiarra ere zalantzan jarri dezakegula. Kontzeptu honen inguruan gehiago jakiteko ikus (Westbrook eta Schilt 2014).

Diferentziaren despolitizazioa sistema neoliberallean

Diferentziak eta berau ulertzeko dugun moduak pisu handia dute hemen, eta lehenago aztertutako eztabaida batekin du harremana. Ikuspegi modernotik, edo berdintasunaren ikuspegitik, gay, lesbiana, trans, bisexual edo beste nortasun ez-normatiboak gorpuzteak ez du ezer esan nahi bere horretan. Sexu-joera edo genero bizinortasun ezberdina izatea besterik ez da eta, zentzu horretan, bateragarria da beste edozein joera edo posizionamendurekin. Norbera izan daiteke gay eta eskuindarra, lesbiana eta arrazista, trans* eta armadazalea edo bisexuala eta eskuineko anarkista. Egin beharrekoa, beraz, anormal bezala ulertzen diren joera edo nortasun hauek normalizatzea eta beste guztiekin elkarbizitzan parez-pare jartzea litzateke. Baina feminismoan irekitako eztabaidari jarraituz, LGTB* politikek ere heterosexualitatea sistema bezala aztertzeari ekin diote, praktika bezala baino erregimen bezala definituz (esaterako, lehen aipatu dudan Monique Wittigen ikuspegitik). Heterosexualitatea ez bada praktika hutsa eta erregimen oso bat sostengatzen badu, loturak baldin baditu familia baloreak mantentzearekin, normaltasunarekin eta sistema ekonomikoekin, hortik kanpoko praktika eta identitateak sistema hori nolabait zalantzan jartzeko potentzia duten elementuak dira.

Ahmedek (2019) “Fenomenología Queer” liburuan fenomenologiaren filosofiaren ekarpenak *okertzen* ditu, eskola horrek egin ditzakeen ekarpenak generoaren, sexualitatearen eta arrazaren aferak aztertzeo baliatuz. Orientazioa kontzeptu klabea da fenomenologian, objektuei nola begiratzen diegun eta, hortaz, *objektuetara* nola zuzentzen eta proiektatzen garen aztertzen duen heinean. Ahmedek, orientazioaren etimologiatik abiatuz, orientatzea beti erreferentzia puntu batekiko ariketa dela planteatzen digu, oriente horrekiko hain zuzen ere, alegia kanpoan dagoenarekiko, *orientalizatu* edo exotizatu daitekeen horrekiko (Said 1990). Ikuspegi horretatik heterosexualitatea eta homosexualitatea nola edo hala harremanean daude, kanpoko mugaren (“exterior constitutivo”) bidez: homosexualitateak, arauaren desbideratze bezala, heterosexualitatearen mugak zehazten ditu, gaingitu behar ez diren marra gorriak. Liburuaren bigarren atalean lesbianismoa orientazio bezala planteatzen du eta mugimendu feministan, lesbianen mugimenduan, LGTB* mugimenduetan eta ikerketa honetan ere presente egon den eztabaida bati heltzen dio: lesbiana jaio egiten da edo egin egiten da? Egin egiten bada, nola egin daiteke? Kontzienteki? Inkontzienteki?

Ahmedek ez du orientazioaren inguruko bere ideia lesbianismora mugatzen. Lesbianismo politikoaren ideia batzuk izan dezaketen potentziala esploratuz, heterosexualitatea ere egin egiten dela baieztatzen du, lan bat eskatzen duela. Hain zuzen ere objektu bati begira jarri eta harantz proiektatzea da lana. Objektu hori ez da soilik desio-objektu moduan ulertzen, baizik eta bizi-lerro bat irudikatzen duen orientabide gisa. Ahmedek gogorarazten digu orientabidea

ez dela bakarrik norabide bat, hitzaren esanahietako bat “argibideak edo instrukzioak” direla. Gazteleraz ere “dar orientaciones” esaten zaie leku batera heltzeko ematen diren gomendioei, eta batzuetan agindu bezala ere ulertu daiteke, esaterako unibertsitateko zuzendaritzak lanak zuzentzeko “orientabide berriak” ematen dituenean. Orientazio horiei begira jarri, horietara zuzendu eta horretarako lerroak jarraitzea, beraz, lan bat da. Gehienetan era inkontzientean egiten den lana. Horregatik askotan heterosexualitatea ikusezina da.

Zer gertatzen da, ordea, orientazio hori galtzen dugunean? Desorientazioa. Gauean, gurea ez den ohe batean esnatzen gara eta, ilunetan, ez dakigu argia non dagoen. Une horietan erreferentziak galdua ditugu, pareta ez dugu ohikoan dagoen aldean topatzen eta, erreferentzia puntu horiek gabe, ez genuke jakingo gelatik ateratzen. Desorientazioan gertatzen den gauzetako bat plano horizontal eta bertikalen galera da²¹⁵, eta plano galera horrek begirada *okerra*²¹⁶ ahalbidetzen du, plano berriak sortuz. *Okertasun* hori ez da behin betikoa eta ohikoa da arau heterosexualak planoak zuzendu eta ardatz horizontal eta bertikalak berreskuratzeko mekanismoak martxan jartzea. Autoreak zuzentze mekanismo horiek identifikatzen ditu, esaterako, medikuntzak eta psikologiak, genero inbertsioaren ikuspegia aplikatuz eta butch-femme harremanak heterosexualitatearen imitazio bezala ulertuz, lesbianismoaz egin dituzten hainbat irakurketatan. Planoaren *okertze* hori, beraz, ez da betierekoa baina Ahmedek galdetzen digu ea probetxugarria izan daitekeen nolabait, edo potentzia berriak sor ote ditzakeen:

Quiero que reflexionemos sobre cómo la política queer puede implicar desorientación, sin legislar la desorientación como una política. No se trata de que la desorientación sea siempre radical. Los cuerpos que experimentan desorientación pueden estar a la defensiva, buscando apoyo o un lugar para sentar sus bases de nuevo o reorientar su relación con el mundo. Además, las formas políticas que utilizan la desorientación pueden ser conservadoras, dependiendo del «fin» de sus gestos, dependiendo de cómo buscan (re)asentar sus bases (Ahmed 2019:218).

215 Generoak plano horizontal eta bertikalekin duen harremana aztertu du Cavarerok ere. Artelan ugari abiapuntutzat hartu, eta amatasunaren eta zaintzaren gaia oso gertuan, maskulinitatearen mandatura zuzentasuna dela planteatzen du, eta ohikoan gizonei tentetasuna egotzi eta exijitzen zaiela. Emakumeei eta femeninoari otzantasuna eskatzen zaion heinean plano horizontala dagokio, baina Cavarerok plano okerra, inklinatua edo horizontala esploratzea planteatzen du. Amatasunaren eta zaintzaren bere irakurketetako batzuk esentzialisimotik gertu egon ahal diren arren, bere proposamena aztertzeak merezi duela uste dut, eta oso interesgarria bere irakurketa artean nola oinarritzen duen (Cavarero 2015). Ahmedek ere zuzentasunari “straightness” esatea aztertzen du liburu honetan. Ingeleseko “straight” hitzaren adiera bikoitza erabiltzen du horretarako: alde batetik “zuzena” edo “tentea” esan nahi du hitzak, bestetik heterosexualitatea izendatzeko erabili da.

216 Gazteleraz, RAEko definizioaren arabera, “*oblicuo*: 1. adj. Que se desvía de la línea horizontal o vertical. 2. adj. Geom. Dicho de un plano o de una línea: Que corta a otro plano u otra línea, formando un ángulo que no es recto. 3. adj. Gram. Dicho de un pronombre: que está en caso oblicuo”. Online hiztegitik, 2019-06-27an kontsultatua.

Lehen planteatu dut arau heterosexual eta zisgenerotik kanpo dauden praktikek arauok zalantzan jartzeko *potentzia* izan dezaketela, eta Ahmeden aipu honek argi azaltzen du potentzia hitzak nire planteamenduan duen erabilera. Potentzia bat garatu daiteke edo ez, eta ematen zaion zentzuaren eta erabileraren arabera efektu ezberdinak izan ditzake. Norabide ezberdinetan zabaldu daiteke eta baita gure kontra bihurtu ere, potentzia bat esku artean lehertzea ere litekeena da, baina, abiapuntu bezala indartzat har dezakegu. Indar horrek hainbat egitura sistemiko zalantzan jartzeko gaitasuna izan dezake, gutxienez ikusgarri egiten dituelako diferentziaren bidez. Diferentziak eta errepikapenak balio berezia dute Deleuze eta Felix Guattariren “Mil mesetas” liburuan:

De ese modo, se sale fácilmente de una aporía que corría el riesgo de confundir la medida con el ritmo, a pesar de todas las declaraciones de intención: en efecto, ¿cómo se puede proclamar la desigualdad constituyente del ritmo, cuando al mismo tiempo las vibraciones, las repeticiones periódicas de las componentes se dan por sobreentendidas? Pues un medio existe gracias a una repetición periódica, pero ésta no tiene otro efecto que producir una diferencia gracias a la cual ese medio pasa a otro medio. Es la diferencia la que es rítmica, y no la repetición, que, sin embargo, la produce; pero, como consecuencia, esa repetición productiva nada tenía que ver con una medida reproductiva. Esa sería la solución crítica de la antinomia (Deleuze eta Guattari 2002:320).

Arauren jatorria aldizkako errepikapena da hemen baina, haien planteamenduan, diferentzia bera sortzeko gaitasuna ere izan dezake. Maila horretan, ezin dira diferentziaren errepikapena eta arauaren erreproduktzioa berdindu. Ahmeden planteamenduarekin lotuz, kontua ez da inolako erritmorik sortzen ez duen etengabeko desorientazioa aldarrikatzea, ezpada eraldaketarako potentzia izan daitezkeen erritmo aldaketak ahalbidetzen dituzten diferentzietan aukera bat ematea, bihotzak taupada bat galtzen duen desorientazio horietan ihes lerro bat aurkituz²¹⁷.

LGTB* politikek etengabeko berrikuspina egin beharko dute bi polo hauen artean ez galtzeko. LGTB* identitateak produktu huts bezala eta beraz eraldaketarako potentziarik gabeko elementu bezala ulertuz gero LGTB* politika bera agortu egingo da. Horrek berez ez luke beldurgarria izan behar, mugimenduek ezin baitute haien biziraupena helburutzat hartu, nahiz eta maiz hala egiten den. Baina, bestalde, aipatutako diferentziaren potentzia hori galtzea pena litzateke, hain zuzen ere LGTB* politikek beste diziplina-ordenamendu eta botere-egitura batzuk zalantzan jarri edo agerian uzteko izan dezaketen ahalmenagatik.

217 Bihotzak taupada bat galtzearen ideia Pet Shop Boys taldearen “Heart” abestitik jaso dut (1987ko “Actually” diskoan argitaratua).

La heterosexualidad como orientación obligatoria reproduce algo más que «ella misma»: es un mecanismo para la reproducción de la cultura, o incluso de los «atributos» que se asumen que pasan a lo largo de la línea familiar, como la blanquitud. Por esta razón, queer como orientación sexual «queeriza» algo más que el sexo, al igual que otros tipos de efectos queer pueden a su vez acabar «queerizando» el sexo (Ahmed 2019:222).

Potentzia horiek aldarrikatzeak arriskuak irekitzen ditu, noski. Haietako bat, aktibistekin izandako elkarrizketetan oso presente egon dena, nortasun batzuk idealizatu eta “izoztea” da. Hain zuzen ere, LGTB* politiken lerro nagusitik kanpo geratu diren bazterreko subjektuak aldarrikatzean subjektu horien irudi izoztua sortzea, haiei zuzendutako politikak haiekin kontatu gabe egitea edo haien ezaugarri batzuk beren izate osotzat hartzea. Murrizketa hori azken urteotan LGTB* politika askotan, queer proposamenen eraginpean sortutakoetan bereziki, bazterreko subjektu batzuen erromantizazioan presente egon dela esango nuke, eta posibleagoa izan dela “outsider” batzuen figura aldarrikatzea haiekin batera lanerako mekanismoak aurkitzea baino. Zenbat manifestutan irakurri daitezke LGTB* migranten inguruko aipamenak eta zer gaitasun izan dute mugimenduek subjektu horiekin asistentzia hutsean geratzen ez diren LGTB* politikak egiteko? Era berean, *puta* espazio sinbolikoa aldarrikatzea sexu langintzan ari direnekin interbentzio politikoak eratzea baino errazagoa izan da. Maila horretan, bazterretako subjektu asko diskurtsoen erdigunean daude praktiken orbitan bainoago.

Politiken (neo)liberalizazioa da ekimenok kudeatu behar duten beste gai sendoetako bat. Hasteko, argipen bat. Diferentziaren paradigma ikuspegi esentzialistarekin nahastu edo erabat identifikatu behar ez den bezala, berdintasunaren paradigma eta politika liberalak ez nahastea ere garrantzizkoa da, nahiz eta bien arteko lotura-puntuak badauden. Berdintasunaren politikak erabat erradikalak izan daitezke, subjektuen arteko ezberdinkeria sortzen duten botere harreman eta zapalkuntza guztiak zalantzan jarri eta borrokatzen baldin badituzte. Politika liberalek, ordea, ez dute inoiz erroetara jotzen, ezberdinkeria subjektu bakoitzaren arduratzat hartzen baitute: norberaren bizi-baldintzak onak ez badira nahikoa saiatu ez delako da, eta konponbidea bere esku dago. Nabaria da, beraz, berdinzaletasun erradikalarekiko ezberdintasuna. Bien arteko zubia, noski, diferentziaren inguruan egiten den erabileran dago. Berdinzaletasun erradikalaren kasuan zapalkuntza desagerraraziz diferentzia horiek ezabatzea da helburua. Ikuspegi liberaletik ezberdintasun horiek ez dira esanguratsuak eta existituko ez balira bezala jokatu beharko litzateke, edo “aniztasunaren” ideia antzuen formulazioan berreskuratu, multikulturalismo (ustez) neutralean (Fraser 2011).

Diferentziaren inguruko eztabaida ekarri dut hona normalizazioaren ikuspegitik diferentziek sortu ditzaketen potentziak esploratzeko, gaur egungo LGTB* politikari arnas berria eman diezaiekeelakoan. Eztabaida hori feminismoan maila teoriko eta praktikoan garatu denaren oihartzuna da, eta ekarpen interesgarriak egin ditzakeela uste dut, diferentzia mahai gainean jartzen den aldi berean berorri buruzko ikuspegi esentzialista edo

identitarioan erortzea ekidinez gero. Feminismoan izandako eztabaida diferentzia edo berdintasunaren artekoa izan dela planteatzea akats historikoa litzateke. Gisa berean, diferentzia modu batean edo bestean erabiltzen duten LGTB* politikak ez dira berdintasunaren ideia erradikalen kontrakoak, baina berdintasunaren aitzakian sortzen diren normalizazio eta homogeneizazio prozesuak salatzen dituzte eta horretarako, era batean edo bestean, diferentzia erabili behar dute.

LGBTB* politiken inguruan sortzen den ikuspegi liberalaren ardura ez zaie soilik LGTB erakunde handiei edo instituzioei egotzi behar. Urte luzeetako prozesu sozial konplexuen ondorio dira, ekonomia, politika eta espazio sinbolikoaren arteko korapiloetan gertatu diren aldaketen fruitua. Politika horien kutsu liberalaren atzean, ordea, haien despoltizazioa dago. Brownek (2008) despoltizazioaren hainbat ezaugarri identifikatzen ditu, AEBtako testuinguruan tolerantziaren diskurtsoa aztertzei abiatuta. Testuinguruen arteko aldea nabaria den arren, lerro nagusitan LGTB* politiken despoltizazioa aztertzeko baliagarria izan dakiguke Brownen irakurketa.

Hasteko, despoltizazioan, arazoa berrezugarritzen duen desplazamendu bikoitza gertatzen da: arazoa pertsonala da (pertsona batzuek tolerante izateko duten gaitasun faltagatik) eta bestetik arazoa komunitateen artekoa da (arazoak sortzen direnean “komunitate ezberdinen arteko talkak dira”). Desplazamendu hau oso garbi ikusten da “kulturartekotasun” aferez ari garenean, esaterako. Baina esango nuke lehen elementua argi eta garbi presente dagoela LGTB* komunitateekiko tolerantziaz aritzen garenean ere, eta baita bigarrena ere: hainbatek “bizi-estiloen” arteko talkatzat jo izan dute LGTBfobiaren arazoa. Bigarrenik, despoltizazioan, hizkera emozionalak hiztegi politikoa ordezkatzeko du. LGTBfobia pertsona jakin batzuen tolerantzia-arazotzat jotzen badugu, proposatzen ditugun konponbideak portaera-arau multzo bilakatzeko arriskua dago. Brownek identifikatzen duen despoltizazioaren hirugarren forma sintoma bat da: zerbaiten (edo norbaiten) izenean proiektu politiko bat artikulatzea posible eta erraza denean, ideia hori despoltizatu dagoen seinale da. LGTB* gaiak ia-ia edonoren bandera bilakatu daitezke, baldin eta LGTB* politikek berez duten konplexutasuna aldagai bakarrera mugatzen bada: tolerantzia. Maila horretan, ezkerretik hasi eta eskuinerainoko alderdi eta ekimenek aldarrikatzen dute “norberaren sexu-aukera edo genero aukerarekiko tolerantzia”, eta duela gutxira arte ez dugu panorama

politikoan izan horren kontra argi agertu denik²¹⁸. Brownen iritziz, bandera bat posizio politiko ezberdinetako eragile eta alderdiek altxa dezaketenean, despolitizazioaren edo horren arriskuaren seinalea da. Amaitzeko, pentsalari estatubatuarrak dioenez, tolerantziak “haiek” eta “gu” ezberdintzen ditu: “gu” tolerantzian eta aniztasunaren defendatzailea eta tolerantziaren etsaiak diren “beste” horiek. Banaketa horrek efektu politikoak sortzen ditu eta ez preseski emantzipazioaren aldekoak.

Despolitizazio horrek aferen kulturalizazioa dakar, arazook esparru bakarrera mugatzea eta dimentsio ekonomiko eta politikoekin dituzten konexioak ezabatzea. Era berean, liberalismoak arazoa indibidualizatu egiten du (norberak bere sexualitatea nahi duen bezala bizitzeko askatasuna izatea), lege aurreko berdintasun formalera mugatzen du (ezkontzeko, adoptatzeko edo erregistroan izena aldatzeko eskubidea), eta merkatuaren logika espazio guztietara zabaltzen du (askeak gara gure merkatu propioa dugulako eta guri zuzendutako produktuak ditugulako, gure nortasunekin negoziua egitea zilegi eta ekidinezina da). Liberalismoaren diskurtso horrek, tolerantziarenak bezala, maila diskurtsiboan bere burua ezkututzen du. Arrazoimen kontu hutsa da. Ez da posizioetako bat, *posizioa* da. Mark Fisherrek (2016) errealismo kapitalista deitu dio gertakari honi. Sistema ekonomiko zehatz batek, hainbat mekanismo eta desplazamendu erabiliz, bere burua ekidinezin eta aukera posible bakar bezala aurkeztea lortzen du. Mekanismo horietako bat sistema hori era esplizituan ez defendatzea da: *“El estalinismo o el fascismo no pueden concebirse sin la propaganda, pero el capitalismo sí, y perfectamente: incluso, la propaganda suele sentarle mal o quizás el realismo capitalista funcione mejor cuando nadie lo defiende”* (Fisher 2016:32).

Maila politikoan tolerantziaren diskurtsoak gauza bera egiten duela planteatzen du Brownek: *“Bestela esanda, liberalismoaren ustea da kultura eta politika fusionatu egiten direla ez bada kultura politikoki konkistatzen, liberalismoaren printzipio unibertsal (beraz ez-kulturalen) bidez neutralizatzen”* (Brown 2008:21). Politikoa den oro alderdi kulturalera murrizten da, bizi estilo ezberdinen arteko talka, ohitura eta izaera ezberdinen arteko ezin ikusiak bailiran. Maniobra horren bidez liberalismoan politikoa eta kulturala gauza bera dira, salbuespen bakarrarekin: merkatuarekiko eta estatuarekiko printzipio liberalak ez dira talde kultural zehatz baten usteak, *denontzako* baliagarriak diren printzipioak dira.

218 Alderdi politikoaren ikuspegitik azterketa serioa mereziko luke VOX alderdiaren gorakadak eta feminismoaren kontra eta LGTB* komunitatearen kontra egin dituzten kanpaina eta adierazpenak, lehenago beste alderdi batzuk betetzen zuten esparru politikoaren betetzeko aukera eman dienak. Horrelako alderdien gorakadak izan ditzakeen arriskuak oso kontuan hartzekoak iruditzen zaizkit, eta baita panorama politikoan posizio esplizitu hori era parlamentarioan artikulatzeak sortzen dituen aldaketak. Hala ere, adierazpen hauek ez dira liberalismoaren esparru diskurtsibotik atera. Gizartearen “homosexualizazioa” kritikatzeko den aldi berean gehienetan ez da subjektu zehatzaren eskubidea zalantzan jartzen nahi duten sexualitatea izateko. Eskuin eremutik postura horren adierazle argienak, ordea, Ciudadanos alderdia izan da, LGTB politikari begira proposamen nagusiztat haurdunaldi surrogatua hartu duena.

LGTB* politika askoren bihotzean printzipio berak agintzen du, hala bizi dute aktibista askok ere: *“Kapitalismoak erabili egin nahi izan du LGTB identitatea, eta batzuek utzi egin diote. Horrek despolitizazioa dakar: aldarrikapena urtu egiten da, eta bakarrik geratzen dira «love is love» eta «homofobiarik ez» mezuak. Hau da, aldarrikapen orokorrak egiten ditugu, baina ez dugu aztertzen zein diren zapalkuntzaren sustraiak”*²¹⁹. Eztabaida despolitizatu eta bizi-estiloetan zentratzen da, zapalkuntza horrek beste batzuekin duen harremana ezkututzen da eta are gehiago, berorren jatorria ere ezkututzen da, gizartearentzat deserosoak diren elementu batzuk analisitik at utziz, hala nola pribilegio heterosexuala eta zisgenerikoa.

Gai horri dagokionez LGTB* politikak ataka zailean daude. Izan ere, ikuspegi kulturalista erredukzionista horretatik aldarrikapen eta mezuak sinplifikatu egin daitezke: “denok merezi dugu errespetua”, “maitasun forma denak dira zilegi”, “azken finean denok gara pertsonak”. Humanismoaren alderdi neutrala erakusten duten leloak dira. Ikuspegi horrek gizatasunaren irudi modernoa jartzen du erdigunean, eta irudi horrek ideal morala adierazten duen heinean, egungo egoeren analisitik urrundu egiten da. Braidottik *“zehaztasun kartografikoa”* proposatzen du kokapen gabezia horri aurre egiteko, ikuspegi kritiko posthumanoa garatzeko:

Una cartografía es una lectura teóricamente fundada y políticamente arraigada en el presente. Las cartografías apuntan a la responsabilidad epistémica y ética desvelando las ubicaciones del poder que estructuran nuestra posición de sujetos. Como tales, éstas dan cuenta de la ubicación de cada uno tanto en términos de espacio (dimensión geopolítica o ecológica) como de tiempo (dimensión histórica y genealógica) (Braidotti 2015:195).

Badirudi aktibista eta taldeak ikuspegi hori indartzeko posizioan daudela. Sinplifikazio moralaren aurrean, kokaturiko ikuspegi etiko eta politikoak planteatzen dituzte, non subjektuen posizioen azterketa sakona ezinbestekoa den, aipaturiko ia aspektu guztietatik: ikuspegi historikotik genero eta sexualitate sistemek gaur egun kapitalismoan jokatzen duten papera aztertzen dute; ikuspegi genealogikotik beste borroka batzuekiko eta iraganeko LGTB* politikekiko lotura pentsatu eta indartzen saiatzen dira; ikuspegi geopolitikoa ere presente dago homonazionalismoaren kritikaren bidez, besteak beste. Baina aurreko paragrafoa talde eta ekimenok ataka zailean daudela esanez hasi dut; azal dezadan zergatik. Mezuen sinplifikazioak LGTB* politikei inoizko ikusgaitasun handiena eta babes mailarik altuenak ekarri dizkio. Taldeek ekainaren 28a horren adierazletzat dute. Inoiz baino jende gehiago biltzen da eta, harrigarria bada ere, azken urteotako mobilizazioen argazkiak ikustea

219 “Kapitalismoak LGTB identitatea erabili nahi du, eta utzi egin diote”, elkarrizketa, Erlantz Iglesias. Harro plataformako kiderekin. Berria egunkarian. <https://labur.eus/ccjOI> 2019ko ekainak 30ean kontsultatua.

bestarik ez dago bi elementu nabarmentzeko. Lehena, oso ikusgarria eta antzematen erraza, jendetza biltzen dela. Bigarrena, aktibistek eurek ere aipatu dute: ez da oso sinesgarria manifestazio horietako komunikatu eta pankarta nagusietan ageri diren lema eta aldarrikapen erradikalak, ezta horiek transmititzeko erabiltzen den hizkera ere, bertan parte hartzen duten guztiek konpartitzea. Are gehiago, kasu askotan pankartako lema konprometituen atzean²²⁰ parte-hartzaile ugari egindako banakako lema eta pankartatxoak ikus ditzakegu, “maitasuna maitasuna da” estiloko lema orokorrago horiek daramatzatenak.

Mobilizazio horiek parte-hartzaileen narrazio eta bizitzetan hartzen dituzten esanahi ugari multzoak konplexutasun maila handia gehitzen du. Parte-hartzaile batzuentzat beraien bizitzan oso presente duten LGTB* komunitatearekin egiten duten *beste ekimen bat gehiago* da, eta ematen zaion ikuspegi politikoak, aldarrikapenen norabideak edo izaerak arduratzen ditu. Beste parte-hartzaile batzuentzat komunitate horren babesa sentitzeko aukera urrietakoa izan daiteke, eta beraz bertan egote hutsa eta babestua sentitzea nolabait nahikoa litzateke. Leloak, pankartan nor dagoen edo amaierako komunikatuaren irakurketa bigarren plano batean daude. Baina bizipen desberdin horiek ez dira soilik politizazio maila ezberdinen ondorio, eta ezinbestekoa da haien atzean dauden egiturazko egoerak ere irakurtzen jakitea.

Ataka bat, definizioz, bide estu bat da, baina ez dakigu nora eraman dezakeen eta hura zabaltzeak efektu ugari ditu, talde eta koordinakundeen mezuak erradikalizatzeak izan ditzakeen bezala. Alde batetik, erradikalizatzeak politizazio lerroak irekitzen ditu eta gauza ziurra da jende asko horietara batu daitekeela une batean edo bestean. Bestetik, distantzia bat ireki dezake, edo kolektiboen eta komunitateko kideen artean dagoen distantzia handitu. Hirugarrenez, kontaktu lerroak luza ditzake beste talde eta kolektibo batzuetara, mobilizazio horien mezuak gero eta interseksionalagoak diren heinean aliantza berriak posible egiten dituztelako. Esaterako, Bilbo eta Donostiako koordinadorek kapitalismo arrosaren inguruan egindako irakurketak lotura handia du hiri horietan espekulazioaren, gentrifikazioaren eta turistifikazioaren kontra ari diren ahots kritikoen diskurtsoarekin. LGTB* identitateen kapitalizazio prozesu horiek hirien eraldaketa komertzialaren bilakaeraren parte bezala ulertuz, elkarlanerako atak irekitzen dira auzo-elkarteekin edo espekulazioaren aurka ari diren taldeekin. Taldeek, beraz, etengabeko kartografiak egin behar dituzte diskurtsoen erradikalizatzeak talde barruko harremanei, LGTB* komunitatearekikoei eta beste kolektibo batzuekiko harremanei eman eta kendu diezaiekeena ulertzeko.

220 2019ko Bilboko eta Gasteizko manifestazioen lema “Stonewall mugarri, kaleetan harro. La lucha sigue” zen. Donostiakoa “Harrotasuna ez dago salgai, Donostia ere ez”. Iruñekoa “50 urte borrokan. Diverses y combatives”.

Neoliberalismoaren ideologiak norbanakoaren esperientziari leku pribilegiatua ematen dio, gizaki guztien esperientzia pertsonalek balio bera dutenaren ilusioa zabalduz eta, horretarako, ezinbestekoa du kokapen estrukturalak ezkutatzea. Horregatik, bazterkeria gertakari indibidual bezala ulertuz gero zaila da maiz bazterkeriaz hitz egitea, eta horregatik ere sortzen dira *status quo*a mantendu nahi duten kontra-diskurtsoak, esaterako, gizon heterosexualek baliatzen dutena gay gizonen presentziak ezeroso sentiarazten dituela diotenean. Herri mugimenduen jardunean, identitateak politizatzea indibidualizazio prozesu horren kontrakoa da eta ezinbestekoa du niaren ideia liberala baztertzea, horretarako esperientzia pertsonalaren nozioa berrikusiz. Aitzitik, mugimenduentzat ezinbestekoa da banakotasunetik hitz egiten ari diren ahotsak ere entzun eta haiengana gerturatzeko ahalegina egitea.

Despolitizazioa estuki lotuta dago aldarrikapenen indibidualizazioarekin. Izan ere, izaera juridiko eta administratiboa duten aldarrikapenek zentraltasuna hartzean, atomizazio prozesuok goia jotzen dute: norbanakoei bakarrik aitortzen zaizkie bete-beteko eskubideak, baina onarturiko egitura sozialetan (nagusiki ezkontzan eta familian) parte hartzeak baldintzatzen ditu eskubideok. Horrek ez dakar soilik agendaren indibidualizazioa, baita bere pribatizazioa ere, izan ere, onartzen diren eskubide eta askatasun urriak espazio pribatura eramane behar baitira. Horregatik erasoak biderkatu egiten dira espazio publikoan, jokoan dagoen espazioa delako. Josan Langaridak ondo azaltzen du prozesu hau gizonen artean espazio publikoan gertatzen diren sexu harremanak eta haien gune espazial eta sinbolikoak aztertzen dituenean (Langarita Adiego 2015).

Gatazka sozialak ulertzeko eta borrokatzeko ikuspegi sakonagoak eskaintzen dizkigute ikuspegi erradikalek, baina maiz mugimenduen *ghettizazioa* ere ekar dezake, eta zaila da oreka mantentzea bi norabideen artean: diskurtsoak erradikalizatu eta gutxi batzuentzako eskuragarri egin edo diskurtso zabalak egin baina azaleko eraldaketak egitera mugatu. Une honetan hegemoniaren diskurtsoekiko (Day 2016) distantzian daude taldeak ene ustetan, eta posizio horietatik arrakalak irekitzen dituzte, LGTB* politiken diskurtso hegemonikoak sortzen dituen albo-kalteak salatuz, besteak beste, homonormatibitatea eta homonazionalismoa. Taldeak kontziente dira LGTB* politikek, ikuspegi erradikal eta kritikotik bideratu ezean, oso erraz errepikatu ditzaketela arrazakeriaren diskurtso eta politikak. Gure ingurunean diskurtso horiek bereziki lotuta egon dira ijitoen, islama erlijiotzat dutenen (edo horren itxura dutenen) eta Latino Ameriketako herritarren kontrako aurreiritziekin. Gizarteak, aurrejuzgu horien bidez, homofobia eta tradizionalismoarekin parekatzen ditu komunitateok. Ez naiz berriro homonazionalismoaren inguruko azalpen teorikoekin luzatuko, baina ez nuen atal hau fenomeno horri erreparatu gabe amaitu nahi. Talde eta ekintzaileek beren diskurtsoak erradikalizatzearen ondorioetako bat arrazakeriaren eta nazionalismoaren diskurtsoei mugak jartzea da, LGTB* politikak beste talde batzuen diskriminaziorako erabiltzea ekidinez eta arrazakeriaren kontrako ekimenekin kolaborazio lerroak irekiz.

Azpiatal honetan nazioarte mailan ikuspegi geopolitiko eta ekonomikotik gertatu diren aldaketek LGTB* politikei nola eragin dieten aztertu dugu, hala nola estatu espainiarrean legedian eta iruditegi kolektiboan sortu diren eraldaketena. Hurrengo atalean LGTB* borrokan protagonista izan daitekeen subjektua eraikitzerakoan testuinguru guzti horrek ezartzen dituen muga eta aukerez hausnartuko dut.

4.5.2 ESPERIENTZIAK, NORTASUNAK, SUBJEKTIBOTASUN POLITIKOAK

«They told us we were girls, how we talk, dress, look and cry
They told us we were girls so we claimed our females lives
Now they tell us we aren't girls, our femininity doesn't fit
We're fucking future girls living outside society's shit!
We're from the future, not from the past
We live our own way not up history's ass
(...)
the future, faggots and femmes».

G.L.O.S.S., "We're from the future" (Sabotage Records, 2015)

«Con repentino valor decidió que no iba a morir. Dice que dijo ahora o nunca y volvió a la superficie. El ascenso le pareció interminable; mantenerse a flote, casi insoportable, pero lo consiguió. Esa tarde aprendió a nadar sin brazos, como una anguila o como una serpiente. Matarse, dijo, en esta coyuntura sociopolítica, es absurdo y redundante. Mejor convertirse en poeta secreto».

Roberto Bolaño, "Estrella distante" (Anagrama, 2013)

LGTB* politikak, beste politika eta mugimendu batzuekin batera, politikoa denaren eta ez denaren arteko mugak esploratzen ari dira, esperientzia pertsonala politikotzat jotzean irekitzen diren potentziak aztertzen ari dira, subjektu bakoitzaren barruan dagoen eta Audre Lordek azaldu zuen anibalentzia zuketuz: norberaren zapalkuntzaren iturria eta boterearena gauza berbera dira, eta gorputz bakoitzaren barruan kokatzen dira (Lorde 1988:26). Subjekzioaren izaera bikoitz hori paradoxa bezala presente dago LGTB* politiken jardunean: gure sexualitate eta genero *bizinortasunek* bizi dugun zapalkuntzan dute jatorria eta, aldi berean, hortik sortzen diren identitateak eta posizioak ezinbestekoak ditugu izateko eta zapalkuntzen aurka borrokatzeko.

Planteamendu hauen bidez, eta mugimendu feministaren ekarpenak hedatuz, ekimenok arrazionaltasunaz harago doazen subjektu politikoak artikulatzen ari dira, eta politikaren izaera birpentsatzen. Mari Luz Estebanek (2017) Euskal Herriko testuinguruan feminismoak politika ulertzeko dugun moduari egin dizkion ekarpenak eta eragin dizkion barnekontraesanak aztertzen ditu²²¹. Horien artean, militantzia ulertzeko moduetan feminismoaren izaera holistiko eta zeharkakoak nolako eragina izan duen edo esperimentazioaren eta norbere transformazioaren garrantzia areagotzeak agenda politikoak noraino eraldatu dituen. Azken horren haritik, esango nuke gorputza eta norbanakoa erdigunean jartzeak, eta bere esperientzia eta bizipenari balioa aitortzeak, subjektu politiko berriei ekarpena egin diela, eta bidea ireki diela LGTB* politika askori ere. Subjektu politikoa jada ez da kondizio objektibo eta neurgarrien bidez soilik eratzten, bere zapalkuntzaren bizipena ezinbestekoa da subjektibatze prozesuan eta mugimenduek horren arabera antolatzen dute haien diskurtsoa ere. Transposizio horren bidez, politikak emozioak barne hartzen ditu, zeren, azken finean subjektua eta gorputza baldin badira politikaren korapiloa, ezinezkoa da bi alderdi horiek banatzen dituen zatiketa cartesiarra mantentzea. Bestela esanda, zapalkuntzak sortzen dituen sentipenen artxiboa eta aktibismoa bera banaezinak dira (Cvetkovich 2018). Azertu dugun bezala, prozesu horrek aukera eta arriskuak dakarzkie mugimenduei, potentzia horiek indibidualizaziorako ere erabil daitezkeelako.

Emozio horien artean minak espazio berezia duela dirudi. Aktibisten kontakizunetan era esplizituan gutxitan azaldu den arren, minak zeresan handia dauka aktibismoaren motor bezala. Talde eta kolektiboak elkarren zauriak zaintzeko espazioak ere izan daitezke, baina “zauritasuna” abiapuntu egokia izan arren helduleku arazotsua izan daiteke. Braidottiren ustez, minetik eta zauritik sortzen den malenkonia eta dolua ez dira berez negatibo edo atzerakoiak, elkartasunerako aukera eskaintzen duten heinean. Hala ere, aldi berean, haren mugak kontuan hartzea ezinbestekoa da mugimenduentzat eta pentsamendu kritikorentzat:

Mi tesis es, sin embargo, que la política de la melancolía se ha vuelto tan dominante en nuestra cultura que ha terminado por funcionar como una profecía autocumplida, que deja estrechos márgenes para aproximaciones alternativas. Nuestro contexto político conservador, además, ha puesto un acento excesivo en los riesgos conectados con los cambios, repitiendo hasta la náusea el estribillo de la muerte de la política transformadora (Braidotti 2018:172).

221 “Esan bezala, teoria eta praxi politikoaren berrikuspenak eta kritikak zabalduz joan dira azken hamar-hamabost urteotan, batez ere dogmatismo eta zurruntasunaren aurrean, malgutasuna, esperimentazioa eta autotransformazioaren beharra, eta errealitatearen azterketa irekiagoak eta konplexuagoak proposatuz. Eta hortxe, feministen inzidentzia erabatekoa izan da” (Esteban 2017:33).

Oso gai delikatua da hemen planteatzen dena eta esperientziak diosku aktibismoaren munduan gai hau ukitzea zaila dela oso. Biktima estatusaren eta biktimizazioaren inguruan egiten den hausnarketa oro kontu handiz egin beharrekoa da eta, horregatik, Braidottik bezala maila filosofiko eta abstraktuan egiten denean errazagoa da ulertzen eta, aldiz, gai zehatzen inguruan planteatzen denean, arazotsuagoa. Gogora ditzagun, adibide gisa, Virginie Despentesek (2017) bere *King Kong teorian* indarkeria sexualaren inguruan idatzitakoek sortutako eztabaidak, non emakume askok adierazi baitzuten bere planteamenduak iraingarriak zitzaizkiela. Duela gutxi, Miquel Missé trans* aktibistak prentsa artikulua argitaratu zuen El País egunkarian trans pertsonen feminismoan izan behar duten espazioaren inguruko polemikaren kariatara²²². Bere artikulua argumentu nagusietako bat da trans* pertsona eta mugimenduek postura biktimistak albo batera utzi behar dituela. Maila horretan, mugimendu feministak trans* pertsonak barne hartu behar dituela uste badu ere, ez du uste komenigarria denik iritzi horren aurkako oro transfobia terminoaren azpian kokatzea. Bere ustez, bai emakume transak mugimendutik kanpo utzi nahi dituztenak eta bai mugimendu barruan egon daitezela defendatzeko transak “benetako emakumeak” direla argudiatzen dutenak, biak ala biak daude marko esentzialista batean kateatuak. Artikuluak erantzun sutsuak ere sortu zituen, tartean Rebelión Feminista blogean publikatu zena²²³. Erantzun horretan Misséren argumentuak gogor kritikatzeko ziren trans* bitarrak diren pertsonen errealitatea ukatzen delako eta horrek trans* komunitate barrutik etorritako transfobia adierazten duelako. Era berean, Misséren gizontasun pribilegioa mahai gainean jartzen du, adieraziz bere artikuluan transfobiari ematen dion tratamendua bere posizioak mugatzen duela: artikuluan hizpide zuen Xixongo kongresuan emakume transen kontra hitz egin zen batik bat.

Kasu horiek adibideak besterik ez dira, baina biktima estatusa zalantzan jartzearen konplexutasuna eta gai honekin izan beharreko zuhurtzia esplikatzen dute. Eztabaida politikoan ezinbestekoa da gure hitzek sortu ditzaketen efektuak neurtzea, eta hala egin ezean gure argumentuek eztabaida produktiboa sortu ordez kale eta kalte egiteko arrisku handia dugu. Iritziek, izan ere, desadostasuna sortzeaz gain, mina ere sortu dezakete. Desadostasunak ohikoak dira, LGTB* politiken inguruan iritzi eta planteamendu oso

222 2019ko uztailean eztabaida sutsua sortu zen sare sozialetan “Rosario de Acuña” eskola feministak Xixonen antolaturiko jardunaldi batzuen kariatara. Jardunaldiotan, hainbat hizlarik trans* emakumeak feminismotik kanpo uztea defendatu zuten, mundu anglosaxoian TERF (“Trans-Exclusionary Radical Feminism”, “Transak Baztertzearen aldeko Feminismo Erradikala”) bezala ezagutzen diren posturak defendatuz. Hainbat banako eta kolektiboek beren arbuioa azaldu zuten ekimenaren aurrean eta postura horiek onartezintzat jo zituzten, emakume transak baztertzen dituelako eta transfobiaren adierazle direlako. Polemika horren haritik idatzi zuen Missék “No ofende quien quiere” artikulua. <https://labur.eus/1INNN> loturan kontsultatu daiteke. Azken kontsulta, 2019ko abuztuak 23an.

223 <https://labur.eus/Ly8il> 2019ko abuztuak 23an kontsultatua.

ezberdinak baitaude, baina iritzi aniztasunaz harago, esango nuke biktimizazioaren gaiari dagokionez, hura tratatzeko moduak berak zeresan handia duela eztabaida hauetan guztietan. Horrek ez du esan nahi ezin direnik salatu egungo kapitalismoan eta gizarte liberaletan esperientzia pertsonalari ematen zaion zentraltasunaren eta, beraz, politikaren oinarrian kaltearen edo min pertsonalaren ideia jartzearen arriskuak, baina, paradoxa bada ere, min horiek kontuan hartzea ezinbestekoa dateke kritika hau ondo artikulatzeko.

Tesiaren idazketa prozesuan jazo zitzaidan gertaera bat kontatu nahiko nuke, honen kariatara. Tesi bat egin duen edonork badaki oso ohikoa dela lan horrekin tratatzea prozesuaren une ezberdinetan. Tesi bat egiteak, ikuspegi emozionaletik, gure izaeraren zoko ugari ukitzen ditu: gure baliagarritasuna demostratu beharra, ordenatuak eta sistematikoak izateko gaitasuna, edota lan bat hasi eta bukatzekoa. Gure genero, klase, posizio, biografia eta egoera sozialaren arabera, eginbehar horiek guztiek emozio ugari loratzea ekar dezakete, eta ondorioz maiz buxatu egiten da ikerketaren jariora. Hala izan da nire kasuan eta baita inguruan izan ditudan lagun askoren kasuan ere. Halako tratatze une batean konfiantzazko terapeuta batekin saioa egin nuen tesiaren inguruan eta kapitulu honetan presente dauden hainbat gai somatizatzen ari nintzela ulertu nuen. Esaterako, paralelismo bat zegoen LGBTB* politikak agenda berriak sortzeko dituzten zailtasunen eta neuk analisisian proposamen berriak egiteko nuen zailtasunen artean. Biktimizazioaren gaiari dagokionez antzera gertatu zen. Zeintzuk dira nire motibazioak tesi hau idazterako orduan? Zer leku jokatzeko zuen minak, zauriak eta, ondorioz, biktimizazioak LGBTB* politiken inguruko analisi bat egiteko nuen desioan? Nire mina tesian bilatu behar izan nuen eta, horretarako, baliagarria egin zitzaidan nire buruari egindako elkarrizketa esploratzea. Nerabezaro eta gaztaroko min gisara bizi nuen, besteak beste, politizazio handiko gune batean hazi izana eta, aldiz, askoz beranduagora arte sexualitatearen inguruko aktibismorik egin ez izana. Nire biografia propioan biktimizazioak zuen paperaz hausnartzeko aukera izan nuen: homofobiagatik era zuzenean pare bat aldiz besterik ez naiz izan “biktimizatua”, baina aldi berean nire sexu aukerak nire bizitza ia osoan izan duen eragina handitzat dut, klase jatorriarekin batera.

Aldi berean, minaren gestioa egiteko zailtasunek tesiaren idazketan izan dezaketen eraginaz gogoeta egiteko aukera izan nuen, nire beldurrik handienak bi zirela ohartuz. Beldur hauetan lehena ezer berririk ez esatea zen, beste lan akademiko batzuekin ere bizi izan dudana. Lehenago ere aipatu dut elkarrizketatutako askok oso erregistro landua dutela haien iritzien inguruan hitz egiteko eta, testuinguru horretan, zalantzak sortu zaizkit nik gehitu dezakedanaren inguruan. Zein da nire analisisa elkarrizketatuek jada analisi konplexuak egiten badituzte? Bigarren beldurra zuzen-zuzen lotzen da minaren kudeaketarekin: nik esandakoekin edo egindako analisiekin ikerketan parte hartu duten pertsona edo taldeei mina egitearen ideiak izutzen ninduen. Minak, horrela, zirkulu bat ixten zuen: LGBTB* politiken bultzatzaile izan daiteke mina; eta politika horiek aztertu, balioa aitortu eta ekarpenez

janzteko nire asmoaren bultzatzaile ere izan daiteke. Baina minak atzetik bultza egiten digun bezala, parez pare minarekin topo egiteko aukera ere badugu, eta are min berriak topatzekoa ere. Zer egin minarekin, orduan? Nola jokatu desagertuko ez den elementu horrekin? Eta, dagokigun gaiari eutsiz, nola jarri zalantzan herri mugimenduetan biktimizazioak jokatzen duen rola min berriak sortu gabe?

Wendy Brownek (1995) Nietzscherekin hasten du minaren eta zauriaren inguruan egiten duen bidaia. Filosofo alemaniarren erresuminaren nozioa baliagarria izan zaigulakoan dago Brown, eta hari horretatik tiraka eraikitzen du bere arrazoiketaren zati bat. Erresumina, Nietzscheren ustez, botererik gabekoen mendeku moralizatzailea da eta gainditu ezinako frustrazioan du jatorria: iragana ezin da aldatu, ezin da denboraren kontra egin. Iraganean gertatu den zapalkuntzak sortzen du erresumina eta hortik datoz amorrua, gertatu denaren erruduna bilatzeko beharra eta mendekurako desioa. Brownen iritziz, zapalkuntza ugaritatik sortzen diren subjektu politikoek ere erresuminean erortzeko arriskua eta bi efektu sortzeko gaitasuna dute: jabekuntzaren bidez haien askatasuna bilatu dezakete edo paralisi politikoa sortu dezakete (Brown 2015:70-71). Maila horretan, identitateok ez dute beti erresuminaren egitura iraultzen, egiturazko nortasunok bere inpotentzia propioan hertsia daudelako: identitateok sortu dituen egitura bera beharrezkoa dute bizirauteko²²⁴. Paradoxa hau konpontzeko aukera bakarra iragana aldatzea litzateke, edo berau emendatzea nortasun horretan inbestitzeari utziz. Nietzscheren proposamena ahanztura da, ezinbestekoa bide da iragan hori ahaztu eta aurrera begira jartzea. Baina zer ekarriko luke ahanzturak?

Iraganean inbestitzeari uztea zapalkuntzek sortutako identitateok alboratzea bada, mina aldaezina eta ikusezina bilakatzen da, eta betikotu egiten da. Ezabaturiko historia, lurperatutakoa, gaur egungo minaren eta zapalkuntzaren elementu garrantzitsuetakoa da eta, beraz, ahanztura bere horretan aldarrikatzea krudelkeria litzateke. Zer egin daiteke? Une horretan Brownek Nietzsche alboratuaren beharra argi ikusten du. Erronka erradikalki demokratikoa den kultura politikoa sortu eta elikatzea litzateke, despolitizazioa ekidinez: *“erronka horren parte da kontuz ibiltzea politika diskurtso terapeutikora eramatearekin eta aldi berean esku artean dauzkagun sufrimendu eta osatze elementuak aintzat hartzea”*

224 Guy Hocquenghemek ildo beretik hitz egin zuen hamarkada batzuk lehenago Deleuze eta Guattariren talde iraultzaileen eta talde subjektuen arteko banaketaz jardutean. Talde iraultzaileek boterea hartu ostean ere zapalduak jarraitzen dute; talde subjektuek aldiz berezitasun bat dute: haien inbertsio libidinalak dira berez iraultzaileak eta, beraz, norbanakoaren eta kolektiboaren arteko langa gainditzen du. *“El grupo formado por individuos, el grupo fálico y jerarquizado, es sometido; obedece a las instituciones civilizadas de las que retoma los valores porque cada individuo se siente más débil que las instituciones, porque el tiempo de cada individuo está marcado por la muerte frente a instituciones en apariencia inmortales. En el grupo sujeto se supera la oposición entre colectivo e individual, el grupo sujeto es más fuerte que la muerte porque las instituciones le parecen mortales. El grupo sujeto homosexual, circular y plano, anular y sin significante, sabe que la civilización es mortal, y sólo ella”* (Hocquenghem 2009:128).

(Brown 2015:75). Ezin ditugu aspektu politikoak terapeutikoetara murriztu baina *ezta* ezikusia egin ere sufrimenduei eta haien prozesuei. Esku artean darabildan eztabaidarako oso garrantzitsuak diren elementuak proposatzen ditu Brownek, aipatu dudan biktimizazioaren kasuan aplikatu beharrekoak: biktimizazioan eta minean trabaturiko politikak kritikatu nahi baditugu, min eta erresumin horiek denak inoiz baino presentego izan behar ditugu.

Baina nola egin aurrera minean oinarrituriko subjektu politikoa zalantzan jarri ostean? Zeri eusten ahal diogu? Brownek ezkerren politiketan sintaxia aldatzeko deia egiten digu. “Ni naiz” esaldia “nik guretzako nahi dut” esaldiagatik aldatzea proposatzen digu. “Izan” eta “nahi” aditzen arteko trukaketa horrek zauriaren aurreko unera jauzi tenporala egiten lagun dezake. Min hori une historiko bezala ulertuz, “nahi” aditza konjurtzea zapalkuntzak zauria ireki aurreko unean genuen askatasunaren ideia berreskuratzea da, kolpearen aurreko desioa irekitzea. Aditz aldaketa horrek, txikikeria dirudien arren, aukera ematen digu nortasun politiken kontra ezker humanista nostalgikotik zein eskuinetik egin diren kritikak neutralizatzeko. Ez hori bakarrik, arazoa berriz politizatzeko aukera ematen digu:

Rather than opposing or seeking to transcend identity investments, the replacement -even the admixture- of the language of "being" with "wanting" would seek to exploit politically a recovery of the more expansive moments in the genealogy of identity formation, a recovery of the moment prior to its own foreclosure against its want, prior to the point at which its sovereign subjectivity is established through such foreclosure and through eternal repetition of its pain. How might democratic discourse itself be invigorated by such a shift from ontological claims to these kinds of more expressly political ones, claims that, rather than dispensing blame for an unlivable present, inhabited a necessarily agonistic theater of discursively forging an alternative future? (Brown 2015:76).

Esan genezake puntu honetan elkartzen direla Braidottiren eta Brownen proposamenak. Minaren inguruan Braidottik egindako hausnarketak hona ekarriz gero, berehala konturatzen gara bere kezka norabide berean doala. Azken lanetan politika askatzaileek humanismoaren begirada gaintitzearen beharra azpimarratu du Braidottik (2015; 2018). Alde batetik, gizakia eta aurrerabidea erdigunean jartzen dituen ikuspegia zalantzan jarri beharra dagoela aldarrikatzen du, lurrarekin, beste animaliekin eta makinekin nahasten den subjektu baten alde, zeina bizitzarekiko (“zoe”) harreman estuagoan dagoen. Bestalde, horrek halabeharrez identitateak ezegonkor bezala baina *aldi berean* gorputzu bezala ikustea dakarrela dio. Identitateak deseraikitzea ez delako, haren ustez, gorputzak eta materialtasuna desagerraraziko lituzkeen abstrakzio maila handiagotara jotzea. Gorputza da minaren lekua, baina baita desioarena ere, eta desio horrek askotariko norabideak ditu, kaotikoak, kontrolaezinak eta etengabeko bilakaeran (“devenir”) daudenak.

Consideremos seriamente la cuestión del dolor. El dolor en nuestra cultura, por costumbre y tradición, está asociado al sufrimiento y, en consecuencia, se caracteriza por connotaciones negativas. Pero intentemos leer un poco más crítico esta conexión asociativa: ¿qué nos dicen el dolor y el sufrimiento? Que nuestra subjetividad consiste en afectividad, interrelacionalidad y fuerzas. El núcleo del sujeto es el afecto, la capacidad de afectar y ser afectados. Intentemos, por ende, desde ahora, despsicologizar la discusión, no para negar el dolor, sino más bien para encontrar modos para seguir funcionando en su presencia (Braidotti 2018:172).

Judith (Jack) Halberstamek (2011) ere ahanzturaren potentziak aztertzen ditu, oraingoa ikuspegi queerretik. Ahanztura huts egite forma bezala aztertzen du, hura beste porrot forma batzuen alboan kokatuz. Ikerketa kulturalen talaiatik, masa-kulturaren adibide bat erabiltzen du bere ikuspegia argudiatzeko: “Finding Nemo” (Andrew Stanton eta Lee Unkrich 2003) filmeko Dory arrainaren pertsonaiak baliatzen da ahanzturak duen balioa aldarrikatzeko. Doryk epe laburreko memoriarekin arazoak ditu. Etengabe galdetu behar du non dagoen, zertan ari den, nora doazen eta zein den alboan duena. Pelikulak aurrera egin ahala, bere seme Nemoren bila dabilen Marlin arrainaren lagun egingo da. Aitzitik, memoriarekin dituen arazoak dira, Halberstamen ustez, Dory eta Marlinen arteko laguntasuna maitasun-harreman eta familia normatibo bilakatzeko eragozten dutenak. Horren ondorioz, filma amaitzean Marlin eta Dory ez dira bikote bilakatu, Dory ez da Nemoren amaorde, eta ez dute pelikuletan ohikoa den familia eredu ohikoa sortu. Beraien artekoa funtzionala izan zitekeen ikuspegi familiaristatik, baina bost minutuero berrabiarazten den memoriaren sistema horrek funtzionaltasuna oztotzen du. Halberstamen iritzian memoria galera normatibotasunari eta pentsamendu edipikoari (Edelman 2014) oztotoak jartzen dizkion bedekapena da.

Ahanzturaren inguruan jarduten du Anne Cvetkovichek (2018) ere. Traumaren inguruko ikerketan aritu da pentsalari hau, eta bere ustetan, trauma erabat ez ezabatzeak ere badu potentziarik. Freudismoaren pentsamoldeari jarraituz, presio sozialak doluaren eta nostalgiaren arteko banaketa garbia egiten du. Heriotza edo galera baten aurrean dolua normala da, baina era egokian gainditu ezean nostalgiaren patologiari irekitzen zaio atea. Era egokian gainditzeak, noski, ahaztea dakar, besteak beste. Cvetkovichek gutxienez bi ekarpen egiten dizkie traumaren ikasketei ikuspegi *oker* batetik. Hasteko, traumaren beraren definizioa zabaltzen du, haren abiapuntuak gertaera edo galera zehatz eta denboran ondo kokatuak baino gehiago direla esanez. Esaterako, AEBtako Hiesaren krisia aztertzen duenean, gay komunitateetan trauma kolektiboaren iturburuak anitzak zirela uste du. Bada pertsona zehatzen, maitale eta lagun heriotzek sortutako trauma, baina baita bizimodu zehatz baten galerak dakarrena ere: sexua berriz ere beldurrez eta prudentziaz hartu beharra edo harreman ireki eta anitzetan oinarritutako komunitate baten galera. Trauma, hortaz, ez da soilik gure bizitzan une kronologiko batean gertatu den zerbaiten arrastoa. Bigarren ekarpena nostalgiaren erabilera politikoan legoke: queer komunitate politikoentzat, ez ahaztea eta trauma sozialaren memoria bizirik mantentzea ezinbesteko baliabideak izan daitezke.

Teorilariok subjektibotasun kolektiboaren auzia ulertzeko ideia ugari proposatzen dituzte. Nondik abiatzen da subjektibotasun hori, zer baliabide darabiltza bere burua sortu eta eraldatzeko? Elkarrizketatutako taldeek memoria historikoaren garrantzia aipatu dute hainbatetan, genealogia eraldatzaileak sortzearen garrantzia, baina, aldi berean, zailtasunak dituzte LGBT* politikek hainbat une historikotan jarraitu dituzten ildo eta estrategiekin identifikatzeko. Bereziki arazotsua da nortasun horiek finkatzen eta “izozten” joan diren heinean sortu diren tropo nominalekin bat egitea: “gay”, “lesbiana” edo “transexual”, besteak beste. Espazio horiek erreklamatzeko dituzten neurri berean ukatu egiten dituzte taldeok; ezinbestekoa dute identitate horien memoria bizirik mantentzea eta, halaber, haiek traizionatu eta ukatzea. Horrekin batera aipatu izan dute beraien nortasun sozialek ekarritako minak haien aktibismoaren iturri direla eta, Cvetkovichek (2018) dioen bezala, askotan zaila dela terapia eta aktibismoaren arteko marra argi marraztea. LGBT* subjektuok gure minak ahaztea haiek alboan izatea bezain beharrezkoa dugu, gure komunitatearen gaitasun politikoa ahalbidetzen dutelako. Maila horretan badirudi minarekin ari garela aktibismoan, eta ez mina gaindituz, nahiz eta gehienetan hori ez den esplizituki aipatzen. LGBT*fobiaren trauma kolektiboak nolabait gure ekintzaitza hauspotzen du, baina ezinbestekoa dugu leku horretan harrapatuta ez geratzea gure sexualitate eta genero bizinortasunek ezarritako subordinazio egoeran geratu nahi ez badugu.

Dory arrainari gertatzen zaion bezala, talde eta kolektibo hauei etengabe “non nago” galdera egitea tokatzen zaie, eta elkarrizketetan argi ikusten da hori, bereziki borroka-subjektuaren inguruko eztabaidaz ari garenean. Subjektua behin definitzea eta horrekin aurrera egitea ez da nahikoa. Lan handia da etengabe errealitate sozialaren inguruko irakurketak egitea: gure zapalkuntzaren zein elementu normalizatu dira eta zeintzuk ez? Zein aldarrikapenek jarraitzen dute askatzaile izaten eta zeintzuk ez? Zein subjektu dira euren posizioa aldatu dutenak mapa sozialean? Lan horrek, ordea, fruituak ematen ditu normalizazioa zalantzan jartzerako orduan eta gure pentsamolde eta ekintza moduetan sakontzerakoan.

Zergatik, ordea, etengabe normalizazioari oztupoak jarri eta erresistentzia egin, ustez denok nahi dugunean hobeto bizi eta, beraz, normalago? Wendy Brownek normalizazio hitza identitateen erabilera liberalarekin lortzen du:

As liberal discourse converts political identity into essentialized private interest, disciplinary power converts interest into normativized social identity manageable by regulatory regimes. Thus, disciplinary power politically neutralizes entitlement claims generated by liberal individualization, while liberalism politically neutralizes rights claims generated by disciplinary identities (Brown 1995:59).

Nortasun politikoak eta subjektibotasunak azken hamarkadetan herri mugimenduen jarduna aztertzeke ezinbesteko elementua eta jardun politiko herritarraren oinarritzko korapiloa dira. Aurreko mendean nagusiki klasearen inguruan batu zen subjektu politikoa elementu ugariaren inguruan biltzen da egun eta, halaber, subjektu konplexuago bilakatzen da. Askok gertaera hori “identitateen politika” izenpean definitu dute eta ez dira gutxi horren kontra azaldu direnak. Lan honetan parte hartu duten kolektibo eta talde ugariak horren inguruan ere jardun dute. Egundako Euskal Herrian eztabaida hori bizibizi dago: identitateen inguruko politika horiek (emakumeena, migranteena, LGBT* pertsonena...) albora utzi eta klase subjektu bateratua berreraikitzeke asmoa azaldu dute hainbat talde eta norbanakok, kolore ezberdinetako planteamendu sozialista eta komunistetatik bereziki²²⁵. Eztabaida asko laburtuz, planteamendu horien arabera egungo herri mugimendu gehienak gizakion ezaugarri indibidualetan oinarrituz sortzen dute subjektu politikoa, eta ez gure egoera material objektiboan sustraituz. Ildo horretatik, kondizio materialak aldatzen ez dituzten heinean mugimenduok kondizio horiek mantentzearen alde egiten dute eta, nahi gabe bada ere, identitateetan oinarritutako politikak indartzen dituzte. Teorilari feminista batzuek, kontrara, herri mugimendu guztiak halaber identitateetan oinarritzen direla defendatu dute. Subjektuen klase egoera materialetik klase kontzientziara doan bidea ibiltzerakoan, nahi eta nahi ez, identitateetan oinarritzen diren komunitateak sortzen baitira, baita langileen mugimenduan ere (Taylor eta Whittier 1992).

Wendy Brown eztabaida horretan hirugarren posizio bat sortzen saiatzen da. Identitateetan oinarritutako politiken arriskuak ikusten ditu, baina elkarrizketatu ditudan aktibista askok bezala, ez du uste zapalkuntzaren oinarri bakar edo nagusia klase sozialean ezartzeak arazoa konponduko duenik. Aurreko orriko aipuan identitate politiken arriskuok izendatzen ditu: liberalismoak nortasun horiek isolatu egiten ditu, politika “norberaren interesak” defendatzera mugatuz. Erregimen politikoek, bestalde, nortasun horiek kontrol eta maneiu politikorako darabiltzate, hainbat diziplina medio. Horrek identitate horien eraldaketarako gaitasun politikoa mugatzen du, beraien potentzia neutralizatuz. Brownek esplizituki aipatu ez arren, klaseen aferan ere horrela gertatzen da. Azken hamarkadako kapitalismoak langile nortasuna indibidualizatzeko ahalegina egin du horretarako antzeko mekanismoak erabili ditu: langileen eskubideen afera norbere interesen defentsa gisa

225 Azken urteotan, bereziki gazte mugimenduaren adierazpen ezberdinetatik sortu diren talde sozialista berrien inguruan ari naiz hemen, Gazte Koordinadora Sozialista, Gazte Komunistak, Itaia eta hainbat talde autonomo, besteak beste, baita Ezker Abertzalearen hegalean sortu eta azken urteetan planteamendu horietara lerratu den Ikasle Abertzaleak.

aurkezten du eta estatuaren diziplina-boterea baliatu langile nortasun horiek erregulatzeko²²⁶. Langile klasea desagertu dela diote batzuek, baina ez da gauza bera borroka subjektu gisa edo kondizio kolektibo desegin dela esatea. Europa osoan zehar ikus daitekeen eskuineko populismoaren gorakadak bizipen horren gaurkotasuna adierazten digu eta nortasun hori ezkererantz zein eskuinerantz politizatu daitekeela²²⁷.

Nortasun politiko horiek denak, beraz, liberalismoaren eta modernitatearen seme-alaba ez aitortu edo sasikoak lirateke Brownen ustez. Era batean edo bestean liberalismoak sortu ditu, baina horrek ez du esan nahi halabeharrez erosoak edo funtzionalak zaizkionik. Ikerketan parte hartu duten taldeak oso kontziente dira horretaz. Esango nuke sasiko nortasun horiek liberalismoarentzat, kapitalismoarentzat eta erregulazio-erregimenentzat ezerosoak izateko moduen bila ari direla, beraien borrokak berreskuratuak edo reterritorializatuak izatea eragozteko lotura, ideia eta artikulazio berrien bila. Michel Foucaultek 1982an dagoeneko plazaratu zituen hainbat ideia gaiaren inguruan: bere ustez, identitateon xurgapenaren arrazoi nagusia lortu ditugunak mantendu nahi izatea eta, horretarako, identitate kolektiboak egonkortu eta finkatzea da (Foucault 2015). LGTB* politiken kasuan oso nabarmena da elementu hori. LGTB* pertsonen bizi-baldintzetan lortu diren hobekuntzak finkatzeko asmoz indartu dira identitate horiek eta, horrela, maneiagarriak izan dira diziplina-botereentzat eta kapitalismoarentzat. Filosofo frantsesak, ordea, sormenean kokatzen du korapilo horretatik askatzeko bidea. Diziplinaren bidez sortzen eta finkatzen den subjektuak badu erresistentziarako gaitasuna, hain zuzen ere subjektibatze prozesuak eman diona eta badu, hortaz, eraldaketarako gaitasunik ere. Askatasuna praktika bezala aldarrikatzen du eta esango nuke aldarri hori nahiko gertu dagoela elkarrizketatutako talde batzuek, LGTB* politikak eta politika feministak espazio sortzaile bezala defendatzen dituztenean, egin duten planteamendutik.

226 Joera hori urrunetik dator. Sindikatuak enplegudunen eta patronalen zein estatuaren arteko bitartekaritzat hartzeak eragin handia izan du prozesu honetan (Mezzadra eta Neumann 2019).

227 Uste dut garrantzitsua dela eskuin muturreko alderdien eta populismo kontserbadorearen inguruko irakurketa sinplifikatzaileak ez egitea. Esaterako, ohikoa da analista politiko askori entzutea demokrazia liberalek langileen bizi-baldintzak konpontzeko porrot egin dutenez eta identitateetan oinarritutako politika konpentsatzaileak soilik eskatu dituztenez sakoneko eraldaketak ekiditeko, langile klaseek eskuinera egin dutela, inmigrazioaren kontrako diskurtsoak elikatuz, esaterako. Nancy Fraserrek halako irakurketa egin zuen AEBetan Trumpen garaipenaren ostean (<https://labur.eus/8bnVU>, 2019ko urriaren 28an kontsultatua) eta baliteke irakurketa oso egokia izatea, baina ezin da mundu osoko herrialdetara zabaldu baieztapen hori. Estatu espainiarrean, esaterako, hiri eta auzoen arabera oso portaera ezberdinak ikusi ditugu eskuin muturreko bozkari dagokionez, eta kasu askotan baldintza ekonomiko altuekin bizi direnak izan dira boto erreakzionario horren oinarria. (<https://labur.eus/gUcEa> 2019ko urriaren 28an kontsultatua). Horrek ez du esan nahi, ordea, eskuin muturraren bozka dena klase erdi-altuari dagokionik eta, beraz, baieztatu dezakegu langile klasearen inguruan eskuinak egindako demagogiak baduela bere eragina klaseon artean, hain zuzen ere klase-diskurtsoan oinarritukoak diren tropo batzuk ukitu eta manipulatzearen bidez. Gai hau lantzen du, frantses testuinguruan, Dirier Eribonek ere (Eribon 2017).

Teresa de Lauretisek ere (2000), 90eko hamarkadan halakorik idatzi zuen mugimendu feministaren inguruan. Bere ustetan kontraesan menderaezina dago politika feministaren oinarrian: teoriaren bidez generoa desegituratzen du feminismoak (generoak eraikuntza bezala edo, bere hitzetan, teknologia bezala salatzen dituelako), baina praktikaren bidez baieztatu egiten du generoa (emakumeen mugimendua den heinean). Ustezko paradoxa hori behin betiko konpontzea kaltegarria litzatekeela aipatzen du italiarrak, hain zuzen ere mugimendu feministaren muinean teoria eta praktikak elkarrekin bizitzearen ideia dagoelako eta, beraz, alde batera edo bestera jotzea mugimenduaren potentziarik handiena alboratzea litzatekeelako. Lauretis filmen eta irudiaren inguruko ikerketatik datorrenez, esparru horretako metafora proposatzen digu subjektu feministaren inguruan aritzeko: ikuseremutik kanpo kokatzen den subjektua behar dugu. Genero teknologiek, gizon eta emakume bezala sortzen gaituzten heinean, marko mugatu eta ikusgarrietan kokatzen gaituzte, zineman ikuseremua edo “campo” esaten zaion horretan. Laukian sarrarazteko prozesu horretan patriarkatuak sortzen duen “emakume” nortasun singularretik begiratuta, emakumeen identitatea ulergaitz suertatzen da, ezinezko. Ezinezkotasun horri jarraituz (Irigaray 2009) Lauretisek ikuseremutik kanpo kokatzera animatzen du feminismoa, esentzian oinarritzen den identitatean ez kokatzera, hori falogozentrismoak izendatutako emakume identitatean geratzea izango bailitzateke. Aitzitik, laukitik kanpo dagoen eta oraindik definitu ezin dugun nortasun baterantz egin behar litzateke bidea. Desplazamendu hori, teoritik praktikara egiten dena bezala, joan eta etorrikoa da, baina ez da dialektikoa. Aldi berean gertatzen den prozesua da, praktika feminista kolektiboak ahalbidetua. LGTB* politikek feminismoa egindako gerturatzea profitatuz, agian posible da ikaspen aintzat hartzea.

Urte asko joan dira 1972an Guy Hocquenghem (2009) ekintzaile eta pentsalari frantsesak “Desira Homosexuala” idatzia kaleratu zuenetik, gay politiken ikuspegi batetik idatzitako lana. Bere planteamenduak gay identitateak birpentsatzeko abagunea eskaintzen zuen orduan, eta baita gaur egun ere. Identitate homosexuala medikuntzaren eta beste diziplina batzuen “asmakizuntzat”jo zuen, planteamendu hori ezagun egin zuen Foucaultek baino lehenago, eta hala ere sistema ezegonkortzeko potentzia handia ikusten zion. Bere ustez, nortasun homosexuala paradoxikoa da. Diziplina botereen sorkuntza den heinean ez da existitzen eta, hala ere, hor dago sistema ekonomiko osoa zalantzan jarri dezakeen indar ezkutu bezala. Sigmund Freuden Ediporen inguruko teoriak Freuden beraren kontra erabiliz, homosexualitatea sublimazioaren atzaparretatik eta, hortaz, kapitalismo patriarkalaren eskuetatik libratzeko saiakera zen berea. Baina interesgarriena homosexualitateari egozten dion izaera bikoitza da: *“homosexualitatea, aldi berean, bada eta ez da: bere existentziaren nolakotasunak existentziaren beraren ziurgarritasuna zalantzan jartzen du”* (Hocquenghem 2009:25).

Hocquenghemek irudikatzen duen homosexualitatearen kontzeptualizazioa paradoxikoa da. Homosexualitateak ez du berezko izaterik, kategoria bezala erregimen arautzaileen ondorio da, baina aldi berean presente dago bizitza sozialean, eta berorri eragiten dio. Bere ustez bere eragin garrantzitsuena zer den eta zer ez den zalantzan jartzea da, hain zuzen ere: homosexualitatea eredu erabiliz, identitateek erregulazio erregimenekin duten harreman zalantzan jartzeko aukera dugu eta, gizartearen “edipizazioa” kolokan jartzen duen heinean, estekadura sozial kapitalista iraultzeko gaitasuna du. Aitzitik, 1972tik bira asko egin ditu munduak eta, zalantzarik gabe, prozesu horretan identitate homosexuala finkatu egin da eta inflazio handia bizi izan du. Erabat existitzen dela esan dezakegu, erregimen erregulatuarekin ikusezina denak, alegia merkatuak, era monolitikoan bere egin duen heinean. Paradoxikoki, pentsalari eta aktibista frantsesak horren inguruan ohartu zuen bere testu hartan. Zer esango luke 1988an HIESak jota hil izan ez balitz? Ziur aski homosexualitateak sublimazioaren biderei heldu diola nagusiki, bide horretan sakonduz eta, beraz, gizonen arteko konplizitate ez haragitan oinarritzen den kapitalismo patriarkala baieztatuz: “*kontrakorrantea, korrantearen halabeharrezko izaerari erantzuten dion loratze arbitrarioa besterik ez da*” (op. Cit:85)²²⁸. Homosexualitateari izaten utzi zaio, sistemaren salbuespen gisara sistema bera inguratu eta bermatu duen heinean. Ez dago jakiterik zer gehiago esango zukeen baina pentsatu nahi dut desplazamendu baten beharraz hitz egingo ligukeela, existentzia homosexuala desagiteaz, berriz ere existentziaren beraren ziurtasuna zalantzan jar dezagun. Bien arteko distantziaren kontzientzia dudan arren, ez dut ezinezko ikusten hemen Lauretisen planteamenduarekin lotura egitea. Horretaz ari ote zaigu subjektu marika, bollo eta trans* guzti horien eferbeszentzia?

Pentsamendu feministaren oihartzun ugari etorri zaizkit burura LGTB* ekintzaile hauekin elkarrizketak egiten nituen bitartean. Identitateak abiapuntu eta ez helmuga gisara planteatzen dituztenean berehala Adrienne Richen hitzak datozkit gogora, kokapen politikez ari denekoak (Rich 1984). Kokapena, bere ustez, maparen puntu bat da, zeinetan *sortuak garen*, eta zeinetatik *sortu nahi dugun*. Berriz ere subjektuaren izaera bikoitz horretatik abiatzen gara: egiten gaituzte, egiten dugu. Gure atentzioa puntu zehatzetara bideratu eta emakumeengan jartzera animatzen gaitu, baina ikuspegi esentzialista ekiditeko gai da:

228 Gaztelarazko bertsiotan “*La contracorriente sólo es la pequeña parte de gratitud que responde a la necesidad de la corriente*” da berezko esaldia, baina “gratitud” hitzaren zentzua argi ez zegoelakoan ingelesezkoa jo dut argitasun bila. Bertan, esaldiak honela dio: “*The counter-current is merely the gratuitous little flourish that responds to the inevitability of the current*” (Hocquenghem 1993:108). Zentzu horri jarraituz, “necesidad” itzultzeko halabeharrezko (“inevitabilidad”) erabili dut, eta “gratitud” itzultzeko, arbitrario.

Let us pay attention now, we said, to women: let men and women make conscious act of attention when women speak; let us insist on kinds of process which allow more women to speak; let us get back to earth – not as paradigm for “women”, but as a place of location (Rich 1984:214).

Emakumetasuna hemen kokapen bat da, ez singularrean izendatutako emakumearen paradigma. Esango nuke kokapena, ideia eta praktika bezala, une honetan tresna oso baliagarria izan daitekeela identitatearen eta subjektibotasun politikoaren dilema pentsatzeko. LGTB* politiken baitan, elkarrizketatu gehienek beren kokapen propioaren eta besteen kokapenaren berri izan eta hortik sortzeko aukera eta beharra ikusten dute. Horretarako, ordea, kokapen propioa onartzeaz gain, Richen baieztapenaren bigarren atalari ekitea ezinbestekoa da: sortzeari. Sortzeak kokapen berri bat bilatzea dakar eta kokapen horrek sortuko duen forma kolektiboa pentsatzea ez da erraza. Maria Livia Agak (2018) forma hori borobila dela uste du. Bere ustez subjektu bakoitzaren esperientzia eraikitzen duten genealogia partekatuek aukera ematen dute subjektu berri eta eszentrikoak sortzeko. Horretarako identifikazio zuzenen ideia kuestionatu beharra ikusten du:

Dicho de otro modo: hay que matizar la idea de que participar en la vida política coincide con el sentido de pertenecer a una o varias minorías, de que el objetivo de la participación es exactamente alistarse en uno o varios movimientos; es preciso problematizar las propias formas de pertenencia y las posibilidades de demostrar, de traducir esas pertenencias en acciones y estilos de vida (Livia Aga 2018:156).

Lauretisen teorian (2000) indar handia duen kontzeptua da subjektu eszentrikoarena eta subjektu berri, kokatu eta ez asimilagarriaren metafora biltzen du. Livia Agak subjektu politikoaren arteko aliantzak genealogia kokatuen bidez lantzea proposatzen du: nire lekua zein den, nondik natorren eta zein marrak zeharkatu nauten mahai gainean jarri behar ditud, besteek ikus ditzaten eta beraienak mahaigaineratu ditzaten. Hortik sortzen den espazio komuna, botere kokapen ezberdinen ondorioz armonia eta disonantzia ugariren fruitu dena, hutsunea da, inguratzen dugun espazioa. Hain zuzen ere Minnie Bruce Plattetek egiten duen ariketa genealogikoan aipatzen duen bezala *“etxea historia espezifikokoak alboratzearen ondorioz sortzen den ilusioa delako”* (Bruce Platt, 1984, De Lauretis 2000:134n aipatua), ekintza politikorako “etxe” berri bat sortzeak bazterketa horiek berriz sortzeko arriskua suposatzen duenez, hutsunea da aukera bakarra. Iragana eta ahanzturaren kontzeptuak azaltzen zaizkigu berriz ere. Genealogia prozesua, eta areago konpartitutako genealogia, ez da bakoitzak bere lekua aldarrikatzeko tresna, baizik eta elkarrekin hutsunea sortzeko balio diguna. Sormen ariketa horrek iraganaren pisua arindu edo, nolabait, ahaztea dakar. Daniel

Garcia Lopez (2016) ekintzaile eta ikerlariak ere ideia horren alde egiten du, besteak beste, Simone Weilen ideia akordura dakarrenean: politikaren espazioa hutsunea da. Hortik abiatuz, eta hainbat pentsalariren ekarpenak bere eginez (bereziki Esposito, Agamben eta Deleuze, baina baita Braidotti ere) “Rara Avis” subjektu politikoa proposatzen du, albotik agertu baina erdigunea okupatzen ez duena.

Metafora politiko horiek abstraktuegiak izan arren, mugimenduen praktika ugaritan haien oihartzunak suma daitezke. Bai taldeen arteko koordinazioan ari direnean bai eta talde mistoen barruan nortasun ezberdinak artikulatzeko ariketa egiten dutenean ere, espazio huts horren bila ari direla esango nuke. Espazio hori irekitzea prozesu bat da eta asko du egiteko oraindik, parte-hartzaile ugari aipatu duten bezala. Ez dago beldurretik salbu, eta ibilbidean zailtasun ugari dago. Garrantzitsua da onartzea zailtasun horiek jatorri historikoa dutela, eta mugimenduen dinamiketan garrantzia izan duten gertakari ugariaren ondorio direla. Feminismoaren sektore batzuek trans* emakumeekiko izandako errezeloa (oraindik ere gune gutxi batzuetan presente dagoena), lesbianismoak politika feministetan zein LGTB* politiketan izandako kokapen marjinala edo talde mistoetan sexismoak eta zisexismoak duten presentzia, esaterako, ez dira aktibistek asmatzen dituzten istorioak baizik eta mina eta aitortza-falta eragin duten gertaera sorta, parte-hartzaileen genealogietan errotua. Horrek identitate zehatzak defendatu behar izatea eragin du.

Horretaz gain, sexualitate eta generoen inguruan sortutako identitatea gure izaeraren ezinbesteko parte da, lanaren lehen zatian aipatu dudana bezala, eta espazio huts horiek sortzeko identitateok alboratu edo bederen arindu behar izateak beldurra sortzen du:

Miedo, ansia y nostalgia son claros ejemplos de emociones negativas que acompañan el proyecto de separación de un sujeto de las formas familiares y amadas de identidad. Para alcanzar una visión postidentitaria o no unitaria del yo se necesita la desidentificación de las referencias preestablecidas. Semejante empresa provoca un sentimiento de pérdida de las habituales costumbres de pensamiento y representación, y, por tanto, no está privada de dolor. Ningún proceso de toma de conciencia lo está (Braidotti 2018:173).

Braidottik aipatzen dituen emozio horiek²²⁹ ezin dira soilik subjektuen galeraren gaiarekin lotu. Arestian esan bezala, maiz badira pisuzko arazoak subjektu horiek aldarrikatzeko, baina bereziki garrantzitsua iruditzen zait beste aspektu bat azpimarratzea: subjektu espezifikoko bakoitzak bere baitan daraman potentzia. Subjektibatze prozesuak diziplinatze eta normalizazioarekin lotuta egon arren erresistentziarako gaitasuna ahalbidetzen badute,

229 Berak negatibotzat jotzen dituenak, nahiz eta hori eztabaidagarria den, bereziki nostalgiaren kasuan, lehen aipatu dudana Cvetkovichen ikuspegitik.

prozesu horiek sortzen dituzten kokapenek aukera aunitz eskaintzen digute. Esaterako, lesbianismo politikoaren baitako irakurketa anitzek emakumetasuna, amatasuna edo ekonomia politikoa zalantzan jartzeko aukera ematen dute, besteak beste. Subjektu marrikak sexualitatearen eta generoaren arteko loturak esploratzeko eta, bereziki, feminismoarekin aliantzak aztertzekoa. Trans* subjektuek diziplinaren dispositiboak argitara emateko aukera eskaintzen dute (dispositibo juridikoa edo medikua kasu) eta azkenaldian LGTB* subjektu hegemonikoa zalantzan jartzeko arrakala garrantzitsua zabaldu dute. LGTB* politikek ezin diete aukera eta potentzia hauei guztiei bizkarra eman subjektu ireki baten aldeko apustua egiten badute eta, beraz, Lauretisen proposamenean bezala, eszenaren ikuseremutik sartu eta irteten dira. Yuderkis Espinosak ere zalantzan jartzen du identitatearen inguruan egiten den politika orok botereari babesa ematen dionik. Dena den, berauek auzian jartzeko behar argia ikusten du, eta erronka luzatzen du: *“Erronka hau da: bidearen hasieran izendapena egitearen ziurtasuna alhora uzten duen politika eraikitzea, ondoren izendatu den hori deseraikitzeo”* (Espinosa Miñoso 1999:8).

LGBTB* politika asimilazionisten inguruko irakurketa kritikotik abiatuz, mugimenduok aliantza berriak esploratzen ari dira. Talde eta ekimen batzuek instituzioekin eta enpresa munduarekin aliantza egonkorak egiteko bidea hartu dute, eta beste batzuek aliantza horiek kontrako norabidean zabaltzeko beharra sentitu dute. Aliantza horietan identitate politikoak jokoan jartzen dira. Ez dira soilik elkartze estrategikoak, baizik eta mugimendu bakoitzaren izaera bera zalantzan jar dezaketen artikulazioak, eraldaketa dakartenak. Judith Butlerren hitzetan:

Las nuevas formaciones políticas no tienen una relación analógica entre sí, como si fueran entidades discretas y diferenciadas. Se trata de terrenos de politización que se superponen, se determinan mutuamente y confluyen. De hecho, los momentos más prometedores se producen cuando un movimiento social halla su condición de posibilidad en otro. Aquí la diferencia no se reduce simplemente a las diferencias externas entre los movimientos, entendidas como las que distinguen un movimiento de otro, sino, por el contrario, a la propia diferencia en el seno del movimiento, a una ruptura constitutiva que hace posibles los movimientos sobre bases no identitarias, que instala un cierto conflicto movilizador como base de la politización. (...) la diferencia es la condición de posibilidad de la identidad o, mejor, su límite constitutivo: lo que hace posible su articulación y, al mismo tiempo, lo que hace posible cualquier articulación final o cerrada” (Fraser eta Butler 2017:74).

Mugimenduetan gertatzen den artikulazio mota horrek zalantzak irekitzen ditu mugimendu bakoitzaren jardun espezifikokoaren inguruan. Elkarrizketetan hainbat alditan komentatu den bezala, ekintzaileek ez dute argudio oso argirik LGTB/TMBB subjektua mantendu beharra defendatzeko. LGTB problematikari soilik begiratzen dion subjektu politiko batek ez luke zentzurik izango ekintzaile gehientzat, askok aipatzen baitute subjektu hori beste batzuekin harremanean ulertzeko beharra, eta kapitalismoa,

kolonialismoa eta sexismoa kontuan hartu beharra subjektu hori eraikitzerakoan. Baina, aldi berean, ez dituzte sexualitatearen eta generoaren inguruko politikak subjektu bakar horretan disolbatzen ikusi nahi. Berriz ere sexualitateak edo genero biziortasunak izan dezakeen potentzia politikoaren galdera datorkigu gogora. Zertarako eta zergatik LGTB/TMBB subjektu bat edo beste subjektu batzuk? Lesbianismoaz jardutean Sarah Ahmedek egiten duen irakurketa aipatu dugu, sexualitate edo genero biziortasun ez-normatiboa izateak gure munduaren ikuskera *okerra* ahalbidetu dezakeela esanez eta, ondo aprobetxatuz gero, bestelako kuestionamendu batzuei atea ireki diezaiokeela. Norabide berean doa Lorenzo Bernini ere munduaren gaineko begirada *okerraz* ari zaigunean:

Los queer (...) más modestamente podrían darse por satisfechos al constatar que, si no es posible resurgir hacia la vida, en cambio si lo es a cada instante resurgir a otra vida. El orden simbólico heteronormativo de la civilización edípica les asigna a las minorías sexuales el papel de representar el fin de la civilización y la ruptura del vínculo social: estos son por tanto huérfanos de una comunidad por destino. Aún así, estos mismos pueden encontrarse arriba en el norte, o bien de turismo rural por la Toscana: en los intersticios de lo político, donde no solo es posible ejercitar una mirada oblicua sobre el mundo, sino además realizar otro mundo en el mundo (Bernini 2015:152).

Testu honetan Berninik azken urteotan Estatu Batuetako queer ikasketen esparruan izan den eztabaidari eusten dio, ikuspegi queer antisozialaren sorrera aztertuz. Hein handi batean korrante horretan kokatzen dituen autore batzuek duten diskurtsoak (nagusiki Leo Bersani eta Lee Edelmanenak) ez du bat egiten gaur egun Euskal Herriko LGTB* politiken ekintzaile hauek darabiltenarekin. Berninik berak testuaren beste pasarte batean aipatzen duen bezala, zaila da mugimenduetan Bersanik (1995) eta Edelmanek (2014) darabilten negatibotasunaren aldarrikapena topatzea. Azken finean mugimenduek, talde sozial batzuen bizi-egoerak hobetu edo aldatu nahi dituzten heinean, eskuarki etorkizun “hobe” bati egiten diote erreferentzia. Baina badituzte elementu batzuk komunean. Edelmanek “futuraibitatearen” ideologia salatzen du bere liburuan. Umeak kontzeptualki ordezkatzeko duen etorkizuna beti ere desiragarritzat jotzearen ideia garapenarekin estuki lotuta dago, eta hain zuzen garapenaren ideia horrekiko kritika ikerketa honen hainbat unetan azaleratu da, esaterako partaideek LGTB* komunitateen egoeraren eboluzioaz pentsatu dutenean. Batzuek aipatu izan dute “gauzak aldatzea” eta “gauzak hobeto” egotea ez dela gauza bera, bereziki neurgailu bezala eskubide administratiboak eta legeak hartzen ditugunean. Zentzu horretan LGTB* politika *okerren* eta negatiboen aldarrikapen antzeko bat dago mugimenduetan, gizartearen eskaerei erantzuteari uko egin eta integrazioaren tranpan ez erortzeko deia egiten denean.

Ildo horretan, Judith (Jack) Halberstamek (2011) bat egiten du kritika antisozialaren beharrarekin, alegia, queer politikak integrazioa eta etorkizun armoniazkora ez bideratzearekin. Halberstamek Edelmanen irakurketa bikoitza egiten du: bere teoriari balioa ematen dio nahiz eta errepertorio oso maskulinotik eraikia izatearen kritika ere egiten dio eta, ondorioz, *bestelako* negatibotasun bat aldarrikatzen du. Esaterako, haserrearen aldarrikapena egiten du, zaratarena, gaizki portatzearena, eta esango nuke elkarrizketatutako talde batzuek bat egiten dutela aldarrikapen horiekin, adibidez autodefentsa eskubidea edo transgresioa aipatzen dituztenean. Berninirengana bueltatuz, metafora ilun bat proposatzen digu negatibotasun produktibo hori aldarrikatzeko. Bere ustetan queer politika “zonbi” bat beharko genuke egun. Kultura popularrean zonbiaren figurak izandako eboluzioa aztertzen du eta horretarako generoko pelikuletan ezinbesteko diren George A. Romeroren filmak aztertzen ditu²³⁰. Hasierako zonbiak kontzientzia gabeko hildako bizidunak dira²³¹, baina astiro-astiro kontzientzia garatzen dute eta azkeneko pelikularako beraien egoeraren jakitun diren izakiak dira, areago, bizidunen gizarteetan integratu nahi dutenak. Bruce LaBruцен bi film adibide bezala erabiliz²³², queer kulturak zonbiekin izan ditzakeen parekotasunak aztertzen ditu. Zonbiaren figura aldakorra dela aipatzen du, une historikoaren arabera askotariko ezaugarriak hartzen dituen, queer hitzak bezala. Horrez gain zonbiak ezintasuna dira, aldi berean bizirik eta hilda dauden izakiak.

LaBruцен “Otto, or up with dead people” filmean Ottok, protagonistak, pentsatzen du zonbi bat dela (edo hala da?) eta bere herritik Berlinera alde egiten du. Hango gay bizitza ezagutu ostean konturatzen da hori ere ez dela bere lekua. Bere buruaz beste egitea pentsatzen du baina, hain zuzen ere, zonbi bat izateak kentzen dio ideia burutik. “*Nola akabatu nezake nire burua jada hilda banago?*” galdetzen dio bere buruari. Bere negatibotasunaren kontzientziak heriotzatik salbatzen du, paradoxikoki. Berniniren ustez, queer politikak ere horrelakoxeak dira. Badakite (dakigu) hilda gaudela, alegia, gaurko balore sozialetan egokitu nahi ez duten subjektu *okerrak* garen heinean egungo gizarteari “heriotza” dakarkiogula. Horren alternatiba etorkizunaren ideia erosi eta LGTB* politikak ezkontza eskubidean, adopzioan edo eta subrogazioan oinarritzea litzateke. Baina, ikusi dugunez,

230 1968ko “The night of the living dead”, 1978ko “Dawn of the dead”, 1985eko “Day of the dead”, 1990ean egindako 68ko filmaren remakea eta 2005 eta 2009 artean egin zituen “Land of the dead”, “Diary of the dead” eta “Survival of the dead”. George A. Romero 2017an hil zen.

231 Berninik azaltzen du Haitiko herri kulturaren zonbiak (bertako hizkuntzan “nzumbe”) betebeharren bat betetzeko heriotzatik bizitzara ekarritakoak direla, sorgin baten magiaren bidez, eta lurrean diren bitartean ez dutela borondaterik, sorgin horren menpe daudelako.

232 2008ko “Otto, or up with dead people” eta 2010eko “L.A. zombie” dira aztertzen dituen filmak. Bruce LaBruce kanadiar zinema zuzendaria da, AEBetako *queer* punk eszenan zeresan handia izan zuena 90. hamarkadan. Bere pelikuletan pornografia erabiltzen du lengoia antipornografikoa sortzeko (sexu eszenak dituen arren masturbazioa erraztea beste helburu batzuk dituen lengoia sortzea, bere esanetan). Bi pelikula hauek, esaterako, bi bertsiotan kaleratu ziren, sexu eszena esplizituekin eta gabe.

ikerketan parte hartu duten gehienek ikuspegia ez da hori. Etorkizun hori ez aldarrikatzeak ez du eragozten aurrera begira jartzea, hain zuzen ere gure buruaz beste egiteak (LGTB* politikak alboratzeak) ez lukeelako onik ekarriko. Negatibotasunetik abiatzen den komunitate positiboa bilatzea da kontua: politika asimilazionistez asperturik komunitate kritiko berria sortzeko aukera aldarrikatzea, baina komunitate hori idealtzat edo harmoniatsutzat hartu gabe. Ottok, pelikulako azken eszenan, Berlineko gay bizitza komertziala utzi eta iparralderantz jotzen du, agian bertan “bera bezalako gehiago” aurkituko dituelakoan. Queer politikek, politika *okerrek*, LGTB* politikek bere buruaz kontziente den zonbiaren itxura har dezakete:

El zombi consciente, el «metazombi» - por usar la terminología de Grilli (2009) - eleva así la paradoja al cuadrado; reconquistando la palabra y deviniendo en gay, a la teoría queer antisocial se le plantea una pregunta simple y radical: «he tomado conciencia de la negatividad que represento, de la pulsión a la que obedezco, de la muerte que me aguarda: con esta trágica verdad, ahora ¿qué puedo hacer yo?». (...) puedo personificar [en el zombi queer] el dilema de los movimientos LGBTQIA permanentemente divididos por la alternativa entre la asimilación y la contestación, entre demanda de reconocimiento social y desconocimiento de los valores de la socialidad (Bernini 2015:106).

Mugimendua, aitortza sozialaren eta normaltasunaren arau sozialak zalantzan jartzearen artean etengabe dantzan egotea, muga baino potentzia izan daiteke. Azken finean, bi elementu horiek herri mugimenduek egin ditzaketek ekarpen ugariak irudikatzen dituzte: alde batetik, subjektu eta talde batzuen bizi-baldintzak hobetzea eta, bestetik, baldintza horiek sortu dituzten sistemak zalantzan jarriz eredu berriak proposatzeko gaitasuna garatzea. Bi osagai horiek batera gorpuzten dituen mugimendua, zonbi itxura izan arren, aberastasun iturri da herri mugimenduen espektro zabalaren ikuspegitik, eta subjektu politikoak zein estrategiak artikulatzeko orduan arrastoak eman ditzake. Azken finean, desioak halako indarrez zeharkatzen duen mugimendua kontraesankorra eta kontrolaezina besterik ezin da izan.

4.5.3 DESIOA ETA POLITIKA

«Lo "no-político" excava galerías que no debemos rellenar de tierra».

Ida Dominijani "El deseo de política", "La política del deseo. La diferencia femenina se hace historia" liburuaren sarrera (Icaria, 1996)

LGTB* politikak konplexuak dira, besteak beste, mobilizatzen dituzten elementuetako batzuk (sexualitatea, desioa eta genero bizinortasunak) oso propio eta sakontzat ditugulako. Politizazio mekanismoei dagokienean, pertzepzio horrek berezitasun batzuk dakartza, kontzientzia hartzea aldatu daitezkeen ezaugarri kontingenteekin baino, jaiotzetik omen ditugun ezaugarri batzuekin loturik ulertzeko joera dugulako.

Hocquenghemek (2009:113) zioen iraultza eta desioa ez direla ondo konpontzen. Bere ustetan iraultzaren historia desioarekiko desadostasunarena da: iraultzarako desioa duenak ezin du halakorik egin (ez duelako nahikoa botere) eta, aldiz, gauzak iraultzeko boterea duenak ez du horretarako desiorik²³³. 1972ko bere perspektibatik mugimendu homosexualak desioa politikaren eta gizarte bizitzaren erdigunera ekarriko zuela auresan zuen, eta desestabilizazioa sortuko zuela. Ez dakit gauza bera pentsatuko lukeen egun, kapitalismoak desioaz egin duen berreskuratze ariketa ikusiko balu. Berreskuratze hori da Paul B. Preciadorek ustez berak *farmacopornografia* izendatu duen garaia estreinatzen duena. *Potentia gaudendi*, gozatzeko gaitasuna, edo gorputz bat erabat eszitzatzeko gaitasuna litzateke kapitalismoaren elikagai eta promesa handiena egun (Preciado 2008:35). Hortaz, desioa berreskuratzea bataila garrantzitsua da LGTB* politikentzat bizi dugun garaian. Baina ez naiz sexualitatearekiko desioaz soilik ari.

²³³ Jordi Carmona filosofoak ere desioaren eta indar politikoaren arteko harremanaz hausnartzen du prentsa artikulua honetan: <https://labur.eus/Peeq4> (2019ko azaroaren 25ean kontsultatua).

De Lauretis (2000) desioaren alde kontrolaezinak dituen potentziez eta zailtasunez ari zaigu “Irreductibilidad del deseo y conocimiento del límite” saiakeran. Italiako mugimendu feministaren eta lesbiana feministen mugimenduaren arteko eztabaidak abiapuntu hartuta, lesbianismo politikoak eta feminismo heterosexualak hein handi batean harri berean behaztopa egiten dutela uste du filosofoak. Eztabaida horietan behartutako heterosexualitatearen (Adrienne Richen “compulsory heterosexuality”) ideiak talka egiten du desioaren ideiarekin etengabe. Eztabaida korapilatzen den heinean, feminista heterosexualentzat zaila da heterosexualitatea zapalkuntza erregimen bat dela onartzea eta, aldi berean, gizonekiko desioa izatea. Era berean, ekintzaile lesbianentzat zaila da desioa pertsonaltzat hartzea, emakumeen arteko harremanaren bidez aspektu politiko eta etiko ugari esperimentatu dituztelako. De Lauretisek etengabe erregistro soziala eta desioarena nahasten direla uste du eta hortik datorrela ezin ulertua. Horretaz gain, desioaren (edo bere zati baten) izaera kontrolagaitza ere aipatzen du:

En tal visión "política" del deseo y de la subjetividad femenina se ha perdido la cognición de lo no-político, es decir, de los límites de la política. Y se ha perdido el sentido psicoanalítico del deseo como límite interno del yo, es decir, del deseo como negatividad, des-identificación, desmoronamiento, disgregación, dispersión de la coherencia (por no decir de la voluntad) del yo: momento estático de explosión/implosión, en que el yo se separa, se disgrega, no resiste más (De Lauretis 2000:167-168).

Desioak subjektua bera zalantzan jartzeko gaitasuna du, eta jardun politikoak ideia hori presente izan beharko lukeela aldarrikatzen du italiarrak. Feminismotik pertsonala politikoa dela aldarrikatu izan da eta LGTB* politiketatik desioaren elementua politikotzat jo izan da. Ikuspegi horiek kontuan hartuta, akatsa litzateke desioa ez-politikotzat edo politikoa denaren mugatzat hartzea. Baina Lauretisek esan nahi duena ez da desioa ez denik politikoa²³⁴, baizik eta gure politikaren ikuspegi androzentrikoan politikoa dena erabat arrazionaltzat jo dela, subjektibotasun politikoa osatzen duten desio elementuak kontuan izan gabe. Jardun politikoan elementu guztiak kontrolpean izatea ezinezkoa da, azken finean politizazio oro subjektuetan oinarritzen delako eta subjektu horientzat desioa, erregulazioaren hondarra den heinean, desegituratzailea delako. Leo Bersanik ere (1995) ideia hori oinarri hartu zuen “queer teoria antisozial” bezala izendatu direnen abiapuntutzat hartzen den “Homos” liburua idazterakoan. Gizonen arteko sexuan, bere ustez, gizontasunaren ideia (izaki arrazional eta dominatzailearena) zalantzan jartzen da, hain zuzen ere desioak elementu *negatibo* hori

234 Hemen, ziur aski, gakoa desioari ematen zaion ulerkeran dago. Grina sexualaz harago, edo horrekin harremanean, entitate zabalagoztat du desioa De Lauretisek. Honek atea irekitzen digu desioaren kontzeptzio politikoan sakotzentzeko, niretzako bereziki interesgarria eta beharrezkoa.

dakarrelako: plazerak norberaren desagertzea (tenporala bada ere) dakar, eta bereziki sexu analean aritzen den homosexual pasiboak bere gizontasunari uko egiten dio, nolabait²³⁵. Berninirekiko oso kritikoa izan den Tim Deane bat egiten du desioak sortzen duen hausturaren ideiarekin, baina etendura hori ez du negatibotzat soilik jotzen. Bere ustez horren atzetik berreraikitze unea dator:

The movement of coming together only to be plunged into an experience of the nonrelational represents but the first step in Bersani's account of relationality. The second, correlative step is to trace new forms of sociability, new ways of being together, that are not grounded in imaginary identity or the struggle for intersubjective recognition (Caserio eta beste 2006:827).

Lehen atalean erabili dudan Foucaulten mugako esperientziaren (“limit experience”) nozioarekin (Tobias 2005) lotu daiteke Deanen ideia hau ere, eta atea irekitzen dio desioaren berrirakurketa bati. Ildo beretik jotzen du Jose Esteban Muñozek ere, Ernst Bloch marxistarengandik esperantzaren ideia berreskuratu nahi duenean queer politikentzat (Caserio eta beste 2006:825). Esperantzak ez du halabeharrez etorkizunaren ideologian erortzea esan nahi. Esperantzak ez dio biharko egunari begiratzen, aitzitik, gaurko egunaren kontingentzia azaldu, eta aukera guztiak irekiak daudela azpimarratzen du. Etorkizunaren eta denboraren ideia beren baitara bueltatu diren honetan eta, larritasun klimatikoa medio (besteak beste) denborak aurrera egin ordez atzera egiten duela dirudien honetan (Garcés 2017), esperantzaren ideia interesgarria izan daiteke Muñozen utopia *okerrak* irudikatzeko. Utopia *oker* horiek, eta agian horixe da LGTB* politiken berezitasun handietako bat, ezin dira marraztu plan argi baten arabera, etorkizuneko gizarte eredu bat aldeztu definituz. Zein litzateke etorkizuneko gizarte perfektu hori? Generorik gabekoa? Sexualitatearen kategoriarik gabekoa? Berninik zalantzan jartzen du aldeztu definituz halakoak irudikatzea posible denik, ez behintzat desioaren esentzialismoetan erori gabe, sexualitatearen teoriko “freudomarxistek” egin bezala (Bernini 2018). Elkarrizketetan parte hartu duten aktibista eta kolektiboek ere ez dute utopiaren irudi finko bat, eta ez diote uko egiten utopiaren ideiarekin, ez

235 Bersaniri egin ahal zaizkion kritikak asko dira, tartean Berninik (2015) bildu dituen batzuk: gizonen arteko harreman sexualak penetratzailea murrizten dituela; hori egiten ez duela esan arren gizonen homosexualitatea genero inbertsioaren paradigmatik interpretatzea eta desioari norabide bakarra (heriotzaren pultsioa izatea) egozte. José Esteban Muñoz urrunago joan zen Berniniren teoria horiek gizon gay txuri akademikoak bere hegemonia zalantzan jartzen dutenen kontrako erreakzio bezala definituz (Caserio eta beste 2006). Kritika hauekin denekin bat egiten dut, termino orokorretan. Aitzitik, Bersaniren planteamenduak iradokitzaileak zaizkit hainbat zentzutan.

eta esperantzarenari ere: eguneroko jardunean aukera berriak ireki, nortasun berriak irudikatu, bizi-baldintzak hobetu eta babes-sareak sortzeko baliagarritzat dute. Sexualitatearen eta generoaren inguruko politika horiek guztiak bidea ireki dezakete ez etorkizun ideal baterako baizik eta norabide ugartan garatu daitekeen praktikarako. Gure gorputzek, sexualitatean eta iraultzan, egin dezaketenaz jabetzea da kontua:

Desde el momento en que el sistema captura la complejidad de la sexualidad humana en una máquina binaria que privilegia la formación de familias heterosexuales y sustrae literalmente cualquier otra posibilidad a nuestros cuerpos, ya no sabemos qué está en condiciones de hacer nuestros cuerpos sexuados. Necesitamos redescubrir, pues, la noción de complejidad sexual que delimita la sexualidad en sus formas humanas y posthumanas. Una aproximación postantropocéntrica muestra con claridad que la materia corpórea humana, como la de las demás especies, es siempre ya sexuada y, por ende, diferenciada sexualmente a lo largo de los ejes de la multiplicidad y la heterogeneidad (Braidotti 2018:119).

Herri mugimendu ugari desioaren eta eraldaketa sozialaren ideiak elkartzen saiatu dira eta, eginbehar horretan, bereziki esanguratsuak izan dira mugimendu feminista eta LGTB* politikak. Saiakera horiek, ordea, maiz sinplifikazioan erori izan dira, desioaren potentzia alde batera edo bestera lerratuz eta bere eragina erabat positibotzat ala negatibotzat jotz. Politikaren begirada arrazionalistetan desioa kanpoan utzi beharreko elementutzat jotzen da, benetako jardun politikoa oztopa dezakeen kutsadura-elementutzat. Beste ikuspegi batzuetan, desioa indar askatzaile eta positibotzat jotzen da, bere potentziak iraultzaren eta askatasunaren aldekotzat jotz. Baina desioa ez da kontrolagarria eta bere efektuak, beti eta halabeharrez, aldebikoak eta aldiberekoak dira. Horren jakitun izanik desioa politikan kokatzea da afera, baina ez ezinbestez hura erdigunean kokatzea, politikaren ikuspegi arrazionala gainditzeak ez dakarrelako desioari buruzko begirada baikor eta monolitikoa gure egitea, baizik eta desioaren zoko ezberdinak esploratzea, ulergarriaren eta ulergaitzaren artean gabiltzala onartuz.

4.5.4 PROPOSAMENAK, AGENDAK ETA ESTRATEGIAK. DENA ZALANTZAN JARRI BERRIZ HASTEKO

«Y entregándome con la confianza de pertenecer a lo desconocido. Pues solo puedo rezar a lo que no conozco. Y solo puedo amar la evidencia desconocida de las cosas, y solo puedo unirme a lo que desconozco. Solo esta es una entrega real».

Clarice Lispector "La pasión según G.H. (Península, 1988)

Hasieratik adierazi dut herri mugimenduen inguruko begirada mekanizista edo instrumentala zalantzan jarri beharra. Mugimenduetan biltzen gaituena ez da soilik interes berdinak defendatzeko ekintza planak adostu eta aurrera egiteko beharra. Elkartze horietan elementu gehiago jartzen dira jokoan eta osagai horiek, emozionalak, komunitarioak eta desiozkoak ere badirenak, plan adostuak eta ideia multzoak baino gehiago dira. Hala ere, ezin da alhora utzi mugimenduek, bereziki epe erdiko ibilbidea lortzen dutenean, helburuak finkatu eta agendak sortu ohi dituztela. Agenda horiek beren proiektura jende gehiago biltzeko tresnak izan ohi dira, bai eta helburu partzialak lortzeari begira beste mugimenduei, instituzioei edo gizarte zibilari aurkezten zaizkion exijentzia edo eskaerak ere.

Mugimenduen agendak aldakorak izan ohi dira. Aski izaten da mugimendu batek helburu bat aldatzea, fintzea edo beste era batean planteatzea agenda horiek aldatzeko. Teorian erraza den arren, praktikan prozesu horrek denbora eskatzen du, hainbat faktore direla medio. Alde batetik, mugimenduaren egitura-motak bere aldarrikapenak moldatzeko gaitasuna baldintzatzen du. Bertikalki antolatzen diren mugimenduek, goitik beherako egitura dutenek, zuzendaritza bat dutenek esaterako, erraztasun handiagoa dute agenda horiek moldatzeko horizontalki antolatzen direnek baino. Agendaren edo norabide politikoaren aldaketa horiek, egitura bertikala duten taldeetan, ondorio kaltegarriak izaten dituzte maiz: arrakala sortzen da zuzendaritzaren eta oinarrien helburu eta baloreen artean; oinarriek ez dituzte onartzen edo ulertzen hartutako erabakiak, prozesuak kalitate demokratiko falta izan dezake eta aktibista ugariren haserrea sortu. Aitzitik, mugimenduak era horizontalagoan antolatzen direnean, aldaketa horiek zailak izaten dira, denbora asko eskatzen duelako gai batzuen inguruko eztabaida antolatzeak. Nolanahi ere, mugimenduen egitura ez da soilik bertikaltasun/horizontaltasun ardatzean ulertu behar, dispertsioa ere kontuan hartu beharreko elementua da, bereziki LGTB* politiken kasuan. Aipatu dudan bezala,

mugimenduaz hitz egitea zaila da, gehienetan talde txiki eta gutxi koordinatuz ari garelako. Elkarrizketatutako batzuek horren alde ona aldarrikatu dute, mugimendu zentralizatuek ekarriko lituzketen kalteak ere seinalatuz: boterearen metaketa eta ideia zein praktiken uniformatzea. Ekintza politikoa pentsatzeko beste ideia batzuetatik abiatuz, talde txikietan eta ikuspegi lokaletik lan egitea hobesten dute ekintzaile horiek. Maria Livia Algak italiar testuinguruan idatzitakoa, egin beharreko ñabardurak eginda ere, erabilgarria izan dakiguke: *“(...) soziologoek hirugarren kategoria bat identifikatzen dute, gehien interesatzen zaiguna. Elkartegintza bizitza lokalean eragiteko helburuarekin konpromisoak bultzatzen dituen mobilizazio politiko bezala”* (Alga 2018:135).

Hego Euskal Herrian LGTB* politiketan aritzen diren taldeek, hala nola talde feministek, dispersiorako joera nabarmena izan ohi dute, nahiz eta une askotan koordinatuta egon. Azpimarratzekoa da zentzu horretan mugimendu feministaren jarduna, zeinak saretzearen ideari garrantzi handia eman dion, horretarako ekimen ugari antolatuz: eztabaidarako topaketa eta jardunak (EHko emakume*en topaketak kasu), gai zehatzen inguruko koordinazioak (gerraren edo indarkeria matxistaren aurkakoak, esaterako) edo epe luzeko topagune izan nahi duten koordinazioak (Emakumeen Mundu Martxako antolaketa adibidez) (Epelde, Aranguren, eta Retolaza 2015). LGTB* politiken inguruan, bestetik, eta hein handi batean Bilboko Pride komertzialari aurre egiteko bokazioarekin, Harro! plataforma sortzea izan da lan hau idazten ari nintzen bitartean gertatu den gauzarik esanguratsuena, ez soilik lortu nahi dituzten helburuei begira indar metaketa eraginkorra ekar dezakeelako, baizik eta urte luzetan ez dutelako LGTB* politikan jarduten duten mugimenduek maila horretako koordinaziorik abiatu. Ohikoena talde ezberdinek egun zehatzen antolakuntzan topo egitea da (batik bat ekainaren 28ko harrotasuna antolatzeko) edo instituzioek bultzatutako mahaietan. Horiek alde batera utzita, LGTB* politiketan aritzen diren taldeen antolakuntza eredu nahiko sakabanatua da.

Horrek ezaugarri propioak markatzen ditu agendari dagokionez. Alde batetik, agenda itxiak adostea oso zaila da eta, ziur aski, desiragarria ere ez da. Lehenago aipatu bezala, hausturaren arriskua ekar lezake, talde guztiak ez daudelako ados gai askoren inguruan eta, ziur aski, ez dutelako lortuko ados egotea. Bestalde, adostasunak aldarrikapenen indarra handitzea ekar dezakeen bezala, kontrako efektua ere eragin dezake, aldarrikapenok oso itxiak eta zehatzak direnean askok ez dute beren burua horietan identifikatuta ikusiko eta, ondorioz, mugimendu osoa baztertzera pasa daitezke. Azkenik, elkarrizketatuen testigantzek aipatzen zuten moduan, nahi baino maizago instituzioekin harremana duten eskaerak soilik hartzen ditugu agendatzat eta aldarrikapentzat. Talde batek udaletxe, gobernu edo epaitegiei eskaera zehatzak igortzen dizkienean agenda landua eta ulertteraza duela uste dugu; eraldaketa sakonerako beste tresna batzuk erabiltzen dituenean, edo bere eskaera eta eskaintzak gizarte zibilari zuzentzen zaizkionean, dispersio-sentsazioa sortzen digu. Politika instituzioetara mugatu nahi ez duten taldeek eta, areago, politika instituzioetatik kanpo egin nahi dutenek maiz uste horren ondorioak pairatzen dituzte. Hala ere, lehenago ere esan dudan bezala, tentu

handiz tratatu beharreko gaia da hau. Gizartearen sektore oso zabalek agenda ulergarri eta zehatzak behar izaten dituzte mugimenduak babesteko eta, nahiz eta hori kultura politiko egokiena ez izan, ikuspegi hori alboratzeak herritarrekiko distantzia handitzea ekar lezake. Elkarrizketatuek azaldu dutenaren arabera, distantzia hori laburtzeko auzo eta herri mailako saretzeak bilatzen dituzte kolektiboek, estrategia konpentsagarri gisara-edo.

Badira kontuan hartu beharreko elementu gehiago. Maila praktiko zein materialean LGTB* mugimendu bakarra ez egoteak ez du esan nahi gizarteak ez duenik mugimendu hori entitate bateratu bezala hautematen. Jende gehienak ez ditu mugimenduen baitan dauden ezberdintasunak ulertzen, maiz oso espezifikoa direlako, kolektibo barruan ez dagoen edonorentzat ulergaitzak. Horrela, mugimenduaren inguruko pertzepzioa dena baino askoz homogeneoagoa izan ohi da: ekainaren 28ko manifestazioa ikusten duen jendeak elkarretaratze bakarra ikusten du, ez barruan dauden talde eta norbanako guztiak; halaber, sareetan, telebistan edo prentsa idatzian LGTB* gaiekin lotuta dagoen berri edo irudi bat ikusten denean, politika horien inguruko irudi bateratua sortzen da, eta ez dira haien adarkatze guztiak berehalakoan ikusten. Eztabaida horiek guztiak ulertzeko espezializazio eta interes maila altua behar da eta zaila da eraldaketa sozialik bultzatzea espezializazio eta interes maila handia duten horiekin bakarrik. Agendak paper garrantzitsua jokatzen du honetan, hain zuzen ere eskaera, aldarrikapen eta planteamendu politikoak direlako gizartearekin komunikatzeko mugimenduek darabilten tresna nagusia. Baina nork markatzen du agenda?

Gizarteak bateratu gisa hautematen duen LGTB* mugimendu horretan talde eta ekimen ezberdinak daude. Batzuek instituzioekin lotura handia dute, beste batzuek aldizkakoa eta batzuek ez dute batere loturarik. Batzuk irekita daude enpresa munduarekin (lobby gayarekin) tratuan aritzera, beste batzuek lobby horren presentzia bera arbuiatzen dute. Hasieratik esan bezala, ikerketa honetarako elkarrizketatu ditudanek instituzioekin maila anitzetako harremanak dituzten arren kale mailako politikak hobesten dituzten taldeekin hitz egin dut batik bat. Gehienetan ez dira komunikabide handietarako sarbidea duten taldeak, ez eta beren agendak lehen mailan jartzeko gaitasuna dutenak ere.

Agenden izaera eta batasunari, taldeen egitura eta dispersioari eta iritzi publikoa sortzerakoan duten eraginari erreparatuz gero, mugimenduen irudi konplexua sortzen da ezinbestean: talde instituzionalizatu eta asimilazionistek agenda oso zehatzak izan dituzte azken hamarkadatan eta, batik bat estatuak ematen dituen eskubide eta babesak lortzera bideratutakoak izan dira. Talde autonomoek agenda horiek zalantzan jartzen dituzte, mugatuak direla salatuz. Aldi berean, agenda oso zehatzak garatzeko zailtasunak dituzte eta askotan ez dute horren beharrik ikusten, ez bederen lehenetsun bezala. Ondorioz, gizarteak, LGTB* mugimendua instantzia bateratu bezala ikusten duenez, zaila du talde asimilazionisten agenda agortu horretatik harago ikustea. Areago, agenda horrek maila handi batean arrakasta izan duenez eta kapitalismoak zein nazionalismo europarrak bere interesetarako berreskuratu duenez, zaila da ikuspegi hori zalantzan jartzea, hainbatek

erreakzionariotzat interpretatu ditzaketelako kritika horiek. LGTB* politika kritikoak ataka zailean daude, beraz, eta agenda erradikal baina zehatz samarra sortzea klabea izan daiteke hurrengo urteetan. Esaterako, Bilbon Harro! plataformak deitu zuen manifestazioak²³⁶ erantzun nahiko zabala jaso zuen, ziur aski aldarrikapen aski zehatz baten inguruan ardaztu zelako (“Europride” ospakizuna eta LGTB* komunitateen komertzializazioa zalantzan jartzea). Hala ere, aipatu beharra dago deialdiak sindikatu, alderdi eta kolektiboen aldetik babesa jaso arren, manifestazioa ez zela asistentzia aldetik proportzio horretan masiboa izan.


Agendak zehaztea LGTB* politikek dituzten erronketako bat besterik ez da. Beste bat agenda hori eraikitzeke prozesuan norke parte hartzen duen pentsatzea izan daiteke. Horri dagokionez, helburu eta aldarrikapenak behetik gora eraikitzeke herri mugimendu ugari duten zailtasuna aipatu behar da: zapalkuntza batzuen ondorio larriak bizi dituzten subjektu askok ez dute oinarrizko antolakuntza-espazioetan, talde eta kolektiboetan parte hartzen. Aldarrikapenak sortzerakoan pertsona horiek maiz ezinbesteko erreferente izateak ez du esan nahi beti posible denik aldarrikapenok haiekin batera zehaztea; hala, arazotsua den ordezkatzeko gertatzen da maiz. Guri dagokigun kasuan, jada azaldu dugu LGTB* mugimendu asimilazionisten aldarrikapenak duten muga garbia LGTB* komunitatearen sektore batzuk albora uztea dela: politika horiek protagonistatzat subjektu gizon, txuri, bertakoa eta klase ertainekoa izan duten heinean, beren lorpenak ere mugatuak izan dira. Haietatik kanpo geratu dira beste subjektu batzuk eta horiek, askotan *bazterreko* subjektu bezala izendatzen direnek, LGTB* politiketan posizio garrantzitsua dute.

Subjektu horien zapalkuntzaren esperientzia partikularra da, eta ardatz anitzek baldintzatutakoa, baina esperientzia horiek, LGTB* politiken diskurtsoan lekua izan arren, askotan ez dute ordezkari zuzenik, preseski hizpide ditugun subjektuon parte-hartzea urria edo hutsala delako taldeetan. Mugimenduak, ekintza lokalen eta saretzearen bidez, distantzia hori mozten saiatzen dira, LGTB* komunitateko hainbat sektoreekin komunikazio eta elkartruckerako espazioak eraikitzeke asmoz, baina ez da beti erraza edo egingarria: LGTB* politiketan maiz aipatzen diren bazterreko subjektu askok (ijitoek, paperik gabekoek, sexu lanean jarduten duten trans* emakumeek, edo aniztasun funtzionala zein kognitibo/mentala dutenek, adibidez) ez dituzte herri mugimenduen guneak haientzat jotzen. Askotan eskas dituzte parte-hartzeak eskatzen dituen baliabideak, denboraren, dedikazioaren edo hizkuntz gaitasunaren aldetik, besteak beste. Horretaz gain, mugimenduek beraiei buruz egiten duten errepresentazioarekin identifikatzeko zailtasunak ere izan

236 2019ko irailak 21ean LGTB* talde ezberdinak biltzen dituen Harro! Plataformak manifestazioa deitu zuen Bilbon, bertan ospatu nahi den “Europride” topaketaren aurka, LGTB* politiken komertzializazioa salatuz. Manifestazioa egin zen egunean bertan LGTB lobby ekonomikoa, instituzioak eta LGTB talde lokal bat biltzen ziren Europriderako hautagaitza prestatzeko. Manifestazio deialdiak 158 talde, kolektibo, sindikatu eta alderdien babesa jaso zuen.

ditzakete, ikerketa osoan azpimarratu dudan bezala mugimenduek proiektatzen duten irudiarekiko identifikazioa subjektu ororentzat arazotsua delako. Honela, talde eta kolektiboek bazterren inguruko diskurtsoa izateak ez du esan nahi halaberrez taldeok bazterretako subjektuez osaturik daudenik eta, maiz ohartu gabe, diskurtsoa eta transmititzen diren errepresentazioak ez datoz bat.

12. ILUSTRAZIOA: ESPERIENTZIA, IDENTITATEA ETA SUBJEKTIBOTASUNA



(norberak egina).

Hizpide ditudan ideia hauek laburbilduta ikus daitezke irudiko eskeman (ikus 12. ilustrazioa). Bertan grafikoki azaltzen denez, bizitako esperientziek identitateak finkatzen laguntzen dute, eta identitate horiek mugimenduen oinarri diren subjektibotasun politizatuak sortzeko gaitasuna dute. LGTB* mugimenduek, bereziki asimilazio eta integrazioaren aldeko apustua egin dutenek, LGTB* identitateen irudi finkoa sortu dute, subjektu asko kanpoan utziz. Subjektu horiek beren esperientzia politizatze gaitasuna dute baina, sarritan, mugimenduetan

duten ahotsa ez da zuzenean euren, parte-hartze guneetan dauden beste aktibista batzuen bidezkoa baizik. Agendak sortzerako orduan zailtasunak sortu ditzake horrek, halaber estrategiak zehazterakoan. Esate baterako, ilustrazioan agertzen den ikusgaitasunaren estrategia, mugimendu batzuentzat zentrala dena, bazterrean geratu diren subjektu horientzat arriskutsua izan daiteke.

Bazterretako subjektuen presentzia absente horrek subjektuon erromantizazioa ekar dezake, eta arrisku hori ez da LGTB* politiken eskusiboa, beste mugimendu askoren kezka ere bada aukera hori saihestea²³⁷. Paradoxikoki, bazterte-egoera gogorrenetan dauden subjektuekin harreman zuzenena duten taldeak asistentzia egiten duten instituzioak izan daitezke. Artatze lan hori egiten dutenek kontaktua izan ohi dute errealitate horiekin baina subjektu hauekiko izaten duten ikuspegia mugimenduek dutenaren oso ezberdina da. Ondorioz, batzuentzat zaila da pertsona horiengana heltzea eta beste batzuentzat zaila da haiek subjektu bezala tratatzea, eta ez erabiltzaile bezala. Edonola ere, tentuz jardun beharra dago subjektu horiek ez erromantizatzeke, “*bizi duten errealitatearen zatarra eta sufrimendua estetika edo teorizazioen bidez eraldatuz*” (Harvey 2018:58).

Mugimendu guztiek egin behar diote aurre *partikularismo militantearen* aferari, eta LGTB* politiketan aritzen direnak ez dira salbuespen. David Harveyk (2018) esploratzen duen kontzeptu hori talde batentzat ona den hori beste denentzat ere ona izango delako ideia da, eta herri mugimenduentzat saihestu ezinezko eztabaida dakar: zein talde edo kolektibok zerrendatu dezake bere kideez haragoko beste batzuentzat ere erabilgarria izango den helburu sorta bat? Talde bat osatzen duten pertsonen eta ordezkatu nahi duten multzoaren interesen arteko zubia egitea, ezinbestean, abstrakzio ariketa bat da, partikularretik unibertsalerako bidea ibiltzea²³⁸. Taldeentzat interesgarriak diren aldarrikapenek ez dute zertan ordezkatzeko duten komunitate zabalagoentzako desiragarriak izan. Aktibistak disonantzia horren jakitun dira, esaterako, ekainaren 28ko mobilizazio jendetsuez jardutean argi dakusate parte-hartzaileen interesak anitzak direla eta ez dutela zertan mobilizazioak antolatzen dituztenekin bat egin.

Partikularismo militantea ez da distantzia sor dezakeen elementu bakarra, eta kontuan hartzekoa da lehenago ere aipatu dudana hizkuntza espezializatuaren gaia. Usu, talde eta ekintzaileok inguratzen gaituen errealitate konplexua aztertzeke erabiltzen ditugun termino berak baliatzen ditugu kalean edo komunikabideetan, eta horrek baditu argilunak. Gure analisisien konplexutasuna helarazteko gai bagara, terminologia horrek kontzeptu eta ideia

237 Gutxi batzuk aipatzeko, ohikoa da kooperazio munduan, eskusio egoeran daudenen alde egiten duten mugimenduetan edo feminismoan aurkitzea horren inguruko kezka.

238 “*El paso desde solidaridades tangibles entendidas como modelos de vida social organizada en comunidades afectivas y cognoscibles, a un conjunto de concepciones más abstractas que tenga fuerza universal, implica el paso desde un nivel de abstracción –unido al lugar– a otro nivel de abstracción capaz de extenderse a través del espacio. Y en ese paso, algo estaba destinado a perderse*”. (Harvey 2018:52). Zalantzan jartzekoa da ere partikularretik unibertsalera doan bidean unibertsala nola kontzeptualizatzen den, hala nola ze punturaino beste une batzuetan aipatu dudana kokapenaren ideiak zer duen esateko afera honetan: posizio partikularretatik abiatuz eraikitzen baditugu jomuga unibertsalak, egin beharreko lehen lana kokapen partikular horien analisi eta aitortza sakona da.

berriak irekitzeko gaitasuna izan dezake. Duela urte batzuk nork esango zukeen egun hainbeste jendek erabiliko zituela “interseksionalitate” edo “transgenero” bezalako hitzak. Hala ere, kontuan izan behar da batzuetan hedapen handia dutela uste dugun arren, gehienetan nahiko zirkulu txikietan geratzen direla kontzeptuok eta jende gehienarentzat ulergaitzak direla eta, beraz, urruntasuna sortzen dute²³⁹.

Hizkuntzaren aferaz gain, arreta merezi du arestian aipatu dudan bazterren aldarrikapenak ere. Bazterreko subjektuak aldarrikatzen direnean, halabeharrez distantzia bat sortzen da gizartearekiko. Subjektu horiek baztertuak daude hain zuzen ere gizarteak albora uzten dituelako. Aliantzen auziarekin harreman handia du gai honek. Subjektu zehatzen erromantizazioaz harago, talde eta aktibistek aliantza espazioak irekitzeko ahaleginean dihardute, esaterako, migratzaileen mugimenduekin, langileen mugimenduekin edo beste mugimendu antikapitalista batzuekin. Aktibista kritikoez ezinbestekotzat dituzten aliantza horiek LGTB* politikak lur labainkorretan kokarazten dituzte: elkarlan horien subjektu izan daitezkeenetako hainbati errezeloz begiratzen diete LGTB* komunitateko kide ugari, historikoki homofobiarekin eta matxismoarekin izan duten harremanagatik. Ildo horretatik, tentuz aztertu beharrekoa da langileen mugimenduko eta antikapitalismoaren eremuko taldeek homofobia eta matxismoaren inguruan dituzten postura kritikoez zenbaterainoko sakontasuna duten, eta kritikotasun hori LGTB* politiketan ari diren taldeen antikapitalismoaren mailakoa ote den ala ez. LGTB* politiken baitako eragile ugari antikapitalismo eta antifaxismora gerturatzen ari diren une hauetan galdera horrek garrantzia har dezake.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi distantzia eragin dezakeen beste elementu bat. Gorago azaldu dudanez, azken hamarkadetan instituzioetatik gertu eta ikuspegi asimilazionistatik eraiki da LGTB* politiken agenda, eta hori LGTB* komunitate osoaren behartzat hartu da. Asimilazio eta murrizketa horren ondorioz, ikuspegi erradikaletara lerratu diren taldeek zailtasunak izan dituzte agenda ikuspegi positibotik eraikitzeko. Are gehiago, queer politiken eragina gure herrialdean nabaria izaten hasi zenetik, talde ugari egin duten diskurtsoa ukapenezkoa izan da. Ohikoa izan da, politika asimilazionistetatik urrundu nahi horretan,

239 Anekdotak gisa, ez daukat ahazteko 2005. urtean Bartzelona ondo L'Hospitaleten antolatu zen “Queeruption 8” jaialdian parte hartu izana. Jaialdia 2000. hamarkadan zehar antolatu zen munduko herrialde ezberdinetan eta queer eta LGTB* jendeentzat antolaturiko jaialdi autogestionatu eta antikapitalista izatea zuen asmoa. Kontzertu, hitzaldi, mahai-inguru, sexu-jai, performance eta bestelakoak egon ziren. Bartzelonako kasuan eraikin erraldoia okupatu zuen talde antolatzaileak auzo hartan eta horregatik, eta antolatu zen manifestazio batean egondako istiluengatik, hainbat pertsonen isunak eta espetxe zigor eskaerak jaso zituzten (absoluzioan edo zigor txikietan bukatu zuen denak, hainbat urte beranduago). Asko esan daiteke manifestazio eta ekintza horien inguruan, baina darabilgun gaiari dagokionez, esanguratsua da topaketaren hurrengo urteetan, errepresio kasu haren aurkako kanpainak eta ekimenak antolatu zirenean, aktibistok eskaini behar izan genion denbora “zer da queer?” galdera erantzuteari. Gerard Coll-Planasek gai honi dedikatu zion *“La carne y la metáfora. Una reflexión sobre el cuerpo en la teoría queer”* (2012) liburuaren epilogoak.

nahi ez zena esateari nahi zena eskatzeari baino denbora gehiago dedikatzea. Taldeen arabera LGTB* politika ukatzaile edo propositiboagoak aurki ditzakegu, baina ohikoa izan da tonu negatibo hori, baita ekimen bateratuetan ere. Tonu negatiboa aipatzen dudanean ez dut esan nahi talde horiek mezu pesimista edo antisoziala darabiltenik, baizik eta beraien diskurtso politikoen zati handi bat beste talde batzuen – talde asimilazionisten – ifrentzu bezala eraikitzen dela. Sakon-sakonean, talde erradikalago hauen politikak positiboak dira, afirmatiboak (Braidotti 2018), LGTB* subjektu politikoari biziraupenerako aukera eta potentziak eskaintzen dizkiotelako eta esperimentazio guneak eraikitzen dituztelako. Baina maila horretan afirmatiboak izan arren, agendaren ikuspegitik negatibo gisa irakur ditzakegu.

Genero eta sexualitate gatazkak, konfrontazioak eta kultura politikoak

Agenda negatibo hori eraikitzerakoan konfrontazioaren elementua ezinbestekoa da. Parte hartzen dudan Joxemi Zumalabe Fundazioko lantalde batek 2019ko ekainean argitaratu zuen “Gatazkak. Borroka moldeak eta kultura politikoa herri mugimenduetan” liburuxka (Joxemi Zumalabe Fundazioa 2019). Testuaren kontzeptu zentrala gatazka da, baina beste ekarpen interesgarri batzuk ere egiten ditu. Esaterako, gatazka, konfrontazioa eta protesta elkarrengandik kontzeptualki bereizteko beharra azpimarratzen du. Testuak *gatazka* gisa definitzen du gizarteko elementu ezberdinen artean sortzen diren interes eta beharren arteko talka. Gatazken oinarrian ezberdintasun soziala egon ohi dela azaltzen du: ezberdintasun ekonomikoa, aitortzari dagokiona edota baliabide sinbolikoekikoa, besteak beste. Gatazkak, beraz, zapalkuntzarekin estuki lotzen dira. Liburuxkak gatazkak eraldaketa sozialaren motor direla dio eta, beraz, gatazkak ukatu nahi dituzten gizarte sektoreak beren *status quo* mantentzeko ahalegina egiten ari direla. Maila horretan, gatazkaren ikuspegia marxista-dialektikoa da irakurgaian. Herri mugimenduen espazioan, gatazkak barrura begira (talde barruan) zein kanpora begira (taldeen artean edo gizarte sektore zabalen artean, zeinetan herri mugimenduak agente garrantzitsua diren) gerta daitezke. Gatazkek izaera agerikoa edo ezkutua izan dezakete, patente edo latente egon daitezke, nolabait esateko, eta askotan herri mugimenduen asmoa subjektu batzuen azalean oso bizirik dagoen gatazka bat beste herri-sektore edo espazio batzuetan ikusgarri gitea da.

Konfrontazioa definitzerakoan “herri mugimenduek euren helburuak lortzeko moduz (...) egoera bat eraldatzeko eraikitzen den harreman sozialaz” ari direla azaltzen du testuak (Joxemi Zumalabe Fundazioa 2019:17). Konfrontazioa, hein handi batean, agente sozialen konfigurazioaren araberakoa da. Gatazka ikusgarri egiten denean zenbait eragile inplikaturik daudela azaleratzen da eta agerikoa egiten da agente horiek interes ezberdinak dituztela. Haietako batzuek parez-pare kokatzeko hautua egingo dute, beste batzuek gatazka horretan duten inplikazioa ezkutatu nahiko dute edo haien lekua hirugarren espaziotan kokatzera jo. Horrela, oinarrian gatazka bera izanik ere, une bakoitzean konfrontazioa ezberdina izan daiteke: alde bikoia edo anitzekoa, polarizatua edo sakabanatua, intentsitate handikoa ala urrikoa.

Protestaren definizioa beherago kokatzen da abstrakzioaren eskailera horretan. Mugimenduek gatazka ikusarazi edo konfrontazioa berrezaugarritzeko egiten dituzten ekimen zehatzak dira protestak: idatziak, kexak, manifestazioak, ekintza zuzenak, desobediencia ekintzak eta abar. Dagoeneko nabaria da hiru kontzeptu horiek elkarren artean harreman oso estua dutela. Esate baterako, gizartearentzat ikusezina den gatazka bat ikusgarri egiteko erabiltzen den protesta moduaren arabera konfrontazioa era batean edo bestean ezaugarrituko da.

Gatazka ulertzeko orduan bada ñabardurarik LGTB* politketan. Ikuspegi asimilazionistek maiz tolerantzia arazo bezala azaltzen dute sexualitate edo genero biziortasun “ezberdinen” afera: arau sozial nagusia zisheteronormala den heinean, hortik urruntzen diren subjektuak aitortza falta bizi dute eta, horren ondorioz, diskriminazioa, bazterkeria edo are indarkeria ere. Elkarrizketatutako talde batzuek, ordea, ordenu ekonomiko eta politikoarekin lotzen dute sexualitate eta genero biziortasunen gaia. Bide ugari azaltzen dira posizio horretara heltzeko: ikuspegi feministatik, familia eta arau heterosexuala funtzionalak dira kapitalismoarentzat, lanaren banaketa sexualaren bitartez (Wittig 2006; Pérez Orozco 2017; Federici 2017); ikuspegi soziologikotik, genero biziortasunak eta sexualitateak lotura izan dute zapalkuntza eta bazterkeria ekonomiko forma ezberdinekin (Stryker 2017; Coll-Planas eta beste 2017); LGTB* eta queer ikuspegitik, heterosexualitatearen eta familiaren mitoak bide egiten dio kapitalismoak behar duen sostengu kulturalari (Vidarte 2007; Hocquenghem 2009; Edelman 2014). Begirada teorikotik, ikuspegi horiek ez dira erabat bateragarriak, eta maiz forma nahasian eta ia-ia kontraesankorrean agertu daitezke taldeen diskurtsoak alderatuz gero, eta baita talde eta subjektu bakoitzaren diskurtsoen baitan ere. Ikuspegi akademikotik larria izan daiteke kontraesana; ez, ordea, herri mugimenduen ikuspegitik. Purutasun eta koherentzia teorikoa ez dira balio garrantzitsuenak mugimenduetan eta haien praktika ugari erakusten digute akademiaren begiradak sortzen dituela teoriaren arteko bateraezintasun horiek. Egunerokoa, LGTB* politketan ari diren taldeek konpartimentu teoriko itxien baliagarritasuna zalantzan jartzen dute, beraien esperientziaren zatiak azaldu ditzaketan iturri ezberdinak erabiliz (Bernini 2018).

Eutsi diezaiodan **konfrontazioaren** gaiari. Konfrontazio batean, lehenago ere esan dugunez, ez daude bi talde sozial nagusi soilik, edo gutxienez ez du horrela izan beharrik. Posizioen mapa konplexua da konfrontazioarena (Bourdieu 2000) eta askotariko kokapenak sortzen ditu. Korrante nagusiko²⁴⁰ LGTB* politikak, bereziki ikuspegi kulturalista hautatu dutenetik, indar kontserbadoreak kokatu dituzte konfrontazioaren beste aldean, presentzia bereziki ikusgarria emanez eliza katolikoari eta eskuin muturreko alderdi politikoei²⁴¹. Horrek, nahi baino maizago, sexualitatearen eta genero bizinortasunen gaia garapenaren logikapean kokatu du: iraganeko indar kontserbadoreak eta etorkizuneko indar progresistak aurrez aurre.

Egungo aktibista ugari begirada hori konplexuagotu egin nahi dute, alde batetik salatuz LGTB*fobia ez dela nabarmenki kontserbadoreak diren taldeetara mugatzen eta, bestetik, agerian jarriz heteroarauaren eta ekonomia politikoaren artean dauden harremanak. Hala ere, sarritan zaila da irakurketa konplexuak egin eta, aldi berean, horiek gizarteko sektore zabalei helarazteko gai izatea. Zailtasun hori azaltzeko, ekintzaile batzuek komunikabideen eta sare sozialen bidez gertatzen den diskurtsoen sinplifikazioari egin diote erreferentzia, non gatazkak ikusgarriagoak diren eta atentzio handiagoa jasotzen duten, konfrontazioak itxura bitar eta sinpleagoa duen heinean. Hori dela eta, esaterako, eskuin muturreko alderdiek edo apezpikuek deklarazio homofoboak edo transfoboak egiten dituztenean erreakzioa azkarra eta jendetsua izaten da komunikabide zein sare sozialetan. Halako adierazpenei eta faxismoaren oldarrei aurre egitearen garrantzia zalantzan jarri gabe ere, kontuan hartu beharrekoa litzateke ez direla eskuin muturreko alderdiak edo apezpikuak, esaterako, LGTB* pertsonen laneratzearen inguruko politikak diseinatzen dituztenak, edo hezkuntzan LGTB*fobiaren prebentzioari eskaini beharreko baliabideak erabakitzen dituztenak. Politika horien atzean (une honetan, behintzat) gizartearen aurrean progresistatzat aurkezten diren gobernu eta alderdiak daude. Beste hainbat mugimenduk bezala, LGTB* politikak ere bi polo horien artean jokatu dute: gatazka ikusgarriagoa da “etsaia” erraz identifika daitekeen heinean, baina horrek sinplifikaziora garamatza eta elkarrizketatutako taldeen asmoetatik urrun dagoen politika sinboliko eta arinak egitera.

Testuinguruak etengabe mugatzen du **protesta** eta ekimenen forma ere. Zumalabe Fundazioaren testuan “kultura politiko” izendatzen dira gatazketan sortzen diren ohitura, konfigurazio komunitario eta “habitus” (Bourdieu 2000) pertsonal zein kolektiboak. Kultura politikoak kontingenteak eta aldakorak izan arren, mugimenduetan urte luzeetan zehar eraikitako formak sedimentatzen dira, mobilizazio errepertoriotan ere. LGTB* politikak ez

240 Ingelesez, “mainstream”

241 LGTB* politikak izandako eraldaketa, ikuspegi politikotik kulturalistara igarotzeko, zehaztapen handiz biltzen du Piro Subrat historialari aktibistak (Subrat 2019). Dokumentazio lan zabala egiten duen lan honek 1868-1982 epeari buruzko informazio zehatza ematen digu eta, ondorioz, hurrengo urteei erreparatzen dion maila bereko lanaren beharra adierazten.

dira salbuespena eta aktibistak forma ohikoen eta berritzaileen artean mugitzen dira. Elementu hau oztopoa izan daiteke mugimenduen arteko aliantzak sortzerakoan, izan ere, LGTB* aktibistetako askok garrantzi handia aitortzen diote beraien politiken alde sortzaileari eta ondorioz artearekin eta errepresentazioarekin lotutako mobilizazio tresnak sortu dituzte (antzerkiak, performanceak, musika, koreografia edo irudikapen plastikoak, besteak beste), baina manifestazio, kontzentrazio, ekintza zuzen eta gisako borroka tresna “klasikoagoekin” jardutera ohituak dauden mugimendu askok ez dituzte ekintzarekiko gerturatze esperimental eta artistiko horiek ezagutu ez eta ontzat jotzen halabeharrez. Konfrontazioa ezaugarritzerako orduan antzeko zerbait gertatzen da. Kolektibo eta aktibista hauek darabilten konplexutasuna ez da maneiatzen erraza ezkerren eta politika askatzailearen esparru zabalean aritzen diren talde guztientzat. Bereziki azken hamarkadatan, “euskal gatazka” deitu denaren testuinguruan “alde/kontra”, “barruan/kanpoan”, “gu/besteak” bikoak elikatu dituen kultura politikoa sedimentatu denean.

Historikoki LGTB* politikek harreman aldakorra izan dute euskal mugimenduen kultura politikoan eragin handia izan duen “euskal gatazka” deitu den horrekin, hala nola konfrontazio maila altuak izan dituzten beste gatazka batzuekin, esate baterako klase gatazkarekin eta langileen borrokarekin. LGTB* politika modernoaren hasierako urteetan (70. hamarkada osoan eta 80. hamarkada hasieran) politika homosexualak (gay politikak) gertutasun diskurtsibo handia zuten ezker erradikalaren eta marxismoaren planteamendu askorekin (Subrat 2019). Adibidez, Mario Mielli eta antzerako autoreen irakurketak ohikoak ziren²⁴². Bere planteamenduetan analisi marxistatik abiatzen zen italiarra eta, garaiko eta ondorengo beste hainbat autore homosexual bezala (Guy Hocquenghem Frantziar, Pier Paolo Pasolini Italian edo Pedro Lemebel Txilen), alderdi komunistako kide izan eta bere sexualitatea medio bertatik kaleratuak izan direnen “klubeko” kide zen. Haatik, horrek ez zuen bere ideologia eraldatu eta heterosexualitatea sistema eta alienazio bezala ulertu zuen, gizakien sexualitatea gatibatzen duen sistema bezala (Mieli 2017). Marxismoaren terminologia sexualitatearen analisirako erabili zuen, Wittigek (2006) lehenago egin bezala.

Bat etortze teoriko horiez gain, ikuspegi soziologiko eta historikotik kontuan hartu beharreko hainbat elementu ere badaude. Lehenik, aintzat hartu behar da frankismoaren azken urteetan eta transakzio demokratikoaren lehen urteetan sortu zela Euskal Herriko gay mugimendua. Testuinguru horretan eta, kontuan izanda mugimendua kalera ateratzeko azken bultzada garaiko errepresio sozial eta politikoa izan zela (polizia batek Vicente Vadillo

242 EHGAMeko militante historiko batzuekin izandako solasaldi formal eta informalek konfirmatu didate bere “Elementos de crítica homosexual” testuak atentzio zabala jaso zuela eta baita postura ezberdinak sortu mugimendu barruan. Eztabaida horien inguruko erreferentziak jasotzen ditu Juanjo Olasagarreren “Poz aldrebesa” (2017) eleberriak eta, tonu akademikoan, Raul Lopez Romok (2008).

Santamaria, “Francis” erail izana²⁴³), ez da harritzekoa mugimendua garaiko beste agente politiko batzuekin sintonian aritu izana hasiera batean. Bestalde, askapen sozial eta politikoaren bidean, sexualitatea eta emakumeen borroka aldarrikapen multzo zabalago horren barruan kokatzen zen garaiko ezkerren iruditegian, nahiz eta praktikan alderdi, talde eta sindikatuak ez zuten horren inguruko inolako aipamenik egiten edo, egiten zituztenean, apalak eta sinbolikoak izan.

Ezkerreko mugimenduen jarrera horiek zein sexualitateen erregulazio kapitalistak egoera hori eraldatu zuten. Sexu-askapenak beste kolore batzuk hartu zituen eta haietako asko integrazionistak eta politikoki aski kontserbadoreak izan ziren. Paralelismo antzeko bat marraztu daiteke mugimendu feministarekin: trantsizio garaian izan zuen eztanda, nahiz eta jatorria lehenagokoa izan, bai Euskal Herriko Iparraldean antolatzen ziren kolektiboetan bai eta Hegoaldean zeuden sare klandestinoen bidez (Epelde, Aranguren, eta Retolaza 2015). Mugimendua publiko egin bezain pronto, feminismoa beste borroka batzuekin lotu zen eta ezkerreko iruditegi sozialean kokatu. Kasu horretan ere, ezkerrek ez zuen gaia lar serio hartu eta talde zein elkarte berriak agertu ahala, feminismoaren espazio ideologikoa ezker klasikotik harago zabaltzen hasi zen, gaur egun duen aniztasuna lortu arte. Hala ere, manifestu, koordinazio eta bestelako ekimen konpartituetan ikusgarri egiten den gisara, LGTB* mugimenduaren zein mugimendu feministaren bi sektore zabalenetan ohikoa izan da joera progresista mantentzea.

Ezkerreko indarrek denbora luzea behar izan dute askatasun sexualaren eta genero biziortasunaren gaineko borroka beren gain hartzeko eta, elkarrizketatuek ere hainbatetan aipatu duten legez, oraindik bat-egite hori sinbolikoa da nagusiki: gehienetan ez da politika zehatzetan egikaritzen. Horrek ez du esan nahi LGTB* politikek ez dutenik konfrontazio eredu horien kultura politikoa konpartitu. Nabarmena da atal honen hasieran hizpide izan dudak indarkeriaren eta horri loturiko sinboloen erabileraren inguruko eztabaidan. Iraultzaren iruditegia, ekintza zuzenarekin lotua, presente egon da azken urteotako LGTB* politika batzuen kartel, argazki, ekintza eta materialetan eta, harreman zuzenik egon ez arren, esploratzeko dugu fenomeno horrek ETaren jardueraren amaierarekin eta Euskal Herrian horrek irekitako ziklo politiko berriarekin izan dezakeen harremana. Baliteke konfrontazio zuzenaren iruditegia, borroka armatuari estu loturik egon ostean, berriki “demokratizatu” izana, espresio politiko askotarikoentzako erabilgarri bihurtuz. Horrekin batera, posible da herri mugimenduetan ari diren belaunaldi berrientzat iruditegi horrek esanahi ezberdina eta erakargarriagoa izatea, aurreko belaunaldientzat zituen esanahi negatibo edo anibalenteez askeago.

243 Erailketaren inguruko xehetasun gutxi batzuk biltzen dira Erreterian 1956-2012 epean jazotako giza eskubideen urraketak biltzen dituen txostenean (Argituz 2015).

Maila horretan LGTB* politikek beste ataka batekin egin dute topo. Diskurtso batzuk erradikalizatzen diren heinean, erradikalizatze hori ulertzeko modu ezberdinak sartzen dira jokoan. Gatazka eskalatze formak anitzak diren arren, gehienetan konfrontazio zuzena ahalbidetzen duten elementuak jokoan jartzearekin lotzen da eskalatze hori. Mugimenduek, beraz, tentu handiz jardun behar dute eta beren buruari uneoro galdetu zein diren eskalatze horren helburuak, horretarako erabiliko diren bideak eta sortu ditzakeen ondorioak. Jende gehiago bilduko zaigu? Nor gera daiteke bidean? Gure talde barruan kohesioa bultzatzen du ala banatu egingo gaitu hartutako bideak? Gure egiteko moduak onartzen ez dituen norbait ordezkatzeko asmotan ari gara? Zeintzuk izan daitezke hautatu ditugun estrategien ondorioak gure eguneroko bizitzetan? (Joxemi Zumalabe Fundazioa 2019). LGTB* politikak ikuspegi asimilazionista batetik bestelako ikuspegi erradikal, konfrontatzaile eta afirmatiboagora eramateak galdera horiek denak eta etorriko diren beste batzuk kontuan hartzea eskatzen digu eta, ondorioz, gatazka ikusgarriago egin dezaketen bideak irudimenez pentsatzea, epika iraultzailearen automatismoak alboratuz.

Protokolo politikak, eskalatzea eta intimitate erradikala

Politikaren ikuspegi klasikotik harago joateko asmoa plazaratu dute elkarrizketatutako ekintzaile eta taldeek: aldarrikapen eta eskaerak eskubide administratiboak lortzera ez bideratzea; agenda bat sortzerakoan zehaztasunaren eta egingarritasunaren printzipioez harago joatea edota lokaltasunari garrantzia ematea transzendentzia beharra zalantzan jarriz. Azken elementu horri loturik, Helen Hester (2018) ingelesak, politika feministaren eta teknologiararen arteko harremana pentsatzeko tresnak ematen ditu, eta, proposatzen ari naizen hausnarketak teknologiarekin lotura zuzena izan ez arren, bere lana gogora etorri zait, antolaketa eta estrategia politikoaren inguruan pentsatzeko arrasto onak eskaintzen dituelako. Bere testuan teknologia zehatz bati erreparatzen dio Hesterrek, “Del-Em” izeneko aparatu bati, 1970eko hamarkadan AEBetako kontzientzia-talde feministen inguruan “sortu”

eta banatu zena, zeinak etxean abortuak egiteko aukera ematen zuen²⁴⁴. Gailu hau “protokolo²⁴⁵ politika feministen” ikuspegitik aztertzen du Hesterrek. Bere iritziz garrantzitsuena ez da gailuak teknikoki egin zezakeena baizik eta feministak teknologia horretaz nola baliatu ziren, hura eraldatuz eta bere zentzua irauliz. Areago, teknologia horren kasuan, gakoa da eskalagarritasuna. Kontzeptu hori, testu honetan, ez da erabiltzen oraintsu gogora ekarri dudana Zumalabe Fundazioaren idatziko zentzu berean. Hester eskalagarritasunaz ari denean lokaletik harago joateko aukeraz ari zaigu:

Las instrucciones respecto de cómo llevar a cabo los procedimientos no solo facilitaban la preservación de redes cerradas (con lo que minimizaban el riesgo de enfrentar consecuencias legales), sino que además, y de manera crucial, también permitieron que el movimiento de autoayuda traspasara sus límites iniciales e incursionara en nuevos territorios. Esto hizo factible la diseminación y el traspaso de ideas fundamentales sin que estas se vieran sofocadas por las diferencias situacionales, lo que permitió que la autoayuda excediera sus contextos locales (...) el protocolo establece un puente entre agentes autónomos, lo que da por sentada la posibilidad de realizar operaciones translocales (Hester 2018:110).

Hesterrek azaltzen duen dispositibo teknologikoak, bere muga guztiekin, aukera horiek guztiak ireki zituen aldi berean eta, hortaz, protokolo politika xenofeministaren adibide egokia da. Politikaren forma ohikoak erabili nahi ez dituzten taldeentzat protokolozko LGTB* politikez hausnartzea lagungarria izan daiteke. Lehenago intimitate erradikalak aipatu ditut, eta intimitate horiek eskalagarriak direnents pentsatzeko unea dela uste dut orain. Posible al dute intimitate horiek nolabaiteko kutsatze-efektua sortzea, beste talde batzuk sorraraziz? Ala talde horien politikak espazio itxi bezala ikusten dira eta, ondorioz, haiekiko harremana oso zaila da beste subjektu batzuentzat? Autore ingelesak *mesopolitiko*a pentsatzearen beharra aipatzen du, eta honela definitzen du:

244 Aparailua halako xurgagailua zen, hasiera batean emakumeen hilerokoa egun bakarrean atera ahal izateko diseinatu zena. Hesterrek aztertzen du nola feminista batzuek tresna horren berreskurapena egin zuten. Hasteko, teknologia hori ez zen emakumeen askapenari begira lanean ari zen espazio batean sortu, espazio mediku androzentrikoan baizik. Modifikazio batzuk eginez, beste erabilera erabat ezberdina eman zioten feministek. Horretaz gain, patentatu egin zuten, baina ez modeloa saldu ahal izateko, baizik eta beste batzuk saldu zezaten ekiditeko. Aparailuaren banaketa kontzientzia talde feministen sareen bidez egin zen, eta liburuxka batekin banatzen zen gailua. Liburuxka horrek aspektu praktikoez gain feminismoaren oinarriak azaltzen zituen idatziak zeuzkan, hala nola emakumeen gorputzen inguruko begirada eraldatzailea (nahiz eta Hesterrek, gaur egunetik begiratuz, uste duen kale egin zutela emakume transexualen errealitateak aintzat hartzen idatziotan). Amaitzeko, gailua ezin zen bakarka erabili eta hortaz, emakumeen arteko elkarkidetzeta eta babesa sustatzen zituen.

245 Hesterrek protokoloa aipatzen duenean ez du gaur egun politika feminista eta LGTB*etan hainbeste darabilgun protokolo hitzaz ari, hots, instituzio edo talde batek aplikatu ditzakeen neurri gisa, batik bat eraso baten aurrean.

Lo mesopolítico es aquello que opera entre las intervenciones dispersas y extremadamente locales que se realizan sobre el nivel de, por ejemplo, el cuerpo individual (lo micropolítico) y los proyectos especulativos a gran escala que aspiran a un derrocamiento total del poder a nivel estatal o por encima de este (lo macropolítico) (Hester 2018:112).

Eskala lokalean oinarrituriko LGTB* politikak eraginkorrago izango dira konexio mesopolitiko hori topatzeko gaitasuna duten heinean. Hesterrek (2018) lau irizpide nagusi egotzen dizkio protokolo politikari: irisgarritasun langak gainditzeko erraztasunak ematea, birfuntzionalizazioa, eskalatzea eta interseksionalitatea. Alegia, protokolo politikek haienganako irisgarritasuna erraztu behar dute, sistemak sortutako dispositibo baten indarra aprobetxatu behar dute eta hari zentzua aldatu, haren erabilera eskalatzeko bideak jarri behar dituzte eta botere ezberdinkeria ugariak aldi berean kontuan izan behar dituzte. Intimitate erradikalaren politiketan kokatu ditudan talde batzuk²⁴⁶ halako ahaleginak egiten ari direla esango nuke. Hesterren estiloa jarraituz²⁴⁷, adibide zehatz bat ekarri nahiko nuke gai hauek aztertzeko: jadanik aipatu dudan “Bollopop” sarea, zeinaren sorreran elkarrizketatu dudan ekintzaile talde lesbofeminista batek zeresan handia izan duen. Sare horrek aipaturiko elementuak biltzen dituela esango nuke. Hasteko, irisgarritasuna ematen die hainbat pertsonari, bereziki lesbianen giro zabalean dabilzan eta sare formal zein informaletatik topo egiten duenei. Irisgarritasun hori ez da, baina, sareak eskaintzen dituen elementu material, afektibo eta babesekoetara mugatzen. Sareak, era xamurrean bada ere, eskuragarri jartzen ditu politika lesbianistaren elementu batzuk: elkarren babesa, zaintzaren politikak eta espiritu antikapitalista. Bigarrenik, sareak beste helburu batzuetarako pentsatua zegoen teknologia berreskuratzen du. Alde batetik, interneteko plataforma bat erabiltzen du eta gainera diru-trukean gauzak salerosteko balio duen eta oso famatua den *wallapop* aplikazioaren izenari keinu egiten dio. Hirugarrenik, ikuspegi interseksionaletik ere interesgarria da aplikazioa, esaterako maila ekonomiko ezberdina duten lesbianek elkarren beharren berri izan eta elkar babesteko erabil daitekeelako, edo paperik gabe edo erregularizazio prozesuan dauden lesbianek hori erraztu dezaketen sostenguak bilatzeko, besteak beste.

Azkeneko utzi dut eskalagarritasunaren irizpidea, horrek sortzen dizkidalako zalantza gehien. Alde batetik garbi ikusten dut eskalagarria dela proposamena: beste leku batzuetan martxan jar daiteke tresna bera, beste talde batzuek beraien inguruneetara ideia inportatzeko asmoa badute bederen. Erreplika horrek baditu mugak, ordea. Adibidez, Bilbo bezala inguruko herri ugariaren bizitza soziala zentralizatzen duen hiri baten espaziotik kanpo zaila

246 Hau ez da beraiek emandako kategoria bat, nik pentsatutakoa baizik, eta haiek ez dute zertan beren burua “intimitate erradikala” kontzeptuan identifikaturik ikusi behar.

247 Miren Guilló Arakistainek ere (2020), odolaren kudeaketarekin loturiko teknologiaren erabilera feministak aztertzen ditu, besteak beste, bere tesian.

litzateke sarean beharrezkoa duen masa kritikoa biltzea benetan eraginkorra izan dadin. Eraginkorra diodanean ez naiz ari jende multzo txiki baten beharrak asetzeaz, nahiz eta hori bere horretan jada helburu garrantzitsua den, baizik eta hazteko eta norabide ezberdinetan hedatzeko gaitasuna izateaz. Horretaz harago, ez genuke eskalagarritasuna erreplikatzeko gaitasunera mugatu beharko. Halako tresna batek bestelako aktibazio mesopolitikoak bilatu beharko lituzke. Gai da, esaterako, beste talde batzuekin harremanak sortzeko? Metasare formal edo informalak sortzeko gaitasuna du? Agian ez da hori bere helburua, baina talde txikietan egiten diren politikez ari garenean esango nuke eskalagarritasunarena eztabaida interesgarria izan daitekeela eta, zentzu horretan, bat egiten dut Hesterrekin *“desafioa errealitatea termino mesopolitikoetan pentsatzea”* dela dioenean, *“horretarako koalizioaren praxian eta protokoloen bidezko pentsamendua baliatuz”*. (Hester 2018:141)

Intimidade erradikalen espazio hauek ez dira plazer hutsera mugatzen eta “esperimentazio positiborako tailerrak” izan daitezke, errealitateak desio dugun etorkizun bihurtzeko gaitasuna izango dutenak (Stryker 2017:275). Areago, arranguran oinarritzen diren politikekiko ezberdinak dira, alternatiba eskaintzen dietelako kapitalismoaren logika horiei (Braidotti 2018:169). Zalantzarik gabe, LGTB* politikaren aspektu horiek mikropolitikaren esparrutik abiatuz eragin-eremu zabalagoan eraldaketak sortzeko potentzia dute, baina horretarako potentzia horiek esploratu eta era ezberdinetan garatzeko saiakerak egin beharko dira. Bestela esanda, “desira militantzian kokatu dugu, baina desira aldakorra da” (Aranguren, Montero, eta Herrero 2017). Aldakortasun hori egungo kapitalismoaren ziurgabetasunaren zerbitzura jarri nahi ez badugu, politika eta desioaren arteko harremanaren inguruan hausnarketa sakona ezinbestekoa da. Konponbidea ez da atzera egitea politikaren eta desioaren arteko harremana ukatuz edo existituko ez balitz bezala jokatzuz, baizik eta, bere konplexutasuna onartuz, sortzen diren eraldaketak kritikoki ebaluatzeko mekanismoak pentsatzea.

“Bollopop” eta gisako ekimenek esparru sinbolikoa eta ekonomikoa elkarren ondoan kokatzeko gaitasuna dute. Ez dira horrenbeste horrelako gaitasuna azaldu duten ekimen eta politikak. LGTB* politikak alderdi sinbolikoaz harantzago beste aspektu batzuekin konektatzeko gogo handia dute talde eta kolektibo askok, baina horrek ez du esan nahi erraza denik aldarrikapenak artikulatzea. Are gutxiago aldarrikapen horiek ez bazaizkie instituzioei zuzendu nahi. Nancy Fraserrek (2017)²⁴⁸ lerro jarraia irudikatzen du bi alderdi horien artean. Alde batean birbanaketa legoke, edo baldintza materialen orekatzea, eta bestean aitortza,

248 Fraser eta Butlerren liburua artikuluen bilduma bat da, eta bertan biltzen dira Fraserrek 1995an lehen aldiz idatzi eta 2000n berrikusitako “¿De la redistribución al reconocimiento? Dilemas de la justicia en la era «postsocialista»” artikulua, Butlerrek horri erantzunez idatzitako “El Marxismo y lo meramente cultural”, Fraserrek ostean argitaraturiko “Heterosexismo, falta de reconocimiento y capitalismo” eta Montserrat Galceránek bildumaren sarrera bezala egindako “¿Qué se reconoce en las políticas de reconocimiento? Una introducción al debate entre Nancy Fraser y Judith Butler”. Testuak New Left Review aldizkarian argitaratu ziren.

komunitate baztertuei eskubide eta balio berdina aitortzea. Komunitate bakoitzak posizio ezberdina betetzen du continuum horretan. Fraserren ustez, klase komunitatearen eraikuntzan eragina duen faktore bakarra kapitalismoaren banaketa desorekatua da eta, ondorioz, birbanaketa du interes nagusia (marxismoaren ikuspegi ortodoxoak erabiliz eta ikuspegi kulturalistak alboratuz gero). Sexualitatearen inguruan sortzen den komunitateak, ordea, LGTB* komunitateak esaterako, beste muturrean egongo lirateke: klase sozial guztietan daude presente eta distribuzioaren inguruan dituzten arazoak bere posizio kulturalen ondorio bezala interpretatu behar dira. Esaterako, emakume transexualen bazterkeria laborala eta pobrezia beren aitortza faltagatik gertatzen da; jendeak transexualitatea positiboki baloratuko balu, ez lukete beste subjektu batzuek baino aukera gutxiago izango lan bat lortzeko. Generoan eta arrazan oinarritzen diren komunitateak continuum horren erdian egongo lirateke, bi soluzioak beharrezko dituzten komunitate diren heinean: sexuaren eta arrazaren bidezko lan banaketaren ondorioz birbanaketa ezinbestekoa dute; marxismoaren eta arrazakeriaren ondorioz, berdintasunaren – edo diferentzia positiboaren – aitortza behar dute.

Liburu berean, Judith Butlerrek Fraserren ikuspegia zalantzan jartzen du. Materializat zer jotzen den hartzen du nagusiki gogoetagai filosofo estatubatuarrenak. Bere ustetan, Marx eta Engelsek abiatu zuten familiaren inguruko irakurketa labur geratu zen, baina feminista ugari emendatu zuten afera, ekonomiaren eta familiarismoaren inguruko kritika generoen arteko ezberdinkeriarara hedatuz. Lanaren banaketa sexuala ez da, ikuspegi horretatik, genero normatiboen ekoizpenetik banatzen ahal. Kapitalismoak desberdintasunak baliatzen ditu lana generoaren arabera banatzeko, lan erreproduktiboa eta produktiboa bereiziz eta emakumeei lehengoa egotziz, sari ekonomikorik gabe (Federici 2017). Baina labur geratzen da desberdintasunak *erabiltzen* dituela esatea. Izan ere, kapitalismoak *ekoitzi* egiten ditu diferentzia horiek, sistemari funtzionalak zaizkion identitateak sortuz (Althusser 1977). Maila horretan, birbanaketa eta aitortza estuki lotuta daudela uste du Butlerrek, eta horri ez erreparatzea LGTB* politikak “politika sinbolikoen” epigrafe gutxiesgarriaren azpian kokatzea dela. Pertsonaren definizioa bera ere ulergarritasun normatiboen arauen pean dago. Bere postura hemen laburtzen du:

“No se trata simplemente de que excluya las formas de sexualidad no heterosexuales, sino de que su eliminación resulta fundamental para el funcionamiento de esta normatividad previa. No se trata sencillamente de que ciertas personas sufran una falta de reconocimiento cultural por parte de otras, sino, por el contrario, de la existencia un modo específico de producción e intercambio sexual que funciona con el fin de mantener la estabilidad del sistema de género, la heterosexualidad del deseo y la naturalización de la familia” (Fraser eta Butler 2017:82).

Bi autoreek egiten diote ekarpenik eztabaida honi, baina Butlerrek planteatzen duenarekin lerrokatzen naiz nagusiki, ez baitut uste politikoa, ekonomikoa eta sinbolikoa era errazean banatu daitezkeenik, ez baldin bada ikuspegi teoriko hutsetik. Kasu gehienetan, errealitatea aztertzen dugunean bi aspektu horiek nahasita egon ohi dira. Ez litzaiguke zaila egingo sinestea gaitasun ekonomiko handia duen gizon txuri gay batek bere ingurunean homofobia bizi izan duela, ez eta langile klaseko gizon gay batek bere zapalkuntza ekonomiko eta sexualaren baldintzak elkarrekin bizi dituela ere. Gure testuinguruan Lucas Platerok (2012) aztertu dituen korapilo hauek zaildu egiten dute Fraserren kategorizazioari erabat eustea. Esaterako, arrazagatik birbanaketa/aitortza continuumean posizio anibalentean dago ijitoen komunitatea: ekonomikoki birbanaketaren beharrean daude eta, aldi berean, komunitate horietan sexualitate eta genero *bizinortasun* ez-arautuak dituztenak (eta halaber heterosexualitatea bizitzeko forma kulturalki kokatuak dituztenak) aitortzaren muturrean. Non daude beraz, langile klaseko LGTB* komunitate ijitoak?

Hala ere, uste dut Fraserren planteamendu batzuk oso interesgarriak direla eta, ondo aplikatuz gero, LGTB* politikentzat eta herri mugimenduentzat erabilgarriak izan daitezkeela, eraginkortasuna zein ekintza politikoa sakonago pentsatzeko. Ematen dituen gomendio batzuk kontuan hartzekoak direla uste dut. Esaterako, LGTB* borrokek ez dutela zertan kapitalismoaren aurkakoak izan behar borroka zilegitzat har ditzagun. Askotan borroka esperientzia batzuk erdigunean jarrita eraiki da zilegitasuna eta hori deseraikitze ariketa egitea ere beharrezkoa da. Bestalde, ezin dugu hain erraz esan LGTB* borrokek, *definizioz*, kapitalismoaren aurkakoak direnik, bestela bi borroka horien artean berehalako sinergiak sortuko lirakeela pentsa genezake eta, gaurdaino, ez da horrela izan. Berriz ere, *teorikoki* Butlerrek dioenarekin ados egonda, LGTB* politikak kapitalismoaren aurkako borrokek *dira*, heterosexualitatea eta familia kapitalismoarentzat funtzionalak diren heinen. Baina maila praktikoan, herri mugimenduen jardunari begira, hobe genuke esatea LGTB* politikek garatu beharreko *potentzia* antikapitalista bat dutela. Hau da, aliantzak, langile mugimenduekin esaterako, ez dira berehalakoan etorriko eta ez dira soilik LGTB* taldeen antikapitalismoaren ondorio izango, langile mugimenduen postura antinormatiboen ondorio ere izan beharko dute.

	Politika afirmatiboak	Politika eraldatzaileak
Birbanaketa	A Ongizate estatu liberala	B Sozialismoa
Aitortza	C Multikulturalismoa	D Deseraikuntza

1. taula: Politika ezberdinak birbanaketa/aitortza eta afirmatibo/eraldatzaile ardatzen arabera. Norberak egina Fraser (2017)tik abiatuz.

Fraserren beste ekarpen interesgarri bat politika eraldatzaile eta afirmatiboen ingurukoa da. Uler bedi *afirmatibo* horrek zerikusi gutxi duela testu honetan

hainbatetan erabili dudan Braidottiren politika afirmatibo kontzeptuarekin. Fraserren ustez

politika afirmatiboak subjektu batzuen egoera hobetzea du helburu, joko arauak zalantzan jarri gabe. Politika eraldatzaileak, aldiz, joko arauak aldatu nahi ditu. Politika egiteko bi forma horiek ikuspegi kulturalistarekin nahiz ekonomizistarekin uztartu daitezke. Esaterako, ikuspegi ekonomikotik baztertuak diren subjektuei konpentsazio ekonomikoak eman ahal zaizkie eta, ikuspegi kulturaletik, beraien irudi soziala hobetzeari ekin. Ikuspegi eraldatzaile eta kulturaletik, identitateak berak zalantzan jarri daitezke, queer teoriak egiten duen bezala, eta eraldatzaile-ekonomikotik transformazio sozialistak subjektu baztertuen onarpena dakarrela baieztatu dute hainbatek. Lau paradigma uzten dizkigu horrek: birbanaketaren ikuspegitik, afirmatiboki estatu liberala eta bere konpentsazio politikak; transformatiboki, sozialismoa. Aitortzaren ikuspegitik, afirmatiboki multikulturalismoa eta transformatiboki, identitateen deseraikuntza (ikus 1. taula). Estatu liberala eta multikulturalismoa azken hamarkadatan ondo ezkondu direla ikusi dugu, eta Fraserren proposamena, beraz, sozialismoa identitateen ikuspegi deseraikitzaile batetik lantzea da, horrek dituen zailtasunen jakitun izanda.

Elkarrizketaturiko ekintzaile askoren aburuz, sozialismoaren eta deseraikuntzaren arteko ezkontzarena diskurtso tranpatia da, sozialismoak *automatikoki* bazterkeria guztiak desagerraraziko lituzkeela planteatzeak LGTB* borrokak eta borroka feministak balizko deseraikitze horren atzean ezkutatzearen efektua baitu. Aldi berean, eraldaketa ekonomikoaren garrantzia sutsuen defendatu dutenek ez dute beti deseraikitzearen ideia hain garbi ikusten, queer ikuspegiekin lotzen dutelako eta ikuspegi horiek neoliberaltzat dituztelako, subjektu bateratuak zalantzan jartzen dituen heinean. Edonola ere, Fraserren eredu eredu bat besterik ez da, baina erabilgarria zaigu, nire ustez, hurrengo galderak plazaratzeko: talde edo kolektibo batek ekintza eta proposamenak egiterakoan, LGTB* identitateak (identitate itxi bezala) solidotzen ala deseraikitzen ari gara? Defendatu nahi ditugun komunitateen beharrak zeintzuk diren ezagutzen al ditugu, gure lehentasunak mugimendu osoaren lehentasuntzat jotzen ez ditugula bermatzeko?

Egungo LGTB* politiken panoraman, Fraserrek, Lewisek (2016) eta beste batzuek egin dezaketen ekarpena birbanaketaren gaia ikuspegi ortodoxoak indartzea da, aitortzaren beharra aski onartua dagoen heinean. Bere ideiak baliatu daitezke birbanaketaren berreskurapen hori ez dadin ekonomiaren inguruko begirada ortodoxotik gauzatu (Eribon 2017:249). Eginbehar horretan LGTB* politikek hainbat esparruren arteko loturak aldarrikapen eta ekimen espezifikoen bidez egin beharko dituzte, eta arreta zorroztu ekonomia esparruko aldarrikapenak egin eta aldi berean instituzioekiko harreman organikoa saihestu nahi badute. adibideari jarraituz, zer proposa daiteke LGTB* komunitateen enplegu-egoera hobetzeko, aldarrikapenak eksklusiboki estatuari edo beste instituzioei zuzendu gabe?

Galdera hori adibide bat besterik ez da, baina argi uzten du beharrezko ditugula LGTB* politiken inguruan sortzen den konplexutasuna barne har dezakeen eskema teoriko minimoak. Dean Spade (2015) abokatu eta aktibistak borroka horien inguruko irakurketa kritikoa egiten du, AEBen testuinguruan eta trans* borroka adibide hartuz. Bere tesiaren abiapuntua da, hain zuzen ere, aitortzaren (bereziki aitortza legalaren) esparruan kokatutako trans* politika nagusiek ez dituztela kontuan izan trans* komunitateen konfigurazio korapilatsuak, ez eta politika horiek izan zezaketen eragina ere. Esaterako, berdintasun formala ezartzen duten arau juridikoak sortzeko ahalegin handia egin da hamarkada luzetan²⁴⁹. Arau horiek, praktikan, ez diete babes handirik ematen transei* edo beste LGTB* subjektuei, adibidez, laneko diskriminazio kasu bat bizi dutenean. Gauza ezberdinak direlako “ezin da diskriminatu” esatea edo norbaitek *horregatik* diskriminatu zaituela demostratzea²⁵⁰. Besteak beste, arrazaren teoria kritikoetatik abiatuz, zapalkuntzaren erroak beste nonbait daudela ondorioztatzen du Spadek: AEBetako komunitate beltz eta latinoei ez diete askorik balio izan berdintasunaren inguruko lege eta aipamenek, beraien diskriminazioaren erroan, besteak beste, esklabotzan eta kolonialismoan oinarritutako ekonomia dagoelako. Abokatu honek ondorioztatzen du trans* pertsonen, bereziki sozialki eta ekonomikoki baztertuta daudenei, gehien eragingo lieketen aldetak juridikoak baino administratiboak direla. Horrekin batera, bere herrialdeko egungo testuinguruak (terrorismoaren eta drogen aurkako gerrak eta kartzelen negozioak) trans politikekin izan dezakeen harremana ere aztertzen du.

Liburuan erresistentzia eraldatzailea sortzeko estrategiei dedikaturiko atalean, “Miami Workers Center” (MWC) mugimenduak sortutako tresna analitikoa aipatzen du (Spade 2015:184). Talde horrek, bere estrategia eta taktikak aztertzean, rol ezberdinak jokatzen dituzten zutabe batzuk identifikatu zituen, lau zehazki: politika, kontzientzia, zerbitzuak eta boterea. *Politikaren* zutabeak instituzioak eta haien politikak eraldatzeko lan egiten du, lege eta arauen bidez, eta garaipen txikiak lortuz. *Kontzientziaren* estrategiak iritzi publikoa eraldatu eta paradigma politikoak zalantzan jarri nahi ditu. *Zerbitzuaren* zutabeak kaltetuak edo *zaurgarrituak*²⁵¹ diren pertsonen egoera arintzea du helburu, haiei artatze juridikoa, psikologikoa edo ekonomikoa eskainiz. Azkenik, *boterearen* zutabeak herri indarra sortzea du

249 Nahiz eta liburua AEBetako testuinguruan idatzia egon eta, beraz, bertan izan dezakeen zentzua nagusiki, paralelismo ugari egin daitezke hemengo eta gaur egungo egoerarekin. Esaterako, instituzio ugaritan onartzen ari diren indarkeria matxistaren edo LGTBfobiaren kontrako protokoloek formulazio horretan tematzen dira: “inork ezingo da diskriminatua izan bere genero, sexualitate edo arrazagatik...”.

250 Spaden baieztapenek, berriz ere, AEBetako lege sistemaren sistemaren partikulartasunetan zentzu handiago dute, non jurisprudentziaren papera hemen baino askoz erabakigarriagoa den. Hala ere, deklarazio formalen eta protokoloen haritik, USVSV proiektuaren baitan egindako hausnarketetako batzuk honi lotuta egin genituen: unibertsitateek diskriminazioaren aurka dituzten erregulazioak hain azalekoak eta performatiboak dira ia-ia ezinezko bihurtzen dutela (adibidez) sexu-orientazioari loturiko lan jazarpena frogatzea (Luxán Serrano, Azpiazu Carballo, eta Amurrio Vélez 2018).

251 “Zaurgarrituak” erabiltzen dut hemen, hitza existitzen ez dela jakinda ere. Zaurgarritasuna gizaki guztien ezaugarria den arren, hitz honek beren genero, sexualitate edo kokapen ekonomikoagatik zaurgarritasun berezia bizi dutenen egoera adierazi nahi du.

helburu, komunitateekin jabekuntzarako tresnak landuz eta kopuruz jendetsuak eta aldi berean kalitatez behetik gorakoak diren antolaketa motak egikaritzuz. Lau zutabeok izendatzeko erabili diren hitzek harreman handia dute AEBetako mugimenduen kultura politikoarekin, baina ez zait zailegia iruditzen eredia hona ekartzea: politikaren zutabea zutabe instituzionala izan liteke gurean; kontzientziaren zutabea iritzi publiko, sentsibilizazio eta pentsamendu-ideologiarena; zerbitzuaren zutabea artatze edo asistentziarena; boterearen zutabea jabetze edo herri boterea eraikitzearena.

MWCren zutabeen proposamen analitiko honek gure eragin politikoa neurtzeko bidea eman diezaguke, pilare bakoitzean gure talde edo kolektiboak zenbat eta zergatik inbertitzen duen pentsatzeko. Zutabe horiek ez dira era independentean proiektu bati eusten dioten oinarriak soilik, haien artean loturik daude eta elkarri eragiten diote etengabe. Esaterako, bere jardunean artatzeari lekua egiten dion talde batek bere komunitatearen jabetze politikoan behetik eragiteko aukera du, kideen egoeraren ezagutza metatu dezakeelako. Hori ezinbestekoa izango da proposamen legal, juridiko, politiko edo administratiboak sortu nahi badira. Aldi berean, ahaleginak erreforma legeetan kontzentratzen dituen talde batek egiten duen sentsibilizazioak eta gizarteari eskatzen/eskaintzen dizkion paradigma aldaketak izaera mugatu eta posibilista izan dezakete, “realpolitik”aren iruditegira mugatua.

Eredu ideala lau zutabe horiek ondo konbinatzen dituen proiektua litzateke, baina, elkarrizketetan oinarrituz, agerikoa da taldeek beste eredu batzuen alde egiten dutela gehienetan, eta horretarako arrazoiak ugari izan ditzakete. Talde batzuek zutabe horietako batzuen papera eta zilegitasuna zalantzan jartzen dute. *Zutabe instituzionala*, adibidez, oso kritikatu izan da, joan diren hamarkadetako LGTB* politiketikiko begirada kritikotik abiatuz, alderdi horretan larregizko pisua jarri dela uste dutelako talde batzuek. Beste ekintzaile batzuek zalantzan jartzen dutena ez da aspektu horiei larregizko arreta eskaini izana, baizik eta arreta eskaini izana bera, politikaren ikuspegi horrek eraldaketa soziala oztopatzen duela uste baitute. Antzerako gertatzen da *asistentziaren zutabearekin*. Elkarrizketatutako taldeetatik pare batek soilik egiten du asistentzia zuzenik edo artatzerik. Halakorik egiten ez dutenek bi arrazoi nagusi aipatzen dituzte horretarako: lehena, asistentzia egitea asistentzialismo bilaka daitekeela konturatu orduko eta ikuspegi hori ekidin nahi dutela; bigarrena, lan horrek talde txikiek ez dituzten baliabideak eskatzen dituela, bai denbora eta dedikazio aldetik, bai eta prestakuntza aldetik ere. Ondorioz, LGTB* komunitateei egiten zaien asistentzia zuzen ia guztia edo guztia instituzioen edo instituzioekin harreman iraunkorra duten taldeen esku dago egun.

*Sentsibilizazioa, kontzientziazioa edo paradigma aldaketaren zutabea*²⁵² talde gehienek beren jardunaren baitan hartzen dute. Kasu horretan ere, zutabe horri heltzeko erak ugariak dira. Talde batzuentzat beren lan lerro nagusietakoa da eta kalea jotzen dute horretarako esparru nagusitzat. Beste batzuek hezkuntzan jartzen dute fokua eta horra bideratzen haien ahaleginak, horrek instituzioekin (hezkuntza instituzioekin baina baita hezkuntza ez-formalean zeresan handia duten udaletxe edo diputazioekin ere) harremana estutzera eramaten dituelarik. Talde gehienek, gainera, hedapen eta kontzientziazio lana egiteko erabiltzen dituzte sare sozial digitalak ere²⁵³. Amaitzeko, *boterearen zutabea* ere, jabetze terminoetan edo herri boterearen eraikuntzaren ikuspegitik, talde batzuentzat oso zentrala dela azaldu dute elkarrizketek. Komunitateak indartzea, kaleko presentzia handitzea eta subjektu eraldatzaileen sorrera ahalbidetzea lehentasun dute taldeek. Horretarako ezinbestekoak dituzte barne mailako entzumena, babesa eta beste talde eta komunitate batzuekiko harremana.

Baikorrak izanda, pentsa genezake lau zutabe horiek era orekatuan lantzen dituen talderik egon ez arren, talde ugariaren jardunaren bidez orekatzen direla zutabeok LGTB* politiketan. Azken finean, politika horiek era orekatuan lantzea ez da talde bakar batentzat egingarria, eskatzen dituen ahalegin eta baliabideak medio. Oreka horren bila, talde batzuek politika instituzionalean jarduten dute, lege eta araudiak proposatzen, beste batzuek asistentzia lana egiten dute, instituzioekiko lankidetzan. Gehienek kontzientziak astintzeko lanari ekiten diote bide askotarikoak erabiliz, eta batzuek herri boterea eraikitzeari, horretarako komunitateen jabetzeak erdigunean jarriz. LGTB* politikak talde, kolektibo, elkarte eta instituzioen sistema funtzional bezala aztertuko bagenu, eraldaketa politikoaren zutabe guzti horiek asebetarik aurkituko genituzke. Aitzitik, ikusi dugun moduan, taldeen arteko harremanak gehienetan ez du ahalbidetzen banaketa funtzional (kontzienterik) dagola esaterik. Gehienetan ikuspegi, planteamendu, estrategia eta helburuen aniztasunak, sarritan bateraezintasuna ere badenak, banatzen ditu taldeok. Horregatik, lan honetan zehar argudiatu dudana bezala, LGTB* mugimenduaz hitz egitea zaila den moduan, LGTB* politika bakar baina sistematikoki funtzionala irudikatzea zentzugabea litzateke.

252 Talde bakoitzaren ikuspegiaren arabera hitz bat edo bestea erabil genezake.

253 Beste une batzuetan ere aipatu izan dut problematikoa izan daitekeela sare sozial digitalen inguruan ikuspegi hau izatea. Izan ere, talde gehienek ez dituzte positiboki baloratzen sareek elkarrekintzari begira sortu ditzaketen eraginak (indibidualizazioa, eztabaiden polarizazioa, bando itxien indartzea...) baina aldi berean sareok erabiltzen dituzte erabiltzaileak hartzaile pasiboak bailiran eta horrek sareen elkarrekintzarako gaitasuna aintzat ez hartzea suposatzen du. Elkarrekintzarako eskaintzen dituen moduen kritikaz gain horren inguruko estrategia kritikoak garatzea ezinbestekotzat jotzen dut.

Aniztasun eta bateraezintasun hau estu loturik dago mugimenduaren fragmentazioarekin, alegia, fakzio edo lerro anitz sortu izanarekin. Gehienetan negatibotzat jo da zatiketa hau mugimenduek sortzen dituzten nortasun kolektibo bateratuak ahultzen dituen heinean²⁵⁴. Ikuspegi teoriko eta orokor batetik, Cristina Flesher Fominayak honakoa diosku:

Rather than conclude that because strong collective identity at the group level can lead to movement fragmentation scholars should abandon the use of the concept at the movement level, it would be better to follow Snow's (2001) suggestion that scholars need to examine more closely the relations between different levels of collective identity. If factionalization is a key feature of many movement milieus, then that would call for even more work on understanding how movements build a shared identity across difference (Flesher Fominaya 2010:401).

Mugimendu barruan sektore edo fakzioak gorpuzteko gaitasuna duten identitate partikular indartsuak sortzen direnean nortasun kolektiboa ahuldu egiten da halaberharrez. Aitzitik, teorilari honen ustez, diferentziaz harago, mugimenduek nortasuna konpartitzeko duten formak aztertzea ezinbestekoa da, eta nortasun kolektiboek maila ezberdinak izan ditzaketela onartzetik abituz gero, bestelako ondorioak ere atera ditzakegu, fakzionalizazioaz harago. Bere ikuspegitik mugimenduek, nortasun kolektibo zurrun batean guztiz bat egin ez arren, identitate komunak artikulatu ditzakete. Nolanahi ere, kolektibo zein taldeek elkarren jarduna eta ikuspegia baloratu eta errespetatzeak ez du esan nahi LGTB* politikek sistema funtzional bat osatzen dutenik. Emankorra izan daiteke, analitikoki bada ere, sistema funtzionalaren ideia hori alboratuz, Spadek jasotako lau zutabe horiek talde bakoitzean nola tratatzen diren pentsatzea. Ziurrenik, beste hitz batzuk erabiliz, taldeek hausnarketa hori jada egina dute, baina uste dut aspektu batzuk birpentsatzeko modukoak direla.

Hel diezaiogun, lehenik, politika instituzionalaren gaiari. Spaden (2015) argudioari jarraituz, legeen eta araudien eremu zehatz batean eragiteko bokazioa izan dute, nagusiki, LGTB* politikek. Zehazki, berdintasunaren inguruko deklarazioak lortzean jarri dute indarra, edo sinbolikoki oso zentralak ziren instituzio batzuetarako sarbidea erdiestean, dela ezkontza, dela armada (Amerikako Estatu Batuetan oso era indartsuan eta hemen era askoz ahulagoan). Urte luzetan egindako asistentzia lanean oinarritutako bere analisiak erakutsi dio Spaderi araudi administratiboek askoz eragin handiagoa dutela LGTB* komunitateen eta, bereziki, trans* pertsonen bizitzetan. Aldi berean, ikusi ahal izan du eragin horiek ikuspegi interseksionaletik aztertu behar direla ondo ulertu ahal izateko. Gure ingurunetik gertuago,

254 Interesgarria litzateke baieztapen hau mugimendu feministaren ikuspegitik aztertzea. "Emakumea" subjektu bateratua urratzearen eta mugimendu feministaren bilakaeraren artean loturirik konplexuagoa topatuko genukeelakoan nago

Lucas Platerok koordinaturiko *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada* liburuak (2012) edo bere doktorego tesiak (Platero 2013) argi utzi dute ezin dela dimentsio bakarreko analisirik egin hainbat egoera ulertu eta berauei aurre egiteko. Oraintsu argitaratu dute politika publikoak ikuspegi horretatik aztertzen dituen artikuluen bilduma bat ere, hein handi batean Spaden analisisen lerro berean kokatzen dena (Lopez eta Platero 2019).

Ez dira, beraz, karga sinboliko handia duten legeak gehien eragiten dituztenak, baizik eta hiritartasuna mugatzen duten arau administratiboak: gure dokumentuetan izena alda dezakegun ala ez, gure familia ereduak balio administratiboa duten ala ez, lan edo eskola araudiek gure existentziaren berri jasotzen duten ala gure gorputz eta bizipenak administrazioen aurrean ezintasun kontzeptual bezala agertzen diren. Maila horretan, Spaden proposamena ez da soilik arau horiek aldatu eta inklusiboago egin behar direla, baizik eta arau horietako asko *zalantzan jartzeko* ausardia politikoa izan behar dugula. Utopiak, erradikalitateak eta egunerokoaren kritika sakonak elkarrekin topo egiten duten guneak sortzen eta lantzen dihardute LGTB* politikek gaur egun eta, bide horretan, araudi eta legediekin lotura duen guztia alboratu eta errealitatearen zati bati bizkarra ematea izango litzateke, izan ere, gai horretan ere badira eragiteko askotariko bideak, eta haietako asko oso erradikalak. Ezkerrean instituzioen aldeko apustua egin duten taldeek hainbeste erabili duten argumentuan erori gabe (“instituzioetan ez bagaude beste batzuk egongo dira eta, beraz, haiek sortuko dituzte araudiak”), kritikoak diren mugimenduek ezinbestekoa dute prozesu horien jarraipena egitea eta afera horietan, LGTB* pertsonen bizitzetan garrantzizkoak diren heinean, kokapen bat topatzea. Kokapen horrek, ziur aski, berriro ere Lauretisek aldarrikatzen zuena gogora ekarriz, “ez kanpoan ez barruan, bietan baizik” izan beharko du.

Bigarren afera, eta orain artekoarekin oso lotua, asistentziarena da. 1990eko hamarkadako asistentzia kolektiboaren inguruan azalpenak eman zizkidan aktibistak oso ekarpen interesgarria egin dio ikerketa honi ikuspegi historikotik. Historia horren jakitun nintzen arren, indar handia izan zuen bere kontakizunak eta lotura estua ikusi nion aktibista feminista askori entzun dizkiodanekin. LGTB* komunitateei eta emakumeei zuzendutako asistentzia kolektibo herritarren eskuetan zegoen garaian sortzen ziren sinergiak aztertzea interesgarria izan daiteke proiektu berriak pentsatzerako orduan. Asistentziaren zutabeak, bide horretan, lotura estua eraikitzen zuen kontzientziaren zutabearekin baina are estuagoa botere herritarrarenarekin. Elkarte eta taldeetako kideak asistentzia (gabeziak gabezia) egin ahal izateko trebatzeak, eta laguntza hori jasotzen dutenek laguntza talde ez-instituzional baten eskutik jasotzeak efektu oso baliotsuak sortzen ditu. Azpian indartsua den mugimendua sortzen du, eta mugimendu hori jendez elikatzeko aukerak irekitzen ditu (aukerak diot, ez duelako esan nahi laguntza hori jasotzen dutenak automatikoki aktibista bilakatzen direnik). Askotariko instituzioekin lotura duten espazioetan (esaterako, hezkuntza espazioetan edota instituzionalizaturik dauden elkarteetan) egiten den asistentziak ez ditu aukera berdinak asistentzia elkartasun bilakatzeko. Gaur egun nabaria da banaketa hori: haien politikak ikuspegi erradikaletik bideratu nahi dituzten talde gehienek ez dute asistentziarik

egiten eta instituzioekin harremana duten talde askok oso zaila dute haien politikak erradikalizatzea, dituzten loturak direla medio. Ondorioz, inoiz baino kalitate handiagoa duen asistentzia eskaintzen ari zaie LGTB* komunitateei arlo instituzionaletik, baina artatze hori oso mugatua da eraldaketa sakonak bilatu ditzakeen politizazioak sortzeari begira. Elkarrizketatutako talderen batek bi esparru horiek batzeko azaldu duen interesa, formazioaren ikuspegitik, beharrezkoa, interesgarria eta esploratu beharrezkoa da. Baina formaziotik harago, uste dut LGTB* politika erradikalak eta antikapitalistak egin nahi dituzten taldeentzat oso lagungarria izan daitekeela asistentziaren inguruko jardun eta politikak aztertzea, hortik etor daitezkeelako efektu oso preziatuak: ekintzaile berriak “sortzeko” aukera eta baita unean-uneko eta kokapen ezberdinetako LGTB* komunitateko kideen problematikak ezagutzekoa ere.

Ikusgaitasuna, zaurgarritasuna eta estrategia konpartituak

LGBTB* politiken agenda eta ikuspegi estrategikoen inguruan azpimarratu nahiko nukeen azken elementua ikusgaitasunarena da. Aktibista batzuek zalantzan jarri dute ikusgaitasuna lehentasunezko estrategia bezala tratatzea; beste batzuek uste dute LGTB* politiken ezinbesteko elementua dela. Argi dagoena da bai batzuentzat eta bai besteentzat kontu handiz tratatu beharreko gaia dela ikusgaitasunarena. Ildo horretatik, Mariam Fraserrek²⁵⁵ (1999) queer politiketan irudiaz egin den erabilera kritikoki irakurtzen du eta interesgarria izan daiteke auzi hau pentsatzeko. Butlerrekin bat dator diferentziaren inguruan egiten duen irakurketan, eta bien iritzian diferentzia ez da identitate ezberdinen artean sortzen dena baizik eta identitateak berak existitu ahal izateko beharrezko baldintza (Fraser eta Butler 2017). Hala ere, filosofo estatubatuarren performatibitatearen teoriari kritika egiteko beharra sentitzen du, aspektu asko kanpoan uzten dituelako. Kritika horren lehen argumentua ikusgaitasunaren ideari berari zuzentzen dio, zapalkuntzaren inguruan jarduterakoan leku pribilegiatua duela uste duelako. Gure bizitza determinatuko duten

255 Hemendik aurrera “M. Fraser” izendatuko dut autore hau, testuan hainbat alditan agertu den Nancy Fraserrekin nahastu ez dadin.

zapalkuntza batzuk ikusgarriak dira eta beste batzuk ez horrenbeste. Zehazki, sexualitatearen inguruan sortzen diren diskriminazio edo indarkeriak ez dira ikusgarriak diren elementuekin lotzen. Esaterako, norberak bere desioa ezkutatu dezake eta, aldiz, bere azalaren kolorea ez. Horregatik, sexualitatearen kasuan, narrazioa ezinbesteko elementua da. Norberak bere nortasunari zentzua eman nahi badio maila sozialean, narrazio bat sortu behar du bere sexualitatearen inguruan, eta hortik norbere sexualitatea definitzeko presioa. Narrazio horrek egiten gaitu pertsona identifikagarri, eta horretarako baldintza koherentzia da, denboran konstantzia minimoa mantentzea. Butlerren performatibitatearen teoriak elementu horiei heltzen die, identitateari izaera tenporala esleituz.

Gorputzaren eta narrazioaren arteko bidegurutze horretan, aspektu bisualak erabateko lehentasuna du, gure kulturaren egia *ikusī*²⁵⁶ daitekeen horrekin lotzen delako (Braidotti 2000). LGTB* politikak irudiari berebiziko garrantzia aitortu diote, eta ez da kasualitatea metafora nagusia armairutik ateratzearena izatea, *ikusezinak* garen leku batetik *ikusgarriak* garen beste batzuetara ateratzearena. Bere artikuluan M. Fraserrek ikusgaitasun hori kalterako erabil daitekeela azpimarratzen du, esaterako, kapitalismoak sexualitatea merkantzia bilaka dezake, bizimodu estetikoak proposatuz nortasun politizatuen orde, edo politika forma batzuk distintzio forma bezala berritxura daitezke (Bordieu 2006). Klase identifikazioarekin horrek duen ezberdintasuna aipatzen du M. Fraserrek, hain zuzen ere lan honen lehen atalean aipatu dudana Skeggsen (1997) lanaren haritik. Gogora dezadan Skeggsen identifikazio eta desidentifikazioaren inguruko hainbat hausnarketa planteatzen dituela langile klaseko hainbat emakumeren mekanismoak aztertuz. Bere lanean ikertu zuenaren arabera, langile klaseko emakumeek desidentifikaziorako joera handiagoa dute klase identifikaziorako baino. Beraien *performance*aren asmoa ez da beste batzuekin identifikatzea, baizik eta beraiek materialki direnarekin identifikatu ditzaten eragozte. M. Fraserrek gehitzen du klasearen esparruan gertatzen den performatibitate horrek ez duela sexualitatearen eremuan duen efektu berbera eta, kasu askotan, Butlerrek (2001) defendatzen duen berrezaugarritze performatiboak pribilegio egoeratik egiten direla. Ideia hori eztabaidagarria den arren, egiten duen ekarpena LGTB* politikan ikusgaitasunak bete dezakeen posizioaren kritikarekin

256 Azkenaldian “fake news” edo notizia faltsuen inguruko kezka handia zabaldu da gure artean. Duela gutxi irakurritako artikulua batean (<https://labur.eus/pY1WJ>, 2019ko azaroaren 25ean kontsultatua) ordenagailuz sortutako irudiekin egindako bideo faltsuen inguruan irakurri nuen. Bideo horiek, ehuneko handi batean pornografikoak direnak, pertsona baten gorputza (esaterako, pornografia aktore batena) eta beste baten burua (esaterako, politikari famatu batena) elkarrekin jarritik sortzen dira. Emaitza nahiko sinesgarria da. Aldi berean, nahiko zarata sortu da aurpegi generatiboen kontuarekin. Aplikazio informatiko batzuk gaitasuna dute, *benetako* pertsona askoren aurpegi artxibo batetik abiatuz sinesgarriak diren aurpegi *berriak* sortzeko, ausazko konbinazio eta algoritmoen bidez. Emaitzak, kasu horretan ere, nahiko sinesgarriak dira (irudiok ikusita ezingo genuke jakin zeintzuk diren benetako pertsonak eta zeintzuk ez. Horrek esan nahi du nahiko posiblea dela pertsonak sortzea, identitate faltsu bat ematea eta mugimenduan jartzea gauza bat edo bestea eginez, eta bideo horiek publikatzea. Kuriositate bezala aipatzen dut, baina esango nuke hemendik urte batzuetara *egia dena* eta *ikusten duguna* ez direla hain estuki lotuko. Agian ukimenari emango diogu garrantzi gehiago, edo usaimenari.

lotuta dagoela esango nuke. Ikusgaitasuna halabeharrez identifikazioan oinarritzen da: eskuragarri ditugun errepresentazio batzuekin identifikatzen garen heinean *ikusgarri* egiten gara, guretzat eta beste batzuentzat. Tesi honen lehen atalean azaldu den bezala, identifikazio hori oso problematikoa bilakatu daiteke gure klase, jatorri edo posizio komunitarioen arabera.

Elkarrizketatutako aktibistek hainbatetan aipatu dute jende askok ezin duela horren erraz armairutik atera eta hori kontuan hartu behar dela politikak pentsatzean. Ildo beretik hitz egin zuen ere Palestinako Alqaws²⁵⁷ elkarteko Haneen Maikey aktibistak Bilbon emandako hitzaldi batean. Europa kontinentaletik beste leku batzuetara LGTB* politikak eramateko ahaleginean kategoriatu batzuen esportazio inperialista egiten dela salatu zuen aktibistak. Alde batetik azaldu zuen bere erakundea ez dela LGTB* gisa definitzen, sexu eta genero aniztasunaren aldeko erakunde bezala baizik, gay, lesbiana edo trans* hitzek izan dezaketen konnotazio inperialistagatik batetik, baina baita hango herritarrek termino horiekin identifikatzeko izan ditzaketen zailtasunengatik ere. Bestetik, armairutik ateratzearen ideia mendebaldar eta hiritarrak han zentzu gutxi izan dezakeela azaldu zigun. “Oztopo guztien gainetik eta edonori aurre eginez garena izatearen” ideia erromantikoa, LGTB* kulturako hainbat adierazpenetan zein talde askoren diskurtsoetan oso presente dagoena, balio urrikoa da gatazka militarren ondorioz mugikortasun mugatua duen herrialde batean eta askotan familia segurtasun-esparru bakartzat duten komunitateetan. Hori dela eta, bestelako politika eta estrategia batzuk bultzatzen ditu bere erakundeak Palestinan eta elkarren babeserako sareetan jartzen dute azentua, ikusgaitasunean baino.

Horrela planteatuta, emango luke ikusgaitasuna berez baliagarria eta interesgarria dela guztiontzat, baina batzuek besteek baino zailtasun gehiago dituztela estrategia bezala aplikatzerakoan. Baina horretaz gain, homonazionalismoaz aritu naizenean aipatu izan dudana moduan, gure forma politikoak beste espazio batzuetara esportatzearen ideia ere da zalantzan jarri beharrekoa. Zentzu horretan, garrantzitsua da ikusgaitasunari egiten zaion kritika ez egitea arrakalaren ikuspegitik, soldata arrakala edo arrakala digitala aipatzen ditugunean egiten dugun bezala, non helburua bi errealitate berdintzea den, haietako bat eredu hartuz. Planteamendu horren arabera, mendebaldeko gizarteak eredu bezala hartuko lirake eta beste komunitate batzuk eredu horretara “heldu” daitezten ahaleginak egin beharko genituzke. Aitzitik, komunitate eta norbanako ezberdinek ikusgaitasunari planteatzen dizkioten mugek gure estrategien baliagarritasuna bera zalantzan jartzeko balio behar dute²⁵⁸.

257 <http://alqaws.org/siteEn/index>. Lotura azkenengoz 2019ko urriaren 25ean kontsultatua.

Aldi berean, estrategia berdinak une historiko ezberdinetan dituen efektuak kritikoi aztertzea ezinbestekoa da. Sexualitateek egungo gizarte kapitalistetan joka dezaketen papera kontuan hartuz²⁵⁹, ikusgaitasuna prisma berri batetik ikusteko unea izan daiteke hau, dituen argilun denak kontuan hartuz. Horrek ez dakar estrategia hori betirako alboratzea, baina ezta testuinguruari erreparatu gabe beti ontzat ematea ere.

Badago ikusgaitasunari beste alde batetik begiratzea ere. Aktibista batzuek, esan bezala, estrategia hori beharrezkoa dela azaldu dute, eta ikusgaitasunarekiko mesfidantza batzuk beste begirada batetik enfokatzeko aukera eman dute horrela. Lesbianismo feministaren ikuspegitik, esaterako, ikusgaitasunak ez dakar jadanik presente dagoen subjektu baten esposizioa, aldi berean aukera baten “propaganda politikoa” dakar, espresio hori erabiltzea zilegi bazait. Zentzu horretan, ikusgaitasun lesbikoa ez da positiboa emakume lesbianentzat soilik, emakume guztientzat baizik²⁶⁰, aukera berriak irekitzen dituelako. Ikusgaitasun horrek ordezkatzeko duen *gu* ez da orainaldiko *gu* bakarrik, “*oraindik kontziente ez den denboraren*”, alegia, etorkizunaren *gu* bat da ere (Esteban Muñoz 2009:20). José Esteban Muñozek dioen bezala, ezin garelako gaur *okerrak* (queer) izan, *okerrak* izatea etorkizunera begira egiten dugun zerbait da beti. Kasu horretan ikusgaitasunak hartzen duen zentzua erabat ezberdina da, ez du eredu itxi bat adierazi nahi, ez du nortasunaren errepikapen estatikoa izan nahi, ez ditu ereduak sortu nahi, aukerak baizik. Ikuspegi horretatik galdera ez da horrenbeste ikusgaitasuna beharrezkoa den ala ez, baizik eta zer nolako ikusgaitasuna behar dugun eta non kokatuko den, estrategikoki, LGTB* politiken une bakoitzean.

258 Luisa Paserinik ideia antzerakoa defendatzen du nazioarteko harremanak eta subiranotasuna adibide hartuta. Bere aburuz, ipar globalean subiranotasunaren ideia zalantzan jartzeak bi efektu izan behar ditu. Lehengoa gure gizarteetan bertan subiranotasuna zertan datzan galdekatzea da eta bigarrena, zalantzan dagoen heinean, kontzeptu hori beste herrialde batzuetara esportatzea arazotsutzat jotzea. Bi norabidetako gertaera da honakoa: beste herrialde batzuetan kontzeptua aplikatzeko ditugun zailtasunek gure subiranotasunaren ideia zalantzan jartzea dakarte ere. Honela dio: “*La soberanía ya no puede ser considerada como el principio organizativo central de la teoría de las relaciones internacionales, sino que debe ser examinada junto al proceso de formación del sujeto: el cambio de los dos debe imaginarse simultáneamente*” (Passerini 2006:56).

259 Kapitalismoan ikusgaitasunak duen paperaren irakurketa egiten du Rosemary Hennessy (1994) ikuspegi marxistatik. Queer ikusgaitasuna Marxen merkantziaren eta fetitxismoaren ikuspegitik aztertu zuen, nik erabat babesten ez dudana analizatuz. Ikuspegi postestrukturalistatik aritzen da Daniel Garcia Lopez (2016) gai horren inguruan “Rara Avis” bere liburuaren hirugarren atalean. Slavoj Žižek irakurketak jarraituz ekonomia ere zalantzan jarri dezakeen subjektu *okerraren* bila ari da eta bere egiten du Comité Invisibleren proposamen insurrekzionala, ikusgaitasuna “geroratzea” proposatuz.

260 Gai honen inguruko oso ikuspegi interesgarria hainbatetan aipatu dudana Teresa de Lauretis-en “Irreductibilidad del deseo y conocimiento del límite” (2000) testuan aurkitu daiteke.

Ikusgaitasunari loturik azaldu den beste ideia garrantzitsu bat bidesariena da, batzuek aktibismoaren partetzat daukatena. Ikusgarria zer den eta nola narratzen den estuki loturik joan arren, ez dira gauza bera eta, beraz, bi elementu horien arteko harremanak aintzat hartzekoak dira. Pertsona batzuentzat haien diferentzia ezkutatzea (passing deitu duguna) ez da aukera bat, beren genero adierazpenak ikusgarri egiten dituelako nahi ala nahi ez. Baina horretaz harago, presente izan behar da aktibismoak sortzen dituen dinamiketako askok (prentsan azaltzea, manifestazioetan, ekintzetan, hitzaldi edo tailerretan parte hartzea) oso ikusgarri bihurtzen dituztela aktibista ugari. Zer esanik ez sare sozial digitaletan. Kolektiboki antolatzen diren ekimenetan pertsona batzuek hartzen duten ikusgaitasun hautatu horrek sortzen dituen kalteak zaindu eta sendatzea talde osoaren ardura da eta, horrelakoetan ezinbestekoa da, berriz ere, entzute ariketa aktiboak egitea eta taldekide guztiak kokapen berean ez daudela alde zuzenetik aitortzea²⁶¹.

LGTB* politika eta aktibismoek ezin dituzte ordainsari horiek naturaltzat edo “lanaren partetzat” hartu, beharrezkoa da babes eta erantzun neurri egokiak pentsatzea maila kolektiboan. Aldi berean, ordainsari horiek eta aktibismoaren beste aspektu negatibo batzuk gaur egungo kultura militanteen eraldaketan jokatu dezaketen papera pentsatzea ezinbestekoa da, sakrifizioan oinarritu den kultura militantetik sakrifizioa erabat ekidin nahi duen batera pasatzea ekiditeko (Aranguren, Montero, eta Herrero 2017).

Agendak eta estrategiak etengabe aldatzen dira eta mugimenduek gaitasuna izan behar dute beren estrategia eta helburuak zalantzan jarri, lehentasunak *ahaztu* eta berriak pentsatzeko eta, zergatik ez, agendaren beraren ideia zalantzan jartzeko. Analisi honi hasiera eman dion Leslie Feinbergen aipua egokia iruditzen zait atala amaitzeko eta, beraz, berriz ekarriko dut orriotara:

Neure buruari jarritako azken zeregina zen Stonewall topatzea. Gogoan nuen nolako eragina izan zuen, ikasi genuenean polizien kontra 1969an izandako borroka. Oinezko bati eskatu nahi nion nire irudia har zezala haren aurrean. Pentsatu nuen ezen, noizbait, ni hil ondoan, norbaitek argazkia aurkitu zezakeela, eta hobekixeago ulertuko ninduela.

-Ba al dakizue non dagoen Stonewall taberna? -galdegin nien farola baten kontra bermaturik zeuden bi gayri, Sheridan Squaren.

261 AEBetan, Erresuma Batuan, Hego Afrikan eta Australian jasotako datuekin egindako ikerketa kuantitatibo baten arabera LGBTBQI aktibistek ordaindu beharreko peaje emozionala dezente altua da kasu guztietan eta bereziki altua gazteen, zuriak ez direnen eta gazteen artean (Pepin-Neff eta Wynter 2019). Aztertzeke geratuko litzateke gure testuinguruan zeintzuk diren gure lehentasunezko atentzioa beharko luketen elementu eta pertsonak.

-Hura zen taberna -haitako batek erroskilla denda seinlatu zuen (Feinberg, 2018:374).

“Marimutil handi baten bluesa” liburuan, Jesseren istorioa kontatzen du ekintzaile eta idazle queer sozialistak. Jesseren lekualdatze ugariren testigu egiten gaitu, bere haurtzarotik hasi, butch-femme eszena lesbikoan murgiltzen den garaietatik jarraituz eta bere klase eta genero kondizioak sortutako bazterkeria gordina erakutsiz. Bere bizitzaren une batean, New Yorken bizitzen dagoela, Stonewall tabernaren aurrean dago Jesse, hain garrantzitsua izan den sinbolo horren parean argazkia ateratzeko prest. Baina bere borrokaren sinboloa preziatua zen giro txarreko taberna hura erroskilla denda bat da orain. Hori gutxi balitz, kalean bizi den pertsona transfemenino baten aurkako indarkeria pasarte bortitzaren lekuko izango da Jesse segidan, bera ez beste ia inor asaldatuko ez duena. Bi lezio interesgarri ematen dizkigu pasarteak, gutxienez. Lehena, gure mugimendua erroskilla denda bilakatuz gero, jendearentzat, LGTB* guztientzat, lagungarri izateari utziko diola. Bigarrena, iraganeko erreferenteak baliagarriak izan arren, aukera bakarra aurrera ibiliz begirada norabide ezberdinetan (des)bideratzea dela. Horretarako, elkarrekin jardutea baino hoberik ez dago. Zalantzarik gabe, LGTB* politiken berrasmatze eta artikulazio berriak ez dira akademiatik etorriko, ez eta paperetatik ere, nahiz eta horiek – espero dezadan – bere lekua eta papera joka dezaketen. Egitean eta egotean, mugimenduan, sortzen dira aukera berriak, kapitalaren eta patriarkatuaren orainaldi amaigabea zalantzan jartzeko indarra dutenak, etorkizun zalantzatiak, inklinaziotik zutik egoteko formak, utopia *okerrak*.

5. Ondorioak: ikaspenak, irakaspenak, desioak eta politika *okerrak*

Doktore-tesi honek herri mugimenduak agertoki edo egoera moduan hartu ditu, jendeak batu eta elkarrekin jarduteko konpromisoa hartzen duenean gertatzen dena aztertu ahal izateko, sexualitate eta genero ez-normatiboen gaiaz hausnarketa egin asmoz. Alderantziz ere aurkeztu nezake ikerketak egindako esfortzua: sexualitate eta genero bizinortasun ez-arautuak abiapuntutzat hartu ditut, herri mugimenduen esparru espezifikoetan nola konfiguratzeko diren pentsatzeko. Bi elementu hauek, herri mugimenduek eta sexualitate-genero ez-arautuek, dimentsio ugari biltzen dituzte beraien baitan. Herri mugimenduak badira, aldi berean, espazio politiko, komunitario eta emozionalak, helburu zein funtzio ageriko eta inplizituak dituztenak eta, errealitate soziala transformatzeko jardutearekin batera, mundu sozial propioak sortzen dituztenak. Sexualitate eta genero bizinortasunak, halaber, norbanakoaren oinarritzko zutabe dira, pertsonari bere izaera ematen dioten elementuak eta barne-barnekotzat ditugunak eta, bat-batera, egitura sozialekin estuki lotzen dira, gure egungo gizartearen antolatzaile nagusienetako bilakatu arte.

Ondorioen atal honetan LGTB* borrokak bere egungo testuinguruan kokatzen saiatuko naiz, herri mugimenduen eta koiuntura zabalagoaren ezaugarri batzuk haien artean konektatuz. Horren ostean, ikerketan azaleratu diren ideiak oinarri hartuz²⁶², LGTB* politikek herri mugimenduen espektro zabalagoari egin diezazkioketen hainbat ekarpen izendatuko ditut, hala nola politika horiek gaur egunean aktibatu eta eraginkor izateko dituzten erronketako batzuk. Amaitzeko, ikerketa lanak berak izandako mugak aipatuko ditut, etorkizunerako utzitako hainbat hausnarketa lerro ere zerrendatuz.

²⁶² Hurrengo orriotan ideia horiei erreferentzia egingo diet tesian azaldu diren atala parentesi artean izendatuz.

Teilakatzeak

Dimentsio horiek guztiak kontuan izaten eta haien arteko lotura anitzak esploratzen saiatu naiz ikerketa osoan zehar, prozesu konplexuok sinplifikazioan erori gabe azaltzea soziologiaren xedea dela uste dudalako baina, areago, ikuspegi politikotik, eraldaketa soziala eta sexualitate/genero bizinortasunak sinplifikatzeak gauza onik ez dakarrela uste dudalako. Askotan eraginkortasun politikoaren aitzakiaz esaten denaren kontra, eraldaketa sozialari buruzko dimentsio bakarreko pentsamoldeak ez du aldaketa edo aktibazioa errazten, eta gaur egungo testuinguruan, analisi sinpleek kapitalismo patriarkalaren betikotzea besterik ez digute ekarriko eta, tentuz ez bagabiltza, inoiz joan ez zen faxismo horren itzulera. Ikerlan honek eskaini dizkidan ideien artean dago, mugimenduek duten dimentsio intimo eta extimoa²⁶³ elkarrekiko konexioan besterik ezin direla ulertu eta azaldu. Bestela esanda, bi eremu horien arteko teilakatzea mugimenduen beraien izateko baldintza direla.

Estrategia politikoan ikuspegitik, konexio horri ezikusia egitea eraldaketarako potentzia ugari ezgaitzea litzateke. Ikuspegi analitikoetik, errealitatea ukatzea. Taldeek dituzten funtzionamenduek eta sortzen dituzten ekosistemek baldintzatzen dituzte, besteak beste, sektore zabalagoen politizazio prozesuak, gai edo afera batzuek agenda politikoan duten posizioa edo borroka-estrategia batzuen jarraikortasuna. Era berean, testuinguru politikoak eta gizartearen egitura ekonomiko, kultural eta politikoekiko harremanak taldeen barne-bizitza erabat baldintzatzen dute, mugimenduen ikuspegiak zein baldintza materialak eraldatuz. Horrela ikusi dugu, adibiderako, transformazio administratibo eta juridikoek LGTB* politikak baldintzatu dituzten moduak aztertzean. Mugimenduen dimentsio horietako batean (barnera begirakoan ala kanpora begirakoan) soilik zentratzeak eraldaketa sozial askatzailearen mugak are gehiago estutuko dizkigu.

Sexualitate eta genero bizinortasunen ulerkerari dagokionez, antzerakoa gertatu dakiguke. Desioaren eta genero nortasun/bizipenaren ikuspegi teleologikoa gure egin eta haiek norbanakoaren ezaugarritzat hartzen baditugu, genero eta sexualitatearen potentzia politikoa bizipen, nortasun eta sexu-desioekiko errespetua eskatzera mugatuko dugu, humanismo (neo)liberalaren estiloan. Beste muturrera joan eta prozesu sozialen ondorio soiltzat hartzen baditugu, desioak eta identifikazioak sortzen dituzten zirkuitu korapilatsuak tenkatu eta marra zuzen bilakatzeko tentazioan eror gaitezke. Kasu horretan subjektibotasunak, gorputzak eta desioak eskaini ditzaketen indarrak dira desaktibatuko ditugunak. Paradoxikoa bada ere, begirada erabat estrukturalen ondorioa despolitizazioa izan daiteke.

263 Talde eta kolektiboen barne-bizitza zein sortzen dituzten komunitate-espazioak eta, mundu sozial zabalagoetan duten eraginaren arteko banaketaz ari naiz.

Izan ere, politizazioa eta despolitizazioa ikerketa honen klabe nagusietako bat dira, nahiz eta hitzok ez diren era esplizituan beste kontzeptu batzuk adina agertu testuan zehar. Politizazioa oso ideia konplexua da berez, larregitan politikaren ikuskera modernoarekin lotzen duguna: afera bat politikoa bilakatzen da alderdien, estatuaren eta administrazioaren esparruetara heltzen denean. Defendatu dudan moduan, herri mugimenduek politikoa denaren mugak eta kontzepzioak hedatzen jarduten dute eta, zentzu horretan, politikoa dena ez da soilik estatuaren esparrura mugatzen: gertaera sozialak kontingenteak, aldagarriak eta egiturazkoak direla pentsatzen dugunean, nola edo hala, gertaera horiek politizatzen ditugu. Horrek berebiziko garrantzia du egungo LGTB* politikez pentsatzerakoan, izan ere, esango nuke azken urteotan politika horien instituzionalizazio fase baten b-aldea bizitzen ari garela. Edonola ere, eta geroago itzuliko naiz honetara, politizazioa ez da bakarrik egoera partikularren irakurketa estrukturala egitea; begirada hori sozialki eta besteekin elkarlanean artikulatzea ere eskatzen du nahi eta nahi ez. Ez da analisi kontu bat besterik.

Egoera edo bizipenak ez dira, beraz, era automatikotan politizatzen. Adibidez, sexualitate eta genero bizinortasuna politikotzat jotzeak ez dakar, halaber, politizaziorako erabiltzen diren plataforma kontzeptual eta nominalekin (gay, lesbiana, trans*, bisexual eta abar) bat egitea. Ondorioz, politizazioa beti erakarpenaren eta errefusatzearen arteko eremu magnetikotan gertatzen dela ulertu beharko genuke. Elementu ezberdinek politizatuta dagoena despolitizatu dezakete (edo alderantziz) eta, are garrantzitsuagoa dena, eremu hori bitarra ez den heinean, politizazio forma berriak sorrarazi ditzakete. Esate baterako, norbanakoak bizi dituen mundu sozial anitzak (koadrila, familia, mugimendua eta abar) aztertzean, politizazio forma partikular eta ez-egonkorrak azaleratu dira. Inguruneak politizazioaren mugak baldintzatzen dituela ikusi ahal izan dugu halaber: nekez joko du norbanakoak politikotzat bere inguruneak horrela hartzen ez duena. LGTB* esperientzia partikularren eta sozialaren artean dagoela diodanean hori da adierazi nahi dudana: esperientzia bakarra da baina norbanakoak ezin du ulertu ez eta interpretatu testuingururik gabe. Hortaz, komunitate bakoitzak politikotzat duena dinamikoa bezain determinatzailea izan daiteke eta, horregatik, politizazio prozesuetako asko norbanakoek erreferentziazko komunitate eta arauetikiko desorientazioa sentitzen duten uneetan gertatzen dira.

Bi indar nagusi

Auzia konplexuagoa dela onartu arren, politizazioa eta despolitizazioa eremu bitarrear kokatuko bagenitu, dagokigun afera honetan bi indar nagusi identifikatzea ez litzateke zaila. Neoliberalismoaren ideologiak eta kapitalismoaren eragin material eta kulturalak alde batera tira egiten dute, sexualitate eta genero aferak eta, oro har, beste edozein afera, despolitizatzen saiatuz. Herri mugimenduen jardunak, beste hegalean, politizazioaren alde egiten du edo, agian zehatzago, despolitizazioaren indar horien kontra. Baina zer dago erdibidean, zein da politizatu edo despolitizatu nahi den hori? Nagusiki intimitatearen politizazio edo despolitizazioaren ingurukoa da eztabaida-puntua.

Kapitalismoak intimitatearen aurkako gerra irekia du aspaldidanik. Sistema horrek azken hamarkadetan izandako garapenean garbi erakutsi du intimoa den oro suntsitzeko duen gaitasuna, bai lanean eta enpleguan (lan-orduen eta aisialdiaren artean ezberdintzeko zailtasunaren bidez) bai eta salgaienean (lehen intimitzat genituen hainbat elementuren salerosketaren bidez). Azken hamarkada eta erdian, gutxi gora behera, datuetan eta plataformetan oinarritutako esplotazio sistemaren bidez joera hau areagotu besterik ez da egin: gure bizitzaren alderdi guztiek izan behar dute enplegu eta ekoizpen merkatuarentzat gardenak eta kategorizatze modukoak.

Aitzitik, liberalismoaren ideologiak intimitatearen defentsa sutsua egiten duela eman dezake, norbanakoaren figura eta bakoitzak egiten duena errespetatzea aldarrikatu eta estatuaren eguneroko interbentzioa arbuiatzen duenean. Baina, zinez, neoliberalismoak ez du jada liberalismo klasikoaren ikuspegi berbera horren inguruan: afera sozialak pribatizatzea ezinbestekoa du, berauen politizazioa ekiditeko baina, aldi berean, ez du estatuaren interbentzioa arbuiatzen, ekonomiak hala eskatzen duenean. Estatu merkatuaren krisiak konpontzearen arduradun bihurtu den modu berean, enpresa eta finantza mundua, gero eta gehiago, gobernazioaren dispositibo bilakatu dira. Testuinguru horretan, konfrontazioa litzatekeena (kapitalismoak intimitatea bereganatu nahi izatea eta liberalismoak pribatutasuna babestea) bateragarri bilakatzen da, agertoki beldurgarri bat ahalbidetuz: intimitatea hiper-konektatuta eta aldi beran (ikuspegi politikotik) pribatizatuta dago.

Lehenago aipatu dudan sexualitatearen eta genero nortasunaren ikuspegi esentzialista eta teleologikoak zeresan handia du afera honetan. Lan honen hirugarren atalean ikusi ahal izan dugun moduan, sexualitatea aspektu intimoetan intimoena dela sentitu ohi dugu, eta zaila da kontingente eta eraiki bezala ikustea²⁶⁴. Aldi berean, trans* bizipenaz pentsatzean, genero nortasuna ere gero eta gehiago esentzial moduan ulertzeko joera dagoela argudiatu dut. Bi kasuetan begirada bitarra (eraikia vs. berezkoa) ekiditea aldarrikatu dut, baina horrek ez du esan nahi egungo gizarteetan ez dagoenik esentzialisismoarako joera argia. Ondorioz, kapitalismo eta liberalismoak sexualitate eta genero biziortasunak beretzat berreskuratu nahi dituenean, gure intimitatea da jokoan dagoena. Are gehiago, identifikazioaz hitz egin dudanean (3.2.1) ikusi ahal izan dugun moduan, herri mugimenduek elementu horiek politizatu nahi dituztenean ere, gure bakantasunetik desjabetuak sentitzen gara maiz, eta intimitatearen babes horrek politizazioari balazta jartzen dio, beste elementu batzuk (klasea, naziotasuna, arraza eta abar) politizatzen dituzten pertsonengan ere sexualitatea politikotzat jotzea zailduz.

Testuinguru horretan, intimitatea bereganatzeko batailaren agertoki nagusia esperientziarena da. Azken finean, esperientzia norbanakoaren barnetasunaren eta mundu sozialaren arteko elkargunea da. Testuinguruak baldintzatu eta, areago, posible egiten du esperientzia bera baina, aldi berean, desioari²⁶⁵ lotzen zaion norbanakoaren zati horrek, existentzia sozialak bereganatu ezin dezakeen hondakinak, esperientzia hori bakar eta kontingente bilakatzen du. Are gehiago, eraldaketa politikorako ezinbestekoa den ziurgabetasun esparrua irekitzen du esperientziaren izaera konplexu horrek. Horregatik da posible bizi-baldintza eta kondizio material zein kultural antzerakoak dituzten pertsonen oso bide ezberdinak hartzea beren sexualitatearen eta genero biziortasunaren politizazioei dagokienez.

264 Honen inguruan hirugarren atalean adierazi ditut generoaren inguruko ezberdintasunak nabariak direla, sexualitatea gehienetan betiereko eta aldagaitz bezala esperientziaz dutelako gay gizon askok eta lesbianismoaren kasuan esperientzia anitzagoak aurkitu ditudalako. Edonola ere, halako baieztapen batek ikerketa sakonagoa eskatuko luke aspektu espezifiko horri atentzio berezia eskainiz.

265 Hemen ez nabil desio sexualaz bakarrik.

Aitzitik, lehen aipaturiko indar magnetikoei erreparatuz, kapitalismoak esperientziaren berreskuratze propioa egiten duela esan daiteke. Intimitatea enpleguaren eta salgaien merkatuaren beharrei erantzuteko erabiltzeko asmoz, esperientzia identitate sasi-egonkor gisa itzultzea du helburu. Honela, gay, lesbiana, bisexual edo trans* izatea salgaien merkaturan esanahi espezifikoak dituen identitate bilakatzen da eta, sailkapen hori erabilgarria izan dadin, egonkorra eta estereotipatua baina aldi berean malgua izan behar da. Ez da zaila begirada horrek politizazioa ekiditen duela ondorioztatzea, LGTB* esperientziak beste zapalkuntza-sistema batzuekiko harremanetik kanpo kokatuz, klase sozialarekin, generoarekin edo arrazarekin dituen loturak ezkutatuz.

Eremu magnetikoaren beste aldean, herri mugimenduek esperientzia horiek politizatzeke ahaleginak egiten dituzte baina horrek ez du esan nahi esperientziaren alderdi guztiak berdin berreskuratzen dituztenik. Esperientziaren alderdi batzuek besteek baino zentraltasun handiagoa dute eta, ondorioz, mugimenduen politiken erdigunean edo periferian kokatuko dira. Horretaz harago, esperientziari buruzko irakurketa automatikoezia da sarritan, egoera material zein kultural bertsuak dituztenen esperientzia bateratua edo (are okerrago) bateragarria dela ontzat ematen delako. Irakurketa automatiko horrek, maiz, konexio ugari desaktibatzea dakar, hainbat subjektuk haien esperientzia ez dutelako mugimenduek egiten duten narratiban islaturik ikusten.

5.1 LGTB* politiken berezitasunak eta herri mugimenduei egiten dieten ekarpena. Zer ikasi dezakegu LGTB* politikez?

Herri mugimenduen errealitate eta jardunak partikular eta independenteak diren neurri berean daude elkarri konektaturik. Mugimendu orok eta, bakoitzaren barruan, joera politiko eta talde orok, azpimundu sozial propioak sortzen ditu, baina horiek estuki konektatua daude beste esparru sozial ugariarekin, tartean, eta indar bereziz, beste mugimendu batzuekin. Lanean zehar ikusi dugu mugimenduen inguruan kultura politikoak sortzen direla: jarduna antolatzeke modu sasi-egonkorrak, afera politikoei buruzko ikuskerak, kidetza komunitariorako baldintzak edo estrategia eta borroka moduekiko atxikimendu eta ukatzeak, besteak beste. Kultura politiko horiek talde partikularren dimentsioa gainditzen dute, bi aldetako norabideak ezarriz. Batetik, talde eta elkarteak kultura politiko zabalagoen babesean sortu eta moldatzen dira eta, bestetik, zelula txikiago horiek kultura politiko, oso era motelean bada ere, eraldatzeko gaitasuna dute. Lanean zehar agerian geratu dira familia politiko zehatzek (Ezker Abertzaleak edo ezker alternatiboak, kasu) barne mailan kultura politiko egonkorrak sortzeko eta beste talde batzuen jardunean eragiteke duten gaitasuna. Esaterako, euskal gatazka izendatu den horren hegalpean sortu eta elikatu diren kultura politikoek (gatazka, konfrontazioa eta mobilizazioa ulertzeko moduek), era batean edo bestean, mugimendu guztiei eragin diete. Batzuek kultura politiko hori elikatu dute eta beste

batzuk horrekiko distantzian kokatu dira, baina gehienek horren eragina bizi izan dute. Familia politiko ezberdinetako kideak biltzen dituzten mugimenduen kasuan ere (mugimendu feministarenean, bereziki), kultura politikoetan eragiteko gaitasuna ere ikusi ahal izan dugu, esaterako, mugimendu feministaren ideia eta praktiketatik abiatuz beste mugimendu batzuen egiteko modu eta kidearen inguruko pertzepzioak nola aldatu diren. Hor ere, talde batzuek feminismoaren printzipio eta ekinbideak bereganatu dituzte eta beste batzuk distantzian kokatu dira, edo oposizioan.

LGTB* politikak, lan honetan, ez ditut ez aparteko familia politiko bezala ez eta mugimendu artikulatu bezala ere tratatu, baina, egotekotan, bigarren multzotik gertuago egongo lirateke. Mugimenduen arteko eragina aztertuz gero, (trans)feminismoaren ekarpen eta praktika ugarrirako gerturatzea egon badagoela ikusi ahal izan dugu, baina baita tentsio nabaria ere feminismoarekin aspektu batzuekiko, dela subjektu politikoaren konfigurazioarekiko, dela sexualitateak mugimendu feministen agendan duen lekuarekiko, besteak beste. Kultura politiko zabalagoekiko harremanari erreparatzean, gatazka eta konfrontazioa ezaugarritzeko modu ezberdinak identifikatu ditugu, eta beste mugimendu askotan ere garrantzitsuak diren eztabaidak (kideza, komunitatekiko distantzia, indarkeriaren erabilera edo instituzionalizazioa) LGTB* politiketan oso presente daudela ikusi ere.

Edonola ere, LGTB* politikek badituzte partikularitasunak, hala kolektiboen jardunaren ikuspegitik nola talde mistoetan ari diren kideen esperientziaren bizipenetik, eta horiek esploratzen saiatu naiz. Helburua bikoitza izan da. Hasteko, politika horien jarduteko modu eta kezken orainaldia atxiki nahi izan dut, uneko eztabaida nagusiak eta horiek artikulatzeko gakoak identifikatzeko asmoz. Bestalde, politika horien egiteko modu eta planteamenduak herri mugimendu ororentzako irakaspenak izan daitezkeelako uste osoa dut. Azken urteotan LGTB* politiken elementu gutxi batzuk beste mugimenduek nola berreskuratu dituzten ikusi ahal izan dugu, esaterako “armairutik ateratzearen” tropo ezaguna beste politika batzuei (euskalgintzari edo maskulinitate berriei) aplikatuz. Baina, feminismoaren kasuan gertatzen den moduan, uste dut gauza bat dela tropo ezagun bat (askotan, era desegokian) erabiltzea eta bestea LGTB* politikek dakarten sakontasun eta konplexutasuna barneratzea, beren ekarpenak aintzat hartuz. Ikerketa honetan azaldu diren ideiak erabiliz eta askoz gehiago izan daitezkeela onartuz, LGTB* politiken partikularitasun horiek zein diren eta herri mugimenduen esparru zabalari zer ekarpen egin diezaioketen bost puntutan laburtzen saiatuko naiz.

| **Intimitatearen politizazioa.**

Mugimendu feministan generoarekin gertatzen den moduan, sexualitate eta genero bizinortasun ez-normatiboak politizatzeak esperientziaren aspektu intimo bat mahai gainean jartzea dakar eta, zentzu horretan, esperientzia pertsonalaren eta politizazioaren zirkuituak birpentsatzeko balio dezake LGTB* politikaren azterketak. Zer pista eskaini diezazkieke, esaterako, borroka eta aldarrikapenerako LGTB* politiketan erabiltzen diren locus nominatiboekiko atxikimendu eta errefusatzeek beste mugimendu batzuei? Ikusi ahal izan dugu identifikazio ugari partzialak eta estrategikoak direla eta gay, lesbiana, bisexual, trans*, marika, bollera eta abarreko tropo horiek beharrezkoak zein labainkorrak direla afekzio politikoa (pertsonal zein kolektiboa) artikulatzerako orduan. Politika marika eta bolleroen nominalizazio espezifikoen potentzia eta mugak irudikatu ditugu, hala nola politika bateratuenak. Nominalizatzeko forma batzuek eta besteek une eta lekuaren arabera ekarri eta kendu dezaketena ezberdinaz hausnartu dut halaber. Esperientziaren politizazioa ikuspegi kontingente eta ez-egonkor/dogmatikotik pentsatzea mugimendu orenen agendan egon beharko litzateke eta, zentzu horretan, LGTB* politikek zehaztapenak eskaini diezazkieke langile mugimenduari, euskalgintzari edo okupazio mugimenduari, besteak beste.

| **Komunitatea paradoxikoa izango da ala ez da izango**

Mugimenduek komunitateak eraiki, indartu edo, zergatik ez, beste komunitate batzuk urratzeko gaitasuna dutela aipatu dut. Hirugarren atalean, esaterako, ezkerreko mugimendu batzuen kideztari buruzko balore-multzoak sexualitatearen araberako identifikazioari balazta jarri diezaiekeela ikusi dugu, kasu askotan afera horren politizazioa ekidinez. Are gehiago, espazio politiko kritikoetan ez bazaio sexualitate eta genero bizinortasun ez-normatiboaren esperientziari lekua egiten sakontasun, seriotasun eta konplexutasun minimo batekin, isiltasuna babesguneen truke-txanpon bilakatzen da. Ataka horretan, begirada neoliberal eta indibidualizatzaileek hutsune hori bete dezakete, esperientzia horren mina era despolitizatuan baretzeko moduak proposatuz, kontsumo gizartearen mekanismoen bidez. Elementu hori ez dagokio LGTB* esperientziari soilik, beste zapalkuntza politikoek ere bizitza intimoaren hainbat dimentsiotan minak eragiten dituzte, eta, beraz, min horiek politizatzeke komunitateak eskaintzen dituen aukerak kritikoki berrikusi behar dira etengabe.

Ekidinezina eta, are gehiago, ezinbestekoa ere bada komunitateak sortu eta indartzea, areago egungo kapitalismo neoliberalak lotura komunitarioak birrindu dituenen. Baina horrek ez du esan nahi komunitatea (edo komunitarismoa) idealizatu behar denik. Mugimenduek, arau-multzo itxiak eta kultura politiko dogmatikoak ekidin nahiez gero, komunitatea eraikitzen jartzen duen enfasi berbera jarri behar dute komunitate horiek zalantzan jarri eta deseraikitzen. Eta hori ez litzateke eraginkortasun politikoarekin lehian egon beharko. LGTB* subjektuek mugimendu mistoetan duten esperientziaren konplexutasunak (3.2.3) zein LGTB* politikak artikulatzerakoan komunitateen barruan zein komunitateekiko sortu daitezkeen distantziak (4.4.5) kontuan hartzeko moduko adibideak izan daitezke mugimendu eta komunitatearen arteko harremanaz hausnartzeko.

| Erraitasunak

Intimitatea, babes beharra, zaugarritasuna, komunitatea, gorputza eta subjektibotasun politikoa elkartzen diren guneari erraitasun konpartituen gunea deitzeko atrebentzia hartuko dut. Parte-hartzaileetako batek erabilitako “entrañabilidad” hitza mailegatu eta, era askean, euskarara ekarri dut. LGTB* politika mistoak edo elkarrekiko konektatuak sortzeko ahaleginetan ari diren taldeek (4.4.3) ideia interesgarriak eskaintzen dituzte politizazioa pentsatzeko. Intimitate eta kokapen anitzetatik abiatzen diren subjektu diferenteez (gay, lesbiana, emakume trans*, gizon trans* edo ez-bitarrak, besteak beste) babes behar partikularrak dituzte baina, aldi berean, kokapen oso ezberdinak botere-sare ugaritan (genero, klase eta arrazaren araberakoetan, besteak beste).

Erraitasun konpartituak bilatzea genealogia partekatuak eta partzialak eraikitzen saiatzea da, esperientzia horiek guztiak batera jartzea, harriz harri, baina haiekin monumentuak eraikitzea ekidinez. Horretarako, genealogiaren ikuspegi monolitikoa baztertu beharra dago, izan ere genealogiak ez dira soilik norberaren jatorria hobeto ulertzeko eta iraganari edo memoriari aitortza egiteko modua. Areago, genealogiaren ulerkera horrek iraganari estuegi loturik utzi gaitzake, eta gure aurrekariak idealizatzeraz garamatza nahi baino sarriago. Erraitasun konpartituak genealogien erabilera *oker* eta erratuak dira, konexio partzialak eta ez-egonkorak ahalbidetzen dituztenak. Izan ere, askotariko esperientzia horiek batera jartzea ez da uneoro txalupa berberean gaudela esatea. Hori, ezinezkoa izateaz gain, politikoki problematikoa izan daiteke, isolamendua sortu eta komunitate idealaren ilusioa elikatu dezakelako. Erraitasun konpartituetan sortzen diren politizazioak esperientzien genealogiatik datoz, baina orainaldiaren kartografiatetik abiatu behar dira, iraganarekin zubiak eraiki eta, bukatu bezain pronto, leherrarazi, etorkizunerantz abiatzeko. Era horretan, politikaren etorkizuna ez da jada iraganera itzultzea edo etorkizunerantz egiten den proiektio abstraktua, orainaldiaren kontingentziaren esplorazioa baizik. Eta orainaldiaren ezegonkortasuna erdigunean jartzeak kapitalismoaren etengabeko orainaldi aldaezinaren ideia urratzen du.

Gorputzen zaugarritasunak ez gaitu biktima egiten

Mugimenduen barruan dauden kokapenen anitzekiko ardura hartzea ez da soilik taldeen barne-bizitza zaintzeko modua, maila extimoan planteatzen diren aliantza, estrategia eta helburuak berrikusteko forma egokia ere bada. Zalantzarik gabe, horrek interseksionalitatea deitu den hori nola pentsatu eta praktikan jartzen den hausnartzera garamatza: zapalkuntza anitzen batuketa gisa edo gizaki bakoitzaren etiketa-multzo bezala ikusi ordez, baldintza material eta sinbolikoek sortutako kokapen bezala irudikatu dezakegu interseksionalitatea eta, modu horretan, egoera horiek betikotu beharrean haien transformazioa bultzatu. Aurreko puntuan esan dudan moduan, subjektu eta komunitate bakoitzak bere iraganarekin (eta zauriarekin) duen harremana ikuspegi bikoitzetik aztertu behar du, ahanztura eta iraganaren larregizko presentzia ekidinez, hau da, 3.2.1 eta 4.5.2 azpiataletan aztertu dudan biktima estatutuarekiko harremana berrikusiz, azken finean. Tentu handiz egin beharreko lana da hau, ez baldin bagara egungo joera indibidualizatzaile eta erlatibizatzailean eroriko. Mugimenduek biktima estatusarekiko harremana berrikustea ez da “coaching” kapitalistan erortzea, zapalkuntzaren aitortzak dakarren korapilo bikoitza serio hartzea baizik. Izan ere, biktimatzat onartua izatea alde batetik errekonozimendua lortzea da, baina, bestetik, egiturazkoak eta kontingenteak diren egoera batzuk gure gorputzean betikotzea ekarri dezake, eta horrek sedimentazioa dakar. Zapalkuntzaren orbainak daramatzagula jakin arren, marka horiek oin-zolan ez egotea ezinbestekoa da mugimenduarentzat, mugimenduentzat.

Finean, eraldaketa sozialaren agente izan daitezkeen subjektu politikoak irudikatzean, neoliberalismoak planteatzen duen indibidualizaziotik harago joatea ezinbestekoa da, izan ere, esperientzia konpartitua gero eta zailagoa bilakatzen baita identitateak atomizatu eta finkatzen diren heinean. Biktimizazioaren ikuspegiak indibidualizazio hori indartu dezake, identitate hertsietan oinarritutako politikak ahalbidetuz. Baina aitortzaren ikuspegiak ezin ditu, joera horri buelta emateko aitzakian, kondizio horiek desagerrarazi eta zapalkuntza-esperientziaren partikulartasuna alboratu kategoriatu abstraktuen alde.

Identitateekin, identitatearen kontra

Subjektibotasun politikoak eta identitateek berezko harreman paradoxikoa dute. Esperientzia konpartituek ez dute berezko politizazioa bermatzen eta ezinbestekoa da elkarrekin jardutea eta botere harremanen perspektiba mikrosoziologikotik harago joatea. Hala ere, identitate finkoak (edo sasi-finkoak) ez dira soilik zapalkuntzaren indibidualizazioaren marka, eta nortasunak erdigunean jarriko dituen politikak ekiditea, 4.3 eta 4.5.2 atalean ikusi dugun moduan, ez da besterik gabe berauek ezgaitzat eman eta alboratzea. Subjektibotasun politikoek identitate horiek baliatzen dituzte berauek sortutako mugak hedatzeko asmoz, sedimentazioa eta marruskadura prozesu beraren bi alderdi direlako.

Maila horretan, identitate politiken inguruko eztabaida interesgarria bezain antzua izan daiteke mugimenduek ezinbestekoa duten nortasunen erabilera estrategikoa ontzat ematen ez bada. Kontrakoa zapalkuntzaren dimentsio batzuei ezikusia egitea litzateke, eta identitate-erakuntza batzuei (“herria”, “langileria”, “zapalduak”, “emakumeak”, “disidentzia”...) ikusezintasunaren boterea esleitzea, gordetzen dituzten sedimentazio eta marruskadura prozesuen markak ezkutatuz eta, are larriagoa dena, barnebiltzen dituzten gorputzen materialtasuna desagerraraziz. Aipaturiko atalotan identitate politiken inguruko kritika aztertu dudanean subjektu guztiek nortasun batzuk oinarri harturik operatzen dutela ikusi ahal izan dugu eta, maiz, identitarismoaren inguruko akusazioak posizio hegemonikoen aitortza faltan oinarritzen direla. Aldi berean, mugimenduek izendatze ugari (gay, lesbiana, trans*, LGTB, TMBB eta abar) identitate horien beraien kontra ere erabiltzen dituztela ikusi ahal izan dugu, baina testuinguruak tentuz aztertzea ezinbesteko bilakatzen da: identitatearekin lotuta dagoen politika oro ezin da zaku berean sartu, ez eta printzipio unibertsalen bidez epaitu ere. Maila horretan, identitateak politikarako erabiltzea estrategiatzat hartzeak lagundu dezake, une eta kasu bakoitzean eman eta kendu dezakeena kritikoki aztertuz.

5.2 LGTB* politika *okerrak* gaur den etorkizunerako

Aurreko azpiatalean LGTB* politikek, beraien espezifikotasunetik abiatuz, herri mugimenduen politika zabalei egin diezaieketen ekarpen batzuk aipatu ditut, ikerketan landutako hainbat edukitatik abiatuz. Hurrengo orriotan, fokua berriz LGTB* politiken barrualdera biratu eta espezifikoki sexualitate eta genero nortasunen politizazio eta borrokei begira esanguratsuak iruditu zaizkidan ondorio eta erronketako batzuk izendatuko ditut. Erronka hauek, espezifikokoak izan arren, beste mugimendu batzuen kezketan oihartzuna aurkitu dezakete halaber.

Lehen erronka intimitatearen eta extimitatearen arteko aferari dagokio (4.4.1). Korrante nagusiko LGTB* politikak eskaera sinboliko eta administratiboetan agortu ostean, azken hamarkada eta erdian kalean aktibo egon diren talde eta kolektiboei politika horiek zentzu berriz janztea egokitu zaie eta horrek afera berriak mahai gainean jartzea eskatu du: asimilazioaren arriskuak seinalatzea, sexualitateak eta generoak sistema ekonomiko eta sinbolikoarekin dituzten loturak azpimarratzea, erradikaltasuna aldarrikatzea, begirada lokalari garrantzia ematea edo kolektibo barruan komunitate kolpatuenei lekua aitortzea. Amaitu gabeko lan eta prozesu horiek ikusmuga berriak ireki dizkiete taldeei baina baita zailtasun batzuk ere, esaterako, LGTB* komunitate zabalagoarekiko distantzia handitzeko arriskua. Sexualitate eta genero politikak masa-politika bilakatzea helburutzat hartu gabe,

erreferentziazko komunitateekiko distantziak zaintzea garrantzitsua izan daiteke, baina lan horretan ezinbestekoa da erreferentziazko komunitate horiek birdefinitzea ere, izan ere, ez da berdina mugimenduek emakume trans*ekin kolaboratzeko zailtasunak izatea edo planteamendu batzuk erradikalizatzeak (justizia ekonomikoari presentzia handiagoa emateak, adibidez) klase ertaineko gay gizon zuriekiko distantzia handitu izana.

Bigarrenik, LGTB* politikek kanpaina, proposamen, mobilizazio eta sentsibilizazio lanez gain, beharrezkoak dituzte esperimentaziorako guneak ere. Generoaren eta sexualitatearen inguruko politikak pentsatzea irudimen ariketa ere badira: LGTB* komunitateen egungo baldintza materialak zaintzea ezinbestekoa den moduan, dimentsio horien aspektu sakonak zalantzan jarri eta irudikapen, harreman mota eta konfigurazio sexual berriak proposatzeak ere badu garrantzia. Lan hori ezin da edonola egin eta horretarako babesgune egokiak bilatzen dituzte aktibistek, LGTB* taldeetan edo espazio informalagoetan. Gune horiek intimitate (konpartitu) erradikalerako eremu bezala izendatu ditut lanean zehar, eta beraien garrantzia ukaezina da. Baina halako esperientzien balioa aitortzeaz gain, eskalagarritasunaren gaia ere pentsatzea ezinbestekoa izan daiteke. Espazio erradikal horiek jendetsuak izatea ezinezkoa da, babesa esperimentaziorako baldintza baita, eta masifikazioa ekiditea ezinbestekoa. Aitzitik, esperientzia horiek dispositibo eskalagarri bilakatzeko moduak (4.5.4) pentsatzea garrantzitsua izan daiteke, intimitate erradikal horiek biderkatu, formaz aldatu eta ekarpen berriak egin ditzaten eta, bide batez, halako esperientziek sortu dezaketen elitismoa eta abangoardismoa ahal den heinean alboratzeko.

Hirugarren erronka oraintsu aipaturiko komunitatearekiko distantziak neurtzeko eta ahal dela murrizteko moduak aztertzea da. LGTB* agenda politikoen berrasmatezea klabea izan daiteke eta, horretarako, 4.4.2 eta 4.5.4 atalean azaldu diren elementu guztiak kontuan hartu beharrekoak dira. Hasteko, LGTB* agendak ezin direla politikaren begirada murriztutik abiatu, agendagarritzat joaz soilik aitorturiko instituzioei zuzentzen zaizkien eskaerak. Baina, horrekin batera, gogoan hartzekoa da mobilizazio gaitasuna izan dezaketen elementu zehatzak agendan kokatzearen garrantzia, larregizko zehaztasunak ekar dezakeen sinplekerian erori gabe. Izan ere, proposamen zehatzak egiteak ez dakar halabeharrez sinpletasun populistan erortzea, ez eta eskaera eta aldarri guztiak estatuari edo bestelako administrazioei zuzentzea ere. Helburu egingarriak lortzea ikuspegi komunitariorik ere landu daiteke eta, zentzu horretan, elkarrizketatutako kolektiboek garrantzitsutzat jo dituzten elementuak estatuari eskaerarik egin gabe eskuratu daitezkeen helburu zehatzekin ere lotu daitezke. Bazterkeria eta zapalkuntza ekonomiko eta soziala, arrazakeria, sexismoa edo transmisoginia LGTB* gaiak baldin badira, horien inguruko proposamenak lantzea ezinbestekoa da. Proposamen horiek esparru sinboliko eta administratibotik harago joan daitezke eta, zentzu horretan, taldeetako batzuk azken urteotan arakatzen ari diren bidea (beste eragile eta komunitateekin agenda estrategiko eta konpartituak sortzea) konplexua

izan arren emankorra suerta daiteke. Esan dezakegu LGTB* politika berriak ikuspegi asimilazionista eta instituzionalizatuekiko distantzia azpimarratzen zuten agenda negatiboen fasetik ateratzen ari direla, beren erradikaltasuna korronte nagusiko taldeekiko diferentzian oinarritzetik beren proposamen propioa eta eraldatzaileetan egikaritzera pasatuz. Bide horretan sakontzea klabea izan daiteke hurrengo urteotan.

Laugarrenik, eta ildo berean jarraituz, hainbat elementu estrategiko kontuan hartzea ezinbestekoa izango da. Hasteko, LGTB* politika guztiek estatuari zuzenduak egon behar ez izateak ez du esan nahi hainbat taldek ez dutenik administrazioarekiko harreman konplexua garatzen. Mugimenduko sektore batzuen instituzionalizazio eta profesionalizazio prozesuak tentuz aztertu beharrekoak dira, haien aldeko eta kontrako elementu guztiak mahai gainean jarrita. Horrela, asistentzia zuzenaren gaia oso kontuan hartu beharrekoa izan daiteke eta, aurreko erronkari keinua eginez, agendarako puntu interesgarria suertatu daiteke. Azken urteetan LGTB* pertsonen atentzio zuzena ematen dieten egitasmo eta bulegoak abiatu dira Eusko Jaurlaritza, Nafar Gobernu, diputazio eta udal ugariatik. Bizi-baldintzak hobetzeko erabilgarriak izateaz gain, artatze espazio horiek LGTB* komunitatearekiko kontaktu zuzenerako espazio interesgarriak ere badira, eta errealitate multzo zabalei buruzko informazioa eskuratzeko oso egokiak izan daitezke. Hala ere, lehen begiradan ez dira horren eraginkorrak erabiltzaileen politizazioa edo aktibazio bideratzeko, instituzioen funtzionamenduak berak mugatzen dituelako.

Maila horretan, kontaktu eta artatze zuzenerako espazio autonomoak sortzea oso zaila izan daiteke gaur egun, baina ideia mahai gainean jartzea posible da. Posiblea da, era berean, balizko atentzio espazio autonomo horiek zirkuituetatik kanpo dauden subjektu batzuentzat aukera egokiak izatea. Azken finean, ongizate-estatuaren zein ekintzaitzaren neoliberalismo bitalista abiada bizian desmuntatzen ari dira, konfigurazio askoz bortitzagoi bidea emanaz. Testuinguru horretan, estatuak gero eta zailtasun gehiago ditu kapitalismo basatiak sortzen dituen zaugarritasun egoerei erantzuteko, eta asistentziaz baino elkar-babesaz hitz egitea egokiagoa litzateke, egindako lan hori berreskuratua, burokratizatua eta despolitizatua izan ez dadin. Aldi berean, espazio autonomoak sortzea ez da bide bakarra izan behar, dauden espazio instituzionalak ez abandonatzea eta haiekiko begirada eta erabilera estrategikoak baliatzea posible da, beti ere instituzionalizazioaren dinamika indartsuei tentuz erreparatuz.

Azken erronka ez da berez LGTB* politiken erronka propioa, baina hirugarren atalean ondorioztatutakoaren ostean ezinbestekoa zait mugimendu mistoerik aipamen laburra egitea. LGTB* politiken erronkak sakontasunez integratu nahi badituzte, mugimendu mistoek ere orain arte seinalatu ditudan bi alderdiei erreparatu beharko diete. Dimentsio extimoan, sexualitate eta genero gaiak egiturazkotzat jotzea eskatuko luke, egiten diren proposamen eta irakurketetan tolerantziaren paradigmatik harago joatea. Lan osoan zehar ikusi ahal izan dugun moduan, sexualitate eta genero ez-normatiboen afera bakarra ez da errespetu edo aitortza falta; biak ala biak gizartearen egitura ekonomikoarekin estuki lotzen dira eta, beraz,

mezu eta politika sinplista, unibertsalista eta humanistak alboratu eta konplexuago egin beharko lituzkete mugimendu misto gehienek. Maila intimoan, aldiz, talde eta kolektiboen barne-bizitzari atentzioa jartzeak eta sexismo eta homofobiatik libre dagoen giroa sortzeak segurtasun espazioak babesgune bilakatu ditzake (3.2.2), mugimendu mistoak LGTB* aktibistentzat adierazpen eta askatasun espazio bilakatuz, eta ez soilik erasorik gabeko gune.

5.3 Ikerketaren mugak, ezintasunak eta desioen zerrendan geratu direnak

Edozein ikerketa lanek galdera batzuei erantzuna ematen die, berriak irekitzen ditu eta nahikoa esploratu gabeko hari solteak uzten ditu. Prozesuan zehar hainbat elementu indar bereziz azaleratu dira, baina ikerketaren beraren muga materialek (denbora eta baliabideek) ezinezkoa egin dute horietan sakontzea. Ez nuke lan hau amaitu nahi horiek, labur bada ere, aipatu gabe.

Lanean erabilitako metodologia sakonean aztertzea da burura datorkidan lehena. Adele E. Clarkek proposaturiko analisi situazionala oso era intuitiboan erabili behar izan dut ikerketa honetan. Izan ere, apenas aurkitu ahal izan dut metodologia hori garatu duen ikerketa amaiturik eta, gainera, lan honen berezitasun batzuek zaila egin dute berak proposatutako jarraibideak hitzez hitz jarraitzea, nahiz eta bere proposamenaren hezurdura izan den erreferentzia nagusia. Metodologia hori osasun zientzietan eta osasunaren soziologian errotua dagoenez, herri mugimenduen ikerketa esparruan aplikatzean hainbat ezberdintasun azaleratu dira. Hasteko, mugimenduen esparruan kide askok (tesi honetan bederen) ikerketa honekiko inplikazioa eta interesa adierazi dituzte, mugimenduen jardunaren inguruan hausnartzea ez dutelako soilik egin behar akademikotzat hartzen, baizik eta baita mugimenduek haien eraldaketa sozialerako bidean egin beharreko lantzat ere. Horregatik, ikerketako parte-hartzaileekin sortu den harremana ez da osasun zerbitzuen erabiltzaileekin sortzen den berdina. Bestalde, osasun arloan ikertzeak (kasu askotan osasun-erakundeen oniritzi eta babesarekin) parte-hartzaile multzo handiak eskuragarri izatea ahalbidetzen du, laginketa teorikoaren saturazio prozesua erraztuz. Sarreran aipatu dudan moduan, herri mugimenduen arloan ikertzeak, kasu honetan, egutegia oso beteta eta denbora urria duten aktibistekin hitz egitea suposatzen du, eta horrek egun bakarrean hainbat hitzordu jarri behar izatea ekarri du, laginketa prozesua malgutuz. Honi batu behar zaio, beste elementu batzuen artean, tesian zehar bekarik lortu ez izana, horrek dakarren denbora eskasia eta erritmoen nahasmenarekin. Ez dira hauek metodologiari buruz aztertu beharreko gai bakarrak eta, beraz, behin tesia bukatuta horren interesgarria eta emankorra izan zaidan proposamen metodologiko horri zehaztasunez erreparatu eta ikasitakoa konpartitzea ataza interesgarria izan daiteke.

Metodologiaren arloa alhora utzi gabe, eta ikerketa egiteko kondizioekin estuki loturik, parte-hartzaileekiko harremana sakondu eta hobetzeko moduetan pentsatzeko gogoia areagotu dit ikerketa prozesuak. Harreman hori doktore-tesiaren formatuak (denborak, epeak, erritmoak eta esanahi sozialak) larregi baldintzatu duelakoan nago, eta etorkizunean mugimenduen inguruko hausnarketa hauek mugimenduetan bertan eragin handiagoa izan dezaten lortzeko formak garatzea ezinbestekoa dela deritzot. Ikerketa parte-hartzaile eta aktibistaren printzipioetan gehiago sakontzeko gogoz geratu naiz, metodologiaren ikuspegitik proposamenak egiteko. Esaterako, Clarkeren analisi situazionalean erabiltzen diren mapak interpretazio kolektiborako baliatzeko moduak bilatzea probetxuzko ekarpena izan daiteke.

Bestalde, metodologia atalean azaldu dudan moduan hirugarren eta laugarren kapitulueterako estrategia analitiko bertsua erabili arren, emaitzak aurkezteko modua ezberdina izan da batean eta bestean. Tesia hainbat aldiz irakurri ostean, esan dezaket hirugarren kapituluaren hartutako bidea, hots, ekarpen teorikoak eta elkarrizketen zatiak haien artean lotzea, emankorragoa izan dela. Ikuspegi analitikoetik ondorio larririk izan ez duen arren, baliteke laugarren atalaren irakurketa astunagoa bilakatu izana testigantzek sortutako narrazioa lehenengo eta analisi teorikoagoa geroago kokatu izanak. Uste dut errepikapen batzuk sortu direla testuan eta horrek ideien haria jarraitzea nekezagoa bilakatu duela.

Lanaren edukiei dagokienez, hainbatetan aipatu dudan moduan, aukeratutako laginak egindako azterketa biziki baldintzatu duelakoan nago. Bereziki laugarren ataleko elkarrizketetarako egindako LGTB*/TMBB/Queer/transfeminista kolektiboen hautaketak kale-politika erradikalagoak lantzen dituzten taldeen jardunean sakontzeko aukera eman dit, baina horrek, halaber, LGTB* politiken beste alderdi oso bat aztertu gabe uztea ere eskatu dit, instituzioekin estuago lotzen diren taldeena non, ziur aski, ikuspegi oso anitzak eta klabe interesgarriak aurkitu daitezkeen. Areago, oraintsu aipatu dudan asistentziaren gaia aztertzeke ezinbestekoa litzateke talde eta elkarte hauekin sakon hitz egitea. Izan ere, posible da instituzioek eskaini eta elkarrekin kudeatzen duten artatze horretan erakundeen dinamiken zirrikituetan sortzen diren politizazio prozesu konplexuak aurkitu ahal izatea. Babes eta asistentzia politikak sakonean aztertzea etorkizunerako lerro interesgarria izan daiteke, beraz.

Bestalde, atal honetan bertan aipatu dut jada mundu sozial bakoitzak baldintza partikularrak ezarri ditzakeela identifikazio eta subjektibatze politikoko prozesuetan. Horrekin loturik, ikerketaren pare bat unetan desbideratu eta lerro batzuk luzatzeko gogoia sortu zait. Hala izan da, bereziki, mugimendu feministaren eta Ezker Abertzalearen kasuan, lehenak LGTB* politikekin estuki lotzen diren subjektibatze moduak eskaintzen dituelako eta, beraz, partikulartasunak bilatzea interesgarria izan daitekeelako, eta bigarrena, ibilbide luzea eta egitura indartsuak dituen mugimendua izanik, arau sozial eta artikulazio komunitarioak aztertzeke espazio aberatsa izan daitekeelako. Ikerketan zehar arau sozial are hertsiagoak eta muturreko instituzionalizazio maila duen espazio bat ere azaldu da, espetxea,

eta azken urteotan garatu diren lan batzuen lerroa jarraituz, sexualitate eta genero biziaren inguruko esperientzia eta politizazioak testuinguru horretan aztertzea beharrezkoa litzatekeela otu zait. Gizartearen begitik at geratzen diren zigor eta erregulazio espazio horietan gertatzen diren indarkeria LGBTfobikoak eta haiekiko erresistentziak azalera beharrezkoa bezain zaila izan daiteke, ordea.

Azken bi lan-lerroak estuki loturik daude elkarrekin eta klase aferarekin. Hasteko, ikerketaren hirugarren atalean landutako identifikazio, subjektibatze eta babesguneen gaiekin loturik, LGBT* esperientzia era espezifikagoan klase ikuspegitik lantzeko interesa piztu zait. Klase sozialaren eta sexualitate edo genero biziaren artean gertatzen diren harreman konplexuen mapa osatzeak elementu horien arteko loturak esploratzen jarraitzeko bideak ireki ditzake, dimentsio ugari dituzten esperientzia eta politizazio prozesuak pentsatzekoak. Klasea aipatzea interes pertsonal eta biografikoaren ondorio da hein handi batean, auto-elkarrizketan zein tesian erabilitako hainbat arrazoiketatan agertu den moduan. Horrekin loturik, ikuspegi aktibistatik, klase politika *oker* eta autonomoak eraikitzeko klabeak bilatzen jarraitzea ezinbesteko eginbehartzat dut, artikulatzen ari diren LGBT*/queer politika antikapitalista eta autonomoetan sakonduz. Azken urteotan Euskal Herriko mugimenduen konstelazioan sortu diren klaseari buruzko eztabaidak serio hartzea ezinbestekoa dela uste dut, beharrezkoa balitz LGBT* politiken norabide eta helburuak birplanteatuz, baina ibilitako bidea desegin barik eta heteropatriarkatu familiaristari amore eman gabe.

Eraldaketa soziala helburu duten indar eta desioek kudeatu beharreko testuinguruak azkar aldatzen ari dira eta, aldi berean, zapalkuntzari dagokionez, epe luzeko joera eta kondizioen zama inoiz baino gehiago sentitzen dugu. Eraldaketa eta politizazioaz pentsatzea ur azkar eta ur uherren arteko korrontetan murgiltzea da, eta hori ezinezkoa da busti eta zikindu gabe. Pentsamendua eta ekintza elkarlotzea behar-beharrezkoa da, eta desioak elkartzen ditu gure gorputzak, garena, ez garena eta bizi dugun mundua. Izan ere, pentsatzen jarraitzea ezinbesteko lana da, eta egitea pentsatzeko baldintza, ez baitago ezagutzarik eraldaketarik gabe.

6. Bibliografia

- Ades, Lisa, eta Lesli Klainberg. 2006. *Fabulous! The Story of Queer Cinema*. DVD. Dokumentala.
- Agamben, Giorgio. 1996. *La comunidad que viene*. Valencia: Pre-Textos.
- . 2013. *Homo sacer. El poder soberano y la nuda vida*. Ensayo. Valencia: Pre-Textos.
- Agathangelou, Anna M, M. Daniel Bassichis, eta Tamara L. Spira. 2008. «Intimate Investments: Homonormativity, Global Lockdown, and the Seductions of Empire». *Radical History Review* 2008 (100): 120–43.
- Agulló, Cristina, arg. 2011. *Cojos y precarias haciendo vidas que importan: cuaderno sobre una alianza imprescindible*. Primera edición. Movimiento 12. Madrid: Traficantes de Sueños.
- Ahmed, Sara. 1998. *Differences that matter: feminist theory and postmodernism*. Cambridge, UK; New York: Cambridge University Press.
- . 2010. *The promise of happiness*. Durham: Duke University Press.
- . 2014. *The Cultural Politics of Emotion*. Edinburgh: Edinburgh University Press.
- . 2018. *Vivir una vida feminista*. Barcelona: Bellaterra.
- . 2019. *Fenomenologia Queer: orientaciones, objetos, otros*. Barcelona: Bellaterra.
- Allred, Pam, eta Alison Phipps. 2017. «Training to Respond to Sexual Violence at European Universities: Final Report of the USVreact Project». Final Report of USVSV European Project. London: Brunel University Press.
- Allevi, José Ignacio. 2015. «Subjectivities, the political and the politics: derives on a theoretical discussion». *Athenea Digital. Revista de pensamiento e investigación social* 15 (3): 149.
- Althusser, Louis. 1977. *Posiciones*. Barcelona: Anagrama.
- Alvarez Moles, Pili. 2012. «Movimientos sociales, relaciones de género y cultura. El caso de los Gaztetxes en Euskadi.» Gasteiz: Emakunde.
- Andrade Irineu, Bruna. 2014. «Homonacionalismo e cidadania LGBT em tempos de neoliberalismo: dilemas e impasses às lutas por direitos sexuais no Brasil». *Revista Em Pauta* 12 (34).
- Andréu Abela, Jaime. 2007. *Evolución de la teoría fundamentada como técnica de análisis cualitativo*. 1. ed. Cuadernos metodológicos 40. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Araiza, Alejandra. 2013. «De la política de la localización a los conocimientos situados. Notas para la creación de una ciencia feminista». In *Subjetivación femenina: investigación, estrategias y dispositivos críticos*, 163–91. UANL.
- Arana, Aitor. 2005. *Gay hiztegia*. Tafalla (Nafarroa: Txalaparta.
- Aranguren, Miren, Justa Montero, eta Yayo Herrero. 2017. «Militantzia feminista gaur». Mahai-ingurua, Bilbo.
- Aranguren, Ramon Sarasua. 2004. «Identidad y diferencia entre los jóvenes de Orío». Doktore Tesia, Leioa: UPV/EHU.
- Argituz, giza eskubideen aldeko elkarte. 2015. *Hacia una memoria compartida, informe sobre violaciones de derechos humanos y hechos violentos acaecidos en Errentería de 1956 a 2012 = Memoria partekatu baterantz, Errenterian 1956tik 2012ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena*. Errenteria: Errenteriako Udala.
- Arruzza, Cinzia, Tithi Bhattacharya, eta Nancy Fraser. 2019. *Feminismoa %99ren alde*. Manifestu bat. Tafalla: Txalaparta.
- Augé, Marc. 1998. *Las formas del olvido*. Barcelona: Gedisa.
- Austin, John Langshaw. 1998. *Cómo hacer cosas con palabras*. Barcelona; Buenos Aires; México: Paidós.
- Azagra, Ferran Giménez. 2017. «Movimientos sociales y construcción de subjetividades. Los casos de la PAH y de las CUP». Doktore Tesia, Leioa: UPV/EHU.
- Azpiazu Carballo, Jokin. 2015a. «Gizon taldeak eta maskulinitatearen inguruko diskurtsoak: EAEko talde batzueganako hurbilpena». Master amaierako lana, Leioa: UPV/EHU.
- . 2015b. «Men and feminism: from the privilege of comfort to the uneasiness of political engagement in feminist issues». *Papeles del CEIC* 2015 (2).
- . 2017. *Masculinidades y feminismo*. Ensayo. Barcelona: Virus.
- Bacarlett Pérez, María Luisa. 2012. «La comunidad imposible. Utopías y paradojas del ser en común». *La Colmena: Revista de la Universidad Autónoma del Estado de México*, zenb. 75: 31.

- Bacchetta, Paola, eta Jin Haritaworn. 2016. «There Are Many Transatlantics: Homonationalism, Homotransnationalism and Feminist-Queer-Trans of Colour Theories and Practices». *Transatlantic Conversations. Feminism as Travelling Theory*. Davis Kathy eta Mary Evans (arg.), Farnham; Burlington: Ashgate.
- Balestrini, Nanni. 2006. *Lo queremos todo*. Madrid: Traficantes de Sueños.
- . 2007. *Los invisibles*. Madrid: Traficantes de Sueños.
- Barjola, Nerea. 2018. *Microfísica sexista del poder: El caso Alcàsser y la construcción del terror sexual*. Barcelona: Virus.
- Benhabib, Seyla, Judith Butler, Drucilla Cornell, eta Nancy Fraser. 1995. *Feminist Contentions: A Philosophical Exchange*. Thinking Gender. New York: Routledge.
- Benhadjoudja, Leila, eta Micheline Milot. 2014. «Género y secularización: una perspectiva poscolonial». *Sociedad y Religión: Sociología, Antropología e Historia de la Religión en el Cono Sur XXIV* (42): 144–59.
- Berger, Peter L, eta Thomas Luckmann. 2015. *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Bernini, Lorenzo. 2015. *Apocalipsis queer: elementos de teoría antisocial*. Madrid: Egales.
- . 2018. *Las teorías queer: una introducción*. Madrid: Egales.
- Bersani, Leo. 1995. *Homos*. Cambridge: Harvard University Press.
- Biglia, Barbara, eta Jordi Bonet. 2012. «Análisis crítico del discurso con perspectiva feminista.» *Ikastaroa, Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultatea, Leioa*.
- Birks, Melanie, eta Jane Mills. 2011. *Grounded Theory: A Practical Guide*. Los Angeles: Sage.
- Bonino, Luis. 2000. «Varones, género y salud mental. Deconstruyendo la “normalidad” masculina» *Nuevas masculinidades*. Segarra Marta eta Ángels Carabí (arg.). Mujeres y culturas. Barcelona: Icaria.
- Bookchin, Murray. 2012. *Anarquismo social o anarquismo personal: un abismo insuperable*. Barcelona: Virus.
- Bourdieu, Pierre. 2000. *Poder, derecho y clases sociales*. Palimpsesto. Derechos humanos y desarrollo 6. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- . 2006. *La distinción: criterios y bases sociales del gusto*. Madrid: Taurus.
- Braidotti, Rosi. 1986. «The Ethics of Sexual Difference: The Case of Foucault and Irigaray». *Australian Feminist Studies* 1 (3): 1–13.
- . 2000. *Sujetos nómades: corporización y diferencia sexual en la teoría feminista contemporánea*. Buenos Aires: Paidós.
- . 2004. *Feminismo, diferencia sexual y subjetividad nomade*. Barcelona: Gedisa.
- . 2015. *Lo posthumano*. Barcelona: Gedisa.
- . 2018. *Por una política afirmativa: itinerarios éticos*. Barcelona: Gedisa.
- Brown, Gavin. 2009. «Thinking beyond Homonormativity: Performative Explorations of Diverse Gay Economies». *Environment and Planning A: Economy and Space* 41 (6): 1496–1510.
- Brown, Wendy. 1995. *States of injury: power and freedom in late modernity*. Princeton: Princeton University Press.
- . 2008. *Regulating Aversion: Tolerance in the Age of Identity and Empire*. Princeton: Princeton University Press.
- Burman, Erica, eta Ian Parker. 1993. *Discourse Analytic Research: Repertoires and Readings of Texts in Action*. London; New York: Routledge.
- Butler, Judith. 2001. *El género en disputa: el feminismo y la subversión de la identidad*. México: Paidós.
- . 2002. *Cuerpos que importan: sobre los límites materiales y discursivos del sexo*. Buenos Aires; Barcelona: Paidós.
- . 2006. *Gender trouble: feminism and the subversion of identity*. Routledge classics. New York: Routledge.
- . 2010. *Deshacer el género*. Barcelona: Paidós.
- . 2012. *Parting Ways: Jewishness and the Critique of Zionism*. New York: Columbia University Press.

- . 2016. *Los sentidos del sujeto*. Barcelona: Herder.
- . 2017. *Mecanismos psíquicos del poder: teorías sobre la sujeción*. Madrid: Cátedra.
- Butler, Judith, eta Athena Athanasiou. 2017. *Desposesión: lo performativo en lo político*. Buenos Aires: Eterna Cadencia.
- Butler, Judith, Ernesto Laclau, eta Slavoj Žižek. 2000. *Contingency, hegemony, universality: contemporary dialogues on the left*. Phronesis. London: Verso.
- Butler, Octavia E. 1978. *Survivor*. Doubleday science fiction. New York: Doubleday.
- . 2000. *Parable of the sower*. New York: Warner Books.
- . 2003. *Kindred*. Boston: Beacon Press.
- Cage, John. 2007. *Silencio*. Madrid: Árdora.
- Cañadas Gascón, Xavier. 2000. *Entre muros: las prisiones en la transición democrática*. Bilbao: Muturreko Burutazioak.
- Caserio, Robert L., Lee Edelman, Judith Halberstam, José Esteban Muñoz, eta Tim Dean. 2006. «The Antisocial Thesis in Queer Theory». *PMLA* 121 (3): 819–28.
- Castañeda Salgado, Martha Patricia, Emagin, Itziar Mugika Chao, Tania Martínez Portugal, Olatz Dañobeitia Cenballos, Irene Cardona Curcó, Diana Marcela Gómez Correal, et al. 2019. *Otras formas de (des)aprender: investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y decolonialidad*. Bilbao; Tarragona: UPV/EHU-Hegoa, SIMReF.
- Cavarero, Adriana. 2015. *Adriana Cavarero y el devenir inclinado del pensamiento. Conversación con Adriana Cavarero en librería Kaxilda*. Audio grabaketa. Donostia. Gordailu pertsonala.
- . 2016. *Inclinations: A Critique of Rectitude*. Square One: First-Order Questions in the Humanities. Stanford, California: Stanford University Press.
- Charmaz, Kathy. 2006. *Constructing grounded theory*. London; Thousand Oaks: Sage Publications.
- Charmaz, Katy, eta Andy Bryant, arg. 2007. *The sage handbook of grounded theory*. Thousand Oaks: Sage Publications.
- Clarke, Adele. 2005. *Situational analysis: grounded theory after the postmodern turn*. Thousand Oaks: Sage Publications.
- Clarke, Adele E., Carrie Friese, eta Rachel Washburn, arg. 2015. *Situational analysis in practice: mapping research with grounded theory*. Walnut Creek: Left Coast Press.
- Clavel, Pau López. 2015. «Tres debates sobre la homonormativización de las identidades gay y lesbiana». *Asparkía: investigació feminista*, zenb. 26 (uztailak): 137–53.
- Cleminson, Richard. 2007. «“La antorcha extinguida”, la bohemia y la disidencia sexual en España, principios del siglo XX». *Dossiers feministes*, zenb. 10: 51–60.
- Cleminson, Richard, eta Francisco Vázquez García. 2003. «Democracia y cultura sexuales: la irrupción de la homosexualidad en la escena política española». *Er: Revista de filosofía*, zenb. 32: 129–66.
- Coll-Planas, Gerard. 2010. *La voluntad y el deseo: la construcción social del género y la sexualidad: el caso de lesbianas, gays y trans*. Barcelona: Egales.
- . 2012. *La carne y la metáfora: una reflexión sobre el cuerpo en la teoría queer*. Barcelona: Egales.
- Coll-Planas, Gerard, eta Marta Cruells. 2013. «La puesta en práctica de la interseccionalidad política: el caso de las políticas LGTB en Cataluña». *Revista española de ciencia política*, zenb. 31: 153–72.
- Coll-Planas, Gerard, Miquel Missé, Marcel Balasch, Mireia Faucha, eta Laura Macaya-Andres. 2017. «Trans-Lab. Diagnòstic de la situació laboral de persones trans a la ciutat de Barcelona.» Barcelona: Ajuntament De Barcelona.
- Connell, R. W. 1995a. *Gender and Power: Society, the Person, and Sexual Politics*. Cambridge: Polity Press.
- . 1995b. *Masculinities*. Cambridge: Polity Press.
- Cruells, Marta. 2015. «La interseccionalidad política: tipos y factores de entrada en la agenda política, jurídica y de los movimientos sociales». Doktore Tesia, Barcelona: IGOP.
- Cvetkovich, Ann. 2018. *Un archivo de sentimientos: trauma, sexualidad y culturas públicas lesbianas*. Barcelona: Bellaterra.

- D, Joni. 2014. *Grupo autónomos: una crónica armada de la transacción democrática*. Barcelona: El Lokal.
- Davis, Angela Y. 1983. *Women, Race, & Class*. New York: Vintage Books.
- Day, Richard J.F. 2016. *De la hegemonía a la afinidad: solidaridad y responsabilidad en los nuevos movimientos sociales*. Madrid: Enclave de libros.
- De Lauretis, Teresa. 1986. *Feminist Studies, Critical Studies*. Indiana University Press.
- . 2000. *Diferencias: etapas de un camino a través del feminismo*. -(E)k itzulia María Echániz Sans. [Madrid]: Horas y Horas.
- Deleuze, Gilles, eta Félix Guattari. 2002. *Mil mesetas: capitalismo y esquizofrenia*. 5. arg. Ensayo 94. Valencia: Pre-Textos.
- Despentes, Virginie. 2017. *King Kong teoria*. Donostia: Elkar.
- Di Feliciantonio, Cesare. 2015. «Liberation or (neo)liberal freedom? Exploring the evolution of lesbian and gay urban spaces in the global north». *Zapruderworld*, 2. zenb.
- Duberman, Martin. 2018. *Stonewall, el origen de una revuelta*. Madrid: Imperdible.
- Duggan, Lisa. 2003. *The Twilight of Equality? Neoliberalism, Cultural Politics, and the Attack on Democracy*. Nachdr. Boston: Beacon Press.
- Edelman, Lee. 2014. *No al futuro: la teoría queer y la pulsión de muerte*. Barcelona; Madrid: Egales.
- Eichler, Margrit. 1991. *Nonsexist Research Methods: A Practical Guide*. Reprint. New York: Routledge.
- Eizaguirre, Juan José Arrospe. 1993. «Gazte taldeen errepresentazio soziala». Doktore Tesia, Leioa UPV/EHU.
- Ema López, José Enrique. 2007. «Lo político, la política y el acontecimiento». *Foro interno: anuario de teoría política*, 7. zenb: 51–76.
- Epalza, Aingeru. 1993. *Ur uherrak*. Iruña: Pamiela.
- Epelde, Edurne, Miren Aranguren, eta Iratxe Retolaza. 2015. *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko mugimendu feministaren kronika bat*. Iruña: Emagin Dokumentazio Zentrua.
- Eribon, Didier. 2004. *Una moral de lo minoritario: variaciones sobre un tema de Jean Genet*. Barcelona: Anagrama.
- . 2017. *Regreso a Reims*. Buenos Aires: Libros del Zorzal.
- Espinosa Miñoso, Yuderkis. 1999. «¿Hasta dónde nos sirven las identidades? Una propuesta de repensar la identidad y nuestras políticas de identidad en los movimientos feministas y étnico-raciales». *Creatividad Feminista*.
- Espinosa Miñoso, Yuderkis, Diana Marcela Gómez Correal, eta Karina Ochoa Muñoz, arg. 2014. *Tejiendo de otro modo: feminismo, epistemología y apuestas descoloniales en Abya Yala*. Popayán: Editorial Universidad del Cauca.
- Esposito, Roberto. 2009. *Comunidad, inmunidad y biopolítica*. Barcelona: Herder.
- . 2012. *El dispositivo de la persona*. Buenos Aires; Madrid: Amorrortu.
- Esteban, Mari Luz. 2013. *Antropología del cuerpo: género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Barcelona: Bellaterra.
- . 2015. «La reformulación de la política, el activismo y la etnografía. Esbozo de una antropología somática y vulnerable». *Ankulegi. Revista de Antropología Social*, 19. zenb: 75–93.
- . 2017. *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Lisipe 2. Zarautz: Susa.
- Esteban Muñoz, José. 2009. *Cruising utopia: the then and there of queer futurity*. Sexual cultures. New York: New York University Press.
- Ezezaguna. 2012. *Rote Zora*. Ezezaguna.
- . 2015. «Consentimiento sexual. Una movida de ...¿maricas?. Reflexiones bujarras, punks y anarquistas sobre el consentimiento sexual entre tíos.» Valencia: Peligrosidad Social.
- Fausto-Sterling, Anne. 2000. *Cuerpos Sexuados*. Madrid: Melusina.
- Federici, Silvia. 2017. *Soldataren patriarkatua. Marxismoari egindako kritika feministak*. Iruña: Katakarak.
- Feinberg, Leslie. 2018. *Mari-mutil handi baten bluesa*. Iruña: Katakarak.
- Fenton, Natalie, eta Des Freedman. "Fake Democracy: Bad News." *Socialist Register* 54, no. 2018 (2017): 130-150.

- Fernández Durán, Ramón. 2011. *El antropoceno: la expansión del capitalismo global choca con la biosfera*. Barcelona: Virus.
- Fernández, Miquel. 2014. *Matar al Chino: entre la revolución urbanística y el asedio urbano en el barrio del Raval de Barcelona*. Barcelona: Virus.
- Fisher, Mark. 2016. *Realismo Capitalista: ¿no hay alternativa?* -(E)k itzulia Claudio Iglesias. Buenos Aires: Caja Negra.
- . 2018. *Los fantasmas de mi vida: escritos sobre depresión, hauntología y futuros perdidos*. Buenos Aires: Caja Negra.
- Flesher Fominaya, Cristina. 2010. «Collective Identity in Social Movements: Central Concepts and Debates: Collective Identity in Social Movements». *Sociology Compass* 4 (6): 393–404.
- Fonzalida Estupiñán, Andrea. 2018. «Adolescencias trans*: agencia y resistencias contra la transfobia.» Master Amaierako Lana, Leioa: UPV/EHU.
- Foucault, Michel. 1988. «El sujeto y el poder». *Revista Mexicana de Sociología* 50 (3): 3.
- . 1998. *Vigilar y castigar: nacimiento de la prisión*. México: Siglo XXI.
- . 2005. *Historia de la sexualidad*. Madrid: Siglo XXI.
- . 2008. *El orden del discurso*. Barcelona: Tusquets.
- . 2009. *La arqueología del saber*. Madrid: Siglo XXI.
- . 2012. *Nacimiento de la biopolítica: curso del Collège de France (1978-1979)*. Madrid: Akal.
- . 2015. «Espacio, saber y poder. Una entrevista con Paul Rabinow». *Bifurcaciones. Revista de estudios culturales urbanos*, 19. zenb.
- . 2016. *Sexualidad y política. Escritos y entrevistas 1978-1984*. Buenos Aires: El cuenco de plata.
- Fox Keller, Evelyn. 1991. *Reflexiones sobre género y ciencia*. València: Alfons el Magnànim. Institució Valenciana d'Estudis i Investigació.
- Francisco Amat, Andrea, eta Lidón Moliner Miravet. 2018. «Ahora me siento más fuerte. Estrategias de lesbianas y bisexuales para una vida posible.» *Athenea Digital. Revista de pensamiento e investigación social* 18 (3): 1–21.
- Fraser, Mariam. 1999. «Classing Queer: Politics in Competition». *Theory, Culture & Society* 16 (2): 107–31.
- Fraser, Nancy. 2011. *Dilemas de la justicia en el Siglo XXI: género y globalización*. Palmas: Tecsed.
- Fraser, Nancy, eta Judith Butler. 2017. *Redistribución o reconocimiento: un debate entre marxismo y feminismo*. Madrid: Traficantes de Sueños.
- Fraser, Nancy, eta Rahel Jaeggi. 2019. *Capitalismo: una conversación desde la teoría crítica*. Madrid: Morata.
- Galofre, Pol, eta Miquel Missé. 2015. *Políticas trans: una antología de textos desde los estudios norteamericanos*. Madrid: Egales.
- Gamson, Joshua. 2000. «Sexualities, Queer Theory, and Qualitative Research». In *Handbook of Qualitative Research*, Second Edition, 347–65. London: Sage Publications.
- . 2002. «¿Deben autodestruirse los movimientos identitarios? Un extraño dilema». *Sexualidades transgresoras. Una antología de estudios queer*. Mujeres y culturas 11. Barcelona: Icaria.
- Gandarias Goikoetxea, Itziar. 2017. «Aliantzak, aniztasuna eta horien arteko elkarguneak». *Jakin*, 221–222 zenb: 91–106.
- Garcés, Marina. 2002. *En las prisiones de lo posible*. Barcelona: Bellaterra.
- . 2013. *Un mundo común*. Serie general universitaria 131. Barcelona: Bellaterra.
- . 2017. *Nueva ilustración radical*. Nuevos cuadernos Anagrama 4. Barcelona: Anagrama.
- García López, Daniel J. 2016. *Rara avis: una teoría queer impolítica*. UHF. Santa Cruz de Tenerife: Melusina.
- Gatti, Gabriel (ed.). 2017. *Un Mundo de Víctimas*. Barcelona: Anthropos.
- Gil, Silvia L. 2011. *Nuevos feminismos: sentidos comunes en la dispersión: una historia de trayectorias y rupturas en el Estado español*. Madrid: Traficantes de Sueños.
- Glaser, Barney, eta Anselm Strauss. 1967. *The Discovery of Grounded Theory: Strategies for Qualitative Research*. Chicago: Aldine Publishers.
- . 2005. *Awareness Of Dying*. Transaction Publishers.

- Goffman, Erving. 1963. *Stigma. Notes on the management of spoiled identity*. New Jersey: Spectrum.
- Gómez, María. 2018. «Intersexualidades: conversaciones entre madres e hijas Un acercamiento teórico-metodológico a los cuerpos no binarios.» Master Amaierako Lana, Leioa: UPV/EHU.
- González, Ana Cecilia, eta José Enrique Ema. 2017. «¿Del “alma bella” al “cuerpo feo”? Un análisis materialista de la subjetividad política.» *Athenea Digital. Revista de pensamiento e investigación social* 17 (1): 231.
- Gould, Deborah B. 2009. *Moving politics: emotion and act up's fight against AIDS*. Chicago: The University of Chicago Press.
- Gregori Flor, Nuria. 2006. «Los cuerpos ficticios de la biomedicina. El proceso de construcción del género en los protocolos médicos de asignación de sexo en bebés intersexuales.» *AIBR. Revista de Antropología Iberoamericana* 01 (01): 103–24.
- Grosso, Alejandro. 2011. «Tres versiones contemporáneas de la comunidad: Hacia una teoría política post-fundacionalista.» *Revista de Filosofía y Teoría Política*, 42. zenb: 49–68.
- Guilló Arakistain, Miren. 2020. «Hilekoaren politika eta kultura alternatiboen etnografia bat: genero-konfigurazioak, gorputzahalduntzea eta ezagutza kolektiboak.» Doktore Tesia, Donostia: UPV/EHU.
- Gutierrez Gomez, Arrate. 2017. «Violencia performativa contra las agresiones machistas en Euskal Herria.» Master Amaierako Lana, Granada: Universidad de Granada. Instituto Universitario de Estudios de las Mujeres y de Género.
- Halberstam, Judith. 1998. *Female Masculinity*. Durham: Duke University Press.
- . 2005. *In a queer time and place: transgender bodies, subcultural lives*. Sexual cultures. New York: New York University Press.
- . 2011. *The Queer Art of Failure*. Durham: Duke Univ. Press.
- Halley, Janet. 2008. *Split Decisions: How and Why to Take a Break from Feminism*. Princeton: Princeton University Press.
- Haraway, Donna Jeanne. 1995. *Ciencia, cyborgs y mujeres: la reinención de la naturaleza*. Universitat de València.
- . 2004. *Testigo Modesto@Segundo Milenio. HombreHembra Conoce Oncoratónb: feminismo y tecnociencia*. Barcelona: UOC.
- . 2019. *Las promesas de los monstruos: ensayos sobre ciencia, naturaleza y otros inadaptables*. Barcelona: Holobionte.
- Harding, Sandra. 1996. *Ciencia y feminismo*. Madrid: Morata.
- Harvey, David. 2018. *Justicia, naturaleza y la geografía de la diferencia*. Madrid; Quito: Traficantes de sueños; Instituto de Altos Estudios Nacionales.
- Hennessy, Rosemary. 1994. «Queer Visibility in Commodity Culture.» *Cultural Critique*, 29. zenb: 31–76.
- Hester, Helen. 2018. *Xenofeminismo: tecnologías de género y políticas de reproducción*. -(E)k itzulia Toni Navarro eta Hugo Salas. Buenos Aires: Gajanegra.
- Hochschild, Arlie Russell. 1985. *The managed heart: commercialization of human feeling*. Berkeley: University of California.
- Hocquenghem, Guy. 1993. *Homosexual Desire*. Series Q. Durham: Duke University Press.
- . 2009. *El deseo homosexual*. Santa Cruz de Tenerife: Melusina.
- Ibáñez, Tomás. 2017. *Anarquismos a contratiempo*. Primera edición. Ensayo. Barcelona: Virus.
- Ippolita Colectivo. 2010. *El lado oscuro de Google: historia y futuro de la industria de los metadatos*. Barcelona: Virus.
- Irigaray, Luce. 2009. *Ese sexo que no es uno*. Madrid: Akal.
- Jacobus, Mary, Evelyn Fox Keller, eta Sally Shuttleworth, arg. 1990. *Body/politics: women and the discourses of science*. New York: Routledge.
- Jordan Arrieta, Amets. 2014. «Luma, camp kultura eta euskal identitate lumadunak.» Master Amaierako Lana. Donostia: Ikerketa Feministak Eta Generokoak Masterra UPV/EHU.

- Joxemi Zumalabe Fundazioa. 2011. «Ideia, ardatz eta apustu nagusiak. Herrigintzaren inguruko gogoeta». Web dokumentua. <https://labur.eus/R3OXu>etik hartua (2020ko apirilak 30ean kontsultatua).
- . 2014. *Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantzia eta horizontaltasunaz hausnartzen*. Donostia: Joxemi Zumalabe Fundazioa.
- . 2018. «Eraso matxisten inguruko protokoloa». Donostia: Joxemi Zumalabe Fundazioa. Web dokumentua. <https://labur.eus/VhaVD>etik hartua (2020ko apirilak 30ean kontsultatua).
- . 2019. «Gatazkak. Borroka moldeak eta kultura politikoa herri mugimenduetan». Donostia: Joxemi Zumalabe Fundazioa.
- Krukowski, Damon. 2017. *The New analog: cómo escuchar y reconectarnos en el mundo digital*. Barcelona: Alpha Decay.
- Kuhn, Thomas. 2004. *Estructura de las revoluciones científicas*. Buenos Aires: Fondo de cultura económica.
- Kuntsman, Adi. 2008. «The Soldier and the Terrorist: Sexy Nationalism, Queer Violence». *Sexualities* 11 (1-2): 142-70.
- Kvale, Steinar. 1996. *Interviews: an introduction to qualitative research interviewing*. Thousand Oaks, Calif: Sage Publications.
- Langarita Adiego, José Antonio. 2015. *En tu árbol o en el mío: una aproximación etnográfica a la práctica del sexo anónimo entre hombres*. Barcelona: Bellaterra.
- Larrinaga Renteria, Ane. 2018. «Social movements as emotional contexts: the emotional drive in the Basque linguistic movement». *Athenea Digital. Revista de pensamiento e investigación social* 18 (1): 319.
- Lazar, Michelle M. 2007. «Feminist Critical Discourse Analysis: Articulating a Feminist Discourse Praxis». *Critical Discourse Studies* 4 (2): 141-64.
- Lazo, Gemma Nicolás. 2009. «Debates en epistemología feminista: del empiricismo y el standpoint a las críticas postmodernas sobre el sujeto y el punto de vista», *Género y dominación: críticas feministas del derecho y el poder*. Barcelona: Anthropos.
- Legarreta Iza, Matxalen. 2012. «El tiempo donado en el ámbito domestico-familiar. Estudio sobre el trabajo doméstico y los cuidados». Doktore Tesia, Leioa: UPV/EHU.
- Legarreta, Matxalen, Amaia Perez Orozco, eta Débora Ávila Cantos. 2006. *Transformaciones del trabajo desde una perspectiva feminista. Producción, reproducción, deseo, consumo*. Madrid: Tierra de nadie.
- León, Carolina. 2018. *Trincheras permanentes: intersecciones entre política y cuidados*. Logroño: Pepitas de Calabaza.
- Lewis, Holly. 2016. *The politics of everybody: feminism, queer theory and Marxism at the intersection*. London: Zed Books.
- Lifshitz, Sebastien. 2012. *Les invisibles*. DVD dokumentala. London: Peadarillo Pictures.
- Livia Aga, María. 2018. *Etnografía «terrona» de sujetos excéntricos*. Barcelona: Bellaterra.
- Llamas, Ricardo. 1998. *Teoría torcida: prejuicios y discursos en torno a «la homosexualidad»*. Madrid: Siglo XXI de España Editores.
- Llamas, Ricardo, eta Francisco Javier Vidarte. 2000. *Homografías*. Madrid: Espasa Calpe.
- Llona, Miren. 2010. «Historia en obras: memorias, emociones y subjetividad». In *Subjetividad, Cultura material y Género*, Pilar Perez Fuentes-Hernández. Barcelona: Icaria.
- López Clavel, Pau. 2015. «Tres debates sobre la homonormativización de las identidades gay y lesbiana». *Asparkía: investigación feminista*. 26: 137-153.
- López Romo, Raúl. 2008. *Del gueto a la calle: el movimiento gay y lesbiano en el País Vasco y Navarra, 1975-1983*. Donostia-San Sebastián: Tercera Prensa.
- Lopez, Silvia, eta R. Lucas Platero. 2019. *Cuerpos marcados: vidas que cuentan y políticas públicas*. Barcelona: Bellaterra.
- Lopez Ziluaga, Leire, eta Jokin Azpiazu Carballo. 2017. «Trans*, maricas y bolleras buscándonos en los arrabales de la escena punk». Hitzaldiaren grabaketa. Gordailu pertsonala.

- Lorde, Audre. 1988. «I Am Your Sister: Black Women Organizing Across Sexualities». *Women & Therapy* 6 (4): 25–30.
- . 2007. *Sister outsider: essays and speeches*. Berkeley: Crossing Press.
- . 2018. *Zami: A New Spelling of My Name*. Fiction. London: Penguin Random House.
- Luxán Serrano, Marta, Jokin Azpiazu Carballo, eta Mila Amurrio Vélez. 2018. «Abriendo el cajón de las violencias sexuales. Evaluación local del proyecto USVreact y sus formaciones (UPV/EHU)». Txosten digitala. Leioa: UPV/EHU. <https://labur.eus/wlCOgetik/berreskuratua> (2020ko apirilak 30ean kontsultatua).
- Macaya Andres, Laura. 2019. «Contra o feminismo punitivo. Ferramentas para destruír a casa do amo». *Andaina: revista do movimento feminista galego*, 70. zenb: 28–31.
- Martín-Cabrera, Luis. 2012. «La memoria en el closet: duelo, homonormatividad y herencia paterna en el último cine de Pedro Almodóvar». *Analisis: revista de psicoanálisis y cultura de Castilla y León* 1: 143–56.
- Martínez García, José Saturnino. 2013. *Estructura social y desigualdad en España*. Serie dilemas de la socialdemocracia 431. Madrid: Catarata.
- Martínez Homobono, José Ignacio. 1997. «Fiestas en el ámbito arrantzale. Expresiones de sociabilidad e identidades colectivas». *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 15. zenb: 61–100.
- Martínez Portugal, Tania. 2019. «Narrativas de mujeres sobre violencia sexista en las comunidades activistas del País Vasco». Doktore tesia. Ikerketa Feministak eta Generokoak doktorego programa, Leioa: UPV/EHU.
- Martínez, Zesar. 2003. *Aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritza: globalizazio neoliberalari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Martínez-Palacios, Jone. 2017. *Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias*. Barcelona: Icaria.
- Martínez Palacios, Jone, Igor Ahedo Gurrutxaga, Alicia Suso Mendaza, eta Zuriñe Rodríguez Lara. 2018. «El estudio de las innovaciones democráticas feministas: una mirada al País Vasco». *Innovaciones democráticas feministas*, 2018, 85–272. Dykinson.
- McCall, Leslie. 2005. «The Complexity of Intersectionality». *Signs: Journal of Women in Culture and Society* 30 (3): 1771–1800.
- Melucci, Alberto. 1999. *Acción colectiva, vida cotidiana y democracia*. 1. ed. México D.F: El Colegio de México.
- Mendia Azkue, Irantzu, Marta Luxán, Matxalen Legarreta, Gloria Guzman, Iker Zirion, eta Jokin Azpiazu Carballo, arg. 2015. *Otras formas de (re)conocer: reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. Bilbao; Tarragona: Euskal Herriko Unibertsitatea Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua; Universidad Rovira i Virgili Seminari Interdisciplinar de Metodologia de Recerca Feminista.
- Mendiola Gonzalo, Ignacio. 2006. *Elogio de la mentira: en torno a una sociología de la mendacidad*. Desórdenes. Biblioteca de ensayo 21. Madrid: Lengua de Trapo.
- . 2014. *Habitar lo inhabitable: la práctica político-punitiva de la tortura*. Serie general universitaria 153. Barcelona: Bellaterra.
- Mérida Jiménez, Rafael M., arg. 2018. *Ocaña: voces, ecos y distorsiones*. Serie general universitaria 211. Barcelona: Edicions Bellaterra.
- Mezzadra, Sandro. 2014. *La cocina de Marx: el sujeto y su producción*. Buenos Aires: Tinta Limón.
- Mezzadra, Sandro, eta Mario Neumann. 2019. *Clase y diversidad: sin trampas*. Iruña: Katakarak.
- Mieli, Mario. 2017. *Towards a Gay Communism: Elements of a Homosexual Critique*. London: Pluto Press.
- Mira, Alberto. 2008. *Miradas insumisas: gays y lesbianas en el cine*. Colección G. Barcelona: Egales.
- Missé, Miquel. 2013. *Transexualidades: otras miradas posibles*. Colección G. Barcelona: Egales.
- . 2018. *A la conquista del cuerpo equivocado*. Colección G. Barcelona: Egales.
- Mogrovejo Aquise, Norma. 2018. *Del sexilio al matrimonio: ciudadanía sexual en la era del Consumo Neoliberal: dos estudios de caso*. Bilbao: DDT Banaketak.

- Moreno Sánchez, Angel eta José Ignacio Pichardo Galán. 2006. «Homonormatividad y existencia sexual: amistades peligrosas entre género y sexualidad». *AIBR: Revista de Antropología Iberoamericana* 1 (1): 143–56.
- Moscoso, Javier, eta Juan Manuel Zaragoza. 2017. «Presentación: Comunidades emocionales y cambio social». *Revista de Estudios Sociales* No.35 62: 2–9.
- Olasagarre, Juanjo. 2000. *Puskak biziz*. Poesía. Zarautz: Susa; Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa.
- . 2017. *Poz aldrebesa*. Narratiba 118. Zarautz: Susa.
- Ortubay Fuentes, Miren. 2015. «Cuando La Respuesta Penal a La Violencia Sexista Se Vuelve Contra Las Mujeres: Las Contradenuncias (When the Criminal Response to Gender-Based Violence Turns Against Women: Counterclaims)». SSRN Scholarly Paper ID 2612114. Rochester, NY: Social Science Research Network.
- Osborne, Raquel. 1989. *Las mujeres en la encrucijada de la sexualidad: una aproximación desde el feminismo*. Cuadernos inacabados. Barcelona: LaSal, Edicions de les Dones.
- . 1993. *La construcción sexual de la realidad: un debate en la sociología contemporánea de la mujer*. Feminismos 14. Madrid: Cátedra.
- Papadopoulos, Dimitris. 2018. *Experimental practice: technoscience, alterontologies, and more-than-social movements*. Experimental futures. Durham: Duke University Press.
- Passerini, Luisa. 2006. *Memoria y utopía la primacía de la intersubjetividad*. Valencia: Universitat de València, Editorial Universidad de Granada.
- Paya, Xabier, eta Fredi Paia. 2008. *Aupa Maurizia!* Zarautz: Bizkaiko Trikitixa Elkartea.
- Pepin-Neff, Christopher, eta Thomas Wynter. 2019. «The Costs of Pride: Survey Results from LGBTQI Activists in the United States, United Kingdom, South Africa, and Australia». *Politics & Gender*, ekainak, 1–27.
- Pérez Orozco, Amaia. 2017. *Subversión feminista de la economía: aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*. Madrid: Traficantes de Sueños.
- Perez Orozco, Amaia, Denise Paiewonski, eta Mar Garcia Dominguez. 2008. *Cruzando fronteras II: Migración y desarrollo desde una perspectiva de género*. Republica Dominicana: UN-Instraw.
- Platero, R. Lucas, arg. 2008. *Lesbianas: discursos y representaciones*. Barcelona: Melusina.
- . 2013. «La interseccionalidad en las políticas públicas sobre la ciudadanía íntima: los discursos y la agenda política española (1995-2012)». Doktore Tesia, UNED. Universidad Nacional de Educación a Distancia.
- . 2012. *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Barcelona: Bellaterra.
- . 2014. *Trans*sexualidades acompañamiento, factores de salud y recursos educativos*. Barcelona: Bellaterra.
- Platero, R. Lucas, María Rosón, eta Esther Ortega Arjonilla, arg. 2017. *Barbarismos queer y otras esdrújulas*. Serie general universitaria 202. Barcelona: Bellaterra.
- Preciado, Beatriz. 2008. *Testo yonqui*. Espasa forum. Pozuelo de Alarcón (Madrid): Espasa Calpe.
- Puar, Jasbir K. 2013. «Rethinking Homonationalism». *International Journal of Middle East Studies* 45 (2): 336–39.
- . 2017. *Ensamblajes terroristas: el homonacionalismo en tiempos queer*. Barcelona: Bellaterra.
- Ramírez-Goikoetxea, Eugenia. 1984. «Cuadrillas En El País Vasco: Identidad Local y Revitalización Étnica». *Reis*, zenb. 25: 213.
- Reynolds, Simon. 2017. Como un golpe de rayo: el glam y su legado, de los setenta al siglo XXI. Buenos Aires: Caja Negra.
- Reynolds, Simon, eta Joy Press. 1996. *The Sex Revolts: Gender, Rebellion, and Rock'n'roll*. Cambridge: Harvard University Press.
- Rich, Adrienne. 1980. «Compulsory Heterosexuality and Lesbian Existence». *Signs* 5 (4): 631–60.
- . 1984. «Notes towards a politics of location». *Feminist postcolonial theory: A reader*. Lewis, Reina eta Sara Mills (arg.). New York: Routledge.
- . 1999. «Apuntes para una política de la ubicación (1984)». In *Otramente, lectura y escritura feministas, 1999*, 31–51. Fondo de Cultura Económica.

- Rivera, Sylvia, eta Marsha P Johnson. 2015. «S.T.A.R.» *Acción Travesti Callejera Revolucionaria: supervivencia, revuelta y lucha trans antagonista*. Valencia: Imperdible
- Rodó-de-Zárate, Maria. 2012. «Commentary on “The Complexity of Intersectionality” by Leslie McCall». *Humana.mente Journal of Philosophical Studies* 22: 189–97.
- Romero Bachiller, Carmen, Silvia García Dauder, eta Carlos Bagueiras Martínez. 2005. *El eje del mal es heterosexual: figuraciones, movimientos y prácticas feministas «queer»*. Madrid: Traficantes de Sueños.
- Roth, Benita. 2017. *The life and death of ACT UP/LA: anti-AIDS activism in Los Angeles from the 1980s to the 2000s*. New York: Cambridge University Press.
- Rubin, Gayle. 1989. «Reflexionando sobre el sexo. Notas para una teoría radical de la sexualidad». In *Placer y peligro. Explorando la sexualidad femenina*, Carole Vance (arg.), 113–90. Madrid: Revolución.
- Rueda, Lupicinio Íñiguez. 2006. *Análisis del discurso: Manual para las ciencias sociales*. Barcelona: Editorial UOC.
- Ruiz Torrado, María. 2016. «Kartzela genero-erakunde bezala: genero-bereizkeriak, erresistentzia-praktikak eta agentzia Euskal Herrian espetxeratutako emakumeen artean». Doktore Tesia, UPV/EHU.
- Sabsay, Leticia. 2016. *The political imaginary of sexual freedom: subjectivity and power in the new sexual democratic turn*. Studies in the psychosocial. London: Palgrave Macmillan.
- Sadurní, Núria, eta Joan Pujol. 2016. «Homonacionalismo en Cataluña: una visión desde el activismo LGTBI». *Universitas Psychologica* 14 (5): 1809.
- Sáez, Javier. 2008. *Teoría queer y psicoanálisis*. Madrid, España: Síntesis.
- Saez Tajafuerce, Begonya, arg. 2014. *Cuerpo, memoria y representación: Adriana Cavarero y Judith Butler en diálogo*. Primera edición. Akademeia. Mujeres y culturas 150. Barcelona: Icaria.
- Sagastizabal Emilio-Yus, Marina. 2017. «La triple presencia: estudios sobre el trabajo doméstico-familiar, el empleo y la participación sociopolítica». Doktore Tesia, Leioa: UPV/EHU.
- Said, Edward W. 1990. *Orientalismo*. Madrid: Libertarias.
- Santos, Boaventura de Sousa. 2006. *Renovar la teoría crítica y reinventar la emancipación social: encuentros en Buenos Aires*. Colección Edición y distribución cooperativa. Buenos Aires: CLACSO: Universidad de Buenos Aires, Facultad de Ciencias Sociales, Instituto de Investigaciones Gino Germani.
- Scott, Joan W. 1991. «The Evidence of Experience». *Critical Inquiry* 17 (4): 773–97.
- Sedgwick, Eve Kosofsky. 2008. *Epistemology of the Closet*. Berkeley; Los Angeles; London: University of California Press.
- Segato, Rita Laura. 2016. *La guerra contra las mujeres*. Mapas 45. Madrid: Traficantes de Sueños.
- Semler, Camilo. 2019. «Politics of Vulnerability: The Body and Social Struggles in Contemporary Social Theory». *Athenea Digital. Revista de pensamiento e investigación social* 19 (3): 2487.
- Seminario de justicia feminista. 2019. «La justicia feminista a debate. Ponencia para las V. Jornadas Feministas de Euskal Herria. Durango, 1-3 de noviembre 2019». Ponentzia. Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan aurkeztua, Durango.
- Skeggs, Beverley. 1997. *Formations of class and gender: becoming respectable*. Theory, culture & society. London; Thousand Oaks: SAGE.
- Smicek, Nick. 2018. *Capitalismo de plataformas*. Buenos Aires: Caja Negra.
- Solà, Miriam, eta Elena Urko, arg. 2013. *Transfeminismos: epistemes, fricciones y flujos*. Tafalla: Txalaparta.
- Soley-Beltran, Patrícia, eta Leticia Sabsay. 2012. *Judith Butler en disputa: lecturas sobre la performatividad*. Barcelona: Egales.
- Spade, Dean. 2015. *Una vida «normal»: la violencia administrativa, la política trans crítica y los límites de derecho*. Barcelona: Bellaterra.
- Spivak, Gayatri Chakravorty. 1990. *The post-colonial critic: interviews, strategies, dialogues*. Sarah Harasym (arg.). New York: Routledge.

- Stryker, Susan. 2008. «Transgender History, Homonormativity, and Disciplinarity». *Radical History Review* 2008 (100): 145–57.
- . 2017. *Historia de lo trans: las raíces de la revolución de hoy*. Madrid: Continta Me Tienes.
- Suárez Briones, Beatriz, arg. 2014. *Feminismos lesbianos y queer: representación, visibilidad y políticas*. Primera edición. Calíope 6. Madrid: Plaza y Valdés Editores.
- Subrat, Piro. 2019. *Invertidos y rompepatrias. Marxismo, anarquismo y desobediencia sexual y de género en el estado español (1868-1982)*. Valencia: Imperdible.
- Taylor, Verta, eta Nancy Whittier. 1992. «Collective Identity in Social Movement Communities. Lesbian Feminist Mobilization». In *Frontiers in Social Movement Theory*, Adon D. Morris eta Carol McClurg Mueller. Yale University Press.
- Terradas Saborit, Ignasi. 2004. «La contradicción entre identidad vivida e identificación jurídico-política». *Quaderns de l'Institut Català d'Antropologia*, zenb. 20: 63–79.
- Tobias, Saul. 2005. «Foucault on Freedom and Capabilities». *Theory, Culture & Society* 22 (4): 65–85.
- Toledo, Patsilí, eta Montse Pineda. 2016. «L'abordatge de les violències sexuals a Catalunya». Barcelona: Grup de recerca Antígona i Creació Positiva.
- Toop, David. 2013. *Resonancia siniestra: el oyente como médium*. Buenos Aires: Caja Negra.
- Topatu Gazte Komunikazio Proiektua eta Bilgune Feminista. 2014. *Arrakala. Zirrikitu bat haitzean*. DVD dokumentala. Iruñea: Topatu; Bilgune Feminista.
- Trinidad Requena, Antonio. 2006. *Teoría fundamentada, «grounded theory»: la construcción de la teoría a través del análisis interpretacional*. 1. ed. Cuadernos metodológicos 37. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Val del Omar, José. 2010. *Escritos de técnica, poética y mística*. Coup de dés. Madrid: Ediciones de La Central: MNCARS.
- Vance, Carole S. 1989. *Placer y peligro: explorando la sexualidad femenina*. Madrid: Revolución.
- Van Dijk, Teun Adrianus. 2003. *Ideología y Discurso*. Madrid: Planeta.
- Vercauteren, David, Olivier Grabbé, eta Thierry Müller. 2010. *Micropolíticas de los grupos para una ecología de las prácticas colectivas*. Madrid: Traficantes de Sueños.
- Vidarte, Francisco Javier. 2007. *Ética marica: proclamas libertarias para una militancia LGTBQ*. Colección G. Barcelona: Egales.
- West, Candace, Michelle M Lazar, eta Cheris Kramarae. 2000. «El género en el discurso», *El discurso como interacción social: estudios del discurso, introducción multidisciplinaria*. Van Dijk, Teun Adrianus (arg.), Barcelona: Gedisa.
- Westbrook, Laurel, eta Kristen Schilt. 2014. «Doing Gender, Determining Gender: Transgender People, Gender Panics, and the Maintenance of the Sex/Gender/Sexuality System». *Gender & Society* 28 (1): 32–57.
- Whiteley, Sheila, eta Jennifer Rycenga, arg. 2006. *Queering the popular pitch*. New York: Routledge.
- Wittig, Monique. 2006. *El pensamiento heterosexual y otros artículos*. Madrid: Egales.
- Yang, Jenny Chan, Xu Lizhi, Li Fei, eta Zhang Xiaoqio. 2019. *La máquina es tu amo y señor*. Folletos. Barcelona: Virus.
- Yosef, Raz. 2004. *Beyond flesh: queer masculinities and nationalism in Israeli cinema*. New Brunswick: Rutgers University Press.
- Zabala González, Begoña. 2008. *Movimiento de mujeres mujeres en movimiento*. Tafalla: Txalaparta.
- Zanghellini, Aleardo. 2012. «Are Gay Rights Islamophobic? A Critique of Some Uses of the Concept of Homonationalism in Activism and Academia». *Social & Legal Studies* 21 (3): 357–74.
- Ziga, Itziar. 2009. *Devenir perra*. 1. ed. Barcelona: Melusina.